

EUSKAITZAINDIA

EUSKAL GRAMATIKA

**LEHEN URRATSAK-VI
(MENDEKO PERPAUSAK-2)**

Euskal Gramatika. Lehen Urratsak - VI:
Mendeko perpausak - 2

Sail honetako aurreko gramatiketan perpaus bakunaren egitura, aditza, testua antolatzeke lokailuak eta perpaus juntatuak landu ondoren, oraingo honetan mendeko perpausen azterketari lotu zaio Euskaltzaindiko Gramatika batzordea. Menderakuntzari eskainiko dizkion hiru liburuetatik bigarrena da EGLU VI liburuki hau. Aurrekoan eta honako honetan aditz jokatudun perpaus mendekoak aztertuko dira, eta azkenean, aditz jokatugabea dutenak. Zalantzarik gabe esan daiteke aztertutako perpaus mota hauek (aditz jokatuduna duten baldintzazkoak, denborazkoak, helburuzkoak, kausazkoak, kontzesiozkoak eta moduzkoak) orain arteko euskal gramatiketan nekez ikus daitekeen zehaztasun eta xehetasunarekin deskribatu direla EGLU VI liburuki honetan.



EUSKAL GRAMATIKA

LEHEN URRATSAK - VI:

(MENDEKO PERPAUSAK - 2:

**baldintzazkoak, denborazkoak, helburuzkoak, kausazkoak,
kontzesiozkoak eta moduzkoak)**

GRAMATIKA BATZORDEA

EUSKALTZAINDIA

2005



**EUSKALTZAINDIA
GRAMATIKA BATZORDEA**

**EUSKAL GRAMATIKA
LEHEN URRATSAK - VI:**

(MENDEKO PERPAUSAK - 2:

**baldintzazkoak, denborazkoak, helburuzkoak, kausazkoak,
kontzesiozkoak eta moduzkoak)**

2005

Osorik edo zatiz, eskuz, makinaz zein informatikaz kopiazea, baimenik gabe, galarazirik dago.

© Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia / A.L.B.
Plaza Barria, 15 - 48005 Bilbo

<http://www.euskaltzaindia.net>
info@euskaltzaindia.net

Inprimategia: Elkar-mccgraphics
Larrondo Beheko Etorbidea, Edif. 4 - 48180 Loiu (Bizkaia)

ISBN: 84 - 95438 - 20 - 8
L.G.: BI - 2963 - 04

GRAMATIKA BATZORDEA

Burua: Altuna, Patxi

Idazkaria: Makazaga, Jesus Mari

Kideak:

Amundarain, Iñaki

Azkarate, Miren

Baraiazarra, Luis

Charritton, Pierre

Eguzkitza, Andolin †

Garzia, Juan

Goenaga, Patxi

Iriarte, Nora

King, Alan

Laka, Itziar

Larrarte, Jose Mari †

Lasarte, M^a Pilar

Mujika, Jose Antonio

Oyharçabal, Beñat

Ondarra, Francisco

Rekalde, Paskual

Rotaetxe, Karnele

Salaburu, Pello

EGLU-VI

Txostengileak:

Altuna, Patxi
Baratazarra, Luis
Eguzkitza, Andolin †
Goenaga, Patxi
Makazaga, Jesus Mari
Mujika, Jose Antonio
Oyharçabal, Beñat
Rotaetxe, Karnele
Salaburu, Pello

Laguntzaileak:

Amundarain, Iñaki
Azkarate, Miren
Charritton, Pierre
Garzia, Juan
Iriarte, Nora
King, Alan
Laka, Itziar
Larrarte, Jose Mari †
Lasarte, M^a Pilar
Ondarra, Francisco
Rekalde, Paskual

Azken moldatzaileak:

Rekalde, Paskual
Salaburu, Pello

AURKIBIDEA

AURKEZPEN OROKORRA	1
1. BALDINTZA PERPAUSAK	11
1.1. KAPITULU HONEN AZTERGAIA ETA DEITUREI BURUZKO ARGIBIDEAK	11
1.1.1. BA-perpaus osagarriak.....	12
1.1.2. Baldintza perpausa konparazio hitzen osagarri.....	13
1.1.3. Balio semantiko berezia duten BA-perpaus adjunktua: helburuzkoak, kontzesiboak	13
1.1.4. BA-perpauzez beste baldintza perpausak	14
1.2. BALDINTZA PERPAUSAK ZER DIREN	15
1.2.1. Baldintza eta kausa	15
1.2.2. Baldintza eta denborazko aldiberekotasuna.....	16
1.2.3. Baldintza eta hipotesia	17
1.2.4. Solas jokoak eta inferentzia bidezko erabilerak	18
1.3. BALDINTZA PERPAUSEN AURKEZPEN OROKORRA	21
1.3.1. BA- aurnzkia.....	21
1.3.2. BALDIN lokailu indargarria	22
1.3.3. Baldintza perpausaren nolakotasuna	23
1.3.4. Baldintza perpausa perpaus mintzagai gisa.....	24
1.3.5. Baldintzadun perpausak mendeko perpausak direnean.....	25
1.3.6. Baldintza perpausen bameko osagai ordena	26
1.4. BALDINTZA PERPAUSEN SAILKAPEN NAGUSIA	27
1.4.1. Baldintza irrealak eta baldintza errealak.....	27
1.4.2. Aspektu oposizioak baldintza irrealatan	29
1.4.3. Baldintza eta ondore perpausen arteko alegialdiko komunztadura	30
1.4.3.1. Alegialdiko komunztadura.....	30
1.4.3.2. Tempus komunztadura arazoak zehar-solasetan	31
1.5. BALDINTZA PERPAUSEN AZTERKETA	32
1.5.1. Alegialdiko baldintza perpausak: baldintza irrealak	33
1.5.1.1. Aspektu burutua duten alegialdiko baldintza perpaus arruntak (etorri balitz, ekarri balu).....	33
a. KE modu morfemaren erabilera iraganaldiko ondore perpaus kontrafaktualetan (etorri(ko) zatekeen, ikusi(ko) zukeen).....	34
b. Aspektu burutua aditz laguntzailearen partizipio burutuak	35
indartzen duelarik (etorri izan banintz, ekarri izan banu).....	35
c. Ahalezko adizkera iraganaldian duten ondore perpausak (etorri balitz, ikus zezakeen).....	36
d. Baldintza eta ondore perpausen arteko aspektu edota tempus komunztadura	36
e. Aspektu burutua duten iraganaldiko kontrafaktualak (jaino ez baginen).....	38
1.5.1.2. Aspektu burutua ez duten alegialdiko baldintza perpausak	38
a. Baldintza perpausako aditza: alegialdiko adizkera trinkoa (balego, baleki).....	39

b. Baldintza perpauseko adizkera: [+burutua] aspektu ezaugarria ez duten alegialdiko adizkerak (<i>etorriko / etortzen balitz, ekarriko / ekartzen banu</i>).....	41
c. Baldintza perpauseko adizkera: aspektu markarik gabeko alegialdiko adizkera perifrastikoa (<i>etor baledi, ikus baleza</i>)	45
d. Alegialdiko ahalezko adizkera duten baldintza perpausak (<i>ikus balezake, ikus ahal baleza, ikusten ahal batu, ikusi ahal izango batu</i>)	47
e. Ohar bat alegialdia duten protasirik gabeko perpausez.....	48
1.5.2. Alegialdia ez dakarten baldintza perpausak: baldintza errealak.....	50
1.5.2.1. Aspektu burutua duten orainaldiko baldintza perpausak (<i>ibili bada, ekarri badu</i>)	51
1.5.2.2. Aspektu burutua duten iraganaldiko baldintza perpausak (<i>ibili bazen, ekarri bazuen</i>).....	52
1.5.2.3. Aspektu burutugabea duten orainaldiko baldintza perpausak (<i>ibiltzen bada, ekartzen badu</i>)	54
1.5.2.4. Aspektu burutugabea duten iraganaldiko baldintza perpausak (<i>ibiltzen bazen, ekartzen bazuen</i>).....	56
1.5.2.5. Orainaldiko adizkera trinkoa duten orainaldiko baldintza perpausak (<i>(baldin) badator, (baldin) bedakar</i>)	57
1.5.2.6. Iraganaldiko adizkera trinkoa duten iraganaldiko baldintza perpausak (<i>baldin bazetorren, baldin bazekarren</i>)	58
1.5.2.7. Ahalezko adizkera duten baldintza perpausak (<i>etor badaiteke / bazitekeen, ekar badezake / bazezakeen</i>)	59
1.5.2.8. Aspektu markarik gabeko orainaldiko baldintza perpausak (<i>etor badadi, ekar badezat</i>)	60
1.5.2.9. BER enklitikoa orainaldiko baldintza perpausetan	60
1.5.2.10. NON (ETA) EZ ... -eN perpausak.....	61
LABURPENA	63
2. DENBORAZKO PERPAUSAK	71
2.0. SARRERA	71
2.0.1. Denborazko perpausen funtzioa	71
2.0.2. Denborazko perpausen forma. Menderatzaileak.....	72
2.0.3. Denborazko perpausen barneko ordena	75
2.0.4. Denborazko perpausen sailkapena.....	76
2.1. ALDIBEREKOTASUNA ADIERAZTEN DUTEN PERPAUSAK	77
2.1.1. Aldiberekotasunaren adierazpen orokorrak.....	77
2.1.1.1. -eNEAN.....	77
2.1.1.2. -eLA eta -eLARIK.....	82
2.1.1.3. NOIZ ETA ... BAIT- / -eN korrelaziozko perpausak	85
2.1.2. Aldiberekotasun errepikatua.....	88
2.1.2.1. -eNETAN plurala	89
2.1.2.2. -eN BAKOITZEAN, -eN GUZTIETAN, -eN ALDIKAL.....	89
2.1.2.3. 'Zenbat aldiz -eN ... hainbat aldiz' gisako korrelazioa	90
2.1.3. Aldiberekotasun estua.....	90
2.1.3.1. -eNEKO.....	91
2.1.3.2. -eN ORDUKO.....	94
2.1.3.3. -eN BEZAIN LASTER / SARRI / AGUDO / FITE.....	95

2.1.3.4. -eN BER.....	97
2.1.3.5. -eNAZ BATERA.....	98
2.2. ALDI DESBERDINTASUNA ADIERAZTEN DUTEN PERPAUSAK.....	98
2.2.1. <i>Aurrekotasuna</i>	99
2.2.1.1. -eN BAINO LEHEN.....	99
2.2.1.2. -eN AURREAN, -eN AITZINEAN.....	100
2.2.2. <i>Ondokotasuna</i>	101
2.2.2.1. -eN ONDOAN.....	101
2.2.2.2. -eN OSTEAN.....	102
2.3. IRAUPENA ADIERAZTEN DUTEN PERPAUSAK.....	102
2.3.1. <i>Iraupenaren aurreko muga</i>	103
2.3.1.1. -eNETIK.....	104
2.3.1.2. -eNEZ GERO.....	106
2.3.1.3. -eNIK ...-rA.....	109
2.3.2. <i>Iraupenaren azken muga</i>	109
2.3.2.1. -eN ARTE.....	109
2.3.3. <i>Iraupenaren tartel osoa</i>	112
2.3.3.1. -eNO.....	112
2.3.3.2. -eN BITARTEAN.....	114
2.3.3.3. -eN ARTEAN.....	117
2.3.3.4. -eN ARTEKO.....	118
2.3.4. <i>Azken muga adierazten dutenak ezezka emanak direnean</i>	118
2.4. DENBORAREN ERREFERENTZIA ESALDI NAGUSIAN DUTEN PERPAUSAK.....	120
2.4.1. NOIZ ETA (ERE) / NOIZ ERE ... BAIT-.....	120
2.5. GERTAKARIAK KRONOLOGIARI KOKATZEN DITUZTEN PERPAUSAK.....	122
2.5.1. DUELA / ORAIN DELA + [zenbatzailea - denbora izena].....	123
2.5.2. -eNETIK + [zenbatzailea - denbora izena]POSTPOSIZIOA.....	125
LABURPENA.....	127
3. HELBURUZKO PERPAUSAK.....	137
3.1. HELBURUZKO PERPAUSEN BEREIZGARRI BATZUK: ONDORIOA ETA ASMOA.....	137
3.1.1. <i>Perpauis kausalak eta helburuzkoak</i>	138
3.1.2. <i>Helburuzkoak eta ondoriozkoak</i>	139
3.1.3. <i>Helburuzkoak, kausalak eta ondoriozkoak</i>	140
3.2. BESTE NABARDURA BATZUK.....	141
3.2.1. <i>Subjektu bizigabea duten perpauisak</i>	141
3.2.2. <i>Inpertsionalak</i>	142
3.2.3. <i>Erabilgarritasuna adierazten duten perpauisak</i>	142
3.2.4. <i>Helburua ondorio gisa hartua</i>	143
3.2.5. <i>Helburua, segida kronologiko hutsa</i>	143
3.2.6. <i>Helburua, borondatearen aurkakoa</i>	143
3.2.7. <i>Helburua eta konparazio morfema batzuk</i>	144
3.2.8. <i>Helburuzko eta baldintzazko perpauisak</i>	144
3.3. HELBURUZKO PERPAUS MOTAK: JOKATUAK ETA JOKATUGABEAK.....	146
3.3.1. <i>Perpauis jokatuak eta jokatugabeak</i>	146

3.3.2. Helburuzko perpaus jokatuak	148
3.3.2.1. -eN subjuntiboaren marka	149
3.3.2.2. -eNTZAT formakoak	150
3.3.2.3. NAHIZ eta ARREN lokailuak helburuzko perpausetan	151
3.3.2.4. -eN GATIK formakoak	151
3.3.2.5. AMOREAGATIK formakoak (eta beste ohar balzuk)	152
LABURPENA	155
4. KAUSAZKO PERPAUSAK	159
4.1. KAUSAZKO PERPAUSEN IZAERA	159
4.2. KAUSAZKO PERPAUS BETEAK ETA AZALPENEZKOAK	161
4.2.1. Kausa, arrazoia, motiboa	161
4.2.2. Azalpenak	162
4.3. KAUSAZKO PERPAUSEN SINTAXI IZAERA	165
4.3.1. Kausazko perpaus jokatuak eta jokatugabeak	165
4.3.2. Kausazko perpausen mintzagai-/galdegaitasuna	166
4.3.3. "Kanpoko" eta "barneko" perpaus kausalak	167
4.3.4. Galde-hitzak eta lokailuak kausazko perpausetan eta azalpenetan	169
4.4. PERPAUS KAUSALAK OSATZEKO MODUAK	170
4.4.1. -eLAKO((T)Z)	170
a. Adizlagun ala izenlagun?	170
b. -eLAKO eta -eLAKOAN	171
c. -eLAKO kausalak galdegai?	171
d. -eLAKO + ezeztapena: perpaus kontzesiboa	180
4.4.2. BAIT-	180
a. BAIT- aurrizkia	180
b. BAIT-ekin osatzen diren perpaus menderatuak	180
c. BAIT-dun perpausaren balioa	181
d. BAIT- perpausaren kokagunea	182
e. BAIT- perpausa galde-erantzunetan	184
4.4.3. ZEREN (ETA) ... {BAIT-/eN}	185
a. ZEREN... {BAIT-/eN} kausal beteetan eta azalpenetan	186
b. ZEREN ... {BAIT-/eN} ezkerreko aldean	187
4.4.4. -eNEZ GERO(ZTIK)	189
a. -eNEZ GERO, kausal ala denborazko?	190
b. -eNEZ GEROZTIK	190
c. Partizipioa + -eZ GERO((Z)TIK)	191
d. -eNEZ GERO perpausaren ezaugarri sintaktiko-semantikoak	191
4.4.5. -eNEZ	192
4.4.6. NOLA/ZELAN ... {-eN/ BAIT-}	194
a. NOLA-dun perpausen hitz hurrenkera	196
4.4.7. -eN LEGEZ	197
4.4.8. ETA enklitikoa	198
a. ETA enklitikoa azalpenetan	198
b. ZERGATIK? galderaren erantzun gisa	199
c. BAIT-en eta ETA enklitikoaren arteko antzekotasunak eta aldeak	199
d. Juntadura ala menderakuntza?	200
e. ETA enklitikoaren bidezko azalpenaren kokagunea	203

4.4.9. -eLA ETA	204
4.4.10. X DELA {BIDE/KAUSA/MEDIO...}	205
4.4.11. ZERGATIK + -eN	207
4.4.12. ZERGATIK EZEN ... (-eN)	208
4.4.13. EZEN ... (BAIT-/-eN)	208
a. Lokailu soil gisa (EZEN + Ø)	209
b. Mendeko perpaus gisa (EZEN + BAIT-)	209
LABURPENA	211
5. KONTZESIO PERPAUSAK	215
5.1. SARRERA	215
5.1.1. Kontzesio perpausak zer diren	215
5.1.2. Bestelako egitura batzuekiko antzekotasuna	218
5.1.2.1. Aurkaritzako lokailuak	219
5.1.2.2. Aurkaritzako juntadura	220
5.1.3. Kontzesio perpausetatik hurbil dauden beste egitura batzuk	222
5.1.3.1. Baldintza perpausak	222
5.1.3.2. Beste zenbait adberbio-perpaus (-eLA(RIK), -TUTA, -TURIK...)	224
5.2. KONTZESIO PERPAUSEN EZAUGARRI OROKORRAK	225
5.2.1. Menderagailuak: adibideak	225
5.2.1.1. NAHIZ (ETA) lokailua dutenak	226
5.2.1.2. ARREN postposiziodunak	227
5.2.1.3. ERE lokailudunak	227
5.2.1.4. -GATIK postposiziodunak	228
5.2.1.5. BAINA enklitikoak dutenak	228
5.2.1.6. ZERNAHI, EDOZER...: izenordain zehaztugabea dutenak	228
5.2.1.7. Galdetzaila dutenak: ZEIN ERE, ZENBAT ERE	229
5.2.1.8. Banakaritza	229
5.2.1.9. DATORRENA DATORRELA gisakoak: Aditza, + -eN ... Aditza, + -eLA	229
5.2.1.10. Ø: Kontzesio-gailu berezirik gabek	230
5.2.1.11. Aditz jokatu gabea duten moldeak	230
5.2.2. Kontzesio perpausen funtzioa	231
5.2.3. Kontzesio perpausen kokagunea	233
5.2.4. Kontzesio perpausen barne-hurrenkera	234
5.2.5. ERE lokailuaren garrantzia kontzesio perpausetan	235
5.2.5.1. ERE kontzesio perpausetan	236
5.2.5.2. ERE aurkaritzako lokailuetan	237
5.2.6. Aurkaritzako lokailuak kontzesio perpausen indargarri	238
5.2.7. Aditzaren elipsia	239
5.2.8. Zein aditz motarekin egin daitezkeen kontzesio perpausak	240
5.2.8.1. Aditz jokatuak / jokatu gabeak	240
5.2.8.2. Aditzaren modua: indikatiboa / subjuntiboa	241
5.2.8.3. Alegiazkoak	241
5.2.8.4. Ahalezkoak	242
5.2.8.5. Aginterazkoak	242
5.2.9. Kontzesio-gailuen metatzea	242
5.2.9.1. NAHIZ (ETA) + ARREN	242

5.2.9.2. NAHIZ ETA + BA-... ERE	243
5.2.9.3. ARREN + ERE: aditz jokatugabeekin batez ere.	243
5.2.9.4. -TUAGATIK + ERE: aditz jokatugabeekin	243
5.2.9.5. -eLARIK + ARREN	243
5.2.9.6. Perpaus nagusian aurkaritzako lokailua: ikus (17-22) eta (185-187) adibide sortak.	244
5.3. KONTZESIOA ADIERAZTEN DUTEN EGITURAK	244
5.3.1. NAHIZ lokailuaren bidez eratutako kontzesio perpausak	244
5.3.2. ARREN postposizioa dutenak	250
5.3.3. -GATIK postposizioa dutenak	252
5.3.4. BAINA enklitikoa dutenak	253
5.3.5. -eLA(RIK) menderagailua dutenak	257
5.3.6. (BALDIN) BA-... ERE, baldintzazkoetan oinarrituak	261
5.3.7. GALDETZAILEA + ERE + BAIT-/-eN: NOR ERE BAIT-/-eN, ZEIN ERE BAIT-/-eN, ...	263
5.3.8. Banakaritza-egiturak	265
5.3.9. Perpaus erlatiboa duen kontzesio moldea: DATORRENA DATORRELA gisakoak	267
5.3.10. EDO-galdetzailea / galdetzailea-NAHI + -eLA / -eN + (ERE)	269
5.3.11. Kontzesioa adieraz dezaketen beste zenbait molde	271
5.3.11.1. EZ DELAKOAN ERE	272
5.3.11.2. BAIT-	272
5.3.11.3. ETA	273
5.3.11.4. -eLA(RIK)	274
5.3.11.5. -eLAKO	274
LABURPENA	275
6. MODUZKO PERPAUSAK	287
6.1. SARRERA	287
6.2. -ELA ETA -ELARIK ATZIZKIEZ MARKATURIKO PERPAUSAK	289
6.2.1. -eLA eta -eLARIK atzizkien erabilera	289
6.2.2. -eLA/-eLARIK atzizkidun moduzko perpausak tradizioan	289
6.2.3. -eLA/-eLARIK atzizkidun perpausen kokapena	293
6.2.4. -eLA eta -eLARIK modemen balioak eta trukagarritasuna	293
6.3. ARDATZ GISA IZENA HARTZEN DUTEN PERPAUS ERLATIBOAK	295
6.3.1. Azalpena	295
6.3.2. Adibideak	296
6.3.2.1. Antz: antzera	296
6.3.2.2. Arau: arau, arabera, araberan	297
6.3.2.3. Era: eran, erara	297
6.3.2.4. Gisa: gisan, gisara	297
6.3.2.5. Modu: moduan, modura	297
6.3.2.6. Molde: moldean, moldera	298
6.4. ARDATZ GISA ADITZONDOA HARTZEN DUTEN PERPAUS ERLATIBOAK	298
6.4.1. Azalpena	298
6.4.2. Bezala	298
6.4.3. Legez	299

6.5. GALDEZAILA BATEKIN HORNITURIKO MENDEKO PERPAUSAK	299
6.6. SASIMODUZKOAK	299
LABURPENA	301
BIBLIOGRAFIA	307
A.- BIBLIOGRAFIA	307
<i>A.1.-Literatura lanak</i>	307
<i>A.2.- Aldizkariak, gramatikak, hiztegiak</i>	317
B.- BIBLIOGRAFIA ERA LABURTUAN	318
<i>B.1.- Literatura lanak</i>	318
<i>B.2.- Aldizkariak, gramatikak, hiztegiak</i>	325
GAI AURKIBIDEA	327



AURKEZPEN OROKORRA

Aspaldi hasi zen lanean Gramatika batzordea. Mende laurdena egingo du heldu den urtean. Pixkanaka-pixkanaka, hasieran nondik joan eta nondik jo ongi ez genekiela, hasi ginen liburuki hauek taxutzen, ilxuratzen, moldatzen eta apailatzen. Eztabaida handiak izan ditugu batzordekideen artean, eta eztabaidak batzordean ez dauden euskaltzaleekin ere, behin lanean hasi ondoan berehala konturatu baikinen argi-edo omen zeuden kontuak, ez zirela hain argi ageri hizkuntzaren datuak gurutzean jartzen hasi ginenean, eta anitzetan besterik gabe bazterrean uzten ditugun egitura eta esamoldeak, euskara ez omen direlakoan-edo, ezin direla hain erraz baztertu. Batzuetan gogora ere etorri izan zaigu zenbat eta datu gehiago izan, zenbat eta eskuragarriago izan gure idazleek idatzi izan dutena, zenbat eta hobeki ezagutu euskalkiak, orduan eta zalantza handiagoak sortzen zaizkigula, orduan eta tentu handiagoa izan behar dugula delako egitura edo esamolde hau zuzena, ez hain zuzena, edo okerra dela baieztatzeko orduan.

Gure lanaren emaitza dira orain arte argitaratu diren bost liburukiak eta orain aurkeztzen dugun seigarren hau ere. Zazpigarren batekin bukatuko du Gramatika batzordeak oraingo fase edo aldi hau. Hain zuzen ere, lehenbiziko liburua izan zen beharbada errazena idazteko orduan, edukia hartzen badugu kontuan segurik. Pierre Lafitte euskal gramatikari handia zen garai hartan batzordearen burua, eta taldeak bazituen eskura hainbeste gramatika aurreko urteetan idatziak izan zirenak. Bazen non behatu eta non ikasi. Gero, ordea, gauzak aldatu dira, onerako segur aski ere. Egia da, batetik, gramatikaren atalekin aurrera segitu ahala, puntu asko lehenbiziko aldiz ukitu ditugula, hirugarren liburukian, esaterako, argi eta garbi ikusten denez. Horrek bere zailtasunak ditu, bistan denez. Baina egia da, aldi berean, urte horietan hasi ginela informazio handiagoa modu sistematikoagoan eskuratzen eta arakatzen. *Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)* lan erraldoiaren liburua banaka-banaka hasi ziren kaleratzen eta hango informazioa euskarri informatikoan helarazi zitzaigun. Horrek aldatu zuen, neurri handi batean, lan egiteko modua ere. Handik aitzina ez baitzen aski nor edo nor idazleren baten azken argitalpenean irakurritako esaldien gainean fitxa bat egitea, edo ohar bat hartzea, edo, batzuetan gertatzen zen gisan, nor bere buruaren zoko-zokoan halako esamoldearen berri eurlitzen saiatzea. Hori ez zen nahiko. Urrunago joan behar zen, eta informazio hori modu sistematikoan landu behar zen, informatikak ematen duen indar guztiaz baliatuz, hola egin behar baitira gauzak. Neurri batean bederen, profesionalizatu egin ginela esan daiteke.

Zeren aski harrigarria izan baita, tresneria berriak direla eta, zenbaiten artean nabarmendu izan den jarrera: holako informazioa aldi berean aztertzeko eta erabiltzeko aukerarik ez genuenean, 'halakok hau hola esaten du' entzuten genuen, eta orduan mahai gainean jartzen zen delako idazle horren autoritatea.

Baina gero, idazle batena ez, baizik idazle askoren autoritatea modu sistematikoan erabiltzeko ezustezko aukera etorri zaigunean, badirudi batzuek ez dutela hain argi ikusten informazio horren beharra, eta batzuetan horren garrantzia apaletsi ere nahi izan dute, estatistika kontuak direla argudiatuz, batez ere alde zurretik zituzten usteak direla-eta, lekukoen frogek kontrakoa erakusten baldin bazuten.

Batzordea ez da iritzi horretakoa. Eta horregatik ahalegindu da aldi bakoitzean egiten dituen iradokizun eta baieztapenak behar bezala oinarritzen, batzordekideok euskalkien gainean dugun ezagutzan batetik, eta idazleek gure hizkuntzaren historia idatzi laburrean utzi dituzten lanetan, bestetik.

Perpaus bakuna aztertu ondoren, diskurso eta hizketaldi mailako lokailuak ikertu genituen, euskal gramatikaren ikusmolde berri bat eskaini nahirik. Berehala ekin genion, ordea, perpaus elkartuan arazoari: juntadura, lehenik, eta menderakuntza, ondoren, izan ziren gure gai nagusiak. Azken gai honekin gatoz berriz ere plazara orain.

Guk landu dugun gramatika osoaren eskema zein izan den, labor bada ere, nahi genuke berriz ere ekarri sarrera honetara, irakurleak arrazago koka dezan eskema honen barnean eskuetan duen liburukia.

Abiapuntua (EGLU I eta EGLU II)

Gura lana, euskaldunon gramatika nolakoa den azaltzea da, hiztunok guran dugun gramatika horrek sortzen baititu egunero erabili eta ulertzen ditugun perpausak. Horregatik, perpausa hartzen dugu azalpen honen abiapuntutzat. *EGLU I* an genioen gisan, perpausa baita gramatikaren lehengaia. Perpausaren osagai nagusiak, izen sintagma eta aditz sintagma dira:

- (1) Mirenek gozoki guztiak jan ditu

Perpaus horretan, *EGLUk* eskaini dituen analisisen arabera, izen sintagma ("Mirenek") eta aditz sintagma ("gozoki guztiak jan ditu") bereizten ditugu. Alde batera utziko ditugu hemen gainerako xehetasunak.

Perpausak, aldiz, beste perpausen osagaiak edo atalak izan daitezke, hurrengo adibidean gertalzen den bezala:

- (2) [Mirenek gozoki guztiak jan dituela] esan du Patxi

EGLU liburukietan erakutsi nahi izan dugun gisan, (1) perpausa beste baten barnean ageri zaigu bigarren adibide honetan, eta horregatik esaten dugu *mendekoa* dela. Beraz, eskaintzen dugun gramatikaren deskribapen honen perpausa bere bakardadean nola eratzen den azaldu behar du, horretan saiatu behar da lehenik, eta behin perpausa nola eratzen den azaldu ondoren, era berean saiatu behar gara perpaus hori beste bati loturik ageri denean zer gertatzen den azaltzen.

Gramatikek, hortaz, holako harremanak biltzen dituzte, eta gramatiken deskribapenek, ahal den neurrian behintzat, adierazi behar dute nolakoak diren perpaus barneko osagaien arteko harremanak: osagaiak (edo sintagmak) elkarren artean nola lotzen diren, nolako itxura hartzen duten sintagmek lotura

horien ondorioz, nolako morfologia baliabideak aukeralzen direnaldi bakoitzean harreran horien berri emateko, euskal aditzak, eta abar.

Lokailuak (EGLU III)

Gauza jakina da, hala ere, hizketaldian (edo hizketaldiaren isla den idazkeran), perpausak elkarri josirik agertzen zaizkigula maiz, perpausak ez daudela bakarrik, perpausak bakarrik (dira bakunak, dira elkartuak) ez dutela egin daitekeen azterketa agortzen, arruntean testu luzeago batean (ahozkoan nola idetzian) baitaude josiak, eta han bakarrik hartzen baitituzte hiztunak eman nahi dien esangura osoaren nabardurak. Hizketan, perpausen arteko lotura *lokeiluak* egiten dute. Lokailuak aurkezteko, duten esanahiaren arabera sailkatu ditugu, gramatika deskribatzaileetan ohitura den bezala (nahiz eta anitzetan esanahiaren mugak aski lanbrotsuak izan). Hona segidan sailkapen hau.

■ Testu edo hizketaldi mailako lokailu batzuk emendiozkoak izan daitezke, informazio berri bat emendatzen (gehitzen, gaineratzen) baitute:

(3) Mirenek, *gainera*, gozoki guztiak jan ditu

Horra hor *gainera* delako hori. Horixe da *emendiozko lokeiluak*: aurretik zerbait gertatu dela badakigu, nahiz ez dakigun ongi zer den egin den hori, baina perpausa testuan lertatzeko moduagatik badakigu zerbait gertatu dela, eta gertatu den horretaz gain, Mirenek gozoki guztiak jan dituela. *Gainera* hori bezala badira, jakina, beste emendiozko lokailu zenbait (*behintzat*, *bederen*, *bederik*, *behinik* *behin...*).

■ Beste lokailu batzuk *hautakariak* dira, halako aukera bat gertatzen dela iradokitzen baitute:

(4) Mirenek, *bestela*, gozoki guztiak jango ditu

Horixe da, hain zuzen, *bestela* lokailuak adierazten diguna: beste zerbait gertatu ezean (gozokiak nonbait ezkutatzea, adibidez), Mirenek gozoki guztiak jango dituela. Sail honetakoak ditugu *osterantzean*, *gainerontzean*, *ezpebere...* bezalako lokailuak.

■ Badira *aurkaritzako lokailuak*:

(5) Mirenek, *ordea*, gozoki guztiak jan ditu

Kasu honetan, *ordea* lokailuari esker hain zuzen ere, badakigu zerbait gertatu dela (ez dakigu ongi zer), eta hori Mirenek egin duenaren kontrako zerbait dela: beharbada, norbaitek esana zuen gozokiak ez ukitzeko, edo mahaian bazen haragia eta baziren gozokiak, eta beste norbaitek jan du haragia... Ez dakigu ongi, baina lokailu horrek erakusten digu adierazten denaren edo adieraziak sortu dituen usteen kontrako zerbait gertatu dela hor. Antzeko esanahia izaten dute, tasinguruan, *berriz*, *ostera*, *aidiz*, *aitzitik*, *alebaina*, *dena den...* bezalako aurkaritzako lokailuek.

■ Badira *ondoriozko lokailuak* ere. Ondoriozkoak dira *beraz*, *bada*, *hortaz*, *orduan* edo *honenbestez* bezalako lokailuak. Jakina, aita edo ama batek sukaldetako mahaian uzten baditu gozokiak, eta Miren han baldin bada inguruan

jolasten, eta bakarrik gelditurik, halako batean ama oharren bada mahai gaineko gozokiak desagertu direla, holako zerbait esan lezake:

(6) Mirenek, beraz, gozoki guztiak jan ditu

Hori da ateratzen duen ondorioa, eta holako lokailuek informazio mota hau ematen dutenez, horregatik esaten dugu ondoriozko lokailuak direla.

■ Azkenik, *kausazko lokailuen* artean sartzen ditugu *zeren, zergatik, alabaina, bada, izan ere...* bezalakoak.

(7) Peruk ez du gozokirik probatuko. *Izan ere*, Mirenek guztiak jan ditu

Batzuetan ez da erraza izaten hemen lokailu deitu ditugun hauek ongi sailkatzea gramatikaren barnean, eta zenbaitetan juntagailutzat hartu izan dira. Baina kontuan har dezagun lokailuek ez dutala perpaus bat beste perpaus baten osagai bihurtzen (lokailua ez, baizik menderagailua den *-eLA* atzizkiak, esaterako, hori egiten du), egiten duten gauza bakarra baita, hain zuzen, halako *ñabardura* bat eman bi perpausen artean berez dagoen loturari. Juntagailuen lana perpaus bat beste batekin "jostea" denez, ezin dira juntagailu ezberdin bi erabili perpaus berean. Baina bi juntagailu erabiltzea ezinezkoa bade ere, ez da arazorik izaten lokailu bat juntagailuaren arrimura eramateko, lokailuak ez baitio oztoporik egiten juntagailuari:

(8) *Mikel zintzoa da *eta* zu, *baina*, bihurri samarra

(9) Mikel zintzoa da *eta* zu, *aldiz*, bihurri samarra

Lehenbiziko kasuan bi juntagailu elkartu nahi izan ditugu, baina ezinezkoa gertatzen da. Bigarrenean, ordea, ez da arazorik juntagailua eta lokailua perpaus berean emateko. Esan dezagun, azkenik, perpaus lokabeen artean ere ager deitezkeela lokailuek, diskurtsoaren "hariari" bide emateko.

(10) Haizea dabil. Beraz, ez naiz hondartzara joango

Esan bezala, horrela sailkatu ditugu gure deskribapenean lokailuak eta hauen zereginak: diskurtso, testu edo hizketaldi mailako loturak egiteko erabiltzen ditu hiztunak, eta arruntean horiek ez dira kontuan hartu izan gramatikaren deskribapenetan, ohituraz perpausen analisisira mugatzen baitira gehiago, kontuan hartu gabe testu mailako loturak.

Perpausei dagokienez, perpaus bakunak alde batera utzirik, perpaus elkartuen artean bi multzo handi bereizten dira: perpaus elkartu *juntatuak* eta *mendeko* perpaus elkartuak.

Perpaus elkartuak: juntadura (EGLU IV)

Bi perpaus elkartzean, bietako bat bestearen osagaia ez bada, hau da, perpauseteko bat bestearen atala ez bada, bi perpausak maila berekoak baldin badira, perpaus *juntatuak* ditugula esaten dugu. Gertatzen den juntadurak, hala ere, *ñabardura* desberdinak erakusten ahal ditu *esanahiari* dagokionez:

(11) Miren gaizki sentitu zen *eta* ospitalera joan zen

(12) Miren gaizki sentitu zen *baina* ez zen ohean gelditu

Hor ikusten da adibide bakoitzean badirela bi perpaus eta biak direla maila berekoak (ez lehena ez bigarrena ez dela bestearen osagaia). Hala ere, batean (11) informazioa gehitzen dugu (bestelako inplikazioak ere tartean egon daitezkeela), baina bestean (12) informazioa gehitzeaz gain, batez ere bigarren esaldia aurrekoaren aurkaria dela agerian utzi nahi dugu. Horixe da, hain zuzen ere, azpimarratu nahi duguna.

Juntadura motako perpaus elkarketa baten aurrean gaudela adierazten dute juntagailuek, eta hauek hiru mulzotan sailkalzen dira, adierazten duten ñabardura semantikoaren arabera: *emendiozkoak*, *hautakariak* eta *aurkaritzakoak*.

■ Emendiozko juntagailuetan (informazio gehigarria ematen dute juntagailu hauek, besterik gabe) eta juntagailua da erabiliena, batzuetan ere (bai) gaineratuz indarturik geratzen dena.

(13) Miren mendira joan zen atzo, eta Patxi ere bihar joango da

■ Bigarren multzoko juntagailuak hautakariak dira, eta hauek edo partikularen bidez lotzen dituzte perpausak, aukera egin behar dela adieraziz:

(14) Autobusa hartu beharko du edo hemen geldituko da, bestela

■ Azkenik, aurkaritzako juntagailuak ditugu, eta hauen artean *baina* da segur aski ere, juntagailu erabiliena:

(15) Mirenek mendira joan nahi du, baina ez da balere ongi sentitzen

Perpaus elkartu horretan bi perpaus bereizten ahal dira, eta aukeratu den juntagailu horrek adierazten du bigarrena, bigarrenaren esanahia, lehenbizikoan adierazten dugunaren aurkaria dela.

Horiek dira, nolabait ere esateko, maila bereko perpausak, lotura maila berean egin baitugu, eta perpaus bat ez baita bestearen barnean bildua osagai modura. Juntagailuen bidez, juntadura eginez, lotzen ditugu perpaus mota hauek, esan bezala.

Anitzetan, ordea, ez da hori izaten gertatzen dena, aski normala beita perpaus bat bestearen azpian biltzea:

(16) [etorriko dela] esan du Mirenek

Hauxe da aipatzen ari garen perpaus horietako bat: hemen ere bada lotura, baina lotura hori ez da maila berean gertatu, [etorriko dela] hori ere perpausa baita, baina "esan" aditzaren osagarri gisan. Esan bezala, perpausen arteko elkarketa juntaduraren bidez egin daiteke (eta alborakuntzaz, nahiz hori ez dugun aipatu), edo menderakuntzaren bidez. Azken hauexek osatzen dute, hain zuzen, bigarren multzoa.

Perpaus elkartuak: menderakuntza (EGLU V, EGLU VI eta EGLU VII)

Mendeko perpausak, *perpaus* diren aldetik, aditz baten inguruan eratzten dira, eta *mendeko* direla diogu, beste perpaus, aditz, adjektibo edo aditzondo baten osagaiak baitira:

(17) Mirenek kontatu zigun [aspalditik ezagutzen gaituzula]

Juntadura eta menderakuntza perpausak elkartzeko bideak ditugu, bide desberdinak, eta bi prozesuen arteko desberdintasuna honetan oinarritzen da: batetik, menderakuntzan, perpaus bat bestearen osagaia da, eta horregatik hierarkia bat dago perpausen artean. Osagai den perpausa *mendekoa* da, eta besteari perpaus *nagusia* esan ohi zaio. Bestetik, juntaduran ez dago perpaus bien arteko harreman hierarkikorik, ez dira bata bestearen osagai.

Menderakuntzaren eta juntaduraren arteko bereizketa egiteko, oro har, hiru irizpide formal erabiltzen ditugu:

1. Menderakuntzan ez da erabiltzen adizki alokutiborik:

(18) Esan dik berak egingo duela¹ dikela

2. Mendeko perpausetako adizkiek ezaugarri bereziak dituzte (*-eN*, *-eLA*, *-eLAKO*, *BAIT-*, *-TZE*...) aditz flexioetan.

(19) Zer egin behar *den* galdetu dute

3. Mendeko perpausak gainerako sintagmek edo osagaiak perpaus barnean hartzen duten lekua betetzen dute eta, hortaz, haiek duten mugikortasuna, edo mugikortasun-eza dute. Perpaus juntatuak ez dute holako mugikortasunik onartzen, hurrenkera aldatzean esanahia aldatzen baita maiz. Ikusi ondoko bi perpausetan nola aldatzen den esanahia (juntadura) perpausen hurrenkera aldatzean:

(20) Gutuna idatzi nion *eta* haserretu egin zen

(21) Haserretu egin zen *eta* gutuna idatzi nion

Eta erkatu orain hurrengo hauekin (menderakuntza):

(22) Nire lagunek esan zidaten motel samar zebilela

(23) Motel samar zebilela esan zidaten nire lagunek

(24) Nire lagunek motel samar zebilela esan zidaten

Ikusten denez, azkeneko adibide hauetan ez da esanahia aldatu.

Juntaduran, ordea, ez dago beti horrelakoak egiteko aukerarik, esanahia alda baitaiteke.

Esan bezala, menderakuntzaren eta juntaduraren artean bereizketak egiteko orduan, batez ere formari begiratu diogu (badu aditz flexioak markarik?, adibidez) eta ez perpausaren esanahiari. Baina egia da behin bereizketa egin ondoren, eta behin zehaztu ondoren zer nolako perpaus motak paratuko ditugun alde batean eta zein joango diren beste aldera, oso erosoak gerlatzen dela mendeko perpausen artean bereizketa semantikoak egitea, gramatika

¹ Argitaratu gabeko azken hau.

gehienek egiten duten gisan. Izan ere, bide hori hartu zuen Gramatika batzordeak menderakuntzaren azterketari ekin zionean. *EGLU V* liburukiak biltzen ditu mendeko perpaus mota batzuk, eta, nonbaitetik hasteko, aditz jokatuak dituzten perpausak aztertu ziren orduan, saikapen horretan biltzen diren guztiak, hala ere, aztertu gabe.

Oraingo liburuki honetan aditz jokatuak duten beste mendeko perpaus batzuk aurkezten ditugu, aurreko liburuan hasitako gaiari akabaila eman nahian, eta hurrengo liburuan bilduko dira, azkenik, aditz jokatugabea duten mendeko perpaus guztiak.

Mendeko perpausak, jakina denez, era askotakoak izan daitezke: perpaus osagarriak, erlatiboak, konparazio perpausak, ondorio perpausak (hauek guztiak *EGLU V*ean aztertuak), baldintzazkoak, denborazkoak, helburuzkoak, kausazkoak, kontzesiozkoak eta moduzkoak (hauek dira *EGLU VI* honetan auzertzen direnak). Eman ditzagun adibide batzuk hurrengo erroetan.

■ Perpaus osagarrien artean badira adierazpen-perpaus osagarriak, galde-perpaus osagarriak, subjuntibozko perpaus osagarriak eta perpaus osagarri izenlagunak (izen baten osagarri azken hauek, (28) bezala). Hurrenez hurren:

- (25) Esan dute [etorriko dela]
- (26) Ez dakigu [norekin bizi den]
- (27) [ondo bizi zaitezzen] opa dizut
- (28) [diruak dena lorzen duetako] ustea aski zabaldua da

■ Erlatiboan artean ere mota asko bereiz daitezke. Egiaz, gramatikari guztiak aski ongi ohartu diren gisan, erlatiboen atal hau da euskal gramatikak duen koropilatsuenetako bat. Sarrera honetan ez dugu berriz ere errepikatuko *EGLU V*ean egin genuen aurkezpen luze eta xehea (173.-270. or.), baina funtsezko kontuen berri emango da.

Perpaus erlatibo arruntenak honako hauek dira:

- (29) [erosi duzun] etxea aski polita da

Ikusten denez, erlatibo horrek izenlagun arrunt batek hartuko lukeen tokia hartzen du:

- (30) [Mirenen] etxea aski polita da

Goian ikusi den bezala, izenaren ezker aldean ageri da. Izan hori 'izen ardatza' deitzen dugu.

Hala ere, zenbait kasutan izen ardatzaren eskuinean ere ager daiteke:

- (31) Gizon [aspaldi ikusi ez nituen]ak aurkitu nituen han

Perpaus erlatiboek badute, beste mendeko perpausekin erkaturik, ezaugarri funtsazko bat hemen azpimarratu behar dena. Badute bere barnean izen sintagma bat, 'izen sintagma erlatibatua' deitua, izen sintagma ardatzaren erreferentzia bera duena eta nahitaez isilpean utzi behar dena. Goiko adibidera itzuliz:

(32) [etxea erosi duzun] etxea aski polita da

Bistan denez, letra etzanean jarri dugun izen sintagma (*etxea*) da, hain zuzen ere, isiltzen den izen sintagma erlatibatua, eta sintagma horrek, jakina, perpaus nagusian dagoen izen sintagma ardatzaren erreferentzia bera du (kasu honetan, 'etxea' da isiltzen den sintagmaren erreferentzia biltzen duena).

Perpaus erlatibo honetan, bi sintagmek (isiltzen dugunak eta agerian dagoenak) kasu bera dute, baina hori ez da ezinbestekoa gertatzen perpausak sortzeko orduan (adibideetan letra etzanean ematen dugu isiltzen den sintagma).

(33) [etxea erosi duzun] etxeak bost leiho ditu

(34) [zu etxean bizi zaren] etxea aski handia da

Lehenbizikoan, 'etxea' isiltzen dugu (absolutibo kasua) eta 'etxeak' aipatzen dugu (ergatiboa). Bigarrenean 'etxean' isiltzen dugu (inesiboa) eta 'etxea' aipatu (absolutiboa). Horrek erakusten du kasu desberdinetako sintagmen artean egin daitezkeela erreferentzia lotura hauek. Hala ere, kasuen artean bada halako eskala bat, ez baitira lotura guztiak nolanahi egiten ahal.

Absolutiboan, ergatiboan eta datiboan doazelarik sintagmekin, badirudi ez dagoela debekurik:

(35) [gazteari liburua eman diozun] gazte hori nire semea da

(36) [gazteak liburuak erosi dituen] gazteari dirua izuli behar diozu

Bigarren mailan, aditzaren osagarriei dagozkien sintagma adberbialak ditugu, kontesturik gabe beharbada bitxi izan daitezkeenak:

(37) Aurkitu ote dute [krimenaz akusatu ninduten] krimenaren egilea?

Hirugarren mailan adjuntuak ditugu, eta hauek nekez erlatiba daitezke:

(38) ??Ezagutu nahi nuke [zure alaba gizonarekin bizi den] gizona

Badira, noski, zailtasuna arintzeko moduak (argiena, izen sintagma isildua eta izen ardatza kasu berean ematea), hemen aipatuko ez ditugunak.

Ez dira, dena dela, horiek perpaus erlatibo bakarrik, eta badira egitura diferentea erakusten dutenak ere (*ZEIN* erlatiboak eta *BAIT* erlatiboak, besteak beste):

(39) Orduan agerlu zen gizon bat [zeini beso bat falta baitzitzaion]

(40) Badira mutil batzuk [ez baitakit [nire aholkua onartuko duten]]

Azkenik, inoiz literatura zaharrean agertzen diren "galde izena+aditz subjuntiboa" egiturako erlatiboak, gaur egun adizki jokatu gabearekin egiten ditugu:

(41) Ez du [burua non pausa]

■ Konparazio perpausen artean ere badira batzuk aski arruntak direnak eta beste batzuk agian literaturan nagusiki, edo euskalki batzuetan bakarrik, erabiltzen direnak. Askia arruntak dira, esaterako, honako hauek:

(42) Miren bezain langilea da Koldo

(43) Mirenek adina olio erosi du Koldok

(44) Miren baino urrunago joan da Koldo

Jakina: baten batek galde dezake nolatan den posible hor menderakuntzaz mintzatzea aditz bat bakarrik ageri denean perpaus bakoitzean. *EGLU V* liburuan egin genuen azterketaren arabera, ordea, hor bada beti isildutako beste aditz bat: "Miren (den) bezain...". "Mirenek (erosi duen) adina...", eta "Miren (joan den) baino...".

Beste konparazio perpaus batzuetan inguruko hizkuntza erromanikoetako egitura bera atzeman daiteke:

(45) Arratsaldean hasi zirenei eman zieten hainbat jomal nola goizetik hasi zirenei

(46) Deusek ez du hala gizona ahutzen nola jendearen konpainia gehiegizkoak

Badira, azkenik, korrelazioa adierazten duten konparazio perpausak:

(47) Nola egiten baituzu zuk, hala egingen du zure alabak ere

(48) Zenbat aldiz eskatu diogun, hainbat aldiz ukatu digu

■ Ondorio perpausak osatzen dute hurrengo multzoa, eta hauek ondorioa ematen dute aditzera. Modu askotara egin daiteke hori, baina menderakuntzari dagokionez, hona hemen adibide batzuk:

(49) Hain lehorte handia izan zen, non urta osoa galdu baitzen

(50) Hainbeste negar egiten zuen, non begiak eritu baitzitzaizkion

Honaino *EGLU V*ean aztertutakoa. Eskuetan duzun liburuan aztertzen dira mendeko perpausen sailleko beste mota batzuk (batlere aditz jokatuia dutela). Hauexek, hain zuzen ere.

■ Baldintza perpausak, irrealak (51) eta errealak (52):

(51) Baionara joango banintz, hango museoa ikusiko nuke

(52) Baionara joaten banaiz, museoa ikusiko dut

■ Denborazkoak:

(53) Baserrira iritsi gineneko konturatu ginen suak dena kiskalia zuela

(54) Sartzen den bakoitzean denak zutitzen gara

■ Helburuzkoak:

(55) Gozoki hauek erosi ditut Mirenek jan ditzan

■ Kausazkoak:

(56) Kalea busti da euria egin baitu

(57) Ez du hania jaso indamiz ez duelako

■ Kontzesiozkoak:

(58) Nahiz bizkarreko mina duen, kirrola egitera joan da

(59) Negu gorria baldin bada ere, buru-has dabil Miren

■ Moduzkoak:

(60) Mutiko bat sartu zen gelara, txapela eskuetan zuela

(61) Erabaki duten arabera egin dugu guk

Hauek dira, hortaz, liburu honetan aurkituko dituzun aztergaiak eta, esan bezala, gure asmoa da hurrengo liburu batean, zeina dagoeneko lantzen ari baikara, menderakuntzaren azterketarekin segilzea, baina jokatu gabeko aditza duten perpausak hartuz langaitzat. Hemen erakutsi duguna da urte luze hauetan zehar landu dugun eskema, eta eskema horren xehetasun guztiak daude orain arte atera ditugun liburukietan zehar.

Lan luzea

Hasieran esan dugu lan luzea dela hau. Aspaldi hasi zela lan honekin Gramatika batzordaa, eta egin lan horren arabera itxuratu ditugula orain arte argitara eman ditugun liburu guztiak. Gorabahera guztiekin, uste dugu gu geu izan garela lehenak gramatika kontuak ikasteko orduan: gure lan prozedura eta eztabaida etengabeek, testu bakoitza behin eta berriz berriro, denboraren denboraz gero eta gehiago ikasiz, nor bere tokira eraman dute, eta genituen usteek oinarri sendoagoa bildu dute. Liburuen artean zenbaitetan atzeman daitezkeen kontraesanen azalpena ere hori da, egileok gure iritzia moldatuz joan baikara nolakoa zen genuen informazioa eta nolako itxura ematen ari gintzaizkion gramatikari. Besteak beste, zerbait erakutsi badigu lan honek, apaltasuna onartzea izan da. Badakigu jende anitz formulen bila hurbiltzen dela gramatiketara, hau zuzen dagoela ikusi nahian, edo beste hura oker (azken hau, gehienxkoenetan), baina hizkuntza kontuetan, eta gutxiago euskararen kasuan, erantzunak ez dira batere gardenak sarritan, eta ez da, gainera, batzordearen lana, erantzun "bideragarri" hori ematea. Guk dagoena bildu dugu, liburuetan ageri dena, jendeak erabiltzen duena, eta hala ikusi dugunean, bidea markatzen saiatu gara, betiere "honek beste horrek baino tradizio handiagoa du" bezalakoak esanez. Horrek ez du esan nahi, jakina, gauzak nolatanahi esan daitezkeela eta askatasun osoa ematen dela. Ez, noski, Euskaraz dakienak badaki nola irakurri behar diren orrialde hauek.

Euskaltzaindiaren lehenbiziko gramatika hau bideratzen hasi ginenean bagenituen aldamenean beste lagun batzuk ere. Pierre Lafitte aipatu dugu, bera izan baitzen batzordearen burua hasierako urteetan. Lino Akesolo ere batzordekidea izan zen, utzi gintuen arte. Baina eskuartearen duzun liburu hau dela eta, ezin aipatu gabe utzi hasieratik indar eta baikortasun handiarekin gure artean ibili diren bi pertsona: Andolin Eguzkilza eta Joxe Mari Larrarte. Lan handia egin dute biek, txostenak eginez, besteen lana eztabaidatuz, adibide egokiak bilatuz, eta abar. Zoritzarrez, *EGLU VI* hau ere aski aurreratua zelarik, kapitulu guztiak bi aldiz, gutxienez, idatziak zirela, joan zaizkigu ondotik bi tankide eta adiskideak. Haien lana ere hemen duzu bildua, irakurle.

Gramatika batzordea

1. BALDINTZA PERPAUSAK

1.1. KAPITULU HONEN AZTERGAIA ETA DEITUREI BURUZKO ARGIBIDEAK

Kapitulu honetan ikergai ditugun baldintza perpaus jokatuak, maizenik, forman zehazki seinalatuak dira. Izan ere, gehienetan BA- aditz aurrizki menderatzailea agertzen da haietan, eta horrela aski errazki ezagut daitezke baldintza perpaus horiek:

- (1) *Baldin ezpadot negar egiten, arrizkoa dot biotza* (D. Aguirre, *Kresala*, 43).
- (2) *Indiarrek sor zezaketen gaurko fisika, bide horretatik abiatu izan baitira. Bai, eta bizikleta izan zitekeen nere amona, bi kurpil izan baitu* (K. Mitxelena, *Mitxelena-ren Idazlan Hautatuak*, 339).
- (3) *Baldin nik esana egiten badezu, nik zuri jaten billatuko dizut* (C. Baovide, *Asis-co Loña*, 52).
- (4) *heldu bazauzku ohoiak, erranez: Bizia ala eskuara, edo: eskuara ala moitsa, inhardets goraki: Bata ez bertzea!* (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 124).
- (5) *begiyak belak baldin baitu lirako luke pozikan* (Txirrita, *Tximitaren Bertsoak I*, 111).
- (6) *Baldin mesederen bat onetan egiten badeutsut, ezteutsut beste bearsaririk, ez beste eskemik, eskatuten, ezpada aztu ez nagizula zeure oraziño eta eskabideetan* (P. A. Añibarro, *Escu-liburua*, 2. arg., 7).
- (7) *Gaur ganaduen ganian berba egingo dogu, zeuk gura baldin badozu* (J. A. Uriarte, *Diálogos vascos*, 54).

Adibide horietan guztietan baldintza perpaus bat agertzen da, haren barneko aditz jokatuak BA- aurrizki menderatzailea dakarrela, eta batzuetan **BALDIN** baldintzazko lokailua ere agertzen da. Kontuan har perpaus hori ez dela perpaus osagarria, hots, ez duela aditz edo predikatu batek gobernatzen, eta, beraz, perpaus adjunktua dela. Mendeko perpaus horiei *baldintza perpausak* esaten zaie.

Deitura kontuak argi uztearren, esan dezagun gramatika honetan *baldintza perpausa* mendeko perpausari soilik esanen diogula, eta harekin batean doanari, berriz, (*baldintzapeko*) *ondore perpausa*. Biek elkarrekin osalzen duten perpaus osoa, berriz, *baldintzadun perpausa* deituko dugu. Gramatika tradizioan, *profasi* hitza erabili izan baita baldintza perpausen deitzeko, eta *apodosi* berriz ondore perpausen izendatzeko, azken deitura horiek ere erabiliko ditugu batzuetan aurrekoen sinonimo gisa.

Gehienetan hala gertaturik ere, gehiegizkoa litzateke esatea BA- aurrizkia duten perpaus guztiak baldintza perpausen saillekoak direla, edota behar-beharrezkoa dela baldintza perpausa beti jokatua izatea, eta hartan

BA- aurrizkia agertzea. Komeni da, beraz, ikus dezagun zein diren kapitulu honetan sartzen ez diren BA-perpausak eta, halaber, aipa ditzagun BA-perpausak ez diren baldintza perpausak.

1.1.1. BA-perpaus osagarriak

Ikusi dugu EGLU Veari (101. or.), euskalki zenbaitetan, bizkaieraz oroz gainetik, zehar-galderak moldatzen direla BA-perpausen bidez. Izan ere, hango literaturan bai-ala-ezkako zehar-galderak ager daitezke era horretan eginak:

(8) eztaikit jausiko banaz (P. A. Afibarro, *Escu-liburua*, 6; cf. EGLU V: 101).

(9) ...osabea ezekien bizi bazan edo ez (E. M. Azcue, *Parnesorako bidea*, 133; cf. EGLU V: 101).

Nahiz (8-9) perpausetan BA- baldintza aurrizkia agertzen den haietan, halarik ere, joskerari dagokionez, nekez baldintza perpaustzat jo daitezke mendeko perpaus horiek. Adibide horietako BA-perpausak perpaus osagarriak dira, zehar-galdera orokorren parekoak; beha nola gelditzen diren perpaus horiek heietan BA-perpausa ezabatzen delarik:

(10) a. Ez dakit.

b. Ezekien.

Ageri da BA-perpausa kendurik (8-9) adibideetan osagarria ere kentzen diogula adilzari.

Batzuetan, *nahi izan* edo *nahiago izan* bezalako desiramenduzko predikatuekin alegialdiko BA-perpaus bat erabil daiteke perpaus osagarri gisa (subjuntiboko perpaus baten ordezt); (ikus EGLU V: 138):

(11) a. Amorosak nahi nuke honat beha balite (B. Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 85).

b. Orduan desiratzen luke bertzela pasatu balitu bere denborak (A. Baratsart, *Guiristinoqui bicitzeo eta hiltzeo moldeak*, 118).

Bestalde, *hobe izan* bezalako zenbait predikatu ere maiz erabiltzen dira baldintza perpausekin:

c. *hobe zukeen* sortegunean baliz hil (Oxobi, *Oxobi-ren lan orhoitzari zonbait*, 72).

d. *Hobe zukeen* irakurleak biak batean hartu balitu. (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak II*, 87).

Egia esan, pentsa daiteke azterketa sakonago batek horrelako BA-perpausak perpaus osagarritzat ez jotzera ginderamatzakeela. Berdin gertatzen da baldintza perpausa osagai gramatikal baten plazan ageri den beste kasu batzuetan; ikus ondoko adibidea ere non BA-perpausa, ilxura batean behintzat ondore perpausoko subjektuari baitagokio:

e. *Ez da balere miretsteko* bethi lehenekoa *batin banaiz*, pasioneak nausitzen *badire* ene bihotzean, eta ez *banaiz* entzuna ene othoitzelan (B. Larreguy, *Testament zaharr. berr. historia*, 2, 219).

f. *Ezta*, beraz, *amitzeko* metodo esperimantal oren jokera ta zaletasuna buru eta gogo guztielan sartu bada (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 34).

² EGLU *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak*.

Lehen begiratuan bederen, irudi luke baldintza perpausak *miresteko izan* edo *arritzeko izan* predikatuen subjektuak direla. Bizkitartean, gauzak barnago ikertuz, segurenaz ere ohar gintezke ageri ez den izen sintagma bat dela subjektua perpaus horietan, eta, beraz, azalean baizik ez direla (11e,f)ko baldintza perpausak perpaus osagarriak. Gauzak horrela izanez gero, baldintza perpausak liriateke horko BA-perpausak.

Dena den, horrelako kontuak ez baitira hemen jorraztekoak, gehiago ikertu gabe utziko ditugu, argi utzirik bakarrik, perpaus osagarri diren BA-perpausak, EGLU Vean aztertuak, ez ditugula aipatuko kapitulu honetan.

1.1.2. Baldintza perpausa konparazio hitzen osagarri

BA-perpausak *baino*, *bezain* eta *bezala* konparagailuen osagarri moduan ere agertzen zaizkigu maiz, alegialdiko forman (ikus EGLU V):

- (12) a. zola bera zilarrezkoa da. *harri pikatuz balitz bezain* zangoarentzat gogor (J. Etchepare, *Berbitez*, 62).
- b. Itxian sartu, eta ipiñi zuten, *astoa balitz bezala*, errotarriari eragiten (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 146).
- c. Oi anima nerea, iduri du ezagutzen edo hautematen ez duzula, *amets bat balitz baino* gehiago (J. Duvoisin, *Liburu Ederra*, 124).
- d. Sartuko da anima doakabea bere gorputzean, *berun, edo menast urtua molde batean sartuko balitz bezala*, eta ordutanik asiko da gorputza betiko oflazeakiñ (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac III*, 540).

Horrelakoetan, *bezala* konparazio postposizioarekin, baldintza perpausoko menderagailua BA/(T)- izaten da iraganeko lapurterazko testu batzuetan:

- e. Ezen badio Suetoniok ere, Julio Cesari bere etsaiak hiltzera joan zitzaizkonean, eta hil izan baitzuten hogoi, eta hirur traketa kolpez, nihortez ere etzuela erakulsi harbat sentimendu, nola Marco Brutoz, zeina bere *seme propiala izan baitu bezala* hagitz maitaroki hazi baitzuen (J. Etcheberri Sarakoa, *Eskuararen hatsapenak*, 164).
- f. *zahartuko baikiña bezala* neure gauza guztiak egin (P. Axular, *Guero*, 42).

EGLU Vean (370. or.) ikusi genuen horrelako konparazio perpausetan agertzen direla *baiitzan* edo *bailuen* bezalako esapideak ere, aski berriak direnak eta ez baitezpada bultzatzekoak.

1.1.3. Balio semantiko berezia duten BA-perpaus adjuntuak: helburuzkoak, kontzesiboak

Halaber, liburu honetan baliatzen dugun entolamendu orokorra semantikazkoa izanik, beste zenbait baldintza perpausen aurkezpena ere kapitulu honetarik kanpo geldituko da. Horrela gertatzen da, adibidez, helburu perpaus gisa erabil daitezkeen BA-perpausekin (13), eta berdín baldintza perpausen bidez eratuak diren kontzesio perpausekin ere (14). Lehenbizikoen ezaugarria da apodosian beharra adierazten duen predikatua agertzen dela, eta bigarrenena, gehienetan ERE lokailua darraielat agertzen direla:

- (13) Yainkoaren grazia ta laguntza ere bear dira, nai-la-naiez bear dira, *ezar onik egingo badugu ta zerua intxiko badugu* (P. Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 355).

- (14) *Orain orrela bazaude-ere* laster beste moduz ekusiko zaitue (Aguirre Asleasukoa, *Eracusaldiac III*, 512; cf. Kontzesio perpausak 5.2.1.3).

Adibide horietako *BA*-perpausak perpaus adjunktua dira, eta dakarten menderagailua *BA*- baldintzazkoa da. Morfologikoki eta sintaktikoki baldintza perpaustzat jo daitezke, beraz. Halere, duten balio eta erabilera bereziagatik, liburuki honetako beste kapitulu batzuetan aztertzen dira: batzuk helburuzko perpausen artean agertzen direlarik (13) (ikus 3.2.8 Helburuzko eta baldintzako perpausak), eta besteak kontzesio perpausen artean (14), (ikus 5.1.3.1 Baldintza perpausak).

1.1.4. *BA*-perpauzez beste baldintza perpausak

Baldintza perpaus guztiak ez dira *BA*-perpausak. Izan ere, zenbaitetan mendeko perpaus jokatu gabe baten bidez adieraz daiteke baldintza bat, *BA*-aurrizkirik gabe, beraz, menderagailu hau adizkera jokatu egi lotzen baitzaie. Ikus ondoko adibideak:

- (15) a. Hor dituzue, *nahi izanez gero*, nik eman ditzakedan baino berri gehiago (K. Mixelena, *Euskal Idazlan Guztiak II*, 151).
b. *Au onela ez izatera*, bihurtua lizake bereala mundua anzifako bere ezer ezean (Aguirre Asleasukoa, *Eracusaldiac III*, 324).
c. (Egun batez haragi, arraina bertzean, ogia harmairuan, ilarrak eltzean: guziak diru truke dituzu etxean) non bila zinezazke, *guk sortu ezean* (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 150).
d. Gure Yaunak onizat ematen du barua, *baña ongi egitekotan*, ez Farisau arroak bezela (P. Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 130).

Beste batzuetan, baldintza perpausa jokatu izanagatik, *BA*-aurrizkiarekin beste menderagailu bat har dezake hartako adizkariak, hala nola ondoko adibidean:

- e. Ez dezakete gazte gehienek ongian irauti *non ez diren Sakramenduetara maiz hurbiltzen* (J. P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 112).

Adibide horietan guztietan letra elzanean agertzen diren mendeko perpausak ez dira *BA*-perpausak. Halere, baldintza perpausen artean sailka daitezke, eta aise esanahi bertsuko perpausa molda daiteke haien orde *BA*-perpaus bat erabiliz:

- (16) a. Hor dituzue, *nahi baduzue*, nik eman ditzakedan baino berri gehiago.
b. *Au onela ez balitz*, bihurtua lizake bereala mundua anzifako bere ezer ezean.
c. (Egun batez haragi, arraina bertzean, ogia harmairuan, ilarrak eltzean: guziak diru truke dituzu etxean) non bila zinezazke, *guk sortzen ez bagenitu*.
d. Gure Yaunak onizat ematen du barua, *baña ongi erabiltzen bada*, ez Farisau arroak bezela.
e. Ez dezakete gazte gehienek ongian irauti *Sakramenduetara maiz hurbiltzen ez badira*.

Kapitulu honetan jokatuak diren baldintza perpausak aztertuko ditugu soilik.

1.2. BALDINTZA PERPAUSAK ZER DIREN

Baldintza perpausak aipatzean, *baldintza* hitza erabiltzen dugu perpaus mota baten mugatzeko. Irudi luke, beraz, baldintza kontzeptuaz azalpenak eman behar genituzkeela perpaus mota horren edukia eta izaera semantikoa ere argituzko. Zorigaitzez, ez da erraz horrelakorik egitea hau bezalako lan batean, ezen baldintza kontzeptua logikakoa eta filosofiakoa da ororen gainetik, eta gramatikari buruzkoa soil-soilik, liburu hau. Gainera, filosofian berean ere, baldintza kontzeptua ez da errazenetarik eta eztabaida gutxien sortu dutenelarik.

Forma kontuez pixka bat harago joanik, menturatzten bagara, halere, baldintzaren nozioa nolabait, gutxi bada gutxi, mugatzera, esan daiteke alderatu zaizkion hurbileko kontzeptu nagusiak hauek izan direla: kausa edo *kausandorio* erlazioa, aldiberekotasuna, eta hipotesia. Aitzinetik aitortuz azaleko kontuetan gelditu beharko dugula hemengo aurkezpenean, zenbait ohar eginen ditugu alderatze horietaz, bidenabar oinarrizko puntu batzuk finkatuz baldintzaren izaera semantikoaz, eta, halaber, logika ikuspegiaren mugak agerian emanez.

1.2.1. Baldintza eta kausa

Kausa eta kausa-ondorio erlazioa bereziki aipatu dira baldintzaren izaera semantikoa argitzeko.

Konpara ditzagun bi adibide hauek:

- (17) a. *Gaizki ikusten baduzu, ez duzu irakurtzen ahalko.*
- b. *Ez duzu irakurtzen ahalko, gaizki ikusten baituzu.*

Ikus daitekeenaz, franko hurbil dira (17)ko bi perpausak, bata baldintza eta besteak kausa adierazten dutelarik. Alderik handiena, esaleak mendeko perpausuan adierazten duenez erakusten duen jarreraren datza: baldintzan esana (*zuk gaizki ikustea*) egia izan daitekeela dio, hala dela segurtasunik erakutsi gabe; kausazkoan, beriz, ez du dudarik agertzen. Horregatik, maiz, baldintzaren eta kausaren arteko desberdintasuna modalitate kontu horretara mugatua izan da, baldintza *kaus modal* gisa definitzen zelarik. Gramatika terminologian ere gelditu da kausa nozioari darraion zerbait, zeren gorago ikusi dugun bezala, baldintza perpausari dagokion apodosia *ondore perpausa* ere deitzen ohi baita, esan nahi baitu kausatasunari dagokion kontzeptu bat erabiliz.

Kausaren nozioaren arabera ikusten delarik baldintza, askotan kausa-ondorio erlazioaren edukia ere aipatzen da. Ezaguna da bi eratan bereziki mugatzen ohi dela erlazio hori: kausak ondorioa nahitaez ekartzen duenean, *askikoa* dela esan ohi da, eta kausa gertatu gabe, ondoriorik ezin daitekeela adierazten denean, aldiz, esaten da *ezinbesteko* kausa dela. Filosofoek eta logikariek askiko kausa gisa mugatzen ohi dute hizkuntza baldintza, eta hala gertatzen da usaian, hala nola adibide honetan:

- (18) a. *Euria egiten badu, Pello etxean egongo da.*

Adibide horri dagokion interpretazioa hauxe da: esaleak dio baldintza (*euri egitea*) betetzea *aski* izanen dela Pello etxean egoteko. Askiko kausari dagozkio beraz, filosofoek eta logikariek dioten bezala, (18a) gisako baldintza perpausak.

Logikan gauzak hala izanik, hizkuntzaren erabilera arruntean kontu horiek aski errazki itzulipurdika daitezke, bereziki ezetza baliatuz. Ikus, adibidez, zer ondorio duen ezetza gure adibidean erabiltzeak:

b. *Euria egiten ez badu*, Pello ez da etxean egongo.

Nahiz formalki (18b) adibidea (18a) bezalako erlazio logikoak abxikitzen dituen, hiztunek beste irakurketa bat eman diezaiokete adibideari, inferentziak eginez. Horrela, (18b) baieztatuz, hiztunak (18a)ri begira kontuak aldatzen ditu: ez du esaten euri egiteak nahitaez ekarriko duela Pello etxean egotea; alderantziz, orduan, Pello etxetik ateratzea gertakor datekeela, baina ez gertakari segura, adierazten du. Beraz, solasaren haria hautsi gabe jarraipen hau ematen ahalko zaio adibideari: (*Euria egiten ez badu, Pello ez da etxean egongo*); *egiten badu aldiz, beharbada egonen da, nahiz ez den segur; ikusiko dugu orduan zer ginen duen*.

Gisa horretako perpausak maiz aurkitzen ditugu salbuespena adierazten duten baldintza bereziekin:

(19) a. *Etxe hau ez dut erosiko, non ez dioten aurretik teilatua berriztatzen.*

Adibide horretan esaleak ez du segurtatzen etxeko teilatua berriztatzen balitz etxe hura erosiko lukeela, ondorio hori ez baita nahitaez haren esanetik ateratzen. Azpimarratzen du, haatik, berriztatze hori ezinbesteko baldintza dela harentzat etxe hura erosteko.

Baldintza perpausa gisa hartan hanpaturik erabiltzen denean, adibidez *bakarrik* adberbioaz lagundua izanik, baldintza ber denboran askikoa eta ezinbestekoa izaten da:

b. *Zu nirekin etortzen bazara bakarrik, joanen naiz.*

(19b) adibidean, *bakarrik* adberbio hanpatzaileak laguntzen baitu baldintza perpausa, ezinbestekotasuna azpimarratzen da (bestalde, askiko baldintzen balioa ere duelarik beti perpausak).

1.2.2. Baldintza eta denborazko aldiberekotasuna

Baldintzarekin maiz alderatua izan den beste kontzeptu bat denborazko aldiberekotasuna izan da (ikus 2. Denborazko perpausak). Hurbiltasun hori hizkuntzaren erabileran agerian emateko, sinonimotasuna edo juntadura baliatu da bereziki.

Konpara ditzagun adibide hauek:

(20) a. *Etxean bazkaltzen badu*, berandu itzultzen da lanera.

b. *Etxean bazkaltzen duenean*, berandu itzultzen da lanera.

Solas egoera askotan sinonimo edo dira bi adibideak, eta testuinguru anitzetan bata bestearen orde balia daitezke. Errepikatzen diren bi gertakari

motaz hitz egiten da, eta elkarren artean kausa eta denborazko erlazio bat moldatzen da, ikuspegi arabera baldintzazko edo denborazko perpausa eratuz. Ordea, baldin gertakari bat edo egoera bat noiz gertatu edo gertalzen den adierazteko beste egoera bat edo gertaera bat aipatzen badugu, inplizituki adieraz dezakegu kausazko erlazioa ere badela gertakari horien artean, hala nola, esaten dugunean: *Nekatzen naizenean, lana utzi, eta pausatzen naiz*, denbora perpausak adierazten baitu lanaren uzteko eta pausatzeko arrazoia ere.

Horretaz ez da harritzekoa denborazko perpausak eta baldintzazkoak juntatzen ahal baitira:

- (21) a. *Senarrak hau edo hura erraten zionean, edo zerbeit gora-behera gertatzen balinbazen etxean, berehala bazoan emaztea lasterka auzoz auzo, orori erratera* (J. Hiriart-Uruty, *Zezenak Errepublikan*, 53).

Adibide horretan edo juntagailuak denborazko perpausa eta baldintzazkoa juntatzen ditu, eta ezer aldatu gabe truka daitezke biak:

- b. *Senarrak hau edo hura erraten bazion, edo zerbeit gora-behera gertatzen zenean etxean, berehala bazoan emaztea lasterka auzoz auzo, orori erratera.*

Ohargarria da (21a)ko baldintza perpausa ez dela alegialdian. Denborazko aldiberekotasuna eta baldintzak sortutakoa elkarren pare izateko, azken hau baldintza errealetan oinarritu behar da, eta zehazkiago egoera edo gertakari iteratibo edo errepikatuetan.

Iteratiboak ez diren egoeretan nekezago aurkituko da baliokidetza hau, nahiz orduan ere antz zerbeit aurki daitekeen batzuetan denborazko eta baldintzako perpausen artean:

- (22) a. *Maddi ikusten duzunean, goraintziak emazkiozu.*
b. *Maddi ikusten baduzu, goraintziak emazkiozu.*

Bi adibide hauek solas ingurumen askotan esanahi hurbilekoak izanen dira. Halere aurrekoetan ez bezala, nabaritzen dugu hemen desberdintasun bat. Denborazko perpausa erabiliz, esaleak ez du dudarik erakusten aipatzen den gertakaria egiazki gertatuko den ala ez. Baldintzazkoa enplegatuz, aldiz, halako segurtamenik eza adierazten du bere solasean. Desberdintasun horren indarra solas ingurumenak mugatuko du, adibidez, zuk Maddi noiz ikusiko duzun batere argi ez bada (bihar, etzi, edo urte baten, edo bizpahiruren buruan), orduan baliokidetasun pragmatiko handiagoa hartuko dute bi perpausak.

1.2.3. Baldintza eta hipotesia

Hipotesien egiteko, hizkuntzek duten modu nagusietarik bat da baldintza. Hipotesia, gerta zitekeenari edo daitekeenari buruz egiten den proposizio aukera bat da, eta baldintza perpausak hura mamitzen du. Are gehiago, anitz hizkuntzatan, eta euskaran ere hala da, esaleak hipotesiei ematen dien gertakortasun mailaren arabera era daitezke baldintza perpausak orduan: gertakortzat jotzen direnean, orainaldiko edo iraganaldiko adizkerekin moldatzen dira, eta egiazki gertatu ez direnean edo gertagaitz jotzen direnean, berriz, alegialdiko adizkerak:

- (23) a. Bihar Donostiara joaten bagara, ... (gertakorra).
b. Bihar ilargiaren bisitatzera joango bagina, ... (gertagaitza).

Aipatu bi adibide horietan, adizkeraren aldaketak adierazten du esaleak nola ikusten duen aurten solaskidea eta haren lagunak Donostiara eta ilargira joatea: lehen kasuan, orainaldiko adizkera baliatuz, adierazten du duen edo hartzen duen ikuspegiari gertakorrako dela gertagaitza baino, eta bigarren kasuan, alegialdiko adizkera enplegatuz, alderantzizkoa.

Askotan gauzak nola diren jakinik erabiltzen da baldintza, eta orduan hipotesiak hala ez denari buruz ere egin daitezke; ikus dezagun adibide hau:

- (24) *Atzo Patxi Gernikara joan ez balitz*, ez zuen Maddi ikusiko hango merkatuan.

Horrelako perpaus batean, baldintza ez da dudan edo jakinezko oinarritua, argi eta garbi hala ez dena baitu oinarri. Alabaina, informazioaren aldetik hauxe dio esaleak (24) adibidean: i) atzo Patxi Gernikara joan zela, ii) hango merkatuan Maddi ikusi zuela.

Egoera bukaturgabeak eta gertakari bururatuak aipatuz sortzen diren alegialdiko baldintzek ez dute beti ezjakinezko hipotesirik adierazten, baina jakinizat emana dena aipatuz hala ez denaz baliatu daitezke; horregatik (24) bezalako baldintza horiek *kontrafaktualak* deitzen dira.

1.2.4. Solas jokoak eta inferentzia bidezko erabilerak

Baldintzaren nozioa kausalitatearen arabera aztertuta izan bada, inola ere ez daiteke baldintza perpausen erabilera horretara muga, zeren hizkuntza erabileran logikan ez bezalako ezaugarriak izan baititzaizkete baldintza perpausak, eta lehenago aipatu erlazio motek, kausa-ondorio erlazioari dagozkionek, huts egiten baitute batzuetan mintzaira errealeko baldintza perpausen erabilerean argitzeko. Har dezagun adibide hau:

- (25) a. *Egari bazara*, goizean sagardoa eman dut hozkailuan.

Adibide horretan bi perpausen arteko erlazioa ez da kausazkoa, eta nekez perpaus nagusia mendekoaren ondorio gisa aurkez daiteke, logika ikuspegiari egiten den bezala, besteak beste, kasu horretan ondorioan aipatzen den gertakaria, baldintza perpausaren adierazia dena jazo baino lehenago gertatu baitzen. Horrelako kasuetan solasaren erregelen bidez azal daiteke baldintzaren erabilera, eta gure adibidean inplizituki adieraziak direnak agerian eman behar bagenu, horrelako zerbait esan behar genuke:

- b. - Goizean sagardoa hozkailuan ezarria dudala esanez jakinarazten dizut edatekoa badela etxe honetan; edari freskoa gainera eta ez edozein: sagardoa.

- Gure arteko harremanak diren bezalakoak izanik, badakizu engoitik edatekoa izateko aski duzula eskatzea, edo zerorrek hozkailulik hartzea.

Solaskideen arteko solas konbentzio isiletan eta ageriko esanek inferentziak inplikatzeko dituzten azpiko adierazietan finkaturik daude gisa horretako baldintza perpausak, maiz agertzen direnak hizkuntza erabileran. Nekez haieran aurki daitezke kausa logiko baten itxurarik.

Baliabide horiek franko aberatsak eta emankorrak dira. Deitura bat haiei emateko, *inferentzia bidezko erabilerak* deituko ditugu hemen, ardura, isileko

solas printzipioetan eraiki inferentziak eta arrazoibideak baliatzen baitituzte. Batzuek beste nonbait ikertuko ditugu hala nola helburu perpaus gisa (25c) azter daitezkeenak. Halaber, *ERE* lokaitua ondotik hartzen duten *BA*-perpausak (25d) perpaus kontzesiboekin batean aztertuko dira (baina argi izan bedi *ERE* gabe ere ager daitezkeela baldintzadun perpausetan interpretazio kontzesiboak; cf. (26g)):

c. Jendeek ulertuko bagaituzte, dakiten mintzaira batean mintzatu behar galzaizkie.

d. Koxeren anaiak euskara ongi ematen badu, berak doi-doi murduskatzen du.

Ikus ditzagun beste adibide batzuk, baldintzaren baliabide berezi horiek irudikalzen dituztenak:

- (26) a. Hotz bazara, berogailua pizten ahal dut.
b. Pello bilkurara etorri ez bada, eri da.
c. Axularrek 'Guero' idatzi bazuen, orduko irakurzaileek holako liburuen beharra zutelakoan egin zuen.
d. Miren etortzen bada, berandu etorriko da.
e. Hobe dugu hemendik joatea, norbait etortzen bada ere.
f. Zu kantaria bazara, ni apezpiku!
g. Europako testuinguruan euskara oso-oso zaharra bada, Afrikan, Asian eta Ozeanian hizkuntza asko badirateke halere, hura bezain zaharrak edo zaharragoak direnak.

Horko adibide gehienak arruntak dira hizkuntza erabileran, eta ez da dudarik ongi eratuak direla. Haien edukia aztertzeke, ordea, nekez bafia dakizkiguke usaiako logika kontzeptuak, edo guztiz zeharkako bide batean. Ikus ditzagun banan-banan:

- *Hotz bazara, berogailua pizten ahal dut* (cf. 26a)

(26a) adibidea solasaren inplikadura eta konbentzioetan oinarritua da aurreko adibidea (25) bezala. Esaleak solaskideari esaten balio: *hotz bazara berogailua piztuko dut*, baldintza arrunta genuke; ordea, ondorio perpausaren ahaletzeko modalitateari doakion forma bat erabiliiz galtzen da logika lotura, berogailuaren pizteko *AHALA* ez baitaiteke solaskidea hotz egotearen ondorioa izan. Halere, ondorioak seinatzen duenarekin solaskideak badaki, nahiz ez den hitzetan agerian adierazia, berak beharra badu edo eskalzen badio, esalea prest dagoela berogailua pizteko. Beraz, hemen ere, (25)ean bezala, solasak bideratzeko diren kooperazio eta solaskidetza printzipioetan oinarritua da lotura.

- *Pello bilkurara etorri ez bada, eri da* (cf. 26b)

(26b) adibidean, dedukzio bat adierazten du esaleak. Izan ere, adibide horretan ere, *Pello eri izatea* ez daiteke *Pello bilkurara ez etortzearen* ondorioa izan. Alderantziz, izatekotz, kausa da, ez ondorioe. Hain zuzen ere, perpaus nagusian adierazia (*Pello eri izatea*) baldintza perpausaren esenaren (*bilkurara ez etortzea*) kausa izan daitekeelako bideratzen da dedukzioa.

- *Axularrek 'Guero' idatzi bazuen, orduko irakurtzaileek holako liburuen beharra zutelakoan egin zuen* (cf. 26c)

(26c) adibidean, perpaus nagusiak baldintza perpausoko proposizio edukia berriz hartzen du (*egin zuen* = 'Guero' idatzi zuen), eta galdegai gisa agertzen den informazio bat gaineralzen du, kausazko perpaus gisa agerrarazirik (*orduko irakurtzaileek holako liburuen beharra zutelakoan*). Kasu horretan esalaak, bai eta haren solaskideek ere, baitakite Axularrek *Guero* idatzi zuela, ez da hipotesirik egiten baldintza perpausuan, eta ez da perpaus nagusian esana denari buruz kausarik adierazten. Alderantziz, usaiako loturak kanbiatuz, ohiko kausa-erlazioa aldez kontra emana da: hemen baldintza perpausari dagokion kausa perpaus nagusian adierazia da, kausazko perpaus hori galdegai gisa hanpatua izanik.

- *Miren etortzen bada, berandu etorriko da* (cf. 26d)

(26d) adibidean, aurrekoan bezala, perpaus nagusiak baldintza perpausoko proposizio edukia berriz errepikatzen du, eta galdagaia (*berandu*) gaineratzen. Kasu honetan, ordea, (26c)n ez bezala, baldintza perpausa ez dagokio solaskideek aitzinetik jakintzat daukaten zerbaiti, eta hipotesi gisa agertzen da. Hain zuzen, esaleak adierazten du hipotesi hori betelzekotan haren ustez zer gisatan gertatuko den. Hemen ere, beraz, ondore perpausa ez da gertakarien logikako ondorioa.

- *Hobe dugu hemendik joatea, norbait etortzen bada ere* (cf. 26e)

(26e)n, baldintza perpausak gerta daitekeen zerbait aipatzen du arrisku bat balitz bezala. Esalearen ikuspegian mentura hori aski da ondore perpausuan dioenaren funtsatzeko. Baldintza perpaus ohiko edo kanonikoetan esaleak dio "norbait atortzeko baldintza bete ondoan" gertatuko dela perpaus nagusian adierazten den ondorioa; ez da horrela, hemengo erabileran, non esalaak baitio inor etorri gabe ere, "norbait etor daitekeelako soilik", hobe dela joatea, badaezpada ere.

- *Zu kantaria bazara, ni apezpiku!* (cf. 26f)

Adibide horretan, baldintza modu polemiko batean erabilia da. Hiztunak ez du egiaztat jotzen protasian emana den proposizioa (normalean beste betengandik hartu solas ekarria izanik hura). Hura gezurtatzeko, ordea, ondore perpausuan solaskideentzat aitzinetik gezurtat joa den proposizio bat ematen du. (26f) bezalako adibide baten interpretazioan, ulertzen dugu norbaitek esan duela hiztunaren solaskidea kantaria dela, baina hiztunak berak ez duela batere hala uste. Hain zuzen, ondore perpausuan hala ez den gordin bat esanez (apezpiku dela, adibidez), adieraztera ematen du baldintzian ekarri solasari ere berak egiaztasun maila bera ematen diola.

- *Europako testuinguruan euskara oso-oso zaharra bada, Afrikan, Asian eta Ozeanian hizkuntza asko badirateke halere, hura bezain zaharrak edo zaharragoak direnak* (cf. 26g)

Kasu honetan interpretazio kontzesiboa ematen zaio adibideari. Hiztunak ondore perpausuan dioena kontrajartzen zaio inferentziaz batek protasian

esanetik atera daitekeen ondorioari (hizkuntza gubxi dela munduan euskara bezain zahar, edo hura baino zaharrago denik).

1.3. BALDINTZA PERPAUSEN AURKEZPEN OROKORRA

Baldintza perpaus jokatuak bakarrik ikertzen baititugu liburuki honetan, gure sailkapena BA-perpausen inguruan bereziki eginen dugu lehenik, gutxi baitira bestelako forma jokatuak dutenak, ondotik aurkeztuko ditugunak (cf. 1.5.2.10 NON EZ ... -eN erako perpausak).

Baldintza perpausaz eginen dugun sailkapena, berriz, arazo orokor batzuk aipatu ondoan, aditzen aspektua, eta tempusak kontuan harturik eginen dugu (4).

1.3.1. BA- aurrizkia

Baldintza perpausen ezaugarri formal nagusia BA- aurrizkia da. Dakigun bezala, bada forma bereko beste aditz aurrizki bat, baiezko perpausetan aditz trinkoekin bereziki erabiltzen dena. Bi morfemak, itxura bera izanagatik, bereiztekoak dira: i) baldintzazko aurrizkia menderagailua da, ii) ezin ager daiteke adizkera jokatuak bereiz, iii) ezezko perpausetan erabil daiteke, eta iv) libreki lot dakieke aditz laguntzaileei. Aldiz, BA- baiezkoa i) ez da menderagailua, ii) batzuetan aditz jokatuak bereiz ager daiteke (*omen, ote* edo *a/ bezalako partikula bat artean gertaturik*), iii) ezin enplega daiteke ezezko perpausetan, eta iv) oso itzuli markatuetan ez bada nekez lot dakieke aditz laguntzaileei.

BA- baldintzako menderagailua denaz gero, ezin batera daiteke adizkera batean beste menderagailu batekin (BA- baiezkoa egin daitekeelarik):

(27) a. Orhoit hadi, muthikoa, [mintzatzeak zilharra *balio badu* zenbat aldiz, ixilizeak maizago urhea *balio duela*] (J. B. Etissamburu, *Piarrés Adarne*, 29).

b. Eztuzula uste [enganiorik badela [batzutan ustegabez deboziona berehala *bazaramatza* goiti], [eta handik laster zure bihotza *bihurtzen bada* leheneko ergelkerietara]]. (S. Pouvreau, *Jesusen Imitacionea*, 127).

(27a) adibidean ikus daiteke perpaus osagarriko osagaia den baldintza perpausak ez duela -eLA menderagailua hartzen, baina, aitzitik, atzizki hori badakarrela perpaus osagarri hortako aditz nagusiak (*balio duela*). Berdin gertatzen da (27b) adibidean. Honetan, gainera, ikusten dugu aditz osagarriko aditz nagusiak BA baiezkoa dakarrela, eta hark bai -eLA alizkia ere hartzen duela (*badela*); ez da horrela gertatzen ordea, perpaus osagarriko baldintza perpausetan (*bazaramatza, bihurtzen bada*).

Ikus daiteke, bestalde, (27a)ko adibidean, BA- baldintzakoak dakarren adizkera ez dela alokutiboa, nahiz esalee toka ari den. Dakigun bezala, euskalki gehienetako literatura tradizioan, ez da forma alokutiborik erabiltzen menderagailua dakarten adizkeretan.

Kontsidera halaber ondoko adibidea:

(28) Zenbat nahi guli bermatu *balin badira* ere, ba ahal zakie zerbeit (J. Etchepare, *Buruchkak*, 104).

(28) adibidean, ikus daiteke *BA-* aurrizkien arteko kontrastea alokutibotasunari buruz: *BA-* baldintzazkoa, adizkera neutroari (*dira*) loturik dagoelarik, *BA-* baiezkoa, berriz, adizkera alokutiboarekin erabilia da (*zakie*: *dakite* adizkeraren tokako forma da *B*. Etxepareren euskalkian). Bestalde, ohargarria da adibide horretako perpaus nagusian, *BA-* aurrizkiaren eta adizkeraren artean agertzen dela *ahal* agiantzazko partikula, horrelakorik ezin gerta baitaiteke *BA-* baldintzakoarekin, nahitaez adizkera jokatuari zuzenean lotu behar bailzaio hau. Egin dezagun beste ohar bat, dena dela: (28) adibidean *ERE* lokailua juntatu zaio *BA-*perpausari eta, beraz, hemengo sailkapenean, konzlesio perpausa da hura. Halere, hemen aztertzen ditugun ezaugarri morfosintaktikoei dagokienaz, ez dago diferentziarik, era horretako konzlesio perpausak baldintza perpausetan oinarrituak baitira.

Halere, euskalki guztiek ez dute jarrera bera atxiki alokutibotasunari buruz, eta batzuetan, mendebaldeko zenbait erabileratan, agertzen dira adizkera alokutiboak baldintza perpausetan:

- (29) Gure galdezka inor etortzen *baldin* badek, alkar ilda errekan gaudela esan akiok (G. Mujica, *Fernando Amezketa*, 76).

1.3.2. *BALDIN* lokailu indargarria

Baldintza perpausetan maiz erabiltzen da lokailu bat, menderagailuaren indargarria dena eta itxura desberdinetan agertzen dena literatura tradizioan: *baldin* (erdialdeko euskalkietan bereziki, eta orain euskara batuan), *balin* (ekialdeko euskalkietan); beste formak, hala nola *barin* edo *bardin*, anitzez gutxiagotan aurkitzen dira; ikus *OEH*.³ Forma joriagoak ere kausitzen dira: *baldin-eta*, *baldinetaria(k)*, *baldinetarian*, *bal(d)inetan*. Forma horiek ez dute baitezpada elkar kanporatzen, eta idazle batek hirurak erabili ditzake (Etxepare zaharrak, adibidez, *baldin*, *balin* eta *balinetan* hiru formak erabiltzen zituen, zeinek bere tokia zuela).

Kasustika xehegi batean sartu gabe, 16. mendetik honako erabilerak nolobait sailkatu behar bagenitu hauxe esan genezake:

- Gehienetan lokailu indargarriaren forma joriek *baldin* dute oinarri (*balinetan* Etxepare zaharrak bakarrik erabili zuen): *baldin(-)eta*, *baldinetaria(k)*, *baldinetarian* (ikus *OEH*). Hauek beti baldintza perpausen hastapenean agertzen dira:

- (30) *Balinetan* nik *banerro* hari neure bihotza (B. Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 5-18).
- (31) Ez daki zer aterako zuen oraino Zanpagaray gaizoak, *baldin-eta* boz samin eta azkar batek *ez batu* bel-betan *ixil-arazi* (P. Lafite, *Murtuts eta bertze*, 8).
- (32) *Baldinetaria*, bere ondiko handitan, bekhatu huntan *erori bada*, eta haren bekhatua publik errendatu bada; ez dezazula hartatik mespreza (J. Haraneder, *Gudu izpirituala*, 112).

- *BALDIN* indargarriaren kokalekua, oro har libre dela esan daiteke baldintza bakar batekin: aditz jokatuaren aurrean izatea; honi kontra edo honetarik bereiz, baina beti ezker aldean, perpaus hastapenean ere bai:

³ *OEH* = *Orotariko Euskal Hiztegia*.

. Baldintza perpausaren hastean:

- (33) a. *Baldin* lepra izan oi den bezain luzea bada aren eritasuna (S. Mendiburu, *Mendibururen idazlan argitaragabeak I*, 285).
- b. Eta *baldin*,aldi bat edo bertza, ez *balitz* kausitzen gure gogoetari dohakon hitz garbi xuxena, *baldin* entsegaturik ere ez *balathor* hitz hori, mintzatu nahi eta ezin mintza, ah orduan ere ez *ginuke* zeren lotsatu, ezen gure mintzai-Eskuarak hitz berrien egiteko antzea badu, eta maiz berri horiek ez dire ederrago beizik (J. P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 14).

. Adizkera jokatuaren aurreko posizioan:

- c. *Zu baldin bazara* Kristo la laster il bear baduzu, zergatik aldegin du emendik Eliak (P. Iraizoz, *Yesus Kristoren bizia*, 244).
- d. Euskadi, eta berriz ere Euskadi diot, Euskal Herria ez esateagatik, eta inork inoiz nere gauzak *irakumi* edo *entzun baldin baditu*, badaki nik beti Euskal Herria sartzen dudala, eta ez Euskadi (K. Mixelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 56).

Tradizio zaharretan, ezezko perpausetan *BALDIN* indargarria *EZ*-en ezker aldean agertzeko joera bazuen, orain alzean nahiz aurrean ager daiteke:

- (34) Ba eta baitzoazin erroz gora, *baldin* ez *balitu* nerearen parreko etxe-ekina batek xutik atxiki (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 203).
- (35) Hitzak haizeak eramaten omen ditu, eta, nolazpait gorde ez *baldin* badira, betirako gailzen dira (K. Mixelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 53).

. *Balin* forma:

Balin forma soila, ekialdeko euskalkietan (eta Baztanen ere) baliatzen dena, beti adizkera jokatuaren ezkerreko lehen posizioan agertzen da, *BA-* aurrizkiaren ezkerrean, *EZ*-en eskuinean ezezko perpausetan:

- (36) Zion oraino: Eskualdun gazteria pilotari huterik *juja balin* baditeke, pare gabea da munduan (Zaldubey, *Obrak*, 89).
- (37) edo ez *balin* badakizue irakhurtzen, errazue, heien orde, arrosarioa edo bertze zenbeit othoitz (J. P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 182).

Funtsean, *balin* forma soil hau *BALDIN*-ek zenbait euskalkitan adizkera jokatuaren aitzineko tokian hartzen duen aldaera berezi gisa agertzen zaigu. Halere bi formak nolabait beregain jarri dira batzuetan, eta zenbait idazlek lokailuaren bi moldeak perpaus bakarrean erabiltzen dituzte, *baldin* perpaus hastean izanik, eta *balin*, eiz, *BA-* menderagailuaren aurrean:

- (38) a. Sakrifiziorik handiena arbulua izanen da *baldin* haren ofrendatzaileak *balin* *badu* bihotzean nihoren alderako hotzetasunik gutiena (B. Larreguy, *Testament zaharr. berr. historia*, 2, 146).
- b. Makurra xuxenduren dautzute berek, edo kukuturen, *baldin* heien eskualdeak *balin* *badauzkazu* (J. Hiriart-Urruty, *Mintzaira, Aurpegia, Gizon*, 89).

1.3.3. Baldintza perpausaren nolakotasuna

Baldintza perpausak ezin izan daitezke galdera perpausak. Halere, haien barneko osagai beten gainean galdera egin daiteke, eta orduan baldintzadun perpaus osoa galderazkoa izan daiteke:

- (39) a. Nor etortzen balitz poztuko zinateke?
 b. Zein hizkuntza ikasten badugu pentsatzen duzu lan berria aurkituko dugula?

Baldintza perpausak galderak ezin izan baitaitezke, ofe edo *al* bezalako galderetako partikulak ezin erabil daitezke haietan. Zeharkako solasa adierazten duen *omen* partikula ere ez:

c. *Laguna bihar etortzen omen bazaizu, (hari konta zure arangura).

Harridurazko perpausak, askotan agiantza moduan emanak, molda daitezke baldintza perpausen bidez:

d. Deabrua sar laiekio!

e. Gezur hori egia balitz! (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak II*, 109).

1.3.4. Baldintza perpausa perpaus mintzagai gisa

Baldintza perpausak mintzagai gisa agertzen dira askotan, eta errazki erabil daitezke mintzagaien bereizkuntza bideratzen dituzten aditzekin (EGLU V: 43):

(40) a. Pello laguntzera joaten bazaizu, badakit lanak ondo eginen dituzuela.

Adibide horretan *badakit* aditzaren ezker aldean agertzen den baldintza perpausa perpaus osagarriari dagokio (*Pello laguntzera joaten bazaizu, lanak ondo eginen dituzu*). Baldintza perpausa mintzagai izanik, aditz gobernatzailearen ezker aldean agertzen da ondore perpausetik bereiz.

Molde berekoak dira ondoko adibideak ere (40b,c):

b. Grezian izan balitz hotako bat duela bi mila urthe, *segur* erdi-erdian eraiki liketela, marbrez, Olerkiaren tenplo bat (J. Etchepare, *Benbiletz*, 9).

(40b) adibidean, perpaus osagarria baldintzadun perpausa da. Ikus daitekeen bezala, haren gobernatzailea (*segur*) baldintza perpausaren ondotik agertzen da, baina ondore perpausa baino lehenago, perpaus osagarriaren bi parteen artean, beraz. Horrelakoa da ondoko adibidea ere (aditz gobernatzailea azpimarratua delarik):

c. *Balitz* Eskual-herrian ahur bat gizon, arrotzerat doazin haurrak bil litzazkena, diruz guti edo aski duten, elhe onez susta, jan edan ala etzantzat garbiki ostala, etxetik untziraino artzain zuhur baten menea hel, hau aitziaineko *etzautzu iduri* egintza ederrenetarik bal *litakela*, haur batzuer esku emaita hori (J. Etchepare, *Buruchkak*, 207).

Perpaus adjuntuak mintzagai direnean, haien barneko izen sintagma batek perpaus nagusiko izenorde bati erreferentzia eman diezaioke. Adibidez, ondoko adibidean, perpaus nagusiko subjektua *Pello* izan daiteke, edo solasaren testuinguruan jadanik aipatua izan den beste norbait (azpi-indizean bidez adierazten ditugu bi interpretazioak):

(41) a. Pellok han ikusten bazaitu, biziki poztuko da.

Pellok_i han ikusten bazaitu, Ø_j biziki poztuko da.

Mintzagai gisa baliatzen diren perpausetan guztiz bidezko da jokabide hau, baina esan gabe doa ez dela obligatuzkoa, eta alderantziz izan daitezkeela erlazioak, izenordea perpaus nagusian izanik. Horrela, ondoko adibidean (41b), ondore perpausaren agertzen da baldintza perpausaren izenorde batekin erreferentziakide duen izen sintagma (*Pello*):

- b. Han ikusten bazaitu, Pello biziki poztuko da.

Ø₁ Han ikusten bazaitu, Pello, biziki poztuko da.

(41b)ko adibidean, baldintza perpausako subjektua ez da agerian, baina, ondore perpausaren aipalzen den Pello izan daiteke. Ohartzekoa da, ondore perpausari dagokion izen sintagma bat mintzagai gisa hanpatzen bada, baldintza perpausa baino lehenago agertzen ahalko dela:

- c. Pello ere, han ikusten bazaitu, biziki poztuko da.

c'. Pello, ere, Ø₁ han ikusten bazaitu, biziki poztuko da.

(41c) adibidean *Pello* (kasu absolutiboa duena) ondore perpausako *poztuko da* aditzaren subjektua da. Halere, perpaus horren interpretazio batean bederen, *ikusten bazaitu* baldintza perpausako aditzaren subjektua "Pello" da, horrek esan nahi baitu perpaus horretako subjektua (agerian izanik kasu ergatiboa lekarkeena) "Pello" izendatzen duen izenordain isifa dela, (41c') erakutsia den bezala.

Perpaus mintzagai izateko joera horregatik, baldintza perpausak anitzetan perpaus nagusiaren ezkerrean agertzen dira, hortik heldu baitzaie *protasi* deitura (ondore perpausaren aitzinean agertzen ohi direlako). Ez da, halere, ezinbesteko kontua eta honen eskuinean ere erabil daitezke jadanik aipatu adibide anitzetan ikus daitezkeen bezala (2, 7, 31, 34, 38a, 38b).

1.3.5. Baldintzadun perpausak mendeko perpausak direnean

Baldintzadun perpausak mendeko perpausak izan daitezkeela ikusi dugu aurreko puntuan (1.3.4), adibidez, perpaus osagarriak. Horrelakoak dira ondoko adibideetakoak ere (letra etzanez ezartzen dugu perpaus osagarriko gobernatzailea):

- (42) a. [[Aldi arlan zu an arkitu bazina], zer egiñen zenuela] *uste dez* (S. Mendiburu, *Mendibururen idazlan argitaragabeak II*, 312).
b. *Iduri zaku*, [[hil dena bizi baliz], atsegin zukela, hau hemen irakurtzea] (J. Hinar-Uruty, *Mintzaira, Aurpegia*, Gizon, 158).

Aukera hau ez da perpaus osagarrietara mugatzen, zeren baldintzadun perpausak beste mendeko perpaus batzuk ere, erlatiboak edo kausazkoak adibidez, osa baititzakete:

- c. Ez dakit zer egin nezakeen [[zurekin lan egingo banu] irabaziko nukeen] diruaz.

Adibide horretan *diru* izenaren ezkerrean den perpaus erlatiboa baldintzadun perpausa da:

- d. Liburua ez dizut emanen {zeren [lagunek jakiten balute] gaizki hartuko bailukele}.

(42d) adibidean baldintzadun perpausa perpaus kausazkoa da. Ondoko adibidean, berriz, helburu perpaus bat osatzen du:

- e. Liburu hau eskainiko dizut, [[irakurtzeko astia baduzu] zerbait ikas ahal dezazun].

Halere, baldintzadun perpausak ez dezakete edozein mendeko perpausa osa. Denborazko perpausak, bereziki, ezin izan daitezke baldintzadun perpausak, (43b)k erakusten duen bezala:

- (43) a. Zure nagusia ikusten badut salatuko zaitut. Orduan dolutuko zaizu.
b. *Zure nagusia ikusten badut salatuko zaitudanean, dolutuko zaizu.

1.3.6. Baldintza perpausen barneko osagai ordena

Baldintza perpausaren barneko osagaien ordena librea da. Aditza perpausaren aitzinean, erdian edo bukaeran izan daiteke. Adibidez, objektu zuzenaren aurrean izan daiteke (44a), edo haren ondoren (44b):

- (44) a. [baldintzen badiozka nekeren batzuek], gaiztoago egiten da (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia* I, 402).
b. obeto artuko naute ni ere [alako pozkaria batzuek egiten badiozkaf] (V. Moguel, *Ipui onac*, 20).

Berdin gertatzen da beste osagaiekin. Horrela, (45a) adibidean subjektua (*eriotziak*), moduzko osagaia (*uste bagaan*) eta predikatu bigarrenkaria (*onduteko asmo soili, ta zoruakaz*) aditzaren eskuinean dira. Aitzitik, (45b) adibidean, predikatu bigarrenkaria (*guzurrian*) aditzaren ezkerrean da:

- (45) a. [Ela *artuten bagaitu* eriotziak uste bagaan onduteko asmo soili, ta zoruakaz] salbauko gaitube gero onduteko gogo edo propositubak? (J. A. Moguel, *Confesioa* ona, 102).
b. Zer izango da [guzurrian *artuten bagaitu*] (J. J. Moguel, *Beserritear nequazaleentzaco escolia*, 58).

Baldintza perpausak berak ere konplaxuak izan daitezke, orduan beren barnean perpaus osagarria edo adjunktua dutela. Perpaus hau (edo hauek) baldintza perpausoko aditzaren aurreko edo atzeko partean ere izan daite(z)ke. Halere, mendeko perpaus hauek luzeak direnean, maizenik, BA-menderagailua dakarren aditz gobernatzailearen eskuin aldean izaten dira, hala nola ondoko adibidean:

- c. [Baldin norbeitik *abertitzen bagaitu* [badugula bisaian notha bat]], eskerrak bihurtzen diozkigu (A. Jauretche, *Meditazioneac*, 129).
d. [Dongaro prestaulta daguanari konfesorik *esaten badeutsa*: [Nik absolbidu, edo askatuten zaitudaz]], esango dau Kristok: eta nik lotubago largaten zaitudaz (J. A. Moguel, *Confesioa* ona, 11).

Adibide horietan *abertitu* eta *esaten* aditzei dagozkien perpaus osagarriak aditz gobernatzailearen eskuinaldean dira, batean perpaus osagarria zeharkako diskurtsoan emana izanik (45c), bestean diskurtso zuzenean (45d).

Gauza bera gerta daiteke perpaus adjunktuekin ere, hala nola agertzen baita ondoko adibidean:

- (46) zertaz errenkuratzen gare bada, [baldin Jainkoak mundu huntan *punitzen bagaitu* [bere miseriak handian, bertzean gure begiratzekotzat bere justiziaren garratzasunelik]] (A. Jauretche, *Meditazioneac*, 177).

Adibide horretan baldintza perpausaren barneko helburu perpaus jokatu gabea, *punitu* aditz gobematzaiaren eskuinaldean da.

Aditz nagusiaren tokia ezezko baldintza perpausetan:

Dakigun bezala, mendekoak ez diren ezezko perpausetan aditz laguntzailea ezezko hitzarekin batean aditz nagusiaren aurrean egoten da, hari hurbil edo urruti, nola gerta. Ezezko baldintza perpausetan ere ordena hori aurki daitekeen arren (47a,b), maiz alderantzizkoa ere kausitzen da (48a-c), aditz nagusia ez-en eta aditz laguntzailearen ezkerrean egonik, perpaus menderatugabeetan nekez erabil daitekeen posizio batean, beraz:

- (47) a. Ba eta baitzoazin erroz gorá, *baldin ez balitu* nerearen parreko etxe-etzkina batek xulik *atxiki* (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 203).
- b. (Konfesiõora elduten dana pekatuan dago, pekatoren bat dau,) eta *ezpaleu* sekula *egin* ez leuka konfesatu bearrik (P. A. Añibarro, *Guero Guero*, 341).
- (48) a. Zer egin genazake bizi ontan, adiskide, *mediku ta abarrez, oinbeste ta oinbeste gauza sifetsiko ez bagenie* (Onxe, *Aitorkizunak*, 132).
- b. Ta arras zanpatuko zuan *tartotu ez balitz* beste itsastar jendea (A. Anabitarte, *Poli*, 27).
- c. Eta orai gure artean erran zizakeiagu Olhetako beslak besta hitsak izanen zirela aurrean, Piarres Adame, Saratarra, han *kausitu ez balitz* (J. B. Elissamburu, *Piarres Adame*, 71).

Ondoko adibidean, autoreak bi ordena mota erabiltzen ditu, lehen baldintza perpausaren aditz laguntzailea aurrean ezarriz, eta beste bietan aditz laguntzailea aditz nagusiaren eskuinaldean emanik:

- (49) Erromes edo noharroinak zer egin lezake, *ez baliz* aberatsen ahetara *heltzen, agertzen ez balitu* bere zauriak, eta bere premiaz eskaltzen *ez batu* (J. Duvoisin, *Liburu Ederre*, 142).

1.4. BALDINTZA PERPAUSEN SAILKAPEN NAGUSIA

1.4.1. Baldintza irrealak eta baldintza errealak

Ikusi dugu gorago baldintza perpausak kontrafaktualak edo gertegaitzak diren hipotesiak adieraz ditzaketela, baina ez direla baldintza perpaus guztiak mota horretakoak. Hain zuzen ere, semantikazko bereizkuntza horren arabera sailkatzen ohi dira formaz ere euskarazko baldintza perpausak, alegialdikoak direnak eta hela ez direnak elkarretarik bereiziz. Beha ondoko adibideei:

- (50) a. Francoren armadak Espainiako gerta zibila galdu **bazuen / batu*.
- b. Francoren armadak Espainiako gerta zibila irabazi *bazuen / *batu*.
- c. Bilbotar eta baiones gehienek euskara ez *badakite / *balakite*.
- d. Bilbotar eta baiones gehienek euskara **badakite / balakite*.

Adibide horiek ikusirik, argi da Espainiako gerra zibilaren berri edo Baiona eta Bilboko hizkuntza egoeren berri daukan hiztunak ez duele askatasunik baldintza perpausako adizkera hautatzeko orduen: alegialdia erabili behar du

baldintza perpausean esana kontrafaktuala denean, esan nahi baitu hala ez dena dioenean (50a,c); alderantziz, ezin egokiro erabili dezake tempus hau baldintza perpausean esanaren faktualitatea dudaz kanpo denean, zeren orduan iraganaldia (50b) edo orainaldia (50d) erabili behar baitu; ((26f) bezalako inferentzia bidezko erabilera berezi batean aurrean ez bagaude, behinbat).


Bereizkuntza hau hiztunek aurretik modu seguruan ezagunak dituzten kontuak aipatzean gertatzen da. Ez da berdin nabari, hiztunentzat hain argi ez diren kontuak aipatzean. Demagun, bi donostiarrek maiatzeko egun batez biharamuneko eguraldiaz hitz egiten dutela, aurreko adibideetako kontrastea ez da molde berean ageriko, baldintza perpausak biharamunean euri izatea (edo ez) aipatzen badu:

- (51) a. Bihar euria *egiten* badu.
 b. Bihar euria *egingo* batu.

Bi adibide horiek egoki erabiliak izan daitezkeen arren, ez dira sinonimoak. Lehen kasuan, hiztunak adieraztera ematen du haren ustez biharamunean Donostian euri egitea gerta daitekeen gauza dela, hots, gauza segura izan gabe ere, guztiz gertakor iruditzen zaiola. Alderantziz, (51b) adibidean, gertalze hori hipotetikoagotzat jotzen du.

Beste hizkuntza askotan agertzan baita gisa bereko bereizkuntza, maiz *baldintza irrealak* eta *baldintza errealak* bereizten dira haietan. Euskaran ere terminologia bera hartuz, esan daitake lehenbizikoek alegialdia dakartala, eta bigarrenek, berriz, edo iraganaldia edo orainaldia; ikus (EGLU II). Honela, beraz:

(52a) BALDINTZA PERPAUSEN SAILKAPEN NAGUSIA



1.4.2. Aspektu oposizioak baldintza irreeletan

Aurreko paragrafoan ikusi bezala, euskaraz baldintza irrealak tempus marken bidez adierazten diren gero, tempus markadurari dagokio alegialdia. Ondorioz, haietan [+oraina] vs [+iragana] oposiziorik ez izanik, aspektu marken bidez seinatzen dira alegialdiko baldintzetan ager daitezkeen denbora oposizioak.

Baldintza irreeletan, bereizkuntza nagusia [\pm burutua] aspektu ezaugarriak markatzen du. Horrela bitan sailkatzen dira baldintza irrealak, alde batetik aspektu burutua ([+burutua] ezaugarria) duten alegialdiko baldintza perpausak izanik, eta, beste aldetik, berriz, [-burutua] ezaugarria ez dutenak, azken hauek, aurrekoak ez bezala, forma askotarikoak izan daitezkeelarik:

(52b) ALEGIALDIKO BALDINTZEN ASPEKTU OPOSIZIO NAGUSIA

- [+burutua] direnak: *etorri balitz*
baletor
- [+burutua] ez direnak: *etor baledi*
etortzen / etorriko balitz

[+burutua] ezaugarri duten baldintzek, solas unean bururatuak diren egoerak eta gertakariak, edo gertakari segidak, aipalzen dituzte, eta haietako aditzek aspektu burutua izan behar dute nahitaez. Berdin du noiz kokatzen den denboran bururapen hori, solas unetik hurbil-hurbil edo, alderantziz, denboran oso urruti, adizkera bera erabil daiteke:

- (53) a. *Duela segundu bat aitzinera agertu balitzait.*
b. *Duela berrogei urte sortegunean agertu balitzait.*

[+burutua] ezaugarria ez duten alegialdiko baldintzak, berriz, era desberdinetakoak izan daitezke: aspektu markarik gabekoak (era trinkoan jokatuak edo aspektu markarik eskatzen ez duen aditz laguntzailea izanik), edo aspektu burutugabea edo gerokoa izanik. Solas unean hastekoak diren egoerak eta gertakariak adieraz daitezke haien bidez (53c), edo hasiak izanik burutuak ez direnak (53d) edo gertakari segidak ere (53e):

- c. *Bihar edo etzi hango jende xehea jazarriko / jazaritzen balitz edo jazar baledi.*
d. *Diru gehiago (izango) banu.*
e. *Igandeetan ere lan egingo banu / Igandeetan ere lan egiten banu.*

Horrela *ekarri* bezalako aditz baten kasuan, ondoko lau adizkera hauek elkarren parekoak edo izan daitezke erabileran:

- f. *Biharko egunak berri hobekak ekarriko balitu / ekartzen balitu / ekar balitza / balekartzatza.*

Euskalkietan agertzen diren mugak bazterrean uzten badira (argi da adibidez, euskalki batzuetan *ekarri* aditzaren jokabide trinkoa ez dela erabiltzen, alegialdian bereziki, edo, beste euskalki batzuetan, **ezan* laguntzailea ezin jokaraz daitekeela baldintza perpausetan), ez dirudi lau aukera horietako bihi batez (53c)ko adibidean gaizki erabilia dela esan daitekeela. Beraz, alegialdiko

baldintza burutuen ezaugarria modu bakarrean biltzen ahal izan bada [+burutua] direla esanez, bestelako baldintzen aniztasuna kontuan hartu behar dugu:

(54a) [+burutua] EZAUGARRIA EZ DUTEN ALEGIALDIKO BALDINTZAK:

baletor: [-perifrastikoa]


etor baledi: [+perifrastikoa, -aspektua]

etorriko balitz: [+perifrastikoa, +aspektua, +gerokoa]

etortzen balitz: [+perifrastikoa, +aspektua, -gerokoa]

Ondoko atalean aztertuko dira agertzen diren aukera guztiak, mementokotz sailkapen honetan bilduko ditugu alegialdiko baldintzetan agertzen diren aukera guztiak:

(54b) ALEGIALDIKO BALDINTZEN ADIZKERA JOKATUEN SAILKAPENA:



1.4.3. Baldintza eta ondore perpausen arteko alegialdiko komunztadura

Baldintza perpausak mendeko perpausak dira, eta ondore perpaus batekin batean agertzen dira. Aski lotura hertsia da bi perpaus horien artean, eta tempus komunztaduran bereziki kontuan hartzekoak dira lotura horiek.

1.4.3.1. Alegialdiko komunztadura

Tempus komunztadura, lehen-lehenik, baldintzaren faktualitatearen edo gertakortasunaren arabera finkatzen da. Ikusi baitugu gorago baldintza perpausak kontrafaktualak edo gertagaizak diren hipotesiak adieraz ditzaketela (1.2.3), argi da horrelakoetan alegialdiko adizkiak erabili behar direla, hala baldintza perpausetan nola ondore perpausetan (ikus *EGLU II*, 131):

- (55) a. Hura errege balitz, zu erregina zinaleke.
 b. *Hura errege balitz, zu erregina zara.
 c. *Hura errege bada, zu erregina zinateke.
 d. Hura errege bada, zu erregina zara.

Ikus dezakegunaz, (55a-b) adibideetan baldintza perpausa alegialdian da, aditzak jokadura trinkoa izanik (*banintz*). Ondore perpausak ere ber tempusean agertu behar du, bestela gaizki eratua da perpaus osoa, (55b) adibideak erakusten duen bezala. Esan gabe doa, baldintza perpausa ez bada alegialdian, ondore perpausa ere normalean ez dela tempus horretan: cf. (55c) vs (55d). Tempus komunztadura, (55) adibideetan alegialdikoa, deitzen da mota horretako perpausen arteko tempus lotura. Geroxeago ikusiko dugu, gauzak ez direla beti (55)ko adibideetan bezain argi, edo aditz morfologiatik (bereziki baldintza perpausako aditzak aspektu burutua duenean; cf. (1.5.1.1)), edo espresibitate berezi bat erdietsi nahi denean (cf. (81e) (89d)), baina, halere, joera nagusia gisa horretakoa da.

1.4.3.2. Tempus komunztadura arazoak zehar-solasetan

Horago, 1.4.2 puntuan, esan dugun bezala, alegialdiak ezabatzen du orainaldia vs iraganaldia tempus oposizioa. Bestalde, *EGLU* Vean (1.2.2) ikusi genuen perpaus osagarriek tempus komunztadura dela bide aditz gobernatzaileren aldia izan dezaketela.

Zer gertatzen da baldintzadun perpaus bat iraganaldian den aditz gobernatzaille batekin erabilia denean? Baldintza perpausari dagokionez, ez dago dudarik: alegialdia badagokio, alegialdian izan behar da. Ondore perpausko aditzari dagokionez, ordea, gauzak nahasiago dire, eta bi aukera agertzen dira: aditz gobernatzaileren aldiarekin komunztatuz gero, iraganaldikoa izaten da perpaus hartako aditza; protasiarekilako tempus komunztadura atxikiz gero, aitzitik, alegialdikoa. Badirudi bi aukerak aurkitzen direla, ondoko adibidean ikus daitekeen bezala:

- (56) Bagenekien lasto metari su emango bagenio umeak pozik egongo zirela /
 liratekeela.

Tempusari dagokionez, (56) adibideko ondore perpausko aditza protasiko aditzarekin komunztatzen bada *egongo lirateke* adizkera dugu. Aldiz, aditz gobernatzaillearekin komunztatzen bada, *egongo ziren* da aditza. Hona adibide balzuek non alegialdiko komunztadura nagusitzen baita ondore perpausan:

- (57) a. Nausi adoragarriak ihardetsi zioten hori heldu zela hekin fede eskasetik, eta
balute fede gehiago, *gai litezkela* mendiak errotarik atherarik, iragan
 eraztekotzat itsasoan barna (B. Larreguy, *Testament gaharr. berr. historiaa*, 2,
 170).
 b. Bein baten, onetariko mutil aldratxo bat, lau edo bost, ei eguan Urkiolako benta
 zarrian. Ilunabarrian elduta, bentako sukaldian egozan apalduten. Bai ei zan an
 arrokeriya, asarkeriya ta balentekeriya ugari; eurenk etzerala iñoren bildur, bidian
 amar gizonek *urtengo baleutsie* be *leukiela* atzerarik *egingo*, ez, arraioa, gauzik
 asko baño *gurago leukiela* batebatak ezer *esango baleutse*, makillak yokatzeko.
 La olan ebilzan arro-arro (Kirikiño, *Bigamengo Abarrak*, 165).

Ikus daiteke bi adibide horietan baldintzadun perpausa perpaus osagarria dela (iraganaldiko adierazpeneko perpaus osagarri batekin juntatua da: *hori*

heldu zela hekin fede eskasetik, etzirala ifloren bildur). Bi kasuetan alegialdiko tempusa agertzen da baldintza perpausetan (*balute, urtengo baleutsie* eta *esango baleutse*), baina baita ondore perpausetan ere (*gai litezkeela, eleukiela (...)* *egingo* eta *gurago leukiela*). Esan daiteke, alegialdiko komunztadurak, esan nahi baitu, ondore perpausak baldintza perpausarekin duenak, gain hartu diola orduan iraganaldiko komunztadurari (esan nahi baitu, baldintzadun perpaus osagarriak aditz gobernatzailea daukan perpausarekin duen komunztadurari). Horrelakoa da ondoko adibidea ere:

- c. Pilatusek ikhusi zuenean Salbatzailea gaixtagin baten plantan, erran ziolen yuduei: zertako galdetzen zuten gizon haren heriotzea. Guziek, boz beraz, ihardetsi zuten ez *liozoketela galde* haren heriotzea ez *balitz* gizon gaixo bat (B. Larreguy, *Testament çaharr. berr. historia*, 2, 268).

1.5. BALDINTZA PERPAUSEN AZTERKETA

Esana dugu gorago baldintza perpaus jokatuak BA- aurrizki menderatzailearen bidez eratzen direla. Ondoko orrialdeetan mota horretako mendeko perpausen bidez sortzen diren egituren azterketa eginen dugu, adizkeren formari kasu eginez oroz gainetik, eta ondore perpausoko adizkerari ere so eginez.

Baldintza perpausen sailkapenaren oinarritzko abiapuntua euskaraz tempusa da, haren bidez seinalatzen baita noiz adierazten duen baldintza perpausak baldintza irreal bat, eta noiz ez. Lehenago seinalatu dugun bezala, alegialdia da horretarako euskaraz duen markabide garbiena, aditz laguntzaileen edo aspektuaren bidez adierazten diren modu-denborazko aurkaritzen gainetik. Ondoko adibideek hori agerian ematen dute:

- (58) a. Euskal Herrian sortu ez *banintz*.
b. Euskal Herrian bizi ez *banintz*.
c. Egun batez ifargian bizitzera joango *banintz*.

Hiru adibide horietan edizkera pertsoneduna bera da, alegialdikoa (*banintz*), nahiz perpausok hiru kasuetan denbora erreferentzia desberdinak dituen. Lehen adibidean, iraganean gertatu prozesu bat aipatzen da, bigarren adibidean, solas unean dagoen egoera bat, eta hirugarrenean geroan kokatzen den gertakari bat, gertagailza edo dena, edo gisa hartara aurkeztua. Argi da, beraz, kontrafaktualak eta gertagaitz diren egoeren edo prozesuen aipatzeko alegialdiaz baliatzen garela baldintza perpausetan (cf. (50)).

Gure azterketa taula batean bildu dugun markabide horren arabera antolatuko dugu (ikus baldintza perpausen sailkapen morfologikoen taula). Lehenik, alegialdia baliatzen duten baldintza perpausak aipatuko ditugu (1.5.1), eta iraganaldia edo orainaldia baliatzen dituztenak, gero (1.5.2).

Dena den, azterketa hasi aitzin, komeni da irakurleak gogoan har dezan azinezko egitekoa dela hemengo orrialdeetan euskal mintzamoldeetan agertzen diren baldintzako erabide eta erabilera guztien aipatzea, edo euskaraz kontu horietan azken hamarkadetan, tokien arabera molde desberdinetan maizenik, izan dituen gorabeherai hurbiletik jarraitzea. Beste kapituluetan bezala –baina

oraingo honetan are nabarmenagoa gertatuko da muga hau— ohiko literatura tradizioan nagusitu diren moldeetan finkatuko dugu bereziki aurkezpena.

1.5.1. Alegialdiko baldintza perpausak: baldintza irrealak

Alegialdiko baldintza perpausak aspektuaren arabera sailkatu bideratuko dugu herengo aurkezpena, lehenik aspektu burutua dutenak ikertuz (1.5.1.1), eta gero besteak (1.5.1.2). Horrela eginez, hona nola sailka daitezkeen alegialdiko baldintza perpausak:

- Aspektu burutua duten alegialdiko adizkerak: *ibili (izan) balitz, ekarri (izan) balu*; cf. 1.5.1.1

- Aspektu buruturik gabeko alegialdiko adizkerak: (54a)n ikusi bezala, lau aukera daude, formaz desberdinak, eta, beti-beti horrela gertatzen ez bada ere, maiz elkarren baliokide izan daitezkeenak:

- Adizkera trinkoa: *balebil, balekar*; cf. 1.5.1.2.a

- Aspektu burutugabea: *ibiltzen balitz, ekartzen balu*; cf. 1.5.1.2.b

- Aspektu gerokoa: *ibiliko balitz, ekariko balu*; cf. 1.5.1.2.b

- Aspektu markarik gabe: *ibil baledi, ekar baleza*; cf. 1.5.1.2.c

1.5.1.1. Aspektu burutua duten alegialdiko baldintza perpaus arruntak (etorri balitz, ekarri balu)

Alegialdia aspektu burutuarekin duten baldintza perpausak euskalki guztietan aurkitzen dira, denetan kontrafaktualen balioa dutelarik. Ondore perpausoko aditz nagusiak geroko aspektua du, aditz laguntzailearen tempusa iraganaldikoa izanik (gehienetan modu markarik gabe):

- (59) a. Ni *sinhetsi banendu*, ezkinen egiteko hunetan izanen: ez nik izanen nuen hunenbat damu, eta ez hunek ere hunenbat kalle, eta atsekabe (P. Axular, *Guero*, 359).
- b. Jauna, zure golpea *daskargatu bazendu*, zer izango zan. O nola infernuetan sekulako erreizen egongo nintzan (A. Cardaberaz, *Egercicioak*, 2. lib., 88).
- c. *baña atrapanu bagendu* barberu dontsuba, *kenduko geuntsan* bizarra (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 192).
- (60) *azartu balitz* esalen, *taster isilduko ebeen* (J. J. Moguel, *Baserritarr nequezaleentzako escolia*, 96).
- (61) Eta zer *esango zuan*, Zeruan duan edertasun guzian *ekusi balu* (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia III*, 584).
- (62) au guk ongi *ezagutu bagendu*, *besterik izango zan* gure bizitza (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia III*, 264).
- (63) Marzienek ere ederki *eginen zuen* Jainkoaren grazia hartaz *baliau eta konbertitu balitz* (B. Joannateguy, *Sainduen Bizitza*, 100).
- (64) Bakoitzak ondo *zaindu bagendu* emen geure sor-lekua, etzan onela *indargetuko euskera* biolzekua (B. Enbeita, *Nere apurra*, 172).
- (65) Lonjinosek au ziyon: Ez juan billa; frantzes baldin bada ito dedilla! Antoniok jun ta eldu, elzuen nai inor galdu, jendiak gaizki *esango zun* atera ez *balu* (Xenpelar, *Xenpelar bertolaria*, 216).

- (66) *Zer izanen zen legea onhartu balitz*. Hasteko irriz ase bat eginen zuten erlisionearen etsai errabiakuek (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 156).
- (87) a. *Arrapatu batu, etzion noski eskuan mufi emango* (Orixe, *Santa Cruz apaiza*, 41).
- b. Lenbizirik, *Jesus obengabea zala ezagutu zuen unetik askatu batu*. Yuduekin itz-artu-emanetan ibilli gabe, *etzan olako bidegabe ta makurkeri izugarria egiteko bidean yarrko* (P. Iraizoz, *Yesukistoren bizia*, 496).
- c. *ez nintzan haren izenaz orhoituko, aital ez balaut geroztik aipatu* (J. Etchepare, *Buruchkak*, 19).

Adibide horietan guztietan, hiztunak egia ez den (edo egialzat ez daukan) hipotesi bat egiten du baldintza perpausean. Baldintza perpauseko aditza perifrastikoa izanik, aditz nagusiak aspektu burutua du, eta aditz laguntzaileak, berriz, alegialdiko tempusa dakar. Ondore perpauseko aditzak ordea, ez ditu alegialdiko ezaugarriak: hartan aspektua gerokoa da, eta adizkera jokatur iraganaldikoa.

Ikus daitekeen bezala, garai eta euskalki desberdinetako autoreetan aurkitzen da egitura hau, eta esan daiteke egitura zabalduena dela mota horretako baldintzetan.

Ondore perpauseko adizkeren formari behatzen badiogu, tempus komunztaduraren urratze gisa har daiteke jokabide hau, eta zenbait gramatkarik beste jokabide bat aipatu izan dute alegialdiko komunztadura agerrarazten duena. Lafittek adibidez ondoko bi adibide hauek eskaintzen zituen:

(68) *Ikusi banu, hartu nuke* (P. Lafitte, *Grammaire basque*, §720).

(69) *Ikusi banu, hartuko nuen* (idem).

(68)ko adizkerak osoki errespetatzen du alegialdiko komunztadura eta ez da dudarik adizkeren paradigmen erregularitasun bati darraiola. Ez, ordea, (69)koa. Erabileretan, ordea, ez da bi adibide horien artean egiazko parekotasunik: (68)ko ondore perpauseko aditz forma ez da inon erabiltzen eta ezagutzen dugun tradizio zaharrean ere ez da erraz haren halzik aurkitzea. Aitzitik, (69)ko ondore perpauseko adizkera, ikusi dugun bezala, guztiz zabaldua da, eta euskalki guztietako eta garai guztietako testuetan aurkitzen da.

Ikus daitekeenaz, geroko aspektua duten iraganaldiko adizkerak, dituzten berezko erabilera arrunten ondoan (esan zidan biharamunean *hartuko zuela*), alegialdiko baldintza ondoretan ere erabiltzen dira, protasiak aspektu burutua duelarik.

Testuinguru honetako adizkerak gauzatzean aldaerak badira balzuetan agertzen direnak, baina, ez die iraganaldiko tempusa kentzen adizkerari, aldaera horiek KE morfemaren erabilera baitagozkio gehienbat.

- a. *KE modu morfemaren erabilera iraganaldiko ondore perpaus kontrafaktualetan (etoni(ko) zatekeen, ikusi(ko) zukeen)*

Gisa horretako baldintze perpausei dagozkien ondore perpausetako aditz laguntzaileak KE modu marka dakar balzuetan. Aditz laguntzailearen tempusa iraganaldikoa da aurreko adibideetan bezala, eta aditz nagusiaren aspektua gerokoa, edo, ekialdeko euskalkietan, burutua.

Ikus adibide hauek:

- (70) Baldin zirau batek *eldu balizu*, edo benenez beterikako sagar bat *jan bazendu*: Ah zafi gogotik erremadiorik dan samihena ere *artuko zendukean* (A. Cardaberaz, *Egercicioak*, 2. lib., 62).
- (71) Erdi-toteiduta zebillen Agustin neska ederrari begira; baina emakume-biotza ezagutzen oitua izan *balitz*, neskarena ere pilpilka *barrundatuko zukean* (T. Agirre, *Uztaro*, 217).
- (72) *Adituko nukeen*, gainera, Agirrerren modutsuan, *adierazi balidate* (K. Mixelena, *Euskal Idazlan Guztiak II*, 39).

Hiru adibide horietan (70-72) ondore perpausako aditz nagusiak geroko marka du, eta aditz laguntzailea iraganaldikoa da, *-KE* morfema dakarrelarik bestalde (*artuko zendukean*, *barrundatuko zukean*, *adituko nukeen*). Euskaltzaindiak (*Arauak*, 42.a) euskara batuan erabiltzeko onartu ditu forma hauek, *-KE* gabeko formen parean.

Seinala dezagun, bestalde, ekialderago *-KE* atzikia erabiltzen denean horrelako ondore perpausako aditz laguntzailean, aditz nagusiak aspektu burutuaren marka dakarrela, ez gerokoarena:

- (73) Hala lainkoak *nahi izan balu*, *eman zerauzkaion* gizonari ere abantail suerte hauk guztiok, eta gehiago ere. *Beztitu zukeien*, *etxedun egin zukeien*. Ordea etzuen hala ibeni nahi izatu (P. Axular, *Guero*, 14).
- (74) Aktür hurak *balira izan düke* alhaba. Haiak egin bekhatiak *pharkatü zütükin* aisa (Etchahun, *Bertsokak*, 480).
- (75) a. *Othoiztu banindu* aithor nezon zoin zautan nihauri laketenik, (...) *ihardetsi nioken* jasmin zautala (J. Etchepare, *Buruchkak*, 89).
b. Doidoi, ebkearen erakuslea eskuaraz *mintzatu izan balitzaiku* eskualduner, atzerritarrenizat idukiz erdara, orhoitzapen hobea baizik ez *ginuken beiratu*, hemen iragan minuta ezin-ahantzizkoek (J. Etchepare, *Beribilek*, 67).

Adibide horietan ondore perpausako aditz nagusiak aspektu burutua du (*eman*, *beztitu*, *egin*, *pharkatü*, *ihardetsi*) eta aditz laguntzaileak, iraganaldiko tempusean izanik, *-KE* atzikia ere badu: *zerauzkaion* (batua *zizkioken*), *zukeien* (batua *zukeen*), *zütükin* (batua *ziluzkeen*), *nioken* (batua *nioken*). Forma hauek, ordea, ez dira Euskaltzaindiak euskara baturako onartu arauetan sartzen.

b. *Aspektu burutua aditz laguntzailearen partizipio burutuak indartzen duelañk* (*etorri izan banintz*, *ekari izan banu*)

Zenbaitetan, baldintza perpausako adizkerak aspektu burutua izanik, aditz laguntzailearen partizipio burutua (*izan*) erabiliz indartzen da burulutasan hori. Hori gertalzen da ondoko hiru adibideetan:

- (76) a. Orai hiru-hogoi urthe dituzten gizon guziek urthean arbola bat *landatu izan balute*, Eskal-herria jadanik oihanez nasai *zaitokeen* (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 315).
b. Bestelako izulpena aterako zen aren eskuartetik Georgikon osorik *ouskeratu izan baligu* (A. Ibiñagabeitia, *Bergiliren Idazlanak osorik*, 24).

- c. Indiarrek sor zezaketen gaurko fisika, bide horretatik *abiatu izan balira* (K. Mixelena, *Mixelenaren Idazlan Hautatuak*, 339).

Aditz laguntzailearen partizipio burutuaren erabilera hau zabaldua den arren, ez du iduri beharrezkoa dela. Adibidez, *izan* daukan protasiak eta horrelako indartzerik ez duen beste baldintza perpausak arazorik gabe junta daitezke:

- d. Santa Kruzek gerrari *utzi balio* ta bere egitekoetan *sartu izan balitz*, etzun etsai izango Lizarraga (Orixe, *Santa Cruz apaiza*, 99).

Adibide horretan *izan* partizipioa baldintza perpaus batetik bestera iraganaraziz gero, ez da nabari aldaketarik, ez esanahiaren aldetik, ez gramatikallasunaren aldetik.

- c. *Ahalezko adizkera iraganaldian duten ondore perpausak (etorri balitz, ikus zezakeen)*

Baldintza perpausa kontrafaktuala izanagatik, ondore perpausoko adizkerak ahala adierazten duenean, **edin* eta **ezan* laguntzaileak iraganaldian jokaturik erabil daitezke ondore perpausetan, *-KE* morlema daukatela, bistan da:

- (77) a. Honek *eduki zezakeen* ajenlinarraren *desafioa*, edo dotoreago eta bizkaitarrago nahi baduzue aupada, jakile *izan balitz* (K. Mixelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 109).
- b. Baii edo bali bakarrik *agertu balitzaio*, Jesusen ikasle geienak lendabizian bezala dudan edo zalanizan jarri *gitezaken* (D. Inza, *Kristau ikasbidearen azalpena*, 77).
- c. Indiarrek sor zezaketen gaurko fisika, bide horretatik *abiatu izan balira* (K. Mixelena, *Mixelenaren Idazlan Hautatuak*, 339).

Esan gabe doa aditz laguntzaile aspektuzaleak ere erabiltzen ahal direla horrelako apodosietan *ahal izan* baliatuz:

- d. makilla lodi baten laguntasuna *izan ezpaleu, ezaban* Ozinbeltzerailfoko osterea *egin al izango* (D. Aguirre, *Añemendiko lorea*, 83).
- e. Arlo osoa sallean *eroan baneu*, orain atalok alkarrekin errezago *josi al izango nebazan* (J. Eguzkitza, *Gizarte-Auzia*, 5).
- f. Kose Satika, Urabillak beste indar euki baleu, Urabilla-lako biren bildur etzan izango. Urabillak barriz *euki izan baleuz* Kose-ren mailzurkeriak, Kose-lako lauri arpegi *emon al izango outsen* (R. M. Azkue, *Batxi Guzur*, 149).

- d. *Baldintza eta ondore perpausen arteko aspektu edota tempus komunztadura*

Aspektu burutua arabilirik, alegialdiko baldintza iraganean kokaturik, ondore perpauscan aipatzen den gertakaria ado egoara orainean edo geroan gertatzen bada, aukera desberdinak aurkitzen dira aspektu adota tempus komunztadurari dagokionez: protasiarekilako komunztadura erresetatuz, iraganean gertatu izan balitz bezala jokatzcan ahal da ondore perpausoko aditza (iraganaldia eta geroko aspektua baliatuz), edo, bestela, alegialdian amaten ahal da, baina bukato gabeko egoera edo hasigabeko prozesu gisa aurkeztuz.

Adibidez, eman dezagun hiltun adineko batek gaztaroan kokatzen duela protasian aipatzen duen gertakaria, eta solasaren mementoan oraindik dirauen egoera gisa aurkeztzen duela ondore perpauscan aipatzen duena. Bi modu

erabil ditzake apodosian, batean iraganaldia baliatuz (geroko aspektuarekin komunzki), bestean alegialdia:

- (78) a. Gazte nintzanean ingelesa *ikasi izan banu*, askoz jakintsuago *izango nintzen* orain.
b. Gazte nintzanean ingelesa *ikasi izan banu*, askoz jakintsuago *nintzateke* orain.

Badirudi (78)ko bi jokabideak zilegi direla, eta testuetan ere biak aurkitzen dira. Adibidez, iraganaldiaz baliatzen da Agirre Asteasukoa ondoko adibidean:

- c. Orregatik beren estadu, edo bizimodua arturik daudenak, ez dabilzala esaten: Nik onelako, edo alako estadu *artu banu*, *izango nintzen ona* (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia* I, 593).

(78c)ko ondore perpausean *ona izan* da predikatua, eta iraganaldia baliatzen da hartan Agirre, nahiz deskribatzen den egoera ez den bururatua solasa ekarria den unean.

Alderantziz, ondoko adibidean, Arrese ez da iraganaldiaz baliatzen ondore perpausean aipatzen duen egoeraren adierazteko (haren mintzamoldean era perifrastikoa erabiltzen zen, edo erabil zitekeen, *bazenekikete* era trinkoaren orde *jakin* aditzaren alegialdian):

- d. *Jakingo zendueke*, bai, nor dan Kattalin Barrobikua zuek *artu izan bazendue* gaur neri eman didan mesallekua (E. Arrese, *Oierki beritze*, 111).

Geroan kokatzen diren gertakariak apodosian adierazteko ere hautu bera du hiztunak, ondoko adibideetan ikus daitekeen bezala:

- (79) a. Haurrean grekoa *ikasi izan banu*, datorren udan zurekin *joango nintzen* Greziara.
b. Haurrean grekoa *ikasi izan banu*, datorren udan zurekin *joango nintzateke* Greziara.

Ondoko adibidean, iraganean gertatzen da baldintzako gertakaria, geroan aldiz ondore perpausean aipatzen dena; halere iraganaldian da ondore perpausoko aditz nagusia:

- c. Udara honelarako beste lan bat *gaineratu ez balidate*, datorren urrilean edo *bukatuko nituzkeen* presta-lan guziak eta honen ondoren *hasiko nukeen* idazlana (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak*, 95).

Beste aukera bat ere aurkitzen da ondoko adibidean, non iraganaldiaren orde alegialdiko tempusa agertzen baita:

- d. Yan-Pier'ek *zirikatu izan balio*, berari *aitortuko lioke* atzamarka ari zitzaion oñazea, berarekin *egingo luke* bear-bearrekoa zukean ustualdia (Y. Etxaide, *Joanak-joan*, 56).
e. Orduan Jesusek ihardetsi zion: *etzinduke* ene gainean eskurik ez *balarotzu* zeruak eman probidentziaren nahia konpliztekozat (B. Larreguy, *Testament zahar. berr. historia*, 2, 275).

Ondoko adibidean bi aukerak elkarren segidan erabiliak dira: bi baldintza perpausetan adizkera bera da (*agertu balitzaio/e*), baina lehenbizikoari darraion ondore perpausa iraganaldian da, eta bigarrenari darraiona, berriz, alegialdian:

- f. Bati edo bati bakarrik *agertu balitzaio*, Jesusen ikaste geienak lendabizian bezala dudan edo zafantzan *jari gitezaken*; edo askori izan da ere, istante edo une bateko *agertu balitzaio*, zerpait esan *liteke* (D. Inza, *Kristau ikasbidearen azalpena*, 77).

e. Aspektu burutua duten iraganaldiko kontrafaktualak (jaino ez baginen)

Erdialdeko euskalkietan bereziki, alegialdiko tempusaren orde, iraganaldikoa erabilia da batzuetan aspektu burutua duten baldintza perpausetan:

- (80) a. aurrenien nik ori *jakin banuan*, joku ura gabe Iturrioztik jexi biarko zenduan (Txirrita, *Txiritaren Bertsoak I*, 222).
- b. Burruka au asi eta bereala, il ziran lau edo bost mutil gure lagunak, euskaldunak. Geiago ere ilko ziran noski, nik ez *banioten esan* pare artan ez jartzeko (S. Salaverria, *Neronak tirako nizkin*, 94).
- c. orrenbeste arrautza *jan izan banuan*, oraindik geiago ere korrituko nuan (Txirrita, *Txiritaren Bertsoak I*, 159).

Adibide horietan, kontrafaktualak dira baldintzak (lehenean, hiztunak ez zekien, bigarrenean, egiazki esan zien lagunei aipatu toki hartan ez jartzeko, eta hirugarrenean ez zuen horrenbeste arrautza jan) eta, beraz, *jakin banu*, ez *baniole esan* eta *jan izan banu* dira goragoko eredu ohikoaren arabera enplega zitezkeen adizkera jokatuak. Ikus eredu berean egina den adibide hau ere:

- d. Gaur *egin baldin bazan* ori Donostiyan, orduan seguru naiz, txit seguru, biyar ez pagatziagatik iru eun errial, pikatuko zutela biar dan legian (Bilintx, *Bertso ta lan guztiak*, 145).

Horrelako erabilerak zenbait euskalkitan zabaldu diren arren, tradizioko erabilera nagusi gelditu da toki gehienetan; hortaz, ez dugu bide hau gomendatzen auskara baturako.

1.5.1.2. Aspektu burutua ez duten alegialdiko baldintza perpausak

Baldintza perpausetan aipaltzan den egoera edo ekintza burutua ez denean ere erabil daiteke alegialdia protasietan. Are gehiago, euskalkien arabera, aukera bat baino gehiago ager baitaiteke orduan, sailkapen baten egiteko, hiru egoera desberdin bereiz ditzakegu:

- adizkera trinkoa arabiltzea (aukera denean): *ederra balitz, bihar baletor, dirua banu, erabiara baneki...*;
- adizkera perifrastiko batean, aspektu marka erabiltzea:
 - burutugabea: *atortzen balitz, ekertzen balu*.
 - gerokoa: *etorriko balitz, ekarriko balu*.
- adizkera perifrastiko batean, aspektu markarik ez dakarren aditz laguntzailea baliatzea: *efor baledi, ekar baleza*.

Ikus dezakegunaz, lau aukera desberdin ditugu aspektu burutua ez duten baldintza perpausak eratzeko orduan, batzuk besteak baino erabiliagoak, baina denak literatura tradizioan erro sakonak dituztenak eta euskalki batean edo bestean gaur egun oraino bizi direnak. Erabide horiek ez baitira orotan denak baliatuak zaila da haien artean bereizkuntza argi zehatzik agerian ematea. Horretara saiatu dira zenbait gramatikari, baina erabileretan beretan oso zaila da askotan euskalki edo tokian tokiko mintzamoldeen gainetikako banaketa garbirik finkatzea. Azaltzeko orduan irizpide formalei jarraikiko gatzazkie hemen, eramoldeak bata bestearen ondotik aztertuz.

a. Baldintza perpausako aditza: alegialdiko adizkera trinkoa (balego, baleki)

Alegialdiko aditz trinkoek solas unean sortuak diren egoerak (81a,b) edo hasiak nahiz hasigabeak diren prozesuak (26c,d) adieraz ditzakete:

- (81) a. Errege *baitz* eta oraino bizi, *batuke* zenbait zurikatzaile (J. M. Hiribarren, *Escaraz eguia*, 71).
- b. Baldin Bizkaiko baseri etxe guztiak *balebitz* ain zuzen, zelan zuzia, ta nekezale guztiak *balira* zu baisen begiratubak, urrezko bidiak *ikusiko liraatez* (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 105).
- c. Iloba biar-etzietan Leaburura, an izateko, *baleator*, zu berealaxe leneratu, berealaxe *sondatuko zinake* (R. M. Azkue, *Ardi Galdua*, 92).
- d. Halaber baldin aitonen semeak donzeilla bati denbora handiz jarraiki eta bere serbitzua onetsarazi ondoan, *balekusa* arbuaturik eta mesprezaturik dagoela, arrazoin geiago *luke* haserretzeaz (S. Pouvreau, *Philothea*, 152).

Ikus daitekeen bezala, horrelako baldintza perpausari dagozkien ondore perpausetako adizkerak ere alegialdikoak ohi dira, tempus komunztadurak hala eskatzen baitu. Kontrako adibideak, alegialdiko tempus komunztadura hausten dutenak, oso markatuak dira, eta espresibitate handiko solasetan agertzen dira:

- e. Hil hobi hunlan noizbait norbait *balabita*, zure izaitearen herrestoen bila, lurpetik *entzunen du* deiadar bipila: hemen dago ama bat bere haurrek hila (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 208).

Xalbadorren bertso honetan, baldintza perpausa alegialdian izanagatik, ondore perpausa orainaldian da. Ohiz kanpoko itzuli hau erabiliz, indar berezia hartzen du bertsoak. Baldintza perpausa irrealia izanik, ondore perpausako aditza alegialdian izanik, urrun geldi liteke baieztapena, eta indar gal lezake; (ikus, halaber, urrunago (90)).

Ondore perpausako aditza alegialdian izanik, era trinkoan edo perifrastikoan ager daiteke, eta azken kasu honetan, geroko aspektuarekin, edo aspektu markarik gabe. Ikus ditzagun zenbait adibide:

➤ Ondore perpausako aditza: trinkoan

Baldintza perpausako aditza molde trinkoan denean, trinkoan ere izan daiteke ondore perpausako aditza (82a-d):

- (82) a. Zeru lurrek *balekite* nor dudan bihotzean, ikara bat *batukete* neri so egitean (Iratxeder, *Biziaren olerkia*, 55).
- b. Ibrasondoko errietan esaten diran itzak bakarrik *baleukaz* euskereak, euskerea ondo arlotea *legoke* (D. Aguirre, *Kresala*, 6).
- c. Bozetarik *baloa*, horrela *foake* gauza (J. Hiriart-Urruty, *Mintzaira, Aurpegia, Gizon*, 83).
- d. Hirian aberastearekin gizonari osagarriak *balireu*, holako herriño batean *litzaioke* goxo azken urthoen iragaitea, hiritik lau urratselan, hirirat arretan adixkide xabar batzuekin *bazkari* onto baten egitera joanez (J. Etchepare, *Berribiez*, 50).

Ezaguna da molde horretan *jakin* eta **edun* aditzen era trinkoiez baliatuz eraturiko zuhur hitza: *baneki banuke, banu banekike*

➤ Ondore perpausoko aditza: geroko aspektuarekin

Ondore perpausoko aditzak aspektu marka dakarrenean, geroko aspektua ohi du (83a-e):

- (83) a. (Gipuzkoan arkitzen diraden basoak, ugariak dira bit, eta erosoak.) *Emango lituzkete* ondasun gozoak, baldin bear bezala *baleude* jasoak (J. I. Iztueta, *Guipuzcoaren condaira*, 136).
- b. Txakur amorratuak *balebiltza* plaza orietan *joango zifake* (J. A. Moguel, *Eracasteac*, 145).
- c. *ezpaliz* infernurik pozik *egingo nuke* bekatu au, edo ura (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac I*, 612).
- d. ni sortu ninduen nere aita ber-bera *erreko nuke* zaldun-antzean *balebil* (P. Berrondo, *Don Kijote Mantxako*, 68).
- e. nire geien maite nai ditudan animako ondasunak ostutako gogoak *balekarrez*, guda zuzenean *ioketuko genduke* (D. Aguirre, *Auñemendiko lorea*, 18).
- f. Bai, ihardetsi zion bere emazteak, baña Lapurdi edo Benafarroako *balitz*, *ez luke idatziko* 'egonen', 'izanen' baño (Oskillaso, *Kurtoiak*, 23).

➤ Ondore perpausoko aditza: aspektu markarik gabeko adizkera

Ondore perpausoko aditz laguntzaileak aspektu markarik ez badu onartzen (**edin*, **ezan* edo **iro* izanik), aditzoina da ondore perpausuan agertzen. Aukera hori ekialdeko euskalkietan aurkitzen da:

- (84) a. Bertze zombait bezala hedatua *balitz*, ongi *argi lezake* munduan (J. P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 32).
- b. Baldin lekhoa biphila *balitz*, hedoiek aintzinago *jo lezakete* (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 312).
- c. Hitzeman hura gaizki *balitz*, bekhatu *egin litake* hitza atxikiz (F. A. Jaufret, *Catichima*, 78).
- d. Musde Vivie Jauna *balitz* andrekari, aisa *egin lirozú* hanitz erri (Etchahun, *Bertsoak*, 552).
- e. Orai ere, berriz ere, *balinbanu* hartarik, *Edan niro* basoa betherik (J. Barbier, *Supazter chokoan*, (kantua), 129).

Gogoan izan adibide horietan ondore perpausetako adizkerek ez dutela ahalezko modua adierazten, baina soilik alegialdia. Mendebaldeko euskalkietan bestela gertatzen da, haietan ahalezkoak dira gisa horretako apodosiak, hala nola ondoko adibidean:

- f. Nork *sinis lezake* gertatzen dan naturalezako mirari au egunoro *ezpagenkus* (J. A. Moguel, *Eracasteac*, 218).

➤ BA- menderagailua eta -KE morfema

Alegialdiko joko arruntetan, ez dago -KE morfema erabiltzerik baldintza perpausoko adizkeretan, non ez den ahalezko adizkera bat (ikus 1.5.1.2.d). Horregatik esan daiteke, ahalezko adizkeretan izan ezik, BA- menderagailuak eta -KE modu morfemak elkar kanporatzen dutela.

Halere, mendebaldeko eta bereziki erdialdeko euskalki batzuetan ez da hain argi elkar kanporatze hori eta aski aise agertzen da -KE morfema baldintza perpausetako zenbait adizkera trinkotan. Ikus ondoko adibideak:

- (85) a. Arrazoi *baluke* aitortuko nuke (Tximíta, *Tximítaren Bertsoak*, 140).
- b. Bekatu larri, edo mortalean dagoanak, bekatutik irten gabe *artu nai baluke* Sakramentua, nai au izango litzake gaiztoa (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia* 1, 471).
- c. Edertasunik saltzen iñun *balogoke*, kostako dana kosta garesti naiz merke, zuretzat pozikan nik erosiko nuke (P. M. Uruzuno, *Ipui sorta*, 65).
- d. Ni *baldin banintzake* sendo ta aberats, beti *igongo neuke* mendietan gorantz, neke-bildurrik gabe egon arren aldaltz, andixik ikusteko baso, zela, baralz (B. Enbeta, *Nere apurra*, 49).
- e. *baldin balirake* Franziaikoak, Inghaterrakoak, Turkiakoak, edo Akerlakoak, or ibilliko lirake paperetan edergarri askorekin apaindunik munduz mundu gauza anditizat txit (J. I. Iztueta, *Guipuzcoaren condaira*, 218).

Adibide horietan guztietan adizkera trinkoa dugu baldintza perpausako alegialdiko adizkeran. Ohar daiteke *KE* morfema erabilia dela (adizkerak batere ahalezkoak izan gabe). Bide hau, adibideek erakusten duten bezala berria ez dena eta aski zabaldua dena, indartuz joan da mintzamolde askotan. Halere, hobe da euskara batuan ez erabiltzea.

- b. *Baldintza perpausako adizkera: [+burutua] aspektu ezaugarria ez duten alegialdiko adizkerak (atomiko / atortzen baitz, ekarriko / ekartzen banu)*

Alegialdiko aditza aspektuduna izanik, aspektu marka [+burutua] ez denean, bi itxura izan ditzake adizkera horrek. Geroko aspektua erabiltzen da horrelakoetan mendebaldeko euskalkietan, eta aspektu burutugabea ekialdeko euskalkietan.

Gogoan har bedi, ez dela edukiari dagokion oposizioarik hemen, euskalki kontua baita bakarrik. Alegialdiko ez diren baldintzetan bezala (cf. 1.5.2.3), burutuak ez diren prozesuak aipatzen direnean, neutralizatzen dira denborari dagozkion oposizioak adizkera perifrastikoetan: ekialdeko euskalkietan aspektua agertzen bada, burutugabea erabiltzen da, eta mendebaldekoetan, berriz, geroko aspektua. Adibidez, ondoko adibideak aldaera dialektalak dira eta ez dute denborazko bereizkuntzarik adierazten:

- (86) a. Aurrean *ikusen* ez bazintut, zaila litzaidake sinestean
 b. Aurrean *ikusiko* ez bazintut, zaila litzaidake sinestean

(86a,b) baldintza perpausok ez dute deskribatzen geroan gertatzen den gertakari bat. Ekialdeko euskalkietan aspektu burutugabea erabiltzen ahalko da orduan, eta mendebaldeko euskalkietan, aldiz, gerokoa.

Ondoko adibide parean geroan gertatuko den gertakaria deskribatzen du baldintza perpausak. Aurreko adibideetan bezala, mendebaldeko euskalkietan geroko aspektua erabiliko da orduan, eta ekialdekoetan, berriz, aspektu burutugabea baliatzen ahalko da:

- c. Datorren urtean *ezkontzen bazina*, zer hamidura!
 d. Datorren urtean *ezkonduko bazina*, zer hamidura!

Ikus ditzagun lehenik, mendebaldeko erabilerrari dagozkion adibide batzuk.

b.1 Baldintza perpauseko aditza: alegialdian geroko aspektuarekin (etorriko balitz, ekarriko balu)

Esan bezala, mendebaldean, bai baldintza perpauseko adizkerak, bai ondore perpausekoak, geroko marka izaten dute horrelako alegialdiko perpausetan:

- (87) a. Igaliak zuaitzpean an-or sakabanaturik datzate; oro dago irriz, baiña Alexi ederra mendi auetatik *ioango balitz*. Ibaiak ere *tegortuko lirake* (A. Iñifagabeitia, *Bergiliren Idazlanak osorik*, 52).
- b. begira, ze sententzia merezi izan dozun oraingifio; eta zein *mereziko zendukean*, *emango balitzazu*, oera etxun baño len (P. A. Afibarro, *Escu-liburua*, 1. arg., 33).
- c. (Beste guraso batek esango dau: etorten dira auzuelako mutil ezagunak puska bat olgeetara, ta zer egingo jakee? Gustijakaz bizi biar dogu guk.) Egunaz *egingo balira* biarrak, ez *litzatez juango*; ezta errespetorik balago bere (J. J. Moguel, *Baseritar nequezaleentzaco escolia*, 115).
- d. Ermokenek baki, olakorik *egingo balau*, laster *ostikopetuko neukeana* (J. M. Echeita, *Josecho*, 76).
- e. Bazter batean lenbailen *ilgo balitz*, ezer *galduko ete lauke* berak, eta munduak, arean (E. Erkiaga, *Batetik bestera*, 194).
- f. Baña gaiztoa *izango lizake* beregan *esango balu*: ezipalitz infernunk pozik egingo nuke bekatu au, edo ura (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia I*, 612).
- g. Zer naigabe *izango lizake* nekazari batentzat, lau soro ereinik, batek bakarrik frutua *emango balio* (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia III*, 600).
- h. Riktrudis emakume iaungoizkoa da, ta iaungoizkoaren legeagaitik ill nazala *jakingo balau*. laster *postuko litzateke*, ta nik zerutik *lagunduko neuskeo* (D. Aguirre, *Aufhemendiko lorea*, 158).
- i. Semeak *jakingo balu* zentzungabeko zure asmo ori, ez lizuke irteten utziko (A. Barriola, *Goi-Argi*, 41).

Zenbait euskalkitan, era trinkoaren erabilera ahuldu bezala da alegialdian, eta orduan, aditz trinkoaren orde z baliatzen dira forma perifrastikoak baldintza perpausetan, egoera aditzekin kontrafaktualak adieraziz; cf. halaber (78d) ondore perpauseko adizkeran:

- (88) a. Ingelesa *jakingo banu*, errazkiago *bilatuko nuke* lanbide berria.
- b. neuk uste dot gure erriko Uriña Amerikan tez *bixi izango balitz* Pepianton, *aurreztuko leukela* egunian ogerleko bat baño geiago (Kirikiño, *Bigarrengo Abarak*, 131).

(88)ko adibideetan adizkera trinkoak erabiltzen dituzte beste zenbait euskalkik: *ingelasa baneki*, *bizi balitz*. Esan gabe doa, adizkera trinkoek alegialdia bizirik atxikia duten neurrian, haien erabilera guztiz egokia dela.

Lehenago adizkera trinkoetan esana gertatzen da kasu honetan ere, zenbaitek -KE morfema erabiltzen baitute baldintza perpauseko adizkeran:

- (89) a. Ana-Marik *adituko balizuke* ona jarriko litzake (M. Soroa, *Baratzan*, 89).
- b. Arateko ermita aurrean *asiko balitzake* [emakumea danzan] apaizak zer esana izango luke (J. A. Irazusta, *Bizia garratza da*, 29).

- c. Bada, gogoz ta borondate on balez prestaturik *abiatuko bazintekoz*, ez libakezu irudiko gatz nekezkoa, ezpada gozoa, arina, erraza (P. A. Añibarro, *Gueroco Guero*, 315).

Joera hau ez da gomendatzekoa euskara batuan.

Baldintza eta ondore perpausen arteko alegialdiko komunztadura atxikia da aurreko adibide guztietan, horrela gertatzen baita normalean. Halare zenbaitetan, ohiko bideak baztertuz, idazleek ondore perpausa orainaldian erabil dezakete, lehenago adizkera trinkoekin ikusi bezala (85):

- (90) Ala esatən digu Jesu-Kristok. Iges egin beza emazteak senarragandik, itsasoaz beste aldera; non nai izango da bere senarrarena, eta ezin ezkonduko da besterekin, eta alakorik *egingo balu, deituko zaio* adultera, dio S. Paulok (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia* 1, 561).

Modu horratako aldi komunztadurako hausteak bereziki gertatzen dira apodosiko esana baldintza errealetako eran eman nahi izanik (arruntean, indar betea izan dezan), protasia bera baldintza erreale gisa nekez aurkez daitekaenean. Adibidez, (90) adibidean, emazte bat bi aldiz ezkontzaa adierazten duen hipotesia nakez modu errealean aurkez zezakeen bere garaian Agirre Asteasuko batek (san Pauloran bitartez are), baina halere horri zegokion izendatzea (eta harekin bataan zihoan gaitzespena) manera garbi batean adierazi nahi zuen. Ez da dudarik ondore perpausa ere alegialdian emanez, indar galduko lukeela haren adierazpenak: *eta alakorik egingo balu, deituko litzaioke adultera*. Gorago aditz trinkoekin ikusi bezala (85), horrelako hausturak espresibitate jokoetan ere balia daitezke.

b.2 Baldintza perpausoko adizkera: alegialdian aspektu burutugabearekin (etortzen balitz, ikusten balu)

Gorago esan bezala, burutuak edo hasi gabeak ez diren prozesuak edo egoerak deskribatzeko, aspektua duen adizkera perifrastikoa erabiltzen denean (bestela ikus beherago 1.5.2.3), aspektu burutugabea enplegatzen da ekialdeko euskalkietan.

Horrelakoetan ondore perpausoko aditza adizkera trinkoa izan daiteke, eta hala ez denean, aspektu markarik gabeko adizkera perifrastikoa agertzen da maizenik ekialdeko euskalkietan.

Ondore perpausuan, adizkera trinkoa da ondore perpausuan:

- (91) a. Okaztagarri *litake*, bihotza zaurtzen ez balu (J. Etchepare, *Buruchkak*, 47).
b. Xuhurra *luxe* bere senhartzat artzain on bat *hartzen balu* (Oxobi, *Oxobi-ren lan orhoitgarri zorbait*, 28).
c. baldin herioak *pikalzen balu*, zein etemitatelarat othe zindoazke (A. Baratziart, *Guiristinoqui bicitzeo eta hiltzeo moldeak*, 133).

Aspektu markarik gabeko adizkera perifrastikoa ondore perpausetan:

- (92) a. gure erregen arteko makhurrek hala *ekhartzen balute*, ez nezake nik *entzun* ohorearen eta eginbidearen botza baizik (F. Laphitz, *Bi saildu hescualdunen bizia*, 13).
b. Ongarria ere hobea *egin laite*, hiratzea horitzen hasi orduko *ebakitzen balitz* (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 179).
c. *Hil nintake*, deusik gertatzen balitzaio (Zerbitzari, *Ichtorio Saindua*, 28).

- d. *doi-doi ikaratzen balitz* gure lur gaixoa, bet-betan *kraska laiteke* lur-axal guzia eta buruz beheiti eror *gintzake* denak, hor idek laiteken zilobeltzean (P. Lafitte, *Murtuls eta bente*, 68).
- e. Samsonek ihardetsi zion: baldin *estakalzen banindute* zazpi zumez, bertze gizonak bezain herbal *ediren naito* (B. Larreguy, *Testament çaharr. berr. historioa*, 1, 232).

Halere, goi nafarreraz bereziki, geroko aspektua duen adizkera perifrastikoa ere ager daiteke ondore perpausean:

- f. Bear bada, *epeltzen batu*, xuriz *jantziko lirezke* Parisko karrikek (M. Izola, *Dirua galgam*, 63).

Zenbait euskalkitan *heldu* aditza –DU atzizkia duela erabiltzen baita burutugabeako prozesuak adierazteko, modu berean agertzen da alegialdiko baldintzetan:

- g. Andrea, ihardetsi zion Iñaziok, Jesu-Kristo gure Jauna *heldu balitzaizu* zerbaiten galdez, ez othe *zinezake* zuk ere duzun hobereenetik *eman* (F. Laphitz, *Bi saildu hescualdunen bizia*, 72).

Ikusi baitugu lehenago zenbait euskalkitan –KE morfema baldintza perpauseko adizkeran erabiltzen ahal dela (ahalezkoa izan gabe), bai adizkera trinkoetan (85), bai geroko aspektua duten adizkera perifrastikoetan (90), jokabide hau aspektu burutugabearekin ere aurkitzen da:

- h. Gogoan artuko dut eta gaztigatuko ere bertze eriojeruei beren eskuetan *erortzen balitzake*, parte eman zezaten polizietara (M. Izola, *Dirua galgari*, 39).

b.3 Ohar bat aspektu burutugabea eta alegialdia dituzten adizkeraz

Ohartu bide da irakurlea, aspektu burutugabea baldintza perpausetan erabiltzen ahal bada ekialdeko euskalkietan, ez dela agertzen ondore perpausatan. Alde batetik, ez da hain harrigarri, zeren, gero ikusiko dugunaz, baldintza perpausetan orainaldia erabiltzen denean, berdin gertatzen baita. Halere zenbait gramatikariek, hala nola Lafittek, aditzera eman dute lehenago erabili izan direla ondoko formak:

- (93) a. Joaiten balitz, *jiten nintzatske* (P. Lafitte, *Grammaire basque*, §715).
b. Hartzen batu *hausten luke* (P. Lafitte, *Grammaire basque*, §715).

Aspaldi honetan ez dira erabiltzen horrelako formak, eta, agia esan, euskara zaharrean ere ez dira maiz agertzen horrelako adibideak. Hona batzuk, ekialdeko autoreen testuetarik hartuak:

- c. Ienkoak benedikzione saildu hori, bere graziaz, eta bere miserikordiaz *eman baleza*, ene tribaillu mendriari, eta aphurrari, rekompensu handiagorik *enuke desiratzen* lurtan (J. Tartas, *Onsa hilceco bidia*, 175).
- d. (Ez erran galduko dela orai artinoko orthografa eskuarak, orthografa frantses eta latinarekin duen aria, eta bi lengoaja hautan irakurtzea ez laitekela hain errex Eskualdunentzat;) hori hala *balitz* ere, zer *egiten luke* Ezkuaraz baizen irakurzen ez dutenentzal (*Andredena Mariaren ihabetoea*, 806).

Testu zaharretan beretan ere, usaiako apodosietan baino maizago, erlatiboekin zer-ikusit duten beste zenbait egituratan agertzen da adizkera mota hau. Korrelazio batean (94a) adibidean, erlatibo libre batean (94b) adibidean, erlatibo arrunt batean (94c) adibidean, eta denborazko perpaus batean (94d) adibidean:

- (94) a. Eta nor-ere bere burua puntu hunetarik idoki nahi bailuke, hark Kristinoen konpainia *renunziatzen luke* (J. Leizarraga, *Othoitza Ecclesiasticoen forma*, 76).
- b. halako kasutan bere burua *ikhusten luke*nak, ezluke absoluzioea hartu behar, kofesorak eman nahi balio ere, funski bekhatutik korrejitu artean (M. Duhalde, *Meditacionek*, 61).
- c. Ezen baldin lurrean baliz, sakrifikadore ere ezlizateke, Legearen arauz donoak ofrendatzen dituzten Sakrifikadoreak *irauten lukeiteno* (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, 392).
- d. Kongregazione guziaren aprobazioea iduriz *galdegiten luke*ten aferetan, presidentak deituko ditu kongreganistak bilkhuara (*Jesusen Bihotza*, 425).
- c. *Baldintza perpausoko adizkera: aspektu markarik gabeko alegialdiko adizkera perifrastikoa (etor baledi, ikus baleza)*

Ekialdeko euskalkietan, alegiazko prozesuak adierazteko aditzoina erabiliz (eta beraz aspektu markarik gabe) era daitezke alegialdiko baldintza perpausak.

Ondoko adibideetan era perifrastikoan baita aditza, aspektu markarik gabeko adizkera aurkilzen dugu, **edin* aditza laguntzailearekin (95), eta **ezan* aditz laguntzailearekin (96a,b). Ondore perpausoko aditza era perifrastikoan denean, aspektu markarik gabeko forman izaten da Iparraldeko joera nagusiari jarraituz orduan, **ezan*-ez gainera **iro* aditz laguntzailea ere ager daitekeelarik (97):

- (95) *ixil balitez* ere, harriak *mintza litezke* oraino, hek baino gorago (B. Larreguy, *Testament zaharr. berr. historia*, 2, 221).
- (96) a. Haren antzea gu-baitan *sar baledi*, preza *ginezake* (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 244).
- b. baldin gauzek bertzenik bururat *eman balezadatef*, bide makurrean nindoakelako beldurrarekin begiak *bazter nitzake* heien irakaspenelik (J. Etchepare, *Buruchkak*, 41).
- (97) a. Elgarretarat *bil balite* eta elgar adituz berma, batek bertzearen berri jakinez, zer gibelondoa ez *liote egin* eskualdun gazterian (J. Etchepare, *Buruchkak*, 210).
- b. Gezur *erran nira*, sekulan hotakorik jan dudala *erran baneza* (J. Barbier, *Supazter chokoan*, 22).

Mendebaldeko idazleek aspektu markarik gabeko adizkera perifrastikoak erabiltzen dituztenean alegialdian diren baldintza perpausetan, geroko aspektua erabiltzen dute ondore perpausoko adizkera perifrastikoan, aukera bat gehiago eskainiz. Hona modu horretako zenbait adibide:

- (98) a. Ekarri zuten lekura *eraman baleza* gure aitak, ez *liguke* danoi ere mesede *lxarra eginen* (Y. Etxaide, *Joanak-joan*, 123).
- b. Norbaitek bere konzientzia *gogortu baleza*, zer-notako zigorra *izango luke* alakoak (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 106).
- c. Farre *egingo luke* lasai jendeak horrelakorik *ikus baleza* (K. Mitxelena, *Mitxelena-ren idezia Hautetuak*, 171).

Ondore perpausoko aditza era trinkoan ere izan daiteke egoera aditzekin (alegialdian, noski). Hala da ondoko adibideetan:

- (99) a. Helan igortzen ohi den dirua zuhurrago *gindaukake* sommier batean *xahu baledi* (J. Etchepare, *Buruchkak*, 189).

- b. Bainan hik diokan bezala *egin balezate* denek, lurak dauzkan gizon eta emazte guziak *jar balite* elgarri so, elgarren koi, ondoriorik uzteko axola izpirik gabe, laster gure motakorik ez *litakek* ageri nehon nehor (J. Elchebare, *Buruchkak*, 98).
- c. Eta ura ezagutzen aztudala *esan baneza*, gezurtia *nintzake*, zuen anizera (P. Iraizoz, *YesusKristoren bizia*, 327).

Baldintza perpauseko aditza egoera aditza denean, ez da kontrafaktualik moldatzen ahal aspektu markarik gabeko jokadura perifrastikoaren bidez:

- (100) a. *Patxi neska izan baledi (vs Patxi neska (izango) balitz)
- b. *Pobreek dirua izan balezate (vs Pobreek dirua (izango) balute)
- c. *Euskaldun guztiek euskara jakin balezate (vs euskara balekite / jakingo balute)

Modu berean, tradizio nagusiaren arabera behintzat, adizkera horiek ez dira aditz trinko gisa erabiltzen ahalko testuinguru horietan:

- d. *Patxi neska baledi
- e. *Pobreek dirua balezate

Halere, seinatzekoa da **edun* aditza duten lokuzio zenbaitetan erabili izan dutela zenbait idazlek baldintza modu hau. Beren euskalkian erabide hau berezkoa ez zuten zenbait autorek baliatu izan dute bide hau (*nahi izan* lokuzioarekin bereziki), segurenaz ere **ezan* laguntzailea **edun* aditzaren ordeko hustzat harturik:

- (101) a. Alabaiña, zure emazteak *nai baleza*, nik amor emango nuke (Y. Etxaide, *Joanak-joan*, 197).
- b. Buru-muihen funtzionamenduari dagokion zerbait, filosofoak *epaitu ta erabaki nai baleza*, bere eremu edo alorretik kanpo legoke (L. Villasante, *Kristau fedearan sustraia*, 68).

Erabide berri hau, oso zabaldua ez dena, hobe litzateke euskara batuan ez enplegatzea **edun* zuzenean jokatuz: *balu*.

Doi bat desberdina da *ahal*-ekin, gutxitan bada ere, **ezan* aditzaz egiten den erabilpena, baldintza perpausean aipatu ahalmena ondore perpausean zehaztua delarik:

- (102) a. *Al baneza* erregalatuko nizuke pozik (V. Iraola, *Oroitzak*, 39).
- b. Desplazent ziozū kofesione ümita, eta *ahal baleza* komüniatzetik ere bara erazi zintzake (M. Maister, *Jesu-Kristen imitacionia*, 156).

Aspektu gabeko adizkera hauek dituzten baldintza perpausak, aditz trinkoak dituztenekin junta daitezke, eta aspektua dutenekin ere (burutugabea ekialdeko euskalkietan) bateragarri dira, ondoko adibideetan gertatzen den bezala:

- (103) a. Labe gorritu balean erretzera kondenatua *banintz*, eta penitentzia gogor batez *eros ahal baneza* nere librantza, gogotik loth nindaite penitentzia hari, fagore handi bati bezala begira niozoke (J. Duvoisin, *Liburu ederra*, 243).
- b. Inspirazioneak *iraun baleza* ere bizi garen mende guzian ezginatetzke hartatik niholarako maneraz lainkoaren gogarako, hartan *takhetzen ezpalitzaigu*; aitzitik haren maiestate saindua ofensa liteke (S. Pouvreau, *Phitorea*, 150).

Ondore perpausetan ere adizkera trinkoak eta aspektu markarik gabekoak junta daitezke:

- (104) Bestela erran baneza, zü jar zinteko ene kuntre, eta elükezü ihur ni süstenga nindirvanik (M. Maister, *Jesu-Kristen imitacionia*, 297).

Adibide horretan **edin* laguntzaileak duen adizkera (*jar zinteko*) adizkera trinko batekin juntaturik agertzen da (*lücke*ü, esan nahi baitu izan aditza zukako era alokutiboan).

- d. Alegialdiko ahalezko adizkera duten baldintze perpausak (ikus *balezake*, *ikus ahal baleza*, *ikusten ahal balu*, *ikusi ahal izango balu*).

Aspektu burutua erabili gabe alegialdian egiten diren baldintzadun perpausetan, funtsean, tempus bakarreko adizkera erabiltzen da baldintza perpausetan eta ondore perpausetan, batean BA- menderagailua erabiliz, bestean -KE modu marka enplegatuz.

(105) *tu {
 balu
 luke

Irudi luke, beraz, elkar kanporatzen dutela KE morfemak eta BA- aurrizkiak (euskalki zenbaiten joerak baztertzen badira behintzat; ikus (85, 89a-c, 92g) adibideak).

Baina gauzak ez dira arras hala, ezen ahalezkoak diren adizkerak (perifrastikoak edo trinkoak), alegialdikoak ere bai, protasietan erabil baitaitezke. Horrela gertatzen da ondoko adibideotan:

- (106) a. ezta damnaturik bere burua dohatsutat iduk ezlezakenik, elemenia bat mende thormenta helan iragan ondoan ere Jainkoa eglazki *maitha balezake*; horrek seindularat alda lezake (M. Duhalde, *Meditacioneac*, 238).
b. Erregeak beren aginduak erriari adirazi nai dizkiotanean, eztute berak erri bakoitzetan berak nai dutena ojuka adirazten, baldin *egin balezakete* ere (D. Inza, *Kristau ikasbidearen azalpena*, 25).
c. Maitasunezko iguzki batek gaduzka bere gerizan. O mement batän epearentzat Jainko *banindaiké izan* (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 303).

Adibide horietan KE morfema dakar protasiko alegialdiko adizkerak. Kasu hauetan, ordean, KE morfema ez da baldintzari josia (89a,c)ko adibideetan bezala. Izan ere, ahalezko modua adierazten du hemen modu markak.

Esan beharra dago (106)ko adibideetan erabilitako baliabidearen ondoan, beste bat ere badaela erro zaharragoak dituena eta zabalduagoa dena: hartan *ahal* erabiltzen da oin-aditzaren eta aditz laguntzailearen artean, adibide hauetan ikus daitekeen bezala:

- (107) a. Bero huntarik lipar *bal* / Su huntarik huts inhar *bat* / O laztan' *eretxeki* / *Ahal banezazu zuri*, / Nintzetela zait iduri / Söndo hainbertzereki (A. Oihenart, *Poesiák = Oihenarten gaztaroa neurthizetan*, 14, 19).
b. O ezpazendu sekulan mengoarik iateko, edateko edo lo egiteko eta bethi *lainkoa laude ahal bazeneza*, eta *arimako* probetxuari *xoilki itxeki ahal baziniozo* orduan doatsugogo zinatezke orai zaren baino (S. Pouvreau, *Jesusen imitacionea*, 75).

- c. Hidrogenoaz *balia ahal* bagintez ordea, itsasoan hain ugari izanik, arrazoizkoa litzateke gizonak bere burua hilko lukeela uste izatea (K. Mixelena, *Euskal Idazlan Guztiak*, 194).
- d. Irus estima nirozū, Jauna, ene bürria, / *Eman ahal banezazū* mærexī uhuria (Etchahun, *Bertsoak*, 514).

Zenbait idazlek *AHAL* eta *KE* morfemak biak batera ere erabili izan dituzte, Duhaldek ondoko adibidean bezala, baina ez da ohiko erabilera:

- (108) a. Oi ala nere bizia ongi enplegatua bailetake, hoin gauza handi batetakotz *sakrifika ahal banezake* (M. Duhalde, *Meditacioneac*, 82).

Askotan desiramenduzko perpausetan baliatua da *ahal* **edin* eta **ezan* laguntzaileekin. Mendebaldeko euskalkietan ere aurkitzen da erabilera hau:

- (109) a. O zerbait, eta asko zugatik egin *al baneza* (A. Cardaberaz, *Egercicioak*, 69).
- b. Ai, biotz oien gaurko zoria nik *agertu al baneza* (Basarri, *Kantari nafar*, 22).
- c. San Joseren bizitza *kanta al baneza* (Xenpetar, *Xenpetar bertsolaria*, 154).
- d. Oxala eros-ahal baneza zure bizia neurearen gostuz (B. Larreguy, *Testament çaharr. berr. historia*, 1, 317).

Esan gabe doa, bestalde, **edun* eta *izan* laguntzaileak ere erabil daitezkeela horrelako baldintzetan. Ikus ondoko adibideak:

- (110) a. Hori ona laileke, *egiten ahal balitz* (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 299).
- b. Eta Kristoren baitan elgar maite dutenen biholzak *ikusten ahal balira*, uste dut, ene anai maiteak, ene biholzean zuen buruak garbiki ikus zinezazketela (Arradoy, *San Frantses Jatsukoa*, 294).
- c. Oh, zer zoriona! bai, zer zoriona! lurreko oinhaze eta atsegabe guziak *erortzen ahal baliaizkil gainerat!* (B. Joannateguy, *Sainduen Bizitza*, 79).
- d. Zenon'en egiztabide zearrez ludian ageri diranak oro ezabatu *eragin al izango bagenitu*, bat bakarra lizake, izan ere (J. Zaitegi, *Platon'eneko atarian*, 43).
- e. Bere-onelaxe, zakurrek edo zaldiek zeruelara *begiratu al izango balute*, bertara zakur baten edo zaldi baten irudia egolzitko lukete (J. Zaitegi, *Platon'eneko atarian*, 43).
- f. Eta begira gurasoak, eriai kontu egiteko, ez dira ipiñi bear Jaunaren beldurgabekoak; eta *al baliz* ipiñi bear lirake gizonak gizonentzat, eta emakumeak emakumeentzat (Aguirre Asteasukoa, *Eracusadiac I*, 543).

e. Ohar bat alegialdia duten protasirik gabeko perpausetz

Orain arte alegialdiko baldintzadun perpausak aztertu ditugu, baldintza perpausak ondore perpaus batekin agertzen zirela. Ez da beti horrela gertatzen, ordea. Kontsidera ditzagun ondoko adibideak:

- (111) a. Gogotik zerbait edan *nezake*.
- b. Nahi *nuke* jakin zer ordu den.
- c. Gatza emango *zenidake?*
- d. Oso jantzi itsusiak dituzu. Bestela jantzi *behar zenuke*.

Perpaus horietan alegialdian da adizkera, nahiz ez den haietan baldintza perpausik agertzen. Protasirik ez izanik, esan ote daiteke (111)ko perpausak baldintzadun perpausak direla? Gisa batez, bai, zeren pentsa baitezakegu

perpaus hori isildua dela eta inplizituki hor dela. Adibidez (111a,b) adibideak, honela lirateke:

a.bis Aukera izanez gero, gogotik zerbait edan *nezake*.

b.bis Nik ez dut erlojurik baina norbaitek balu, *nahi nuke* jakin zer ordu den.

Formaren aldetik, horrelako azalpenak beti eman badaitezke ere, esan behar da anitzetan solaskideen arteko harremanei lotua dela adizkera horien erabilpana. Jendetasunari dagozkion ohiko jokabideen arabera, kontsideratzen dugu nork gure nahiak eta eskaerak solaskideei agertzerakoan zeharkako moduak egokiago edo direla, eta lagunarteko giroan az bada, hobesten ohi da jendartean alegialdia orainaldia baino maizago horrelakoetan. Protasirik agerian eman gabe, ondore perpausari dagozkien alegialdiko adizkerak erabiliz, nolabait sortzen dugu zeharkatasun edo jendetasunezko urruntasun hori. Horrela gertatzen da ondoko adibideetan:

(112) a. Orlan, Lailari esan omen zionan; Zuen eskualdeko dantza bat *dantizatuko al zenidake*, argitasun pixka bat etortzen ote zaidan (Orixe, *Quito-n arrebarekin*, 191).

b. Eskerrak *emango nizkitzuke* gogo betez. Mesede aundia egingo zenidake. Pozik *pagatuko nizuke* nai dezuna (A. Anabitarte, *Aprika-ko basamortuan*, 72).

Aditz modalekin (*behar izan*, *nahi izan*) bereziki nabarmentzen dira joko horiek, maiz solaskideen nahiak, esperantzak, kontseiluak, eta abar adierazteko baliatzen baitira.

Beste batzuetan, gaitzespenen egiteko ere balia daiteke jokabide hau. Adibide baten emateko, konpara ditzagun ondoko bi perpausak:

(113) a. Gurekin bazkaltzera etorri behar zenuke!

b. Kontu horiek jakin behar zenituzke!

Bestelako testuingururik gabe (113a) aise gonbit gisa interpretatuko dugu (hemen goragoko ierroetan esan dugun bidetik), eta (113b), berriz, erreportxu edo gaizki esate gisa. (113b)ko aditz osagarria (*jakin*) egoera aditza baita kontrafaktual gisa ulertzen da (solaskideak egiazki aipatu kontuak ez dakizki), eta *behar izan*-ekin erabilirik aditzera ematen du hiztunaren irudiko deitoragarri dela ez jakitea.

Ondoko adibideetan argi ikusten da alegialdiak horrelakoetan izan ditzakeen interpretazio desberdinak:

(114) a. (Ha, zer plazerra nukan zure entzutea horien guzien kondatzean! Zer xantza duzun hola kurrituriki! Maiz orhoitzen nintzan zutaz! Egia gero: bethi, halako zerbait preferentzia bainuen zuretzat, bertez hemendik joanentzat ez nuena, (...))
Gure eberrat *behar zinuke jin!* Aita, ez da jaitzen erromatismeekin. Lorian litake zure entzuteaz hango ixtorioen kondatzen. Biziki maite ditu hango ixtorioak (P. Larzabal, *Iru ziren*, 138).

b. (Nik badakiz gauza frango ez daudela ongi, e! baina, agian, beharbada, zuk badakizu ni ez naizela zeharo Gasteizko Jaudaritzaren aldekoa, badakizu ezta? Ez zenekien?) Ba honenbeste *jakin behar zenuke*, pertsona bati galdera egin baino lehen zerbait jakin behar duzue pertsona horretaz, nondik dabilen eta (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak II*, 82).

(114a) adibidean, antzerkiko pertsonaiak gogoko lukeen zerbait adierazten dio bere solaskideari (adierazi gabeko protasia *Niri plazer egin nahi bazenit* edo horrelako zerbait balitz bezala). (114b)n, berriz, Mitxelenak solaskide duen

kazetaria erasiatzen bezala du, elkarrizketa behar bezala prestatu ez duelakoan; kasu honetan protasia honelako zer bait litzateke: *Zure lana behar bezala egin bazenu...*

1.5.2. Alegialdia ez dakarten baldintza perpausak: baldintza errealak

Alegialdia ez dakarten baldintza perpausak gertakari edo egoera gertatuak edo gertakorrak aipatzen dituzten proposizioetan oinarritzen dira. Hots, alegialdiko baldintzek baldintza kontrafaktualak edo gertagaitzak diran proposizioak adierazten badituzte, hauek, alderantziz, aitzinetik jakinak diren, edo egiak izan daitezkeenak, gauzatzen dituzte. Horregatik baldintza errealak deitzen dira batzuetan perpaus hauek, alegialdian jokatuak direnak baldintza irrealak deitzen diren bezala. Ondoko adibidean, ongi ageri da bi baldintza moten arteko kontrastea: lehenbiziko baldintza orainaldian baita, idazleak adieraztera ematen du hartan esana hala izan daitekeela, eta bigarren baldintza alegialdian baita, idazleak, alderantziz, dio hartan esana hala ez denari dagokiola:

(114bis) Gaiztoak gorroto badizuele, ezagun da etzeralera aietakoak; alakoak baziñate, maite izango zinduzkete (P. Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 455).

Atal honetan alegialdikoak ez diren baldintza perpausak ikertuko ditugu, haien formari, eta ondore perpausak dutenari ere, so eginez bereziki.

Alegialdiko baldintzak aztertzeko egin dugun bezala, tempusaren eta aspektuaren arabera bideratuko dugu gure aurkezpena. Tempusari dagokionaz, orainaldia eta iraganaldia bereizi beharko ditugu, eta aspektuari dagokionaz, aspektu burutua duten baldintza perpausak, aspektu burutugabea dutenak, eta aspektu markarik gabekoak, azken hauen artean adizkera trinkoa dutenak eta aditzoina dutenak sartzen direlarik (*KE*-dunak eta *KE*-gabeak).

Baldintza errealen sailkapena honela egin daiteke, beraz:

	Orainaldia	Iraganaldia
Aspektu burutua	<i>ibili bada, ekarri badu</i>	<i>ibili bazen, ekarri bazuen</i>
Aspektu burutugabea	<i>ibiltzen bada, ekartzen bedu</i>	<i>ibiltzen bazen, ekartzen bazuen</i>
Adizkera trinkoa	<i>{baldin} badabil, badakar</i>	<i>{baldin} bazebilen, bazekarren</i>
Aspektu markarik gabe [+ke]	<i>ibil badaiteke, ekar badezaket</i>	<i>ibil bazitekeen, ekar bazezakeen</i>
Aspektu markarik gabe [-ke]	<i>†ibil badadi, †ekar badeza</i>	<i>†ibil bazedin, †ekar bazezan</i>

Ikus daitekeenaz, lau aukera agertzen zaizkigu, haien artean aspaldi honetan hila bezala den bat badelarik (horregatik agertzen da † seinalea), aspektu

markarik gabeko aditz perifrastikoa duena alegia. Ohargarria da geroko aspektua duen adizkerarik ez dela agertzen baldintza perpaus hauetan, era horretako perpausak, gorago (1.1.3) esan bezala, helburu perpaus gisa sailkatzen baitira, edo, *ERE* lokailua erabilirik orduan, kontzesio perpaus gisa. Hona bi adibide, hemendik aitzina hemengo kapituluan aipatuko ez ditugun mota horretako BA-perpausez:

- (115) a. Ezta aski norberak lan egitea ta saiatzea zerua irabazteko; ortaz gañera Yainkoaren grazia ta lagunza ere bear dira, nai-ta-naiez bear dira, ezer onik egingo badugu ta zerua inixiko badugu (P. Iraizoz, *YesusKristoren bizia*, 355).
- b. Gavak egun eginez, igandeak astelegun, phesta egunak ortzirale, aztaparrez, jeinuz, xuhurtiaz bilduko dute, beren burua gabe atxikiko badute ere maiz, umeen hazteko ala albatzeko doia (J. Etchepare, *Buruchkak*, 103).

Gure gaien besterik gabe sartuz, ikus dizlagun orain alegialdikoak ez diren era desberdinetako baldintza perpausak. Baldintza perpaus hauek, berez, zailtasun handirik eskaintzen ez dutenaz gero, gure aurkezpenean bereziki saiaturako gara agerian ematera nolako adizkera duten haiekin batean ager daitezkeen ondore perpausek.

1.5.2.1. Aspektu burutua duten orainaldiko baldintza perpausak (ibili bada, ekam badu)

Aspektu burutua duten orainaldiko baldintza perpaus hauetan gertakari (edo egoera) bururatuak aipatzen dira, ondoko adibidean ikus daitezkeen bezala:

- c. Gau honetan eluma egin badu edo euria izan bada, kasu bideari lotzean!

Gertakaria aspektu burutuan aurkezturik protasian, bestelako aspektua izan dezake aditzak ondore perpauzean, normalean orainaldian izanik, haatik (salbuespen gisa, ikus (118)); ondore perpauzean aipatzen den gertakaria nola ikusia den. Horrela gertatzen da ondoko adibideetan:

- (116) a. Baldin segitu badugu Apostoluaren kontseilu hori, gure gaizumaz ongi baliatu gare (A. Jaureche, *Meditazioneac*, 156).
- b. Baldin kausitu baduzu gaixtakeriarik Aingeruelan, (...) zer egingen da nitaz? (S. Pouvreau, *Jesusen Imitacionea*, 142).
- c. Baldin ezkontzeko itza eman badezu, balio duan eran, ezin ezkondu zaitezke, itza eman diozunaren seniderek: eta erori bazera obrazko bekatu osoan, debekatzen zafzu ezkontza, bekatuan lagun izan dezunaren, senide, eta lengusuakin (Aguirre Asteasukoa, *Erecusaldia* I, 529).

(116a) adibidean, ondore perpauzeko aditzak aspektu burutua du (*baliatu gare*), (116b) adibidean, berriz, geroko aspektua du (*eginen da*), eta (116c) adibidean, burutugabea (*debeekatzen zafzu*), eta ahalezko adizkera (*ezkondu zaitezke*). Ondore perpauzean aipatzen den gertakaria (edo egoera) nola ikusia den, eta araberan jokatu da aditza.

Halaber, ondore perpauzean aditza era trinkoan edo aginteran ere ager daiteke, ondoko adibideek erakusten duten bezala:

- d. Eta guztiz bere, baldin bere aserrea gabarik ifori egin badeutso, kolperik eman badau, barberuen bearrean ifori badau edo bere berbeelan ifok prendank artu badau; eman dira zinak eta minak, an dira kezak, gogaitzeak, farnitzeak, emeguak, agirakak, birao ta añenak (P. A. Añibarro, *Gueroco Guero*, 212).
- e. Baina zuk nihor ofensatu baduzu, eska zaite humilki barkazino, eta lainkoek ere gogotik barkatuko derautzu (S. Pouvreau, *Jesusen Imitacionea*, 269).

Gisa horretako baldintza perpausek, aspektu burutugabea izanik ere, errepikatu diren gertakariak aipa ditzakete. Orduan, denborazko perpausen balioa izaten dute maiz, gorago, 1.2.2 puntuan aspektu burutugabea dutenekin ikusi bezala (20 eta 21 adibideak). Horrelako kasuetan, aldibereketasunezko perpausa erabiliz gero baldintzaren orde, pragmatikoki ez da diferentzia handirik agertzen. Beha ondoko adibideari:

- (117) a. Saindu haukien bizitzean *aurkhitu badut* Jainkoak agindu diotela zenbeit grazia, zenbeit fabore hekien alderat deboziora izanen dutenei, (...) agintza hek *ezagutarazi ditut* bederen gehienetan (B. Joannateguy, *Sainduen Bizitza*, 905).

Adibide horretan baldintzaren perpausaren orde, denborazko perpausa erabiltzen bada, testuinguru bertsuetan erabiltzen ahalko da perpausa. Hona nola geratzen den (117a) adibidea, denborazko mendeko perpausa baldintzazkoaren orde ematen badugu:

- b. Saindu hauen bizitzean *aurkitu dudanean* Jainkoak agindu diela zenbeit grazia, zenbeit fabore haien aldera debozio izanen dutenei, (...) agintza haiek *ezagutarazi ditut* bederen gehienetan.

Ikus daitekeenaz (117a) eta (117b) oso erraz balia daitezke bata bestearen orde.

Orain arte ikusi adibide guztietan, ondore perpauseko aditza, baldintza perpausekoa bezala, orainaldian zen, tempus komunztadura errespetaturik. Hala gertatzen ohi da modu horretako perpausetan. Halere, zenbait hizkeratan non menturako moduak geroko aspektua eta iraganaldia eska baitezake gertakari gertatuen aipatzeko, aldi komunztadura hau itxuran hautsirik gera daiteke:

- (118) Ongi *begiratu baduzu, konturatuko zifan* bein baiño gelagotan jai-eguneko jantzi bera neramala astelenetan (P. Berrondo, *Don Kijote Mantxako*, 129).

- (119) Eta, bear bada, Birtutearen ezlitasunetik zerbait inoiz *progratu badezu deadar egingo zenduen*: Oh gauza zeñ gozo eta atsegiña dan Jaungoikoa serbilzea (Uztapida, *Sasota joan da gero*, 175).

Adibide horietan iraganaldian da ondore perpausa (*zifan, zenduen*). Tempus komunztadura itxuraz urratunik agertzen bada ere (eta hala da dudarik batere gabe morfologiari bagarraizkio), ohargarria da aditz nagusiak geroko aspektua duela (*konturatuko, egingo*), gisa horretan iragan hurbileko menturako modua adierazten baita; cf. *EGLU II*, 412). Beste zenbait euskalkitan *KE* morfemaz baliatzen da modu hori adierazteko, aspektu burutua eta orainaldia erabilirik orduan:

- (120) a. Eta baldin Jainkoak astean egun bat berelzat *atxiki badu*, (...) gizonen beharorduari ere *behatu duke* (J. P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 64).

1.5.2.2. *Aspektu burutua duten iraganaldiko baldintza perpausak (ibili bazen, ekari bazuen)*

Kontsidera ondoko adibidea, non baldintza perpausa iraganaldian izanik, aditzak aspektu burutua baitu:

- b. Atzo Maddalen elamri bezen, zerbait ekari bide zuen.

(120b) adibidean hitzunak berak ez daki segurki ea bezperan Maddalen etorri zen, baina norbaitek hala esan dioke, eta ez zaio ezinezkoa iruditzen. Ondore perpausean, beldintzari dagokion dedukzio bat adierazten du. Adibide honetan gertatzen den bezala, inferentzia bidezko erabilerak aurkitzen ditugu maiz era horretako baldintzetan; cf. 1.2.4 (26b).

Aspektu burutua eta iraganaldia dauzkaten baldintza perpausak arduraren erretorikazkoak dira, esan nahi baitu, haietan egiten den baieztapena aurretik jakintzat edo ematen dela, eta beraz ez dutela egiazko hipotesirik adierazten.

Batzuetan, ondore perpausean esana protasiari kontrajartzen bezala zaio. Aurkaritza garbia izan daiteke bi perpausen artean (121b), edo ez hain garbia (121a), lehenbiziko kasuan perpaus kontzesibo baten parekoa delarik baldintza perpausa:

(121) a. Piarresak atsegin *arkitu bazun* nagusiarekiko kaleak urratzen, onak, arnasa bete-betean *artu zuri*, gizajoak bere gogoz alde egin zionean (Y. Etxaide, *Joanak-johan*, 269).

b. Altxa, *indartu bazuen* euskera inork ez bezela, *goratu ta sendotu bazun* eusko sendia, bere etxe ta sendiak *elzuen* Kirikiño'ren berrogei urteko neke izerdiarekin askorik *aurreatu* (Kirikiño, *Bigarango Abarrak*, Aitzinsolas, 6).

Ikus daiteke bi adibide horietan, protasiaren esana ez dela egiazki hipotesi gisa aurkezten (adibidez, Kirikiñoaren liburuaren aitzinsolasaren egileak ez du egiazko hipotesi gisa aurkezten Kirikiño euskara indartu zuela, argi baitauka, bai berak, bai mintzatzen zaien irakurleek, aurretik jakintzat daukatela protasiaren esana). Ondore perpausean esanari interpretazio kontzesiboa-edo darraio orduan: Kirikiño bere lan luze nekeari esker euskarari mesede handia egin bazion, haren etxekoek, alderantziz, probetxu gutxi atera zuten lan hartarik. Inferentzia bidezko jokoak aurkitzen ditugu, beraz (cf. 1.2.4).

Gisa berean, erretorika galderak ere aurkitzen dira askotan horrelako protasiaren ondotik:

(122) a. Baldin Jaungoikotasuna *jatsi bazan* arimabagaz, *zelan geratu zeitekean* gorpuzagaz? (A. Iturzaeta, *Ázaldura taburac*, 35).

b. Leku hura Jaunaren etxelzat *artu bazuen*, egiaz eta menaz Jainkoa bera dagoan leku bedeinkatu oiekgalik *zer esango zuen?* (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 35).

Irakurlea ohartu bide da aurreko bi adibideetako galderak ez direla egiazko galderak, apodosien adierazten denari indar ematen dioten erretorika galderak baizik.

Ikus daiteke horrelako kasuetan ondore perpausoko aditza ez dela nahitaez iraganaldian, oraineko edo geroko egoera bat aipa baitaiteke hartan. Horrela ondoko adibideetan orainaldian dira ondore perpausetako aditzak (geroko aspektuarekin):

(123) a. Eta egia au *ezagutu*, *eta aitortu bazuen* fedegabeak berak Jesu-Kristoren legeko Apaizaz? (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia* II, 225).

b. ta graziazko egokeran zengozeeela, *jausi baziñan* bekatuan; *zer gertako jatzue* grazia baga egonik? (P. A. Añibarro, *Lora sorta espiritual*, 119).

- c. Baldin Jainkoaren ikhuste haren iduri xoil eta itzal batek hanbatetaraino hartu ta xoratu bazuen Apostolu handi haren bihotza, zer izanen da Jainkoaren loria ta osogune adoragarri hek bere baithan, bere hedadura guzian ta diren bezala ikhustea? (M. Duhalde, *Meditacioneac*, 175).

Beste balzuetan protasian esana hala ez dela azpimarratzeko baliatzen dira mota horretako baldintzak. Hori gertalzen da hitzunak inoren esana dudan jarri edo implizituki gezurtatu nahi duelarik; (ikus (26f)). Ikus ondoko adibidea:

- (124) *Mintzatu bazen* Mahomet Jainkoarekin edo Gabrielekin, nihork elzuen ikusi Yainko edo aingerurik, ez entzun hekien solasik (J. M. Hiribarren, *Escaraz eguia*, 80).

Adibide horretan Hiribarrenek adierazten du ez dela sinetsi behar Mahomet Jainkoarekin edo Gabrielekin mintzatua zela, nahiz hark hala asan zuen. Baldintza perpausean esana (Mahomet Jainkoarekin edo Gabrielekin mintzatu izana) hipotesi gertakor gisa aurkeztua izanagatik, idazleak nahi du erakutsi ez dela oinarririk aski horren sinesteko, inor ez baitzen delako solasaldi haren lekuko izan. Haren testuan ondoko iruzkina darraio perpausari: *Bera zen erraile ariak bazituela lurraz gorago. Horren erratea ezda gaitz, bereziki aditzaileak zozosko direnean, eta hitzek ezdutenean hersatzen deus egiterat gizonen ahalez goragokorik*. Adibidearen ondoko hitzak leiturik, irakurleak ateralzen duen ondorioa da ez dela batara oinarririk protasian asana sinesteko (hau da Mahometek Jainkoarekin elkarriketarik izan zuela uste izateko).

Esapide bereziak

Gisa horretako protasiak errepikalze jokoan bidez zenbait esapide berezitan baliatzen dira. Horrelako bi adibide ditugu hemen, bi aukera desberdin eraskusten dituztenak:

- (125) a. Ni ez nintzan orduan oraino ostatuetan ibiltzen, ene adintsuko batzu bezala. Gero ahatik, *abiatu berintzan abiatu*, kobratu nituen denbora galduak (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 35).
- b. Ifernuko izpiritu gaixtoak ezin jasanez hainberze arima sar zadin zenuko bidean, erranarazi ziozkaten hiru gaixtaginei, Maore sainduaren gain, hala etziren hainitz gauza pisuak. Bainan *mintzatu baziren, mintzatu ziren*. Debnuek hartu zituzten hirvak (B. Joannalegu, *Sainduen Bizitza*, 111).

1.5.2.3. Aspektu burutugabea duten orainaldiko baldintza perpausak (ibiltzen bada, ekartzen bada)

Aspektu burutugabea dakarten orainaldiko baldintza perpausek, denboraren aldetik, solas uneari eta geroari dagozkion denborazko kokapenak adieraz ditzakete. Solas unean bururatuak izan gabe hasiak diren, edo oraino hasi gabeak diren egoerak, gertakariak edo gertakari segidak aipa daitezke haietan, bai eta, balio generikoa edo gnomikoa izanik denborazko kokapen zehatzik ez dutenak ere.

Hurrengo adibideetan orainari dagokio baldintza perpausean aipatu gertakaria:

- (126) a. Zuk hortxe *ikusten baduzu*, hor dago noski.
- b. Oil herioaren mirail egiatian ongi begiratzea, zeinen den premia. Ezen, egun, nere hauzoak hartan *ikusten badituz*, bihar ez othe zait nere burua *egerturen?* (J. Duvoisin, *Liburu ederra*, 172).

Ondoko adibideetan berriz, geroan kokatuak dira baldintza perpausetako gertakariak, gero hurbilean (127a,b), edo urrunagoan (127c):

- (127) a. Ah, aragi lotsagabe gaiztoa, zure gutizira *jartzon banaiz*, sekula guzielako su eta garretan kiskalzen *egongo zera* (G. Arrue, *Mayeteaco illa*, 29).
- b. Gura auzi honetan era, astiroago *begiraten badiogu*, nekerik gabe *ikusiko dugu* badirela nolanhiko izakiak, gorputzduak eta gorputzik gabeak (K. Mitxelena, *Euskal Idazian Guztiak I*, 180).
- c. Hemen ezartzen ditut, segur bainaiz, hiltzeratekoan gogoeta hauek *izanen ditutala*, zertan naizen *ohartzen banaiz* segurik (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 147).

Beste batzuetan errepikatua da baldintza perpausak aipatzen duen gertakaria; orduan, errepikatze horri dagokion aspektu marka hartzen du ondore perpausako aditzak, burutugabea, alegia, edo, zenbait euskalkitan bederen, trinkoa:

- (128) a. Ezker-aldera begia *ematen badut*, *ikusten dut* bertze hainbertze debru. (...). Eskuinera *itzultzen banaiz*, aingeru sailduak, Jainkoaren mandatariak, han *daude* (J. Duvoisin, *Liburu ederra*, 119).

(128a) bezalako adibide baten kasuan gorago ikusi kontua (cf. 1.5.2.1 (117a,b)) agertzen zaigu: baldintza perpausak pragmetikoki aldiberekotasuna adierazten duen denborazko perpaus baten balioa du (*ematen dudanean*, *itzultzen naizenean*).

Hurrengo adibidean, berriz, aipatu gertakaria modu orokorrean ikusia da, balio generikoa izanik denborazko kokapen zehatzik izan gabe:

- b. Txanbangorriyak ume asko izaten ditu, eta kukubak *ikusten badu* bere umia gaizki datorrela, *iltzen ditu* guztiyak (M. Soroa, *Baratzen*, 17).

Ikus daitekeenaz, ondore perpausako orainaldiko aditzak era asko izan ditzake: trinkoa, geroko aspektua duena, aspektu burutugabea duena, edo berdin agintera ere:

- (129) a. *Ikusten badozu* pekatu mortalian zagozala, *konfesau zaitte* bertatik, eta bestelan, damulu bijotzetik linguakaz (J. A. Uriarte, *Marijaren illa*, 19).
- b. baldin *ikusten baduk* nik maiteen dudana, *esaiok* nola nagon min, illun, ill-urrana (Gaztelu, *Musika ixilla*, 197).

Alegialdiaren eta orainaldiaren arteko aurkanitza aspektu burutugabea duten baldintza perpausetan

Lehenago ikusi dugunaz, euskarak bi hipotesi mota eratzeko bidea eskaintzen du protasi jakatuetan.

Kontrafaktual garbiak direnean, hiztunak ez du hauturik eta nahitaez alegialdia erabili behar du baldintza perpausetan (cf. 1.5.1.2):

- (130) a. Aurrean jauzika ikusiko ez banu, ez nuke sinetsiko *txakurra* oraino bizirik dagoela.
- b. Saingarik entzuten ez badut, *etxean* zerbaiz gertatu delako seinalea daleke.

(130a) kontrafaktuala da: inpliketzen du protasian esana ez dela hala gertatzen eta, beraz, hiztunak *txakurra* aurrean jauzika ikusten duela. (130b)

adibidean, berriz, orainaldia baliatua baita, inplikazioa bestelakoa da: protasian esana hala gertatzen da (hiztunak ez du txakur saingarik entzuten).

Jadanik 1.2.3an (23) eta 1.4.1ean (51) ikusi bezala, baldintza kontrafaktuala ez denean, eta horrela gertatzen da geroan kokatzen diren hipotesiak egiten direnean, hiztunak aukera izan dezake baldintza perpausa alegialdian edo orainaldian emateko, bere usteen (eta esperantza edo beldurren) arabera: *Bihar euri egiten badu / egingo balu...*

Esan gabe doa, halere, erlatiboa dela aukera hori, eta baldintza geroan kokaturik ere nabarmenki gertagaitza denean, nekez baztertzen ahalko dela alegialdia. Ikus adibide pare hau:

(131) Bihar Axular zaharra kalean ikusiko bazenu, zer esango zenioke?

(132) Bihar Axular zaharra kalean ikusten baduzu, zer esango diozu?

Argi da bi adibide horien arteko kontrastea, baldintzaren gertakortasunean datzala: lehenbizikoan (131), alegialdia erabilirik, hiztunak adieraztera ematen du nekez solaskideak ondoko egunean Axular kalean atxeman dezakeela. Perpausa ongi eratu eta erabilia da, beraz. Bigarrenean, berriz, protasian egiten duen hipotesia gertakortzat jotzen duela adierazten du hiztunak, franko gauza bitxia baita hori (aspaldi hil norbaitekin kalean buruz buru egitea, alegia), gisa horretan perpausa desegokiro erabilia dela esan baitezakegu.

1.5.2.4. *Aspektu burutugabea duten iraganaldiko baldintza perpausak (ibiltzen bazen, ekartzen bazuen)*

Ikusi dugu geroan kokatzen diren gertakariak aipatzean aspektu burutugabea erabiltzen dela orainaldiko baldintza perpausetan. Gauza bera gertatzen da iraganaldikoetan ere, zehar-solasetan. Ikus, adibidez, ondoko adibidea, non baldintzadun perpausa iraganaldian den aditz baten osagarria baita (aditz gobemalzaila azpimarratua da):

(133) a. Balak eta Madian'tarrak, bada, baturik, Balaan aztiari gaztigatu zioten, baldin Ejipto'tik itendako jenedi bildurgari hura *madarikatzen bazuen*, eskuarakutsi andiak *emango ziozkatela*. (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zar. Berr. condaira*, 101).

b. Salbatzaileak nahi izan zuen Jerusalemen haren sartzea egina izan zedin ponpa eta alegiantzia handirekin, guri *erakusterat emaitako, hiltzen bazuten*, berak hala nahi zuelakoan. *hilen zutela* (A. Jauretche, *Meditazioneak*, 148).

c. *Bazekian* Soldadu errukarri ark gastigo andia izango zuela egia *konfesarzen bazuen* (J. A. Moguel, *Eracasteak*, 122).

Hiru adibide horietan baldintzadun perpausa perpaus osagarria da, eta aditz gobemalzaila iraganaldian baita, aldi komunztaduragatik hala izan daitezke, bai baldintza perpausak, bai ondore perpausak ere. Ohargarria da adibide horietan ondore perpausak geroko aspektua dutela (*emango, hilen, izango*).

Zeharkako diskurtsoetik kanpo ere ager daitezke aspektu burutugabea duten iraganaldiko baldintza perpausak. Adibidez, iraganean gertatu diren gertakari errepikatuak aipatzean:

(134) a. Gaiñerakoan izik *ateratzen bazuten* alkarri mokoka ekiteko izan oi zan (Y. Etxaide, *Joanak-joan*, 28).

- b. Herri batek bere gain *hartzen bazuen* pastorala, herrikoz herriko *muntatzen zuen*, bertze nehungo laguntzarik gabe (P. Lafitte, *Santa Grazi*, J. Casenaveren pastoralararen alizinosolasa, 11).
- c. Ama-semiak bakarrik ziranian maian, auzuan inhor premi aundi batian *arkitzen bazen*, alixatu, ama bakarrik maian utzita, artu beretzat zeguan jana ela *juaten zan* auzora premian zeguanari emalera (C. Beovide, *Asis-co Loria*, 38).

Adibide horietan, errepikatzen diren gertakarien arteko baldintza erlazioa dugu.

1.5.2.5. Orainaldiko adizkera trinkoa duten orainaldiko baldintza perpausak ((baldin) badator, (baldin) badakar)

Baldintza perpauseko aditzak orainaldiko adizkera trinkoa duenean, ondore perpauseko aditza modu batean baino gehiagotan izan daiteke, hala nola gartatzen baita burutugabeko aspektua dutanekin (ikus 1.5.2.3): adizkera trinkoa izan daiteke, geroko edo burutugabeko aspektua duena, agintera...

Hona, adibida batzuk non ondore perpauseko aditza era trinkoan baitago (eta orainaldian):

- (135) a. Eduki arren diruz sakelak betela, jangairik ez *badago*, akabo *da* besta (Xabador, *Odolaren mintzoa*, 134).
- b. Eskubide osoa du eredu eskas horren kontra beste eredu hobe bat aurkezten baldin badigu. Beste eredurik ez *baldin badakar*, ez *du*, ene ustez, mintzatzeko eskubiderik (K. Mitxelena, *Mitxelena-ren Idazlan Hautatuak*, 223).
- c. Euskal irakurleak erdaraz irakurtzen du, geuron gisara, eta ez *dago* euskaraz berresan beharrik erdaraz hobeto behin eta berriro esan diren gauzak, irakurleari zenbait jakingarri ez *badakarkite* (K. Mitxelena, *Mitxelena-ren Idazlan Hautatuak*, 137).
- d. Zenbat morroiek nere aitaren elxean ogia ugari *badute*, ni berriz emen goseak *iltzen nago* (P. Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 300).

Halera, baldintza perpausak orainaldiko adizkera trinkoa duenean, ondore perpauseko aditzak era trinkoaz beste era bat izan dezake. (136a,b) adibideetan aspektu burutugabea du, eta (137a,b) adibideetan garoko aspektua:

- (136) a. Brabanteko Genevaren Kondairak Xavier de Montepin *badakar* gogora, Arakistainez *oroiterazten gaitu* beste honek (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak II*, 44).
- b. Ala ere, morroia *badatorkit*, larunbatetan *jaixten naiz* Zabaletara (D. Aguirre, *Geroa*, 6).
- (137) a. Zakar egiten yatzuz barrijak edo ezezeunak diralako zuretzat; gugaz sarni *ibilli bazabiltz*, aldi asko igasi orduko guztiz erraz ta bigun *eretziko dozuz* esaten naiz entzuten (Kiñikiño, *Bigarongo Abarak*, 124).
- b. naiz ordikeria ez osoa izan, *baldin* edanerako makurtasun, ta oitura orretatik kalte andiren bat *badatorkizu* zuri, edo zure emazleari, edo umeai, edo beste lagun urkoren bali dala osasunan, dala animan, edo ondasunetan, orduan oitura ori kalte oekgatik *izango da* bekatu larria (Aguirre Asteasukoa, *Erecusaldia III*, 371).

Aginteran ere izan daiteke ondore perpauseko aditza:

- c. Gaxtoen artean ezin biziz *bahabilia*, oha bertze mundu baten bilha (A. Oihenari, *Les Proverbes Basques*, 86).

(135-137)ko adibide guztietan orainaldian da ondore perpauseko aditza. Eta dudarik batere gabe, gehienetan horrela gertatzen da. Halere, iraganaldia ere ager daiteke menturazko modua geroko aspektua erabiliz adierazi nahi denean (ikus halaber (118-128) adibideak gorago):

(138) Mikel gaur nirekin zinemara badator, ez zuen beste aukera handirik izango.

1.5.2.6. Iraganaldiko adizkera trinkoa duten iraganaldiko baldintza perpausak (baldin bazetorren, baldin bazekarren).

Iraganaldiko adizkera trinkoak ere ager daitezke baldintza perpausetan. Baldintzadun perpausa perpaus osagarri denean, eta aditz gobernatzailea iraganaldian, zehar-solaseko aldi komunztadura aurkitzen da, ondore perpauseko aditzak geroko aspektua ohi duelarik. Horrela gertatzen da ondoko adibideetan; cf. gorago, aspektu burutugabearekin, 1.5.2.4 (133):

(139) a. Herodesi bereala ilzezin zioten esanaz, txit konbeni zitzaiola kristau guziak galdutzea; bada, lanbide onekin Judueñ gogoak beretuko zituela, eta Erromarren aldetik esturasunik inoiz bazetorkion, berak lagunduko ziotela (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 501).

b. Jakiña zan, estudiora baño len, ta ori akabatu ta bereala, etxean orazioan expazegoen, gure eleizan, Jaunarekin atsedeten ta gozatzen, edo etxeo pelearako armatzen *arkituko zala* (A. Cardaberaz, *Justuen Ispiltu arguia*, 95).

Bide zuzeneko solasean ere ager daitezke iraganaldiko adizkera trinkoak baldintza perpausetan. Ondore perpauseko aditza iraganaldian izaten da maiz, aspektuaren aldetik forma bat baino gehiago izan dezakeelarik.

Adibidez, ondoko adibidean, aspektu burutua dute ondore perpauseko aditzek:

(140) (Eskatuten deutsu batek esan daizula guzurtxu txiki bat. (...) eta zuk gauza au estaldu daizun, gurarijagaz, esaten deutsu egin deijozula juramentu, guzur au esango dozula, eta zuk egiten deutsazu juramentu.) Bada juramentu au egin zeunlsanian *bazeunkan* gogo, edo intenzinoia guzurra esaleko, pekatu beniala bakarrik egin *zenduban*, baña *expazeunkan* guzurra esateko usterik, pekatu mortala egin *zenduban* (P. Astaroa, *Berbakdiak*, 63).

Ondore perpauseko aditzak era trinkoa izan dezake horrelako testuinguruetan, hala nola ikus baitaiteke ondoko adibideetan:

(141) Baña noiz ta nola ostu zuten [Jesusen gorpulza]? Bietatik bat: Zaintzaleak lo zeuden edo esnarik zeuden; *lo bazeuden*, nola *zekiten*, gorpulz-illa apostoluak eraman zutela? Esnarik bazeuden bertiz, nola utzi zuten goroutza eramatera gogor egin gabe (...)? (P. Iraizoz, *Yosukristoren bizia*, 525).

Aspektu burutugabea ere izan dezake ondore perpauseko aditzak, gertakari errepikatuak aipatzen direnean bereziki:

(142) Gau askotan, berandu xamar *baldin bazetorren* kuartelera, petaka deritzaion deabrukeri bat *egiten zioten* (S. Salaverra, *Neronen tirako nizkin*, 68).

Aldi komunztadura hautsirik ager daiteke, ondore perpauseko aditza orainaldian izanik:

(143) Zer *atera dozu* pekatu guziak agertubaz leengo konfesinuetan, ta konfesorik askotan luzatu biar eutsun absolutuzina dongaro emonaz, *baldin expazeonien* biar legezko egijazko damu, ta proposituba? (J. A. Moguel, *Confesio ona*, 261).

Ikus daitekeenaz, (143) adibidean, ondore perpausako aditza orainaldian da, aspektu burutuarekin, baldintza perpausako adizkera trinkoa iraganaldian izanik.

1.5.2.7. *Ahalezko adizkera duten baldintza perpausak (etor badaiteke / bazitekeen, ekar badezake / bazezakeen).*

Ikusi dugu lehenago alegialdiko baldintza perpausetan adizkera ahalezkoak ager daitezkeela (cf. 1.5.1.2.d). Ez da harrizkoa, beraz, gauza bera gerlatzen bada orainaldiko eta iraganaldiko ahalezko adizkerekin ere, nahiz Iparraldeko testuetan bereziki aurkitzen diren horrelako adibideak.

Orainaldiko ahalezko adizkera denean baldintza perpausean, ondore perpausoko aditza ere orainaldian izaten da:

(144) a. Batheatzuz geroz zombait bekatu mortal egin denian, absolutoki nezesario da haren konfesatzea, eta *ezpadaiteke konfesa*, behar da uken konfesatzeko borondata (Akizeko katixima, 142).

b. Eta orduan Sainduak ihardetsi zion ezti-etzia: Haurra, zuk ezazu hobetik, nik *ezpadezakot* loik egin (B. Joannateguy, *Sainduen Bizitza*, 169).

Agintera ere aurki daiteke ondore perpausetan:

(145) a. Eri khartsua amodiozko hasperenetan abiatzen da: «Othoi, othoi, *ezpadezakot komunia*, bederen nere bihotzaren gainean *emadazuel* Jesus» (J. P. Arbelbide, *Igendea edo Jaunaren eguna*, 116).

b. Eskuara hunen ohiko goiti-beheiti, xoko-moko guziak ezagutu nahiz dabilzanez bertze laguntza handirik egin *ezpadezoketegu*, *erakuts* bederen esker on gehixago (J. Hiriar-Umuty, *Mintzaira, Aurpegia, Gizon*, 219).

Ekialdeko euskalkietan **iro* aditz laguntzailea erabil baitaiteke ahalezko modua eratzeko, baldintza perpausetan horrelako adizkerak kausitzen dira:

(146) a. Ebatsia ihork *buhur ezpadiro*, zer egin behar *du* (A. Belapeyre, *Catechima laburra*, 1, 99).

b. *Ezpadirozu* zure buria *gzar* zihaurk nahi zünükian bezala; nula *ükhen dirozü* beste bat zihaturen gogarako (M. Maister, *Jesu-Kristen imitacionia*, 39).

Iranagaldian ere erabil daitezke ahalezko adizkerak baldintza perpausetan:

Aldi komuntzaturagatik, ondore perpausoko adizkerak iraganaldian izaten dira maiz, aspektu kontuak modu desberdinetan agertzen direlarik.

Aspektu burutua, burutugabea edo gerokoa aurki daiteke ondore perpausean:

(147) a. Eta norbeit edo zerbait azantzetik ez *bazezaken asma*, bere gogoa *erabiltzen zuen* luzaz heia nor edo zer izan zitaken holako azantza egin zezakenik (J. B. Etchepare, *Mendekoste gereziak*, 23).

b. Eta hola emeki emeki bide egin zuen Frantsesen gogoan Berri Onaren hedatzeko molde berri batek: Berri On hori ez *balin bazezaketen onhar* eskale balen ahotik, *onhartuko zuketan* jaun haundi baten ahotik (Arradoy, *San Frantses Jatsukoa*, 236).

Adizkera trinkoa ere aurki daiteke noski:

(148) *Nekhe, borroka, thormenta guziak arin eta gozo zitzaizkon*, hekien bidez Jesusen izen seindua bazter guzietarat *bana-araz bazezaken*, eta orotan adoratzailleak eta maithatzailleak *irabaz ahal bazietzaken* (M. Duhalde, *Meditacionec*, 241).

Zenbaitetan apodosian adierazia orainari baitagokio, orainaldian izan daiteke ondore perpausako aditza:

- (149) Eta egiaz lurreko parabizuan gizonak *iraun ahal* bazezaken, gorphutzeko bizia galdu gabe. Jainkoak han ezarri zuen bizitzearen arbolako fruitutik janen zueno; miresteko othe *da* gizonak, bizitzeko sakramendu horren berthutez. orai irautea izpintuzko heriotzean erori gabe? (J. P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 114).

1.5.2.8. *Aspektu markarik gabeko orainaldiko baldintza perpausak (etor bada, ekar badezat)*

Ikusi dugun bezala (1.5.1.2.c), bizirik egon dira **edin* eta **ezan* aditz laguntzaileak dituzten aspektu markarik gabeko alegialdiko baldintza perpausak. Orainaldian, ordea, kasik desagertu dira horrelako baldintza formak, 16 eta 17. mendeetako testuetan maiz aurkitzen zirenak (iraganaldikoak, ordea, iritsi zaizkigun testu zaharretan ere, arras bakanak dira).

Ikus orainaldiko zenbait adibide:

- (150) a. Ezen baldin lainkoaren ontasunaz eta gureganako amorioaz *segura* *ezpagaitez*, ezin hura egiazki *inboka dezakegu* (J. Leizarraga, *Othoitza Ecclesiasticoen forma*, 69).
- b. Nolatan hori *egin ahal dezakegu*, baldin lainkoaz, ez haren obrez, *pensa* *ezpadezagu*, edo *minza* *ezpagaitez* haren ohoretan eta laudoriotan baizen (J. Leizarraga, *Othoitza Ecclesiasticoen forma*, 56).
- c. launa, zelurat *igan banadi*, zu han *zira*, infemurat ieusten baniz han present zira, zu orotan zira (J. Tartas, *Occupatione devota*q, 12).

Esan bezala, zaharkiturik gelditu dira adizkera hauek. Halere, zenbait autore modernok erabili izan dituzte batzuetan:

- (151) a. Inoiz *batera bagaitez*, bada, huskeriak baino zerbait gehiago galduko du gure hizkuntzak: begi-belarrientzat hain atsegin den aldakortasun ugaria (K. Mitxelena, *Mitxelenaeren Idazlan Hautatuak*, 96).
- b. Naiza, haiza, eizan *idazten has banadi*, aldez aurretik *ematen diot* edozeini esku ero-erbe batean ongi estekaturik sar nazan (K. Mitxelena, *Mitxelenaeren Idazlan Hautatuak*, 82).
- c. Ni *yoan* *ezpanadi*, aialdekoa *ezta* *etorriko*; ni *yoan* *banadi* berriz, *bidaliko* *dizuet* (P. Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 457).

Ez da argi aspaldiko erabide zaharkitu hau testu idatzietan berpizteko entsegu horiek zer ondorio izanen duten. Dena den, seinaltatzekoa da, testu zaharretan ere, oso gutxitan aurkitzen direla aspektu markarik gabeko baldintzazko adizkera hauek iraganaldian. Zehar-solasetan, halere, adibide bat edo beste aurki daiteke:

- d. Ordenatu zuen Solonek bere legetan, *baldin* herriko kargudun bati *gertha* *bazekion*, sobera edalera, eta handik mihiaran mozteltzera edo zangoen kordokatzerara, edeki zekiola berehala bere kargua (P. Axular, *Guero*, 264).

1.5.2.9. *BER enklitiko orainaldiko baldintza perpausetan*

Beste erabilera zaharkitu bat aurkitzen da ekialdeko testuetan. Orduan *BER* morfema agertzen da orainaldiko baldintza perpaus baten ondotik. Ikus ondoko adibideak:

- (152) a. Arkord gira halaber, lekhu orotan orazioniak hon *direla*. onsa *egiten badira* *ber* (J. Tartas, *Occupatione devota*q, 15).

- b. Konbeni dea ardura Komünialzia? Bai, ahalik arrangüroskiena *preparatzen bagira ber* aldi oroz, segitzen dūgūlank Kofesor prūdeni baten abisa eta errana (*Akizeko katixima*, 137).

Ikus daitekeenaz, *BER* enklitikoak ez du perpausaren baldintza izaera kanbiatzen: indartu egiten du baldintza.

Molde hau erabiltzen zen garaietan **edin* eta **ezan* aditz laguntzaileak orainaldian erabil bailitezkeen baldintza perpausetan, *BER* morfema aurkilzen da horrelako protasietan erabilia:

- (153) a. ... gure arimak hatzen, enterrentzen, eta sainktifikatzen ditu, gu nor bagira, gutan ezpada faltarik, digneki *presenta bagite ber* mahain sakratu hartara, berak erran dian bezala (J. Tartas, *Onsa hilceco bidia*, 124).
- b. Barura prinzesa eder bat da, eta poxan bat molde honian *egin badadi ber*, haren amorekati linkoak populiak, eta probinziak bere etsaien danieretarik deliurutzen ditu, eta konserbatzen haien biziak, eta honak, ... (J. Tartas, *Occupatione devotaq*, 76).

1.5.2.10. *NON (ETA) EZ ... -eN* perpausak

Baldintza perpaus jokatuena ezaugarri nagusia *BA-* menderagailua da, eta orain arte aztertu ditugun perpaus guzti-guztietan agertu zaigu aurrizki hau. Bada halere perpaus jokatu mota bat, baldintza perpausen artean sailka daitekeena eta bestelako forma duena. Perpaus hori ezezkoa da beti, eta *non* lokailua daukalarik hastapenean, *-eN* du menderagailua (sekuia ere ez *BAIT-*). Iparraldeko euskalkietan erabiltzen da bereziki baldintza mota hau.

Perpaus horietan, baldintza perpausak salbuespen zentzua oso zorrotza du, ondore perpausari begira. Izan ere, ondore perpausari baieztapena urra dezakeen salbuespen bakar gisa agertzen da baldintzan adierazia; cf. 1.2.1 (19a). Adibidez, nik bihar Parisen izateko gogo irmoa badut, (154a) esan dezaket, baldintza perpausari gogo hori betelzetik debeka nazakeen ustezko salbuespen bakarra zehaztuz:

- (154) a. Bihar horretaz mintzatuko dira, non ez diegun holako gairik aipatzea debekatzen.

Horrelako baldintza *BA-* aurrizkia erabiliz adierazteko, *behintzat* edo, areago, *salbu* gainera daiteke, baldintza perpausa ezezkoan utzirik lehen kasuan, ez ordean bigarrenean:

- b. Bihar horretaz mintzatuko dira, holako gairik aipatzea debekatzen ez badiezu behintzat.
- c. Bihar horretaz mintzatuko dira, salbu holako gairik aipatzea debekatzen badiezu.

a. Egitura hau baldintzazko egitura bat dugu, baina baldintza egituretan ohikoa denaren kontra, egitura honetan protasia apodosiaren alzean jartzen ohi da, heu da, baldintza ondorioaren gibelean:

- (155) a. Halere, agertu duen poxitik ezaugun da zer kobleri den; erran nahi dut hobereketarik dela, ez baita orobat Eskual-herian nehor nausitzen zakonik, *non ez diren* Elissanburu zena eta Zalduby (J. Elcheperre, *Buruchkak*, 145).
- b. Yenden izpirituak ere asalatuak zauzkaton, erranez ez zela gehiago ogirik; gosetea yadanik Pariseko borthetan zutela, *non ez zen* gorthea ekhar-arazten Versaillestik Parisera (M. Elissanburu, *Framazonak*, 82).

- c. Ez dezakele gazte gehienek ongian iraun *non ez diren* Sakramenduetara maiz *hurbiltzen* (J. P. Arbelbide, *Igandea edo Jauneraren eguna*, 112).
- d. Hau egiten dut hola, tenortsu huntan, bezperetakoaldi ez dutan igande arrastiri guzietz, *non ez diotan*, ezinbertzez, haur bati *egin-areztan* (J. Hiriari-Urruty, *Zezonak Errepublikan*, 184).

Ez dira falta, haatik, protasia apodosiaren aurrean agertzen diren kasuak:

- (156) a. Ifazio eta haren lagunak populuari mintza ditezke; hatik, leolojia *non ez duten* lau urthez *egiten*, debekatua zaiote xehatzea zertan dazkan bekhatu mortala eta zertan beniala (F. Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 97).
- b. *Non ez duzun* osoki garaitua ikhusten, ez zaitzezela pausa: zure konstanziaz merezituko duzu Khoroa errezibitzea Yurie soberanoaren eskutik (J. Haraneder, *Gudu izpirituala*, 102).

Mendebaldeko euskalkietan *eta* ager daiteke *non* lokailuaren ondotik:

- (157) a. Xutik zagon gau eta egun, *non eta etzen* loak osoki garhaitua (B. Joannateguy, *Sainduen Bizitza*, 115).
- b. Ni, *nonfa* sokaz lotu *eta eramaten* ez nauten, ementxen biziko naiz (R. Illaramendi, *Artzai Piltipe*, 5).

Ohar daiteke azken adibide hau erdialdeko euskalki batekoa dela, eta kasu horretan aditz laguntzailea eta ezetzako hitza ez direla perpausaren hastapenean, *NON* lokailuaren ondoko lehen posizioan. Erabide hau, nahiz doi bat markatua den Iparraldeko euskalkien erabilera nagusiaren eretzean, zilegi da.

Kontuan izan bestalde, (156b) eta (157a) adibideek erakusten duten bezala horrelako baldintzak iraganaldian ere izan daitezkeela.

b. Esan gabe *doa* ez direla nahasi behar era horretako baldintza perpausak itxura batean formaz antzekoak izan daitezkeen bestelako mendeko perpausekin, izan daitezen hauek perpaus erlatiboak, edo ondorio perpausak (ikus *EGLU V*).

Beha ondoko adibide honi:

- (158) Izendatu ditudanaz landara ere, guztiz iturri asko dira Hernaniko mugapean, *non ez dan* izango baserri-otxerik, bere iturri jakia atari inguruan ez dabenik (J. I. Izueta, *Guipuzcoaren condaira*, 95).

Adibide horietan *NON* izenorde erlatiboa da, haren aurrekarie Hernaniko mugapea baila.

Halaber, ondoko adibidean ere, ez da baldintza perpausik, *EZEN NON EZ* –*en* era daukan mendeko perpaus ondorio perpausa da, *ain* mailakatzailerari lotua:

- (159) Ekusiko dezu *ain* andia dala beraren izale ederra, *non ez duan*, ta *ezin izan-ere* dezakean neuririk, bazter, edo mugarik (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia III*, 318).

LABURPENA

1. Baldintzadun perpausetan adierazten den erlazio mota

Baldintza perpausak mendeko perpaus adjunktua dira, kausa mota berezi bat, batzuetan kausa modala deitua izan dena, adierazten ohi dutenak. Adibidez, ondoko adibidean, nekalzearen kausa gisa aurkezten da lan gehiegi egitea:

- (1) Patxi lan gehiegi egiten badu, laster nekatuko da.

Baldintza perpausen ezaugarri nagusia da hipotesi gisa aurkezten ohi direla. Goiko perpausan, adibidez, hala gertatzen da: Patxi laster nekalzearen kausa izan daiteke berak lan gehiegi egitea, baina hiztunak ez dio Patxi lan gehiegi egiten duela: proposizio hori hipotesi gisa aurkezten du, eta ondoren ondorioa ikusten. Hipotesien sortzeko ahal horri esker, baldintzetan egiak ez diren proposizioak (edo nekez egiak izan daitezkeenak), egiak balira bezala aipa daitezke, horretarako era bereziak dituzten alegiazko adizkerak baliatuz:

- (2) Euskal Herria uhartera balitz, euskaldunek bestelako izaera lukete.

2. Baldintza perpausen ezaugarri nagusiak

Baldintzadun perpausetan, *baldintza perpausa* edo *protasi* ere esaten zaio mendeko perpausari, eta *ondore perpausa* (*apodosi* deitura ere erabil daiteke), berriz, mendeko ez denari. Horregatik, euskalki gehienetan adizkera alokutiboa ezin ager daiteke baldintza perpausetan, hain zuzen ere haietako adizkerak menderagailua baitaker; adibidez, ondoko adibidean, baldintza perpausoko aditze eztabadako forman (*banau*), gelditzen da ez era alokutiboan (*banatik*):

- (3) Hire anaiak hemen ikusten banau, ez duk gutxi harriluko!

Baldintza perpaus jokatueta, *BA-* aurrizkia baliatzen ohi da menderagailu gisa, menderagailu hau, nahi izanez gero, *BALDIN* lokailuaren bidez ere indar daitekeelarik:

- (4) *Baldin* Pello Bilbon ikusten baduzu, esaiotzu ikusi nahi nukeela.

BALDIN lokailuaren tokia baldintza perpausaren barnean aski libre da: baldintza perpausaren hastapenean (aurreko adibidean bezala) edo editz jokatuaren ezkerrean, *BA-* aurrizkiaren ondo-ondoan, izan daiteke; adibidez, goiko adibidea honela esan daiteke:

- (5) Pello Bilbon ikusten *baldin* baduzu, esaiotzu ikusi nahi nukeela.

Baldintza perpausok proposizioak adierazten dituzte eta ondorioz adierazpenezkoak dira. Bestalde mintzagai perpausak izateko joera dute.

Horregatik ondore perpausak baino lehenago agertzen dira maiz baldintza perpausak, nahiz ez den horretan obligaziorik, zeren haien perpausen ondotik ere agertzen ahal baitira (ahozkoan intonazio modu berezia ohi dagokio azken egitura honi):

(6) Baimena ematen badiozu. Pello bihar joango da

(6') Pello bihar joango da, baimena ematen badiozu.

Baldintza perpausaren barneko osagaien ordena ere franko libre da. Halere, seinatatzekoa da, anitz mendeko perpausetan bezalaxe, ezezkako baldintza perpausetan aise dela aditz jokatu bukaeran, aditz nagusiaren eskuinaldean, ematea, perpaus menderatugabeetan guztiz markatua den ordena erabiliz orduan:

(7) Bihar Pirinioetan euririk egingo ez balu, mendira aterako ginateke.

Ordena hau halere ez da nahitaezkoa eta baldintza perpausoko aditz jokatu bukaeran emateko obligaziorik ez dago:

(7') Bihar ez balu euririk egingo Pirinioetan, mendira aterako ginateke.

3. Baldintza perpausen sailkapena

Baldintza perpausen sailkapena haietan agertzen den adizkeren arabera egiten ohi da. Haietan *baldintza irrealak* eta *baldintza errealak* bereizten dira.

Baldintza irrealak deitzen direnetan alegialdiko adizkerak erabiltzen dira. Haietan gertatugabeko edo gertagaizlat jotzen diren gertakariak edo egoerak, jazo edo jazoko balira bezala aipatzen dira. Adibidez, ondoko adibideetako baldintzei badagokie berezko presuposizio bat (agerian ematen duguna):

(8) Lagun hura sortu egunean hil izan balitz (→ lagun hura ez zen hil orduan)

(9) Zu zauden tokian ez bazeude (→ zauden tokian zaude)

(10) Bihar iragan denboretara itzuliko bagina (→ nekez iragan denboretara itzuli gaitzake)

Baldintza errealak deitzen diren perpausetan, aldiz, gertakari gertatuak edo gertakorrak adierazten dira; haietan iraganaldiko eta orainaldiko adizkerak erabiltzen dira:

(11) Ni Euskal Herrian jaio banintzen (→ Euskal Herrian sortu nintzen)

(12) Zu zauden tokian bazaude (→ zauden tokian zaude)

(13) Bihar eguraldi hobea egiten badu (→ bihar eguraldi hobea izan daiteke)

4. Baldintza perpausen eta ondorio perpausen arteko aldi komunztadura

Baldintza perpausetan alegialdia erabiltzen bada, aldi berean egon behar du gehienetan ondore perpausoko adizkerak ere:

(14) Patxi beneraz mintzalzen baleki, diru asko irabaziko luke.

(15) Bihar Australiara joango banintz, Maddi nirekin etorriko litzateke.

Halere, baldintzadun perpausean aipatzen diren balizko gertakariak edo egoerak bururatuak badira, iraganaldia erabiltzen da ondorio perpausean geroko aspektuarekin:

- (16) Maddi hamar minutu lehenago etorri balitz, umeak eskolara abiatzen ikusiko zituen.

Nahi izanez gero, euskara jasoan bereziki, *-KE* modu marka erabil daiteke horrelako ondorio perpausetan, euskalkien arabera aspektua gerokoa izanik, edo burutua:

- (16bis) Maddi hamar minutu lehenago etorri balitz, umeak eskolara abiatzen ikusi(ko) zituzkeen.

Bestalde, gogoratu behar da alegialdiko baldintza perpausak, konparazio hitzek goberna ditzaketela (*bezala*, *baino* edo *bezeinbat* adibidez), eta orduan ez direla ondore perpaus batekin agertzen:

- (17) Ezer ez baleki bezala egin zuen Pellok
(18) Erori balitz baino min handiago hartu zuen Pellok.

Beste zenbaitetan bakarrik ere erabil daitezke alegialdiko baldintza perpausak, gehienetan agiantza moduan:

- (18') Ah, gezur horiek egiak balira!

5. Aditz laguntzaileak baldintza perpausetan

Baldintza mota guztiak aspektu marka eskatzen duten *izan* eta **edun* aditz laguntzaileekin era daitezke:

- (19) Atzo ikusi banu atzo emango nion, eta bihar ikusiko banu bihar emango nioke.
(20) Lehen, kalean ikusten banuen, agur esaten nion, baina hemendik aitzina buruz buru egiten badugu, ez ikusiarena egingo dut.

Halere, ekialdeko euskalkietan, bereziki, **edin* eta **ezan* laguntzaileak ere erabil daitezke gertakari bururatuak edo egoera iraganak adierazten ez dituzten alegialdiko baldintza perpausetan:

- (21) Axular berriz mundura etorri baledi, ez liteke gubxi harri egungo euskara entzunez.

(Euskara zaharrean **edin* eta **ezan* laguntzaileen orainaldiko adizkerak ere erabil zitezkeen modu horretan, baina aspaldi galdu zen ahalmen hori.)

**Edin* eta **ezan* laguntzaileak alegialdiko baldintza perpausetan erabil ditzaketen euskalkietan, alegialdiko ondorio perpausetan ere erabil ditzakete aditz laguntzaile horiek *-KE* morfema daukatelarik orduan (21) adibidean bezala.

6. Adizkera trinkoak baldintza perpausetan

Adizkera trinkoak ere erabil daitezke baldintza perpausetan, bai alegialdikoak, eta bai besteak ere:

- (22) Errege banintz, erregina zinateke.
(23) Nekatuda bazaude, hobe duzu pausatzea.

- (24) Norbait etxean bazegoen, umeeek kanpoan egon nahiago zuten.

Halere seinatzekoa da zenbait euskalkitan modu perifrastikoa ere erabiltzen dela maiz alegialdiko adizkera trinkoen orde:

- (25) Txinera jakingo banu (= binera baneki)
(26) Aberatsa izango banintz (= aberatsa banintz)

7. Aspektu marka baldintza perpausetan

Alegiazkotasuna euskaraz aldi gisa agertzen baita, alegialdiko adizkeretan aspektu marken bidez adierazten dira denborari dagozkion zehaztasunak: horrela, alde batetik, osoki gertatuak eta burutuak diren egoera eta gertakariak ditugu (aspektu burutua nahitaezkoa dute), eta beste aldetik, gertatugabeak edo burutugabeak direnak (aspektu burutugabea edo gerokoa, euskalkien arabera, izan dezakete, edo aspektu markarik ez):

• Gertatuak eta burutuak:

- (27) Goizean / joan den urtean / iragan mendean *gertatu balitz*, eta egoera hark ordu arte *iraun balu*.

Horrelako baldintzetan aspektu burutua azpimarratzeko-edo, *izan* laguntzailearen era burutua erabil daiteke:

- (28) Goizean / joan den urtean / iragan mendean *gertatu izan balitz*, eta egoera hark ordu arte *iraun izan balu balu*.

• Gertatugabeak edo burutugabeak:

- (29) Orain diru asko eskuen artean *bazenu* edo bat-batean *aberasten bazina*.
(30) Datorren urtean edo hemendik hamar urte, oraino *aberatsa (izango) bazina* edo bat-batean zure ondasun guztiak *galduko bazenitu*.
(31) Datorren urtean edo hemendik hamar urte, oraino *aberatsa bazina* edo bat-batean zure ondasun guztiak *gal bazenitza*.

Ikus daitekeenez, aditz morfologiak eskaintzen dituen aukera desberdinak kontuan harturik, aditzen eta hiztunen arabera, modu bat baino gehiago izan daiteke zenbait kasutan baldintza mota berak adierazteko (baldintza irreal gertatugabeak edo burutugabeak adierazterakoan bereziki). Ondoko taulan dira baldintza perpausak erabilera nagusien arabera sailkatzen dira, adibideetan ondore perpaus bat ere agerrarazirik.

Baldintzadun perpausen sailkapena erabileren arabera:

BALDINTZA MOTA	ALDIA	ASPEKTU MARKA	ADIBIDEA		
BALDINTZA IRREALAK	[aleglaldia]	[-aspektua]	trinkoa	<i>Beste nonbait banengo</i>	
			perifrastikoa	<i>Orain edo bihar gerla pitz baledi</i>	
		[+aspektua]	[-burutua]		<i>Itsuek ikusten balute</i>
					<i>Itsuek ikusiko balute</i>
		[+burutua]	<i>Etorri (izan) balitz</i>		
BALDINTZA ERREALAK	[+oraina]	[-aspektua]	trinkoa	<i>Oinez badetor</i>	
			[+aspektua]	[-burutua]	<i>Bihar elortzen bada</i>
		[+burutua]		<i>Honaino etorri banaiz</i>	
	[+iragana]	[+aspektua]	[-burutua]	<i>Mintzarzen bazen</i>	
[+burutua]			<i>Etorri bazen</i>		

BA-baldintza perpaus jokatuak beste era batez ere sailka daitezke, aldiaren eta aspektuaren arabera, haien ondoan dagokien ondore perpaus bat emanez:

- (32) Baldintza perpausen sailkapena aldiaren eta aspektuaren arabera
(ikus sailkapenaren taula -zabalean dagoena-)

8. BA- menderagailua ez duen baldintza perpaus jokatuak

Baldintzazko perpaus jokatuaren ezaugarria da menderagailu gisa aditzari aurrizki gisa lotzen zaion BA- menderagailua darkartela. Halere ekialdeko euskalkietan bada, baldintzen balioa duen mendeko perpaus bat, bestelako erabidea duena (NON EZ .. -eN):

- (33) Zuk ešan beharko diozu nagusiari zer gertatu den, non ez dion beste norbaitek aurretik jakinarazten.

9. Inferentzia jokoak baliatzen dituzten baldintza perpausak

Hizkuntza erabileran solasaldien joko arauen bidez, eta hauetarik sortzen diren presuposizio eta inferentzien bidez, arras testuinguru desberdinetan ager daitezke baldintza perpausak. Inferentziak modu berezian baliatzen dituzten horrelako baldintza perpausak, non agerian eta zuzenean behintzat, kausa-ondorio erlaziorik ez baita agertzen, hitz jardunean ardura gertatzen dira.

Adibidez, ondoko adibidean hiztuna baldintza perpausaz baliatzen da, solaskideari baldintza perpausuan egindako baieztapena haren ustez guztiz oker dagoela adierazteko:

(34) Euskara hizkuntza erromanikoa bada, ingelesa bantu hizkuntza da.

Esan gabe doa euskara hizkuntza erromanikoa izatea ezin izan daitekeela ingelesa bantu hizkuntza izatearen kausa. Berez, proposizio batak ez du besterekin zer ikusirik. Halere, solasaldi batean, lokarri analogiko bat izan daiteke bi proposizioen artean, hiztunak solaskideari esaten balio bezala: biek badakigu ondorio perpausuan esana kintenkeria dela, bada, jakin ezazu baldintza perpausuan esana ere berdin kintenkeria galanta dela). Horregatik zenbait testuinguru argumentatibotan egoki erabilia gerta daiteke aipatu perpausa.

Ondoko adibidean ere, begien bistakoa da ez dagoela berezko kausa-ondorio erlaziorik; halere, baldintza ongi erabilia da, ondorio perpausuan esana hiztunak solas lagunari egiten dion zeharkako gonbita gisa hartua izanik:

(35) Logale bazara, ohea egina da adiskideen logelan eta han isiltasuna izango duzu.

Esan gabe doa berez ez dagoela kausa-ondorio erlaziorik, zu logale izatearen eta gure etxeko logelan ohea egina izatearen edo hango isiltasunaren artean. Halere, bi hiztunen arteko solasak aise bidera ditzake horrelako perpausak elkarrizketako kooperazio printzipioen arabera eratuak.

Mota askotakoak dira solaskideek inferentzia jokoetan oinarriturik sor ditzaketen horrelako baldintzak.

BALDINTZA PERPAUSEN SAILKAPENA ALDIAREN ETA ASPEKTUAREN ARABERA

[+alegialdia]	[+perifrastikoa]	[+aspektua]	[+burutua]	▶ <i>Etorri balitz eta ekarr baligu, gustura hartuko genuen.</i>
		[-aspektua]	[+gerokoa]	▶ <i>Joango balitz eta ikusiko balu, erosiko luke.</i>
	[-burutua]		▶ <i>Erotzen balitz eta min hartzen balu, negar egingo luke / negar egin lezake.</i>	
	[-perifrastikoa]	[-aspektua]		▶ <i>Mintza beledu eta aitor baleze, harri zintezka.</i>
			▶ <i>Hemen balego eta hori baleki, esango luke / erran lezake</i>	
[+orainaldia]	[+perifrastikoa]	[+aspektua]	[+burutua]	▶ <i>Etorri bada eta zerbaiz ekarri badu, zuri plazaz egiteko izan da.</i>
		[-aspektua]	[-burutua; -gerokoa]	▶ <i>Erotzen bada eta min hartzen badu, negar egiten du.</i>
				Ez da gehiago erabiltzen.
	[-perifrastikoa]	[-aspektua]		▶ <i>Handik badator eta zerbaiz badakar, pozik egongo zara.</i>
[+iraganaldia]	[+perifrastikoa]	[+aspektua]	[+burutua]	▶ <i>Aberastu bazen eta etxea erosi bazuen, bere merezimendua izan zuen.</i>
		[-aspektua]	[-burutua; -gerokoa]	▶ <i>Elotzen bazen eta zerbaiz ekartzen bazuen, denak pozten ziren.</i>
				Ez da gehiago erabiltzen.
	[-perifrastikoa]	[-aspektua]		▶ <i>Haserre bazebilen eta zerbaiz bazioen, lagunak isiltzen ziren</i>

2. DENBORAZKO PERPAUSAK

2.0. SARRERA

2.0.1. Denborazko perpausen funtzioa

Multzo zabal eta askotarikoa osatzen dute euskararen denborazko perpausak. Gertakari bi, esaldi nagusian adierazten dena eta mendekoan aipalzen dena, denbora-erlazio jakin batean ipinlzea dute denek ere helburu. Bata bestearekin lotzea, alegia, denboraren ikuspegitik. Erlazio hori mota askotakoa izan daiteke, ordea, ondoko adibide hauetan ageri den moduan:

- (1) a. *Txirrinak jo zuenean iratzarri nintzen.*
- b. *Hizkotan hasi deneko igarri diote zer nahi zuen.*
- c. *Iten baino lehen, leiho guztiak itxi zituen.*
- d. *Lan guztiak egin eta gero, paseatzera iten ziren.*
- e. *Eguna argitu duenetik ari da lanean.*
- f. *Iluntzen duen arte arituko da lanean.*
- g. *Sukarra izan duen bitartean, ohean egon da.*

Perpaus horiek erakusten duten moduan, aditz nagusiak esaten duena *noiz* izan den adieraz dezakete denborazko perpausak, mendekoaren eta nagusiaren artean nolabaiteko aldiberekotasuna dagoela seinelatuz (1a-b). Zerbait beste zerbait baino *lehenago* edo *geroago* gertatu dela ere esan dezakete, aurrekotasuna (1c) edo ondokotasuna (1d) adieraziz. Iraupena ere adieraz dezakete, denbora-tartearen aurreko nahiz ondoko mugak seinelatuz, hau da, perpaus nagusiak dioena *noizdanik* den (1e) edota *noiz arte* izango den (1f) esanaz; eta iraupenaren tartea bera ere adieraz dezakete, perpaus nagusiak dioenak beste zerbait *den bitartean* irauten duela aditzera emanaz (1g), etab.

Erreferentzia hori mota batekoa edo bestekoa izan, argi da adberbialak direla goiko adibideetako perpausak. Izan ere, adberbioek edo postposizio sintagmek perpaus bakunean bete ohi duten leku bera betetzen dute haiek perpaus konposatuaren barnean:

- (2) a. Atzo joan ginen zinemara.
Adb.
b. Arratsaldian joan ginen zinemara.
PS
c. Lana amaitu genuenean joan ginen zinemara.
Denborazko perpausa.

Horrelakoak dira denborazko perpaus mota gehienak: esaldi nagusiko aditz sintagmaren barnean kokatzen dira, aditzaren osagarri adberbial gisa. Goiko adibideetakoak ez ezik, horrelakoa da *NOIZ* galdetzailearekin eginiko beste hau ere:

- (3) Ezen *noiz-ere* janen baituzue ogi haur, eta kopa haur edanen, jaunaren herioa denunziaturen duzue (J. Leizarraga. *Testamentu berria*. 305).

Den-denak ez dira horrelakoak, ordea. Bastelako egitura dute, esata baterako, ondoko bi hauek:

- (4) a. Behin [...] etxerat buruz hari zen, *noiz-eta-ere* denbora gaitz ikharagarri batek hartu baitzuen (B. Joannateguy, *Sainduen Bizitza*, 66).
b. Bidea trebeskatzera zoan, *noiz-eta ere* gainerat ethorri baitzaio Brunet hendaianaren oloa (Herria 1958-1-16, 2).

Erraz ikus daitekeen moduan, besteetan ez bezalako norabidea du hauetan denboraren erreferentziak. Mendekotik nagusira joan beharrean, alderantziz gertatzen da: esaldi nagusiak ematen du erreferentzia, eta hark adierazitako denboran gauzatzen da mendekoak adierazten duena. Eta mendekotasun-mota bera ere desberdina da. Izan ere, adibide hauetan mendeko perpausa ez da predikatu nagusiaren osagarri -ez du, alegia, esaten '*noiz* hari zen etxerat buruz' edo '*noiz* zoan bidea trebeskatzera'; horrelakoetan, esaldi nagusi osoaren osagarri da mendeko perpausa. Segida ematen dio hari, nolabait esan, haren aldiberean gauzatzen den gertakari bat ondotik erantsiz (ikus 2.4).

2.0.2. Denborazko perpausen forma. Menderatzaileak

a. Mendeko beste zenbait perpaus bezala, denborazko perpaus hauetako asko ere adizki jokatuarekin bazala jokatu gabearekin ere egin daitezke. Eta esankideak dira, gainera, zenbaitetan, guztiz ez bada bai neurri handi batean behintzat: *sartzen denean* bezala, *sartzean* ere esan daiteke; *sartu zanetik* ez ezik, baita *sartuz gero* ere; *sartu zen arte* bezala, *sartu arte*, etab. Liburuki honetan, ordea, gorago esan dugun bezala, adizki jokatu duten perpausak baizik ez ditugu aztertuko, jokatu gabeen gorabeherak eta baitzuen eta besteen artean dauden aldeak kontuak hurrengo liburukirako (*EGLU VI*irako) utzita.

Eta adizki jokatu dutenei erreparatuta, berehala ohartuko gara denborazko perpaus hauek gehienak -eN menderagailuaren gainean eraikiak direla. Denbora ere adieraz dezaketen -eLA / -eLARIK perpausak dira salbuespen bakarretakoak. *NOIZ ETA* aurrekariarekin osatzen diren perpausok, berriz, *BAIT-* menderagailua hartzen dute -cN baino maizago.

-eN da, bada, esan bezala, denborazko perpaus gehienek menderagailu nagusia. Menderagailu horrek egiten ditu perpausok mendeko. Horri, ordea, denbora/erreferentzia adierazten duen beste morfemaren bat eranstean zaio ondotik, menderatzaile konplexuak sortuz:

. Batzuek postposizio bat hartzen dute *-eN* menderagailuaren ondotik: *-eNEAN*, *-eNETIK*, *-eNEKO*.

. Beste batzuk forma adverbial bat erantsiz eralzen dira: *-eN ARTE*, *-eN BITARTEAN*, *-eN ORDUKO...* Kasuren batean edo bestean biak metatzen dira, postposizioa eta forma adverbiala: *-eNAZ GEROZ*. *Ber* enklitikoarekin eralzen den *-eN BER* formak ere denbora-esanahia izan dezake zenbaitetan.

. Konparaziozko maila-hitzez hornituriko adverbioa erantsita ere egin daitezke denborazko perpausak: *-eN BEZAIN LASTER*, *-eN BAINO LEHEN*.

b. Postposizioarekin eraturiko perpausak berez erlatiboak direla esan ohi dute inoiz gramatikariak; izen ardalza isilpean gordea duten erlatiboak direla, alegia. Eta, egiturari begiratuta, argi da horrela ere azter daitezkeela aipatu perpausak. *Ikusi duenean*, esate baterako, *ikusi duen X-n* dela pentsa daiteke, *ikusi duen (aldi / ordu / garai...)an* perpausen parekoa, izen ardatza isilpean utzita sortua. Era berean, *ikusi duaneko*, *ikusi duenetik* eta horrelakoak *ikusi duen (ordu / une...)ko*, *ikusi duen (ordu / une...)tik* eta gisa horretako erlatiboen parekoak direla esan daiteke. Edota, isilpean izen jakinik ez badago, erlatibo generiko deitu ditugun perpausen motakoak direla (ikus *EGLU V*, 208).

Esan behar da, ordea, zein ere den perpaus hauen sorbidea eta forma, dauden-daudenean eta 'isildutako' izen zehatz baten bila ibili gabe ere, berez eta bere horretan denbora-balioa duten formak bilakatu direla horiek guztiak (ikus *EGLU V*, 211). Erabiliaren erabiliaz, denborazko perpausak eralzen dituzten menderatzaile gisa gramatikalizatu diren formak direla, alegia, *-eNEAN*, *-eNETIK*, *-eNEKO* eta horrelakoak. Eta, hain zuzen, zeregin hori betetzen dute beti, inguruak besterik esaten ez badu behinlata.

Testuinguruak eraman gaitzake bestelako irakurketa bat egitera, noski. Horrela gertatzen da isildutako izena berreskurarazten digun aurrekari zehatza dagoenean:

- (5) a. - Zein aukitan eseriko naiz?
- Nahi duzunean.
b. - Zein ebretatik atera dira?
- Irekia dagoenetik.

Horietan, bistan da, erraz berreskura daitekeen izena dago isilduta eta horrek, gainera, lekuarekin du zerikusia, ez denborarekin. Denbora-konzeptu zehatza ere izan daiteke inguruak adierazten duena:

- (6) - Zein egunetan etorriko naiz kontsultara?
- Ondoan datorkizunean ("Ondoan datorkizun egunean", alegia).

Horietan guztietan erlatiboa indarrean dago, nolabait esan, eta izen zehatz bat dago isilpean utzia. Baina, esan bezala, horrelako erreferentzia zehatzik ez dagoenean, besterik gabe denbora-nozio generiko bat adierazten duten menderatzaileak dira *-eNEAN* eta gainerakoak *-ez*, *dute*, *alegia*, 'minutu', 'ordu', 'egun', 'aste' edo horrelako kontzeptu zehatz bat aditzera ematen—. Hori

dela eta, (6)koa ez bezala, denborazko perpausizat daukagu (7)ko perpausa, non *-eNEAN* menderatzaileak *noiz* generikoari erantzuten dion:

- (7) - Noiz joango naiz?
- Ondoan datorkizunean joan zaitezke.

Gauza bertsua esan daiteke forma adverbial batekin eratutako formei dagokienez ere: *-eN ARTEAN*, *-eN BITARTEAN*, *-eN ORDUKO* eta horrelakoetan, erlatiboa dagoela pentsa daiteke, *arte*, *bitarte* eta *ordu* direlarik, hurrenez hurren, erlatiboaren izen ardatza.

Egia da, bai, horrela azter daitezkeela forma horiek. Esan beharra dago, ordea, kasu honetan ere, erabilerak eraman dituela forma jakin batzuk denborazko menderatzaile gisa finkatuak eta gramatikalizatuak izatera. Demagun ondoko etsenplua:

- (8) Hizketan hasi den orduko igarri diote zer nahi zuen.

Adiberekotasun estuaren nozioa adierazten du hor *-eN ORDUKO* menderatzaileak, erabidea eman dion *ordu* izenaren esanahi zehatza alde bat ulzia duena. Forma finko bilakatua da, denbora-nozio orokorra adierazten duena. Ikus, hori ongi ulertzeko, aurreko (8) eta ondoko (9) perpausen arteko aldea:

- (9) Jaialdia hasteko ezarria genuen ordua iragana da aspaldi.

(8) adibideko *orduko* hitzak ez du bere horretan gorde 'ordu' izenaren esanahi zehatza. Horren parean ez da, alegia, *hizketan hasi zen oreneko* esaten; (9) etsenpluan, aldiz, *ordu* hori benetan 'ordu' edo 'oren' da.

Ezugarri horiek nolabaiteko argia ematen diguten arren, ordea, aitortu behar da ez dela beti erraza izaten forma gramatikalizatuak zein diren erabakitzen. Gorago aipatu ditugun *-eN ARTEAN*, *-eN BITARTEAN* eta *-eN ORDUKO*, esate baterako, halakotzat dauzkagu, horietan ageri diren postposizioen finkotasunegatik, batetik, eta denbora-nozio orokor bat aditzera ematen dutelako, bestetik. Eta *-eN BAKOITZEAN*, adibidez? Hori ere denborazko perpausen menderatzaileetat har daiteke, beharbada, balio generikoa duenean behintzat, hau da, isilpean izen jakin eta zehatzik ez dagoenean, hau da, azpian 'ordu bakoitzean', 'egun bakoitzean' edo 'urte bakoitzean' bezalakoren bat gorderik ez denean.

Zailago da, ordea, horien artean *-en orduan*, *-en garaian* edo are *-en egunean*, *-en urtean* eta horrelakoak sartzea, erlatiboaren izaera eta izenaren esanahia bera indarrean antzematen baitira oraindik ere horrelakoetan. Denborazko esanahia dute, noski, erlatiboaren izen ardatzak esanahi hori baitu, baina ez dira denbora-nozio generiko bat adierazten duen forma finko bilakatu.

Ikusten denez, eskala batean koka daitezke forma hauek guztiak: eskalaren buru batean *-eNEAN* bezalako forma gramatikalizatuak ditugu, denborazko menderakuntza gauzatzen dutenak berez *-izan* ere, bestela ulertzeko, berariaz eman behar du hori aditzera inguruak--; beste aldeko buruan ohiko erlatibeak ditugu, *-en urtean* bezalakoak, alegia, izen ardatza denbora adierazten duena izan arren, menderatzaile gisa gramatikalizatu ez direnak; eta tartean *-eN*

BAKOITZEAN, *-eN GUZTIETAN* eta horrelakoak ditugu, batera zein bestera sailka daitezkeenak.

c. Horren antzeko zerbait esan daiteke *-eN BEZAIN LASTER* eta *-eN BAINO LEHEN* formei dagokienez ere. Ez dago zalantzarik konparaziozkoak direla horrelakoak egiturari dagokionez. Zer da, ordea, horietan konparatzen dena? *Ohean sartu zen bezain laster lo geratu zen* diogunean, esate baterako, ez gara konparazioak egiten ari. Gertaera biren aldiberekotasuna da hor adierazten duguna, hots, denborazko erreferentzia bat.

Hona zer genioen *BEZAIN LASTER* formari buruz, konparazio perpausak aztertu genituenean: <<Adibide hauetan guztietan, azken batean, denborazko perpaus txertatuak ditugu. Konparatibo itxuran emanak dira, baina egiazki gauza gutxi konparatzen da hemen.>> (EGLU V, 325). Eta hona *BAINO LEHEN* formari buruz esaten genuena: <<Nolanahi ere, *baino lehen(ago)* formako esapide hauek NOIZ galderari erantzuten diotenez, gramatiketan denborazkoen artean kokatu ohi dituzte. Baina, nolabait, konparatiboak ere badira.>> (EGLU V, 400).

Iritziak iritzi, badirudi esan daitekeela *-eN BEZAIN LASTER* eta *-eN BAINO LEHEN* bezalako formak egituraz konparatiboak diren arren, denbora-nozio jakin bat adierazten duten menderatzaileak direla. Aldiberekotasun estua adierazten du, hain zuzen, lehenak, eta aurrekotasuna, berriz, bigarrenak.

2.0.3. Denborazko perpausen barneko ordena

Denborazko perpausen osagaien ordenari dagokionez, badirudi erlatibo generikoei buruz esandakoak hemen ere balio duela (ikus EGLU V, 209). Menderatzailea daraman adizkiak mendeko perpausaren azkenean kokatzeko joera erakusten badu ere, ez da debeku perpausaren osagai bat edo beste haren eskuinean agertzea. Ohikoenak *hura kalean ikusi zutenean, etxera iritsi zireneko* eta gisa horretakoak diren arren, hots, menderatzailea perpausaren hondarrean dutenak, ez dira falta bestelako lekukotasunak:

- (10) a. Nahasi denean *barnea*, ez da deus kanpoko aire handia bezalakorik, pirkolitzeko (J. Etchepere, *Berbitzez*, 98).
- b. Ez da bizibide onik ez denean *zuhurtziarik* (J. Hiriart-Urruty, *Zezanak Errepublikan*, 69).
- c. Haurra lotu deneko *amaren bularretan*, herioak hartu du bere atzaparretan (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 183).
- d. Gizonak, duenetik *bere emaztea*, utziko du guraso anai ta aidea (A. Iturriaga, *Fábulas*, 217).

Denborazko perpausak bere mendean beste perpaus bat izateak erraztu egiten du eskuinalze hori. Mendeko perpaus hori osagarria izaten da askotan:

- (11) a. Galdegiten deratzutenean, *zenbat urthe dituzun*, eta ihardesten duzunean, *hogoí edo hogoi eta hamar dituzula*, zeren zeure kontuan hala baitituzu, badirudi eztuzula ongi ihardesten (P. Axular, *Guero*, 41).
- b. [...] jakin zuanetik *Ugolino Kardinal bere Ordenaren anparatzaile gizon prestuak igo bihar zuala San Pedrorra jargoira* (C. Beovide, *Asis-co Loria*, 179).

- c. Entzun dutenean bezain laster aita handia ethorri dela, ospitaleret jaustia dela, jendez bethelzen da ospitaleko plaza (F. Laphitz, *Bi saildu hescualdunen bizia*, 211).

2.0.4. Denborazko perpausen sailkapena

Gorago esan dugun moduan, denborazko perpausok erreferentzia bat baino gehiago eman dezakete aditzera. Hiru nozio nagusiren inguruan gauzatzen dira erreferentzia horiek: a) aldiberekotasuna; b) aldi desberdintasuna; c) iraupena. Horietatik dira nozio nagusiak. Horietako bakoitzaren barnean, berriz, ñabardura eta azpisail batzuk bereizten dira, kapitulu honen hiru atal nagusietan ikusiko dugun moduan.

Ondoko bi ataletan, berriz, bi perpaus mota berezi aztertuko ditugu: a) denboraren erreferentzia esaldi nagusian duten perpausak; b) gertakariak 'kronologian' kokatzen dituzten perpausak.

2.1. Aldiberekotasuna adierazten duten perpausak

2.1.1. Aldiberekotasunaren adierazpen orokorrak:

. -eNEAN, -eLA eta -eLARIK, NOIZ ETA ... BAIT-

2.1.2. Aldiberekotasun errepikatua:

. -eNETAN, -eN BAKOITZEAN, -eN GUZTIETAN, -eN ALDIKAL,
ZENBAT aldiz -eN ... HAINBAT aldiz

2.1.3. Aldiberekotasun estua:

. -eNEKO, -eN ORDUKO, -eN BER, -eNAZ BATERA, -eN BEZAIN
LASTER

2.2. Aldi desberdintasuna adierazten duten perpausak

2.2.1. Aurrekotasuna:

. -eN BAINO LEHEN, -eN AURREAN, -eN AITZINEAN

2.2.2. Ondokotasuna:

. -eN ONDOAN, -eN OSTEAN

2.3. Iraupena adierazten duten perpausak

2.3.1. Iraupenaren aurreko muga:

. -eNETIK, -eNEZ GERO, -eNIK... -eRA

2.3.2. Iraupenaren azken muga:

. -eN ARTE

2.3.3. Iraupenaren tarte osoa:

. -eNO, -eN BITARTEAN, -eN ARTEAN, -eN ARTEKO

2.4. Denboraren erreferentzia esaldi nagusian duten perpausak

2.5. Gertakariak kronologian kokatzen dituzten perpausak

2.5.1. DUELA / ORAIN DELA + [zenbatzailea - denbora izena]

2.5.2. -eNETIK + [zenbatzailea - denbora izena]POSTPOSIZIOA

2.1. ALDIBEREKOTASUNA ADIERAZTEN DUTEN PERPAUSAK

Aditz nagusian aipatzen den gertakariari denbora-erreferentzia emateko modu asko daude, gorago esan dugun bezala. Haietako bat, gertakari hura eta mendeko perpausuan aipatzen dana aldi berean gertatzen direla adieraztea da. Hau *noiz*, hura ere *orduan*, alegia. Biak aldi edo une berean.

Aldiberekotasunaren nozio hau modu zabalean hartu behar da, ordea, ez nozio uniboko eta zehatz gisa, *aldien* parekotasuna modu diferentetan adierazia izan baitaiteke. Zenbaitetan modu aski orokorrean egiten da, aipatzen diren gertakari bien arteko lotura orokorki adieraziz, lotura horren barruan *ñabardura* diferenteak ere izan daitezkeen arren. Hori da, esate baterako, *-eNEAN* denborazko perpausuan menderatzaile nagusiak sarritan egiten duena *-eta* baita *-eLA*, *-eLARIK* menderatzaileek, eta buruan *NOIZ ETA* daramaten perpausuek ere. Modu zehatzagoan ere adieraz daiteke, ordea, aldi bien parekotasuna. Horrela, aldiberekotasun errepikatua izan daiteke berariaz aditzera ematen dena, zerbait gertatzen den guztietan beste zerbait ere gertatzen dela esanaz, *-eN BAKOITZEAN* menderatzaileak egiten duen moduan. Eta aldiberekotasun estua ere eman daiteke berariaz aditzera, zerbait gertatu den unerako beste zerbait jadanik gertatu dela edota guztiz berehala gertatu dela esanaz. Hori adierazten dute *-eNEKO* eta *-eN ORDUKO* menderatzaileek.

Banan-banan aztertuko ditugu menderatzaile horiek guztiak kapitulu honetan, bakoitzaren *ñabardura* nagusiak azalduz.

Kontuan izan behar da, bestalde, perpaus adberbialetan maiz gertatzen den bezala, menderatzaile hauek ere bere denborazko esanahi nagusiaz gain bestelako esanahi batzuk ere izaten dituztela zenbaitetan. Kausa adierazten dute inoiz, edo modua, edo baldintza... Batzuetan, gainera, adiera adberbial ambiguo eta zabala izan ohi dute, erabat zehazten zaila dena. Hori gertatzen da, esate baterako, *-eLA* eta *-eLARIK* menderatzaile zirkunstantzial orokor eta zabalekin. Horrelakoen berri ere emango dugu.

2.1.1. Aldiberekotasunaren adierazpen orokorrak

2.1.1.1. *-eNEAN*

a. Menderatzaile hau da aldiberekotasuna adierazteko maizenik erabiltzen dena. Hona adibide batzuk:

- (12) a. *Lanean ari naizenean*, piztua edukitzen dut irratia.
 b. *Kartzelan zegoenean* egin zioten Koldori lehen ebakuntza.
 c. *Sua sortu denean*, korrika atera dira denak.

Adibide horiek aztertzen baditugu, berehala oharitzen gara ez dutela denek *aldien* parekotasuna modu berean adierazten.

Hasteko, (12a) adibideko kasua aipatu behar dugu: horretan, perpaus bien aldiak guztiz parekoak dira, mendakoaren denbora osoa besarkatzen baitu esaldi nagusiko gertakariak *-lanean aritzeak* eta *'irratia piztua edukitzeak'*

denbora-larke berbera, hasi eta buka, betetzen dute—. Aldiberekotasun zehatza da hori, eta, ikusten denez, 'totala'.

Ez da guztiz berdina (12b)ren kasua: horretan, esaldi nagusiko gertakariak –'Koldori lehen ebakuntza egitea'– mendekoak adierazten duen denbora berean du leku, baina ez hark adierazten duen denbora osoan –kartzelako egonaldia osoan–, haren barruko une batean baizik. Aldiberekotasun zehatza dugu hor ere, baina 'parziala'.

Beste zenbaitetan, berriz, 'sekuentzia' baten moduan ulertzen da perpausak adierazten duten denbora-lotura. Hori da, esate baterako, (12c)ren kasua: gertakari biak –'sua sortzea' eta 'korrika ateralzea'– lotuak daude, bai, baina bata bestearen segidan datozelarik. 'Sekuentzia' dago hor, esan bezala, aldiberekotasun zehatza baino areago. Dena dela, –eNEAN forma aukeratuta, aldien parekotasuna da hiztunak azpimarratzen duena, ez ondokotasuna: gertakari bat gauzatu ahal, bestea ere haren segidan, hau da, 'orduanxe berean' gauzatu dela esan nahi du, gisa horretan ulertutako 'aldiberekotasunari' indarra emanaz. Ondokotasuna berariaz adierazi nahi denean, *Ondoren*, *gero* edo horrelakoak erabiltzen dira.⁴

Denboren parekotasuna adierazteko eta ulertzeko modu desberdinak dira horiek, aise ikus daitekeen bezala. Predikatuen izaerak eta aspektuak agintzen dute horretan: nolakoak diren hauek, halakoa izango da perpauson irakurketa.

Horrela, mendeko predikatuak zerbaiten irispina edo lorpena adierazten duenean, irakurketa sekuentziala izaten da nagusitzen dena, forma burutueta bezala (13a), baita ohikotasuna (13b) eta geroaldia (13c) adierazten dutenetan ere:

- (13) a. *Gelditu denean* ireki dira treneko ateak.
b. *Gelditzen denean* irekitzen dira treneko ateak.
c. *Gelditzen denean* irekiko dira treneko ateak.

Aditzaren forma gorabehera, gertakari nagusiaren aurrean gauzatzat ematen da hiru adibide horietan mendeko perpausak adierazten duena. Horregatik, aspektu hori berariaz markatu nahi denean, forma burutua erabil daiteke azken bietan ere:

- b'. *Gelditu denean* irekitzen dira treneko ateak.
c'. *Gelditu denean* irekiko dira treneko ateak.

Hori bai, horrelako predikatuak 'iriste' edo 'lortze' moldean aurkeztu beharrean, 'aritze' moduan aurkezten badira, orduan aldiberekotasun zehatzaren nozioa –sekuentziala ez dena, alegia– nagusitzen da, beherago ikusiko dugun bezala:

- (14) *Trena gelditzen ari denean*, itxila egoten dira departamentuelako ateak.

Iraupena duen gertaera, bilakaera edo ekinlzaren bat adierazten duten predikatuak, berriz, bietara erabil daitezke, hau da, sekuentzia gisa –haiek bururatu-eta beste zerbait gertatu dela adieraziz– (15a), edo aldibereko zehatz gisa (15b):

⁴ Irakurketa 'sekuentzialaz' eta aldiberekotasun 'totala' eta 'parziala' kontzeptuez, ikus *GDLE*, 3-180 or.

- (15) a. *Etxeko lanak egin dituenen*, paseatzera irten da Koro.
b. *Etxeko lanak egiten dituenen*, piztuta edukitzen du irratia.

Predikatuak egoera edo aritze-prozesu bat adierazten duenean, ordea, nekezagoa da sekuentzia gisa ulertzea:

- (16) a. *Etxean bakarik nagoenean*, irratia piztuta edukitzen dut beti.
b. *Lanean ari direnean*, buru-babesa jarria izaten dute hemengo langileek.
c. *Parisen izan nintzenean*, Louvre museoa bisilatua nuen.

Aldien parekotasuna adierazten dute horrelakoek, gorago esan dugun moduan: edo parekotasun totala, aldi biek elkar besarkatzen dutelarik (16a-b), edo partziala, baten aldia bestearenaren barruan kokatua delarik (16c). Horrelakoetan 'iraupena' adierazten du mendeko perpausak, eta, hori dela-eta, *-eN BITARTEAN* menderatzailea ere erabil daiteke *-eNEAN* soilaren lekuan:

- (17) a. *Trena gelditzen ari den bitartean*, ibila egoten dira departamentuetako ateak.
b. *Etxeko lanak egiten dituen bitartean*, piztuta edukitzen du irratia.
c. *Etxean bakarik nagoen bitartean*, irratia piztuta edukitzen dut beti.
d. *Lanean ari diren bitartean*, buru-babesa jarria izaten dute hemengo langileek.

Hori ez da posible, ordea, bistan da, sekuentzia gisa ulertzen diren perpausetan:

- (18) a. **Gelditu den bitartean* ireki dira treneko ateak.
b. **Etxeko lanak egin dituen bitartean*, paseatzera irten da Koro.

Bestelako fiabardura balzuek ere izan ditzake *-eNEAN* menderatzailearen bitartez adierazitako 'aldiberekotasunak'. Puntuala, esate baterako, hau da, perpaus nagusiak dioena mendekoak adierazitako unean edo puntuan berean gertatzen dela adierazten duena:

- (19) *Sua sortu zenean*, ohean ginen gu.

Edo aldiberekotasun errepikatua, zerbait gertatzen den guztietan beste zerbait ere gertatzen dela adierazten duena, alegia:

- (20) *Parisera joaten naizenean*, hotel berean hartzen dut beti ostatu.

Hori bai, predikatu horiek guztiak denbora-tartea muga jakinen artean kokaturik adierazten dutenak izaten dira. Horregatik, subjektuaren berezko ezaugarria aurkezten duten predikatuak ez dute balio honelako denborazko perpausak eralzeko, 'berezkoa' izanik mugarik gabe aurkezten baita ezaugarri hori. Europan jaioa denak eta bere denbora guztian europar izan denak ez du esango 'ni europar nintzenean'; ez eta beti ile-gorria izan denak 'ile-gorria naizenean' ere. 'Gazte nintzenean' esan dezake adineko gizon batek, bistan da, edo 'ikasle nintzenean', edo 'soldadu nintzenean', etab., baina nekez esango du 'gizon nintzenean', 'gizon' izena ohiko esanahiaz erabiltzen badu behintzat.

Laburbilduz, esan daiteke, bada, *-eNEAN* dela aldiberekotasuna eta honen inguruko balio desberdinak aditzara ematen dituen menderatzaile orokorra. Badira, jakina, horiatako balio batzuk modu markatuagoan adierazten dituzten berariazko formak, ondoko ataletan ikusiko ditugunak. Horrela, *-eN*

BAKOITZEAN-eta, aldibereketasun errepikatua adierazten dutenak –ikus 2.1.2–; –**eN BITARTEAN**-eta, iraupenaren pareketasuna adierazten dutenak –ikus 2.3.3–, etab. Baina –**eNEAN** da, esan bezala, ñabardura horietarako guztietarako modu orokorrean balio duen menderatzailea.

b. Perpausen arteko denbora-korrelazioari dagokionez, aipamena merezi du aditz nagusia geroari dagokionean gertatzen denak. Mendeko perpausa forma ez-burutuan joan ohi da normalean (ikus *EGLU II*, 418 eta 420):

- (21) a. *Patxi iristen denean* hasiko gara bazkaltzen.
b. *Filma amaitzen denean*, joan zaitez ohera.

Esaldi nagusiak ematen die geroko balioa horrelako perpausei.

Euskalki batzuetan, berriz, Iparraldekoetan batik bat, geroaldia ere erabili ohi da mendeko perpaus hauetan (*etorriko denean*, *egingo duenean*, etab., alegia):

- (22) a. Othoizterik *eginen duzuenean*, albeitzinarrete hunela: (...) (J. Leizarraga, *Othoizta Ecclesiasticoen forma*, 71).
b. [...] ene ganat *ethomko zarenean*, ene bame guziak bozkartoz gaindi eguifien du (D' Arambillaga, *Jesu Christoren imitacionea*, 12).
c. Zer muturra egingo du ene ametsa *jalgiko diodanean*? (J. Mirande, *Miranderen idazlan hautatuak*, 152).

Eta, bestalde, subjuntiboko forma ere erabili izan da honelako perpausetan (ikus *EGLU II*, 423):

- (23) [...] *konsidera dezazunean* zein pagamendu handia emanen zailzun hemengo irabailu aphurrakgatik, erranen duzu, ez tuzula, hain deus gutigatik, hanbat merezi (P. Axular, *Guero*, 319).

Adibide berriagoak ere aurki daitezke:

- (24) a. [...] *if dadinean*, lurreko arrak ez edo diote soinekorik ere zulatuko (R. M. Azkue, *Ardi Galdua*, 135).
b. Nori ez zoliago taupadaka asi biotza, aspaldi ez-eta, norbere jaioterria barrero *ikus dagienean*? (E. Erkiaga, *Amanegi*, 9).
c. Udazkenean, Piarres bera *jatxi dadinean*, joango naiz (Y. Etxaide, *Joanak-joan*, 117).

Subjuntiboztat har daitezke, beharbada, horrelako perpausetan ageri diren aditz trinkoak ere, formari dagokionez indikatiboarekin bat datozen arren [*datorenean* = *etor dadinean*]:

- d. *Pabi datorenean* hasiko gara bazkaltzen.

Euskara landuan, berriz, –**KE**– morfema daramaten eta *geroaldi arkaiko* deitu ditugun adizkiak erabil daitezke honelako perpausetan (ikus *EGLU II*, 137). Maiztasun handiko formak ez diren arren, ez dira falta tradizioan horrelako lekukotasunak:

- (25) Baina *jaunagana konberfitu datekenean* kenduren da estaikia (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, 318).

Badago, azkenik, beste egitura bat, gorago aipatu duguna –ikus (13c')–, mendekoaren bururatzea berariaz markatu nahi denean erabiltzen dena. Halakoetan forma burutuan ematen da mendeko adilza:

- (26) a. Eta ni *xahartu naizenean*, zer geldituko zait? (F. Laphitz, *Bi saildu hescualdunen bizia*, 20).

c. Orain arte eman ditugun adibide guztietan denbora-balioa zuen *-eNEAN* perpausak. Esaldi adberbialetan maiz gertalzen den bezala, ordea, honek ere izan ditzake oinarritzko denbora-esanahiari erantsitako edo hartatik erakarritako beste balio batzuk.

Inplikazioa adierazten duena, esate baterako, gertakari bi lotu baino gehiago gertakari batek duen esanahia agerian ipiniz:

- (27) *Hori egin zenuenean*, gauza ona egin zenuen.

Edo baldintza modukoa:

- (28) *Zuk horrela diozunean*, horrela izango da.

Edo kausa adierazten duena:

- (29) Pozik egon daitezke suak *dena kiskali ez duenean*.

Edo bietarik zerbañ duena:

- (30) *Honaino iritsi zarenean*, aurrera segitzeko gauza izango zara.

Ez da gauza erraza, noski, horrelako fiabarduren berri zehatza ematea, baina azken perpausako *iritsi zarenean* horrek *iritsi bazara* eta *iritsi zarenez gero* esaldien esanahia bilzen duela esan daiteke.

Osagarri gisa ere erabiltzen da inoiz, *BAIT-* perpausak bezala, esapide moduko hauean:

- (31) a. Gutxi egin zuen *utsaren haunditasunean amildu ez nitzenean* (J. A. Irigaray, *Gauerdiko ele gaikak*, 79).
b. Gaitz erdi ezer *tarrisgorik gertatu ez zitzaienean*.
c. Ez da gutxi *bizirik atera denean*.

Azken hau bakarrik ere erabil daiteke, harridura moduan:

- (32) a. *Bizirik atera denean!*

d. Badira, azkenik, formalki itxura berekoak diren arren bestelako sorbidea duten perpausak, moduarekin-edo zerikusia dutenak. Isilpean *modu*, *egoera* edo horren antzeko izenen bat duten *dagoen-dagoenean*, *gauden-gaudenaan*, eta horien antzeko esapideez ari gara:

- (33) *Gauden gaudenean*, ordea, maiz nabaritzen dugu premia (K. Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 110).

Horrelakoak, bistan da, ez dira denborazkoak, ez baitute berez denboraren erreferentziarik ematen.

Agidenean esapidea ere horietakoa da. Ez da ohikoa, hala ere, modu horretako erlazioa bideratzeko inesiboko postposizioa erabilzea, normalean *-eZ* erabiltzen baita, *agidenez* esapidean gertatzen den moduan. *Hori*

dagokionez esan ohi da, esate baterako, eta ez horri dagokionean, orain berriki azken forma hau zabaltzen hasia den arren.⁵

2.1.1.2. -eLA eta -eLARIK

a. Liburuki honen beste kapitulu batean azaltzen dira luze eta zabal -eLA eta -eLARIK menderatzaileen erabilera eta balioak (ikus 6.2). Gainerakoak kapitulu hartarako utziz, denborari dagokion erabilera aztertzea mugatuko gara hemen. Izan ere, besteak beste, perpaus nagusiko gertakariari denbora-erreferentzia emateko ere erabiltzen dira inoiz menderatzaile horiek, -eNEAN bezala. Ikus ondoko adibideok:

- (34) a. Halakotz gauza hauk *absent naizela* skribalzen ditut, *present izanen naizenean* seberitatez usat eztezadanzat (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, 330).
b. [...] ala geldirik, ala urhatsean, ala mintzo direlarik, ala daudenean ixil, baitaukale halako bildu bat, zuhau berehala sararazten zituena zeure baithan (J. Etchepare, *Buruchkak*, 24).

Ez da pentsatu behar, hala ere, guztiz pareko direnik -eNEAN eta -eLA edo -eLARIK menderatzaileak. Hura berariaz denbora adierazteko gramatikalizaturik dagoen forma da (ikus 2.1.1.1); -eLA eta -eLARIK, berriz, hainbat zirkunstantzia adieraz ditzaketen forma irekiak dira -testuinguruaren arabera, denbora, modua, azalpena, baldintza eta horrelakoak adierazteko balio dutenak-. Adibide batekin azal daiteke hori: *Gaixo zegoenean* esaldia entzutean, denborarekin lotzen dugu berez, perpaus nagusiaren zain egon gabe -eta horrela ulertuko dugu, honek besterik iradokitzen ez badu-. *Gaixo zegoelarik* esaldia entzunda, berriz, 'zirkunstantzia' bat adierazten duela jabetzen gara, bai, baina ez dakigu zehazki zein zirkunstantzia, hori perpaus nagusia entzun-eta jakingo baitugu: *Gaixo zegoelarik, etxean geratu zen atzo Mikel* entzuten badugu, esate baterako, mendekoak azalpan bat ematen duela ulertzen dugu -*gaixo zegoenez* esaten denean bezala-; *Gaixo zegoelarik, lanera joan zen Mikel egunero bezala* entzunda, berriz, balio kontzesiboa ematen diogu mendekoari, are gehiago *ERE* lokailua eransten badiogu -*gaixo zegoelarik ere* esaten badugu, alegia-; *Gaixo zegoelarik, amak zaintzen zuen Mikel txikitari* perpausuan, ostera, denborazko balioa atzemango dugu, *gaixo zegoenean* entzuten dugunean bezala.

Denborazko balioa dutenean, aldiberekotasuna adierazten dute menderatzaile hauek ere, -eNEAN-ek bezala. Maizenik izaten duten balioa aldiberekotasun zehalzarena da, partziala (35) nahiz totala (36):

- (35) a. Gazte nirtzela sortu zitzaidan mendiko zaletasuna.
b. Soroan ari ginela, lapurrak sartu ziren etxean.
c. Eri nintzelarik, lagunak bisitan etorn zitzaizkidan.
d. Panisen bizi zelarik, behin bakarrik elorri zen sorterrira.
- (36) a. Mutil gazte zela alai bizi zen gurasoen etxean.

⁵Testuinguruak besterik ez dagoenean, denborari egiten dio erreferentzia *dagokionean* formak ere, eta "dagokion denboran" esan nahi du. Besterik da, noski, testuinguruak izen ardatz eskuragarri bat eskaintzen dugunean, orduan ohiko egitura erlatiboa baitugu: "Zein lekutan jarriko zarete, bada? Bakozizak berari dagokionean jarri beharko duzue, noski". Hots, "berari dagokion lekuan".

- b. Haurtzaroko kontuak esaten ari zela, mailkoak zituen aurpegian.
- c. Lo garelarik, ametsetan ari gara beti.
- d. Gerla honetan ikusi dudana ez zait ahaztuko bizi naizelarik.

Balio hau duten perpausen predikatuak denbora-tartea muga jakinen artean kokatua dutenak izaten dira. Horrela, maiz erabiltzen dira bizitzaren garai edo aro zehatz bat adierazteko –'gazte nintzela', 'haur zela', 'ikasle ginela'...-. Aitzitik, subjektuaren berezko ezaugarria aurkezten duten predikatuak, hura denbora-muga jakinetan kokaturikoa ez denez, ez dute balio izaten denborazko perpausak eratzeko. Horregatik, adibide erraz bat ematearren, *haur nintzelarik* esaldiak ez bezala, *gizonezko nintzelarik* esaldiak ez du balio denbora adierazteko. Izan ere, lehenak garai mugatu bat seinalatzen du, baina bigarrenak berez mugarik ez duen ezaugarri bat ematen du adiltzera. Beste balioak izan ditzake honek, baina ez denborarena: *Gizonezko nintzelarik*, *elkarte hartako kide izan nintekeen* perpausa, esate baterako, azalpen gisa ulertzen da –*gizonezko nintzenez*, *alegia*–, eta ez denbora gisa –**gizonezko nintzenean*–, mugatze honek ez bailuke zentzurik. Eta euskaldun batek *euskalduna naizelarik* esaten badu, ez du, bistan da, *euskalduna naizenean* esan nahi.

Horregatik, hain zuzen, berez muga jakinik adierazia ez duten ekinlza-adiltzei *ari izan* eranstean zaie maiz, horrela, 'aritzeak dituen mugen artean' ezarrita, denborazko esaldiak eratu ahal izan ditzaten:

- (37) a. ?Bazkaltzen nuelarik, alkandora zikindu nuen.
- b. Bazkaltzen ari nintzelarik, alkandora zikindu nuen.

Bazkaltzen nuelarik formak aldiberekotasun errepikatua adierazteko balio du, baina ez hainbeste behingo aldiberekotasuna adierazteko. Honetarako, *bazkaltzen ari nintzelarik* moldeko formak hobesten dira, bestelakoak debeku ez diren arren:

- (38) [...] *bizikletan ikasren nuelarik*, badut itzulipurdi ederrik eginik (P. Lafitte, *Murtus eta bertze*, 100).

Denboraren 'parekotasun' hori, ordea, sekuanzia modura ulertzen da beste batzuetan:

- (39) a. Partida amaitu zelarik, ikasleak zutitu eta txaloka hasi ziren.
- b. Gelan sartu delarik, erratza hartu eta zoko guztiak garbitzen hasi da.
- c. Ezkondu zirelarik, etxe berrian jami ziren bizitzen.
- d. Laguna zain zegoela jakin zuelarik, dena ulzi eta harengana joan zen laster batean.

Ikus daitekeenez, irakurketa sekuentziala duten perpaus horietan, zerbaiten irispina edo bururaltzea adierazten du mendako esaldiaren predikatuak: zerbaiten 'amaitzea', nonbait 'sartzea', 'ezkontzea'... Azken adibideak erakusten du hori aski argi: perpaus horretako *jakin* aditzak 'zerbait ikastea' esan nahi du, 'zerbaiten berri izatera iristea', eta, hortaz, perpausak balio sekuentziala izan dezake –*jakin zuenean*, hau da, *jakin-eta*...-. Aditzaren adiera estatiboak ez luke hori utziko:

- e. Laguna zain zegoela bazekielarik, dena ulzi eta harengana joan zen laster batean.

Perpaus hori azalpenezkoa izan daiteke –*bazekienez...–*, baina ezin du denborazko baliorik izan –**bazekienean...–*.

Predikatua irispen gisakoa denean, bada, irakurketa sekuentziala nagusitzen da zein ere den aditzaren forma, burutua (40a), burutugabea (40b), nahiz geroaldia (40c):

- (40) a. *Ongi argitu zuelarik gero*, arbola gainetik jautsi zen gure Ellande, eta maiz aski gibelerat behatzen zuela, haia haia urundu zen (J. Barbier, *Légendes*, 124).
- b. Oraino, adinean harat joanak izana gatik ere, elgarrekin solastatzen ziren, *Donapateuko kausitzen zirelarik* (J. B. Etchepare, *Mendekoste geroziak*, 51).
- c. Izanen da zerbaít gero ere, *sor-hemirat itzuliko nizelarik* (Ibid., 73).

Balio sekuentziala duten perpaus hauetan –*eLARIK* forma erabiltzen da, ekialdeko euskalkietan batez ere; –*eLA* soila, berriz, ez-gramatikala da:

- (41) a. **Partida amaitu zela*, ikasleak zutitu eta txaloka hasi ziren.
- b. **Gelan sartu dela*, erratza hartu eta zoko guztiak garbitzen hasi da.
- c. **Laguna zain zegoela jakin zuela*, dena utzi eta harengana joan zen laster batean.

Errazagoa da –*eLA* soila agertzea, perpausak denboraz gain beste balio balzuk ere badituenean –*baldintza* edo *modua* (42a), *azalpena* (42b)...–

- (42) a. Komunioko Sakramentuaren gañean jakin bear da [...] baraurik, ta bekatu larri, edo mortal gabe allegatu bear degula; eta *onela allegatzen garola* geitutzen digula grazia, ta ematen dituala asko doai (Aguirre Asteasukoa, *Eracuseldiac III*, 589).
- b. *Zeruko tenplotik heldu zireztela*, zertako ez diozule gaineko heñeri galdegiten ez dezaten igor bederen hoinbeste elur (Arradoy, *San Frantses Jatsukoa*, 231).

Bestalde, aldiberekotasun errepikatua ere adieraz dezakete menderatzaile hauek, –*eN BAKOITZEAN* formak bezala:

- (43) a. Parisa joaten delarik, ez da inoiz itzuliko seme-alabei erregaluren bat ekarri gabe.
- b. Nire ondotik zetorren, baina, atzera begiratzen *nuelarik*, gorde egiten zen.

Eta are aldiberekotasun puntuala, aditz nagusiak ere balio puntual hori bera duelarik:

- (44) a. Begitartea sutan zuen salan sartu zelarik (J. Mirande, *Miranderen idazlan hautatuak*, 294).
- b. Lana utzi zuelarik, hirurogei urte besterik ez zuen.
- c. Lapurrak etxean sartu zirelarik, soroen ari ginen gu.

Aditza *sartu* edo *utzi* izanik ere, perpaus horiek ez dute balio sekuentziala –*alegia, sartu-eta, utzi-eta–*, puntuala baizik –*hau da, sartzen ari zen unean, lana uzteko unean–*. Gertakari puntual bat seinalatzen du horietan mendeko perpausak, eta une puntual hari dagokion egoera aditzera ematen nagusiak.

b. Menderatzaile hauekin ere, esaldi nagusia geroari dagokionean, burutugabea izaten da maiz perpaus mendekoaren aditza (45a), baina baita

geroaldikoa (45b) eta are burutua ere, gertakariaren bururatzea berariaz markatuz (45c) (ikus 2.1.1.1.b):

- (45) a. Erran diat traktur bat erosiko dukala *ezkontzen girelarik*, trakturra eta beste tresna frango ere (J. B. Etchepare, *Mendekoste gereziak*, 66).
- b. Zato, Luixa, ez gaituzte hemen ikusi behar, *atzarriko direlarik* (J. Barbier, *Supazter chokoan*, 124).
- c. Izkulu daukat sabela gorputza bezain zimela; *il naizelarik* arrek kabirik ez didate egiñen beela (Orixe, *Euskaldunak*, 371).

c. Gogoan izan behar da, azkenik, gorago esan duguna: anbiguo gertalzen direla maiz –eLA eta –eLARIK menderatzaileak, bere baitan esanahi bat baino gehiago biltzen dutelarik. Hona, goiko (42)ko adibideez gain, beste zenbait adibide, horren erakusgarri:

- (46) a. [...] bainen barrua goibeldua maiz mundu huntako gaitz txarrez, *alai agertzen naizela ere*, bihotza daukat negarrez (Xalbador, *Odalaren mintzoa*, 345).
- b. Elurra goian-beian ari du ordubete ontan eta geok ere lalzak ikusi bearrean gera, *oraindik sasoiakuk gerralank* (Y. Elxaide, *Joanak-joan*, 255).
- c. Bizkaia, Gipuzkoa, orobat Araba, Nafarroakin emen lau anaia gara; *Frantziko irurak ta gu biltzen gerala*, Zazpirok bear degu salbatu Euskara (F. Arrese Beitia, *Ama euskeriaren liburu kantaria*, 413).
- d. *Zu nere fabore zerala, zu nerekin zaitudala*, aien beldur eznaiz (A. Cardaberaz, *Egercicioak III*, 294).
- e. Gertakariak agertu ditut ezin abikiz gorderik, / min hunendako ez bailzen nihun erremedio hobarik; / atsegabea handi bada're, huntaz ez dago dudarik: / jasaten errexagoa dela *partekatua delarik* (Maltin, *Ahal dena*, 55).

Aurreneko bi adibideetan (46a-b), mendeko perpausak denbora adierazteaz gain balio kontzesiboa ere badu, lehenbizikoan ere lokailuak balio hori indartzen duelarik: 'alai agertzen naizenean ere'. Azken hiruretan, berriz, (46c-e), denbora ez ezik, eta are hura baino areago, modua eta baldintza ere adierazten du mendeko perpausak: 'biltzen garenean', 'bilduz', 'biltzen bagara'; 'nire fabore zarenean', 'nire fabore izanik', 'nire fabore bazara'; 'partekatua denean', 'partekatuz', 'partekatua bada'.

Eta, azkenik, inplikazioa adieraz daiteke perpaus hauen bitartez ere:

- (47) a. *Hori esaten duzularik*, egia baino ez duzu esaten.
- b. Adema zenak *lehen ezkontza benedikatu zuelarik* Hazparneko herrian, jaun Gose, eta andere Egarrri zituen elgarretaratu (J. Hiriart-Urruty, *Mintzaira. Aurpegia*, Gizon, 163).
- c. Ziur naiz Jaungoikoak nirelzal egin gizona Xalbat dela, beraz, *orain berarekin alkatzen naizelarik* Aren borondatea bete besterik ez dut egiten (Y. Elxaide, *Joanak-joan*, 141).

2.1.1.3. NOIZ ETA ... BAIT- / –eN korrelaziozko perpausak

a. Hiru perpaus mota dira *noiz* galdere-izenordainarekin eratutako egitura hau dutenak, eta ondo bereizi behar direnak. Hirugarrena da atal honetan aztertuko duguna.

Batetik 'ZEIN-erlatiboa' deitzen duguna dago (ikus EGLU V, 218-240), ondoko adibide hauetan ikus daitekeena:

- (48) a. Etorriko da *eguna*, *noiz eta* emen arkitzen geranok pozezko malakoakin suerte onegatik jainkoari esker milla emango diozkagun (G. Amue, *Santa Genoveva*, 9).
- b. Onak bere azkena noizbait izango du, eta etorriko da *garaia*, *noiz eta* nik esan al izango dizudan: egifia dago guzia (Ibid., 47).

Eguna eta *garaia* dira horietan aurrekariak eta haien postposatua ageri da erlatiboko perpausa. *Noiz* izenordain erlatiboaren ordez *non* edo *zeinetan* ere erabil litezke halakoetan: 'etorriko da *eguna*, *non zeine(t)an*... jainkoari esker milla emango diozkagun'... Denborazko adiera izan arren, esanahi hori baitute bai izenek berek —*eguna*, *garaia*— eta baita izenordainak ere —*noiz*—, honelako perpausak ez ditugu denborazko perpaus adberbialan sailaan sartzen, izenari laguntzen dioten erlatiboak baitira. Goiko perpausak, hain zuzen ere, honako erlatibo arruntan parekoak dira: 'etorriko da... jainkoari milla esker emango diozkagun *eguna*'; 'etorriko da... nik esan al izango dudan *garaia*'.

Bigarren, esaldi nagusian aurrekaririk ez duten perpausak datoz, haren ondoan kokatuak beti eta, hari denbora erreferentzia eman beharrean berek hartatik hartzen dutenak. Ikus, esate baterako, (4a) adibidea, hemen berriro emana:

- (49) Behin [...] etxerat buruz hari zen, *noiz-eta-ere* denbora gaitz ikharagarri batek hartu baitzuen (B. Joannateguy, *Sainduen Bizitza*, 66).

Hauek, bai, denborazko perpaustzat dauzkagu, predikatu nagusiaren osagarri izan beharrean, esaldi nagusi osoarena direnak (ikus 2.4).

Eta hirugarren, esan bezala, atal honetan aztertuko ditugun 'korrelaziozko erlatiboak' ditugu, *orduan* anaforikoa batzuetan agerian, baina gehienetan isildua dutanak (ikus EGLU V, 247-256):

- (50) a. *Noiz eta ere* baitzuen Elizak buruzagi on baten beharrena, *orduan* dio Jinkoak eman, itxura guzian kontra, egundaino izan diren iraunkorrenetarik bat (J. Hiriat-Umuty, *Mintzaira. Aurpegia*, Gizon, 133).
- b. Ordea *noiz eta ere* uste bainuen aitzina neramala neure obra, gogora zitzaian, deus guti balio zuela ene tribailuak, eta zimendugabeko obraren pare izanzen zeta (J. Etcheberri Sarakoa, *Gomendiozko gutuna*, 400).

Gainerako korrelaziozko erlatiboen egitura bera dute hauek ere, baina denborazko perpausak eralzen dituzten forma finko eta gramatikalizatu gisa agertzen direnez, denborazko menderatzaileen sailaan sartzea ere az dirudi lekuz kanpo dagoenik. Denboraren nozioa modu generikoan eskaintzen dute, "*noiz A, (orduan) B*" gisako adierazpena eginez.⁶

Korrelaziozko perpaus hauetako aurrekariak forma desberdinak izan ditzake. *NOIZ ETA* forma euskalki guztietan erabiltzen da, Hegoaldean gaur egun doi-doi agertzen bada ere. Iparraldean, berriz, hura ez ezik *NOIZ ERE* edo *NOIZ ETA ERE* formak ere erabiltzen dira. Adizkiak daraman menderagailua, berriz, *BAIT*— da gehienetan Iparraldean eta —*eN* Hegoaldean:

- (51) a. *Nuiz ere ene emastia beitzen / haur minetara / jun nintzen berala / emaginagana* (Astolasterrek, 31).

⁶ Izen eta guzti eratuak diren *zein ere egunetan*, *zein ere ordutan* eta horrelakoak, berriz, erlatiboen sailaan utziko ditugu, besterik gabe, esanahi jakina eta zehatza baitute perpaus horietan ageri diren izenek: "egun", "ordu"...

- b. *Noiz eta ere fruta egosi beita*, athera zazu eta ulz zazu siropa akhabatzerat (Escualdun cocinera, 50).
- c. Eta, *noizta gutxienean uste duan ilizea*, arkitzen da berala il bear dualako berriarekin (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia III*, 569).

Esan bezala, *orduan* edo dena delako adizlagun anaforikoa isildua gera daiteke, eta hala gertatzen da sarritan. Agerian ere eman daiteke, ordea:

- (52) a. Eta hala, *noiz eta uste baituzu heriotzea zureganik dagoela urrunenik, orduan ohi dago komunzki hurbilenik* (P. Axular, *Guero*, 30).
- b. Sugea bezalatsu akhbatuko direla yudukeria eta framazonkeria, *noiz eta baitute uste izanen direla puxantzenik eta orduan berean* (M. Elissamburu, *Framazonak*, 178).

Mendeko perpausa esaldi nagusiaren aurrean, ondoan nahiz tartean joan daiteke:

- (53) a. *Noiz ere zerbaitz guthiziatzen baita gizona behar ezten legez*, berehala bere baitan asaldalzen da (S. Pouvreau, *Iesusen Imitacionea*, 32).
- b. Hori da ardura borogalzen dugun gaiza bat, *nuiz ere elhesta luzetan lakel beikira* (M. Maister, *Jesu-Kristen imitacionia*, 52).
- c. [...] har egizue, *noiz-ere edanen baituzue*, ene memoriotan (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, 305).

b. Perpausok ematen duten denbora-erreferentzia ere aldiberekotasunarekin zerikusia duena da.

Aldiberekotasun zehatza adierazten duena izan daiteke, esaldi nagusiko gertakaria mendekoak adierazten duen egoera edo tartearen barnean gauzatzen delarik –hau da, ‘noiz eta norbait honetan edo harlan *dagoen* edo *ari den*, orduan gertatzen da zerbait–:

- (54) a. Andik irugarren egunean, *noiz eta zirkunzisiocaren oñazeak surik andienean zeuden*, eta ezertarako ere gauza ezizan, Jakob'en seme Simeon eta Levi beren ezpatakkin Sikem'en sarri, eta gizon guziak, Errege eta bere semeari ere barkatu gabe, *il-zituzten* (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 45).
- b. Baiña *noiz eta baitziren* Othuruntza gozoaren Hoberen-hoberenean; *ikharatzen dire* betan (L. Goyhetche, *Fableac*, 35).
- c. Oi zer bihotz miñ ezut pairalzen, *noiz eta ere othoiztean nagoenean*, eta zeruko gauzetan gogoia dudanean, haragiak milla fantasma, eta illuramendu gogorlatzen baitarozkit (M. de Chourio, *Imitacionea*, 293).

Sekuentzia gisakoa ere izan daiteke, ordea, ondoko adibideak erakusten duen moduan –zauriak *handitu*-eta isuri zuen odola–:

- (55) Iesu-Kristo ene salbatzaillea, eskerrak eta laudorioak errendatzen derauzkiluz zeren zeure odol preziatua isuri baitzenden *noiz-eta soldaduek zure gorputz sakaratua gurutzera iltzetunik ailtxatu baitzuten airean gora, eta haren pisutasunaz handitu eta gaizkoatu baitziren zure eskuetako, eta oiñetako zauriak* (E. Materre, *Doctrina Christiana*, 205).

Puntuala ere izan daiteke mendeko perpausak adierazten duen gertakaria:

- (56) *Noiz ere hunat baitzen jautsi Ama Birjina zerutik*, Harroka, larre eta sasi, Hemen ez zen bertze deusik (Zaldubey, *Obrak*, 292).

Aldiberekotasun errepikatua adierazten du, berriz, ondoko honek:

- (57) *Noiz-eta-ere lurra aphaindua baitzen*, sartzen zen landan bere tresnaren gainean jarririk (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 67).

Esaldi nagusia geroari dagokiena dutenetan –geroaldia, agintea...–, mendekoaren aditza forma ez-burutua (58a), geroaldikoa (58b) edo burutua (58c) izan daiteke, besteetan bezala:

- (58) a. Zeren tristura handia errezibituko dute, *noiz eta* bere lagunak [...] *ikhusten baitituzte* bere begien aitzinean (P. Axular, *Guero*, 377).
b. *Noiz eta ere lakharturen baida*, orduan zohazi haren oinetarat: berak erranen darotzu zer egin beharko duzun (B. Larreguy, *Testament çahar. Berr. historia*, t, 247).
c. *Noiz eta ere frutta egosi beita*, athera zazu eta utz zazu siropa akhabatzerat (*Escualdun cocinera*, 50).

c. Implikazioa adierazten dute, berriz, Leizarragaren testu bi hauek:

- (59) a. *Noiz-ere erraiten baitu gezurra*, bere propietik minzo da: ezen gezurti da eta gezurraren aita (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, 179).
b. Ezen *noiz-ere ianen baituzue ogi haur, eta kopa haur edanen*, launaren herioa denunziaturen duzue (ibid., 21).

2.1.2. Aldiberekotasun errepikatua

Aldiberekotasun nozio zabala modu orokorrean ez ezik, ñabardura jakin eta zehatzen bat berariaz markatuz ere adieraz daiteke. Horien artean, besteak beste, 'aldiberekotasun errepikatua' dei dezakeguna. Gertakari jakin bi aldi guztietan denboran bat datozela edo ez datozela adierazten duen ñabardura da. Mendekoa gertatzen den guztietan nagusiak dioena ere gertatzen dela baieztatzen –edo ukatzen– denean gauzatzen da hori:

- (60) a. Buruko mina dudan aldi oro, aspirina hartzen dut.
b. Buruko mina dudan aldi oro ez dut aspirina hartzen.

Gorago esan dugun bezala, aurreko atalean aztertu ditugun menderatzaileek bere ere adieraz dezakete, bere zabaltasunean, ñabardura hori:

- (61) a. Buruko mina dudanean, aspirina hartzen dut.
b. Buruko mina dudalarik, aspirina hartzen dut.
c. Noiz eta buruko mina baitut, aspirina hartzen dut.

Baina kontua modu zabal eta orokorrean adierazi beharrean berariaz –edo modu enfatikoan– eman nahi denean aditzera, bestelako forma batzuk erabiltzen dira. Hasteko, jakina, ardatzean *aldi*, *egun* edo horrelako izenen bat duten erlatibo arruntak erabil daitezke:

- (62) a. Buruko mina dudan aldi guztietan, aspirina hartzen dut.
b. Lagunetara joaten den egunelan, biziberritula itzultzen da etxera.

Ohiko erlatiboak dira horiek, bistan da. Horiek ez ezik, ordea, –*eNETAN*, –*eN BAKOITZEAN*, –*eN GUZTIETAN* edo –*eN ALDIKAL* bezalako menderatzaileak ere erabil daitezke nozio hau berariaz adierazteko:

- (63) a. *Geixorik egon naizenetan*, etxeakoak izan ditut erizainik onenak.
b. *Buruko mina dudan bakoitzean*, aspirina hartzen dut.
c. *Bisitara etortzen den guztietan*, erregaluren bat ekartzen du.
d. *Lagunetara joaten den aldikal*, biziberriturik itzultzen da etxera.

Zaila da zenbaitelan –gorago esana dugu hori (2.0.2)– forma jakin bat denborazko menderatzaile finko bilakatu denetz erabakitzen. Ardatzean izena eta zenbalzailea daramatzatenak, hots, –*en egun bakoitzean*, –*en aldi guztietan* eta horrelakoak, erlatibo arruntzat ditugu, behin eta berriro azaldu dugun bezala. Ardatzean ageriko izenik ez duten –*eN BAKOITZEAN* eta –*eN GUZTIETAN*, berriz, erlatiboak izan arren, denborazko perpausak eratzen dituzten menderatzaileak direla pentsa daiteke, modu generikoan eta berreskura daitekeen izen zehatzik gabe ageri direnean bederen, isilpean izen zehatzen bat gordetzen dutenean erlatibo arruntak baitira horrelakoak ere. *ALDIKAL* adizlagunarekin eratutako formak ere menderatzailetzat har daitezke.

2.1.2.1. –*eNETAN* plurala

Hasteko, –*eNEAN* singularra baino askoz ere maiztasun urriagokoa den –*eNETAN* plurala aipa daiteke, errepiketzea berariaz adierazten dutenen artean:

- (64) a. [...] argi-ezkillarako an izango da hura egunero oker aundigabe; *ni juan izandu naizenetan beintzat an billatu izan det* (V. Mocoioa, *Demuba garaiz*, 12).
- b. [...] oker nengoen, oker baino okerrago, eta biziro poztu naiz: badut, orain, *etxeratzen naizenetan*, nora jo neure egarria berdintzeko (K. Mitxelena, *Mitxelena-ren idazlan Hautatuak*, 399).
- c. [...] oloz dute asea, *ahal dutenelan* (J. M. Hiribarren, *Escaraz eguia*, 140).

Beharbada, –*eNEAN* orokorraren aldean gerluago-edo sumatzen dugu –*eNETAN* hau sorburu izan duen –*eN (aldi, txanda, egun...)*ETAN erlatibotik. Baina harekiko alderik nabarmenena, halaz ere, pluraltasunari edo errepikatzeari dagokiona da. *Etxeratzen naizenean* forma ez-burutuak, esate baterako, berekin darama balio errepikakorra izateko gaitasuna, baina areago markatzen da hori *etxeratzen naizenetan* esaten denean. *Etxeratu naizenean* burutuak, bastalde, etxeratze bakar batez zein askoz ari daiteke; *etxeratu naizenetan* pluralak, aldiz, etxeratze asko adierazten ditu berez.

2.1.2.2. –*eN BAKOITZEAN*, –*eN GUZTIETAN*, –*eN ALDIKAL*

Forma postpositiboekin eraturiko menderatzaile hauek ere berariaz adierazten dute errepikatzearen nozioa.

–*eN BAKOITZEAN*, euskalki guztietan erabiltzen da:

- (65) a. *Gure heriaz triste nagon bakoitzean / zertxobait alailzen naiz zulaz orrhoitzean* (Xalbador, *Odolaren minzoa*, 318).
- b. *Guria egiten dan bakoitzean garbitu bear da azpia urarekin* (A. Iturriaga, *Fábulas*, 83).
- c. *Ettxeko katilu-terriñak eztitut naiko euria dan bakoitzean* (D. Aguirre, *Krapsala*, 174).

Ohiko –*eN GUZTIETAN* formaz gain (66a eta b), Axularren –*eN GUZTIAN* singularra ere (67) aipa daiteke:

- (66) a. Hitzaldi luzexkoa da agian, baina bizia eta aberatsa, *idazle hori bere baitarik ari zen guztietan* bezala (K. Mixelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 219).
- b. [...] *ostatu artea ezaltzen zen guztietan*, berriketaldi atsegiñak egiten zituen agurearekin (T. Agirre, *Uztaro*, 204).
- (67) Zeren, *Pater noster, erraiten duen guztian* [...] (P. Axular, *Guero*, 337).

—*eN ALDIKAL*, ekialdeko euskalkietan erabiltzen da:

- (68) a. [...] gure obra guzien egitia, *egiten tūgūn aldikal*, gure biziko azkena izan behar bailū bezala (Alphonsa Rodriguez, 54).
- b. *Euskaldunen edo Bretoinen artean naizen aldikal*, herri minoritaten baithango fedea galtzen dut (J. Mirande, *Miranderen idazlan hautatuak*, 62).

Bestalde, —*eN ALDIRO* ere aipa daiteke:

- (69) a. *Euskal-Esnalearen sariketan sartu dan aldiro* garai atera dira onen olerkiak (D. Inza, in Jautarkol, *Biozkadak*, XV).
- b. Ama zan *gaxo negon aldiro* gau t'egun zainzen niñuna (Argi Done Laburra, 85).

2.1.2.3. 'Zenbat aldiz —eN ... hainbat aldiz' gisako korrelazioa

Aldiberekotasun errepikatua adierazten du, halaber, *zenbat ... hainbat* zenbatzaileekin eraturiko korrelazioak, 'konparatzen' dena *aldiz* edo *bider* bezalako denbora adberbioak direnean (ikus *EGLU V*, 432):

- (70) a. *Zenbat aldiz etsai* infermukuak egin zion gerra gogorra, *anbat aldiz* garaitu zuen etsaia (C. Beovide, *Asis-co Loria*, 184).
- b. *Zenbat bider* Israeldarrak Idotoakgatik Jainkoa utzi zuen, *anbat bider* Jainkoak aek utzi zituan gatibu heren etsaien eskuetan; la *zenbat bider* gaizki egiña ezaguturik, biurtu ziran Jainkoagana, *anbat bider* Jainkoak aen artetik autu zuan, gatibutasunetik atera zizakean, gizon andiren bat (J. A. Ubillos, *Cristau doctriñ berri-ecarrea*, 37).

2.1.3. Aldiberekotasun estua

Aldiberekotasunaren barnean berriaz adieraz daitekeen beste ñabardura bat hurbiltasun estuari dagokiona da. Perpaus mendeko eta nagusiko gertakariak denborari dagokionez estu-estu loturik daudanean gauzatzen da ñabardura hori. Aldiberekoak dira biak, baina ez modu orokorraan, guztiz modu estuan baizik.

Besteetan gertatzen den bezala, denbora-nozio zehatz hau adierazteko modu bat baino gehiago dago. Hasteko, 2.1.1 atalean aztertutako menderatzaile 'orokorre' iradoki dezakete, bere soilean, hurbiltasun estuaren nozio hau ere:

- (71) a. *Irakaslea sartu zenean*, lanean hasi ziren ikasleak.
- b. *Irakaslea sartu zelarik*, lanean hasi ziren ikasleak.
- c. *Noiz eta irakaslea sartu baitzen*, lanean hasi ziren ikasleak.

Aldiberekotasun estua berriaz eta espresuki adierazi nahi denean, ordea, horren berri ematen duen elementuren bat sartzen dugu perpausean. Ohikoa denez, erlatibo arrunten bidez ere egin daiteke hori, hurbiltasunaren nozioa adierazten duen izen ardatza erabiliz:

- (72) a. *Irakaslea sartu zen unean berean, lanean hasi ziren ikasleak.*
 b. *Ikusi nuen unean ezagutu nuen.*

Baina ohiko erlatiboez gain badira, hemen ere, nozio hori adierazteko erabil daitezkeen menderatzaile finkoak: *-eNEKO*, *-eN ORDUKO*, *-eN BER*, *-eNAZ BATERA* eta *-eN BEZAIN LASTER*:

- (73) a. *Hizketan hasi deneko igarri diote zer nahi zuen.*
 b. *Sartu den arduko orrietan hasi da.*
 c. *Hizketan hasten den ber txaloka hartzen dute entzuleek.*
 d. *Ohean sartu zenaz batera toak hartu zuen.*
 e. *Ikusi nuen bezain laster ezagutu nuen.*

Horietako bakoitzaren berri emango dugu ondoko ataletan.

2.1.3.1. *-eNEKO*

a. Forma hau, esan bezala, mendeko perpausaren eta aditz nagusiaren arteko aldiberekotasun estua berriaz adierazteko erabiltzen da arruntan.

Mendeko predikatua zerbaiten irispenera edo bururatzea adierazten duena izaten da, ondoko adibideetan ikusiko den moduan: 'norabait iritsi', 'zerbait ikusi', 'ekintzaren bat amaitu', etab. Predikatu nagusia, berriz, mota bat baino gehiagokoa izan daiteke. Nolakoa den hau, gainera, halakoa izango da aldiberekotasuna ulertzeko modu zehatza.

Predikatu nagusiak gerlaera edo ekintza bat ematen badu aditzera, gertaera edo ekintza hori mendekoak adierazitako unean berean gauzatzen dela esan nahi du, hau da, une haren ondo-ondoan. Hurrengo adibide honetan, esate baterako, karta jokalariek partida bat amaitu eta segida-segidan beste bati ekiten ziotela adierazten da:

- (74) a. *Musean aritu dira arratsalde osoan. Partida bat amaitzen zuteneko, beste bati ekiten zioten.*

Ikusten den moduan, balio sekuentzial estua du perpausak. Horrelako irakurketa dute ondoko perpausak ere:

- (75) a. *Plazarat bildu zireneko, multzoka jami ziren* (J. Etchepare, *Buruchkak*, 37).
 b. *Davit agertu zeneko, Saulek maitatu zuen, eta eman zioen kargu eder bat* (B. Larreguy, *Testament çahar. berr. historia 1*, 275).
 c. *Bere konortera etorri zaneko jagi ta jantzi zan Mañasi* (D. Aguirre, *Kresala*, 182).
 d. *Bakeldunak, ikusi ebaneko, beragana doffu ta esan eutsan: [...]* (Olxolua, *Bertolda eta Beroldin*, 37).
 e. *Baña Bertolda, baserriko gauza aztunak jaten otluta egonik, jauregiko mizkerijak jaten asi zaneko urdailetik gexotu zen berriala* (Ibid., 92).

Azken testuko *berriala* ('berehala') adberbioak irakurketa sekuentziala indartzen du.

Predikatu nagusiak egoera bat adierazten duenean, berriz, egoera hori mendekoak esandako unean jadanik gauzatua dela ematen da aditzera, aldiberekotasun zehatz eta estuan. Eta aritze bat adierazten badu, hura jadanik gauzatzen ari dela esaten du perpausak. Ondoko adibideetan, esate baterako, suhiltzaileak iritsi ziren unean —ez gero, orduan berean baizik—, etxea errea 'zegoela' edo bizilagunak sua itzaltzeko ahaleginean 'ari zirela' adierazten da:

- (76) a. Suhiltzaileak iritsi zireneko, *kiskalita zegoen etxea*.
b. Suhiltzaileak iritsi zireneko, *ur bota eta bota ari ziren gizon batzuk*, sua ilzali nahirik.

Irakurketa hori dute ondoko perpaus hauek ere:

- (77) a. Potiñak errira sartu ziraneko, *an egozan nasa gainean emakumeak* (D. Aguirre, *Kresala*, 74).
b. Piarres bere lozorrotik esnatu zeneko *urrengo goiza zen* (Y. Etxaide, *Joanak-joan*, 188).
c. Malentxo logelatik ertenda, zurubietatik beera jetsi zaneko, *gosari txikia egiten ari zan eskale goiztarra* (T. Agirre, *Liztaro*, 253).
d. Perkain iparnasa muturrera eldu zaneko, *an yoiazan arrapaladan arin aringa barrira bere legorrez lau arrainak* (E. Erkiaga, *Arranegi*, 58).
e. Baina gerta etorri zeneko *Peltanek erroak eginak zituen toki berrian* (Zerbitzari, *Azkaine*, 81).

Perpaus horietan, mendekoak esandako unean jadanik baden edo dagoeneko gertatzen ari den zerbaiten berri ematen zaigu: 'emakumeak han zeudela', 'goiza zela', 'eskalea gosaltzen ari zela'... Ondoko adibideko jadanik adberbioak indartu egiten du irakurketa hori:

- (78) Orain artean, isileko hitz-amen bati jarraikiz, gizona baino lehen joaten zen lotara; eta hau lo-gelan sartzen zeneko *ohean zegoen jadanik* (J. Mirande, *Haur besoetakoa*, 62).

Honela egin daitezke erabilera bi horien parafrasiak: lehena *eta orduantxe (berehala)* adizlagunaz alda daiteke: 'plazarat bildu *eta orduantxe (berehala)* multzokoa jarri ziren' (75a); bigarrena, berriz, *eta ordurako (jadanik)* adizlagunarekin truka daiteke: 'potiñak herrira sartu ziren *eta ordurako (jadanik)* nasa gainean zeuden emakumeak' (77a).

Horrekin batera esan behar da, ordaa, predikatuen esanahiak eta haien arteko denbora eta aspektu erlazioak bestelako irakurketa batzuk ekar ditzaketela. Ikus, esate baterako, ondoko adibideak:

- (79) a. Idorte deneko, lurraren jabea ur eske dago (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 21).
b. Udabarria eltzen deneko kukuka nago basuan (B. Enbeita, *Nere apurra*, 116).

Perpaus horietan, esaldi nagusiak ez du behin bateko gertakaria adierazten, behin eta berriz errepikatzen dena baizik, eta mendekoak hura gertatzearekin batera sortzen den egoera ematen du aditzera. Aldiberekotasun errepikatuak du hor indarra: ez da esaten mendekoa gertatzen den unean nagusiak aipalzen duen egoera edo ariketa jadanik hor dela, baizik eta hura gertatzen den aldiko, bestea ere gertatzen dela.

Ondoko adibidean, berriz, predikatuak ekintza bat adierazten duen arren –'kolpea egin'–, balioa ez da sekuentziala: ekintza ez da mendekoak esandako unearren ondoren gauzatzen, heren segida-segidan, aurretik baizik:

- (80) Herodes izen hunetako lehenbiziko errege ientil hark, hil zuen Mariannes bere emaztea kolieran, ielosiak, gogan behar batez, eta hain arinki, laburki eta lehatuki, non munduak iakin zueneko *egin baitzen kolpea* (P. Axular, *Guero*, 200).

Munduak jakin zueneko, kolpea *egina* zegoela adierazi nahi du perpaus horrek, ez hura jakin eta ondoren, berehala, egin zela. Zaila da, izan ere, zerbait gertatu dela 'jakitea' eta hura gero, berehala, gertalzea. Zehalzagoak dira, horrelakoetan, partizipio mugatua duten perpausak, honek gertakari baten ondoko 'egoera' ematen baitu aditzera: 'munduak jakin zueneko, egina zen kolpea' esango genuke errazago Axularren adibideko perpausa. Ikus, adibidez, goiko (77e), eta ondoko testu hauek:

- (81) a. Eta honek ere *galduak zituen* bere buraso aberats eta Jainkotiarrek, hemezortzi urthetarat heldu zeneko (B. Joannateguy, *Sainduen Bizitza*, 120).

b. Jaio deneko gezurrak / *Einak ditu* zain-hezurak (S. Monho, *Poemes basques*, 52).

b. Aipatzen ari garen –eNEKO formaren lekuan –eNERAKO, –eNEKOTZ(AT), eta –eNEKO(T)XE aldaerak ere erabiltzen dira gisa honetako perpausetan.⁷

Adlatiboaren gainean eraturiko –eNERAKO forma maiz erabiltzen da gaur egun, Hegoaldean batez ere:

- (82) a. *Eguna argitu ebanerako* bazter guztietan zabaldu zan albiste ona (D. Aguirre, *Kresala*, 47).

b. *Ogei urte ebazenerako* asi zan kanlari (S. Onaindia, *Gure bertsoariak*, 272).

Eta 'egoera' adieraziz:

c. *Udeberria sartu zenerako*, oso galdua zegoen ama gaixoa (N. Etxaniz, *Lur berri bila*, 96).

d. *Gabean ebreratu zenerako* Rosak irikia zuen eskutitza (Ibid., 70).

Askoz ere maiztasun bikiagoa dute –eNEKOTZ eta –eNEKOTZAT aldaerak:

- (83) a. Biharamun goizean, zazpi orenak ez ziren urrun behar izan *ni itzarri nintzenekotz* (J. B. Elissamburu, *Piarres Adame*, 41).

b. *Jainkoaren Semea gizon egin zenekotzal*, hekien hitzkuntza hebreoa nahastekatua zen ziriakarekin (J. Etchepberri Sarakoa, *Eskuararen hatsapenak*, 93).

Eta are bikiagoa –eNEKO(T)XE indartuak:

- (84) a. Azkar ibili nintzan *eguna argitu ebanekotxe* (E. Erkiaga, *Txurio txoria*, 171).

b. *Ugazaba zaharraren gerizpea susmatu nebanekoxe*, lximinari abiada handiagoo emon, eta biximitea lez pesatu nintzan (E. Erkiaga, *Iribarrea galtzen denean*, 49).

⁷ eNEKO formatik sortua da *daگوeneko* adizlaguna, hizketako unean zerbait gertatu dela adierazten duena, "ustea" adierazten duen *honezker* adberbioarekin nahasi behar ez dena: *daگوeneko hemen dira lagunak*, baina *honezker* *hemen izango dira lagunak*, esate baterako (cf. *EGU I*, 386. or.). Iraganan, halaz ere, ez da *zگوeneko forma erabiltzen, *orduko* baizik.

c. Hurbiltasun estuaren ideia edo nozioaz gain, beste balio bat izaten dute maiz horrelako perpausak. Balio destinatiboa, hain zuzen. Balio horren arabera, mendeko perpausetan seinatzen den denbora izaten du helburu perpaus nagusian adierazten denak. Hitz batean esanda: aditz nagusiak dioena *noizko* den ematen da aditzera horrelako perpausetan, zer denbora duen helburu:

- (85) a. Badakit janhariaren egostia eta gatz emaitia khario jiten direla; bera jakitia huna da, *berere hazienda eritzen deneko* (E. Inchauspe, *Dialogues basques*, 70).
- b. Ta erregela hau artu biar da, *beste edozein konbersazioe deunga entzuten daneko* (J. J. Moguel, *Baseritear nequezaleentzako eskolia*, 100).
- c. Eta gero, *erea etorkenarako*, bere araso apalean zaindu ta gorde arduratsu (S. Onaindia, *Gure bertsolariak*, 215).
- d. Emen daukagu, ba, *Bonaparte printzipearen bizitza ta tenai buruz liburu on bat egiten danerako*, isilik ixki bear erlan izen bat (N. Alzola, *Atalak*, 136).

d. Hemen aztertu dugun *-eNEKO* adverbial honetaz aparte bada erlatibo jakin batzuetan erabiltzen den beste *-eNEKO* adjektibal bat, erlatiboak aztertzean aipatu genuena. Lekua edo denbora adierazten duten izen ardatzekin erabiltzen da *-eNEKO* hori, *-eN* soilaren lekuan (ikus *EGLU V*, 196). Hona, denbora adierazten duen etsenplu bat:

- (86) *Gizakia ilargira iritsi zeneko eguna* ez da berehalakoan ahaztuko.

Horrelakoak, ordea, denbora adierazten duten arren, ez ditugu denborazko perpaus adverbialen artean sartzen, izen ardatz bati laguntzen dioten erlatibo arruntak baitira.

2.1.3.2. *-eN* ORDUKO

Aldiberekotasun estua adierazten du forma honek ere, *-eNEKO* menderatzaileak bezala. Hurrengo liburukian aztertuko dugun *partizipioe* + *ORDUKO* formaren parekoa da, hura baino maiztasun urriagokoa bada ere:

- (87) a. *Zezena agertu zan orduko* kojo guztiak osasunera etorri ziran (Kirikiño, *Abarrak*, 121).
- b. *Gaixorik dan orduko*, egan aidez-aide an dezu Andra-Mari (S. Mixelena, *Arantzazu*, 203).
- c. *Sortu zan orduko*, etsaiak begietan artu zuan gizona (D. Inza, *Kristau ikasbidearen azalpena*, 62).
- d. *Indarrak tipitzen hasi zelezten orduko*, burasoek zalitzen dute izpi hura umeen artean (J. Etchepare, *Buruchkak*, 107).

Eta aspekturik gabeko adizkiarekin:

- (88) Oartu bage an du kume bat jαιο ta beela zutia; *! amak limika dezaon orduko* elurra bezain zuria (Orixe, *Euskaldunak*, 223).

Adibide horietan guztietan perpaus nagusiko gertakaria mendekoaren ondoan dator, haren segida estuan. Hurrengo testu honetan, berriz, mendekoak seinatatu denboraren aurretikoari egiten dio erreferentzia perpaus nagusiak:

- (89) Zerua ta zerukoak nai izatea on zaigu, dio; baño oraindik zerura igoko garen orduko *lurraz zerua egittea agintzen digu, lurrean, zeruan bageunde bezala biziz* (D. Inza, *Kristau ikasbidearen azalpena*, 138).

Balio destinatiboak izan dezake forma honek ere, **-eNEKO** menderatzaileak bezala:

- (90) Zagoze bada prest ta sendo, *arerijuakaz eskubetara etorri biar dan orduko* (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 205).

2.1.3.3. **-eN BEZAIN LASTER / SARRI / AGUDO / FITE...**

a. Aldiberekotasun estua adierazten duten menderatzaileen artean aipatu behar dira, halaber, **-eN BEZAIN LASTER**, **-eN BEZAIN SARRI**⁸, **-eN BEZAIN AGUDO**, **-eN BEZAIN FITE** eta horrelako konparatiboak, ahanlari gabe, jakina, partizipioaren gainean eraikiak direnak *-iritsi bezain laster* gisakoak, alegia—. Hauek, ordea, *EGLU VII*n aztertuko ditugu, adizki jokatu gabeko duten gainerako perpausekin batera.

Hona edizki jokatuko adibide batzuk:

- (91) a. Lurrak ona izateko euko bihar dau buztinik beste ondar; bestelan *bustiten dan baxen laster* liortuten da (J. A. Uriarte, *Diálogos vascos*, 44).
b. *Sorthu zinen bezain sarri* Beteengo aldean, aingeruak hasi ziren *eresiaz airean* (J. Etcheberri, (Ziburukoa), *Noelac*, 60).
c. [...] *Parisen sartu ziren bezain aguro* berriz agertu zen Euzko Deia (K. Mitxelena, *Mitxelena-ren Idazlan Guztiak II*, 78).

Aipatu formen ugaritasuna ikusita batetik **-egitura** bereko forma gehiago ere aipa zitekeen neke handirik gabe: *-en bezain pronto*, *-en bezain arin*, *-en bezain azkar*, *-en bezain zalu* edo, beste esanahi batekin, *-en bezain goiz*, *-en bezain maiz*, *-en bezain berandu...*, eta adberbioen berezko esanahia nolabait bizirik atzematen dela kontuan hartuta bestetik, badirudi konparatiboan sailean sartzekoak izango liratekeela goikoak bezalako perpausak.

Aitortu behar da, ordea, konparazio perpausen egitura izanik ere zinez 'ezer gukxi konparatzen dela' perpaus horietan, gertakariaren denbora ez bada, gorago esan dugun bezala (ikus 2.0.2). Argiro ikusten da hori ondoko adibide pareetako perpausak erkatuz:

- (92) a. Jakina, *orain* ezin naiz ibili *gaztetan* ibiltzen nintzen bezain laster.
b. Sartu zen bezain laster hasi zen jende guztiari aholkuak ematen.
(93) a. *Anaia* bezain agudo ibiltzen da *Lupe* auto berrian.
b. Zuzendaria izendatu duten bezain agudo hasi da *Lupe* aldaketak egiten.

Pare bakoitzeko lehen etsenpluan bete-betean gordetzen du adberbioak bere esanahia: *lastertasunaz* mintzo da (92a), eta *agudotasunaz* (93a). Eta, hain zuzen, *hari* buruzko konparazioa egiten da: 'oraingo lastertasuna' eta 'gaztetako lastertasuna', 'Luperen agudotasuna' eta 'anaiaaren agudotasuna'. Bigarren adibideetan, berriz, gertakariaren denbora da 'konparatzen' dena *-bat noiz* eta *'bestea noiz'*, alegia—, haien arteko *aldiberekotasuna* adiltzera emanaz. Horrelako perpausak dira, hain zuzen ere **-ez** (92a) eta (93a) gisakoak—, denborazkoen sailean sartzen ditugunak.

⁸ *Sarri* izenlagunak adiera bi ditu, euskalkien arabera: 'beregala' eta 'maiz'. Kapitulu honetan aztertzen dugun erabilera Iparraldeko balioari dagokiona da: *'-en bezain sarri'* = *'-en bezain laster'*.

Menderatzaileen izaerari erreparatuta, bestalde, garbi ikusten da perpaus hauek adierazten duten aldiberekotasuna ez dele mendekoak seinaleturiko unean jadanik gauzatua den egoera aditzera ematen duena, sekuentziala baizik. Formak berak erakusten duenez *—bezain laster, bezain agudo...—* 'segidako' aldiberekotasun estua adierazten dute perpaus horiek. Goiko (91) adibideetako perpausetan ikusten da hori argiro: 'lurrak busti, eta orduantxe berlan lehortzen dira'; 'Jesus sortu, eta orduantxe hasi ziren aingeruak abesten'...

Ondoko adibideetan ere ez da jadanik gauzaturiko 'egoera' ematen aditzera, aditz nagusia estatiboa den arren. Errepikatzen den gertakaria adierazten dute perpaus hauek, eta mendekoak dioena gertatu ahala egoera jakin bat sortzen dela ekartzen dute gogora, gorago, *—eNEKO menderatzaileaz ari ginela, aipatu ditugun (79)koek bezala:*

- (94) a. Hargatik da Teologoien errana, gizona adimendura hellzen den bezain sarri, puntu berean, *obligatu dela bihotzaren leinkoagana ailtzatzera* (P. Axular, *Guero*, 115).
b. Zeren plazera iragan den bezain fite, *han da desplazera* (Ibid., 254).

b. Mendeko perpeuseen erabiltzen diren aditzkiei dagokienez, esan behar da maiztasun handikoak direla bai aditz nagusia bai mendekoa aspektu burutuan dituzten perpausak, goiko (91b-c) eta ondoko hauek bezalakoak:

- (95) a. Andre Joxepa senarraren zai zegoan, eta sartu zan bezin laster alera ziozkan aste-egunelako sofia eta oñetako legorra (A. M. Zabala, *Gabon gau bat*, 31).
b. Eta ernezen ikusi dedanean, begi-kimua *axaldu duan* bezin laixter, eguzki pixka bat eman diot (S. Mitxelena, *Arantzazu*, 5).
c. [...] haren ur-isuriariz begiak *ukitu zituen bezain fite, argitu zen* (P. Axular, *Guero*, 267).

Aditz nagusia geroari dagokionean, aspektu ez-burutuan ageri da maiz mendeko perpausa, *—eNEAN menderatzailearekin-eta gertalzen den bezala:*

- (96) a. Aurra jaiio la *sendatzen aizenan* bezain laster, Ameriketara alde egitea izango den onena (N. Etxaniz, *Lur berri bila*, 29).
b. Oker nabil, ordea, agian eta prest nago okerrak zuzentzeko *erakusten dizkidaten* bezain laster (K. Mitxelena, *Mitxelena-ren idazlan Hautatuak*, 382).

Aspektu burutuan ere ageri daiteke, ordea, gertakariaren bururatzea espresuki markatzeko:

- (97) a. Mattin, adi nezak ongi; *bazkaldu dukan* bezain laster, habil etxex-etxe [...] (J. B. Elissamburu, *Piarres Adame*, 81).
b. bainan gurutzea *adoratu dudan* bezin laster oro utziko ditut (*Andrearena Manaren ilhabetea*, 73).

Geroaldiko formak ere erabiltzen dira inoiz, Iperraldean batez ere:

- (98) a. Eta erran ziezten, Zoazte zuen aurkhan den burugura; eta hartan *sarthuren zaretan* bezain sarri, eridenen duzue asto ume bat estekatua, nehor gainean iarri izan etzaionik: laxaturik hura ekhardazue (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, 83).
b. Horrekin batean, *ikusiko duzun* bezain sarri kolera-zko akzionerik egin duzula, erremediazazu falta egina (S. Pouvreau, *Philotea*, 235).
c. [...] Bizkaiian pakea *egingo dan* bezain laister bidu ditezela batzarreak Gemikan (Onix, *Santa Cruz apaiza*, 34).

Testuetan, *KE*-dun forma ere ageri da inoiz:

- (99) [...] *Hura senti dezakezun bezain sarri*, ene Philotea, behar ditutzula zure indarrak bildu (S. Pouvreau, *Philotea*, 233).

c. Berez, badirudi 'berehala' adieraz dezaketen adizlagun guztiak erabil daitezkeela honelako perpaus hauetan: *laster*, *sarri*, *agudo*, *fite*, *pronto*, *arin*, *azkar*, *zalu*... Horiek eta beste batzuk, beharbada. Ez dira, ordea, den-denak maiztasun berdinez erabiltzen adizki jokatuko perpausetan. Testuetan ageri denez, *-eN BEZAIN LASTER* forma da, bere aldaera guztiekin, gehien erabiltzen dena eta bera da, hain zuzen, euskalki gehienetan lekukotasunak dituena:

- (100) a. *Manu hori eman zuen bezain laster*, lau gizon lotu zitzaizkon, eta hasi, egin-ahala egin, balean alde batetik, bertean bertetik, jo nahiz eta jo nahiz (B. Joannateguy, *Seinduen Bizitza*, 174).
- b. Ez, amaixo maitia; ludi onetan zure naitasun bakarra gelditzen zait, eta *baimena izaten dedan bezain laster*, zure besoetara gogotsu joango naiz (T. Alzaga, *Ramuntxo*, 68).
- c. *Neskakillak erreskadan alera zituen baizen laster*, soifua balbatean eten, eta bigarren aurraskua asi eben gero, azkenengo dantza-jotaldiak guztiak balean egiteko (E. Erkiaga, *Arranegi*, 43).
- d. Gero urbildu ziren erien goatzera eta *ikusiz zuten bezain laster*, erran zuten denak batera (M. Izela, *Dirua galgari*, 45).

Horretaz gain, Iparraldean *-eN BEZAIN SARRI* erabiltzen da aski maiz; *-eN BEZAIN FITE*, aldiz, bizpahiru idazleren lanetan baizik ez da ageri.

- (101) a. *Iratzari den bezain sarri* zeñhatu behar du (A. Belapeyre, *Catechima laburra I*, 127).
- b. Badarik ere plazer duzunean, eta *zure esku maitea hedatzen deratazun bezain sarri*, hobeki kausitzen naiz (S. Pouvreau, *Iesusen Imitaciona*, 189).
- c. Bainan, sinetsiko nuzu nahi baduzu, elzuen laket horrela alfer egoitea luzaz; *indarrak berritu zituen bezain sarri*, jauzi batez igaiten zen bere errotaren banerat (J. Etchepare, *Buruchkak*, 62).
- (102) a. Zeren *plazera iragan den bezain fite*, han da desplazera (P. Axular, *Guoro*, 254).
- b. *Iguzkia orienten agertzen, eta ialgiten den bezain fite*, lurrian argia da (J. Tartas, *Onsa hilceco bidia*, 56).

Eta Hegoaldean, azkenik, *-eN BEZAIN LASTER* formaz gain *-eN BEZAIN AGUDO* ageri da tradizioan:

- (103) *Ama Birijñari aterpea egin genion bezin aguro*, an ziran laño-pilloak gure buru-gafean (N. Elbaniz, *Euskal antzerkiak*, 55).

2.1.3.4. *-eN BER*

Ekialdeko euskalkietan erabiltzen den *-eN BER* formak, berriz, adiera bat baino gehiago izan ditzake. Baldintza ez ezik (1.5.2.9) denbora ere adieraz dezake inoiz. Sekuentzia estua, hain zuzen ere, nagusiko gertakaria mendekoan aipatzen denaren ondoan, segida-segidan, gauzatzen delarik:

- (104) a. Ilhezko soka aldiz harro hutsa da, eta *tiratzen duten ber*, amor emaiten du (P. Lafitte, *Murtuts eta bertze*, 20).
- b. Hek ez dira gu bezala nekakzen gogoeta. *Lehia heldu zeien ber*, jazar (J. Etchepare, *Buruchkak*, 94).

2.1.3.5. –eNAZ BATERA

Aldiberekotasuna edo hurbiltasun estua adierazten du bizkaieran berriki erabiltzen den –eNAZ BATERA menderatzaileak ere. Adizki jokatuarekin baino maizago agertzen da postposizio hau partizipioarekin –*sartuaz batera*, *hori ikusiaz batera*, etab.–, *EGLU VII*n ikusiko dugun moduan. Adizki jokatuarekin ere erabiltzen da, ordea. Ondoko adibide hauetan, mendeko gertakaria gauzatu ahala, segida-segidan, beste gertaera bat gauzatzen dela ematen da aditzera:

- (105) a. *Abots indartsu, bijotzalia entzun genduanaz batera*, Abots zindoan durundi ori sartu yakun bijotzera (K. Enbeila, *Bertsokak*, 55).
- b. *oian sartu zanaaz batera*, loak artu eban (E. Erkiaga, *Batetik bestera*, 64).
- c. *lizarlu zanaaz batera*, Zuriferi, gomutara yakoan barriren barri gabeko gogoetak (E. Erkiaga, *Arranegi*, 61).

Beste adibide honetan, berriz, mendekoak seinaletutako unean jadanik gauzatua den egoera adierazten da, ez haren segida-segidakoa:

- (106) *Biaramonetan, goiz berandu baiño leen, egunkariak errira zirentaz batera*, Tutulu dendaria Nikanor'en zain egoan (E. Erkiaga, *Batetik bestera*, 97).

Gipuzkeraz, –eNAREKIN BATERA forma erabili izan da inoiz:

- (107) *Atea iriki zuanarekin batera*, zerbait atera zan elizatik (N. Elkaniz, *Lur berri bila*, 174).

2.2. ALDI DESBERDINTASUNA ADIERAZTEN DUTEN PERPAUSAK

Mendekoaren eta nagusiaren arteko aldiberekotasuna adierazten duten perpausak aztertu ditugu aurreko atalean. Atal honetan, aldi desberdintasuna adierazten dutenak ikusiko ditugu, heu da, *aurrekotasuna* edo *ondokotasuna* adierazten dutenak. Izan ere, bi modutara eman daiteke aldi desberdintasunaren erreferentzia: aditz nagusian aditzera ematen dena mendekoan esaten dena baino lehen gertatu dela adieraziz –eta horixe da *aurrekotasun-perpausek* egiten dutena– edo hura baino geroago gertatzen dela esanaz –eta hori da *ondokotasun-perpausek* egiten dutena–.

Egia esan, *aurrekotasuna* eta *ondokotasuna* adierazteko partizipiozko perpausak erabiltzen dira gehienbat: *joan baino lehen*, *etorri aurretik*, *ikusitako ondokoan*, *amaitu eta gero...* Hori da ohikoena. Adizki jokatuarekin, berriz, *gulxitan* eta *bakan antzean* egiten dira. Egin daitezke, ordea, eta aipamen labur bat bederen zor zaie, maiztasun urria gorabehera.

Formari dagokionez, konparaziozko perpausak dira hauek ere. Baina denbora modu generikoan adierazteko gramatikalizatu diren neurrian, ez da lekuz kanpo denborezkoen artean sartzea (ikus *EGLU V*, 400).

2.2.1. Aurrekotasuna

Partizipioek *aitzinean*, *aurrean* / *aurretik* eta *baino lehen* formak hartzen dituzte ondotik aurrekotasun-perpausak eratzeko. Hori ikusita, pentsa liteke adizki jokatua dutenen menderatzaileak ere *-eN AITZINEAN*, *-eN AURREAN* / *AURRETIK* eta *-eN BAINO LEHEN* izango direla, haien anizera. Eta hala da neurri batean, baina ez guztiz, *-eN BAINO LEHEN(AGO)* baita denetan erabiliena; *-eN AITZINEAN* eta *-eN AURREAN* formek hark baino are erabilera urriagoa eta mugatuagoa dute.

2.2.1.1. *-eN BAINO LEHEN*

a. Bestelakoetan ere erabil daitekeen arren, gerora begira dauden perpausekin du maiztasunik handiena menderatzaile honek. Eta, hain zuzen, gauzatu gabeko gertakariak ematen direnez aditzera horrelako perpausetan, subjuntiboko formak erabiltzen dira maiz, euskalki guztietan:

- (108) a. Iragan behar zare sutik eta uretik freska eta pausa lekura hel zaitzezin beino lehen (S. Pouvreau, *Iesusen imitacionea*, 62).
- b. Ethorkizuneko gauzak zure ezagutzan dire, ethor ditezen baiño lehenago (M. de Chourio, *imitacionea*, 307).
- c. Jesu-Kristo gure Jauna munduari kontuak artzera etorri dedin baiño len agertuko dira asko siñale (Aguirre Asteasukoa, *Erecusaldia III*, 474).
- d. Atoz laguntzera, deabruak bere atzaparretan eraman nazan baiño lenago (N. Etxaniz, *Lur berri bila*, 174).
- e. garunetan takarreko galanta emon egion beñño len [...] sekulako anka-jokoari emon eulsan (E. Erkiaga, *Batetik bestera*, 52).
- f. Amaitu dein baino len bere egarria siku gelditulen da pitxer guztia (E. M. Azcue, *Pamasorako bidea*, 108).

Subjuntibotzat har daitezke, halaber, formari dagokionez indikatiboarekin bat datozen arren, adizki trinkoekin eginikoak ere: *datarren baino lehen*, *noan baino lehen...* :

- (109) a. Iguzkia kanbiaturen date ilhunbetara, eta ilhargia odoletara, launaren egun handia eta notablea dathorren baino lehen (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, 209).
- b. Utz nazazu aphur bat ene dolorearen plainatzera, tur ilhunera, tur herioko beltzturaz estali hartara noan baino lehen (S. Pouvreau, *Iesusen imitacionea*, 216).
- c. Egin dezagun guztiok azken kontuen ordu ikaragarria datorkigun baiño len alegina bizitza zuzentzeko (Aguirre Asteasukoa, *Erecusaldia III*, 307).
- d. Eskatu daigun neurë maileak, oera goiazan baino len, batu gaizala laungoiko launak betiko zeruan (E. M. Azcue, *Pamasorako bidea*, 95).

Geroaldiko adizkiekin ere erabiltzen da forma hau:

- (110) a. [...] Piarresok hartaz amegaluiko zuela [...] oillarak, gau hartan, kantatuko zuen baino lehen (B. Larreguy, *Testamentu zahar. berr. historia*, 256).
- b. Beriz ikusitzeko egingo det modu, juango diran baiño len ogeita lau ordu (Bilintx, *Bertso ta lan guztiek*, 48).
- c. gertatuko dan baiño lenago, esaten dizutet (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 439).

Zenbaitetan, aspektu burutuan ematen da mendeko aditza, etorkizunera begira egon arren, bururatzearen aspektua erantsiz geroaldiko denborari:

- (111) a. eta errok, nere partez, egun berean, *iguzkia sartu den baino lehenago*, haren seirehun ardiak bertze berrehunekin eramanak izanen direla, gure artzainez, Sarako mugaz beste aldera (J. B. Elissamburu, *Piarres Adame*, 84).
- b. [...] eta kontzëbituko baituzu haukientzat talzdura hañdi bat, *agertu diren baino lehen* (J. Haraneder, *Gudu izpirituala*, 124).

Gainerako denbora eta aspektuetan ere erabiltzen da, urriago bada ere:

- (112) a. *Il zan baño len atera zuten* [...] eriotz-ordurako Loiolara etorri nai zula (Orixe, *Santa Cruz apaiza*, 78).
- b. Zatoz [...] *turra lur zan baño len* antolatu dizudan iaurerrira (Orixe, *Quito-n arebarekin*, 202).
- c. behin [...] *jeiki zen bertzenaz egiten zen baino lehen* (B. Joannateguy, *Sainduen Bizilcea*, 79).

b. Menderatzaile hau *lehen* adberbioarekin eratzen da gehienetan, baina, aurreko adibide horietan ikus daitekeen moduan, ondotik -AGO konparatiboa erentsita duen -eN BAINO LEHENAGO aldaera ere erabil daiteke (ikus EGLU V, 397):

- (113) a. [...] *noan otzak eta nekeak ailu nazan baño lenago* (N. Etxaniz, *Euskal antzerkiak*, 82).
- b. *Loak artu zagizan baño lenago*, zuzendu zaitetz Jaungoikoagana (D. Inza, *Kristau ikasbidearen azalpena*, 205).
- c. Da ezdakusat emen euskaldun agintari bat bakarra, *turperatu zaiezan baino lenago* zuri esker on bat emateko (D. Aguirre, *Aufimendiko lorea*, 105).

Eta baita *lehentxeago* aldaera ere:

- (114) *Il zan baño lentxeago* ilzezin zien (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldic II*, 7).

c. Perpaus hauen balioa berez denborazkoa bada ere, zenbaitetan "lehentasunaren" bidetik abiatuta bestelako esanahi bat hartzen du, *baino lehen* = *baino gehiago* bilakatuz. Honako hau da horrelakoetan adierazten dena: mendekoan esaten dena baino nahiago dela nagusiak dioena egitea edo gertatzea. Denborazkoa ez den lehentasuna dago horietan jokoan:

- (115) a. Honda bedi mundua, fundi nedila neroni, *zuri laido bat eginen darotzudan baino lehen* (J. Duvoisin, *Liburu Ederra*, 176).
- b. [...] zer ez du erranen *poto bat eginen duen baino lehen* (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 37).

Zenbaitetan gainera zerbait ukatzeko modu enfatikoa izan daiteke hori:

- (116) [...] hazaraz zazu haiako bildotsa bertze ardi bati; edo ez badaite, hil zazu *amari utziko diozun baino lehen* (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 271).

2.2.1.2. -eN AURREAN, -eN AITZINEAN

-eN AURREAN menderatzaileak agerpen gutxi ditu euskal testuetan. Horietako gehienak bizkaierakoak dira. Hona horietako batzuk:

- (117) a. Emakume batek oso asko daike maite dauan gizonagaz, bada *ezkondu bear dabien aurrean* guztiak dira arkumetxoak baizen bigun da otzanak (D. Aguirre, *Kresala*, 162).
- b. *Joan zen aurrean*, jai-egun bat izan zan (J. M. Echeita, *Josecho*, 164).
- c. *Etzatera zijoazen aurrean*, Uriko zar-gazteak elkar-arturik, etxea inguratu zuten (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 20).

Eta –TXO atzizkia duela:

- (118) *It bear eban aurretxoan* (R. M. Azkue, *Euskalemiaren Yakintza III*, 245).

Iparraldeko euskalkietako –eN AITZINEAN menderatzailea ere gubxitan ageri da testuetan:

- (119) a. Ez-dezazula bihia erain gisua *mariatu den aintzinean* (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 183).
- b. Hezerik janarazten bada, aldian aldikoa ebaki behar da, *loratu den aintzinean* (Ibid., 95).

2.2.2. Ondokotasuna

Ondokotasuna aditzera emateko ere ohikoagoak dira partizipioarekin eginiko perpausak, hau da, *partizipioa* + ONDOAN / OSTEAN / ETA GERO bezalakoak. Dena dela, aurrekotasuna bezala ondokotasuna ere aditzera eman daiteke adizki jokatzuko perpausen bidez. Horrelakoetan ez da ordea, –eN BAINO LEHEN(AGO) menderatzailearen pareko izango litzatekeen –eN BAINO GERO(AGO) forma ageri, *baino geroago* konparatiboa ez baita ez partizipioarekin ez adizki jokatuarekin ere erabiltzen (ikus EGLU V, 400-402).

Ondoan edo *ostean* postposizioekin eraturiko –eN ONDOAN edo –eN OSTEAN formak dira perpaus hauetan erabiltzen diren menderatzaileak.

Euskal gramatikari batzuek ondokotasunaren sail honen barnean sartu izan dituzte guk gorago ikusi ditugun –eNEKO, –eN ORDUKO eta –eN BEZAIN LASTER menderatzaileak ere, balio sekuentziala dutenetan behintzat, horrelakoetan aditz nagusiak dioena mendekoaren "ondoren" gertatzen dela argudiatuz. Zerbait beste zerbaiten ondoren gertatzen dela esaten bada, "ondokotasuna" adierazten omen da, haien iritziz. Bestele ere ikus daitezke, ordea, gauzak. Izan ere, aipatu menderatzaile horiek adierazten dutenaren funtsa ez dago ondokotasunean, aldiberekotasunean baizik. Horiek aditzera eman nahi dutena ez da nagusiak dioena mendekoak dioenaren 'ondoren' gertatu dela, 'guztiz harekin bat' baizik. Hurbiltasunean dago funtsa, berehalakotasunean, ez ondokotasunean. Horregatik, aldiberekotasun estuaren ezpisailan sartu ditugu guk horrelako perpausak (2.1.3).

2.2.2.1. –eN ONDOAN

a. Menderatzaile hau bestelako denbora eta aspektuetako adizkiekin ere erabil daitezkeen arren, aspektu burutua adierazten dutenekin ageri da maizenik, orainaldian (120a-b) nahiz iraganean (120c-d):

- (120) a. Joan-Eder xutilzen da hura ere, *oro jautsi diren ondoan* (J. Barbier, *Supazter chokoan*, 25).
- b. Badoo eberrat, *unhatu den ondoan* (J. M. Hiribarren, *Escaraz eguia*, 16).
- c. *Phesta burua iregan zen ondoan* Maria eta Joseph bihurtu ziren Nazaretheko hirirat (A. Mihura, *Andredena Mariaren Imitacionea*, 114).
- d. *oiek garaitu zituan ondoan*, aingeruak agertu zitzaizkion eta eman zioten jatera (D. Inza, *Kristau ikasbidearen azalpena*, 60).

Aditz nagusiak forma ez-burutua (121a-b) edo geroari dagokiona (121c-e) duenean, mendeko aditza aspektu burutuan eman daiteke, bururatzearen ikuspegia erantsiz, horrela, esanahi errepikakor edo gerokoari:

- (121) a. Lurrak hazten dituen belharki, arbolaki, animaleki, orok egiten dute, *hil diren ondoan*, ustelkia (J. Duvoisin, *Laborentzako liburuia*, 19).
- b. Argi hura ezla galtzen, *kausitu den ondoan*, ez bistatik aldaratzen (P. Argaignarats, *Devoten Breviariora*, 38).
- c. Ela kontrara, *barbero salbaiaren semea grekoek, edo latinarrez irakhatsia, eta eskolatua izan den ondoan*, bokhantza handirekin eta ederki mintzatuko da (J. Elcheberri, (Sarakoa), *Eskuarenen hatsapenak*, 385).
- d. *Meza akhabatu den ondoan* zenbait momentuz egon gaitezin belhaurinko, Jainkoari eskerrak emaitako (J. P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunen eguna*, 172).

Dena dela, perpaus nagusiko aditza geroari buruzkoa denean, mendeko aditza subjuntiboa ere izan daiteke:

- (122) Baina *resuszita nadin ondoan*, zuen aitzinean ioanen naiz Galileara (J. Leizoraga, *Testamentu berria*, 52).

Testuetan, **-KE-** forma ere ageri da inoiz, horrelako perpausetan:

- (123) [...] *sofritu duketen onduan* heen bekhatiek merexi zuten pena, jalgiko dira joaiteko Parauzurat (Akizeko katxima, 61).

b. Hegoaldean **-eN ONDOREN / ONDOREAN** aldaera erabiltzen da:

- (124) a. Hobe da, noski, Gongora edo Joyce irakurtzea bestek aztertu, *berrendu eta adierazi dituen ondoren* (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 197).
- b. Jaiotzetik itsua izana *sendatu zuan ondorean* Jerusalemgo elizan berriz alkar topo egitean, Jesusek esan zion ibxu izanari [...] (D. Inza, *Kristau ikasbidearen azalpena*, 49).

2.2.2.2. **-eN OSTEAN**

Ostean postposizioa ere oso gulgitan erabiltzen da adizki jokatua duten mendeko perpausetan. Ohikoagoa da hau ere partizipioarekin joatea: *ikusit ostean, jofastu ostean...* Ez da, ordea, ezinezkoa adizki jokatuarekin agertzea, ondoko etsenplu honek erakusten duen moduan:

- (125) Ez ziran ezeukiak, zergatik, *Jesukristok zerura igon eban ostean*, euken asko (A. Iturzaeta, *Azalduera leburrac*, 207).

2.3. IRAUPENA ADIERAZTEN DUTEN PERPAUSAK

Aditz nagusiak adierazten duen gertakariari denbora erreferentzia emateko beste modu bat haren iraupena seinalatzea da. Horrelakoetan denbora-adierazpenak, zerbait *noiz* gertatu den seinalatzera mugatu beharrean, haren

iraupenaren berri ematea izaten du helburu, nolako denbora-tartean luzatzen den adieraztea.

Bi modutan egin daiteke hori: iraupenaren muga aipatuz, aurrekoa nahiz ondokoa, edo iraupenaren tarte osoa adieraziz.

- Aurreko mugak iraupenaren *noizdanikoa* seinalatzen du: "astelehenaz gero gaude hemen".

- Azken mugak, berriz, iraupenaren *noiz artekoa* ematen du aditzera: "igandera arte egongo gara hemen".

- Mugak ez ezik, iraupenaren *tarte osoa* ere seinalatu daiteke: "aste osoan egongo gara hemen".

Adibide horietan postposizio sintagmak dira iraupen-adierazpenaren hiru motak gauzatzen dituztenak. Mendeko perpausekin ere gauza bera dugu.

- Zenbaitetan, aditz nagusiko gertakaria *noizdanikoa* den esaten du mendeko perpausak, haren hasiera seinalatzen duen gertakari bat aipatuz. *Ezkundu zenetik Gernikan bizi da Ainhoa* perpausuan, esate baterako, Ainhoaren Gernikako bizialdiaren berri ematen da, bizialdi horrek hastapena noiz izan zuen seinalatuz: ezkontza egunean, hain zuzen. Iraupenaren aurreko muga seinalatzen da hor.

- Beste zenbaitetan, aditz nagusiko gertakaria *noiz artekoa* den esaten da, haren amaiera adierazten duen gertakari bat aipatuz. *Ezkundu zen arte gurasoan etxean bizi izan zen Ainhoa* perpausuan, adibidez, Ainhoaren elxeko bizialdiak izan zuen luzapenaren berri ematen da, azkena noiz izan zuen seinalatuz: ezkontza egunean, hain zuzen. Iraupenaren hondarreko muga seinalatzen da hor.

- Beste batzuetan, azkenik, mendekoak ez du berariaz ez lehen mugako ez azkeneko gertakari bat aipatzen, iraupenaren *tarte osoan* luzatzen den gertakari bat baizik. Hura noiz eta zenbat luzatzen den, aditz nagusiak dioena ere beste hainbeste luzatzen dela esaten da horrelakoetan. Ikus, esate baterako, *Unibertsitateko ikasle izan zen bitartean Bartzelonan bizi izan zen Ainhoa* perpausa. Mendeko perpausak ez du hor Ainhoaren Bartzelonako bizialdiaren ez hasierako ez hondarreko gertakariarik aipatzen, bizialdi horren iraupen bera duen beste zerbait baizik: unibertsitateko ikasle izatea, hain zuzen. Iraupenaren tarte osoa seinalatzen da hor.⁴

Hirurak ikusiko ditugu, banan-banan, ondoko ataletan.

2.3.1. Iraupenaren aurreko muga

Atal honetan aztertuko ditugun *-eNETIK*, *-eNEZ GERO* eta *-eNIK* menderatzaileek iraupenaren aurreko muga seinalatzen dute. Bi kontu dira horrelako perpausen bidez aditzera ematen direnak: gertakari nagusiak

⁴ Kontuan izanik 'iraupen osoko' adierazpen honetan gertakari biak, mendeko perpausuan seinalatzen direna eta nagusian aipatzen dena, aldi berean gauzatzen direla, aldiberekotasuna adierazten duten perpausen saillean ere sar daitezke horrelako perpausak (goiko 2.1.1 atalean, alegia). Izan ere, nozio biak biltzen dira perpaus horietan: 'aldiberekotasuna' eta 'iraupena'. Azken honi eman diogu guk lehentasuna geure sailkapenean.

'iraupena' duela, batetik –'lune puntual batean' gertatzen ez dela, alegia–, eta iraupen horrek 'hasiera' noiz duen, bestetik.

Iraupenaren azken mugaren berri, ordea, ez dute ematen perpausok, besterik eransten ez bazaie behintzat. Aditz nagusiak dioena noiz hasten den esaten dute, ez noiz amaitzen den, hau adieraztea ez baita haien egitekoan sartzen. Amaierari dagokiona edo esan gabe uzten da, axolarik ez duelako, edo inguruak iradokiltzen du. Hizketa uneraino iritsi daiteke denbora-tarte hori, edo perpausean berariaz aipatutako une bateraino, baina kontua irekia utziz, beharbada, hau da, haren jarraipena ukatu gabe:

- (126) a. Lanetik irlen naizenetik, Mikelen zain nago.
- b. Iaz esan zenidan lanean hasi zinenetik ez zenuela oporrik izan.
- c. Polizia gainean zuela sumatu zuenetik kontuzago ibili zen lapurra.
- d. Medikuak gaixo zegoela esan zionetik ez zuen burua alxatu gure aitak.

Lehenbiziko perpausean (126a), aditz nagusiaren orainaldiak garbi adierazten du hizketa unea dela zain egotearen muga; ordu arte luzatu dela, alegia, itxaronaldia; ez da esaten, ordea, hor amaitu denik, jarraipena izango baitu beharbada egoera horrek. Gauza bertsua bigarrenean ere (126b): oporrik ez izatea iaz arte luzatu zela esaten da, ondoko berririk ez dugularik. Hirugarrenean (126c), ez zaigu esaten noiz arte ibili zen kontuz lapurra, kontuz ibiltzen noiz hesi zen adieraztea baita hor axola duena, ez noiz arte eutsi ote zion horrela ibiltzeari. Eta laugarrenean (126d), azkenik, berariaz eta espresuki esaten ez bada ere, iradoki egiten de –testuinguruaren jabe direnentzat behintzat bai– aita bururik altxatu gabe bizitzea haren heriotza arte luzatu zela; ete, mundu honen berri dugunok, badakigu handik aurrera ez zuela jarraipenik izan, heriotzak eman bailzion azkena egoera horri.

Hizketaren gorabeherak dira horiek guztiak, behar denean testuinguruak argitzen dituenak. Hori bai, iraupenaren muga biak ere adieraz daitezke berariaz perpaus batean, hala nahi izanez gero, aurreko muga seinalatzen duten perpaus hauei amaiera adierazten duen sintagma bat erantsita, mendeko perpaus izan edo ez: *joan zenetik gaur arte, kurtsoa hasi zenetik ekaineko azterketak arte, matrikulatu zenetik kurtsoa amaitu zen arte...*

Kontua da, ordea, ondoren aipatuko ditugun menderatzaileek, berez eta besterik adierazten ez denean, denbora-tarte baten aurreko muga adierazten dutela.

2.3.1.1. –eNETIK

a. Ablatiboko postposizioarekin eraturiko –eNETIK formak, bada, aditz nagusiak dioena *noizdanikoa* den seinalatzea du berezko eginkizun. Testuinguruak besterik esaten ez badu, denbora-balioa egozten diogu forma honi ere, –eNEAN menderatzaileari bezala: *joan zinenetik, eraman zuenetik* eta horrelakoak entzuten ditugunean denbora-adiera egozten diegu berez, testuinguruak bestelako adiera duen erlatibo arrunt gisa ulertzeko bidea ematen ez badigu (ikus 2.0.2). Erlatibo arruntak dira, esate baterako, ondoko adibideetako perpausak:

- (127) a. Gose bazara, *dagoenetik* jan beharko duzu.
 b. *Lurak ematen duenetik* bizi dira nekazariak.

Beste adibide hauetan, ordea, denbora-esanahia da nagusilzen dena:

- (128) a. *Jaiki naizenetik*, orrelakolxe zerbaiten amesetan nenbillen, eta nere zorionerako Jaunak nere bidean ipini zaitu, ifolaz ere (N. Etxaniz, *Lur berrin bifa*, 186).
 b. *Iriarte ixildu zenetik*, Mattin izan da ene ardureneko laguna (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 49).

Horrelakoak dira hemen aztertuko ditugun perpausak.

Hasteko, kontuan izan behar da aditz nagusiko gertakaria denbora-tarte batean luzatzen dena izaki, ezin dela une puntual batean gertatzen dena izan, iraupena duena baizik –egoera edo ariketa bat adierazten duena, alegia–:

- (129) a. *Lanean hasi denetik ez zaio dirunk falta poltsikoan*.
 b. *Partida irabazi zutenetik pozez zoratzen daude*.
 c. *Lanean ari da*, jaiki denetik.

Aditz nagusiak une 'puntual' bateko gertakaria adierazten duenean, perpausa ez da gramatikala:

- (130) a. **Loteria irabazi zuenetik, auto berrin erosi du*.
 b. **Aretoa ireki dutenetik sartu naiz*.

Gramatikalak dira horrelakoak, ordea, balio errepikakorra edo plurala baldin badute, balio horiek bat baitatoz denbora-tartearen nozioarekin:

- (131) a. *Loteria irabazi zuenetik, urtero erosi du auto berrin / auto asko erosi ditu*.
 b. *Aretoa ireki dutenetik bitan sartu naiz / jende asko sartu da*.

Gertakari bat baino gehiago aipatzen direnean ere, eta, beraz, mendeko perpaus bat baino gehiago ditugunean, gramatikalak dira perpausak, 'pluraltasun' hori bat baitator 'iraupenaren' nozioarekin:

- (132) a. *Loteria irabazi zuenetik, auto berrin erosi du eta etxerik aldatu da*.

Horregatik, ingururik gabe 'puntualizat' har daitezkeen aditzek iraupenaren balioa izaten dute –*NETIK* perpausarekin doazenean, balio hori hartzeko gai baldin badira behintzat. Horrela gertatzen da, esate baterako, honako adibide hauetan:

- (133) a. *Nagusia errieta egin zionetik, garaiz iritsi da Mikel lanera*.
 b. *Lagun horiekin hasi denetik diru gehiago dakar Korok*.

Testuinguru horretan, 'Mikel egunero iritsi dela garaiz' ulertzen da, eta 'diru gehiago ekaritzen duela beti Korok'.

Mendeko aditza, berriz, bai, hura 'puntuala' izan daiteke, hots, denbora-tartearen hasierako gertakaria baizik adierazten ez duena (134a). Izan daiteke, ordea, gertakariaren errepikatzea (134b) edo iraupen osoa (134c) adierazten duena ere:

- (134) a. *Etxean sartu denetik lelebistaren aurrean dago*.
 b. *Anoetara joaten denetik futbolzale amorratua bihurtu zaigu*.
 c. *Aurreko kalea berritzen ari direnetik, hautsa baxenik ez dugu etxean*.

Azken bietan honako hau esaten da: mendekoak seinaiatzten duen gertakari errepikatua edo ariketa 'hasi zenetik hona' gertatzen dela esaldi nagusian adierazten dena.

Aurreko mugaren adierazpena indartzeko, bestalde, *beretik / bertatik* aposizioa eranstean da inoiz:

- (135) a. *Hastetik, egin zenetik beretik* eman zeraukan lainkoak gizonari lege naturala (P. Axular, *Guero*, 272).
b. Badirudi, haatik, euskarazkoak, *burua jasotzeko imintzloa egin zutenetik bertatik* lehengo mailatik gora abiatzekotan hasi zirela (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 45).

Eta, bestalde, nozio hori zerbait zehaztu edo ñabartzeko, *aurrera, hona* eta horrelako adberbioak izaten ditu maiz perpausak ondotik, forma konplexuak eratuz, *handik aurrera, ordutik hona* eta horrelakoen pareko direnak. Adberbio bakoitzak bere ñabardura eranstean dio menderatzaileari. *Aurrera*-k iraupenaren nozioa indartzeko balio du ñabardura berririk erantsi gabe (136a), eta *hona* adberbioak iraupena hizketa unera arte luzalzen dela ematen du aditzera (136b), haren jarraipena nahitaez ilxi gabe, hala ere, gorago esan dugun bezala.

- (136) a. *Onoz ikasi zuanetik aurrera*, alkarren adiskide ta lagun ezagutu genduzan (D. Aguirre, *Garoa*, 126).
b. *Lurra lur denetik hunat* horrela egin izan da jendaia guzietan (J. P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 57).

b. Inoiz, kausa edo azalpena adierazteko ere erabiltzen da *-eNETIK* menderatzailea, bizkaieraz batez ere:

- (137) a. *Andre ixil eta fiña zanetik*, batzuk esaten eben, gizona ez aukala baztertuta (A. Zubikarai, *Ixastarrek* 46).
b. [...] bera, emaztia, *andrakumia zanetik*, makelegixa izango zala zeregiñ artarako, eta bere kontu, gizon leiz, biarko zala ulzi zigortzia alperiori (T. Elxebarría, *Ibiltarixanak*, 470).

2.3.1.2. *-eNEZ GERO*

a. Denborazko perpausak egiteko baino areago kausa adierazteko erabiltzen da *-eNEZ GERO* menderatzailea (ikus 4.4.4), zerbaiten ondoren datorrena haren ondorioz datorrelako ikuspegiaren eraginez-edo.

Denbora adierazteko ere erabiltzen da, ordea, *gero* postposizioak berezko duen denbora-adierak balio hori ematen diolarik. Iraupenaren aurreko muga seinaiatzten du horrelakoetan:

- (138) a. Itzulpen ugari izan dugu gure artean *euskal literatura asi zan ezkeroztik* (Gaztelu, *Musika ixilla*, 5).
b. *Kondea joan zanez geroz* Jenobaba bere jauregian bakardaderik andienean bizi zan (G. Arue, *Santa Genoveva*, 14).
c. *Zaldi ganera igon garean ezker*o eztozu mendijolan ur tanta bera be edan (Oxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 111).

b. Menderatzaile honek aldaera bat baino gehiago ditu euskalki guztietan. Iparraldekoetan *-eNAZ* forma hartzen du instrumentalaren hondarkiak, *-eNAZ GERO*, *-eNAZ GEROZ* eta *-eNAZ GEROZTIK* aldaerak sortuz. Hegoaldekoetan, berriz, *-eNEZ* da instrumentalaren forma eta *-eNEZ GERO*, *-eNEZ GEROZ*, *-eNEZ GEROZTIK* sortutako aldaerak.¹⁰

Aldaera guztiak erabil daitezke aipaturiko balio bietan, kausazko balio nagusian eta baita denborazkoan ere. Maiztasunak, halaz ere, ez dira batere berdinak.

Hegoaldean, *-eNEZ GERO* eta *-eNEZ GEROZ* dira forma erabilienak, eta horiek dira, hain zuzen, maizenik balio kausala dutenak. Denborazko lekukotasunak aurki daitezke, hala ere, tradizioan. Hona balzuk, gorago eman dugun (138b eta c)-z beste:

- (139) a. Zabalako gure mutil sendoai uste bat sortu ta arne zitzaian: bakoitza beregain jaritza, ta uste ori ernatzen asi zan ezkeru etzeuden ondo beren jaiotetxean (D. Aguirre, *Garoa*, 32).
- b. Gizona gizona denez gero, zer den galdezka ari da (K. Mitxelena, *Mitxelena-ren Idazlan Hautatuak*, 15).
- (140) a. [...] *jaio giñan ezkeroz* ez degu ikusi beste gauzarik, baizik loa eta ura (A. Iturriaga, *Fábulas*, 117).

Aldaera konplexuena, *-eNEZ GEROZTIK*, da gulgien erabiltzen dena. Bera da, ordea, denbora-balioan leku zabalena duena, *-TIK* postposizioak ematen dion abiatze adiera nagusitzen delarik.

- (141) a. 1923garren urlean bete ziran bada eun urte, *Pernando ii zan ezkeroztik* (G. Mujica, *Pernando Amezketarra*, 7).
- b. *Nagusia ii zanez geroztik* etxeinguruko lan-xamarrek erabiltzea du egitekorik bakarra (T. Agirre, *Uztaro*, 12).
- c. Egiteko horretan ari dira *Jainkoak gizajendea sortu zuenez geroztik* jakintsu-*ezjakin*ak eta ez dute oraindik hondarrak jo (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak II*, 101).
- d. Aundiak bagera euskaldunak geren jalariz, asko gehiago aunditu gera *Kristoren fedeaa biotzean sartu genuen ezkeroztik* (D. Aguirre, *Aurumendiko lorea*, 6).

Iparraldeko euskalkietan, kausa adierazten dute ia beti hiru forma hauek, erabilienak *-eNAZ GEROZ* eta *-eNAZ GEROZTIK* direlarik. Denborazko lekukotasunak oso urriak dira tradizioan. Baten bat bada, halaz ere:

- (142) a. Eta hek, *Galilean zenaz geroztik* iarreiki izan zaizkan eta zerbitzatu ukhan zuten (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, 95).
- b. *Naizenaz geroztik munduan agertu*, / Plazerik ez dut dastatu (L. Goyhetché, *Fableac*, 5).

¹⁰ Azken hauen ebakera *ezkeru*, *ezkeroz* eta *ezkeroztik* izaten da maiz, unitate hori aurrean duen aditzetik berezita: *duen ezkeru*, alegia. Idatzi ere horrelaxe idatzi izan da Hegoaldean batasuna arteko urteetan. Euskara batuan *-(e)z gero* idaztea proposatzen da atal honetan aztertzen ari garen moduko perpausetan: *hori egin duzunez gero*. Eta, halaber, partizipioarekin eratutuan: *hori eginez gero*. Orduekin, hala ere, eta oro har denbora postposizio gisa erabiltzen dencan, bietara idatz daiteke: *hamarrez gero* / *hamarrak ezkeru*; *San Fermin ezkeru* / *San Ferminak ezkeru*; *atzo ezkeru* / *atzo ezkeru* (Arauk, 143). *Honezkeru*, *horrezkeru* eta *harrezkeru* formak, berriz, lotuta idazten dira beti.

- c. Gizonaren inihian gau eta egun dabilla, / Eta sosegurik ezlu non ezlakusan hilla,
/ Ezen amaganik haurra denaz gero mundura, / Pausu gabarik darraio oih-
hatzetik ardura (J. Etcheberri Ziburukoa, *Manual devotioezcoa I*, 43).

c. Denborazko balioa duelarik iraupena adierazten duenez honek ere, predikatu nagusiko aditzak ez du une 'puntual' batean gauzatzen den gertakaria adierazten, denboran luzatzen den egoera (143a), ariketa (143b) edo ekinlza (143c) baizik:

- (143) a. Enderlartzako aldetik asi ziranez gerotik *Poli biotza estututa zegoan* (A. Anabitarte, *Poli*, 71).
b. *Egiteko horretan ari dira* Jainkoak gizajendea sortu zuenez gerotik *jakintsu-ezjakinak* eta ez dute oraindik hondarik jo (K. Mixelena, *Euskal Idazlan Guztiak II*, 101).
c. Zaldi ganera igon garean *ezkero eztoгу mendijotan ur tanta bat bera be edan* (Otxolua, *Bertoldo eta Bertoldin*, 111).

Horregatik, predikatu nagusiak gertakari 'puntual' bat adierazten duenean, mendeko perpausak ez du denbora balioa izaten, kausala baizik:

- (144) Alea irekia zegoenez gero, *deitu gabe sartu naiz*.

Era berean, predikatu nagusia geroari dagokionean, hau da, geroaldia (145a-b), agindua (145c-d) edo subjuntiboa (145e-f) denean, mendekoaren balio kausala nagusitzen da:

- (145) a. Ezkontza zer den jakin beharrez zarenez gero hasia, / *arbola balen itxurarekin erranen dautzut guzia* (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 346).
b. Nere iritzia ontzat eman dezuten ezkerok, *batzordea izendatuko degu* (A. Labayen, *Euskal eguna*, 79).
c. Ordun, zarpail orrek ara oan ezkerok *esaiok*, ez didala axolik arengatik (Orixe, *Mireio*, 56).
d. Badirenaz gero oraino biziak, *Ahantzera uz-kitzu hilla* (L. Goyhetché, *Fableac*, 265).
e. Amodioaz dugunaz gero solasa, *hartan gauden, bertze nehorat zeiharkatu gabe* (J. Etchepare, *Buruchkak*, 96).
f. Iaua hala denaz gero zure borondalea, *gorputzetik parti dadin ene anima tristea* (J. Etcheberri Ziburukoa, *Manual devotioezcoa II*, 89).

Mendeko aditza, berriz, hasiera puntua adierazten duena izan daiteke (146), baina baita harekin batera iraupena adierazten duena ere (147), **-eNETIK** menderatzailea daramatenak bezala:

- (146) Orixe zan bere iritzia, orixe bere gogoa, *neskatilleagaz itz egiñ eban ezkerok befipeiñ* (D. Aguirre, *Kresala*, 154).
(147) [...] *nigaz abillen ezkerok ezeusteek emoten txuri erdirik baño* (Orixe, *Tornes-ko itsu-mutilla*, 17).

c. Menderatzaile hauek bi balio edo erabilera dituztela esatan ari gara behin eta berriro: kausala bata, eta denborazkoa bestea. Gehienetan garbi izaten da zein den perpausak duen balioa; esaldi nagusiak gertakari 'puntuala' adierazten duenean edo geroaldiari dagokionean, esate baterako, ikusi dugu balio kausala nagusitzen dela.

Beste batzuetan aditzen esanahiak argitzen du kontua: *Ameriketara joan zenez gerotik ez da itzuli diogunean*, esate baterako, garbi samar dago

denboraz ari garela, norabait joatea ez baita, arruntean behintzat, ez itzultzeko arrazoi izaten. Kausalen kapituluan esaten den moduan, bestalde, beste mendeko baten barnean txertatua denean ere denborazkoa izaten da –eNEZ GERO perpausa, azalpenekoak ezin baitu kokagune hori hartu (ikus 4.4.4). Hona han aipatzen den adibidea, hemen berriz emana:

- (148) Zu ni aña? Zuk neri agindu? Enrikeren onagatik ezer egingo etzenukena. *Etxe ontan negarra ta atsekabea sartu dan ezkeru pozik zaudena?* (A. Barriola, *Goi-Argi*, 63).

Ez dira falta, ordea, anbiguotasunerako bide ematen duten kasuak; perpausa batera zein bestera ulertzeko bide ematen dutenak, alegia. Hona adibide batzuk:

- (149) a. Kristau-artistek, *sinboloak utzi eta gertaerak hartu zituztenez gero gartzat*, Eguerri-Epifaniak izan dituzte ezer baino begikoago (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 75).
b. *Nagusi zaharra il zen ezkeroz*, Bettiriri zegokion baiezkoa ala ezezkoa ematea (Y. Etxaide, *Joanak-joan*, 239).

Adibide horiek, kausa edo azalpen gisa uler daitezke (*hartu zituztenez eta hil zenez*, hurrenez hurren) edo denbora-tarle baten hasiera gisa (*hartu zituztenetik eta hil zenetik*).

2.3.1.3. –eNIK ...–rA

Usadio zaharrea orain baino hedadura handiagoa zuen -IK hondarkia ere (EGLU I, 403-404) erabiltzen da inoiz, bizkaieraz batez ere, iraupenaren aurreko muga adierazten duen –eNIK menderatzailea eratuz. Ondotik adlatiboko forma bat izaten du esaldia osatuz: *hona, aurrera...*:

- (150) *Jaiu zanik aurrera* beti, molla-ganean bizi izan zan ontziburu azkarra (E. Erkiaga, *Amanegi*, 125).

2.3.2. *Iraupenaren azken muga*

2.3.2.1. –eN ARTE

a. *Arte* da denbora-tartearen azken muga adierazteko arruntean erabiltzen den postposizioa. Oinarri desberdinen ondoan erabiltzen da. Horrela, adberbioekin: *etzi arte*; postposizio sintagmekin: *igandera arte*; partizipioekin: *berriz etorri arte*. Adizki jokatuiko perpausetan, –eN ARTE forma hartzen du menderatzaileak:

- (151) a. *Uda amaitzen den arte* irekiak egongo dira hondartzako dubrak ele aldagelak.
b. Eta oraindik pasatuko da denpora, *arik eta burruka baretu eta isildu dedin arte* (L. Villasante, *Kristau fedearan sustraiak*, 43).
c. Ain maitia zuten izkuntza au, nun *ariketa gosiak estutu zituan arte*, jatiez etziran oroilu (C. Beovide, *Asis-co Loria*, 76).
d. *Gizon egin nitzan arte*, ez nuen, jauna, nik jakindu kapeik izaten zanik ere (M. Soroa, *Baratzan*, 90).

Perpauk hauek, esan bezala, esaldi nagusiko gertakariak azkena noiz duen adieraztea dute helburu. Ez dute, bada, berez eta besterik eranstean ez bazala behintzat, hasierako mugaren berri ematen. Horrela, lehenbiziko perpausaren (151a) ez da esaten noiztik dauden irekiak hondartzako dujak eta aldagelak, –udaren hasieratik ala lehenagotik, esate baterako–, axola duena ez baita hori, noiz arte egongo diren zabalik esatea baizik. Eta azken adibidean (151d), pentsa daiteke "*jaio nintzenetik*" moduko zerbait iradokitzen dela, baina ez da horrelakorik berariaz esaten. Hizketaren gorabeherak dira horiek, testuinguruak argitzen dituenak, argitu behar edo nahi direnean behintzat.

Mendeko perpausak, hau da, azken mugaren erreferentzia ematen duenak, gertakari 'puntual' bat adierazten du, denboran luzatzen ez dena, alegia: 'aterzea' –ez 'ateri egotea' (152a)–, 'txirrinak jotzea' (152b), 'filma hastea' (152c). Eta gertakari horrek adierazten du, hain zuzen, noiz arte luzatzen den eta non amaitzen den esaldi nagusiko gertakaria. Hau, izan ere, iraupena duena izaten da; egoera (152a) edo ariketa (152b), esate baterako, baina ez une 'puntual' batean gauzatzen dena (152c):

- (152) a. Atertu zuen arte, *etxean egon nintzen*.
- b. Txirrinak jo duen arte, *jolasan aritu dira ikasleak*.
- c. *Filma hasi den arte, *txantela erakutsi diot atezainari*.

Bestalda, –eNEAN perpausari buruz esan dugunak berdin balio du –eN ARTE perpaus hauek ere, aditzaren aspektuari dagokionez. Aditz nagusia geroari buruzkoa denean, mendeko aditza ez-burutua (153a), subjuntiboa (153b) edo, denbora-tartearen bururatzea berariaz azpimarratuz, burutua (153c) izan daiteke:

- (153) a. Atso aserreak Otsailari ostiko egiten dion arteño, etzoaztela (Orixe, *Mireio*, 77).
- b. Guazen lasterka, guazen Belena, ez degu bear gelditu, Jesus mailea jaio berria dezagun arte aurkitu (J. V. Echagaray, *Festara*, 240).
- c. [...] barnean berean harrotuko duzu arras hoztu den arte (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 123).

Perpauk hauek, bestalde, *hanik eta* partikula har dezakete ezkerrean, guztiz lehen buruan, iraupenaren aurreko muga modu abstraktuan seinatuz, *hemendik ... haraino* gisako egitura eraturik:

- (154) a. Eta oraindik pasatuko da denpora, *arik eta* burruka baretu eta *isidu dedin arte* (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 43).
- b. Eta ez nituen sinisten, *atik eta* nik neronek *ikusit ditudan arteño* (J. I. Iztueta, *Guipuzcoaren condaira*, 214).

b. Aurreko adibideetan ikusi den bezala, menderatzaile honek aldaera bat baino gehiago ditu: postposizioa bere hartan erabil daiteke, jakina, bestelako atzizkirik gabe: –eN ARTE; baina ondotik muga adlatiboaren hondarkia daramala ere erabil daiteke: –eN ARTIO (ARTEO) –ekialdean, batez ere– (155), –eN ARTEINO (156), –eN ARTERAINO (157):

- (155) a. Egizun ihez, *nausia dedin artio atzartu* (L. Goyhette, *Fableac*, 46).
- b. Ezarri unti batean garratz iduri gozo bat *har dezan arteo* (J. Duvoisin, *Dialogues basques*, 84).

- c. Bikote ori ezta oraindik oso, arik eta emankor izan *dedin* artio (L. Villasante, *Kristau fedearen susteriak*, 155).
- (156) a. Etzara obligatu pegalzera, pagatzeko ahala *dukezun arteiño* (P. Axular, *Guero*, 243).
- b. Also aserreak Otsaillari ostiko *egiten dion arteño*, etzoaztela (Orixe, *Mireio*, 77).
- c. O ene Jangoiko Jauna, ezlüt utziko, *bedeikanázan artáño* (J. Lizarraga, *Itzgeiac*, 41., 2).
- (157) a. Horra nolakoa zen gure sainduaren ofizioa Jainkoaren semeak *manatu zion arteraino* hari yarraikíteaz (B. Lameguy, *Testament çahar. berr. historico II*, 81).
- b. [...] eztaüt zelan egon nintzan goizeko zazpi ta erdietan Getariako potiñ batek *artu genduzan arteraño* (D. Aguirre, *Kresala*, 92).
- c. Birikeria (...) batez ere, oso zabaldua zegoan frantsezak *sendatzen asi ziran arteraño* (A. Anabitarte, *Aprika-ko basamortuan*, 85).

Izenlagun bihurtuta¹¹ eta izenlagunari ondotik inesiboko hondarkia erantsita, **-eN ARTERAINOKOAN** forma konplexua sortzen da, **-eN ARTERAINO** sinpleagoaren balio bertsua duena:

- (158) Damu hunek ez du [...] bere etsaiak, *benzutu dituen arteraño*koan pertsegilzetik arrastatzen (J. Haraneder, *Gudu izpirtuak*, 50).

Berdin inesiboaren lekuan *guztian* zenbatzailea duela:

- (159) Eta oratu omen zion mutilak adar bietatik portizki; bai eta eutsi ere irme, zezena arras *aunatu zan arteraño*ko *guztian* (J. I. Izlueta, *Guipuzcoaren condaira*, 251).

c. Balioari dagokionez, esan beharra dago forma horien *guztien* ohiko eta berezko balioa iraupenaren azken muga adieraztea den arren, inoiz-edo iraupenaren tarte osoa adierazteko ere erabiltzen direla. Iraupena adierazteko modu bi horien arteko aldea hain da txikia, non hiztunek nahasi egiten dituzten ez gutxitan, bati dagokion menderatzailea bestearen balioarekin erabiliz. Horrela gertatzen da zenbaitetan **-eN ARTE** formarekin (160); gutxiagotan adlatiboko alzikkia dutenekin: **-eN ARTERAINO** inoiz (161), eta **-eN ARTEINO** bakan (162):

- (160) a. Biziko zara baña zu emen, *! Munduak dirauen arte* (F. Arrese Beitia, *Ama euskenaren liburu kantaria*, 12).
- b. Zeñaren ausardi, balore eta erulasun pare bageak gogoango diraden munduan *mundu dan arte* (J. I. Izlueta, *Guipuzcoaren condaira*, 504).
- c. Zauriturik eta kresal asko edaten ebala *ebillanarte*, galdu ebazan inddarrak (J. M. Echeita, *Josecho*, 339).
- d. Oraifñ sasoa *daukazun arte* / onla ibiltzen bazara (Txirrita, *Txirritaren Bertsoak II*, 175).
- (161) a. *Denbora den arteraño* egin erremedio (J. Etcheberri Ziburukoa, *Manual devotioñezcoa I*, 25).
- b. Eliza betikoa da, *ta*, Munduan *dirauen arteraño* iraun-beharra (J. A. Ubillos, *Cristau doctriñ berr-ecarlea*, 95).
- c. Azal uts utsal txulik *daukan arteraño* ematen du alsa (J. I. Izlueta, *Guipuzcoaren condaira*, 151).

¹¹ Ikus, esate baterako: 'Jesu-Kristo gure Jauna zerura *igo zan artera oko berriak*' (F. J. Iardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, prol).

(162) *Beti ere laño iraungo / Jauntxorik degun arteño* (S. Mitxelena, *Arantzazu*, 71).

Gauza bera gertatzen da, alderantziz, iraupenaren tarte osoa adierazten duten menderatzaileekin ere, hurrengo atalean ikusiko dugun bezala: ohiko balioa hori badute ere, inoiz azken muga adierazteko erabiltzen dira (ikus 2.3.3.3).

2.3.3. Iraupenaren tarte osoa

Atal honen aurkezpenean azaldu dugun moduan, bada hirugarren modu bat aditz nagusiko gertakariaren iraupena adierazteko: iraupenaren tarte osoa bera seinatzea. Mendekoak ez du, horrelakoetan, *noizdanikoa* ez eta *noiz artekoa* ere berariaz adierazten, denbora jakin batean luzatzen den tarte bat baizik. Hasierako eta hondarreko mugak edo ez dira ez aipatzen ez iradokitzen, axola ez dutelako, edo testuinguruaren arabera ulertzen dira:

(163) a. [...] *osagarritan zireno, hanix obra hun egiten ahal düzü* (M. Maister, *Jesu-Kristen imitacionia*, 68).

b. *Mundu onetan bizi geran bitartean, guda edo gerra degu barrengo ta kanpoko etsaiekin* (J. A. Ubillos, *Cristau doctriñi bera-ecarlea*, 149).

Lehenbizikoan, osasun ona izatearekin lotzen da obra onak egitea, mintzakidearen osasuna noiz hasi eta noiz amaitzen den iradoki ere gabe. Era generikoan egiten da baieztapen hori. Bigarrenean, jaiotza eta heriotza dira iradokitzen diren mugak. Hori, ordea, esan bezala, testuinguruari dagokion kontua da.

2.3.3.1. -eNO

a. Menderatzaile honek, egungo erabileran, iraupenaren denbora-tarte osoa adierazten du, ondoren ikusiko dugun -eN **BITARTEAN** menderatzaileak bezala:

(164) a. *Mundu huntan zineno, egiaren eta zuzenaren ondolik ibili zira* (J. Etchepare, *Buruchkak*, 21).

b. *Bizi nizano oroituko naiz ene herriko itzegileaz* (J. Etchepare, *Buruchkak*, 65).

Hots, "mundu honetan zinen denboran", "bizi naizen bitarte osoan" gertatzen da perpaus nagusietan esaten dena. Iraupen hori bera tarte osoa seinatuz egin beharrean, azken muga seinatuz adierazi nahi bagenu, "mundu honetatik joan arte", "hiltzen naizen arte" edo horrelako zerbait esango genuke. Argi ikus daiteke perpaus mota bien arteko aldeia Axularren testu honetan:

(165) *Zeren lainkoak ezin barkha diazaio bekhatoriari, bekhaturan dagoeiño, helan atsegin hartzen dueiño, hetarik apartatzera delibera arteiño* (P. Axular, *Guero*, 95).

Denborazko hiru perpaus daude testu horretan, iraupena adierazten dutenak hirurak. Lehenbiziko biek haren tarte osoa adierazten dute: *bekatutan dagoeno*, hau da, *bekatutan dagoen denbora guztian*, eta *hefan atsegin hartzen dueno*, hots, *haietan atsegin hartzen duen denbora guztian*. Hirugarrenean, aldiz, denbora horren azken muga gertatuko den zerbait aipatzen da: *bekatutik apartatzeko erabakia hartzea*. Horregatik honetan ez da -eNO menderatzailea erabiltzen, *partizipioa* + **ARTERAINO** egitura baizik.

Menderatzaile hau daraman perpausako aditza iraupena adierazten duena izaten da, jakina, muga seinatzen dutenak ez bezala. Horrela, egoera adieraz dezakete (*dagoeno, bizi deno*) edo ariketa (*ari deno*). Ekintza adierazten duenean, ez du balio puntuala, iraupenekoak baizik: *erraiten dueno* ez da, hortaz, *noizbait erran dezan arte*, baizik eta *erraiten ari den bitartean* edo *behin eta beriz erraiten duen bitartean*. Ikus ondoko adibideak:

(166) a. Zergatik Ebanjelioa *erraiten deno* (...) haren althian pizten da xirioa (A. Belapeyre, *Catechima laburra I*, 144).

b. Hirur zóhain sorthúko dúlúk hire etxearen khantian eta eder eginen, hire semeak untsa *juaiten direno* (J. F. Cerquand, *Iparraideko Legendak I*, 55).

Gertakari 'puntuala', bada, ez da baliagarri egitura honetarako: **trena iritsi deno, ixrarongelan egon gara*. Horrelakoak gramatikalak dira iraupeneko gisa ulertzen badira, errepikatzeak edo pluraltasunak balio hori ematen dietelarik: *goizero garaiz iritsi deno, ez du arazorik izan Pellok lantegian*; edo *jendea etorri deno pozik egon dira dendariak*. Baina ez, esan bezala, une bateko gertakari gisa ulertzen direnean.¹²

Esaldi nagusiko aditzak ere iraupena adierazi ohi du —mendekoaren iraupen bera, hain zuzen ere—:

(167) a. [...] bizi zireino *baziruditen zerbait zirela*, eta oraiakoan ezta nihor hetaz minzaltzen (S. Pouvreau, *Jesusen Imitacionea*, 29).

b. Erabaki gabe dago auzia eta *horrelaxe iraugo du* mundua mundu deino (K. Mitxelena, *Mitxelenaen Idazlan Hautatuak*, 315).

c. Etengabeko galdegite hau ez da oraindik bukatu, *ezta bukatuko ere* gizona gizon deino (ibid., 15).

Bera bizi guztian 'ziruditen zerbait zirela', lehen adibidean (167a); mundua mundu den bitarte osoan 'iraugo du horrela' auziak, bigarrenean (167b). Hirugarren adibidean, berriz, maiz egiten den bezala, iraupena ezezka adierazia dago: gizona gizon den bitarte guztian galdegite hau 'ez da bukatuko' (167c). Ikusten denez, aldiberekotasun totala da hori, esaldi bien arteko denborek elkar besarkalzen baitute (ikus 2.1.1.1).

Horixe da, bada, perpaus hauen ohiko jokabidea. Ez da guztiz debeku, hala ere, esaldi nagusiak gertakari puntual bat adieraztea, aldiberekotasun partzialean egin ohi den moduan:

(168) a. Hobe da *orai*, ordia hun deno, *bilkhvra egitia* (M. Maister, *Jesu-Kristen imitacionia*, 68).

b. Eta halatan hanbatetan abisatzen gaitu geure laungoikoak [...] orai bizi gareino, *geure bekhatuak erremedia ditzagula* (P. Axular, *Guero*, 396).

¹² Gaur egungo jokabidea da hori. Erabilera zaharragoan iraupenaren tarte osoa adierazteko ez ezik, azken muga adierazteko ere balio zuen. Eta bigarren adiera honetan gertakari puntuala aipatzen du, noski, mendeko perpausak. Lafittek bietako adibideak ematen ditu bere gramatikari: *hemen deno* ('tant qu'il est ici') eta *helitu deno* ('jusqu' ce qu'il arrive') (*Grammaire basque*, 399, cf. 458). Leizarragak azken erabilera honetarako **iro*, **ezan* eta **edin* aditzen formak erabiltzen ditu, *-ke-* morfemarekin inoiz: *renda dirano, iragan daiteno, egin ikaitzekeno, paga liezakeono, derrakezueno*... (J. Leizartaga, *Testamentu berria*, 7v, 7, 48, 35v eta 46, hurrenez hurren).

Perpau hauetan esaten dena da *seinaiaturuko denbora horren barruan* egin behar dela perpau nagusian adierazten dena, *bitarte hori* pasatzen utzi gabe, alegia.

b. Batez ere Iparraldeko euskalkietan erabiltzen den forma hau *-eNO* eta *-eINO* aldaerekin ageri da lehengo autoreetan:

(169) a. Hobe da orain, ordia hun *deno*, bilkhüra egitia (M. Maister, *Jesu-Kristen imitacionia*, 68).

b. Zamaria gazte *dagiño* hezten da (P. Azular, *Guero*, 87).

Gaur egun, ordea, *-eNO* aldaera nagusitu da eta horixe da erabiltzen den bakarra. Hegoaldean forma hori darabilten autore bekanak dira salbuespen:

(170) a. Besterik nahi luke: mundu honetan *gaudeino* denboraren joana gelditzea edo (K. Mitxelena, *Mitxelena-ren Idazlan Hautatuak*, 338).

b. Lanak eman behar dizkigu haize gogaikarri honek etxera *hel gaitozeino* (Y. Etxaide, *Joanak-joan*, 199).

c. (...) ez dugu Lafitteren jokabidea beztu nahi, geurea zuritu baizik, eta osasuna *duguño* geure burua sendatu (P. Altuna in J. Haraneder, *Testament berria*, v).

c. Azkenik esan behar da forma hau eskuarki denbora-tartea adierazteko erabiltzen bada ere, leku-tartea adierazteko ere erabiltzen dela inoiz:

(171) a. Azken mendixkatik, *bistak emaiten ahal dueno*, zelaia da (J. L. Davant, *Iparraren bila*, 13).

b. Leihu zabaletik, zelaia dakusat *bistek emaiten dueno* (Y. Etxaide, *Joanak-joan*, 135).

2.3.3.2. *-eN BITARTEAN*

a. *Bitartean* postposizioarekin eratzen den menderatzaile hau ere iraupenaren tarte osoa adierazteko erabiltzen da, hasierako eta hondarreko mugak berriaz aipatu edo ez:

(172) a. Zenbalek nere aitaren etxean ogia naroro jango dute, *ni emen goseak itzen naukan bitartean* (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 417).

b. Tomas Arrola onela mintzatzen zen *bitartean*, Prantxiskari negarra zerion (A. M. Zabala, *Gabon gau bat*, 39).

Perpau horietan ez da berriaz esaten noiz hasi den eta noiz amaituko den 'gose egoera' (172a) edo 'mintzaldia' (172b). Esaten dena da egoera edo ariketa horrek irauten duen bitartean irauten duela esaldi nagusiko gertakariak ere. Aise ikusten den bezala, bada, mendeko perpauaren predikatua iraupena adierazten duena da. Ezin izango da, jakina, gertakari puntuala adierazten duena, puntualak 'bitarterik' ez baitu. Beraz, irispenera edo zerbaiten bururatzera adierazi ohi duten predikatuak, menderatzaile honekin doazenean, denboran zerbait luzatzen diren gertakari bezala ulertzen dira:

(173) a. *Azkeneko itz oneik jaulki zitun bitartean*, eskuen artean estulu ta laztandu zun maiteki Malentxoren esku xaloa (T. Agirre, *Uztero*, 62).

b. Baño indarra arzeko atzeraka egin zun *bitartean*, eltzen dio laister meakelatik Provenza'ko legera, ta sardeak garia bezala yaurtiltzen du burutik atzera, saietsez zelaia yotzeraño (Onix, *Mireio*, 59).

Perpaus horietako aditzak guztiz puntual modura ulertuko bagenu, aipatu gabeko une batetik hitzak jaulkitzea arteko denboraz ariko ginateke, hau denbora-tartearen azken mugatzat hartuz, *jaulki zituen arte* esango bagenu bezala, alegia. Ez da hori, ordea, kontua. Hitzen jaulkitzea prozesu modura ulertzen da, *jaulkitzen ari zen bitartean* esango bagenu bezala. Eta berdin (173b)n, *atzeraka egin zuen* unea, *atzeraka egiten ari zen* unea bezala ulertzen da.

Era berean, *hura etortzen den bitartean* bezalako esaldiak ez ditugu ulertzen 'hura etorri arte' gisa, denbora-tartearen mugatzaile moduan, baizik eta 'hark etortzen jarraitzen duen bitartean' edo horrelakoren bat. Horrela gertatzen da ondoko adibide bi hauetan:

- (174) a. Ehortzen zaika eritasuna, hurbiltzen zaika heriotzea, batzen da etsaiarekin, eta gero nola ezpartago usatua eta ez prestalua, *prestatzen den bitartean* egiten du etsaiak hartaz nahi duena (P. Axular, *Guero*, 347).
- b. *Mamitzen den bitartean*, sorkaria, ustegabeko gertaera da egitearentzat; ikusgai hutsala besteentzat (K. Mixelena, *Euskal Idazlan Guztiak II*, 133).

Axularren testuan, *prestatzen den bitartean* hori ez da 'prestatzen den arte' gisa ulertzen, prestatzea azken buruko gertakari balitz bezala, baizik eta 'prestatzen ari den bitartean' bezala. Eta *mamitzen den bitartean* ere ez da 'mamitu arte', baizik eta 'mamitzen ari den bitartean'.

Edozein modutan, denboraren adierazpen hauen arteko hurbiltasuna dela eta, gerta daiteke berez iraupena adierazteko den menderatzaile hau muga adierazteko erabiltzea inoiz. Horrelakoa izan daiteke, beharbada, ondoko hau, nahiz eta beti egon daitekeen zalantza 'haserrea igarotzea' prozesu gisa hartzen ez ote den:

- (175) Job Santuak oroiturik Jaunaren ordu onetako aserreaz dio: Nork eman lekikedan infernuko su, eta garren artean ezkutaturik egotea, *zure aserrea igarotzen den bitartean* (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac III*, 462).

Eta horrelakoa da, seguruenera, ondoko hau:

- (176) *Itzul nadin bitartean*, bidea laburra baita, larra itzazu auntzak (A. Ibiñagabeitia, *Bergiliren idazlanak osorik*, 59).

Dena dela, horrelakoak ez dira ohikoak. Menderatzaile hau erabiltzekotan ezezkako itzulian egiten dugu: *itzul ez nadin bitartean* (ikus 2.3.4).

Esaldi nagusiko predikatua ere iraupena duena izaten da maiz, gertakari bien arteko aldiberekotasuna totala adieraziz –egoera (177a), ariketa (177b) edo ekintza (177c)–, baina puntuala ere izan daiteke, hartara aldiberekotasuna partziala delarik (177d, e):

- (177) a. Idien ibillari erantzunaz, golde-ortzak lurra ezker-eskuitara erdibikalzen zuen bitartean, *basopetik begira zegokien naska mailtemindua* (T. Aguirre, *Uztaro*, 265).
- b. Mokoka ta zalapartaka ziarduen bitartean, *banaka banaka zenbatu zitun Libek egazti jaleak* (Ibid., 112).
- c. Jaten zeuden bitartean *morroiak egur batzuekkin anganilla sendo bat egin zuten* (G. Arue, *Santa Genoveva*, 116).
- d. Sagarrondo baten gerizpean izkelan ari ziran bitartean, *etxeburuko langatik zear ezaldu zan Libe, une artan, eguzki-izpia bezin oder* (T. Agirre, *Uztaro*, 303).

- e. Ordu batzuk geroago, eguna zabaldu baño len, Zabaletakoak lotan dauden bitartean, *Josek, jai-soñeko z jantzirik, sagastegiko estretan bere, Oñatirako bidea artzen du* (D. Aguirre, *Garoa*, 276).

Azkenik esan behar da, **-eNEAN** ez bezala, **-eN BITARTEAN** erabil daitekeela, egoera edo ariketa burutugabeak adieraziz, solas unea barnean delarik:

- (178) a. Ni etxean nagoen bitartean, zu kalean zbiltza.
b. *Ni etxean nagoenean, zu kalean zbiltza.
c. Ni lanak egiten ari naizen bitartean, zu telebista ikusten ari zara.
d. *Ni lanak egiten ari naizenean, zu telebista ikusten ari zara.

* ikurraz seinalatu ditugun perpaus horiek hizketa uneko orainari dagozkionean dira ez-gramatikalak: *orain etxean nago, eta zu kalean zbiltza*. Egokiak dira, jakina, balio errepikatzaila edo generikoa dutenean: *ni etxean nagoenean, zu kalean zbiltza beti*.

b. Goi nafarrerako **-eN BITARTEO (BITARTIO)** eta gaur egun garai batean baino erabilera urriagoa duen **-eN BIZKITARTEAN** aldaerak ditu menderatzaile honek:

- (179) Zerén gorpúta laneán *enpleatzen den bitárteo*, baitagóke arima okupátzen Jainkoa baitan (J. Lizarraga, *Programa de vida cristiana*, 96).
(180) a. Erratziketzu zuk ere othoiltz hauk, aphezak aldarean bereak *erraten luen bizkitarteán* (J. Elcheberri Ziburukoa, *Eliçara erabiliteco liburua*, 41).
b. Bera urrutietan *ibilti zan bizkitarteán* igaro zitzaion guzia nagusiek kontatu zion (G. Arrue, *Santa Genoveva*, 89).

c. Oinarrizko eta ohiko balioa denborari dagokiona du menderatzaile honek, ikusi dugun moduan. Denbora adierazpen horretatik kontraste gisakora igarota, ordea, aurkaritza ere adieraz dezake:

- (181) Batzuk munduko ondasun guztien jabe diren bitartean, beste batzuek ogi pusketara bat eskuratzeko modurik ere ez dute.

Hor denbora baino areago egoeren kontrastea adierazi nahi da: batzuek asko dute eta beste batzuek, berriz, gutxi. Esan behar da, hori bai, denborazkoa duela egitura honek oinarrizko balioa, eta horretan erabiltzen dela maizenik. Errazago onartzen da, bestalde, kontraste gisako balioa mendeko perpausa nagusiaren aurretik doanean, ondoko adibideek erakusten duten moduan:

- (182) a. [...] frantsesak *diph tongue* idazten duen bitartean, *diph tong* agertzen da bai ingelesez bai alemanez (K. Mixelena, *Euskal idazten Guztiak VII*, 183).
b. Neska txikiak bere panpiña maitekiro goxatzen duen bitartean, bere nebaok ezio batere jaramonik egiten. Onak bere joera izango du gerrara eta berunezko soldaduetara (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 133).

Ondoko adibideko erlatibo arruntak leku-bitartea adierazten du:

- (183) *Urko aldeko tontorrek eta Galdaramiño aldekuak lagatzen daben bitartian*, Eibar (T. Etxebarria, *Lexicón de Eibar*).

2.3.3.3. -eN ARTEAN

Menderatzaile hau, besteak ez bezala, iraupena adierazteko modu bietan erabiltzen da. Denbora-tarte osoko gertakaria adieraz dezake, baina baita azken mugako gertakaria ere, adierazpen mota bakoitzean dagozkion ezaugarriak dituelarik.

Hona iraupenaren tarte osoa adierazten duten adibide batzuk:

- (184) a. Gurekin bethi zaudete / *bizi garen artean* (J. Etcheberri Ziburukoa, *Noelac*, 158).
- b. *Giltza gordeta dan artian*, giltzpeko gauzak gordeta dagoz (Fray Bartolome, *Icaskizunac II*, 243).
- c. *Eguna dan artean*, bialdu ninduenaren lan miragarriak egin bear ditut (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 414).
- d. Aila, bakerik ez badezu ere, pipa bete belar izango dezu, dio Inaziok, *ni bizi naizen artean* (A. Apaolaza, *Pabiko Txerren*, 25).
- e. Erran gabe doa, *Joan-Eder hola mintzo den artean*, guziak irriz ari zaizkola (J. Barbier, *Légendes*, 26).

Perpaus hauen ezaugarriak iraupena adierazten duten gainerako perpausok dituztenak dira (ikus 2.3.3.1 eta 2.3.3.2). Horrela, mendeko predikatua iraupena adierazten duena da hemen ere: egpera (184a-d), ariketa (184e).

Hondarreko muga seinatlatzen duenean, berriz, une bateko gertakari 'puntuala' adieraz dezake (185a-b), eta baita oraindik gauzatu gabeko gertakaria ere (185c-d); aurretik *harik eta* partikula ere eraman dezake (185e):

- (185) a. Bere bularrean azi zuen, *titia kendu zion artean* (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 23).
- b. Labur da, eta zuek ez asperzeagatik, *kontua ekarten duten artean* kontaluko dizuet, hitz bitan (G. Aresti, *Ipuinak*, 66).
- c. Zuretzat egin ginduzun eta gure biotza ezin egon diteke lasai zugar *kokatu dadin artean* (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 144).
- d. Hura handik *jin daiteken artian* / ezkulari ni har nazazu etxian (J. A. Lakarra et alii, *Euskal Baladak*, 63).
- e. Egi bat esateko, ez nintzan akordatzen biyar nere Santu-eguna zanikan *alik eta amari deitu diyotan artean* (V. Mocoora, *Damuba garaiz*, 8).

Hauetan, esan bezala (ikus 2.3.2), esaldi nagusiko predikatuak iraupena adierazten duena izan behar du: *hazi* (185a), *kontatu* (185b), *ezin egon* (185c); eta (185d)ko *har nazazu* aditzak ere ez du balio puntuala, denbora horretan guztian zure ezkulari 'izan nazazu' esan nahi du.

Guztian zenbalzailearekin eraturiko -eN ARTE GUZTIAN forma ere modu bietara erabil daiteke, tarte osoa adierazteko (186a) nahiz azken muge seinatlatzeko (186b):

- (186) a. Anjelek, *ofeko miñak iraun eutsan arte guztian*, beste indar-galduko gizon da indar-
-gurako umeakaz balera, euren etxe azpiko upalategian egiteban lana (D. Aguirre, *Kresala*, 78).
- b. *Asperu zan arte guztian* aritu zan esaten ekusi zuana (Aguirre Asteasukoa, *Erecusaldiac III*, 490).

2.3.3.4. –eN ARTEKO

Postposizioan –KO atzikia duela ere ageri daileke menderatzailea iraupenaren denbora-tarte osoa adierazten duten perpaus hauetan. Batez ere Hegoaldekoa da erabilera hau:

- (187) a. Fede bagako askok bagie alegiñ, / *Bizi diran arteko* badute zeregiñ (F. Arrese Beitia, *Ama euskeñaren liburu kantaria*, 242).
 b. Agindu zien bere laguntza *bizi zen arteko* (C. Beovide, *Asis-co Loria*, 220).
 c. Eskiñiten deutsudaz, negarreko erri onetan erbestetun*k nagoen arteko*, nire egite on guztiak (P. A. Añibarro, *Escu-liburua* 2, 11).

2.3.4. Azken muga adierazten dutenak ezezka emanak direnean

Ikus dezagun, azkenik, zer gertatzen den iraupena adierazten duten perpaus hauek ezezka emanak direnean. Zer gertatzen den, batez ere, azken mugako gertakaria adierazten duen perpausa ezezka emana denean. Har dezagun, adibide gisa, *Atea ireki duten arte kanpoan egon naiz* perpausa. Hau izango genuke horren mendekoaren ezezkoa, formalki: *atea ireki ez duten arte*. Perpaus hori, ordea, ez da guztiz egokia. Izan ere, baieztokoak azken mugako gertakaria gauzatzen den 'unea' adierazten duen bitartean, ezezkoak hura gauzatu ez den 'denbora' adierazten du: *atea ireki duten unea arte* dio baieztokoak, eta *atea ireki ez duten denbora guztian* ezezkoak. Honek, bada, ez du jadanik azken mugako 'unea' hartzen erreferente moduan, gertakaria gauzatu gabe dagoen 'denbora guztia' baizik. Eta tarte osoa adierazteko ez da, gorago esan bezala, –eN ARTE menderatzailea erabiltzen, –eN BITARTEAN edo honen gisakoak baizik: *atea ireki ez duten bitartean* izango litzateke, bada, goiko adibidearen ezezkoa.

Konpara ondoko adibide-bikoteak, zeinetako lehenak azken muga adierazten duen eta bigarrenak iraupenaren tarte-osoak:

- | | | | |
|-------|--|---|---|
| (188) | . <i>dirua ahalzen den arte</i> | - | <i>dirua ahalzen ez den bitartean</i> , |
| | . <i>trena iristen den arte</i> | - | <i>trena iristen ez deno</i> . |
| | . <i>hiztegi batua argitaratu arte</i> | - | <i>hiztegi batua argitaratzen ez deno</i> . |
| | . <i>lagunak joan arte</i> | - | <i>lagunak joaten ez diren bitartean</i> . |

Gorago esan dugun bezala, bestalde, gertakari puntuala adierazteko erabili ohi diren aditzek iraupen balioa hartzen dute –eN BITARTEAN menderatzailearekin doazenean, baieztoko perpausetan; aritze edo errepikatze balioa, alegia. Horrela, *ireki duten bitartean* perpausak *irekitzen aritu diren bitartean* esan nahi du, edo, balio errepikatzailea hartuz, *behin eta berriro ireki duten bitartean* (ikus 2.3.3.1 eta 2.3.3.2).

Hona, bada, aipatu perpausen eskema:

- | | | |
|------------------------------------|---|--|
| a. <i>ireki duten arte</i> | - | iraupena adierazten du, azken mugako gertakaria gauzatzen den 'unea' seinalatuz erreferente moduan. |
| b. <i>?ireki ez duten arte</i> | - | desegokia, edo zalantzazkoa bederen. |
| c. <i>ireki ez duten bitartean</i> | - | iraupena adierazten du, azken mugako gertakaria gauzatu arteko 'denbora guztia' hartuz erreferente moduan. |

- d. *ireki duten bitartean* - iraupena adierazten du, gertakaria gauzatzen ari den edo hura errepikatzen den 'denbora guztia' harluz erreferente moduan.

Berezia da horretan, jakina, *-eN ARTEAN* menderatzailea, balio bietan erabilzen baita, gorago esan dugun moduan. Ezezkoa denean, *c* erabilera baizik ez du izango, noski, *b* desegokia denez. Baiezkoan, berriz, *a* nahiz *d* moduan erabilzen da.

Testuen lekukotasuna bat dator oro har esandako eskema horrekin. Baiezkoen kasuan ez da dudarik, aurreko ataletan ikusi dugun bezala (ikus 2.3.3.2 eta 2.3.3.3). Ezezkoari dagokienez, *c* moduko adibideak ageri dira testuetan, espero zitekeen bezala, bai *-eNO* (189), bai *-eN BITARTEAN* (190) eta baita *-eN ARTEAN* menderatzailearekin ere (191):

- (189) a. *Uztaldak luzeraziko ez-direno* bederen hirur urthetara, maiz ikusiko ditugu bihi eskasak (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 88).
- b. Munduaren goiti-beheitia xeheki bezala osoan *ezagutzen ez duguno*, zer onets dezakegu, zer gaitzets, ilsura minzatzuz balzik (J. Etchepare, *Buruchkak*, 108).
- c. Iduri dute gazur-pertzean leer-berri diran maskulo; euri-ondoko eguzki-zizak eguna bete *ez duferio* (Orixe, *Euskaldunak*, 86).
- d. Orain idazten diren euskalkiak kontuan edukitzekoak dira, noski, batasun osorik *ez duguino* (K. Mitxelena, *Mitxelena-ren Idazlan Hautatuak*, 109).
- (190) a. Gehiago *irabazten ez dean bitartean*, nola bizi bear degu? (J. A. Irazusta, *Bizia garatza da*, 56).
- b. Txapela kendu bear zaitetek la aien esanera makurtu. Ez nik, euskera z'kin *idazten ez duten bitartean* (A. Labayen, *Euskal Eguna*, 85).
- c. Euskal Unibertsidadea *eztaukagun bitartean*, auxe eskatuko neuke nik (N. Alzola, *Atalak* 137).
- d. Aldatuko dira gauzak, eta aldatzen badira hobe, baina, *aldatzen ez diren bitartean*, lehengo lepotik izango dut burua (K. Mitxelena, *Mitxelena-ren Idazlan Hautatuak*, 390).
- (191) a. Jaungoikua *serbiduten ez dogun artian*, geure bizitzak izango dira penazkuak (Fray Bartolome, *Itasiquizunac*, 5).
- b. Etzaitut utziko, *bedeinkatzen ez nazun artean* (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Barr. condaira*, 42).
- c. Beste erakusbiderik Erromatik *ez datorkigun artean* (D. Inza, *Kristau ikasbidearen azalpena*, 22).
- d. Jaungoikoak beste gauzarik *erabakitzen etzun artean*, txiro baiño yare jarraillu asmo zuen (Y. Etxaide, *Joanak-joan*, 273).

Eskemaren *b* moduko perpausak, aldiz *-ireki ez duten arte* gisakoak, alegia-, gutxitan ageri dira testuetan. Perpaus hauen artean izan ohi diren zalantzek eragindako salbuespenzat har daitezke agerpen bakanak¹⁴. Hona batzuk:

¹⁴ Zenbait esalditan ageri den *ez 'espletiboa'* egon daiteke perpaus hauetan ere -ikus, esate baterako, *beldur da ez ote duen diru guztia galduko*. Gaztelaniaz erabilzen dira *hasta que no venga* gisakoak, gramatikari batzuek gaitzetsi, baina beste batzuek ontzat ematen dituztenak.

(192) a. Basorako gai ez zen arteo, lan egin zuen nekazari (Orixe, *Euskaldunak*, 114).

b. Ehun urte bete etzituen arte, etzuen, inoiz hilen etzela esparantza galdu (G. Aresti, *Ipuinak*, 35).

Bestela emango genituzke perpaus horiek ohiko moldeak erabiliko bagenitu: *ehun urte bete zituen arte* esango genuke, epearen azkena seinaiatuz, edo *ehun urte bete ez zituen bitartean / ez zitueno*, denbora-tarte osoa adieraziz.

Bestelakoak dira, ordea, gauzak, ezetzak gertakaria geuzatu aurreko denbora besarkatu beharrean, gertakariari berari eta hari darraion egoerari dagokienean, ondoko adibideetan gertatzen den bezala:

(193) a. [...] la eskolak ugari zabaldu biar dirala orretariko analfabelo batxu bat bera be geratuko ezlan arte (Kirikiño, *Bigarango Abarrak*, 97).

b. Hari behar dugu haren garaitzen eta zentzitzen [...] den errenkurarik xumeena nahi gabeetan itzur ezlakion arteraño (M. de Chourio, *Imitacionea*, 179).

Horietan, ikusten den bezala, 'analfabetonik ez geratzea' eta 'errenkurarik ez itzurtzea' azken mugako gertakariak dira –handik aurrerako egoeran eragina izango dutenak–, ez haren aurreko denboran luzatzen den egoera. Horregatik erabiltzen da, ohikoa denez, –eN ARTE menderatzailea.

2.4. DENBORAREN ERREFERENTZIA ESALDI NAGUSIAN DUTEN PERPAUSAK

2.4.1. NOIZ ETA (ERE) / NOIZ ERE ... BAIT-

a. Orain arte aipatu ditugun perpaus motetan, mendekoaren eta nagusiaren arteko erlazioak norabide bera zuen guztietan: mendekoak ematen zion nagusiaren gertakariari denbora-erreferentzia. Orain aztertuko ditugun perpausetan, ordea, alderantziz gertatzen dira gauzak: nagusiak ematen du denbora-erreferentzia, eta denbora horretan gauzatzen da mendekoak adierazten duen gertakaria. Ikus ondoko adibideak:

(194) a. Goizik jaria nintzen supazler xokoan / (...) noiz ere entzun baitut tok tok tok leihoan (Oxobi, *Oxobi-ren lan orhoitgari zombait*, 146).

b. Bidea trebeskatzera zoan, noiz-eta ere gaineral ethorri baitzaio Brunel hendaiarraren otoa (*Hemia*, 1958-1-16, 2).

Esaldi nagusiak ematen du horietan egoeraren berri –'supazler xokoan jaria' zegoenekoa, esate baterako, (194a)n–, eta mendekoak, berriz, orduan –hau da, horrela zegoelarik– zer gertatu zen ematen du aditzera. Aurreko ataletan ikusi ditugunetan ez bezela, alegia. Alderatu, hori ikusteko, (195) eta (196)ko perpausak:

(195) a. Bidea zeharkatzen ari zenean, gainera etorri zitzaion autoa.

b. Noiz eta bide zeharkatzen ari baitzen, gainera etorri zitzaion autoa.

(196) Bidea zeharkatzen ari zen, noiz eta gainera etorri baitziztaion autoa.

Ikusten denez, (195)eko adibideetan mendeko perpausa dena, (196)koan nagusia da, eta alderantziz. Aurreko bietan –ohiko denborazkoetan izaten den bezala–, perpaus nagusia da erreferentziaren hartzailea. Ez hala, ordea,

(196)koan; honetan mendeko perpausa da nagusiaren erreferentzia hartzen duena.

Gogoan izatekoa da, hori dela eta, (195b) bezalako perpausetan korrelazioan daudela mendeko esaldia eta nagusia *-noiz eta ... orduan-*, eta agerian joan daitekeela, hain zuzen ere, adizlagun anaforikoa (ikus 2.1.1.3):

(197) *Noiz eta* bide zeharkatzen ari baitzen, *orduan* etorri zitzaion gainera autoa.

Ez da horrelako korrelaziorik hemen aztergai ditugun (196) bezalakoetan:

(198) **Orduan* ari zen bidea zeharkatzen, *noiz eta* gainera etorri baitzitzaion autoa.

Kontua ez da, ordea, bakarrik, non kokatzen den erreferentzia eta zeinetatik zeinetara doan denbora-erlazioa. Mendekotasun-mota bera ere desberdina da. Izan ere, (196) bezalako perpausetan mendekoa ez da predikatu nagusiaren osagarria *-ez du, alegia, 'noiz jarria nintzen supazter xokoa' esaten-*, esaldi nagusi osoarena baizik. Esaldi nagusiari segida ematen dio, honek ezartzen duen denbora-puntuak kokaturiko gertakari bat erantsiz. Segida 'narratiboa' ematen diola esan ohi da. Hori dela eta, leku zehatza du honek perpausaren barruan: nagusiaren ondoan doa beti, (195b)koak ez bezala, zeinak nagusiaren aurrean eta are tartean ere joan daitezkeen (ikus 2.1.1.3).

Segida narratibo hori modu enfatikoan emateko ere balio dute perpaus hauek; bat-batekotasuna berariaz markatzeko, alegia. Nabardura hori bera adierazten dute *-eLA(RIK)* menderatzailea daramaten ohiko denborazko perpaus hauek ere, ondotik *horra non* gisako adizlaguna dutenak:

(199) a. Lantegira sartzera zihoazela, *hara non* su handi bateak atzera botatzen dituen.

b. Etxean lasai geundelarik, *horra non* lapurrak sartzen zaizkigun leihotik barrera.

b. Ekialdeko euskalkietan erabiltzen dira horrelako perpausak. Galdetzaileak hartzen duen forma *NOIZ ETA, NOIZ ETA ERE* edo *NOIZ ERE* izan daiteke; menderatzailea, berriz *BAIT-* da beti.

Esaldi nagusiaren predikatua denbora-tartea adierazten duena izaten da *-egoera, ariketa...-*, eta mendekoa, berriz, denbora horren barnean gauzatzen den gertakari 'puntuale' adierazten duena, ondoko adibideetan ikusten den bezala:

(200) a. Hila nintzen; bi debruk suzko leze batetarat *ninderamaten*, *noiz eta* begitharte ezli eta ederreko gizon batek *aithera bainau* heien atzaparretik, eta zure besoetara ekhami (F. Laphitz, *Bi saildu hescuaidunen bizia*, 217).

b. Behin, bere fraiden ikusten ibilia, etxerat buruz *hari zen*, *noiz-eta-ere* denbora gaitz ikharagarri batek *hartu baitzuen* (B. Joannateguy, *Sainduen Bizitza*, 66).

c. Egun batez, hola *zohan* bere fraide lagunarekin, bera gibeletik eta lagun hura aintzinean, *noiz eta ere gertatu baitzitzaieten* nahi etzuketean ixtorioa (B. Joannateguy, *Sainduen Bizitza*, 63).

d. Afal ondoan, hirugarren estaiko ganbera baten leihotik bazterrari *so nindagon*, ene zigarretaren kheaz ahogozo, eta gogoa han-harat goiti, lanhoetan barna, *noiz ere* karrikatik beharrietarat *heftzen baitzeit* neurriz-gaineko burrunba bal (J. Etchepare, *Berbilez*, 93).

Bestelako testuinguruetan irakurketa 'puntuale' izan dezaketen predikatua ere denbora-tartea adierazten dutela ulertzen dira testuinguru honetan. Horrela,

esate baterako, goiko (194b) adibideko *trebeskatzera zoen* predikatuak bidea zeharkatzeko tartea adierazten du, ez abian jartzeko unea soilik.

Mendekoaren bat-batekotasuna nabarmentzeko, *bet-betan* edo *bat-batean* adizlagunak erabiltzen dira inoiz:

- (201) a. Gau guzia emagintzan emanik, xehe-xehoa nahi ditu denak kondatu: Hemen berean nintzen, olatzkoak lumatu eta husturik: apailatu nahi nituen, *noiz-eta* *bet-betan* pleinu batzu aditzen baitituz ganbara hortarik! (P. Lafitte, *Murtulu eta bertze*, 117).
- b. Itsasoan zen Frantses, unzi xar batean, beti bezala bere kurulzefika eskuan, *noiz eta ere* uste gabean urerai uzten baitu *bat batean* erortzerat (Arraduy, *San Frantses Jatsukoa*, 195).

Azken adibide horrek erakusten duenez, bestalde, maiz erabiltzen da mendeko perpausean orainaldi narratiboa, esaldi nagusia iraganean denean ere. Horrelakoak dira hauek:

- (202) a. *Bazohatzin*, bidako nekheak alegeraki jasanez, *noiz eta ere* Zabier gelditzen baitzaiote, eta nigarra begian erraiten baitiote ez dezakela gehiago urrhatsik egin (F. Laphitz, *Bi saildu hescualdunen bizia*, 163).
- b. Denak nigarrez *zauden* beraz, *noiz eta ere*, berriak jakin beharrez *haldu baitzaiote* auzoko gizon xahar xahar bat (J. Barbier, *Légendes*, 24).
- c. Eta nola frantsesa holakoetan ahanzkor baita, *iduri zuen* kasik ez zela gehiago nehar gehiago hortaz orroiti, *noiz eta ere* gutien ustean barriz afera *piztu baita* (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 47).

Ez dira falta, noski, biak iraganean (ikus goiko 200b eta c) edota biak orainaldian dituzten perpausak –orainaldi narratiboan, alegia–, ondoko honetan bezala:

- (203) Tenpestaren erdian, ilhunben erdian, aitzina *badoha* San Migel, emeki bada emeki, nekhez bada nekhez, *noiz eta ere* haize zirimola batek bidea *hautsarazten baitio eta gatarazten* (F. Laphitz, *Bi saildu hescualdunen bizia*, 222).

2.5. GERTAKARIAK KRONOLOGIAN KOKATZEN DITUZTEN PERPAUSAK

Ikusi dugunez, 'denborazko perpausetan' gertakari biren arteko denboralotura ematen da adiztera, baina ez dira, berez, gertakari horiek denboraren 'kronologian' kokatzen. *Erori nintzenezan, min hartu nuen* diogunean, esate baterako, erorketarekin lotzen dugu min hartzea, baina ez dugu hura kronologiaren puntu zehatz batean kokatzen; ez dugu, alegia, esaten zein ordutan, egunetan, urtetan, etab. gertatu zen.

Adierazpen deiktiko hori egiteko modu desberdinak ditugu.

. Gertakaria datatzea da horietako bat, zeregin horretarako geure kulturean erabiltzen ditugun denbora-unitateez baliatuz: *Begoña [1965eko apirilaren 2an] jaio zen* perpausean, Begoñaren jaiotza zehazki kokatzen da denboraren kronologian, kako artean eman dugun sintagmaren bitartez.

. Hizkela uneari erreferentzia eginaz ere eman daiteke adiztera kokatze hori, zerbait *atzo, bihar, ia, datorren urtean*, etab. gertatu edo gertatuko dela esanaz. Adverbio horiei hizketako egunak ematen die esanahia.

. Kronologiaren beste puntu bat ere jar daiteke erreferente gisa. Hori egiten dugu zerbait *San Fermin egunaren bezperan* gertatu zela esaten dugunean, edo *haren biharamunean* gertatuko dela, edo *hurrengo igandean*, etab.

. Hiztunentzat data ezaguna duen gertakari bat ere har daiteke, noski, erreferentzia gisa. Adibidez, norbait *Espainiako gerra amaitu zen urtean* jaio zela esaten badugu, aldiberekotasunaz gain, haren jaiotzaren kokatze zehatza ere ematen dugu, Espainiako gerraren berri dutenentzat behintzat.

Adibide horietan gehienetan, adizlagunak edo postposizio sintagmak dira gertakariak kokalzen dituztenak. Badira, ordea, zeregin hori betetzen duten perpausak ere, eta horiek izango ditugu aztergai ondoko lerroetan.

2.5.1. *DUELA / ORAIN DELA + [zenbatzailea – denbora izena]*

a. Egitura hauetan hizketa unea izaten da erreferentzi puntua. Une horretatik auzera denbora-unitateak zenbatuz adierazten da gertakariaren kokapena:

(204) a. *Duela lau urte* izan nintzen Londresen.

b. *Orain dela hamabost egun* argitaratua da liburu hori.

Bi zatik osatzen dituzte 'mendeko' perpaus hauek: *-eLA* menderatzailea daraman adizkiak osatzen du aurrena; bigarrena, berriz, denbora adierazten duen sintagma zenbatzaile bat izaten da, aurrekoaren osagarri.

Aurreneko zatia irreparatuta, argi dago *da* eta *du* sintetikoak ditugula 'mendeko perpaus' horietako aditzak. Edozein modutan, aditza hor izanda ere, horiek, perpausak baino gehiago, esapide eginak direla esan daiteke *-edo* halakoak izateko bidean direla bederen-, aditzei dagozkien ezaugarri batzuk galduak baitituzte *duela* eta *dela* adizki horiek.

Hala, esate baterako, ez dute nahitaez osagarriekiko numero komunztadura gordetzen; 'duela lau urte' esaten da, ez 'dituela lau urte'; eta 'orain direla lau urte' bezalakoak ere oso bakan ageri dira testuetan, ohikoena 'orain dela lau urte' esatea baita. Inoiz, egituraren segida hautsita, zenbatzailearen ondoan ematen da aditza, eta orduan komunztadura betetzen da:

(205) *Eta orain berrogei bat urte dirala* Frantzesak joan giñan gerran Rusiara (F. Arrese Beitia, *Ama euskeriaren liburu kantaria*, 253).

Erreferentzia gisa hizketa unea hartu beharrean, iraganeko puntu bat hartzen denean, ez da gisa honetako perpausik erabiltzen: *orduan zuela hamar urte*, *orduko duela hamar urte* eta horrelakoak ez dira ohikoak. *Hamar urte lahenago*-edo esaten da.

Hizketa unetik eurrerako gertakariak kokatzeko, berriz, beste leku itzulirik erabiltzen dira: 'lau urte barru', 'hemendik lau urtera' edo horrelakoren bat.

Forma horien arteko paralelismoak berak iradokitzen du aztertzen ari garen egiturek esapide gisa jokatzen dutela:

- . *duela lau urte* gertatu zen.
- . *lau urte lahenago* gertatua zen.
- . *lau urte barru* gertatuko da.

Aditzik gabe ere egin daitezke esapide hauen antzekoak: *orain bost urte, gaur zortzi, bihar hamabost...*

b. **DUELA** forma ekialdeko euskalkietan erabiltzen da, edo soilik (206a) edo aurretik hizketa unea berariaz seinalatzen duen *orain* adizlaguna duelarik (206b):

(206) a. *Duela berrogoi urte* gauza bera gertatu zen Japonian (J. Hiriar-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 14).

b. *Orai duela bizpaurur urte*, idaztiño bat egin nuen erdaraz (P. F. Irigaray, *Nafarroako Euskal idazlariak*, 183).

ORAIN DELA forma, berriz, mendebalean erabiltzen da batez ere, adizlaguna berekin duela betiere:

(207) a. *Orain dala ogetamar urte* alkarrekin jan genduan arako zoko artan (D. Aguirre, *Gara*, 191).

b. Bestea, ori baño ere okerragoa: gaixo txarra pasala nago *orain dala ia lau urte* (Uztapide, *Sasoia joan da gero*, 21).

Egituraren bigarren zatiko zenbatzailea zehaztugabea edo zehaztua izan daiteke. Zehaztugabeetan, *gutxi* aipa daiteke, egiturak ematen diolarik denbora esanahia, izenik gabe denean ere:

(208) a. *Orain dala gutxi*, berorren soldadu Oiartzuar batekin ari nintzan izketan (Orixe, *Santa Cruz apaiza*, 77).

b. *Duela gutxi* bilera bat izan zen oso asmo onarekin eta gai egoki bat erabakitzeko (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak VII*, 128)

Horren parekoa da, zenbatzaile lanetan *aspaldi* adizlaguna daramana:

(209) *Orai duela aspaldi*, Hergaraiko gain horietan, omen zen beraz ilhurri bat hauta (J. Barbier, *Légendes*, 140).

Denbora-izena eta guzti ere erabil daitezke zenbatzaile zehaztugabeak (*gutxi, asko, batzuk, zenbeit, -en bat...*):

(210) a. *Duela urthe guti*, Baiona hegian, Hiriburun egotu izan da Hugés deitzen zen jaun bat (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 67).

b. Nerau onartu ninduten [...] *orain dela urte batzuk* (J. Mirande, *Miranderen idazlan hautatuak*, 262).

c. *Orain dela hamabosten bat egun* argitaratu da *Mitxelenaren idazlan hautatuak* liburua (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak IX*, 57).

Horrelakoek, bistan da, *gutxi* gorabehera baizik ez dute kokatzen gertakaria.

Kokapen zehatza egiten dutenak zenbatzaile zehaztuak dira, denbora-izenarekin doazenak betiere:

(211) a. Egun batez, *duela bost urte*, elgarri betiko amodio hitzeman gindinan (J. B. Etchepare, *Mendekoste gerezak*, 71).

b. Hain zen txikia bere Eskualdunari non, *orai duela lau urte*, utzi zuenean lan hau, gazetaren izena berelzat beiratu nahi ukan bailzuen, zer gerta ere (J. Hiriar-Urruty, *Mintzaira. Aurpegia. Gizon*, 158).

c. *Orain dala ordubete* ikusi det gizon guiri potrollo bat (D. Aguirre, *Gara*, 347).

d. *Orain dala bi egun* etorritako batek esana, El Golean berrogeitabat mallako beroa zala (A. Anabitarte, *Aprika-ko basamortuan*, 23).

2.5.2. –eNETIK + [zenbatzailea – denbora izena]POSTPOSIZIOA

Gorago ikusi dugu iraupena adierazten duela –eNETIK menderatzaileak, denbora-tartearen aurreko muga seinatuz (2.3.1.1). Eta iraupenaren nozio hori areago markatzen dela haren ondoan *aurrera* adizlaguna ematen denean: –eNETIK *aurrera*. Iraupenaren tarte osoa ere adieraz daiteke, –eNETIK ... *hona* eta –eNETIK ... *arte* egiturak erabiliz.

Badira, ordea, iraupenaz bestelako nozioa adierazten duten egiturak.

a. Horrela, –eNETIK *laster / sarri* formek iraupena ez, baina ondokotasuna adierazten dute, berehalako ondokotasuna, hain zuzen ere:

- (212) a. Samuelek, *lokhartu zenetik laster* entzuten du, hirugarren aldikotzat, boz bera, zeina baitzen Jainkoarena (B. Larreguy, *Testament çaharr. berr. historia*, 1, 252).
- b. [...] zirautsan bere artean gizon orrek Mañasiren eskulitza *artu ebanetik laster* (D. Aguirre, *Kresala*, 57).

Perpaus horiek, bistan da, ez diote *noizdanik* galderari erantzuten, *noiz* galderari baizik. Bi gertakari lotzen dituzte –'lokartzea' eta 'boza entzutea', esate baterako, (212a)n–, baina ez dituzte, berez, gertakariok kokatzen, kronologia orokorrean behintzat. Adierazten duten kokapena erlatiboa da, gertakari bien artekoa, ez kronologia orokorrari dagokiona. Eta erlatiboa izateaz gain, zehaztugabea ere bada, halakoak baitira *laster* eta *sarri* adizlagunak.

Kokapen erlatiboa bai, baina zehatza adierazten da, aldiz, ondoko adibideetan, denbora unitateak zehatz zenbatuak ematen baitituzte:

- (213) a. *Ereften denetik bostgarren ilabeterako* arkitzen da eldurik (J. I. Iztueta, *Guipuzcoaren condaira*, 29).
- b. Anaitasun hunetan *errezibitu denetik hirugarren ihabethean* eginen du bere onez bere ordenua (J. de Haramburu, *Devocino escuara*, 432).

b. Jakina, lehen gertakariaren data hitzuntzat ezaguna bada, orduan posible da beste gertakaria ere kronologia orokorrean kokatzea. Kokapen hau ere zehaztugabea izan daiteke, adizlaguna edo zenbatzailea halakoak badira, ondoko adibideko *sarri* eta *zenbeit* diren bezala:

- (214) a. - Zoin da lehena?

- Jondane Matheu apostolia, zoñek gure salbazalia *hil zenetik sarri* izkiribatu baitzian Jüdeako herrian (A. Belapeyre, *Catechima laburra II*, 118).

- b. Herodes kruela *hil izan zen inozenten odola isur arazi zuenetik zenbeit ihabetoen buruko* (B. Larreguy, *Testament çaharr. berr. historia*, 2, 121).

Eta zehatza, berriz, zenbatzaile zehazluaz eta denbora-izen batez osaturiko sintagma postpositiboak erabiltzen badira –hau da, –eNETIK *x-garren egunean*, –eNETIK *x-garren egunerako*, –eNETIK *x egunen buruan*...–. Horrelakoak dira hauek:

- (215) a. Bigarren igandean, au da, *bizlu zanetik zortzigarren egunean*, [...] Jesus, lenagokoan bezala, sartu zitzairen, eta erdian jarrila, esan zien: Pakea zuekin (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zerr. Berr. condaira*, 474).
- b. San Joakinek eta santa Anak ereman zuten beren haurra Tenplorat, legeak manatzen zioten bezala, *sortu zenetik lauetan hogoi egunen buruan*, eta eskaini zioten Jaiko Jaunari amodiorekin (B. Joannateguy, *Sainduen Bizitcea*, 35).

Kronologia orokorrean koka daitezke aurreko perpausetako gertakariak, Jesusen sortze eta heriotzaren datak ezagunak ditugun neurrian, ez bestela.

c. Adibide horietan guztietan, azkenik, denbora-unitateen zenbaketa atzetik aurrera egiten da, denboraren norabide berean. Ezohikoa da, aurretik atzera egitea:

(216) Ahazten dugu errailea, *sendatu zenetik hamabortz bat egun lehenago*, Moynac medikuak igorria zuela Baionako ospitalelik etxerat, deus onik egiteko berantegiz (J. Hirian-Urruty, *Mintzaira. Aurpegia*. Gizon, 187).

LABURPENA

0. Sarrera

. Aditz sintagma nagusiko osagarri dira ohiko denborazko perpausak, eta hari dagokion denbora-erreferentziaren bat ematen dute aditzera:

. [Atzo] / [Arratsaldean] / [Lana amaitu genuenean] joan ginen zinemara.

. Denborazko perpaus gisa gramatikalizaturiko erlatiboak edo konparatiboak dira batzuk: *-eNEAN*, *-eNETIK*, *-eNEKO*, *-eN ARTE*, *-eN BITARTEAN*, *-eN ORDUKO*; *-eN BEZAIN LASTER*, *-eN BAINO LEHEN*.

Eta gramatikalizatzte bidean daudenak beste batzuk: *-eN BAKOITZEAN*, *-eN GUZTIETAN*, *-eN ALDIKAL...*

1. Aldiberekotasuna adierazten duten perpausak

1.1. Aldiberekotasunaren adierazpen orokorrak:

1.1.1. *-eNEAN*

• Aldiberekotasuna adierazten duen menderatzaile orokorra. Aldiberekotasun hori 'zehatza' izan daiteke *-totala (a) nahiz partziala (b)-* edo 'sekuentziala' (c). Aditzaren izaerak *-ariketa, egoera, lorpena...* *- mugalzen ditu nabardura horiek:*

- Lanean ari naizenean*, piztua edukitzen dut irratia.
- Kartzelan zegoenean* egin zioten Koldori lehen ebakuntza.
- Sua sortu denean*, korrika atera dira denak.

Bestelako irakurketa batzuk ere izan ditzake: 'puntuala' (e) edo 'errepikatua' (f).

- Sua sortu zenean*, ohean ginen gu.
- Pansera joaten naizenean*, hotel berean hartzen dut beti ostatu.

• Aditz nagusia geroari dagokionean, denborazko perpausa aspektu ez-burutuan joan ohi da normalean (a). Iparraldean geroaldia ere erabiltzen da (b); subjuntiboa ere erabiltzen da (c); eta, euskara landuan, *geroaldi arkaikoa* (d). Aspektu burutuan ere joan daiteke, gertakariaren bururatzea espresuki markatzeko (e):

- a. *Patxi iristen denean hasiko gara bazkaltzen.*
- b. *Zer mulurra egingo du ene ametsa jaigiko diodanean?*
- c. *Hil dadinean, lurreko harrek ez diote soinekorik ere zulatuko.*
- d. *Baina Jaunagana konbertitu daitekeenean kenduren da estalkia.*
- e. *Eta ni xahartu naizenean, zer geldituko zait?*

• Oinarrizko denbora balioaz gain bestelako batzuk ere izan ditzakete perpaus hauek. Implikazioa adierazten duena (a), baldintza modukoa (b), kausala (c)...

- a. *Hori egin zenuenean, gauza ona egin zenuen.*
- b. *Zuk horrela diozunean, horrela izango da.*
- c. *Pozik egon daitezke suak dena kiskali ez duenean.*

1.1.2. -eLA eta -eLARIK

• Denbora adierazten dutenean, menderatzaile hauek maizenik izaten duten balioa aldirerokotasun zehatzarena da, totala (a) nahiz partziala (b). Baina aldirerokotasun errepikatua (c) edo puntuata (d) ere adieraz dezakete:

- a. *Mutil gaztea zela alai bizi zen gurasoen etxean.*
- b. *Gazte nintzela sortu zitzaidan mendiko zaletasuna.*
- c. *Parisa joaten delarik, ez da inoiz ilzuliko seme-alabei erregaluren bat ekarri gabe.*
- d. *Begitartea sutan zuen salan sartu zelarik.*

Predikatua 'irispin' gisakoa denean, ordea, irakurketa sekuentziala nagusitzen da, eta -eLARIK forma erabiltzen da (a), ekialdeko euskalkietan batez ere, ez -eLA soil (b):

- a. *Partida amaitu zelarik, ikasleak zutitu eta txaloka hasi ziren.*
- b. **Partida amaitu zela, ikasleak zutitu eta txaloka hasi ziren.*

• Esaldi nagusia geroari dagokionean, burutugabea da maiz perpaus mendekoaren aditza (a), baina geroaldikoa ere izan daiteke (b):

- a. *Erran diat traktur bat erosiko duala ezkontzen girelarik.*
- b. *Zaloz, Luixa, ez gaituzte hemen ikusi behar, atzariko direlarik.*

• Anbiguo gertalzen dira maiz -eLA eta -eLARIK menderatzaileak. Denboraz gain kontzesioa ere adieraz dezakete (a), edo modua nahiz baldintza (b) edo implikazioa (c):

- a. *Alai agertzen naizela ere, bihotza daukat negarrez.*
- b. *Zu neri fabore zarela, haien beldur ez naiz.*
- c. *Hori esaten duzularik, egia baino ez duzu esaten.*

1.1.3. NOIZ ETA ... BAIT- / -eN korrelaziozko perpausak

• Korrelaziozko erlatiboaren egitura, denborazko perpaus gisa gramatikalizatua.

Aurrekaria: *NOIZ ETA* (orokorra), *NOIZ ERE*, *NOIZ ETA ERE* (Iparraldekoak).

Adizlagun anaforikoa (*orduan...*), isildua maiz, baina agerian ere eman daitekeena:

. Eta hala, *noiz eta* uste baituzu heriotza dagoela umunenik, *orduan* ohi dago hurbitenik.

• Aldiberekotasun zehatza adierazten dute maiz (a), baina balio sekuentziala ere izan dezakete (b); baila puntuala (c) edo errepikatua (d) ere:

- a. Baina *noiz eta baitziren* oturuntza gozoaren hoberen-hobereanean, *ikaratzen dira* betan.
- b. *Noiz eta ere fruta egosi baita*, atera ezazu eta ulz ezazu ziropa akabatzena.
- c. *Noiz ere baitzen jaitsi Ama Birjina zerutik*, arroka, larre eta sasi, hemen ez zen bertze deusik.
- d. *Noiz-eta-ere lurra apaindua baitzen*, sartzen zen landan bere tresnaren gainean jarri.

1.2. Aldiberekotasun errepikatua

1.2.1. -eNETAN plurala

Singularrak baino modu enfatikoagoan adierazten du gertakariaren errepikalzea.

1.2.2. -eN BAKOITZEAN, -eN GUZTIETAN, -eN ALDIKAL

Hauek ere berariaz dira 'errepikakorrak': -eN *BAKOITZEAN*, -eN *GUZTIETAN*, euskalki guztietakoak; -eN *ALDIKAL*, ekialdekoa; eta -eN *ALDIRO*.

1.2.3. 'Zenbat aldiz -eN ... hainbat aldiz' gisako korrelazioa

Aldiberekotasun errepikatua adierazten du *zenbat ... hainbat* korrelazioak, 'konparetzen' dena *aldiz* edo *bider* bezalako denbora adberbio bat denean.

1.3. Aldiberekotasun estua

1.3.1. -eNEKO

• Bi modutara uler daiteke aldiberekotasun estua:

. Aditz nagusiak gertaera edo ekintza bat adierazten duenean, gertaera edo ekintza hori mendekoak adierazitako unean berean, haren ondo-ondoan gauzatzen dela ematen da aditzera. Balio sekuentzial estua du (a), eta *berehala* eraman dezake lagun (b):

- a. Partida bat amaitzen zuteneko, *beste bati ekiten zioten*.
- b. Jauregiko mizkeriak jaten hasi zeneko *urdailetik gaixotu zen berehala*.

. Egoera edo ariketa bat adierazten duenean, mendekoak esandako unean hura dagoeneko gauzatua (a) edo gauzatzen ari dela (b) esaten du perpausak. *Jadanik* eraman dezake (c):

- a. Suhiltzaileak iritsi zireneko, *kiskalita zegoen etxea*.
- b. Suhiltzaileak iritsi zireneko, *ur bota eta bota ari ziren gizon batzuk*.
- c. Hura logelan sartu zeneko *ni ohean nengoan jadanik*.

• Aldaerak: **-eNERAKO** -batez era Hegoaldean-; **-eNEKOTZ(AT)**, **-eNEKO(T)XE**.

• Balio destinatiboa ara izaten du inoiz: aditz nagusiak dioena *noizko* den:

- . Eta gero, *era zetorkenerako*, bere araso apalean zaindu ta gorde arduratsu.

1.3.2. -eN ORDUKO

Parekoa duen *partizipioa* + **ORDUKO** formak baino maiztasun urriagoa du **-eN ORDUKO** formak. Ondo-ondoko gertakaria (a) nahiz aurretiko egoera edo ariketa (b) adieraz dezake honek ere:

- a. Zezena agertu zen *orduko* *kojo guztiak osasunera etorri ziren*.
- b. Zerura igoko garen *orduko* *lurtaz zerua egitea agintzen digu*.

1.3.3. -eN BEZAIN LASTER / SARRI / AGUDO / FITE...

• Adizlagunei dagokien bezala (*laster, sarri...*), balio sekuentziala dute **-eN BEZAIN LASTER**, **-eN BEZAIN SARRI**, **-eN BEZAIN AGUDO**, **-eN BEZAIN FITE** eta horrelako konparatiboeak:

- a. *Baimena izaten dudan bezain laster*, zure besoelara gogotsu joango naiz.
- b. *Sortu zinen bezain sarri* *Betleengo aldean*, aingeruak hasi ziren eresiaz airean.

• Perpaus nagusia geroari dagokionean, mendekoa maiz aspektu ez-burutuan joan ohi da (a), baina geroaldian ere joan daiteke (b) edo **-KE-** morfema duenean (c) -are aspektu burutuan, gertakariaren burualdea espresuki markatzeko (d)-:

- a. *Sendatzen* *haizen bezain laster*, Ameriketara alde egitea izango dun onena.
- b. *Hartan sarturen zareten bezain sarri*, eridenen duzue astakume bat estekatua.
- c. *Hura senti dezakezun bezain sarri*, behar dituzu zure indarrak bildu.
- e. *Bazkaldu duan bezain laster*, habil etxez-etxe.

1.3.4. -eN BER

Menderatzaile honek, besteak beste, denbora ere adieraz dezake. Sekuentzia estua:

- a. Ilezko soka aldiz harro hutsa da, *eta tiratzen duten ber*, amor emaiten du.

1.3.5. –eNAZ BATERA

Maizago partizipioarekin agertzen den postposizio hau adizki jokatuerekin ere erabiltzen da, balio sekuentziala (a) nahiz aurretikoa (b) duela:

- a. *Ohean sartu zenaz batera*, loak hartu zuen.
- b. *Biharamonean, egunkartak herrira zirenaz batera*, Tutulu dendaria Nikanorren zain zegoen.

2. Aldi desberdintasuna adierazten duten perpausak

2.1. Aurrekotasuna

2.1.1. –eN BAINO LEHEN

Gerora begira dauden perpausarekin du maiztasunik handiena menderatzaile honek, aditza subjuntiboan (a) edo geroaldian (b) dagoelarik:

- a. *Etokizuneko gauzak zure ezagutzan dira, etor daitezten baino lehenago.*
- b. *Berriz ikusteko egingo dut modu, joango diren baino lehen hogeita lau ordu.*

2.1.2. –eN AURREAN, –eN AITZINEAN

Menderatzaile hauek agerpen gutxi dituzte euskal testuetan, –eN AURREAN bizkaierazko testuetan gehienbat, eta –eN AITZINEAN Iparraldekoetan.

2.2. Ondokotasuna

2.2.1. –eN ONDOAN

• Menderatzaile hau aspektu burutua adierazten duten adizkiekin ageri da maizenik:

- a. *Badoa etxerat, unatu den ondoan.*

Aditz nagusia geroari dagokionean, mendekoa burutua izan daiteke –bururatzearen ikuspegia erantsiz– (a), edo subjuntiboa (b), edo –KE- morfema duena (c):

- a. *Eskolatua izan den ondoan*, bokantza handirekin eta ederki mintzatuko da.
- b. *Baina resuszita nadin ondoan*, zuen aitzinean joanen naiz Galileara
- c. *Sufritu duketen ondoan beren bekatuak merezi zuten pena*, jalgiko dira joateko paradisuat.

• Hegoaldean –eN ONDOREN / ONDOREAN aldaera erabiltzen da.

2.2.2. –eN OSTEAN

Gutxi erabilia.

3. Iraupena adierazten duten perpausak

3.1. Iraupenaren aurreko muga

3.1.1. -eNETIK

• Aditz nagusiak dioena *noizdanikoa* den seinalatzen du menderatzaile honek.

. Perpaus nagusiko aditza 'iraupena' adierazten duena da beti -egoera (a) edo ariketa (b)-, ez 'puntuala' (c):

- a. Partida irabazi zutenetik *pozez zorutzen daude*.
- b. Jaiki denetik, *lanean ari da*.
- c. *Loteria irabazi zuenetik, *auto berria erosi du*.

'Pluraltasunak' gramatikal egiten ditu perpausak:

- a. Loteria irabazi zuenetik, *urtero erosi du auto berria / auto asko erosi ditu*.
- b. Loteria irabazi zuenetik, *auto berria erosi du eta etxex aldatu da*.

. Mendeko aditzak gertaera puntuala (a), errepikatua (b) edo ariketa (c) adieraz dezake, baina azken hauetan denboran luzatzen den gertakariaren 'hasiera' adieraziz:

- a. *Etxean sartu denetik* telebistaren aurrean dago.
- b. *Anoetara joaten denetik* futbolzale amorratua bihurtu zaigu.
- c. *Aurreko kalea berritzen an direnetik*, hautsa besterik ez dugu etxean.

• Inoiz, kausa edo azalpena adierazteko ere erabiltzen da -eNETIK, bizkaieraz:

- a. *Andre ixil eta fiña zenetik*, batzuek esaten zuten, gizona ez zeukala baztertuta.

3.1.2. -eNEZ GERO

• Denbora adierazten duenean, iraupenaren aurreko muga seinalatzen du.

. Hegoaldean, -eNEZ GERO, -eNEZ GEROZ eta -eNEZ GEROZTIK dira aldaerak. Azkena, gutxien erabilia, da denbora-balioan leku zabalena duena.

. Iparraldeko euskalkietan, -eNAZ GERO, -eNAZ GEROZ eta -eNAZ GEROZTIK dira aldaerak -azken biak erabilienak-, eta kausa adierazten dute ia beti hirurek.

• Aditz nagusia iraupena adierazten duena da -egoera (a), ariketa (b)...-

- a. Enderialtzako aldetik hasi zirenez geroztik *Poli bihotza estututa zegoan*.
- b. *Egiteko horretan ari dira* Jainkoak gizajendea sortu zuenez geroztik.

. Nagusia 'puntuala' danean (a) edo geroari dagokionean (b), mendekoa ez da denborazkoa, kausala baizik:

- a. Atea irekia zegoenez gero, *deitu gabe sartu naiz.*
- b. Nire intzia ontzat eman duzueenez gero, *batzordea izendatuko dugu.*

. Mendekoa beste mendeko batean txerlatua denean, berriz, denborazkoa izaten da:

. Zu zara nire laguna, *etxe honetan atsekabea sartu denez gero pozik zaudena?*

. Ez dira falta anbiguotasunerako bide ematen duten kasuak:

. *Nagusi zaharra hil zenez geroz, Bettirini zegokion baiezkoa ala ezezkoa ematea.*

3.1.3. -eNIK ...-rA

Bizkaieraz batez ere:

. *Jaio zenik aurrera beti, moila gainean bizi izan zen ontziburu azkarra.*

3.2. Iraupenaren azken muga

- -eN ARTE

• Perpaus hauek esaldi nagusiko gertakariak *azkena noiz duen* adierazten dute.

Mendeko perpausak gertakari 'puntual' bat adierazten du:

. *Atertu zuen arte, etxean egon nintzen.*

Gertakari nagusia, berriz, iraupena duena izaten da (a), ez 'puntuala' (b):

- a. Txirrinak jo duen arte, *jolasan aritu dira ikasleak.*
- b. *Filma hasi den arte, *brartela erakutsi diot atezainari.*

Mendeko perpausak *harik eta* partikula har dezake ezkerrean:

. *Eta oraindik pasatuko da denbora, harik eta borroka baretu eta isildu dadin arte.*

• Aldaerak: -eN ARTE, -eN ARTIO (ARTEO) -ekialdean, batez ere-, -eN ARTEINO, -eN ARTERAINO, -eN ARTERAINOKOAN.

3.3. Iraupenaren tarte osoa

3.3.1. -eNO

• Iraupenaren denbora-tarte osoa adierazten du (a). Hortaz, gertakari 'puntuala' ez da baliagarri egitura honetarako (b). Pluraltasunak ematen dio 'iraupen' balioa (c):

- a. *Mundu honetan zinen, egiaren eta zuzenaren ondotik ibili zara.*
- b. **Trena iritsi deno, itxarongelan egon gara.*
- c. *Goizero garaiz iritsi deno, ez du arazorik izan Pellok lantegian.*

Esaldi nagusiko aditzak ere iraupena adierazi ohi du -mendekoaren iraupen bera, hain zuzen ere, aldiberekotasun totala-:

. *Erabaki gabe dago auzia eta horrelaxe iraungo du mundua mundu deno.*

Ez da debeku, hala ere, gertakari puntual bat adieraztea –aldiberekotasun partziala–:

. Hobe da *orain*, ordua on deno, *bitkura egitea*.

3.3.2. –eN BITARTEAN

• Menderatzaile hau ere iraupenaren tarte osoa adierazteko erabiltzen da. Hortaz, mendeko predikatua ezin da izan gertakari puntuala adierazten duena.

Nagusia ere iraupena duena izaten da maiz (a), baina puntuala ere izan daiteke (b):

a. Zalapatarka ziarduen bitartean, *banaka banaka zenbatu zituen Libek hegazti jaleak*.

b. Hizketan ari ziren bitartean, *etxeburuko langatik zehar ezaldu zen Libe*.

• Aldaerak: –eN BITARTEO (BITARTIO) eta erabilera urriko –eN BIZKITARTEAN.

• Oinarrizko denbora baliotik kontraste gisakora igarota, aurkaritza ere adieraz dezake, perpaus nagusiaren aurretik doanean batez ere:

. *Batzuk ondasun guztien jabe diren bitartean*, beste batzuek ogi pusketa bat ere ez dute.

3.3.3. –eN ARTEAN

• Menderatzaile hau iraupena adierazteko modu bietan erabiltzen da. Denbora-tarte osoko gertakaria adieraz dezake (a), baina baita azken mugako gertakaria ere (b):

a. *Eguna den artean*, bidali ninduenaren lan miragarriak egin behar ditut.

b. Bere bularrean hazi zuen, *titia kendu zion artean*.

3.3.4. –eN ARTEKO

Iraupenaren denbora-tarte osoa adierazten du:

. Agindu zien bere laguntza *bizi zen arteko*.

3.4. Azken muga adierazten dutenak ezezka emanak direnean

Zerbait 'gertatzen ez den' denbora-tartea adierazteko ez ...–eN ARTE baino egokiago da ez ...–eN BITARTEAN edo honen gisako egitura bat erabiltzea: *atea ireki ez duten bitartean*.

Hau da baiezkako eta ezezkkako perpausen eskema:

- | | |
|--|---|
| a. <i>ireki duten arte</i> | - azken mugako gertakaria. |
| b. [?] <i>ireki ez duten arte</i> | - desegokia, edo zalantzarikoa bederen. |
| c. <i>ireki ez duten bitartean</i> | - azken mugako gertakaria gauzatu arteko'
denbora guztia'. |
| d. <i>ireki duten bitartean</i> | - gertakaria gauzatzen ari den 'denbora guztia'. |

4. Denboraren erreferentzia esaldi nagusian

. NOIZ ETA (ERE) / NOIZ ERE ... BAIT-

• Perpaus hauetan esaldi nagusiak ematen du denbora-erreferentzia:

. *Goizik jama nintzen supazter xokoan, noiz ere entzun baitut tok tok tok leihoan.*

Mendekoa esaldi nagusi osoaren osagarria da. Segida 'narratiboa' ematen dio, eskuinean kokaturik betiere. Bat-batekotasuna modu enfatikoan adierazteko balio du, *bet-betan* edo *bat-batean* adizlagunak erabiltzen direlarik inoiz:

. *Itsasoan zen Frantses, beti bezala bere kurutzefika eskuan, noiz eta ere usle gabeen urerat uzten baitu bat batean erortzerat*

• Aldaerak: *NOIZ ETA, NOIZ ETA ERE, NOIZ ERE*; menderatzailea, *BAIT-*.

• Maiz erabiltzen da orainaldi narratiboa, esaldi nagusia iraganean denean ere:

. *Denak negarrez zeuden, noiz eta ere, berriak jakin beharrez heldu baitzaie auzoko gizon xahar xahar bat*

5. Gertakariak kronologian kokatzen dituzten perpausak

5.1. DUELA / ORAIN DELA + [zenbatzailea – denbora izena]

• Hizketa unetik atzera denbora-unitateak zenbatuz kokatzen dira gertakariak.

• Aldaerak: (*orain*) *duela* ekialdekoa; *orain (dela)*, mendebaldekoa batez ere.

• Zenbatzailea zehaztugabea (a) edo zehaztua (b) izan daiteke:

a. *Duela gutxi bilera bat izan zen oso asmo onarekin eta gai egoki bat erabakitzeko.*

b. *Orain dela ordubete ikusi dut gizon hori.*

5.2. –eNETIK + [zenbatzailea – denbora izena]POSTPOSIZIOA

• Kokapena erlatiboa eta zehaztugabea (a) edo zehaztua (b) izan daiteke:

a. *Samuelek, lokartu zenetik laster entzuten du, hirugarren aldikotzat, boz bera.*

b. *Erreñen denetik bosgarren hilabeterako aurkitzen da heldurik.*

• Erreferentziako gertakariak data ezaguna duenean, beste gertakaria ere kronologia orokorrean koka daiteke, kokapen zehaztugabea (a) edo zehaztua (b):

a. *Herodes hil izan zen inozenteen odola isurarazi zuenetik zenbeit hilabeteren buruko.*

b. *Piztu zenetik zortzigarren egunean, Jesus sartu zitzairen, eta erdian jarrila, hitz egin zien.*

3. HELBURUZKO PERPAUSAK

3.1. HELBURUZKO PERPAUSEN BEREIZGARRI BATZUK: ONDORIOA ETA ASMOA

Helburuzko perpausak erabiltzen ditugu zerbaiten xedea edo helburua adierazteko. Ikus dezagun, esate baterako, zer gertatzen den (1) perpausarekin:

- (1) Mikelek autoa saldu behar izan du [etxebizitza erosteko].

Kakoen artean jarri dugun "etxebizitza erosteko" horri deitzen diogu *helburuzko perpausa*, etxebizitza erostea baita, hain zuzen ere, Mikelek duen xedea, eta helburu hori betetzeko asmoz saldu baitu autoa. Autoa saldu ondoren dirua eskuratuko du, eta diru horretaz balliaturik, etxea erosi ahal izango du, bere helburua beteaz horrela.

Helburuzko perpaus hauek jokatuak –subjuntiboan emanak– nahiz jokatugabeak izan daitezkeen arren, oraingo liburuki honetan perpaus jokatuak bakarrik aztertuko ditugu, gerorako utziz, gramatika hau osatuko duen beste liburuki baterako esan nahi dugu, adizki jokatugabeaz osatutako perpaus guztiak, helburuzkoak ere barne. Egia esateko, perpaus jokatugabe hauek usuago erabiltzen dira, batez ere hizkuntza mintzatuan, baina, esan bezala, ez dira orain aztertuko.

Ikus daitekeenez, holako perpausak aditz nagusiaren osagarri gisa erabiltzen ditugu, baina ez osagarri zuzen gisara, baizik zeharkako eta bigarren mailako osagarri moduan, adverbioen antzera. Nolabait ere esateko, hortaz, ondoko adibide hauetan, kako artean ageri den sintagmaren parekoa izango litzateke helburuzko perpausa ere:

- (2) Mikelek autoa saldu behar izan du [gaur goizean].
(3) Mikelek liburu bat erosi dio umeari [kantoi hartako dendan].
(4) Mikelek liburu bat erosi dio umeari [gauetz irakur dezan].

Helburuzko perpausaren osagarri horren bigarren maila argi ikusten da ondoko beste esaldi honekin erkatzen baldin badugu:

- (5) Mikelek ez du nahi [holakorik egin dezazuen].

Adibide honetan *nahi izan* aditzak berez eskatzen du osagarri bat, baina (4) esaldian osagarri hori aukerakoa da. Hortaz, (5) adibidean, nahiz eta subjuntiboa erabili, osagarri zuzena da mendeko perpausa, ondoko honen tankerakoa:

- (6) Mikelek esan du berehala etortzeko.

Osagarri zuzen hauek *EGLU* Vean aztertu genituen. Orain aztertuko diren perpausak, ordea, ez dira sail berekoak helburuzko perpausak ez baitira osagarri zuzenen sailean kokatzen.

3.1.1. Perpaus kausalak eta helburuzkoak

Gramatikak ez datoz bat, hala ere, helburuzko perpaus hauen sailkapena egiteko orduan, arazoa aski nahasia ageri baita. Esan dezagun, beste azterketa sakonagoetan sartu gabe, xedea adierazteko erabiltzen ditugun perpaus hauetan *kausaa-ondorio* motako erlazio bat gertalzen dela, perpaus *kausaletan* ere agertzen den bezala. Erlazio hau ez da, zernahi gisaz, *kausazkoetan* aurki daitekeenaren tankerakoa, perpaus *kausaletan*, helburuzkoetan ez bezala, *kausaa* hori alde zuzeneko baita denborari dagokionez, esan nahi baita, lehenik *kausaa* bat, zergatikoa bat gertatzen dela, eta horrek geroago etorriko den zerbaiti eragiten diola. Hori ikusten da ondoko adibide hauetan:

- (7) Kaleak bustiak dira, euria egin duelako.
- (8) Triste dago, autoa saldu behar izan duelako.

Kaleak bustiak izateko *kausaa* euria da, eta lehenik euria egin du (A), eta ondorioz kaleak busti dira (B). Edo lehenik autoa saldu behar izan du Mikelek (A), eta sortu zaion behar horren ondorioz triste gelditu da (B). Ikusten denez, mendeko perpaus *kausaletako* gertaerak du eragina perpaus nagusiak aditzera ematen duen ondorioan: lehenik A (mendeko perpausa), eta ondorioz B (perpaus nagusia).

Baina helburuzkoetan *kausaa-ondoriozko* harreman hori alderantzizkoa da, ondoko adibide honetan ikusten den bezala:

- (9) Mirenek errieta egin zien isilik geldi zitezten.

Sail honetako perpausetan, helburuzko perpausetan alegia, mendeko perpaus gertaera (B) perpaus nagusiak (A) aditzera ematen duenaren ondokoa da: lehenik errieta egin (A), eta ondoren jendea isildu (B).

Beste hitz batzuekin esateko: perpaus *kausaletan* bada *kausaa* edo zergatikoa bat (mendeko perpaus biltzailea) ezinbestez beste zerbaiti eragin eta ondorio bat sortzen duena (perpaus nagusia), *kausaa-ondorio* kontu hori borondatezkoa izan nahiz ez. Eta helburuzkoetan bada zergatikoa bat (perpaus nagusia biltzailea) beste zerbaiti eragiteko borondatea erakusten duena (mendeko perpausa): eragin horrek ondorio arrakastatsua duen edo ez, nahi duena lortzen duen edo ez, besterik da, geroago ikusiko denez. Beraz, hau da perpaus batzuetako eta besteetako eskema, denboraren iraganari dagokionez:

- [ondorioa... perpaus nagusia...B [*kausaa* *kausaa*...mendeko perpausa A]].
- [*kausaa*...perpaus nagusia ...A [*helburuzkoa* ondorioa...mendeko perpausa B]]

Hori guztia, horrenbestez, *kausalak* eta *helburuzkoak* hartzen baditugu kontuan.

3.1.2. Helburuzkoak eta ondoriozkoak

Baina hau hala izanik, ez da harritzekoa helburuzko perpausak eta ondoriozkoak ere, semantika aldetik, elkarren inguruan egotea, ondoriozkoek ere, nola egiten baitute helburuzkoek, ondokoari begiratzen baitiote, nahiz ondoko hori ez duten modu berean ikusten batzuek eta besteek. Hasteko, helburuzkoek berariazkoa dute ondorioa, aldezturik bilatzen dute ondoko hori:

(10) Mirenek errieta egin zien [isil zitezzen].

Errieta horrek badu helburu garbi bat, jendea isilaraztea alegia. Zerbait berariaz bilatzen dutenez gero, helburuzko perpaus hauek subjektu egile bat behar dute, normalean biziduna izaten dena, kasu honetan "Miren".

Ondoriozkoetan ez da hori gertatzen, han azpimarratzen den ondorioa ez baita berariaz bilatzen: halabeharrez gertatutako zerbait bezala ageri da, perpaus nagusiak markatzen dituen baldintzen ondorioz gertatutako zerbait bezala-edo. Hori da hurrengo adibidean ikusten dena:

(11) Halako euri jasa egin zuen, non kamika guztiak urez beteak heldu baitziren.

Hemen ere bada kausa bat (euri jasa egitea), eta ondorio bat (karrikak bustitzea), eta helburuzkoetan bezala, perpaus nagusiak adierazten duen euri jasa hori lehenago gertatzen da karrikak bustitzea baino, hau ondorioa baita, mendeko perpausetan billen dena. Beraz, denboraren eskema aldetik, aski antzekoak dira helburuzkoak eta ondoriozkoak. Ordea, kontua da helburuzko perpausetan ezinbestekoa dela eragile baten borondatea eta, hortaz, (8) perpausa ezin da helburukolzat hartu, borondatezko eragilerik ez duenez gero, nahiz gero salbuespen balzuek aipatutako ditugun kontu hau dela eta. Perpaus horretan ezin du inork ere, eta berariaz, karrikak bustitzeko borondatearik agertu, ez du inork ere eginahalik egin hor. Baina bistan da (7) perpausetan Mirenek bere borondatea erakutsian utzi duela errieta egin duenean, berak nahi duena jendea isilik gelditzea dela, helburu hori bete nahi baitu, hori baitu xede.

Hauxe izango litzateke orduan perpaus hauen eskema nagusia:

- [kausa...perpaus nagusia ...A [helburuzko ondorioa^(borondatezko) ...mendeko perpausa B]].
- [kausa...perpaus nagusia ...A [ondoriozko ondorioa^(ez-borondatezko) ...mendeko perpausa B]].

Beraz, helburuzko perpausetan, ikusten den gisa, ondorioa eta subjektu egile bat behar ditugu, biak batera. Subjektu egileak, gainera, espresuki nahi du ondorio hori gertatzea.

Ikus dezagun orain ondoko perpaus hau: semantika aldetik, (7) perpausaren pare-parekoa da, hor ere Mirenek errieta egin baitu, eta ondorioz jendea isilik gelditu baita:

(12) Halako errieta egin zien Mirenek, non denak isil-isilik gelditu baitziren.

Baina perpaus hau, (9) ez bezala, ondoriozkoa da, ez helburuzkoa, ez baita batere argi hor Mirenek bilatzen zuen helburua denak isilaraztea zen, edo bazuen beste helbururen bat hori ez bezalakoa, perpausak adierazten ez duena. Ezin dugu esan hemen Mirenen borondatea bete dela, ez baitakigu zein den Mirenen borondatea. Dakigun gauza bakarra da Mirenek errieta egin diela

eta ondorioz, jendea isilik gelditu dela, baina ez dakigu hori zen zinez Mirenek nahi zuena. Alabaina, eta hemen ikusten da desberdintasuna, (7) perpausan badakigu Mirenek errieta egin diela, eta badakigu, aldi berean, Mirenen borondatea zela jendea isilik gelditzea.

Ohart gaitezenez orain beste bi adibide hauetan:

- (13) Mirenek errieta egin zien [elkarren artean joka ibil ez zitezen].
- (14) Mirenek errieta egin zien [lehenbailehen ikasten has zitezen].

Horiek dira egiazko helburuzkoak, agentearen helburua, batean eta bestean, kako artean aipatzen dena baita. Gerta liteke, hori bai, helburu hori izanik ere, ondorioa beste bat izatea, eta elkarren artean joka ibiltzeari utzi beharrean, edo berehala ikasten hasi beharrean, denak isil-isilik gelditzea. Adibide horietan ikusten da zein den, semantika aldetik, helburuzkoen eta ondoriozkoen arteko bereizgarri nagusietako bat. Egoera hau argiago geratzen da, hain segur ere, bi ondorio motak batera ematen ditugunean:

- (15) Lehenbailehen ikasten has zitezen Mirenek halako errieta egin zien, non denak isil-isilik gelditu baitziren.

Hor ikusten da beharbada argiago orain arte adierazten saiatu garena: bada kausa bat (errieta egitea), kausa horrek ondorio bat bilatzen zuen (helburuzko perpausa: ikasten hastea) baina zinez beste bat izan du (ondoriozkoa: jendea isilik gelditzea). Lehenbizikoan bazen nahikari bat, azkenean bete ez dena. Edo geroago betetzen bada ere, perpausak ez digu inolako informaziorik ematen horri buruz.

Esan dezagun, hortaz, "esanahia" hartzen badugu kontuan, ondoriozko perpausek eta helburuzkoek ondorioari behalzen diotela, eta azkeneko hauek subjektu egile bat eskatzen dutela, ondorio hori betetzea nahi duena. Helburuzko perpausek "asमतasun" bat adierazten dute beti, zerbait betetzeko "asmoa", hain zuzen ere. Eta asमतasun hori ageri denez gero, ez da zaila izaten batere helburuzko perpausaren parafrasia egitea, ondoriozko perpausetan egin ezin dena, "nahi izan" bezalako aditzak erabiliz:

- (16) Autoa saldu zuten etxebizitza erosi nahi zutelako.
- (17) Errieta egin zien Mirenek denak isilik gelditzea nahi zuelako.
- (18) *Euri jasa egin zuen, kaleak busti nahi zirelako.

3.1.3. Helburuzkoak, kausalak eta ondoriozkoak

Orain arte esandakoa kontuan harturik, orduan, hiru esaldi mota hauen laburpena egin daiteke orain: hiruretan gertatzen da kausa-ondorio erlazio bat. Kausaletan erlazio hori ezinbestekoa da, kausa mendeko perpausan adierazten da eta ondorioa, berriz, perpaus nagusian. Ondoriozkoetan, kausa perpaus nagusian ageri da, eta ondorioa mendekoan. Helburuzkoetan ere ber gauza gertatzen da, baina kausa hori eragile baten borondateari zor zaio. Hau izango litzateke eskema nagusia:

- [ondorioa... perpaus nagusia...B [kausalak kausa...mendeko perpausa A]]
- [kausa...perpaus nagusia...A [ondoriozkoa ondorioa^(borondateazkoa)...mendeko perpausa B]]
- [kausa...perpaus nagusia...A [helburuzkoa ondorioa^(borondateazkoa)...mendeko perpausa B]]

Horiek dira, nolabait esan behar baldin bada, desberdintasun semantikoak, esaldien esanahiarekin lotzen diren desberdintasunak. Berehala oihartzen gara badirela desberdintasun sintaktikoak ere, gorabehera batzuekin nahi bada, semantikarekin halako lotura bat erakusten dutenak. Kausaletan *BAIT-*, *-eLAKO*, *ETA* bezalako hizkiak erabiltzen ditugu, ondoriozkoetan *non... bait*, alborakuntza hutsa besterik gabe, eta abar. Azkenik, helburuzkoetan *-T(Z)EKO*, *-T(Z)ERA*, edo subjuntiboa, besteak beste, erabiltzen dugu. Eskema (soildu) hau izango genuke orduan:

- [ondorioa... perpaus nagusia...B [*kausa* kausa...mendeko perpausa (*-eLAKO*) A]].
- [*kausa*...perpaus nagusia ...A [ondorioa onorioa^(az-borondetzekal)...mendeko perpausa.... (NON... *BAIT*) B]].
- [*kausa*...perpaus nagusia ...A [helburuzkoa onorioa^(borondetzekal)...mendeko perpausa.... (subjuntiboa) B]].

3.2. BESTE ÑABARDURA BATZUK

3.2.1 Subjektu bizigabea duten perpausak

Gramatika batzuetan helburuzkotzat hartu izan dira subjektu bizigabea duten perpaus batzuk, hizkera mintzatuan maizago ageri direnak idatzian baino, ondoko adibide hauetan ikusten den gisan:

(19) Teilatu berria behar du etxeak, denborarekin paretak honda ez daitezen.

(20) Teilatu berria behar du etxeak, denborarekin paretak ez hondatzeko.

Nahiz gaur egun ematen duen holako perpausak ez direla egiazko eta benetako helburuzko perpaustzat hartzen, teilatuak ezin baitu izan, bistan denez, inolako asmorik paretak babesteko edo hondatzeko, guk sail berean sartuko ditugu gramatika honetan. Egia da subjektu agentea falta dela hor, baina perpaus hauen itxura orain arte ikusi ditugun gainerako helburuzkoena bezalako da, eta egia bada ere helburuzko perpausetan A dela "asmoa" eta B asmo horren helburua, eta A eta B-ren artean dagoen erlazioa nahikari egile batean oinarritzen dela, uste dugu perpaus hauek sail honetan berean sartu behar direla. Duten itxura gardenagatik, batetik, baina oso mugatuak direlako ere, bestetik. Holako egiturak, halaxe da, aski mugatuak diren egoeretan bakarrik erabil daitezke: perpaus nagusian *asmoa*, *beharra*, *komenigarritasuna*, *erabilgarritasuna* bezalako kontzeptuak adierazten dituzten aditzak behar ditugu. Aditz gutxirekin erabil daitezke hortaz. Goiko adibide hori, esate baterako, zenbait mintzotan bederen *nahi ukan* erabiliz ere eman daiteke:

(21) Teilatu berria nahi du etxeak, denborarekin paretak ez hondatzeko.

Beharbada, hor gertatzen dena da esapide hauek egitura inpersonalekin daudela lotuak. Badirudi adibide horrek esan nahi duena dela norbaitek teilatua eman behar diola etxeari, teilatua lehenbailehen eman behar zaiola, bestela etxea eroriko baita. Aditz gutxirekin, esan bezala, gertatzen da hori.

Sarritan, hala ere, ez dago hain argi mendeko perpausa helburuzkoa den ere, baldintza edo modalitatea ere adieraz baitezake. Ikus dezagun nola eman daitekeen (19) esaldia beste modu batera:

- (22) Teilatu berria behar du etreak, denborarekin paretak ez hondatzekotan.
- (23) Teilatu berria behar du etreak, denborarekin paretak hondatuko ez badira.

Hiztun batzuek asko erabiltzen dituzte holako esaldiak, baina nekez esan daiteke perpaus hauek helburuzkoak diren. Gainera, oharl gaitezen, hauetan inolako arazorik gabe erabil daitezke subjektu bizidunak:

- (24) Baina, ikusi eta aurkituko badugu, bila eta begira ibili beharko dugu nahi eta ez (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 94).

Hor esan nahi dena da bila eta begira ibili beharko dugula ikusi eta aurkitzekotan, edo ikusi eta aurkitzeko. Mendeko perpausa –esan bezala, semantika aldetik batzuetan helburuzkoen muga-mugan izan daitekeena– beti geroko aspektuaren markarekin ageri da. Hona hemen adibide gehiago:

- (25) Hori da, den hori, den bezalaxe eta ez nahi genukeen legez, maitatu, behar duguna, bizkortuko badugu eta indartuko (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak II*, 130).
- (26) guztiz ere, nik uste, eskola behar dugu geure esku izan Euzkadi euskaldunduko badugu (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak II*, 32).

3.2.2. Inpertsionalak

Inpertsional balzuekin ere arazoak sor daitezke:

- (27) Asko irakurri behar da ongi idazteko.
- (28) Jateko lan egin behar da eta asko jakiteko asko ikasi.

Gramatikari batzuen ustez, ez da egokia holako perpausak helburuzkoetan sartzea, ez baita ikusten hor agenterik, agerian bederen. Baina badirudi, zemahi gisaz, egitura aldetik antz handiak daudela batzuen eta besteen artean, eta nekez esan daitekeela inpertsionala izateak edo ez markatzen duela helburuzko perpausen izaera:

- (29) Eskoletan asko irakurtzen da ongi idazteko.
- (30) Eskoletan asko irakurtzen dute umeei ongi idazten ikasteko.

Bi perpausak oso antzekoak dira, eta bistan da norbaitek idazten ikasi nahi baldin badu, borondate hori erakutsi behar duela, eta “asmo” hori berdin ageri dela pertsona markatzen duten perpausetan nola inpertsionalan, nahiz azken hauetan ez den zehazten argi eta garbi nork duen asmo hori.

3.2.3. Erabilgarritasuna adierazten duten perpausak

A eta B-ren artean gertatzen den asmo zuzen eta estu horretaz gain, badira perpaus hauetan igar daitezkeen beste erlazio mota balzuk ere, nahitasun eta nahikari hori zuzenean erabilgarritasunarekin lotzen dutenak. Horretan, balzuetan, nolabaiteko erabilgarritasuna adierazten da helburuetan:

- (31) Kate hori erosiko dut bizikleta ongi lotzeko.
- (32) Jonak ez du balio ikastetxe batean eskolak ematen ibiltzeko.
- (33) Lizarragak erantzun zien, etxalde oneko gizona zala, ta edukitzeko; soldaduzkoa mutil berriei erakusteko balioko zula (Orixe, *Santa Cruz apaiza*, 102).
- (34) An da talogillea, Eratsungo Koxko, kana t'endi luze eskas, goiez-beiaz sendo, arbi-erai-tekoan nonbait aziak jo, talogiteko behintzat ba duke balio (Orixe, *Euskaldunak*, 15).

3.2.4. Helburua ondorio gisa hartua

Beste batzuetan nahitasuna helburua ondorio gisa bakarrik hartzen da: B atalak ez du biltzen nahikaria, B egiaz A atalean gertatzen diren egoera batzuen ondorioa baizik ez baita:

- (35) Ez du indarrik berriz ere lanean hasteko.
- (36) Ez du dirurik oporretara joateko.
- (37) Baina badu patxadarik hain liburu luzea irakurtzeko?
- (38) Eramango du autoa Donostiara etortzeko.

Ikusten denez, B ataleko helburu-ondorio hori beti dago lotua A atalean ageri den egoera batekin: indarrik edo dirurik ez izatearekin, edo patxada eta autoa izatearekin.

3.2.5. Helburua, segida kronologiko hutsa

Bete nahi den helburua segida kronologiko hutsean gauzatzen da zenbaitetan:

- (39) Borda batean geldituko dira gaur gauean lo egiten, bihar goizean mendi tontoreraino joateko.

3.2.6. Helburua, borondatearen aurkakoa

Eta kontrastea adierazteko ere erabiltzen ditugu batzuetan xedezko perpaus hauek, ondoko adibide hauetan ikusten den bezala:

- (40) Uda osoa egon zen azterketa prestatzen, azkenean ez gainditzeko.
- (41) Urte osoan ibili da lanean, azken orduan dena jokoan galtzeko.

Bi perpaus hauetan, bistan denez, ez da hain argi gelditzen nahikari hori, hain juxtu subjektuak nahi zuenaren aurkakoa bete baita: azterketa egitera joan denak, jakina, azterketa gainditu nahi zuen, ez gaizki atera, eta lanean ibili denari ez zitzaion burutik ere pasatzen irabazi guztiak egun batetik bestera galtzea, baina, horrekin batera ere, bistan da bi perpausetan subjektu agente bat ageri dela, asmo batekin (besterik da asmoa bete den, edo aurkakoa gertatu den) eta, horrenbestez, helburuzkoen artean sailkatzeko baldintzarik

apalena betetzen dutela. Horrela, (40) esaldiaren parafrasi egokia izan daiteke ondoko hau:

- (42) Uda osoan egon zen azterketa prestatzen, gairiditu ahal izateko, baina azkenean ez zuen gairiditu.

Ikusten denez, A eta B-ren arteko erlazioak borondatezkoak badira ere, borondate horrek batzuetan oso ñabardura argiak ditu, eta sail desberdinetan sar ditzakegu, azkeneko adibide guztietan ikusi dugun gisan.

Dena dela, atal honetan nahiz aurreko atalean ageri diren perpausak, estilo aldetik, badirudi egokiago gelditzen direla euskaraz beste esamolde hau erabiltzen badugu:

- (43) Borda batean geldituko dira gaur gauean lo egiten, eta bihar goizean mendi tontorreraino joango dira.
- (44) Uda osoa egon zen azterketa prestatzen eta azkenean ez du gairiditu.
- (45) Urte osoan ibili da lanean, baina azken orduan dena jokoan galdu du.

3.2.7. Helburua eta konparazio morfema batzuk

Izenondoek *-EGI* marka hartzen dute gehiegizko maila adierazteko: *EGLU* lean ikusi genuen gisan, gauza bat da *etxe hori garestia da*, eta beste bat *etxe hori garestiegia da*. Konparazioak adierazteko erabiltzen ditugun egituretan, eta maila aditzondoekin, hain zuzen ere, aski arruntak dira helburuzko perpausak:

- (46) *Etxe hori garestiegia da nik erosteko.*
- (47) *Etxe hori sobera garestia da nik erosteko.*
- (48) *Ez du aski indarrrik harri hori goratzeko.*
- (49) *Badu indar franko mendi tontorreraino joateko.*
- (50) *Ez dakigu nahiko hori ongi utertzeko.*

Holakoetan, helburuzko perpausa eskuin aldean joan daiteke, adibide hauetan bezala, edo ezker aldean ere:

- (51) *Nik erosteko, garestiegia da etxe hori.*
- (52) *Nik erosteko, sobera garestia da etxe hori.*

Hala ere, *adina* eta *lain* erabiltzen baldin baditugu, helburuzko perpausa beti ezkerreko aldean jarri behar dugu:

- (53) *Ez dugu dirurik hori erosteko adina.*
- (54) **Ez dugu dirurik adina hori erosteko.*
- (55) *Jendeari adarra jotzeko lain astia badu.*
- (56) **Badu astia lain jendeari adarra jotzeko.*

3.2.8. Helburuzko eta baldintzako perpausak

Muga-mugan dauden beste perpaus batzuk ere badira, hemen aipatu behar direnak. Muga daudela diogu, zaila baita zehaztea non sartu behar diren,

baldintzazkoen artean edo helburuzkoen artean. Ikus dezagun ondoko adibide hau, baldintzazkoak aztertzean ere agertzen dena:

- (57) Ezta aski norberak lan egitea la saiatzea zerua irabazteko: ortaz gaitera Yainkoaren grazia ta laguntza ere bear dira, nai-ta-naiez bear dira, ezer onik egingo badugu ta zerua irixiko badugu (P. Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 355).

Adibide honen itxura baldintzazko perpausena da (*egingo badugu, irixiko badugu*), baina bistan da hemen "on egitea" edo "zerua iristea" ez dela baldintza bat Jainkoaren grazia izateko. Hain zuzen ere, alderantzizkoa gertatzen da: "Jainkoaren grazia baldin badugu, zerua iritsiko dugu". Perpaus hauetan, helburuzkoetan gertatzen den gisan, mendeko perpausoko gertaera ("zerua iristea", kasu honetan), perpaus nagusian aditzera ematen den gertaeraren ("Jainkoaren graziaren beharra") ondorioa da. Helburuzkoetan gertatzen da hau, hain zuzen ere: "errieta egin diet isil daitezten". Errieta egitea da kausa, eta isiltzea ondorioa. Aztertzen ari garen perpausetan ere berdintsu: "Jainkoaren grazia behar da, zerua iritsi nahi badugu".

Holako adibideak ez dira falta, eta haien ezaugarrietako bat da baldintza itxura duen perpausoko aditz nagusia geroaren markarekin agertzea:

- (58) Izan duk hik herori baino laguntzaile hobea lan hori egingo bahuen (J. Arratibel, *Kontu zaharrak*, 65).

- (59) Badaukat nik horren beharra egunero ogia jango badut (J. Arratibel, *Kontu zaharrak*, 107).

(58) adibidearen testuingurua jarri behar da, ongi ulertzekotan: deabruak froga zail batzuk jarri dizkio protagonistari, eta honek deabruaren alaba jainkozkoaren laguntzarekin ateratzen ditu aurrera, bestela ezingo baitzuen. Orduan hori da deabruak esaten duena, protagonista bera ez zela gai izango lan hori egiteko, alegia.

Baina perpaus hauek helburuzkoak baldin badira, eta ez baldintzazkoak –ixurak erakusten duenaren kontra– badute bestelako ezaugarririk? Zein da perpaus hauen berezitasuna?

Helburuzko perpaus arruntetan gertatzen den inplikazioa baldin bada perpaus nagusian egiten denaren ondorioa dela mendeko perpausetan gertatzen dena (oroit gaitezen kausaletan alderantzizkoa gertatzen dela), baldintza ixurako perpaus hauetan ere berdin gertatzen da, baina inplikazioa bortizago eta estuagoa da: mendeko perpausetan adierazten den helburu hori bete ahal izateko baldintza nahitaezko gertatzen da perpaus nagusian agertzen dena egitea, eta horretarako eta ez beste ezertarako egiten da perpaus nagusiko ekintza. Ikus ditzagun adibide hauek:

- (60) Hiztegi hau erosi behar dugu [ingelese ikasteko].

- (61) Hiztegi hau erosi behar dugu [ingelese ikasiko badugu].

Bi perpausen artean dagoen desberdintasuna hau da: bietan helburua ingelese ikastea izanik ere, lehenbizikoan ingelese ikasteko bide bat erakusten da (hiztegia erostea), baina bigarrenetan bide hori erakustez gain bide bakarra dela ere esaten da, hiztegia erosi gabe ezin dela hizkuntza hori ikasi. Hemen bada presuposizio bat, jakina, ezinbestean egia ez dena, baina hiztunarentzat egia den balioa duena: ingelese ikasteko modu bakarra, aipatzen den hiztegi hori erabiltzea ezinbestekoa dela, ezinbesteko baldintza dela. Alde horretatik lotzen

da baldintzazkoekin –itzuraz–, baina baldintzazkoetan azpimarratzen den baldintza ez da baldintza bakarra ez ezinbestekoa, eta egitura sintaktikoa ere, esan bezala, alderantziz gertatzen da, ondoko adibideetan ikusten den gisan:

(62) [Hiztegi hau erosten baduzu] ingelesa ikasiko duzu.

(63) Hiztegi hau erosi behar duzu [ingelesa ikasiko baduzu].

Arrazoi beragatik, lotura berezi hori ez badago, ezin ditugu erabili baldintza itxurako helburuzko perpausak:

(64) Arropa hori aldatu behar duzu, lo egingo baduzu.

Hiztunak hori esango du pentsatzen baldin badu lo egiteko nahitaezkoa dela arropa aldatzea (bustia dagoelako, adibidez), baina ez bestela.

Kontura gaitzen, azkenik, holako perpausok *behar* hitza eskatzen dutela anitzetan, eta iraganean ere ematen ditugula:

(65) Azkenean, zoratuko ez bazen, anaia zaharrenak dena esan zion (J. Arratibel, *Kontu zaharrak*, 120).

(66) Jende guztiak lasterka ihes egin behar izan zuen handik, itoko ez bazen (J. Arratibel, *Kontu zaharrak*, 129).

3.3. HELBURUZKO PERPAUS MOTAK: JOKATUAK ETA JOKATUGABEAK

3.3.1. Perpaus jokatuak eta jokatugabeak

Orain arte jarri ditugun adibideetan ikusten da, gainera, zer bideak erabiltzen dituen euskarak sintaxi mailan, "formari" dagokionez, helburuzko perpaus hauek sortzeko. Mendeko perpausoko aditza jokatua nahiz jokatugabea izan baitaiteke:

(67) Errieta egin zien [ikasten has zitezzen].

(68) Autoa saldu zulen [etxebizitza erosteko].

Helburuzko perpausok, oro har, *ZERTARA* eta *ZERTA(RA)KO* galderei erantzuten diete:

(69) Autoa saldu ondoren etxebizitza erostera joan dira. (*zertara*).

(70) Autoa saldu dute etxebizitza erosteko. (*zerta(ra)ko*).

Baina batzuetan *ZERTAKO* galdera *ZERGATIK*-en balioarekin erabiltzen da:

(71) – Zertako etorri zara lasterka?

– Berandu nentorrela uste bainuen.

Ondoko lerroetan ez dira azkeneko hauen tankerakoak aztertuko, aurreko (67) eta (68) bezalako horiek baizik, nahiz batzuetan muga argiak jartzea kontu erraza ez den:

(72) Hara hurbildu zen denek ikus zezaten.

Badirudi hor edozein izan daitekeela galdera: *zertara, zerta(ra), zergatik, zer dela eta, etab.*

Helburuzko perpausak, lehen esan bezala, jokatuak nahiz jokatugabeak izan daitezke:

- (73) Umea ospitalera eraman dute sendatzera.
- (74) Umea ospitalera eraman dute han senda dezaten.
- (75) Mendira joan dira oporrak pasatzera.
- (76) Plazako jaialdira eraman du senargaia dantzan ikas dezan.
- (77) Intermelan eseki nuen bertia denek jakin zezaten gertatutakoa.

Egia esan, hizlunak eskura baldin baditu bi baliabideak, aditz jokatuak nahiz jokatugabeak erabiliz, alegia, ez da erraz jakitea noiz erabili behar diren batzuk, eta noiz besteak, ez baita bakarrik aukera askearen kontua.

Esan dezagun, zernahi gisaz, badela joera bat, gehienetan bederen betetzen dena: perpaus nagusiko subjektuak eta helburuzko perpaus txertatuarenak erreferentzia bera dutenean, helburuzko perpausa forma ez jokatuaren ematen da, eta ez aditz jokatuarekin:

- (78) Liburu bat erostera joan naiz.
- (79) Liburua erosteko dirua hartu dut.
- (80) *Liburua eros dezadan dirua hartu dut.
- (81) Liburua eros dezan dirua eman diot.

Azkeneko adibideetan ikusten da subjektuak erreferentzia bera duenean ez duela lekurik forma jokatuak, baina forma jokatu erabilizko arazorik ez dagoela subjektuaren erreferentzia bakarra ez denean. Horrela, arrazoi beragatik, ondoko adibide honetan bi subjektuek erreferentzia bakarra dutenez gero, forma jokatugabea da onartzen den aldaera bakarra:

- (82) Mikel, ospitalera joan da [(Mikel_{ek}) alaba zaintzera].
- (83) *Mikel, ospitalera joan da [(Mikel_{ek}) alaba zain dezan].

Hala ere, hori joera bat da, baina ezin da esan joera hau ezinbestean bete beharreko legea denik. Zaila da esatea, ordea, zer dela eta errazago egiten zaigun zenbait perpaus onartzea, aditza jokatu izaki, bi perpaus erreferentzia bakarrek subjektua baldin badute ere. Badirudi zenbat eta "urrunago" egon, perpausaren egitura, bi subjektuak, errazago gertatzen dela perpaus jokatu. Esate baterako, ezezka baldin bada perpaus nagusia, egitura hauek erabil daitezke, batzuetan bederen:

- (84) Foru ogasunarekin arazorik izan ez dezadan, bihartik aurrera akzioak saltzen hasiko naiz.
- (85) Gehiegi gasta ez dezadan, dirua etxean utzi dut.

Hau baiezka emanik, ordea, nekez onartuko dugu perpausa:

- (86) *Liburua eros dezadan, dirua hartu dut.

Badirudi ezezka jartze horrek eragindako urruntzeak bideratzen dituela holako perpausak. Horren antzeko ondorioa gertatzen du subjektuaren eraginkortasuna leuntzen baldin bada:

- (87) *Retegiri deituko diot finalerako sarrera lor dezadan.
- (88) Retegiri deitu diot finalean eserleku egokia izan dezadan.
- (89) Retegiri deitu diot finalean leku egokian izan nadin.
- (90) Retegiri deitu diot finala leku egokitik ikusi ahal izan dezadan.

Aipatu berri ditugun ezezko esaldietan ere hau gertatzen da zenbaitetan, ezezko guztiak ez baitira zilegi. Konpara ditzagun hurrengo bi adibideak:

- (91) ??Atarian oharra jarri dut, gero etxex etxe ibil ez nadin.
- (92) Atarian oharra jarri dut, gero etxex etxe ibiltzeko beharrik izan ez dezadan.

Beraz, ikusten den gisan, nekez eman daitezke kontu hauetan arau zurrunak. Esan dezagun aipatu urruntze horrek laguntzen duela subjektu bera duten perpausak sortzen, eta urruntzeari esaldiak ezezka jartzeak edo agentetasuna lausolzeak eragiten diola. Eta gauza bera, gertatzen da, azkenik, perpausentzako sintagma gehiago tartekatzen baldin baditugu:

- (93) *Hori egin dezadan joan naiz etxera.
- (94) Mikeli azkenean ongi erakuts diezaiodan, ongi ikasi beharko dut neronek lehenik.
- (95) Azkenean, Mikel, oheratu aurretik, ikusi (ahal izan) nezan, ez nuen tren hartu beste erremediorik.

Perpaus nagusiko subjektuaren erreferentzia helburuzkoaren barnean dagoenean errazago onartzen ditugu holako perpausak:

- (96) Liburu hau erosiko dut, datorren astean hasita denok eskolan irakur dezagun.
- (97) Film hau alokatu dut, elkarrekin ikus dezagun.

Dena dela, hala ere, eta esan bezala, erreferentzia desberdineko subjektuak baldin badira, aldiz, forma jokatuan eman daiteke perpausa, baina bai jokatugabeen ere, aditzak dituen ezaugarri semantikoaren arabera (*etoni*, *ekarri*, *eman*) eta aditz erregimenaren ($-T(Z)EKO$, $-T(Z)ERA$) arabera. Testuinguruak argituko du azken batean esanahia. Ondoko lerroetan perpaus jokatuarik bakarrik aztertuko dira.

3.3.2. Helburuzko perpaus jokatuarik

Esan den bezala, helburuzko perpausak adizkera jokatugabeen emateko joera handiagoa badugu ere, subjuntiboa ere erabiltzen dugu maiz:

- (98) Irakasleak liburu baten titulua aipatu die ikasleei, lehenbailehen *irakurtzeko*.
- (99) Irakasleak liburu baten titulua aipatu die ikasleei, lehenbailehen *irakur dezaten*.

3.3.2.1.—*eN subjuntiboaren marka*

Helburuzko perpausen modurik maizkoena da subjuntiboarena, adizki mota hori bakarrik, bestelako markarik gabe, aski baita euskalki gehienetan helburua adierazteko. Erabili ere, hori da gaur erabiltzen den forma ia bakarra, geroago aztertuko ditugun beste modu gehienak (subjuntiboari beste zerbait gaineratzen diotenak alegia), batez ere literaturan ageri baitira eta ez, ordea, hizkera mintzatuan ez gaurko hizkera idatzian ere:

(100) Abisua jari zuten paretan, denek ikus zezaten.

Halako adibide ugari aurkituko dugu testuetan:

(101) Iragaiten naiz, nehorik nizaz estima eztezan (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, 328).

(102) exenplu ona ukan drauzuet... zuek-ere dagizuen (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, 190).

(103) Arno xorta bat ekartzen deiete, berniz har dezaten indar (J. Etchepare, *Buruchkak*, 30).

(104) Eskuak egotziko dizkizueté, yazarriko zaizkizue, sinagoga ta baitegielan sartu ta azorritz yoko zailuztee, errege ta agintarien aurrera eramango zaituztee nere izenagatik, aien aurrean aitor-egin dezazuen (P. Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 407).

(105) Oraindik ere zuen artean argi piska batek badirau, Jesus'ek esan zien, eta argi onek dirauen bitartean ibili zaitezte, illunak itsumustuan artu etzaitzaten: illunpean dabillenenak, ez daki, non dabillen; argia dezuten artean, argiagan sinistu ezazute, argiaren humeak izan zaitezten (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 431).

Helburuzko egitura hauen ezaugarria da ezezka ematen ditugunean ezeztaren partikula partizipio edo aditzoinaren ondoan jarzea:

(106) Inork ere ikus ez dezan gordeko dut mahaipean.

(107) Besoetan eramango zaituzte, harriekin estropezu egin ez dezagun.

Helburuzkoak ez diren egituretan erabiltzen ditugun subjuntiboekin hau ez da izaten beharrezkoa, eta bi gisako egiturak ikusiko ditugu:

(108) debekatu dlotet nehorik ez dezaten hunki (P. Lafitte, *Grammaire basque*, 396).

(109) Aziendarik sar ez dadin herri hunkako oihan barnetan, ezkur debekua emana dugu (J. M. Satrustegi, *Euskal Testu Zaharrak*, 136; cf. *EGLU V*, 141).

(110) ... aginduten eutsela ez egiela jan onaren eta txarraren arbolatik (A. Iturzaeta, *Azarduera laburrac*, 28; cf. *EGLU V*, 142).

(111) Ez nakien konkupiszenzia zer erran nahi zen, legiak ezpalu erran ezlezala desira iniustoki (J. Tartas, *Onça hilceca bidia*, 28; cf. *EGLU V*, 144).

Adizki sintetikoetan ere erabiltzen dira batzuetan subjuntiboko adizkiak:

(112) ...eta haiei komunika niezen... neholere alfer laster eznagian (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, 332).

(113) *Othoitz egizus sar etzaitzeten tentationetan* (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, 132).

Euskalki zenbaitetako testuetan subjuntiboaren *-N* amaiera hau indarlu egiten da, beste atzizki batzuk erantsirik, subjuntiboak berak bakarrik indarrak aski izango ez balu bezala. Ondoran ikusiko dugu hori.

Batzuetan, perpaus hauek mintzagai edo galdegai gisan ematen ditugu. Orduan, aurrean joateko joera dute:

- (114) Jainkoak eritasunetik libro gaitzan, egunero joango gara elizara.
- (115) Ezta ongi zeruko koria galaraz dezazuen Jesusen soldadu batzuei, heiekin zanebeit egunez bizitzeko atseginaren gatik (B. Joannateguy, *Sainduen Bizitza*, 30).
- (116) Au bera gerlatzen da ez gutxitan bekatuak ongi aitortu gabez; eta argiro ezagutu dezazuen egia au, itz egiti nai dizuet gaur konfesioaren gafean (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia III*, 520).

3.3.2.2. –eNTZAT formakoak

Hegoaldeko eta Iparraldeko autoreek –TZAT kasu destinatiboaren atzikia erabili izan dute –eN menderagailua indartzeko. Larramendik, esate baterako, bere garaian marka maizkoena dela dio: <<Las oraciones, que en Romance significan algún fin y traen esta voz 'para', 'para que', se hacen en Bascuence con la posposición 'izat', que se añade a la terminación del verbo: 'etorri-dedintzát', 'para que se venga'; 'ertú-zenezantzát', 'para que lo tomases'; 'ori egitekotzát', 'para hacer eso'; 'emán-geniozantzát', 'para que le diésemos'.>> (Arte, 321. or.).

Atziki hau, –eNTZAT, Iparraldean erabili izan da gehien bat, baina Hegoaldean ere ez dira adibideak falta. Juan Mateo Zabalak zioenez, askok erabiltzen omen zuten Hegoaldean XIX. mendearen erdialdea arte. Eta Mogelek edo Fray Bartolomek erabiltzen ez badute ere, ez zaie arrolza egiten Otxoa de Arini, Ubillosi eta Añibarrori, esate baterako:

- (117) Etzait niri eman zure laudorioen aiphatzez hain aitzina pentsatzea, helango klaretatea neure mintzatzeko insufizientziak ilhun eztezedantzat (J. Leizarraga, *Testamentu Berria*, Erreginari egin karta, 910).
- (118) Azkenean, erran zioten garbiki: hil da Lazara, eta atsegin dut zuen gatik ez bainaiz han gerhatu, zuen fedea perfetagoa izan dadintzat (B. Larreguy, *Testamentu zaharr. berr. historia*, II, 203).
- (119) Erreusitzekotzat lagun proximoaren korrekzioean, prudentzia handirekin jokatu behar da, probetbos bihur dezaketan zirkonstantzielan, amodiorekin eta amultsuki, agradagarri izan dadintzat, kharrekin eta fermutasunekin salbagarri bihurtzeko (A. Jauretche, *Meditazioneac*, 128).
- (120) Ez dezagunztat gehiago gal, bizi gaiten izpirituz (A. Jauretche, *Meditazioneac*, 112).
- (121) Zertako barautu bear gara garizumako egun guzietan? Bazko-pesta andirako presta gaitzentzat (J. A. Ubillos, *Cristau doctriñ bert-ecartea*, 189).
- (122) ...faborezitzeagalik, eta...etori etzekion edo ondasunen bat kensegidu zegiéntzat... (Ochoa de Arin, *Doctrina Christianaren explicacioa*, 148).
- (123) Onela fededun guztiak ikasi egientzat modu batera Kredoa (P. A. Añibarro, *Misionari Euskalduna*, argitaragabea, Villasantek aipatua in *Sintaxis de la oracion compuesta*, 138).

Ohart gaitzen (119) eta (120) adibideetan: lehenbizikoan, bi helburuzko ageri dira, –eNTZAT formakoa bata, eta –T(Z)EKO formakoa bestea. Bigarrenean, egiazko helburuzko perpausa ematen du Jaurelkek –eNTZAT formarekin, subjuntiboko lagunlzailea duen aditz baten azpian bildua:

(82') agradagarri izan dadintzat, ...salbagarri bihurtzeko.

(83') bizi gaitezen izpirituz [gehiago ez gaitzeko / ez dezagun gehiago gal]

Badira idazleak subjuntibo hutsa, batzuetan, eta subjuntiboa gehi –eNTZAT atzikia erabiltzen dutenak, bien artean desberdintasunik egin gabe, itxuraz bederen:

(124) Ongarria da gero gauza beharra lurak eman dezantzat (J. Duvoisin, *Dialogues Basques*, 45).

(125) Ongarria eman eta, estal zazu, negua hala iragan dezan (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 26).

(126) Nahi izan da sarthu *Jerusalemen trionfa handitan, bere Pasioneko laidoa gehiagokoa eta saminagoa izan zezantzat (A. Jauretche, *Meditazioneac*, 148).

(127) Othoiztu zuten Jesu Kristo gure Jauna senda zezan emazteki hura (A. Jauretche, *Meditazioneac*, 131).

3.3.2.3. NAHIZ eta ARREN lokailuak helburuzko perpausetan

Batzuetan, euskara idatzian, *nahiz (eta)* erabiltzen da helburuzko perpausetan, batez ere Iparraldeko testuetan. Lokailu igarle hau (*nahiz eta, nahizik eta* ere bezala agertzen ahal da) mendeko perpausaren hasieran jartzen da, eta aditz laguntzailea subjuntiboan doa:

(128) Helaz ere artha hartzen du, nahiz eta noizbait bederen harenganat itzul ditezten (M. Duhalde, *Meditazioneac*, 235).

Hori, egungo euskara hedatuenean hola esango genuke:

(129) Haielaz ere artha hartzen du, noizbait bederen harenganat itzul daitezten.

Hona hemen beste adibide batzuk, denak helburuzko perpausak:

(130) Egin ditu bere ahal guztiak, nahiz eta onez-onenean gobernamenduko gizonekin batean bizi (J. Hiriart-Urruty, *Mintzaira. Aurpegi. Gizon*, 70).

(131) Absalonek asko egin zuen, nahiz amonatu Dabit (B. Larreguy, *Testament çaharr, berr. historia I*, 309).

NAHIZ bezala, ARREN ere agertzen da holako perpausetan:

(132) Arren eta jin dadin.

Hori da erabilera arruntena. Dena dela, lokailu hau postposizio gisa ere agertzen ahal da, *gatik* postposizio bezala, –eN menderegailueri itsatsirik, eta, esan bezala, helburuzko balioa ematen dio orduan perpausari (adizki jokatu gabeekin usu erabiltzen da), baina adizki jokatu gabeekin ez du tradizio gehiegi eta oso adibide gutxi aurki daitezke literaturan. Hona hemen bat:

(133) Eskaldun guzia da egun gonbidatzen. Has dadin izpirituz zerbeiten moldatzen, Yakin dezaten arren gure ondokoek. Nolako gaiak zuzten hekin arbasoek (J. M. Hiribarren, *Eskaldunac*, 6).

3.3.2.4. *-eN GATIK formakoak*

Postposizio hau subjuntibo markari erantsiz gero, helburuzko zentzua markatuago gelditzen da:

- (134) Okhasinoak okhasinoa pitz eztezangatik (P. Axular, *Guero*, 246).
- (135) Exenplua eman darotzuet ezen... zuek ere hala egin dezazuen gatik (J. Haraneder, *Testament berria*, XIII, 15).
- (136) O Jainkoa, fidel gustien kreatzailea, emozute zure zerbilzarien arimei bere bekhatu gustien barkhamendua, ardiets dezatengatik gure orazione humillen moianez belhi desiratu duten grazia (B. Gasteluçar, *Eguia Catholicac*, 56).
- (137) Zagozte horiei beha, ene arima, eta hezkitzu zure sensuetaresunaren atheak enzun dezazungatik zure lainko launa zer minzo den zure baitan (S. Pouvreau, *Jesusen Imitacionea*, 116).
- (138) Bere bekhatua gogora zezan eta gogorarik kofesa zezangatik (P. Axular, *Guero*, 337).

Badira hegoaldeko goi nafarreraren adizki hori mugatua duten adibideak:

- (139) argatik erraten da, eze Christo gure Erredentorea eramo zuela Espiritu Sanduek dasiertora, tenta zezanagatik an demonioac (F. Ondarra, <<Izuko parrokuaren testuak>>).

3.3.2.5. *AMOREAGATIK formakoak (eta beste ohar batzuk)*

Idazle batzuek *-GATIK* postposizioa erabili beharrean *amoreagatik* erabiltzen dute (aldaera bat baino gehiago du: *amoreagatik*, *amoreakgatik*, *amorekatik*, eta abar, euskalkien arabera. Bizkaieraz *amorez* ere ageri da). Etxepareren garaian ageri da dagoeneko hitz hau, nahiz ez helburuzko esanahiarekin:

- (140) emaztiak ez gaizterran ene amorekatik (III,1)

Gero *-eN* menderagailuaren balio helburuzkoa indartzera igaro zen, haren postposizio gisa, ondoko adibide hauetan ikus daitekeenez:

- (141) ...emaiten deraur... gehiago, gehiagoko hura probetara parti dezaten amoreakgatik (P. Axular, *Guero*, 150).
- (142) Halarikan ere osoki satisfatuak geldi zaitezten amoreagatik, oraino nahi narokezue xeheroki erakulsi... (J. Etcheberri Sarakoa, *Eskuaren hatsapenak*, 'Euskal Herriko gazterian' deitu kap.).
- (143) ekharri ziotzaten haur xume batzu, eskuak pausa ziotzaten amoreagatik... (J. Haraneder, *Testament Berria*, Mt. XIX, 13).
- (144) Jangoikuak pasino trarrak kendu daiguzan amorez, opa edo eskinilen deuzcuz zeruko sari andi ta ederrak (J. A. Moguel, *Confesio ona*, 37).
- (145) Zeren ikhusink eztela bera sinhesteko, ekhartzen baititu lekhukoak, zein baitira iuramentuak, hekin batean sinhets dezaten amoreakgatik (P. Axular, *Guero*, 177).
- (146) Jainkoak eta Jainkosak erruz asmatu, gure eginbideen sostenguak izan zitezten amoreakgatik (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 78).
- (147) Begiratluko eta artha handirekin kontserbatuko ditu errexistoa eta irakurtze izpiritualen liburuak, bihur ditlan amoreagatik ordre onean bere ondokoaren eskuelara (*Jesusen Bihotza*, 422).
- (148) Bada, huna ni-ere non nagoen edozein laidoren jasailera eta bozkarioz, amoreagatik kondenatua izan ez nadien (J. Duvoisin, *Liburu ederra*, 58).

Azkeneko adibide horretan ikus daitekeenez, ez da beharrezkoa *amoreagatik* subjuntiboaren ondoren, segidan, jartzea, autore batzuek perpausaren hasierara eramaten baitute, perpausari bide eman nahian bezala:

- sinets dezaten amoreagatik
- amoreagatik kondenatua izan ez nadin

Hau da, esate baterako, Arbelbidek egiten duena:

- (149) Amoreagatik lehen bezain bero eta saihu jar dadien berehala (J. P. Arbelbide, *Erlisioea*, 88).
- (150) Amoreagatik aphezpikuak bethi elgarrekilako batasunean egon ditezten eta ez ditezten behin ere batzu bertzetarik berex (J. P. Arbelbide, *Erlisioea*, 161-162).

Baina joera hau aski zaharra da, Tartasen adibideren bat ere ekar baitaiteke hona:

- (151) ...orhil gintian herioz, amorekatik haren Espos saindiaren bizitza saindiaz orhitunk eta hark gugati Kalbariako mendian bi ohoiñen artian iragan dian herio eta passione dolorosa gure begien aitzinian miraleder bat bezala harturik, haren imitazionelan bekhaturik egin gabe bizirik, haren grazian hiltzeko dohaifia eta fortuna ona ardiets eta irabaz ahal gendezan (J. Tartas, *Onsa hilceco bidia*, 97).

"Aurrerazte" hau, hala esan badaiteke behintzat, ez da *amoreagatik* partikularekin bakarrik gertatzen. Batzuetan *zeren* eta *arren* partikulak ere (azkenekoa *eta*-rekin batera batzuetan) aurki daitezke helburuzko ñabardura duten perpausetan:

- (152) beraz izaite inkreatua ahaikatu behar zen eta bat egin izaite creaturekin... arren batasun lainkozko hartaz Aitak izan lezenizat adoratzaille bat... (S. Pouvreau, *Petites œuvres basques*, 48).
- (153) eta herriko seme, bi jaun aphez dire, bihotzik hobereenen jabeak baitire, eskola nausi jarri, arren eja haurrek, orotan gehienik arthatu beharrak, elzitan itsu geldi... (J. Hiribarren, *Eskaldunac*, 134).

Adizki trinkoekin ere erabiltzen ahal da *amoregatik* partikula hau. Orduan adizki horrek subjuntibo zentzua harlzen du:

- (154) Den bekhatu mortalik tipienaren ere egitera, beldur garon amoreagatik, hartaz neumia betha ditekelenaz geroztik (P. Axular, *Guero*, 77).

Horren esanahia hau da: 'beldur izan gaitzen amoreagatik'.

Badira, azkenik, beste aukera batzuk euskarari erabili izan direnak, nahiz gaur egun horien lekukotasun gutxi aurkituko dugun: helburuzko perpaus batzuek *zeren* partikula aukeratzen dute hasieran:

- (155) Zeren baskoak baitira abil animos eta jentil eta hetan izan baita eta baita zientzia guzietan letratu handirik miraz nago jauna nola batere ezten asaiatu bere lengoaje propioaren faboretan heuskaraz zerbait obra egitera eta skributan imeilera zeren ladin publika mundu guzietara berze lengoajiak bezala hain skribatzeko hon dela (B. Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 5).
- (156) Zeren fauna haiek ikhusirik eta korrejiturik plazer duzun bezala irudi bazautzu inprimi erazi dizazun eta zure eskutik orok dugun iaia aderra Inprimiturik heuskara orano izan eztena eta zure hatse honetik dadin aitzinerat augmenta kontinua eta publika mundu guzietara eta baskoek berzek bezala duten bere lengoajian skribuz zerbait doktrina eta plazer harzeko solaz egiteko kantatzeko eta denbora igaraiteko materia eta ginen direnek gero duten kausa oboro haren abantzatzeko eta obligatu giren guziak geinkoari othoiz egitera dizun mundu honetan prosperoki bizia eta berzian parabizua (B. Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 7).
- (157) Obligatu da halaber baruraren egitera, zeren gero, gratian dentan, eztian hainbertze difikultate obra honen egiteko (J. Tartas, *Occupatione devotaq*, 62).

LABURPENA

Helburuzko perpausak erabiltzen ditugu zerbaiten xedea edo helburua adierazteko:

(1) Mikelek autoa saldu behar izan du [etxebizitza erosteko].

Kakoen artean jarri dugun "etxebizitza erosteko" horri deitzen diogu *helburuzko perpausa*, etxebizitza erostea baita, hain zuzen ere, Mikelek duen xedea, eta helburu hori betetzeko asmoz saldu baitu autoa. Perpaus hauek jokatu gabeak nahiz jokatuak izan daitezke, eta aditz nagusiaren zeharkako osagarri gisa erabiltzen ditugu, adberbioen antzera. Hor, "etxebizitza erosteko" jarri beharrean "gaur goizean" jartzen ahal da, funtzio bera izango lukeela. Helburuzko perpausaren osagarri horren bigarren maila argi ikusten da ondoko beste esaldi honekin erkatzen baldin badugu:

(2) Mikelek ez du nahi [holakorik egin dezazuen].

Adibide honetan *nahi izan* aditzak berez eskatzen du osagarri bat, baina (1) esaldian osagarri hori aukerakoa da. Hortaz, (2) adibidean, *nahiz eta* subjuntiboa erabili, osagarri zuzena da, ondoko honen tankerakoa:

(3) Mikelek esan du berehala etortzeko.

Osagarri zuzen hauek *EGLU* Vean aztertu genituen. Orain, osagarri zuzenen sailekoak ez diren helburuzko perpausak aztertuko ditugu.

1. Perpaus kausalak eta helburuzkoak

Helburuzko perpausetan kausa-ondorio motako erlazio bat gertatzen da, perpaus kausaletan ere agertzen den bezala. Baina *kaus-ondorio* erlazioa ez da berdina balzuetan eta besteetan:

(4) Kaleak bustiak dira, euria egin duelako.

Kaleak bustiak izateko kausa euria da, eta lehenik euria egin du (A), eta ondorioz kaleak busti dira (B). Perpaus kausaletako gertaerak du eragina perpaus nagusiak aditzera ematen duen ondorioan: lehenik A (mendeko perpausa), eta ondorioz B (perpaus nagusia) gertatzen da.

Baina helburuzkoetan kausa-ondoriozko erlazioa harreman hori alderantzizkoa da:

(5) Mirenek errieta egin zien isilik geldit zitezten.

Lehenik errieta egiten da (A, perpaus nagusia), eta ondoren jendea isildu (B, mendeko perpausa).

2. Helburuzkoak eta ondoriozkoak

Helburuzko perpausak eta ondoriozkoak, semantika aldetik, elkarren inguruan daude, ondoriozkoek ere, ondokoari begiratzen baitiote, nahiz ondoko hori ez duten modu berean ikusten batzuek eta besteek.

Helburuzkoetan ondorioa nahiez bilatzen da. Baina ondoriozkoetan azpimarratzen den ondorioa ez da berariaz bilatzen, halabeharrez gertatutako zerbait bezala ageri baita, perpaus nagusiak markatzen dituen baldintzen ondorioz gertatutako zerbait bezala-edo. Hau da ondoko bi adibideetan ikusten dena:

(6) Halako euri jasa egin zuen, non karrika guztiak urez beteak heldu baitziren.

(7) Mirenek errieta egin zien [lehenbailehen ikasten has zitezten].

"Esanahia" hartzen badugu kontuan, ondoriozko perpausok eta helburuzkoek ondorioari behatzen diote, eta azkeneko hauek subjektu egile bat eskatzen dutela, ondorio hori betetzea nahi duena.

3. Helburuzkoen mugan

Helburuzko perpausak definitzeko orduan, kontuan hartuz perpaus hauen ezaugarri semantikoak, ezinbestekotzat hartzen da eragilearen borondatea aipatzea. Ordea, batzuetan ez da borondate hori hain argi ageri, eta perpausaren ezaugarriak beste zerbaitean funtsatzen dira (batzuetan esaldian ez da borondatedun eragilerik egeri edo egin nahi denaren kontrakoa adierazten du, inpersonalak dira, segida kronologikoa baizik ez da...), ondoko adibideetan ikusten gisan:

(8) Teilatu berria behar du etxeak, denborarekin paretak honda ez daitezten.

(9) Asko irakurri behar da ongi idazteko.

(10) Jonak ez du balio ikastetxe batean eskolak ematen ibiltzeko.

(11) Ez du indarrik berriz ere lanean hasteko.

(12) Borda batean geldituko dira gaur gauean lo egiten, bihar goizean mendi tontorreraino joateko.

(13) Uda osoa egon zen azterketa prestatzen, azkenean ez gainditzeko.

(14) Etxe hori garestiegia da nik erosteko.

Holako perpausak mugan egon daitezke, edo helburuzkoak definitzeko eman ditugun irizpideen kontrakoa erakusten ahal dute, baina, hala ere, guk multzo berean sartu ditugu, forma aldetik helburuzkotzat jo behar baitira, beste hizkuntzetako gramatiketan egiten den bezala.

4. Perpaus jokatuak eta jokatugabeak

Helburuzko perpausak jokatuak nahiz jokatugabeak izan daitezke, eta, oro har, *zertara* eta *zerta(ra)ko* galderei erantzuten diote:

- (15) Errieta egin zien [ikasten has zitezzen].
- (16) Autoa saldu zuten [etxebizitza erosteko].
- (17) Autoa saldu ondoren etxebizitza erostera joan dira. [*zertara*].
- (18) Autoa saldu dute etxebizitza erosteko. [*zertara)ko*].

Baina hiztunak bi aukerak baldin baditu ere, jokatuak nahiz jokatugabeak erabilzlea alegia, ez da erraz jakitea noiz erabili behar diren batzuk, eta noiz besteak, ez baita bakarrik aukera askearen kontua. Bada, hala ere, joera bat gehienetan betetzen dena: perpaus nagusiko subjektuak eta helburuzko perpaus txertatuarenak erreferentzia bera dutenean, helburuzko perpausa forma jokatugabeen ematen da, ez aditz jokatuarekin. Hola:

- (19) Liburu bat erostera joan naiz.
- (20) *Liburu a eros dezadan dirua hartu dut.

Hori, esan bezala, joera bat da, baina ez ezinbestean bete beharreko legea. Badirudi zenbat eta "urrunago" egon, perpausaren egitura, bi subjektuak, errazago gertatzen dela perpaus jokatuak:

- (21) Foru ogasunarekin arazorik izan ez dezadan, bihartik aurrera akzioak saltzen hasiko naiz.

Baina nekez eman daitezke kontu hauetan arau zurrunkak.

5. Helburuzko perpaus jokatuak

Helburuzko perpaus jokatu arruntak subjuntibo hutsarekin osatzen dira:

- (22) Irakasleak liburu baten titulua aipatu die ikasleei, tehenbailehen irakur dezaten.

Hau da bide arrunta, esan bezala, eta gaur egun erabiltzen den ia bakarra. Baina beste marka batzuk ere erabiltzen ahal dira subjuntiboari itsatsirik:

• -eNTZAT

Atzizki hau, -eNTZAT, Iparraldean erabili izan da gehien bat:

- (23) Etzait niri eman zure laudorioen aiphaldez hain aitzina pentsatzea, hetango klaretatea neure mintzatzeko insufizientziak ilhun etezadantzat (J. Leizarraga, *Testamentu Berria*, Erreginari egin karta, 910).

• NAHIZ eta ARREN lokailuak

Lokailu igarle hau mendeko perpausaren hasieran jartzen da, eta aditz laguntzailea subjuntiboan doa:

- (24) Hetaz ere artha hartzen du, nahiz eta noizbait bederen harenganat itzul ditezten (M. Duhalde, *Meditaciones*, 235)

• -eN GATIK

- (25) Exenplua eman darotzuet ezen... zuek ere hala egin dezazuen gatik (J. Haraneder, *Testamentu berria*, XIII, 15).

• *amoreagatik* formakoak

- (26) ekharri ziotzaten haur xume batzu, eskuak pausa ziotzaten amoreagatik... (J. Haraneder, *Testament Berria*, Mt. XIX, 13).
- (27) Amoreagatik lehen bezain bero eta salhu jar dadien berehala (J. P. Arbelbide, *Ertisonea*, 88).

4. KAUSAZKO PERPAUSAK

4.1. KAUSAZKO PERPAUSEN IZAERA

Inguratzen gaituen munduan gertaera batzuek beste batzuk sorrarazten dituzte. Euria egitea gertatzen bada, eta, ondorioz, kaleak bustitzea, bata bestearen kausa dela esan dezakegu: gertaera batek (euria egiteak) beste bat sorlu duela (kaleak bustirik egotea), alegia:

- (1) Euria egin duelako daude kaleak bustiak.

Gertaera baten "jatorrian" dagoena, alegia gertaera hori eragin duena, *kausatzat* haritzen dugu eta horren eraginez gertatu dena, *ondorioa* dela esan ohi dugu:

<i>euria egin</i>	→	<i>kaleak bustiak.</i>
KAUSA	→	ONDORIOA.
[["euria egin duelako"]]		"daude kaleak bustiak".

Kausa-ondorio joko honetan oinarritzen dira hizkuntzako zenbait perpaus mota desberdin: baldintzazkoek, kausazkoek eta kontzesiboek bikote horren atal bati begiratzen diote, kausari alegia. Perpaus helburuzkoek eta ondoriozkoek, ostera, beste atalari begiratzen diote, ondorioari alegia.¹⁴ Gertaera beraren aurrean hitzunik ikuspegi desberdina har dezake eta hori hizkuntzak eskaintzen dizkion egitura desberdinetan islatzen da.

Ikus ditzagun ondoko adibide hauek, non perpaus kausalak, baldintzazkoak eta kontzesiboak, nolabait, perpaus nagusian esaten denaren kausa, jatorria edo zioa ematen baitute:

- (2) a. Euria egin duelako datoz haziak ibaiak.
b. Euria egiten badu, ibaiak haziko dira.
c. Euria egin badu ere, ez dira ibaiak hazi.

(2a) perpausean ondorioa eragin duen kausa aipatzen da. (2b) perpausean, berriz, kausa hori berori hipotesi gisa eskaintzen zaigu, baldintza perpaus gisa. Hirugarren adibidean, azkenik, kausa-ondorio implikazio hori ukaturik ematen

¹⁴ Ikus C. Galán, "La subordinación causal y final", in J. Bosque & V. Demonte, *Gramática descriptiva de la lengua española*. Espasa, Madrid, 1999.

da: ohikoa litzateke euri ugari eginez gero ibaiak haztea. Hala ere, (2c)n inplikazio hori ukaturik ematen zaigu. Hori da perpaus kontzesiboez egiten dutena.

Aldiz, perpaus helburuzkoek eta ondoriozkoek ondorioari begiratzen diote. Baina ondorio hori modu desberdinean ikusten dute helburuzkoek eta ondoriozkoek. Helburuzko perpausok ondorioa berariaz bilatzen den zerbait bezala aurkezten dute:

- (3) Errieta egin nien isil zitezten.

Berariaz bilatutako zerbait izateak esan nahi du subjektu egile bat izango dugula perpaus nagusian.

Ondoriozkoek, aldiz, gauzak beste modu batera aurkezten dituzte: ez berariaz bilatutako ondorio gisa, halabeharrez gertatutako zerbait bezala baizik:

- (4) a. Halako errieta egin nien, non denak isil-isilik gelditu baitziren.
b. Hainbeste euri egin zuen, non ibaiak haziak baitzetozen.

Bestalde, (3) perpausok ez dakigu egiatan ondorioa bete zen ala ez, ez dakigu inor isildu ote zen. (4)an, berriz, hori behintzat argi gelditzen da.

Bost perpaus mota hauean elkarrengandik hurbilen daudenak kausalak eta helburuzkoak dira. Adibidez, $-T(Z)EAGATIK$ formakoa kausala nahiz helburuzkoa izan daiteke:

- (5) a. Egunkaria erosteagatik sartu nintzen dendara (helburuzkoa).
b. Egunkaria erosteagatik galdu nuen autobusa (kausazkoa).

Zerbait euskaldunentzat, mendebaldekoentzat bereziki, $-T(Z)EARREN$ ere kausala izan liteke, $-T(Z)EAGATIK$ -en parean:

- (6) Egunkaria irakurtzearen/irakurtzeagatik deprimitzen zara.

Honako honetan lehenbizikoak xedea adierazten du, baina bigarrenak kausa argia:

- (7) a. Gaiztakeri andiren batzuk ez esatearren, gizonakgandik alde egieban (D. Aguirre, *Kresala*, 186).
b. Egija esatiarren eriozea jasan bihar dot, beraz (Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 90).

Kausalen eta helburuzkoen arteko kidetasun hau ongi ikusten da, adibidez, mota horietako perpausen juntaduran, non maiz bi motetako perpausak juntaturik ager daitezkeen:

- (8) a. Hau diotsut ez gauzak horrela direlako, adarra jotzearen baizik.
b. Dirua behar duelako edo zenbaiti gustua ematearren, kantatzen hasiko dela esan du.

Arrazoi beragatik, $ZERGATIK$ galderari perpaus kausal baten bidez nahiz helburuzko baten bidez erantzuten ahal diogu:

- (9) - Zergatik mugitu duzu aukia?
- Trabatik kentzearen / Traban zegoelako.

Ondoko lerroetan jokatutako perpaus kausalak aztertuko dira. Kausalak diren heinean, ondorio jakin bat eragiten duen kausa (errealia, logikoa edo dena delakoa) biltzen dute perpausok edo zerbait esatearen edo esan izanaren azalpena eskaintzen digute. Horietakoak dira, adibidez, deduzitzen den ondorioa nondik atera dugun esaten diguten azalpenak:

- (10) a. *Laugarren solairutik erori zelako* hil zen.
b. *Donostiara etorri behar duzunez gero*, hemenbxe egingo dugu bilera.
c. *Goazen guztiok dantzara*, azken eguna da eta.
d. *Etxean salmentak gora egin du*, dirua merke baitago.
e. *Astehenean jai dela eta*, asteburuan kanpora joatea erabaki dute.
f. *Astehenean jai denez*, asteburuan kanpora joatea erabaki dute.
g. *Nola ez didaten oraindik ordaindu*, mailegu bat eskatu beharko dut.
h. *Hobe da gauzak horrela ikustea*, zeren, *bestela*, edozein *astakeria egin* balitezake.

(10)eko adibideetan azpimarraturik ageri diren atalek nolabaiteko kausa ematen dute aditzere. Denak kausazko perpausak direla esan dezakegu. Hala ere, "nolabaiteko kausa" hori zer den zehaztea zailago da, zeren (10a) benetako kausa fisikoa izan daitekeen bezala, beste batzuetan baieztapen baten arrazoi soilia ere izan daiteke (10c, h), edo azalpen soilia besterik gabe (10b, d...). Hortaz, ez dira denak berdinak. Batzuei erraz aurki dakieke ordezko egokia zerranda horretako eruduren bati jarraituz, baina beste batzuetan ezin da horrelakorik egin. Horrek esan nahi du, baldintza desberdinak eskatzen dituztela perpaus mota batzuek eta besteek. Edo bestela esan, kausa-ondorio erlazio hori sintaktikoki modu desberdinean gauza daiteke. Horien azterketari ekingo diogu ondoko ataletan.

4.2. KAUSAZKO PERPAUS BETAKE ETA AZALPENEZKOAK

Gramatiketan, eta euskal gramatiketan ere bai, esanahia kontuan hartuz, edo agian hobeto, hiztunak erakusten duen jarrera kontuan izanik, zenbait bereizketa egin izan dira perpaus kausal hauen saillean. Bi multzo bereiziko ditugu guk: a) batetik, *kausal beteak* dei genitzakeenak, non kausa zuzenaz gainera, motiboa, arrazoia eta holakoak biltzen diren, betiere ondorio bat eragiten dutenak; eta b) *azalpenezko kausalak*, bestetik. Azken hauetan baieztapen bat oinarritzera dator perpaus kausala, edo baieztapen baten azalpen gisa aurkezten du behintzat hiztunak. Lehenbizikoetan hiztunak gauzak nola gertatu bide diren esaten digu. Bigarrenean, aldiz, hiztunak bere gain hartzen du azalpena, azalpen horren erantzule hiztuna bera egiten da.

4.2.1. *Kausa, arrazoia, motiboa*

Ondorio jakin bat eragiten duten kausak badira, (11)n bezala:

- (11) a. Su biziegia zutelako erre dira babarrunak.
b. Euria egin duelako daude kaleak bustiak.

Hemen babarrunak erretzea eragin duena su biziagia izatea da, eta kaleak bustiak egotea euria egin izanari zor zaio.

Hala ere, gehienetan bestelako kausak izaten ditu hiztunak bere jardunean:

(12) Adiskidea zaitudalako egin dizut galdera hori.

Perpaus honetan solaskideak elkarren adiskide izatea ez da galdera egitearen kausa fisikoa. Adiskide izatea, egiazki, galdera egitearen arrazoia besterik ez da, (12) perpausaren arabera.

Mundu fisikoan gauzak nola diren badakigu edo badakiguia uste izaten dugu. Baina mundu fisikotik usteen edo sinesteen mundura jauzi eginez gero, orduan ere kausa-ondorioez hitz egin ohi dugu. Horrela, maiz kausa baino gehiago zerbaiten justifikazio gisakoak ere badira. Adibidez, hori da (12) perpausaren dioguna, edo baita honako honetan ere:

(13) Lanera joan beharrik ez nuelako jaiki nintzen berandu

Lanera joan beharrik ez izatea, berez, ez da ni berandu jaikitzearen kausa fisikoa. Hala ere, hor aipalzen den egoera horretan lanera joan beharrik ez izatea kontsideratzen da kausa eta berandu jaikitzea, berriz, kausa horren ondorioa. Nolanahi ere, biak erlazionaturik eskaintzen dira, zerbait gertatzea edo gertatu izana batetik, eta horren eragilelari hartzen dena bestetik.

4.2.2. Azalpenak

Baina (12) eta (13)ko adibideetan gertatzen den kausa-ondorio erlazio bera beste ikuspegi batetik ere ikus daiteke, kausa delako hori azalpen gisa emanaz:

(12') Galdera bat egingo dizut, adiskideak gara eta.

(13') Berandu jaiki nintzen, lanera joan beharrik ez bainuen.

Goiko (1) perpausa ere beste modu honelara eman daiteke:

(1') Kaleak bustiak daude, euria egin baitu.

Hauetan goiko erlazio bera dugu, baina oraingoan perpaus kausala azalpen bat besterik ez da. Gainera, maiz, esaten denaren justifikazio gisa ematen du hiztunak azalpen hori: zerbait esaten da (baieztatzen de edo ezeztatzen, galdetzen, agintzen, eta abar) eta esandako hori zergatik esaten den ematen du aditzera azalpenak. Hori garbi ikusten da, adibidez, aginterazkoekin batera ematen ditugunetan:

(14) Zaude isilik, ezer ez dakizu eta.

Hemen perpaus nagusian adierazten denari (agindu bati) azalpen bat eransten dio hiztunak, agindu hori ematea eragin duen arrazoia zein den esaten digun azalpen bat. Azalpen hori perpaus kausal gisa emana dator: *ezer ez dakizu eta*. Baina garbi dago perpaus hori ez dela isilik egotearen kausa, izatekotan ere, isilik egoteko arrazoia dela esan genezake, edo, zehazkiago, hiztunak agindu hori emateko duen arrazoia. Hain zuzen, azalpenak hiztunak bere gain hartzen ditu. (14)an, adibidez, hiztunak agindu bat eman du eta, ondoren, bere kabuz, agindu hori zergatik eman duen azaltzen digu.

Urrunago ere eraman daitezke gauzak. Balzuetan gertaera batetik beste zerbait ondorioztatzen dugu eta kausazko perpausak ondorioztatu den horren justifikazioa eskainitzen digu:

(15) Partida galdu dute, burumakur baitatoz.

Jendea burumakur ikusita, gertaera horretatik guk atera dugun ondorioa da partida galdu dutela. Ondorio logikoa, nolabait esateko. Hori da (15)ean aditzera ematen duguna.

Gertaera horretatik hiztunak zerbait *deduzitzen* du eta dedukzio hori aditzera ematen du, ondorio horretara iristeko zein arrazoitan oinarritu den azalduz. Azalpen horretan jasotzen dena ez da izango gertaera eragin duena, hiztunaren dedukzioa eragin duena baizik. Horregatik, *alegiatzko azalpenak* deituko diegu hauei.

Har dezagun berriro goiko (1) adibidea. Adibide horri buelta emango bagenio, honako hau izango genuke:

(16) Euria egin du, kaleak bustiak baitaude.

(1)ek eta (1') errealitate bera dute azpian, nahiz eta modu desberdinez adierazia dagoen. (16)ren azpian ere errealitate bera dugu (euria egitea eta kaleak bustiak egotea), baina oraingoan kausa-ondorio erlazioari buelta eman zaio nolabait:

<i>euria egin</i> KAUSA	→	<i>kaleak bustiak</i> ONDORIOA	errealitatea
[P kausala euria egin duelako]		daude bustiak kaleak (cf. 1)	kausal beteak
[P kausala euria egin baitu]		kaleak bustiak daude	azalpena
euria egin du		[P kausala kaleak bustiak baitaude] (cf. 16)	alegiatzko azalpena

Baina azpian errealitate bera izan arren —euria egitea (egiazki edo nire ustean) eta, beraz, kaleak bustiak egotea—, hiztunak batean eta bestean gauzak alderantziz aurkeztea erabaki du: (1)ean kausa fisikoa perpaus kausalean jasotzen da sintaktikoki: *euria egin duelako*. (16)an, ostera, egiazko ondorioa da kausal gisa ematen dena: *kaleak bustiak baitaude*. Oraingoan, egiazki ondorio den hori kausal gisa ematen da, baina ez gertaera batena, euria egitearena, alegia, baizik hiztunaren dedukzioarena, hots, euria egin duelako baieztapenean biltzen den dedukzioaren oinarri edo arrazoi gisa: *kaleak bustiak egotea* da hiztunak egiten duen dedukzio honen oinarria eta hori da ematen den azalpena. Gauzak beste modu batera izan zitezkeen (adibidez, kalegarbitzaileen kamioia pasatu izana eta kaleak bustiak egotea). Honek esan nahiko luke kasu honetan hiztunaren dedukzioa okerra izan dela: *kaleak bustiak egoteak* ez du esan nahi euria egin duenik. Kasu honetan esan nahi duena da kamioia pasatu dela, besterik ez. Hala ere, *kaleak bustiak egoteak* dedukzio baten oinarri izaten segituko luke, dedukzio oker baten oinarri.

"Alegiazko azalpen" deitu ditugunetan argi dago azalpena hiztunak bere erantzukizunpean egiten duen baieztapena dela. Baina alegiazko izan gabe ere, gauza bera gertatzen da beste azalpenetan. Beste batzuetan, berriz, ez dugu jakiterik izango ea kausal beteaz ari garen ala hiztunak "bere" egiten duen azalpen baten aurrean gauden.

Kontu hauek semantikari dagozkio, hein batean, baina segurutik bere eragina dute sintaxi-egituran ere, erraz ikus daitekeen bezala. Aldera ditzagun honako perpaus hauek:

- (17) a. Partida galdu dutelako datoz denak burumakur.
b. Denak burumakur datoz partida galdu dutelako.
c. Denak burumakur daloz, partida galdu baitute.
d. Denak burumakur datoz, partida galdu dute eta.
e. Partida galdu dutenez (gero), denak burumakur datoz.

Hemen denak burumakur etortzea eragin duena partida galdu izana da. Baina kausa-ondorio erlazio hori adierazteko bi bide ditu hiztunak: kausal bete gisa ematea (17a eta b)n bezala) edo azalpen gisa ematea (17c, d eta e)n bezala, non hiztunak bere gain hartzen duen azalpena eta, egiazki, bi baieztapen egiten dituen.

Baina goiko (15) adibidea berriro jasoaz:

- (15) Partida galdu dute, burumakur baitatoz.

hemen ere bada ondorio bat eta ondorio horren eragile bat. Partida galtzea da eragilea eta burumakur etortzea ondorioa, baina oraingoan, (17)an ez bezala, ondorio zena (denak burumakur etortzea) hartu du hiztunak bere baieztapenaren (partida galdu dutelakoa, alegia) arrazoi gisa. Errealitatean ondorio dena hiztunaren dedukzio baten eragilea da. Holakoak ere, azalpenak dira eta, gainera, azalpen gisa eman beharrekoak. Ez dago beste aukerarik. Alegia, errealitatean ondorio dena ematen du hiztunak bere baieztapenaren arrazoitzat. Baieztapena bera ondorio bihurtu da, eta azalpena eragile. Dena dela, *-eLAKO*-rentzat, adibidez, ez dirudi lekurik denik holakoetan:

- (18) a. *Denak burumakur datozelako galdu dute partida.
b. *Partida galdu dute, denak burumakur datozelako.

Horrek esan nahi du (17)an erlazio bera kausal bete gisa nahiz azalpen gisa eman daitekeela, baina beste zenbaitetan azalpena besterik ezin daitekeela aditzera eman. Horregatik da hain nabarmena (15) eta (18)ren arteko kontrastea.

Hemendik zenbait ondorio atera daitezke:

a) Azalpen gisa eman dezakegu, adibidez, dedukzio baten eragile den hori, alegia dedukzio honetara eraman gaituen kontua. Eta hor *-eLAKO*-rentzat ez da lekurik, baina *BAIT*-entzat, edo *ETA* enklitikoarentzat adibidez, bai. Aldiz, kausal beteetan *-eLAKO*-k badu lekua. Beraz, kausal beteen eta era honetako azalpenen artean bada alde funtsezko bat.

b) Gauza bera frogatuko lukete ondoko adibide hauek ere:

- (19) a. Trena berandu iritsi zelako galdu genuen hegazkina.
b. Hegazkina galdu genuen, trena berandu iritsi baitzen.

Hemen bi gertaeraren arteko kausa/ondorio erlazioa ematen zaigu, baina modu desberdinez: lehenbizikoan perpaus kausala galdegai dela esan genezake eta perpaus nagusian txerlatua ageri zaigu. (Dena dela, aurrerago eztabaidatuko dugu -eLAKO-ren galdegaitasuna). Bigarrenean, gauza bera, baina perpaus kausala azalpen gisa aurkezten dugu, perpaus nagusitik bereizita, eta ez da jadanik galdegai. Hemen ez daukagu dedukzio baten azalpenik, baina orain ere, egiazki kausa dena, azalpen modura eman du hizlunak (19b). Oraingoan ere baieztapen baten ondoren beste bat eskaintzen du hizlunak, baieztapen baten ondoren baieztapen horri buruzko azalpen bat.

Kausa beteak eta azalpenak modu desberdinean jokatzen dute goragoko beste perpaus baten osagarri direnean, adibidez:

- (20) a. Hegazkina, trena berandu iritsi zelako galdu genuela esan genuen.
b. Trena berandu iritsi zela eta hegazkina galdu genuela esan genuen.

Azalpena dugunean bi asertzio eskaintzen ditu hizlunak. Beste perpaus baten mendean doanean argi ikusten da hori (20b). Azalpenak, hizlunaren baieztapen gehigarriak direnez gero, ez dute lekurik perpaus menderatuan, ez badira, (20b)n bezala, bi asertzio gisa ematen: [... -eLA eta ... -eLA]. Kausatzko beteetan, berriz, asertzio bakarra dugu eta batasun hori ondo eusten dio perpausak, menderatua denean ere (20a). Azken batean, hizlunak zer jarrera hartzen duen da kontua.

Azalpenezko kausalek baieztapen baten oinarria eskaintzen digute, edo hizlunak uste duenaren arrazoia. Beraz, ikusi dugun bezala, bi azalpen mota ditugu: azalpen hutsak, (21)ean bezala, eta alegiazko azalpenak, (22)koen antzekoak:

- (21) a. Zaude lasai, ez dizu ezer egingo eta.
b. Kontzertua hasita dagoenez gero, ez gara sartuko.
c. Lasai zagoen, ez baitzuen zigorrik espero.
- (22) a. Norbaitekin haserretu da, bekozko ilun baitafor.
b. Norekin hitz egin duzu? Goizean horren berririk ez baitzenuen.

Alegia, hemen bekozko ilun etortzeak eragin du norbaitekin haserretu delako ustea, eta, modu berean, goizean zerbaiten berririk ez izateak eraman du hiztuna galdera hori egitera, eta azken batean, galdera horren azpian dagoen uster, alegia, "norbaitekin hitz egin behar izan du".

4.3. KAUSAZKO PERPAUSEN SINTAXI IZAERA

4.3.1. Kausatzko perpaus jokatuak eta jokatugabeak

Kausatzko perpausak jokatuak edo jokatugabeak izan daitezke:

- (23) a. Hori [isilik egoten ez dakizufako] gertatu zaizu.
b. Hori [isilik ez egoteagatik] gertatu zaizu.

(23a)n kausazko perpausa jokatua da, adizki jokatua baitu. Adizkia jokatugabea dutenak (*egotearren, egoteagatik*) perpaus jokatugabeak dira, (23b)koak bezala. Pertsona eta denbora marka dutenak adizki jokatuak dira eta, horrenbestez, horrelako adizkia duten perpausak perpaus jokatuak direla esango dugu. Liburuki honetan aztertuko diren perpausak jokatuak dira.

4.3.2. Kausazko perpausen mintzagai-/galdegalitasuna

Kausazko perpaus menderatuak "goragoko" perpaus baten osagai dira. Perpaus nagusian adierazten edo predikatzen denaren inguruko gorabehera bat adierazten dute. Nolabait, ondorio/eragile (=kausa, arrazoi, motiboa...) gisako erlazio bat ezartzen da bi perpausen artean. Batzuetan esplizitu ematen den predikatuari dagokio, beste batzuetan predikatu implizitu bati buruzkoa izango da, edo hiztunak zerbait esateko duen arrazoi edo adieraziko luke. Postposizio sintagma baten bidez ere eman daiteke aditzera gauza bera. Euskal deklinabidean "motibatibo" izeneko "kasu" bat jasotzen dugu (ikus *EGLU I*, 433-437): *zuregatik, Koldogatik, horregatik, arrazoi horregatik*, eta abar. Adibidez, (24) eman liteke (25) gisara:

- (24) Ez dut ezer txarrik egin. (*Arrazoi horregatik*, ez diet epaileei beldurrik.
(25) a. Ezer txarrik egin ez dudanez gero, ez diet epaileei beldurrik.
b. Ez diet epaileei beldurrik, ezer txarrik ez baitut egin.
c. Ez diet epaileei beldurrik ezer txarrik egin ez dudalako.
d. Ezer txarrik egin ez dudalako ez diet beldurrik epaileei.

(24)an (*arrazoi horregatik* sintagmak aurreko perpausaren esaten dena "biltzen" du eta bigarren perpausaren, "bere" perpausaren alagia, epaileei beldurrik ez izatearen arrazoi adierazten du. Hori berori kausazko perpaus bat erabiliz ematen da (25)ean.

Horregatik-en ordezeko perpaus horrek bere lana egingo badu, leku egokian kokatua behar du: perpaus hasieran joango da, mintzagai gisa, goiko (25a) adibidean bezala, edo perpausaren eskuinaldean emana ager daiteke, (25b eta c)n bezala. (25b)n eten bat gertatzen da bi perpausen artean. Eta hori, idatzian, koma bidez adierazten da.

(25c eta d)n ez da eten nabarmenik. (25c)k, gainera, intonazio berezia du, goranzko intonazioa. Hain zuzen, galdegaia aditzaren eskuinaldean ematen dugun guztietan gertatzen den intonazio bera, kausazko perpausa izan nahiz bestelako sintagma bat izan:

- (26) a. Aitak / berandu etorriko dela esan du.
b. Aitak esan du, berandu etorriko dela.
(27) a. Itoginak, euri asko bota duelako agertu dira.
b. Itoginak agertu dira, euri asko bota duelako.

- (28) a. *Auto bat* erosiko dut.
 b. Erosiko dut *auto bat*.

Kausazko perpausak ere, hortaz, perpausoko osagai gehienak bezala, mintzagai/galdegai joko horretan sartzen dira. Baina kontuan izan behar da perpaus hauetako batzuek (–eNEZ GERO atzizki multzoaren bidez eratuek, edo BAIT-en bidez osatuek, adibidez) mintzagai izateko joera nabarmena dutela eta beste batzuek, aldiz, galdegai izateko joera (–eLAKO atzizkiak baliatzen direnek, esaterako).

Gauzak gehiago zehaztuz, esan daiteke azalpenak beti mintzagai direla eta kausal beteek, aldiz, galdegai izateko aukera dutela.

4.3.3. “Kanpoko” eta “barneko” perpaus kausalak

Gauzak horrela badira, honek esan nahi du azalpenak perpaus nagusiaren kanpoaldeko osagaiak edo direla. Kausal beteak, berriz, barneko osagai izango liriteke. Hortaz, perpaus hauen sintaxi izaerari begiratuta, *kanpoko* eta *barneko* perpaus kausalak badirela esan genezake.

–eLAKO perpausa da, denetan, barneko osagai izateko aukera handiena duena. Horren froga bat nahi bada, pentsa daiteke zer gerlatzen den perpaus kausal bat beste mendeko perpaus baten mendekoa denean. Baldintzazkoetan edo denborazkoetan, esaterako, –eLAKO erabili beste erremediorik ez dugu. Alegia, (29)ko perpaus guztiak zilegi badira ere:

- (29) a. Merkea zenez gero, erosi egin nuen.
 b. Erosi egin nuen, merkea baitzen.
 c. Erosi nuen merkea zelako.
 d. Merkea zelako erosi nuen.

debeku handiak ditugu, adibidez, perpaus hauetako batzuk baldintzazko gisa emateko:

- (30) a. Merkea zelako erosi bagenuen, damutuko zaigu.
 b. Merkea zelakoan erosi bagenuen, damutuko zaigu.
 c. *Merkea zenez gero erosi bagenuen, damutuko zaigu.
 d. *Merkea baitzen erosi bagenuen, damutuko zaigu.

Egiazki, mendeko den beste perpaus baten barruan txertatzeko aukera argia dutenak “barneko” direnak dira (29c eta d). Azalpenek zailtasunak dituzte (29a eta b) horretarako. Izan ere, hauek “kanpokoak” ditugu.

Perpaus osagarriak aipatu ditugu lehenago (ikus (20)ko adibideak). Izan ere, perpaus osagarrietan ere badira debekuak:

- (31) a. [Merkea zelako erosi zuela] esan zidan.
 a'. Esan zidan [merkea zelako erosi zuela].
 b. Merkea zenez gero, [erosi egin zuela] esan zidan.
 b'. ?[Merkea zenez gero, erosi egin zuela] esan zidan.

- b". ?Esan zidan, [merkea zenez gero, erosi egin zuela] / Esan zidan, merkea zenez gero, [erosi egin zuela].
- c. *(Erosi egin zuela, merkea baitzen,) esan zidan.
- c'. [Esan zidan erosi egin zuela], merkea baitzen.

Baina

- d. Merkea baitzen, [[erosi egin zuela] esan zidan].
- d'. ?Esan zidan [[merkea baitzen] erosi egin zuela].

Aginterarekin azalpenak ematen ditugu eta hemen ere zeharbidera jo behar beste perpaus nagusi baten osagarri gisa ematerakoan:

- (32) a. "Eros ezazu, merkea da eta" –esan nion.
> Merkea zela eta erosteko esan nion.¹⁵
- b. "Eros ezazu, merkea baita" –esan nion.
> *[Merkea baitzen erosteko] esan nion /
> *[Erosteko, merkea baitzen] esan nion.
> [Erosteko esan nion], merkea baitzen.
> Merkea baitzen, [erosteko esan nion].

(32b)n, orain ere, kausazko perpausa kanpoaldean kokaltzen da. Azalpena da. Horregatik, perpaus hori zehar-estiloan ematen dugunean, gauzak pitin bat aldatu egiten dira azalpen hori perpaus osoari baitagokio, ez perpaus txertuari.

Hitz egiten dugunean kaxotxak eta holakoak erabiltzen ez baditugu ere, (32)ko adibideek erakusten dutena da [merkea zelako] moduko perpaus kausala perpaus osagarriaren barneko osagaia dela eta, horregatik, ez dela inongo debekurik perpaus nagusiari buruzko hurrenkeran (ikus 31a eta a'). Oстера, –eNEZ GERO edo BAIT–en bidez osatuak azalpenak dira eta kanporagokoak direla ematen du, eta horregatik, perpaus nagusiaren kanpo aldean koka daitezke (ikus 31b eta c') baina ez, dirudienez, perpaus osagarriaren mugen barruan (ikus 31b' eta c). Nolanahi ere, azalpenak nekez ager daitezke beste perpaus baten barruan txertaturik.

Barneko izateak aditz nagusiarekiko lotura estuagoa izatea esan nahi du. Kanpoko deitzen diegu, aldiz, aditzarekin hain lotura estua ez dutenei. Hauek aditzaren osagarri baino areago perpausaren osagarri izango liriteke, perpausaren kanpoaldean daude, periferian. Azalpenak kanpokoak izan ohi dira. Horregatik, –eLAKO atzizkiakz baliatzen den kausa! beteaz gainera, azalpena ere ager daiteke perpaus berean, baina bata barnean, nolabait, eta bestea kanpoaldean:

- (33) Aspertula nengoelako atera naiz kalera, haizea hartzea ona izaten baita.

¹⁵ Hala ere, kontuan izan hemen – eLA eta gisako perpaus hau oraindik ere perpaus juntatu soil gisa agertzen zaigula. Algia, [merkea zela] eta [erosteko]. Perpaus horren analisi zuzena honako hau da: [[merkea zela] eta [erosteko]] esan nion

Nolabaiteko osagarritzat kausazko perpausa hautatzen duten predikatuen jokabideak ere horixe erakusten digu: barneko gisa ageri da delako perpausa osagarri hori, baina azalpena, osagarri ez dena, kanpo aldean. Bata eta bestea sintaktikoki desberdinak direla esan nahi du horrek:

- (34) Kezkaturik nago medikuak aurpegi txarra jarri didalako, medikuaren aurpegiak, maiz, gauza asko adierazten baititu.

Hemen medikuaren aurpegi txarrak eta nire kezkak badute loturaren bat. Holakoak barruko osagai izan daitezke. (34)an, *-eLAKO* perpausa hala da. Ostera, medikuaren aurpegiak gauza asko adieraztearen eta kezkaturik egotea ez daude hain erlazionaturik. Hemen egiten dugun bakarra da baieztapen bat egin ondoren baieztapen hori egin izanaren azalpen bat eman. Arrazoi horrexegatik honako bi perpaus hauen gramatikaltasuna, edo egokitasuna, nahiago bada, desberdina gertatzen da:

- (35) a. "Lanki" elkarteak datuak eman ditu, (zeren) txostena egin baitute.
b. ??"Lanki" elkarteak datuak eman ditu, txostena egin dutelako.

Azalpenak ezin dira galdegai izan. Beti mintzagai ditugu. Honek ere perpausaren "kanpo aldeko" zerbait direla esan nahi luke. Azalpenak *-eNEZ GERO, NOLA ... {-eN / BAIT-}* gisa ematen ditugunean, hauen joera perpausaren ezker aldean kokatzekoa da, baina *BAIT-*en eta honen kidekoen bidez ematen ditugunena, eskuinaldean kokatzekoa. Betiere perpausaren "kanpo aldean" kokaturik ikusiko ditugu:

- (36) a. Ezer txarrik egin ez dudanez gero, ez diet beldurrik epaileei
b. Ez diet epaileei beldurrik, ezer txarrik ez baitut egin.

4.3.4. Galde-hitzak eta lokailuak kausazko perpausetan eta azalpenetan

Kausari buruz galdetzerakoan eta azalpenak eskatzerakoan galde-hitz desberdinak erabiltzen ditugu: *ZERGATIK (ZERTAKO, ZERENDAKO, ekialdean)*. *ZER DELA ETA, NOLATAN* eta horrelakoak baliagarri gertalzen dira kausaz galdetzeko. *ZER BA(DA)*, berriz, azalpenak eskatzeko. Azken honen parafrasia, hain zuzen, honako hau litzateke: '*zergatik diozu hori?*' Eta, hain zuzen, azalpenak, maiz, hitzunik zerbait esateko duen arrazoia besterik ez dira, esatearen arrazoia, ez esaten denaren arrazoia.

Modu berean, azalpenen eta kausal betaen arteko aldea erakusten dute perpaus hauek lokailu bidez elkartzen ditugunean. Adibidez, *BERAZ* lokailua askoz naturalago sentitzen dugu azalpenetan *HORREGATIK* baino. Beste zenbaitetan, berriz, *HORI DELA ETA* edo honen antzekoak sentitzen ditugu egokienak. Goiko adibide batzuk berriro gogoratu:

- (21) a. Zaude lasai, ez dizu ezer egingo eta. (Ez dizu ezer egingo. Beraz/horregatik, zaude lasai)
b. Kontzertua hasita dagoenez gero, ez gara sartuko. (Kontzertua hasita dago. Beraz/horregatik ez gara sartuko)
c. Lasai zegoen, ez bailzuen zigorrik espero. (Ez zuen zigorrik espero. Beraz/horregatik, lasai zegoen)

- (22) a. Norbaitekin haserretu da, bekozko ilun baitator. (Bekozko ilun dator. Beraz/ horregatik, norbaitekin haserretu da)
- b. Norekin hitz egin duzu? Goizean horren berririk ez baitzenuen. (Goizen horren berririk ez zenuen. Beraz/hortaz/ horregatik norekin hitz egin duzu?)

Pentsa liteke, horrenbestez, perpaus hauen kausazko/azalpenezko bereizketa honek eta, orobat, kanpoko/barneko eta mintzagai/galdegai bereizketak baduela zer ikusirik lokailuen erabilera honekin.

4.4. PERPAUS KAUSALAK OSATZEKO MODUAK

Gorago esan bezala, "kausa" deitzen dugun hori adierazteko euskaraz balia daitezkeen moduak aurkeztuko ditugu, bakoilzaren xehetasunak emanaz eta elkarrekin izan ditzaketen kidetasunak eta desberdintasunak azpimarratuz.

4.4.1. -eLAKO(T)Z

a. Adizlagun ala izenlagun?

Morfema honen aurrean desberdin jokatzeko dute Iparraldeko euskalkiek eta Hegoaldekoek. Hegoaldean, -eLAKO kausazko perpausa ez ezik izenlagun ere izan daiteke, izen baten osagarri, alegia:

- (37) a. Gezurra esan dizutelako haserretu zara (kausazkoa).
- b. Gezurra esan dizutelako kontu horrekin asper-asper eginda naukazu (perpaus osagarria, kontu izenan atxikia).

Ekialdean, ordea, bi erabilera horiek formaz ere bereizten dira batzuelan, zeren -eLAKO(T)Z erabiltzen baita perpaus kausalak osatzeko; -eLAKO, aidiz, izenaren osagarriak edo izenlagunak moldatzeko baliazen da:

- (38) nahiago dut Jaingo Jaunak kondena nazan onegi izatu naizelakotz, ezen-ez, borthizegi edo idorregi. (B. Joannateguy, *Sainduen Bizitza*, 55).

(38)an kausazko perpaus bat dugu. (39)an, berriz, izenlagun bat da -eLAKO perpausa eta ez da kausazkoa:

- (39) bere salbatzailaa bezala maithatzen duelako itxurak egitan diotza (M. Duhalde, *Meditacioneac*, 221).

Honako beste adibide honetan argiro erakusten da atzizki desberdinen jokamoldea:

- (40) Sartzearekin, gogoa den gutien bat ilhutzen zaizu; taster jartzen zira bizkitarte; denik ere, luzesko *badaiakotz* erreka, lotsa batek uzkuzten zitu; gero, etxeño bat edo bertez ikustearekin biderean bazterrean edo mendi-mazelan xut, edo ibarño batean banakatuak, horra nun alegeratzen ziren; ondotik, bigarren ilhundura bat, etsimenduz guti edo aski belzua, arteka tinkalzen *delakotz* berriz; azkenean ilhundura, bozkario laburregia, lotsa eta batzutan izia bera gairiditzen dauzkizu, estaltzen, esperantza bizi batek; noizbait bada noizbait, zerbait xoragarri behingotz agerturen *zaizulako* esperantzak (J. Etchepare, *Berbitiez*, 10).

Dena dela, esan daiteke gaur Euskal Herri osoan hedatuena den jokabidea erabilera biak formaz ez bereiztea dela. Horrenbestez, ohiko bidea izenlagunerako eta perpaus kausalerako forma bera erabiltzea dela esan daiteke:

- (41) a. Haren hatsaren musuan naizelako handitu bihotzez beha nago itsaso-amari. (Iratxeder, *Biziaren olerkia*, 111).
- b. Vitoriatik Donostiara jo zuan San Franziskok, an arkituko zualako uste osuan ontzi bat Aprikarunz bide egiten zuana (C. Beovide, *Asis-co Loria*, 125).

b. **-eLAKO eta -eLAKOAN.**

- (42) a. Goiz zelako joan nintzen oinez bilerara.
- b. Goiz zelakoan joan nintzen oinez bilerara.

-eLAKOan morfema mullzoaren analisia -eLA+KO+AN gisa egin izan dute gramatikariek eta "-eLAKO USTEAN" bezalako esamoldearekin erlazioan jarri. -eLAKO hori uste izenaren osagarria izango litzateke. Horrenbestez, egitura horrek "uste" izena badu ezkutuan, argi dago zenbait euskalariren arabera (Villasante 1986: 242) esamolde honi darion "subjektibotasuna" nondik datorlion:

- (43) a. Eta ez dut nahi, alferrik delakoan, ez ezin daitekeelakoan, bide honetarik aurrera segitu (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Hautatuak III*, 151).
- b. Urbiltzen da Mata biurria, ta inhor egon ez ta, etsaiak an izkutatunik zeudelakoan, kuzkur itzuli zan (Orixe, *Santa Cruz apaiza*, 138).

Perpauk hauen formak eta balioak ez du harrigarritik ezer. (43a)ren azpian "alferrik delako ustean" dagoela pentsatuz gero, uste bat dugu tartean eta usteak, maiz, zerbaiten motibo gisa ematen dira. Horregatik kontsidera litezke perpauk kausaletatik hurbil:

- (44) Obratzeko errexa delakoan baliatzen da itadira eta espalakoin egiteko (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 323).

Perpauk hauek, hortaz, esanahiari dagokionez ere, -eLAKO perpauetik aski hurbil egon daitezke. Baina beste batzuetan, bereziki *egon* aditzarekin ageri denean, ez dago horrelako kausa baliorik:

- (45) Neroni ere erraza ez delakoan nago, baina ez da erraza, batipat, herri kutsua duen aldetik (K. Mitxelena, *Mitxelena-ren Idazlan Hautatuak*, 293).

Honako adibide honek, berriz, bi esamoldeen arteko ertazioa adieraz dezake, *delako* ageri baita *delakoan* erabili ordez:

- (46) Heracleako ezü pozointsuak bertze ezü sendagarri dirudi: peril handia da nihork bata har dezan bertzea delako, edo biak har detzan nahasiaturik, zeren bata on izan gatik, bertzeek kalte egin lezake (S. Pouvreau, *Phikotea*, 299).

c. **-eLAKO kausalak galdegai?**

Gorago, 2. atalean, kontu hau aipatu dugu. Sar gaitezen orain xehetasun gehiagotan. Sebero Altube -eLAKO kausalak batik bat galdegai direlako ideiaren aldeko agertzen zaigu (ikus Altube, *Erderismos*, & 181).

Garbi dago -eLAKO kausalak joera handia dutela galdegaigunean agertzeko. Edo beste modu batera esan dezagun: perpauk kausal bat benetan galdegai gisa eman nahi bada -eLAKO da horretarako forma nagusia, baina ZEREN ... -eN eta holakoez ere baliatzen da euskara zeregin horretarako.

Azalpenak, berriz, perpaus nagusitik bereiz ematen dira. Baina perpaus kausala galdegai bada, perpaus nagusian integraturik eman beharra dugu. Normalean, perpaus kausalak era batera nahiz bestera eman daitezke. Horrela, balzuetan galdegai gisa emango ditugu eta beste balzuetan mintzagai gisa. Azalpenak beti mintzagai izan ohi dira. Gorago esan bezala, *alegiatzko azalpen* deitu ditugunek bereziki, ez dute galdegai izateko aukerarik, beti azalpen izaten baitira. Honi lotua dago holakoetan –eLAKO ezin erabilia.

Esanak esan, atera al daiteke ondorio gisa –eLAKO beti galdegai dela? Ondoren ikus daiteke balzuetan galdegai bada ere, ez dela beti horrela.

c.1. Galdegai irakurketa izan dezaketenak

Honako haueetan kausazko perpausa galdegaigunean ageri da. Galdegai dela ez da dudarik:

- (47) a. Ondo dakizu nere gurasuak utzitako ontasunetatik eten bearrian arkitu banaiz, luzaroen gaxo egon naizelako izan dala (T. Alzaga, *Buruntziya*, 12).
- b. Beste alderatuxe ageritzen baldin bada maiz, bestek horretara behartzen duelako da, ez diotelako bakan berari degokion lekuan egoten uzten, beti zirka, makilaka eta are tiroka ere ari zaizkielako etengabe bere onetarik nola aterako (K. Mitxelena, *Mitxelena-ren Idazlan Hautatuak*, 120).
- c. Ama txit maita detalako egongo zerale etxian eta nerekin mai batian jango dezute (C. Beovide, *Asis-co Loria*, 74).
- d. Nai izan zualako eskeñi zan (D. Inza, *Kristau ikasbidearen azalpena*, 64).
- e. Elbco pozoidunak eta beste arbiska pozoitsu askok zulatzen dituztelako egiten dute au (A. Ilurriaga, *Diálogos*, 42).
- f. Bestearentzat egiten dugulakotz dugu bihotz onez egin behar (J. B. Etchepare, *Mendekoste gereziak*, 76).
- g. Bertsook ez dira alperrik Euskalerrian egin diran ederrenak. *Ikusten duzu goizean*, gaur ezagunago dalako ta ez luzatzearren utzi dut (Orixe, *Euskaldunak*, 111).

▪ **ZERGATIK?** galderari erantzuterakoan, maiz ez dugu perpausa osorik ematen. Hau sarri gertatzen da elkarrizketan. Holakoetan –eLAKO erabiltzen dugu nagusiki eta, jakina, aditz nagusia falta bada ere, galdegaiztat hartu behar da, galdera zuzen bati erantzuten baitio:

- (48) ... etxia oso altxa baña len, bigaldu egin zuten.

Zergatik?

Zartu egin zalako eta baliyo etzuelako lanerako. (V. Iraola, *Oroitzak*, 84).

Dena dela, esan behar da aditzaren aurreko kokagune hau ez dela –eLAKO perpausak gehien erakusten duena.¹⁶

Perpausak osorik ematen ditugunean, –eLAKO-dun perpausaren egongunea, testuek ematen duten lekukotasunari jaramon egiten badiogu behintzat, normalean ez da izaten galdegaigunetzat hartu ohi dugun hori,

¹⁶ Altubek dioenaren kontra, hain zuzen: <<Excepcionalmente aparece, a veces, colocado al final el sintagma causativo caracterizado por el sufijo –lako en frases como las siguientes:

= Belarrondoko bai ermon deusatz, gaxtoa dalako (...)

** Gizonak dute errua, bear bezelako azi-bidca emakumeeri eman ez diotelako.>> (209. or.)

aditzaren aurrekoa alegia. Askoz ugariagoak dira bestelako hitz hurrenkerak, perpaus nagusiaren ondoren nahiz aurretik.

Galdegaigunetik kanpo egon arren, galdegaitzat hartu behar ditugula dirudi, hala ere, zenbaitetan. Eskuineratutako galdegaia izango lirateke:

- (49) a. errespelatu naute zarra naizelako (Txirrita, *Txiritaren Bertsokak III*, 135).
- b. Ni obligazio batzuk betelzera beartua banago, ori izango da ordena bat dagoelako, eta ordena orri serbitu bear badiot, ori izango da ordena au ona ta zuzena delako, eta nere izerdi-nekeak eskatzeko eskubidea duelako (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 101).
- c. eta bazterrerat uzten ditugu beste saindu andana bat, hetaz xehetasun gutiegi dugulakotz (Arradoy, *San Frantses Jatsukoa*, 15).
- d. Eta, batez ere, gu gaude euskararen alde jokatzera behartuak, gure-gurea delako, Jainkoak guri eman zigulako (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 63).

Jokabide hau oso normala da, bestela ere. Edozein galdegai eta, batez ere, perpausa luze samarra bada, aditzaren ondotik eman daiteke. Adibidez:

- (50) a. Etorriko naiz bihar.
- b. Esan du ez dela etorriko.

Hauk eta (49)koek lege berari eranluzten diote. Hortaz, *-eLAKO* forma hori, galdegaigunetik kanpo egonik ere, galdegaitzat hartzen dugu. Beraz, perpausaren azken muturrean kokatuta egon arren, batzuetan galdegai dela onartzen ahal dugu.

Baina, beharbada galdegai gisa interpretatzen zailago diren *-eLAKO* kausalak ere aurki ditzakegu eskuineko egongune horretan:

- (51) a. Izan zaite alabatua, Jauna, anaia suagatik, illunian argi egiten digulako; ederra, guslagarria, sendua ta indartsua dalako.
- Izan zaite alabatua, Jauna, lurra gure amagatik, gañian gauzkalako ta jan-edana ematen digulako, belar, lore ta prutu onak ematen dizkigulako. (...) Zorionekoak paketsuak, izango diralako Zutaz koroatuak! (C. Beovide, *Asis-co Loria*, 399).
- b. Alabainan guti dakigu segurki gure herriaren historia zaharraz, gure lehen arbasoen tradizioea galtzera utzi dugulakotz (J. Mirande, *Miranderen idazlan hautatuak*, 220).

(49) eta (51) ez dirudi modu berean interpretatzen ditugunik. Ahoskatu ere modu desberdinez ahoskatzen ditugu: batzuek galdegaia alzeratua gertatzen denean ematen dugun intonazioa dukete (ikus gorago 4.3.2):

- (49') Hori izango da ↗ordena bat dagoelako.

Holakoak dira, dirudienez, (49)koak.

Baina (51)koek kausazko perpausa eten handi samar baten ondoren ematen dute eta ez dute, gainera, behar bada, goranzko intonazio hori. (51a)n intonazio berezi hori perpaus kausalaren ezkerreko osagaiaren aurrean gertatzen da:

- (51'a) Izan zaitez alabatua suagatik, ... *-eLAKO*

Hemen ere galdegaitzat har genezake *suagatik* osagaia eta perpaus kausala, berriz, honekin aposizioan edo egongo litzateke.

Ezeztapena tartean denean ere, bereziki perpaus nagusia eta kausazkoa ezeztapenaren azpian ditugunean, –eLAKO da nagusi, eta galdegai edo “sasigaldegai” dela esan daiteke (ikus Rijk 1998; Ortiz de Urbina 2003).

Hain zuzen, bada esamolde bat –“Ez A, B baizik”-, ezeztapenaren eta baieztapenaren arteko aurkaritza adierazten duena, non –eLAKO den nagusi:

- (52) a. ez ori nai dualako berez, baizik aukera kendu nai ez digulako (D. Inza, *Kristau ikasbidearen azalpena*, 140).
b. ni hizkuntzaren biaz ari naiz, besterik gabe. Ez besterik ez delako munduan, baizik eta munduko zer bakoitzari zor zaiona aitortu behar zaiolako. (K. Mitxelena, *Mitxelena-ren Idazlan Hautatuak*, 226).
c. Noz-edo-noz burrukea amaizten eben, nekatzen ziralako ez euren amoruba gitxizen zalako, (Kirikiño, *Abarrak*, 32).

Baina ezeztapena dugunean, perpausaren egitura aski konplikatzan da eta esanahiaren aldetik ere interpretazio bat baino gehiago izan ditzakete ezezkako perpaus hauek. Eman dezagun honako hau:

- (53) Ez dizut hori kontatu adarra jo nahi nizulako.

A B

(53) perpausa anbigua da: izan daiteke A eta B, biak, gauzatzea, hots, egiazki, ez dizut hori kontatu eta ez kontatzearen arrazoia adarra jo nahi izatea izan da. Adiera hori izango luke, eta hori bakarrik, perpausen hurrenkera aldatuko bagenu ere:

- (54) Adarra jo nahi nizulako ez dizut kontatu hori.

B A

Hemen kausazko perpausa galdegai dela esan daiteke. Zerbait ez kontatzearen arrazoia ematen digu perpaus horrek. Honako galdera honi erantzungo lioke:

- (55) Zergatik ez didazu kontatu?

Baina (53) modukoak, non perpaus kausala nagusiaren ondoren ematen den, beste modu batera ere interpreta litezke: nik zuri hori kontatzea eta adarra jo nahi izatearen arteko lotura ukatuz: ez dizut hori kontatu adarra jo nahi nizulako, baizik beste zerbaitengatik. Alegia, oraingoan adierazten dut zerbait kontatu dizudala; beraz, egia da hori kontatu dizudala, baina ez da egia adarra jotzeagatik kontatu dizudala. (53)k, kasu honetan, beste honako parafraisi hau ere onartuko luke:

- (53'') Hori kontatu dizut, ez adarra jo nahi nizulako, (baizik ...).

Alegia, hori kontatu dizut, ez A-gatik, B-gatik baizik. Aurkaritzako egitura dugu (ikus *EGLU IV*, 196. or. eta hurr.).

Hain zuzen, (53'') bezala, (53) ere amaitu gabeko esaldia izan daiteke interpretazio hau ematen zaionean. Betiere, ezeztapenaren besarkadura norainokoa den ikusi behar.

Nolanahi ere, hemen axola diguna da horrelako perpausetan –eLAKO dugula nagusi.

Ezezkako egitura hauek agerian jartzen dute kausazko perpausen arteko desberdintasuna. Egitura hauek aginterarekin batera gerta daitezke eta, orduan ere begien bistan gelditzen da *-eLAKO* bidezko kausalaren eta gainerako azalpenen arteko diferentzia:

- (56) a. ¿? Joan zaitaz ohera berandu delako.
 b. Joan zaitaz ohera, berandu da eta.
 c. Joan zaitaz ohera, berandu baita.
 d. Berandu denez (gero), joan zaitaz ohera.

Hemen perpaus naturalenak (56b, c eta d) direla ematen du. Txarrena, berriz, (56a). Honek badu zerikusia perpaus bakoitzaren izaera semantiko-sintaktikoarekin. Agintera modu berezia da. Zenbait hizkuntzalarik aginteraren gainetik beste aditz bat badela uste izan dute, aditz abstraktu bat, "esan"-en kidekoa edo. Hori ongi ezkontzen da (56)ko kausa perpausen azalpenezko izaerarekin: aginterarekin batera ematen den azalpenak agindu horren justifikazio izan ohi dira. Hemen ere, (56b eta c)ren kasuan, *berandu da eta / berandu baita* aginduaren justifikazio dira. Honako hau esango bagenu bezala: "*ohera joateko esaten dizut*" eta *hau ESATEKO edo AGINTZEKO arrazoia da berandu dela*. Azalpenak agindua zergatik eman den esango liguke.

Era honetako justifikazioak azalpen gisa ematen ditugu, ez kausal bete gisa. Eta horrek, jakina, badu zerikusirik holakoetan *-eLAKO* oso baliagarri ez gertatzearekin.

Baina *-eLAKO* perpausak izan lezake leku aginterarekin ere, "Ez A, B baizik" moduko esapideetan, hain zuzen. (56)ko adibideak gorabehera, beste hauek ere onar litezke:

- (57) a. Joan zaitaz ohera berandu delako, ez nik agindu dizudalako.
 b. Ez zaitaz joan ohera nik agindu dizudalako, baizik berandu delako.

Honek guztiak garbi erakusten du *-eLAKO* perpausak eta gainerakoek eskakizun desberdinak dituztela. Azken batean, kausal beteen eta azalpenen arteko desberdintasuna jartzen digute agerian horrelako adibideek.

Galde-perpauarekin ere gauza bera gerta daiteke:

- (58) a. Jaio gabe geldituko ote da musika eder hori, euskaldunen artean horretarako kemenik eta ausardiarik ez delako? (K. Mixelena, *Euskal Idazlan Guztiak 1*, 51).
 b. Bestiak pekatu egin ebalako, zuk bere egin biar dozu, eta bestia infernura doialako, zuk bere jarraitu biar deutzazu (P. Astarloa, *Berbeldiak*, 107).

Hemen ere *-eNEZ GERO* edo *BAIT-* gisako kausalarentzat ez da lekurik. Hemen ere, galderak, goian ezetzapenak bezala, perpaus osoa besarkatzen duela ematen du. Eta hauetan ere agerian gelditzen da kausal beteen eta azalpenen arteko aldea. Alderatu, bestela, (58a) eta honako (58'):

- (58') Jaio gabe geldituko ote da musika eder hori?; euskaldunen artean horretarako kemenik eta ausardiarik ez baila.

Bi perpausek esanahi zeharo desberdina dute.

• Ordea, *-eLAKO* perpausak badu lekua galdegai izan gabe ere nolabaiteko kontrastea markatu nahi denean:

- (59) a. Berandu etorri zara, eta berandu etorri zarelako (hain zuzen), nik egin behar izan dut zure lana.
- b. Coromines-ek, (...) haur hizkerakotzat dauka balba hilza, besteak beste, haur ipuinetan agertzen omen zelako, hain zuzen ere (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak IV*, 97).

Hauxe da, hain zuzen, erakusle indartuekin gertatzen dena ere:

- (60) Berandu etorri zara, eta horrexegatik (hain zuzen), nik egin behar izan dut zure lana.

Hauxe, *horixe* eta *holakoak* gehienetan galdegai izan ohi dira, baina galdegai ez izanik ere, nola halako kontrastea markatzeko erabiltzen ditugu. —*eLAKO* perpausak ere zeregin horixe bete dezake.

Sarritan, —*eLAKO* perpausa erakusle batek "iragarria" etorri ohi da: *hargatik*, *honengatik* edo horrelako bat botatzen da aurretik, *kataforiko* gisa, galdegai gisa nahiz mintzagai gisa, eta ondoren, perpaus nagusiaren atzetik erakusle horrek "biltzen" duen perpaus kausala etorri ohi da:

- (61) a. Argatik etzaio deitzen gaiztoa, baizik gaitza, gaitz guztien iturria bera dalako (D. Inza, *Kristau ikasbidearen azalpena*, 151).
- b. Horregatik maite ditul gaurko gazte asko: tentaldiaren ihesi ez dabiltzalako, lohiaren beldur ez direlako (K. Mitxelena, *Mitxelena-ren Idazlan Hautatuak*, 78).
- c. Orregatik ixilka egin zun, edo xokoan gertatu ziralako, edota berantegi salatuz bera ere bildur zitekelako (Orixe, *Aitorkizunak*, 227).

Hemen *erakusleak* eta —*eLAKO* perpausak aposizioan daudela esan daiteke eta eduki bera dutela biek.

Nolanahi ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, azalpen gisa ere eman zitezkeen perpaus hauek, baina horrela, beste zerbaitek adierazten dela dirudi:

- (61') a. Hargatik ez zaio deitzen gaiztoa, baizik gaitza, gaitz guztien iturri bera baita.
- b. Horregatik maite ditul gaurko gazte asko, tentaldiaren ihesi ez baitabilza, lohiaren beldur ez baitira.

Hemen azalpen bat eskaintzen zaigu, hiztunak bere kabuz, bere erantzukizunpean eskaintzen duen azalpena. (61) eta (61') alderatuz, argi ikus daiteke diferentzia, zeren (61a eta b)n hiztunak ez baitu azalpenik ematen, alegia ez du baleztapen baten justifikazioa eskaintzen, gauzak zergatik diren diren bezala baizik. Eta (61c), berriz, nekez eman ahalko dugu azalpen gisa.

c.2. Galdegai irakurketa izaterik ez dutenak.

Maiz perpaus nagusian tartekaturik ager daiteke kausazko perpausa:

- (62) a. Honetaz gainera, *automóvil* hori, xinitrea edo manddoak delako, ez da gure berezibila bezain jatorra (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 94).
- b. Euskal letretan, apal izanagatik edola apala delako, aski nabarmendu da bere boza azkenaldi honetan (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak III*, 152).
- c. Au, itsutua dagolako, ganbelu bategaz ezkonduko da, ta nire amak, neu ainbeste maite izan da, emakume arro, buruariñ, geldu, epel bat emon gura deust emaztetzat (D. Aguirre, *Krasala*, 157).

- d. auzi guzlietarik iges nerbillen, baina zauriturik egoan batek, bere alde egin enebalako, jarraitu eustan batetik bestera onltzi guztian; zauritu rindoan beso baten, baina atzenean, odol baga geratu zanean, jausi zan da etzan geiago jagi (J. M. Echeita, *Josecho*, 272).

(62)koetan bistan da "tartekatua" ematen dugun kausazko perpaus hori ez dela galdegai, mintzagai baizik. Hala ere, nolabaiteko kontrastea edo hanpadura markatzen duela dirudi. Denetan *horre(xe)gatik* erakusleak ordezka dezake kausazko perpausa, betiere kontraste-indarra galdu gabe.

Ere-ren ezkerretara ere aurkituko dugu, sarritan, -eLAKO-dun perpausa. *Ere*-ren ezkerretara ematen dena, normalean ez da galdegai izaten. Horrenbestez, orain ere ezin esan -eLAKO galdegai denik. Eta ez hori bakarrik: era honetako kausalak bakarrik ager daitezke *ERE*-ren ezkerretara. Galdegai ez izan arren, barneko osagai direlako seinale:

- (63) a. Aurrak jazteko amak ematen dizkidan txanpon batzuek artzen ditudalako ere aserrelzen da (A. Barriola, *Goi-Argi*, 29).
- b. Bekatuak kalteak mundurako ekartzen dituanean, gorrotatzen da nola bai bekatua, la ez da gauza ain gaizta Jangoikoaren ofensa dalako ere gorrotatzea, nola dan munduko fortuna, zorion, edo mesedeak dakarzkigunean (J. A. Moguel, *Eracasteac*, 168).
- c. Berriz hasiko banintz, (...) ez nioke deus kenduko: lerrorik ez, eta gainerakoan gaizki esanak barkatu. Besterekin, ordea, zorretan gelditu nintzenik ez dut ukalzen, hiltz goortxoak esan beharko nituelako ere bai, inoiz edo behin (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak II*, 84).

Honako hauetan ere ez dirudi -eLAKO galdegai denik, beste osagai batzuk baitira hor galdegai:

- (64) a. Badabil norbait pasealeku batean eta ibiltzeaz aspertu delako eseri egiten da hango banku batean, dagoeneko eseririk dagoen beste norbaiten aldamenean (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 260).
- b. Gaurkoa delako, oraingo gizakien bihotz-adimenak ukitzeko bide erosoagorik ez dagoelako, horretara jotzen dugu euskaldunok ere erdaraz ari garenean, eta euskara arto horretan gulxi saiaturia dugulako (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak II*, 49).
- c. Gero usoa bialdu zuen, eta non ofa ipiñirik arkitu bide etzuelako, kubrara biurtu zan (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 9).
- d. Eta ala ere munduak ala nai duelako, ibxu itxuan erakeriak franko egiten dira; arrazoiari, prudenziari, eta Jaungoikoaren legeari batera begiratu bage (J. I. Guenico, *Sayaquera*, 445).
- e. Noiz bait izan bear nuben suertia nik ere; ebtekoandrea ebrian egon bazan, Eleizatik berandu etorri naizelako errietan ittoko ninduben. (V. Moco-roa, *Demuba geraiz*, 23).
- f. Zenbait poztu egingo da, argia azkenik sortu delako (...) beste zenbait, ordea, goibeldu, euskarak antzinako "uhartetatuna" galdu duelako. (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 237).
- g. Ikaratu egiten zarie nik au jantzi dodalako (Kinkiko, *Abarak II*, 15).
- h. bere buruaz lotsa-lotsa eginda (...) zegon erri guztiaren isekagai zalako (Y. Etxaide, *Joanak-joan*, 200).

Baina galdegai ez badira ere, aski argi dagoela ematen du kausazko perpausa perpaus nagusiaren atala dela hemen. Hain zuzen, horietako askok perpaus nagusiko aditzarekin lotura estua duela esan dezakegu, gainera: *errietan itotzearen, poztearen, ikaratzearen, lotsa-lotsa eginda egotearen* eta

holakoen arrazoiak ematen ditu kausazko perpausak goiko adibide horietan. Nolabait, kausazko perpausa perpaus nagusiko predikatuaren osagarri dela esan genezake. Honako hauetan bezala, hain zuzen, non *eskerrak eman* predikatuaren osagarria edo izango litzatekeen —eLAKO perpausa:

- (65) a. Eskerrak, Jabea, bihotz-bihotzetik, Goiz hau dugulakotz zuhauren eskutik (Oxobi, *Oxobi-ren lan arloitzari zorbait*, 168).
- b. Di Yainkoa, eskerrak dizkitzut, ez naizelako beste gañerako gizonak bezelakoa. (P. Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 343).

—eLAKO perpausa perpaus nagusian txertaturik agertzen zaigu, hortaz, galdegai izan nahiz izan ez. Hori argi ikusten da, kausazko perpausa beste mendeko perpaus baten barruan ageri denean:

- (66) a. atzenerutz ikusi eban, zelan, andigurako aserrekorraren entzutea eukalako, ezabela nai beragaz ezkondu. (J. M. Echeita, *Josecho*, 230).
- b. Jaungoikoak batak bestea maitetuteko agindu eban ezkeru, al dogun on gutzia egin bear deusagula edozeini, zuzena bada zuzena dalako, ta okerra bada zuzendu daitean (D. Aguirre, *Auñemendiko lorea*, 147).
- c. Ikusirik saguzarrak lurrekoak garaituko zituztela goietako Egaztiak, andiangoak ta indartsuangoak zirudielako, alde egin zuen Egaztien aldetik (V. Moguel, *Ipui onac*, 49).
- d. Zuk barriz dinozu, astaki bat izango dala dongaro jasten dalako, nekezaliakaz bat egiten dalako, ta liburu zaarrak austu ta baztertuta eukiko dituelako. (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 46).
- e. Eta nola, añ gaztea zalako, oraindik guraizeak eziñ ondo erabili baitzuten, Birjiña lxit santak eskuak bedeinkatu, eta esan zion. . (G. Arrue, *Mayotceco illa*, 120).
- f. pensa ezazue, (...), zenbat aldiz, batak, edo besteak igui dezuen gauzaren bat esaten, edo egiten dizuelako, bereala aserratzen zeraten (J. I. Guerrico, *Sayaquera*, 433).
- g. oek dira Jaunaren lege Santa ongi gordetzen duelako, Munduagandik isekak, eta bidegabeak ekusten dituenak (Aguirre Asteasukoak, *Eracusaldia* I, 625).

Beste batzuetan, berriz, perpaus kausalak, nolabait, aurretik esanari erantsitako argibideak eskaintzen dizkigula pentsa liteke: zerbait esan eta, dena esan ez dugula ohartu ondoren, osagai bat erantsiko bagenio bezala:

- (67) Lasterketak interes berezia izango du, bertan izango direlako munduko txirindularirik handienak (*Euskadi Irratian entzuna*).

Ikuspegi honetatik, esaldi hori bi zatitan emana bezala legoke:¹⁷

- (67') Lasterketak interes berezia izango du, Munduko txirindularirik handienak bertan izango direlako (izango du, hain zuzen, interes berezia).

Hortaz, ezabatua legokeen perpaus nagusi bateko osagai baliiz bezala interpreta litezke. (49)ko zenbait adibide modu honetara ere interpreta litezke.

¹⁷ Honen antzeko zerbait esaten ditu Altubek: <<Las proposiciones en las que el miembro causativo, caracterizado por el sufijo *-lako*, ocupa legítimamente el segundo lugar, presentan, repetimos aquel miembro desligado del primero, pudiendo casi siempre indicarse su separación por locuciones expresas o tácitas, tales como "eta ori" "zegaitik"?>>:

=Onxeri emongo deusat, (eta ori) on-ona dalako.

=Dan-dana galdu dau, (¿zegaitik?) buru-bako uts-utsa dalako." (Altube, 209. or.)

(49c), adibidez, honako honen antzeko zerbait bezala interpretatzea ere zilegi litzateke:

(49'c) eta bazterrerat uzten ditugu beste saindu andana bat, hetaz xehetasun gutiegi dugulakoiz (uzten ditugu, hain zuzen).

Horrela interpretatzea zilegi izanez gero, ezabatua bide dagoen perpaus horretako galdegai kontsidera liteke *-eLAKO* perpausa kausala.

Beraz, esan daiteke *-eLAKO* perpausa leku desberdinetan ager daitekeela perpausean. Zenbaitetan, eta batez ere galde-erantzunka gabiltzanean, galdegai gisa ageri da. Beste zenbaitetan, ordea, ez dirudi hala denik. Gainera, maiz eskuinaldean zein ezkerraldean emana ikusten dugu. Tartekatua ere bai. Beraz, erabilera zabala duela esan daiteke. Hala ere, erabilera guztietan nabari da *-eLAKO* perpausak baduela perpaus nagusiarekiko lotura bortitz bat. Predikazio nagusiaren banean txertatua ikusten dugu. Horixe erakusten digute beste mendeko baten osagai gisa txertaturik ematen ditugun perpausak.

Baina perpaus kausala beste mendeko baten mendeko ez izan arren, *-eLAKO* erabiltzen ahal dugu kausazko perpausa ondorio baten eragile denean. Eragile hori zerbeiten arrazoia izan ohi da maiz eta perpausean barneratua ageri zaigu. *-eLAKO*-k oso ongi betetzen du lan hori, batez ere galdegai denean.

Nolabaiteko azalpenak emateko ere baliatzen dugu etzizki hori, nahiz eta ezalpen gisako hauetarako beste menderagailuak ere erabil daitezkeen, zeren azalpenetan *-eLAKO* erabilzea ez da ezinbestekoa, gaur egungo hitzun askorentzat hala dela dirudien arren. Lehengo idazle askoren iuman ere aurki daitezke holakoak. Ez dira gaitzesgarri, baldin eta azalpen gisa ematen dena egiazki ondorioaren eragilea bada (kausa fisikoa, motiboa, arrazoia, eta abar). Baina azalpena egiazki ondorioaren eragilea ez bada, hitzunik bere kabuz, bere ardurapean, ematen duen zerbait baizik, perpausean esaten dena baino areago *esatea* bera justifikazera badator, orduan benetan desegoki gelditzen da *-eLAKO* perpausa. Hori da, esaterako, agindu baten edo galdera baten edo dedukzio baten justifikazio gisa ematen ditugun azalpenen kasua. Hauetan bilxi gertatzen dira *-eLAKO*-dun perpausak. Azalpena hitzunik bere gain hartzen duen baieztepena bada, baieztapen hau perpaus nagusitik aparte ematen da. Horietan izan ezik, beste guztietan *-eLAKO*-k bere lekua izango du. Berriz ere Altuberengana jo dezakegu: *Asko irabazi dau antza, arpegi argi ta barrekirria dakarrelako* "akastuna"-ren orde, beste honako hau ematen du zuzentzat: *Asko irabazi dau antza arpegi argi ta barrekirria dakar-eta*. (Altube, *Erderismos*, 213. or.). Argi dago zein den arrazoia. Zenbait hitzuntentzat, hale ere, gaurkoentzat bereziki, *-eLAKO* da nagusi azalpenezko perpausetan ere. Zenbait hitzunen jokabidea ikusita, atzizki horren erabilera esparrua zabalduz joan dela pentsa daiteke, horixe bakarik erabiltzen baitute kausa beteetarako nahiz azalpenetarako.

Horrenbestez, kausazko guztiak ez dira zilegi testuinguru guztietan. Seinale, ez direla denak modu berekoak. "Ez A, B baizik" moduko ukapen perpausetan, *-eLAKO* perpausak badu lekua, hain zuzen perpausa zenbait hizkuntzalarik "sasi-galdegai" edo "ukagai" deitu dutenatarikoa delako. Hau ere kontrastea markatzeko modu bat da. Eta hori ez da azalpenak ematekoan gertatzen. Aginterazko eta galderazko perpausekin ere kausazko beteek eta azalpenek

jokabide desberdina dute. Zerbait agintzen edo galdetzen dugunean, normalki azalpen bat ematen dugu, agindu edo galdera horren azalpen bat.

Kontua da zenbait perpausetan, ustezko zentzua dutenetan, adibidez, azalpenak bakarrik erabil daitezkeela.

d. -eLAKO + ezeztapena: perpaus kontzesiboa

Ezeztapenaren aurrean *-eLAKO* perpaus kausalak duen jokabideaz luze mintzatu gara lehenago. Hala ere, aipatu gabe utzi dugu esamolde bat, ezeztapenezkoa, non *-eLAKO* atzizkidun perpausa, kausazko baino areago kontzesiboa den. Hona hemen pare bat adibide:

(68) a. Hiltz berri gehiegi dituelako ez diogu ukatu behar ondo merezi duen txaloa.
(K. Mitxelena, *Mitxelena-ren Idazlan Hautatuak*, 95).

b. aberatsa dalako ezta geiegi poztutzen: eta pobrea dalako ezta geiegi penatzen
(J. I. Guericco, *Sayaquera I*, 32).

(68a)n, esaten dena ez da norbaiti txaloa ukatu behar zaiola hiltz berri gehiegi dituela eta. Hori izango litzateke, nolabait, logikoa. Esaten dena da, nolabaiteko logika horren kontra, hiltz berri gehiegi dituela baina ez diogula, horregatik, txaloa ukatu behar, hiltz berri gehiegi baditu ere, ez diogula txaloa ukatu behar. Bigarrenean, berriz, ez dugu esaten aberatsa izatea dela ez poztearen arrazoiak. Beste honako hau esaten dugu: "Aberatsa da baina ez da horregatik gehiegi pozten". Logikak eskatuko luke, aberatsa izanik poztu egin behar dela. Baina ez. Logika hori ukatzen dute perpaus hauek. Hain zuzen, perpaus kontzesiboetan gertatzen dena.

4.4.2. BAIT-

a. BAIT- aurrizkia

BAIT- aditzari itsasten zaion aurrizkia dugu. Adizki horrek ezin du, aldi berean, bestelako aurrizkirik ez atzizkirik eraman: *BAIT-* menderagailua da eta perpausetan menderagailu bakarrarentzat izan ohi da lekua. Adizkiari itsatsia joan ohi denez, aditzaren inguruan biltzen diren gainerako elementuak (*ez/bai; omen/ei; bide...*) *BAIT-*en aurretik kokatuko dira:⁸

(69) a. Orai sos poxi baten igortzen hasia nako, mementoan lanik gabe omen baita
(J. B. Etchepare, *Mendekoste gereziak*, 91).

b. Astia baginu, hobekixago beha ginezoke, ez bide baita nola-nahikoa
(J. Etchepare, *Beribitez*, 60).

b. BAIT-ekin osatzen diren perpaus menderatuak

⁸ (69)ko adibideak gorabehera, *omen, ei, bide* eta hulaokoak oso arraroak dira kausazkoetan. Gainera, izatekotan, normalago liratekeela ematen du *-eLAKO*-rekin *BAIT-*ekin baino. Izan ere, elementu horiek hiztunarena ez den itzizia jasotzen dute, eta, *BAIT-* zerbait bada, hiztunak bere gain hartzen duen azalpena emateko tresna da.

Aurrizki honen bidez era desberdinetako perpaus menderatuak osa daitezke. Perpaus erlatiboak osalzen dira batez ere, erresuntiboekin (70a), edo erresuntiborik gabe (70b):

- (70) a. Bedauka liburu biki bat, hartan kontu guztiak baitira.
b. Ezagutzen ditut apaizak, buruhauste edernik baitute.

(ikus *EGLU V*, 240-247)

Erlatiboaz gain, ondoriozkoak (*EGLU V*, 457-458) eta osagarriak (*EGLU V*, 79) taxutzeko erabiltzen du euskarak *BAIT-* soila. Baina gaurko euskaraz, kausazko perpausak osalzeko baliatzen da, batez ere, *BAIT-* aurrizkia:

- (71) a. Ugari izan bait-da txit aurten ezkurra, jo-araziko diot laster tripaz lurra. (A. Iturriaga, *Fábulas*, 40).
b. Jainkesa ongi eta beste jainkoizunazko izakia eta ilten gogo edo animai *ika* itz egiten zaie: izkera au bail-da danetan lenagokoena euskeraz. (J. M. Barandiaran, *Euskalerriko Leen-Gizona*, 86).
c. Urkixo (...) ez nuen zorixarrez behar adinbat tratatu, gaitz hilgarriak joa ageri baitzen ezagutu nueneko. (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 113).
d. Yaingoaren semea bazera, egotzazu zere burua or bera; idalzia baitago: Zu zaintzeko agindua eman die bere Aingeruai (P. Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 47).
e. Aisegin dut ikusten bailzaituztet ene ingunian (J. Etchepare, *Buruchkak*, 131).
f. Eskerrak emazkik, Salbatoreko yoare zaharra hasi baita (J. L. Davant, *Iparraren bila*, 32).

c. *BAIT-*dun perpausaren balioa

*BAIT-*en bidez adierazten den kausa azalpenezkoa dela esan ohi da. Hauetan *BAIT-* kausalak zerbaiten arrazoiak ematen ditu: (71c)n Urkixo behar adinbat ez tratatu izanaren arrazoiak gaitz hilgarriak joa egotea da. (71b)n hika egitearen arrazoiak hizkera hau lehenagokoena izatea da. Arrazoi hau hiztunak esandakoaren azalpen gisa eskaintzen da.

(71e eta f) hartzen baditugu, berriz, gogoan, *BAIT-*dun perpaus horren ordeaz, *-eLAKO* ezar daiteke. Euskalkien arteko aldea izango litzateke hori. Baina hemen interesa duena da zenbait predikaturen osagarri moduko zerbait dela *BAIT-*dun perpaus hori, bai *-eLAKO*-duna bezala. Kasu honetan ezin esango dugu azalpen baten aurrean gaudela, perpaus nagusiko predikatuarekin lotura estua duen osagarri baten aurrean baizik. Beraz, kasu honetan perpausaren barne-osagai bat genuke. Nolanahi ere, oso predikatu gutxirekin gertatzen dira horrelakoak (ikus gorago 64ko zenbait adibide) eta, gainera, kausazkotzat hartzeko ere zalantzak izan ditzakegu.

Maiz, *-eLAKO* perpausak jasolzen duten eragile/ondorio erlazio bera biltzen du *BAIT-*gisako azalpenak, baina batean barne osagai gisa eskaintzen dena, besteetan kanpo osagai gisa ematen da, azalpen gisa. Hiztunak gauzak nola aurkeztu nahi dituen. Gorago emandako adibidea berriro gogoratuz, hori da ikusten dena:

- (1) Euria egin duelako daude kaleak bustiak.
(1') Kaleak bustiak daude, euria egin baitu.

Beste batzuetan, berriz, *BAIT*- bidezko azalpena ez dagokio perpaus nagusian esaten denari, esateari berari baizik. (71d)n, adibidez, agindu bat ematen da lehenbizi (*egotzazu zere burua or bera*), eta agindu hori zergatik ematen den esaten digu kausazko perpausak: *idatzia baitago "zu zaintzeko agindua eman die bere Aingeruei"*. Aginduak ematea zerbait esatea izan ohi da: *Nik diotsut [egotz dezazula zeure burua] esango bagenu bezala*.

Beste batzuetan geure buruan ateratzen dugu ondorio bat eta dedukzio horretara iristeko oinarri izan dugun arrazoi gisa interpretatzen dugu *BAIT*-dun perpausa:

- (72) a. Ez daude ebekan, ez baitute telefonoa hartzen.
b. Oskarbi dago, izar batzuk ikusten baitira.

Hemen *telefonoa ez hartzea* ez da, nahitaez, *etxean ez egotearen* arrazoaia, uste dudana uste izateko eta uste hori adierazteko arrazoaia baizik. Eta *oskarbi egotearen* arrazoaia ez da *izar batzuk ikusten direla*, oskarbi dagoela pentsatzeko arrazoaia baizik. Maiz, *segurki*, *antza* eta horrelakoen inguruan ageri da azalpena:¹⁹

- (73) Iduripen bat izan duzu segurki, esan zion Xalbatek, nik ezpaitut ezer entzun.
(Y. Etxaide, *Joanak-joan*, 111).

Adizkiak berak ere uste batez ari garela adieraz dezake:

- (74) Ahaztu egingo zitzaion. (zere)n beli izan baita pertsona serioa.

Maiz, azalpena eskatzen digu geroaldian edo aginteran ematen dugun esaldiak, eta hau, jakina, *BAIT*-en bidez eman daiteke:

- (75) a. Arrain zopa eskatuko dut, aspaldian ez baitut jan (=aspaldian ez dut jan eta).
b. Ulzi lezadazu hizlegia, zerbait begiratu nahi baitut (= nahi dut eta).

Bestelako adierazpenen arrazoaia emateko ere balio digu *BAIT*-ek:

- (76) a. Nork ez du inoiz horrelako tentaziorik izan? Denok baitilitugu buztinezko oinak.
b. Joan zaitez astiroago, hemen radarrak baitaude.

d. BAIT-perpausaren kokagunea

Kokaguneari dagokionez, normalena perpaus nagusiaren ondoren ematea da. Hots: lehenbizi, baieztapena, galdera, agindua, edo gertaera bat jasotzen duen perpausa ematen da, eta ondoren, baieztapen, galdera, agindu edo dena delako horren arrazoaia, *BAIT*-perpausa, alegia:

- (77) a. zure iduripenaz zaite mesfida bethi, hala nahi laitekena sinhetsten baita errexki
(L. Goyhetche, *Fableac*, 57).
b. Artu ditzagun lan ontarako premizko berolasunak, merezi baitu ainbat mesede goilik ixurtzen digunak. (Basarri, *Kantari nator*, 6).

¹⁹ Gorago aipatu dugun Altuberengandik jasotako adibide hau ere, multzo honetan sar genezake, nahiz eta *BAIT*-en ordez *-ETA* enklitikoak dugun, Mendebaldeko euskarari dagokion legez:

Asko irabazi dau antza arpegi argi ta harrekirria dakur-eta. (Altube, 213. or.).

- c. gogor ekiozu ta atzitu ondoren, gogor lotu ezazu, bide ortatik soilik aren maltzurkeriak alperrekoak gertatuko baitira (A. Ibiñagabeitia, *Bergiliren idazlanak osorik*, 115).

Baina hurrenkera normala hau izan arren, perpausaren ezker muturrean kokatua ere ager daiteke *BAIT*-dun perpausa, minzagai gisa (ikus 78a, b eta c). Tartekatua ere bai, (78d)n bezala:

- (78) a. Pareta bat arte bizi baitira biak, etxer bat heldu zaio aphezak bere kantari gazteekin jaten dituen aphairu onen usain mixteriozkoa. (J. Barbier, *Supazter chokoan*, 3).
- b. eta zahagirik ezpaitut nik hemen, erreka uretik edanezak, ordainez, Irago bat onal (J. Barbier, *Supazter chokoan*, 132).
- c. Baiña millaren ordeztal bakarra baitet, arren, artu ezazu bat au milla bider (Orixe, *Euskaldunak*, 22).
- d. Ur bila nator berriz ere iturri emankorrera: Egia esan, dena esan behar baita, Txomin Agirrek (...) bigarrena gipuzkeraz egin zuen (K. Mitxelena, *Mitxelena-ren idazlan Hautatuak*, 382).

Lehenbizikoetan *BAIT*-dun perpausa aurkezpen bat egiteko edo erabiltzen dugu. Tartekatuan, berriz, mezuaren zati bati buruzko azalpen bat ematen da, argibide bat, parentesi bat irekiko bagenu bezala.

Dena dela, hemen axola duen galdera izango litzateke ea esaldi hauetan erabat libre den osagaien hurrenkera. Ez du ematen: perpausak alzekoz aurrera jarritz gero, zenbaitetan gauzak aldatu egiten dira. Horren adibide argi bat litzateke ondoko hau:

- (79) Farisauak eta lege-irakasleak galdegin zioten esanez: Zure ikasleak zergatik austen dituzte zarragokoen esanak? Ezpaitute eskurik ikuzten yaterakoan, ta esku ez-garbiekin yaten dule. (P. Iraoz, *Yesukristoren bizia*, 223).

Kasu honetan, fariseoek, galdera bidez, duten ustea ("zure ikasleak zarragokoen esanak husten dituzte") jakinarazten diote Jesusi. Eta dedukzio horren zergatia, azalpena, ematen diote ondoren. Dirudenez, horixe da hurrenkera normala alegiazko azalpenak ditugunean. Horregatik, ondoko aldaera hau okerra gertatzen da:

- (79') ???Zure ikasleak yaterakoan eskurik ikuzten ez baitute, zergatik husten dituzte zaharragokoen esanak?

Hori dedukzio baten aurrean gaudenean, (80) bezalako alegiazko azalpenetan, nahiko argi ikusten da:

- (80) a. Eri da, kolore txarra baitu.
- b. ??Kolore txarra baitu, eri da.
- c. Kolore txarra baitu, pentsatzekoa da eri dela.
- (72) a. ???Ez bailute telefonoa hartzen, ez daude etxean.
- a. ???Izer batzuk ikusten baitira, oskarbi dago.

Baina:

- c. Izer batzuk ikusten baitira, {oskarbi egongo da/pentsa liteke oskarbi dagoela}.

Hortaz, alegiazko hauetan azalpena eskuinaldean ematen dugu. Alegiazko ez direnetan, berriz, normalena ordena hau izan arren, bestelako hurrenkera ere zilegi da (ikus goragoko 78ko adibideak).

e. *BAIT*-perpaua galde-erantzumetan

–eLAKO(Z) gisako perpauak galdegai izan ohi diren bezala, *BAIT*-ez osatuek azalpena ematen dute eta, alde honetatik, ez dira galdegai: gorago eman diren adibide guztiek *BAIT*-erakusten dute baina perpau hori nekez interpretatu ahal da galdegai gisa. Azalpen hauetan, esana dugun bezala, esaldia bi zatitan banatua ematen zaigu, eta azalpena bera perpau nagusiaren kanpo aldean kokalzen da.

Hala ere, *ZERGATIK* galderari erantzuteko balio dezake *BAIT*-ek, nahiz eta, beharbada, *ZERGATIK* bezalako galdera bati horrela erantzutea zeharka erantzutea litzatekeen, perpau lokabe baten bidez erantzun dezakegun bezala:

(81) - *ZERGATIK* ez zara bilerara etorri?

- Ez baitit inork abisurik pasa. / Inork abisurik ez dit pasatu eta. / Ez dit inork abisurik pasa.

Noski, galdera horri beste modu honetara ere erantzun zekiokkeen:

(82) - Inork ez didatako abisua pasa.

Badirudi bigarren honetan erantzuna galderari hobeki egokilzen zaiola. Ez etortzearen arrazoia ematen da, baina arrazoia objektiboa balitz bezala. Lehenbizikoan, berriz, erantzun horrek azalpen antz handiagoa duela ematen du. Hiztunak, zeharka edo, ematen duen azalpen bat izango litzateke.

Galdera egiteko moduak ere desberdinak izan daitezke: *zergatik?*, *nola(tan)?*, *zer dela eta?*, *zer bada?*, eta abar hiztunak eskura dituen galde-hitzak ditugu. Baina azalpena eskatu nahi badugu, adibidez, *zer bada?* oso aproposa gertatzen da horretarako. Baina azken hau, hain zuzen azalpenez galde egiteko balio duelako, ezin da eman perpau nagusiaren atal bezala, baieztapen beregain bezala baizik. Esan nahi dena da "Zer bada?" esaldi oso gisa eman behar dela, ez beste baten osagai gisa:

(83) - Ez dago pozik.

- Zer bada? (*Zer bada ez dago pozik?).

Gainarako galde-hitzak, ostera, perpauseko osagai gisa eman daitezke:

(84) {*Zergatik/nolatan/zer dela eta/...*} ez dago pozik?.

Galderei modu askotara erantzun dakieke. Hori erakusten dute (81) eta (82)ko adibideek eta honako hauek ere bai:

(85) - Ez zara bilerara etorri. Zer bada? / Zer dela eta? / *Nolatan?*

- Ez dit inork abisua pasa / Ez baitit inork abisua pasa.

Axularren adibide honetan era horrelako zerbait dugu:

(86) *Nola eznaizzen beldur? Ezpaitut deusetan ere faltarik. Konzientzia baitut ona eta garbia. (P. Axular, Guero, 293).*

Nolanahi ere, *BAIT*-dun perpaua, galdera zuzen bati erantzuteko erabil daitezkeen arren, zail da galdegai gisa interpretatzea perpaua osorik ematen dugunean:

- (87) a. **Abisua garaiz eman baitzidaten* aldatu ahal izan nuen²⁰ bilera eguna.
 b. ?bilera eguna aldatu ahal izan nuen *abisua garaiz eman baitzidaten*.

Perpaus hauek zuzenak dira, jakina, perpaus kausala mintzagai gisa interpretatuz, hots: azalpen gisa:

- (87') a. *Abisua garaiz eman baitzidaten*, bilera eguna aldatu ahal izan nuen.
 b. Bilera eguna aldatu ahal izan nuen, *abisua garaiz eman baitzidaten*.

4.4.3. ZEREN (ETA) ... {BAIT-/eN}

ZEREN (ETA) lokailutzat eman genuen *EGLU* *lhn*. Lokailu hau perpausaren buruan agertzen da, batzuetan aditzean inolako markarik ez dela eta beste askotan adizkiak *BAIT-* edo *-eN* partikulak dituela. Oro har, *BAIT-* ekuideko euskararen agertzen da. Mendebaldekoan, *-eN* atzizkiak hornitzen da adizkia. Modu batera nahiz bestera, perpaus hauen esanahia kausazkoa da.

- (88) a. Hau hizkuntza idatzian egiazta daiteke batipal, zeren eta, gauza nabaria denez, egungo egunean izkribuen bidez eta ez bestela igerriko baitlogu, hor nonbait, nolakoa zen orduko hizkuntza mintzatua (K. Milxelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 26).
 b. Eta ez natzaiole mintzatuko, zeren eta Jainkoak ezpaitu nahi horiei erakuts diozodaten zeruko bidea (B. Joannateguy, *Sainduen Bizitza*, 159).
 c. deus elzaje gostatzen mundutik ilkhitzea, zeren lurreko gauzetarik bethiere laxatvak iduki baitituzte bere bihotzak ... (M. Duhalde, *Meditacioneac*, 195).
 d. Gizon bakhar balek lantzen badu golde bat lur on, bi gizonek ez dute eginen golde bat eta erdi lur txar, zeren lantzeko gaitzagoa baita (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 30).
 e. Hauzoko mihi tzarrek erraten ziteian damu zela segurki dona Inkarnazionek ez izatea haurrik, zeren hitzuntzikorian iragaleko ordean bere denbora guzia, haurren arthalzen iraganen baitzuen behar bada parte bat (J. B. Elissamburu, *Piarras Adame*, 58).
 f. Gelditzen dira iokotik, zeren akhabatzen baitzaie kandela (P. Axular, *Guero*, 393).
 g. Batzuek iges egiten due dotrinetatik, eta Jainkoaren itzagandik, zeren biolzik ez duen bekalutik, eta bekatuaren bideetatik aldegitako. (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac III*, 418).
 h. Zenbat emakume bizi dira, gauak, eta egunak negarrez igarotzen dituela, zeren berentzat, eta umeentzat bear duena ezin billatu duen (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac I*, 595).

EZEN lokailuz indarturik ere ager daiteke *ZEREN*:

- (89) Zeren ezen denbora hartan odol sobranioa hobeki errekeitzen bailira eta hala odola atheratu ondoan zenbait pasata eraginen diozue ungi estalirik errefria ez dadin (M. Dassança, *Laboranen abisua*, 587).

ZEREN-dun esamolde hau ez dute oso begi onez ikusi zenbait euskalarik. Azkue, adibidez, ez da honen oso lagun ageri (ikus *Morfologia Vasca*, 491). Hala ere, euskal literaturan tradizio handia du eta ahozkoan ere erruz erabiltzen

²⁰ Letra etzanaren bidez, perpaus atal hori galdegai dela adierazi nahi da.

da. Horrenbestez, nekez bazter daiteke euskal gramatikatik. Badira autore onak ZEREN -eN erabilzen dutenak denerako eta -eLAKO oso nekez erabilzen dutenak.

a. ZEREN... {BAIT-/eN} kausal beteetan eta azalpenetan

Eta zer esan perpaus hauen balioari buruz? Badirudi kausal beteetarako eta azalpenezkoetarako, bietarako balio dutela. Aski dugu, horretaz ohartzeko, batetik (88 f, g eta h) adibideetan begiak jartzea eta gainerakoekin alderatzea. Aipatutako perpaus horiek kausal betetzat interpretatzen ditugu eta -eLAKO-ren bidez ongi ordezkatu litezke. Galdagaiztat hartzeko eskubidea ere ematen digute.

Modu berean, ZERGATIK galderari erantzuteko ere baliatzen da esamolde hau:

- (90) a. Zergatik negar egiten dezu? Zeren nere Jauna kendu duten, eta non utzi duten ez dakidalako, negarrez nago, erantzun zien. (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 466).
- b. Nola gertatzen ote da au? Zeren biotzik ez duen beren oitura gaitzok utzitzeko. (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia* I, 404).
- c. Eta zergatik ain firmeki sinisten degu, esan digun guzia? Zeren Jainkoa ezin engaña ditekean, ta ezin engaña gaitzakean. (J. A. Ubilos, *Cristau doctriñ berri-ecarlea*, 124).

Hauetan -eLAKO-ren pareko gertatzen da ZEREN... -eN eta ezin kontsidera dezakagu azalpena dela.

Honako hauetan ere -eLAKO-ren pareko gertatzen da ZEREN... -eN:

- (91) a. Ez gare lhexu izan behar zeren Jainkoak ez gaituen sorrarazi aitorenseme edo burjes handi (J. Duvoisin, *Laborantzeko liburua*, 7).
- b. Dugun benedikta probidentzia zeren nahi izan gaituen ohoratu horrelako pertsekuzioenez (A. Jauretche, *Meditazioeac*, 384).
- c. Eskerrak emaiten diotzagu lainkoari zeren begiratu gaituen iragan egunean (S. Pouvreau, *Philotea*, 120).

Dena dala, adibide hauetan badirudi kausazko perpaus hori kausazkoa ez ezik goiko aditzaren edo predikatuaren osagarritzat ere intarpreta daitekeela zenbaitetan (goragoko (64)ko adibideetan bezala): *kexu izan, eskerrak eman, benedikatu...* Nolanahi ere, perpausaren barneko osagaia izango litzateke, ez kanpokoa, azalpenezko perpausak izan ohi diren bezala. Adibide hauen arabera, ZEREN ... -e(N), -eLAKO-ren erabat balioak izango litzateke.

"EZ ... BAIZIK ..." itzulian ere agertzen zaigu ZEREN ... {BAIT-/eN} esamoldea. Horrelakoetan, gorago ikusi dugun bezala, -eLAKO guztiz arrunta da (ikus goragoko 52ko adibideak), baina idazle zaharrek horien ordain garbi izango liratekeen ZEREN ... {-eN/ BAIT-} formak ere erabilzen dituzte:

- (92) a. Meditazioean egoten dire, (...) ez zeren hortik bere sensuetan zenbeit gozo hartzen duten; baiñan zeren handizki desiratzen baitdute hobeki ezagutzea, alde batetik, Miserikordia dibinoaren handitasuna (J. Haraneder, *Gudu izpirtuala*, 32).

- b. Debozioneko grazia emaiten derautzudanean emoitzu eskerrak zure lainkoari, ez zeren hura merezi duzun, baina zeren niri urnikaldu zaizkidan (S. Pouvreau, *Jesusen Imitacionea*, 276).
- c. ene bilha zabilzate, ez zeren mirakuluak ikhusi dituzuen, baina zeren ian baituzue ogietarik, eta resasiatu izan baitzarete. (J. Leizarraga, *Testamentu bera*, 172).
- d. Orak bidean edireiten duen hezur idorra, gozoki erabiltzen du ahoan, ez zeren hezur hark duen berekin mamirik edo urinik: baiña zeren, erabili hutsez, orari berari, ahojik odola tarieten baitzaika, eta gero odol harekin batean, hezur idor hura, on gozo, (P. Axular, *Guero*, 329).
- e. Eta haur erraiten du hunela, ez zeren danlratzea bera hain gauza gaixtoa den, baiña zeren danlratik anhitz okhasino behar eztenik sortzen den (P. Axular, *Guero*, 268).
- f. Nai du gañera Jesusen, Birjiña bit Santaren, eta Santuen anz, edo imajiña ere onratzea, ez zeren gai onekin, edo arekin egiñak diran, baizik zeren Zeruan dagoana adizera ematen diguen (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiek II*, 13).
- g. Tarragoneko girstinoek bazakiten arras ongi martir sailduak zeruan zirela, eta hargalik trixte ziren; ez baitezpada galdu zituztelakoiz, bainan zeren etzizaioten emana hekiei ere Jesus Jaunarentzat beren odolaren ixurtzea. (B. Joannateguy, *Sainduen Bizitza*, 146).

Adibideek erakusten dutenez, zenbait autore zaharrek lehenbiziko kausala eta bigarrena modu desberdinean ematen dute: "ez zeren ... -en baizik zeren ... bait-". Nolanahi ere, bereizketa hau ez dute autore zahar guztiek egiten eta gaur egungo hiztunek are gutxiago.

Galderazko perpaus baten barruan kokaturik ere ager daiteke, oraingoan ere -eLAKO-ren bidez ordezkia daitekeela:

- (93) Zeren izandu zen Apostoluen artean Judas gaizto bat, Apostol onak ere gaiztoak dira? Zeren aita on batek duen seme gaizto bat, gaizki aziak daduzka ongi bizi diran hume humillak ere? (S. Mendiburu, *Mendibururen idazten argiragabeak I*, 263).

Baina ZEREN...{-eN/ BAIT-} azalpenetan ere agertuko zaigu maiz. Gorago, (88a, b, c, d, eta e) adibideak hala direla ematen du. Hona hemen beste zenbait. Kontuan izan ZEREN... -eN forma Hegoaldekoa dela:

- (94) a. Bidean heldu zirelarik, laminak erraiten dio emainari: Nola, lana zuk egin ondoan, hautalzerat emanen baitauzkilzute bi eltze, bat axalean urhearekin, bertzea axalean hautsarekin, hautaazu hautsarekilakoa, zeren urhea harek bakarik izanen baitu barnean (J. Barbier, *Légendes*, 25).
- b. Itsutuak ibili ziren, zeren bekhaturan erori bailziren (P. Axular, *Guero*, 361).
- c. Azkenean, zu, gizona, etzaitzela izan zelotsua, bide bit andi gabe: eta zure ustean bide andia izan arren, ez sinistu osotoro gauza gaiztoa; zeren askolan engañatzen geran (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiek I*, 590).

b. ZEREN ... {BAIT-/eN} ezkerreko aldean

Kausazko perpaus hauek perpaus nagusiaren ezker aldean ere kokatuak egon daitezke. Nolabaiteko mintzagaiak direla pentsa daiteke. Hauek oso erraz ordezkia daitezke NOLA ... {BAIT-/eN} bidez:

- (95) a. Eta zeren Noe baitzen gizon prestua eta Jainkoaren zerbitzaria, bere etxatarrarekin salbatu zuen barka batean barrena (J. Etcheberri Sarakoa, *Gomendiozko gutuna*, 368).

- b. Eta zeren iuramentu batzuk baitira presenteko gauzez, bertze batzuk ethorkizunekoek, guztietan behar da egia (P. Axular, *Guero*, 172).
- c. Eta zeren orai zuk iaun noble eta naturazkoak bezala baituzu estimatzen goratzen eta ohoratzen heuskara zuri neure iaun eta iabia bezala igorten darauritzut heuskarazko kopla batzu ene ignoranziaren araura eginak (B. Decheperre, *Linguae Vasconum Primitiae*, 7).
- d. Eta zeren hark ezpaitzuen nondik paga, mana zezan haren iaunak, sai ledin hura, eta haren emaztea, eta haurrak eta zituen gauza guztiak, eta zorra paga ledin (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, 35).
- e. Zeren hil duzun Uri amonitarren ezpataz, ezpata ez-da ilkiren zure etxetik. (B. Larreguy, *Testament çaharr. berr. historia t.*, 307).
- f. Zeren den hain maitagarri. Zeren den guziz ona, Amodioz Jainkoari Lotzen zalon arima Lokarririk sainduenaz harekin bal eginik, Dohatsuen zorionaz Gozatzen da jadanik (S. Monho, *Poemes basques*, 96).
- g. Baña zeren bataiaturikako geienak galtzen duen horduko beren grazia, ta Jainkoari zor zaion amorea, eta zeren egiten dituen bekatu andi agiltz itsusi, Animaren ilizalle, ta Infernura-malle diranak, bataiatuz geroko bekatu orien barkamendurako, eman izandu zigun Jesusek Konfesioko Sakramentua (J. A. Ubillos, *Cristeu doctrin berri-ecarlea*, 207).
- h. Eta zeren lan on hau eragin zien Apostol jaun S. Pablok, berezi zioten urte oroko bere fest andia (S. Mendiburu, *Mendibururen idazlan argiragabeak t.*, 118).
- i. Eta zeren kontuak, nere gustoko, ta berezko ango Euskeraren grazia andia duen, Baizkaitarra baninz bezala, aien gisa kontatuko del (A. Cardaberaz, *Eusqueraren Berri Onac*, 42).

Maiz, aurretik eman den kausala nolabait gogoratzeko, anaforiko baten laguntzaz (*halatan, hargatik, hori dela kausa...*) baliatzen da, korrelazioetan egiten den bezalatsu:

- (96) a. Eta zeren añhitz baita Euskal-herrian irakurtzen dakienik, baiña ez Euskara balzen bertze hitzkunzarik aditzen, *halatan* egin ditut halakoenzat Euskaraz debozinozko othoitz eta Orazino balzuk, (E. Mäterre, *Doctrina Christiana*, 925).
- b. Eta zeren gauzak asko ordüz hobeki aditzen bailitugu exenpluz, eta konparazinoz, *halatan* ekhartzen deraue instrument soinuazkoen konparazino bat, hobekiago aditzera emaiteko, nola ezten progotxurik bertek aditzen ezluten hitzkuntzaz mintzatzeaz (J. Etchebarri Sarakoa, *Gomendiozko gutuna*, 395).
- c. Eta zeren nahiago duten handi izan, ezen ez humil, *hargatik* airalzen zaie burua ber gogoetetan (S. Pouvreau, *Iesusen Imitacionea*, 30).
- d. Eta zeren bost birjina erhoek (...) ezpailzuten bere lanpetan argirik ez oliorik, (...), *hori dela kausa* pribatu izan ziren espos, esposaren konpafiatic (J. Tartas, *Onsa hilcoco bidia*, 75).

Hauek denak azalpenak ditugu, mintzagai gisa aurkeztuak, aldez aurretik hitzunak eta solaskideak erdibana jartzen duten informazio gisa emanak. Horregatik, erraz eman daitezke beste modu batera ere: **BAIT-** morfema soilaz baliatuz, **NOLA + BAIT-/-eN** bidez, edo **-eNEZ GERO-**ren bidez, esaterako. Adibidez, goiko (95a) perpausa beste modu askolaraz eman liteke:

- (97) a. Eta nola Noe gizon prestua eta Jainkoaren zerbitzaria (bait)zen, bere etxatiarrekin salbatu zuen barka batean barrena.
- b. Eta Noe gizon prestua eta Jainkoaren zerbitzaria zenez (gero), bere etxatiarrekin salbatu zuen barka batean barrena.
- c. Eta Noe gizon prestua eta Jainkoaren zerbitzari baitzen, bere etxaliarrekin salbatu zuen barka baten barrena.

Nolanahi ere, eta diogunaren argigarri, hona hemen Leizarragaren itzulpena beste itzulpen batzuekin alderatua:

- (98) a. Eta zeren deus ezpainuen ikhusten argi haren kletatearen kausaz, enekin ziradenez eskutik eraman izanik Damascera elhor nendin (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, 252).
- b. Eta nola ez bainuen ikhusten, itsutu ninduelakoz argi haren dirdirak, lagunek eskutik eramanez heldu izan nintzen Damasera. (Duvoisin).
- c. Eta, argi haren distiraz itsu bainengoen, lagunek eskutik hartuta eraman ninduten Damaskora. (*Etizen arteko Biblia*).
- d. Alako argigomaz itsututa nengon, ta lagunek eskutik nineramatela, eldu nintzan Damasko'ra. (Olabide).
- e. Eta arelako argi biziuz ezar ikusten ez nebala, lagunai eskutik oraturik, Damasko'ra eldu nintzan. (Kerexeta).

4.4.4. -eNEZ GERO(ZTIK)

-eNEZ GERO /-eNAZ GERO(Z) forma hartzen dute beste kausazko perpaus batzuek. Dena dela, beste ezer baino lehen, ortografiari buruzko ohar bat. Euskaltzaindiaren arabera (ikus Euskaltzaindiaren *Arauek*, 26.a), euskara baturako forma etimologikoa (-eNEZ GERO) hobetsi da, nahiz eta literaturan -eN EZKERO gisa ere agertzen den, ahoskeratik hurbilagokoa dena. Izan ere, -eNEZ GERO idatzi arren, /-eNEZKERO/ gisa ahoskatu behar da. Beraz, "ez+gara" idazten dugun bezala, nahiz eta /ezkera/ ahoskatu, kasu honetan ere, idazkera gorabehera, ahoskera berezia eskatzen du: *az gatoz = /azkatoz/ bezala, etorri denez gero = /etorri denezkero/*.

- (99) a. Ordun, zarpail orek, ara oan ezkeru, esaiok, ez didala axolik arengatik (Orixe, *Mireio*, 56).
- b. Initzia eskatzen didazun ezkeru onu bat emango dizut: ez zaite geiegi aurreratu: aslirio zoaz (A. Labayen, *Euskal eguna*, 68).
- c. orren leun eta garbi bidia imintten daustazun ezkeru, nik, egija esan, ija-ija gogua be ba-dot arazo orrelan sartzeko (Obolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 78).
- d. Baña, orrelaz mintzatzen asi zeraren ezkeru, ara nire initzia (T. Agirre, *Uztaro*, 120).
- e. zu gabe ezer ezifí nezaken ezkeru, lagun zaidazu, Jauna (*Argi Done Laburra*, 12).
- f. Pedro'k erantzun zion: Jauna, gau guzian ezer atzitu ez degu; baña zuk diözun ezkeru, zure izenean zabalduko ditugu (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zar. Ber. condaira*, 387).
- g. deskontentu izateko, edo kejarik izateko motibonik batere ezte; gauza guziak nere gogora, edo gustora gertalzen zaizkidan ezkeru (J. A. Guerrero, *Sayaquera II*, 420).
- h. Hire ogia denaz gero, egik hire janharía (Gasteluçer, *Eguia Catholicac*, 109).
- i. San Augustinok hura kondenatzen eztenaz gero, othoi, eztezazuela zuek ere kondena (S. Pouvreau, *Philotea*, 164).
- j. Iainkoaren oharatzeko bigarren parteaz, obedienciaz, asko luzaki minzatu garenaz geroz, minza gaitezen orain hirugarren parteaz (J. Leizarraga, *Othoitza Ecclesiasticoen forma*, 66).

a. *-ENEZ GERO, kausal ala denborazko?*

Perpaus hauek agerian duten *GERO* aditzondoak erakusten digu jatorria denborazkoetan dutela. Izan ere, arruntki, ondorioa kausaren ondoren gertatzen da. Gainera, *-ENEZ GERO* morfema-mullzo bera zenbaitetan denborazkoa izan ohi da. Balio bataren ala bestearen aurrean gauden, testuinguruak argitu beharko. (99)koak, adibidez, kausazkoak dira, baina honako hauek, adibidez, denborazko adiera dute garbi-garbi:

- (100) a. Zaldi ganera igon garean ezkerro eztoigu mendijotan ur tanta bat bera be edan (Otxolua, *Bertoldia eta Bertoldin*, 111).
b. Zabalelako gure mutil sendoai uste bat sortu ta erne zitzaien: bakoitza beregain jartzea, ta uste ori erretzen asi zan ezkerro etzeuden ondo beren jalotelkean (D. Aguirre, *Garaa*, 32).
c. Gizona gizon denez gero, zer den galdezka ari da (K. Mitxelena, *Mitxelena-ren Idazlan Haulatuak*, 15).

Zenbaitetan, hala ere, zail da jakitea mota bateko ala besteko perpausaren aurrean gauden:

- (101) a. Jakob'ek ere bere seme ain ona eta maitagarria besarkatu zuen, eta askuetatik utzi gabe, esaten zion; one seme, orain, bai, atsegifiaz ilko naiz, zu ikusteko poza bein izan dedan ezkerro (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 61).
b. Arran, diote, jalki dezala Manex'en sega-apustua; berak ikusi zuen ezkerro ez du nolanai aaztua (Orixe, *Euskaldunak*, 302).

Dena dela, perpaus nagusiko aditzaldiari eta mendekoarenari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu aditzaldi horiek ez direla "inozenteak". Esana dugu kausa, gehienetan, ondorioa baino lehenagokoa izan ohi dela. Beraz, ondorioa gero datorren zerbait litzateke. Bestalde, *gero* denbora adberbioa da, berez. Baina perpaus hauek denborazko ala kausal diren zalanlza izan badaiteke ere, jaso ditugun adibideek zerbait erakusten digute: kausazko direnen ondoren, maiz, perpaus nagusiko aditzkia aginteran doa edo geroaldian (ikus 99a, b, e, f, h, i, j). (99c eta g) adibideetan ere bi perpausen aditzaldiak diren bezalakoak dira. Nolanahi ere, *-ENEZ GERO* irageneko forma bati itsatsia doanean, gehienetan denborazkoa izan ohi da. Horregatik, (101a) kausazkolzat jo liteke, baina (101b) denborazkolzat eman genezake.

Denborazko direnetan *noiztik* edo *noizdanik* galdera egin daiteke, kausazko direnetan, aldiz, ez. Baina kausazko direnetan *zergatik* galdera ere ezin egin daiteke. Gainera, denborazkoak galdegai izan daitezke, kausazkoak ez bezala.

b. *-ENEZ GEROZTIK*

-ENEZ GERO-ren parean *-ENEZ GEROZTIK* ere bada. Iparraldean, denborazko perpausetan ez ezik, balio kausalarekin erruz erabiltzen da esamolde hau, *-ENAZ GEROZTIK* forman batez ere. (102)koak kausazkoak dira, garbi-garbi. (103), berriz, denborazko garbia da eta (104), agian, anbiguoak:

- (102) a. Atsegin handirekin emanen diot aintzina, hala nahi duzunaz geroztik (J. Duvoisin, *Dialogues basques*, 59).
b. Nola senda dezaket nik erregeren alaba edo bertzerik ere, mirikua ez naizenaz geroztik (J. B. Elissamburu, *Piarnes Adame*, 62).

- c. Paga ezazu zerorrek, zeurk zor duzunaz geroztik (P. Axular, *Guero*, 162).
- d. Gauza handi bat da xumeen ere zeruan izatea, zeifetan guziak handiak baitire; guziak deituak direnaz geroztik Jainkoaren umeak, eta egiazki guziak hala direnaz geroztik (M. de Chourio, *Imitaciones*, 343).
- e. Hau irakurtu duenak bere baihan egin duke ja, horrela marketsa zenez geroztik xakur hura (...), nekez zitakela loth ardier. (J. Etchepare, *Buruchkak*, 19).
- (103) Sarthu naizenaz geroztik eztuk ene oinei pot egitetik gelditu (J. Leizarraga, *Testamentu Beria*, 116).
- (104) ez ginakien non josta, non erabil solasik; orai badugu hautua, hau dugunaz geroztik (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 158).

Hegoaldean ere, arrunta ez izan arren, balio kausalarekin aurki daiteke **-eNEZ GEROZTIK**. Honako adibide honetan bezala:

- (105) Misipik omen zion esan Zapironi: Gauza bat orain zaidak gogoratu niri: jan degun ezkeroztik kapoiltzar guztia, jan dezagun lasterka orain burruntzia (A. Iturriaga, *Fábulas*, 28).

Baina Hegoaldean **-eNEZ GEROZTIK** esamoldearen adiera gehienetan denborazkoa da:

- (106) a. 1923garren urtean bete ziran bada eun urte, Fernando il zan ezkeroztik (G. Mujica, *Fernando Amezketarra*, 7).
- b. Aundiak bagera euskaldunak geren jatorriz, asko geiago aunditu gera Kristoren fedea biotzean sartu genuen ezkeroztik (D. Aguirre, *Auñemendiko lorea*, 6).
- c. Itzulpen ugari izan dugu gure artean euskal literatura asi zen ezkeroztik. (Gaztelu, *Muxika ixilla*, 5).
- d. Baiña bizitza posible egin zen ezkeroztik, nai-ta-naiez bizia sortu zan (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 61).

Nolanahi ere, badirudi badela joera **-eNEZ GERO** kausazkotzat hartzeko eta, **-eNEZ GEROZTIK**, berriz, denborazkotzat.

c. Partizipioa + **-eZ GERO((Z)TIK)**

Bestalde, kontuan izan denborazkoa denean, aditza laguntzailerik gabe eman daitekeela:

- (107) a. Gauza jakifia ta sinistgarria da nekazaritzako lanbidea dala artzaintzaren ondorengoa, eta burnia sortu ezkeroztik asia (J. I. Iztueta, *Guipuzcoaren condaira*, 230).
- b. Munduraturaz geroztik hirian naiz bizi (Iratxeder, *Biziaren olerkia*, 13).

Laguntzailerik gabe emate hau ezinezkoa da perpausa kausazkoa denean: *etori danez gero* kausala izan daiteke, baina *etorri gero*, ez. Hau denbora edo baldintza adieran ulertzen dugu. *Etorri gero* modukoak aditz jokatugabetzat hartuko ditugunez gero, hurrengo liburukian aztertuko dira.

d. **-eNEZ GERO** perpausaren ezaugarri sintaktiko-semantikoak

Gehienetan **-eNEZ GERO** perpausak ezkeraldean ematen dira, mintzagaigunean, horrenbestez. Solaskideak ezaguntzat ematen duten informazioa biltzen dute. Baina perpausaren eskuinaldean ere maiz agertuko zaigu. "Ertzeko" izanik, galdegai baino areago mintzagai izan ohi dira. Horren

adibide ugari eman ditugu. Hauen balioa, berriz, azalpenezkoa izan ohi da. Horregatik, beti mintzagai izango dira.

Horregatik, *ZERGATIK* galderari erantzuteko ere ez dute balio. Izan ere, perpaus hauetan hiztunak eta solaskideak erdi bana duten informazioa biltzen dela egia bada, normala da pentsatzea *ZERGATIK* galderari erantzuteko ez balio izatea, biek nolabait ezaguna baitute balizko *ZERGATIK* horren erantzuna:

(108) - *ZERGATIK* eman diozu dirua?

- *Egunkaria erosi behar zuenez gero.
- Egunkaria erosi behar zuelako.
- Egunkaria erosi behar baitzuen.
- Egunkaria erosi behar zuen eta.

Arrazoi horregatik, ezin da galdegai izan.

Eta arrazoi beragatik, *-eLAKO*-k ez bezalako jokabidea du aginteraren, ezeztapenaren eta galderaren aurrean. Azalpenek izaten duten jokabidea, hain zuzen.

Baina azalpenetan erabiltzen ditugun *-eNEZ GERO* eta beste morfema batzuk (*BAIT-* edo *ETA* enklitikoak, adibidez) berdinak al dira? Honako adibide hauek oso antzekoak dirudite:

(109) a. Azkeneko eguna denez gero, goazen denok dantzara.

b. Goazen denok dantzara, azkeneko eguna da eta.

Lehenbizikoa, hala ere, pentsa liteke solaskideek ongi ezagutzen duten zerbait jartzen dutela aurretik. Nolabait ados daudela horretaz. Gero etorriko den perpausaren justifikagarri gisa eskaintzen da, nolana ere. Horregatik, (109a) honelako zerbaiten bidez parafrasea daiteke:

(110) Kontuan izanik azken eguna dela, goazen denok dantzara.

Noski, "kontuan izate" hau, hiztunaren ahotan badago ere, solaskideek erdibanatzen dute, eta halakotzat proposatzen dio hiztunak solaskideari. Nolanahi ere, benetako mintzagaia izango litzateke. Hiztunarentzat ez ezik solaskidearentzat ere ezaguna litzatekeen informazio gisa ematen da, dirudienez. (109b)ko adibidean ere azalpen bat dugu. Hau eskuinean ageri zaigu, perpaus nagusiaren ondoren. Hau ere mintzagai dugu baina hiztunaren eta solaskidearen arteko informazio-partekatze hori ez da, beharbada, gertalzen. (109b)n, lehenbizi ematen da desira-/agindu-perpaus hori eta gero ematen da esan den horren justifikazioa. Hemen ez dago, nahi eta ez, informazio-erdibanatzerik, hiztuna da ematen den azalpenaren erantzule bakarra eta informazio hori solaskidearentzat berria dela pentsa dezakegu.

4.4.5. *-eNEZ*

Villasanteren arabera, esamolde honen esanahia moduzkoa da batez ere, baina balzuetan kausazkoen muga ere egon daiteke. Dena dela, literaturan ez da ia kasurik ageri kausazko balioarekin. Izatekotan ere, Mendebaldeko

autoreren batek erabiliko du. Villasantek berak ere, (ikus *La oración causal en vasco*, 244. or.) adibideak bilatzen hasi eta *Orduen Liturgiara* jo behar izan zuen adibide bat aurkitzeko. Hona hemen adibide hori eta beste bat gehiago, iturri beretik aterea:

- (111) a. Familia bateko senide geranez, egin dezaiozun oloitz denok elkaturik guztion Aitari: Gure Aita. (*Orduen Liturgia*, 690).
- b. Ene Jainko, zure izenagatik salba nazazu, aaltsua zeranez auzi egidazu (Ibid. 761. or.).

Nolanahi ere, argi dago literatur testu zaharretan, ez dela gehiegi ageri esamolde hau, ezta moduzko balioarekin ere, ez bada "*X-k dioenez*", "*dirudienez*" eta antzeko esapideetan:

- (112) a. gero jakin nebanez, (...) zuen osabeak intzirika topau eban. (E. Erkiaga, *Batetik bestera*, 83).
- b. Artoberek ziñoanez, Sardinzarrek be txalopako guztien aurrean autortu eban (D. Aguirre, *Kresala*, 113).

Baina gaur erabat hedatua dago kausazako balioarekin:

- (113) a. Eusko gogoa detanez, maite ditut euskal gauzak, (J. Arrue. *Arentzazu. Aitona baten berso berriak*, 291).
- b. Blozpera zanez ereslari ta musika zale purrukatua zan (J. M. Azkue, *Asis'terr Prentzisko Donearen bizitza*, 10).
- c. Jakitsuna danez, asko jualan ei jakoz, au ta bestia ta arutzagokua preguniez. (J. San Martin, *Zirikadak*, 111).

Hitzen hurrenkerari dagokionez, perpaus honek ere joera nabarmena du ezker aldean kokatzeko, mintzagai gisa.

Bestalde, hurrengo atalean jasotzen diren "*NOLA ... -eN*" formaren pare-parekoa dela esan daiteke.

Gorago, *-eNEZ GERO* kausal ala denborazko ote den eztabaidatu dugunean, esan dugu aditzaldia iraganekoa denean denborazko balioa nabarmentzen dela. Horregatik, aditzaldia iraganekoa denean, denborazko interpretazio horretatik ihes egiteko, *-eNEZ* soila erabiltzeko joera dute zenbait euskaldunek, antza. (100b), adibidez, garbi dago denborazkoa dela. Baina (114) bezalako bat hartzen badugu eta iraganaldian jartzen saiatzen bagara:

- (114) Nire iritzia ontzat eman dezuten ezkerreko batzordea izendatuko degu (A. M. Labayen, *Euskal eguna*, 79).
- (114') a. Nire iritzia ontzat eman zenutenez gero, batzordea izendatu genuen.
- b. Nire iritzia ontzat eman zenutenez gero, batzordea izendatuko dugu.

Perpaus hauek, guztiz zuzenak izanik ere, gaurko zenbait euskaldunentzat bederen argiago eta egokiago gertatzen direla pentsa liteke beste era honetara:

- (114'') a. Nire iritzia ontzat eman zenutenez, batzordea izendatu genuen.
- b. Nola nire iritzia ontzat eman zenuten, batzordea izendatu genuen.

Pentsa liteke, nolabait, gaurko euskaldun askoren aho-belarrietan gaizki ezkontzen dela *gero* aditzondo hori aditzaren iraganaldiarekin. Askoz naturalago sentitzen dugu (114)ko esaldia aditz nagusia geroaldian edo

aginteran badoa eta are naturalago kausazko perpausa bera iraganaldian ez badoa. (115a) baino naturalago sentitzen dituzte gaurko euskaldun batzuek (115b eta c), adibidez:

- (115) a. Ikasten aspertua nengoenez gero, zinemara joan nintzen.
- b. Ikasten aspertua nagoenez gero, zinemara joango naiz.
- c. Ikasten aspertua zaudenez gero, joan zaitez itzuli bat ematera.

Edo goiko (114'b) adibidearen parean, beste hau ere natural sentitzen da:

- (116) Nire iritzia ontzat eman zenutenez, batzordea izendatuko dugu.

Nolanahi ere, ez dirudi bi esamoldeen artean bereizketa argirik egin daitekeenik: hiztun batzuek modu batera erabiltzeko joera dute eta beste batzuek beste batera, baina bi perpausen aditzaldiak nolakoak diren axola duela dirudi.

Esamolde hau eta ondorengo *NOLA* ... {-eN/ BAIT-} erabat baliokide direla ematen du eta, horrenbestez, bata bestearen orde ez erabil daitezke.

4.4.6. NOLA/ZELAN ... {-eN/ BAIT-}

NOLA/ZELAN galde-aditzondoaz baliatuz ere osatzen dira kausazko perpausak. Izan ere "modu" deitzen dugun horren eta "kausa" deitzen dugunaren artean zenbaitetan ez dago muga argirik. Pentsa, bestela, zer gertatzen den *NOLATAN* galde-aditzondoarekin. Honek, *NOLA*-k bezala, kausaz galde egiteko balio du:

- (117) a. *NOLATAN* ez didazu lehenago esan?
- b. *NOLA* utzi duzu eskuetatik ihes egiten horrelako aukera bat?

Kausaren eta moduaren arteko muga hau hain mehea izanik, ez da harritzeko mandeko perpaus kausalak ere beren ezker muturrean *NOLA* elementua dutela aurkitzea:

- (118) a. ... bardin litzateke *zaldi* esan beharrean *asto* esango bagenu. Baina nota ez dugun elkar hartuko *asto* esatean, ezin genezake nahi dugun bezala hizkera alda. (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak VII*, 132).
- b. Kargalzen da trumoi aundi bat arratsaldera, apaiz guztiyak beren parroketan jarri ziran konjuruan, eta orrek nola bai zekien gurea kanpoan zala eta ez genduela norik esti edo atzera eragiñik, guregana bola zuen sekulako amiya (M. Soroa, *Baratzan*, 47).

Beste hainbatetan bezala, oraingoan ere kausazko perpausa osatzeko *NOLA* aditzondoaz gainera, aditzak mendekotasun marka eramatea behar beharrezkoa da, {-eN (*nola ez duguN...*) nahiz BAIT- (*nola baitzekien*). {-eN Mendebaldeko usadiokoa da, batez ere:

- (119) a. Odo! ber-beretik biak nola garen, Berdiñ gaitzatzu trata arren. (L. Goyhetché, *Fableac*, 229).
- b. nola gutxi diran *bekatu* itsusi au gain-txuritzen, edo aitzakiaren batekin edertzen ez duenak, pena oen kezka andi gabe beste Kristauen artean naslurik dabilta (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia II*, 193).
- c. pekadore ingrato nola zan izandu, akordatu omen zan Jainkuaz berandu, (Udarregi, *Udarregi bertsolaria*, 112).

- d. Baña nola oñak zituen bit ariñak, iges egin zioen erraz, (V. Moguel, *Ipui onac*, 54).
- e. nola nere larrua dan aski andia, nerekin egin nai du segurki zagia (A. Iturriaga, *Fábulas*, 129).

BAIT– ekialdean da erabilia, baina mendebaldeko idazleek ere badarabilte:

- (120) a. Baiña nola bailzen kaskoz ariñxkoa mundua ikhusteko hartzen du gogoa, eta kumi-kumi gatekoa (A. Goyhetché, *Fableac*, 27).
- b. Nola han bainaiz sorthua, han dut utziko mundua, galtzen ez badut zentzua (A. Lebayen, *Elizanburu*, 196).
- c. Baina ni, nola erorkorrigo bainaiz, errazago bainaiz huts egiten, ailtzinatzen baino, ez nago bethi eslante batean, zeren zazpi denbora aldatzen dira ene gainean (S. Pouvreau, *Jesusen Imitacionea*, 189).
- d. Zeren zu nola baitzaude deliberalua, eta bai batzutan pasionatua eta itsutua ere, eztuzu den gutzia ikhusten (P. Axular, *Guero*, 211).
- e. Eta nola Murtuts'en berririk ez baitzuten, galdegin zioten bertze apez-kondaira tipi bat (P. Lafitte, *Murtuts eta bertze*, 78).
- f. nola baitzekiten Ama Birjiñak leku artan eliza bat egitea nai zuela, esolesi barrenera dirua lan ortarako botatzen asi ziran (F. Gohi, *Lurdes-ko gertaerak*, 84).
- g. Gu bizi giñan etxea nola baitzegoan Lezoko partean, aila, ama eta osaba Antonio zana Lezoko kanposantuan lurarluak dira (S. Salaverria, *Neronek tirako nizkin*, 23).

Zenbait idazle bizkaitarrek taxu bereko perpausak osatzen dituzte **ZELAN** elementuagaz baliatuz:

- h. eta zelan baraubá dan eginbiderik onena eta egokiena, aragia ezi eta goituteko, gutziz asko deutso Jesuseri, guk barau egin dagigula (A. Murzaeta, *Azaldura laburrac*, 116).
- i. zelan ifok ezlituan alkamen gañean tolostu, itxasoaren barezko egunetan, zulo, larte, utsune ta inguruetatik sartzen jakoe ura polfo polfo, (D. Aguirre, *Kresala*, 139).
- j. Jakin begie bere azpata Gaur bada biar ezjala, Jakin begie sekula baña Ez dala illgo Euskara; Arbola zarra ill bazan bere Seme bat emen badala, Eta zelan dan berau omitsu Eta besangaz zabala, Bere azpian zarren Batzarrak Oraindik eingo dirala (E. Anese Beitia, *Ama euskeriaren liburu kantaria*, 88).

Honako perpaus honetan argi ikusten da modu/konparazio perpausen eta kausalen arteko lotura:

- (121) nola Jesus etzan jaio Belenen biguntasunian, Asis-co lore ederrak ere, etzuan biar beste jaiotzeko modunik (C. Beovide, *Asis-co Loria*, 22).

Hemen, badirudi *ere* lokailue agertzeak erraztu egiten duela konparaziozko interpretazioa eta horrenbestez, baita moduzko interpretazioa ere, baina kausa eta moduaren arteko muga-mugan degoela dirudi.

Eta Axularren zenbait adibidetan, **NOLA ... HALATAN** korrelazioa, itxura batean konparaziozkoa bada ere, argi dago konparazio barik kausa perpaus bat dugula:

- (122) a. Baiña nola baitzara gezurti eta fama hartan baitzaude, halatan etzailuzte sinhesten (P. Axular, *Guero*, 177).
- b. Eta nola bi gauza egiten bailitu, halatan ditu merezi ere bi pena eta gaztigu (P. Axular, *Guero*, 368).

HALATAN horrek, anafora izaki, **NOLA** morfemak hasiera ematen dion perpausa nolabait gogorarazteko zeregina du, **HORREGATIK** esango bagenu bezala:

(123) Nola bi gauza egiten dituen, horregatik merezi ere ditu bi pena.

Bi perpausen arteko korrelazioa zenbat eta handiagoa den, alegia bi perpausak zenbat eta egitura paraleloagoa duten, hainbat aukera gehiago dugu modu-konparaziozko gisa interpretatzeko. (124a) konparaziozko garbia dugu, baina (124b) kausazkoa litzateke:

(124) a. Nola amuak atzemaiten baititu arrainak (...) hala gizonak ere atzemaiteintu bere heriotzeak (P. Axular, *Guero*, 39).

b. Nola amuarekin arrainak hartapaztea zailago den, prezioak ere altuagoak dira.

a. **NOLA**-*dun* perpausen hitz hurrenkera

Kausazko perpaus hauen hiltz hurrenkerari buruz bi ohar egin behar dira:

1) **NOLA**-*dun* kausazko perpausa gehienetan ezkerretara kokatzen da:²¹

(125) a. Guk sei zezenen kontuben dirua eman genduan, eta nola seigarrena elzan jokatu (...), eskatu genduan beste zezena, ojuka ta indarrian (M. Soroa, *Baratzan*, 74).

b. Nola izango duen urdaia lodiya, artuko det onekin nik diru aundiya. (A. Iturriaga, *Fábulas*, 40).

2) **NOLA** aditzondoa gehienetan mendeko perpausaren hasieran ematen da. Honek esan nahi du jadanik **NOLA** hitzak galde-hiltz izateari utzi diola eta, horrenbestez, baita galdegai izateari ere. Horregatik, galde-hitzek ohi dutenaren kontra, **NOLA** honek aditzaren ezkerrean eta ondo-ondoan zertan joan ez du:

(126) a. buria, ta lotsa andien kostuan badere, Erdaraz ikasten dute: ta nola Euskera kendu zieten, ta jarduten ezduten, bere Erri, edo Elxeetara biurtzean, alde guzietara barregarriak oi dira: ta egiaz esan oi da: Gaztelania ez ikasi, ta Euskera bai azlu (A. Cardaberaz, *Eusqueraren Berri Onac*, 18).

b. Nola doktrina oek egiñak diran kristau fede osoa dutenen arterako, ez naiz luzatzen, ezaguerazitzeko, denpora guzietan izan data Elizan Konfesioa (J. A. Moguel, *Eracasteac*, 102).

Hala ere, zenbaitetan **NOLA** "mugi" daiteke eskuin aldera, horrela perpausako osagairen bat bere ezkerrean duela agertuz. Baina "mugimendu" horrek sekula ez du **NOLA** elementua aditzaren eskuinalderaino eramango:

(127) Eta naimenak nola adimenari jarraizten dion, bizi-naia ere orrelakoxea dugu: denpora eta leku jakin bati lotu gabea, mugarik eta esink gabea, sekula agortuko ezten biziuz baizik asetzen eztena (L. Villasante, *Kristau fedearen sustriak*, 146).

Aditzaren aurre-aurrean ere koka daiteke **NOLA** elementua, goragoko zenbait adibidetan ikus daitekeen bezala (120a, d; 122a; 124b).

²¹ Egia da eskuinera ere koka daitezkeela, ordena hori atzekoz aurrera jarriaz, baina orduan, **NOLA**-*dun* perpausa etenda bezala gelditzen da, zintzilik, airean. Hori ahozko hizkeran goranzko intonazio berezi baten bidez ematen da aditzera: *Beste zezen bat eskatu genuen; nola seigarrena ez zen jokatu...*

Hau -enez soilarekin ere gertatzen da: *Beste zezen bat eskatu genuen; seigarrena jokatu ez zenez...*

Batzuetan, hala ere, hitz hurrenkera bertsoaren eskakizunen mende egon daiteke.

Bizkaieraz, jakina, *NOLA*-ren ordez *ZELAN* erabiltzen denez gero, era honetako esamoldeak aurkituko ditugu, batez ere ahozko jardunean, ez hainbeste literatura landuan:

- (128) a. gobernu barra zelan eukan, amar urte geiago iruditzen eban (E. Arrese Beitia, *Ama Euskariaren liburu kantaria*, 277).
- b. Erezetia egiterakoan konturatu ei zan lapitzik ez eukala; basarrian ba zelan ez eken, klanion bat eruan ei zetsen (J. San Martin, *Zirkadak*, 81).
- c. Biurtu zan; baña zelan topadu eban grazijaz apainduba, ez eban sarrerarik izan (J. A. Moguel, *Confesioa ona*, 116).
- d. Baña, zelan Herkules a arriz, zulez edo kobraz egiña dan edo pintatua baxen ezlan, geldi dago beti (P. A. Añibarro, *Gueroco Guero*, 47).²²

4.4.7. -eN LEGEZ

EGLU Vean konparazio perpausak aurkezterakoan, *LEGEZ* eta *BEZALA* baliokidetzat eman genituen. Hori horrela da konparazio perpausari dagokienez. Baina bada bien artean diferentziarik. Izan ere, *LEGEZ*, *BEZALA* ez bezala, kausazko balioarekin ere erabil daiteke, nahiz eta ez den hau erabilera ohikoena.

Hona hemen *LEGEZ*-en erabilera ohikoenaren pare bat adibide, bata "moduzkoa" edo deitzen duguna eta, bestea, modu-konparaziozkoa:

- (129) a. San Bernardok dirauskun legez, bizitzeari darraiko eriotzeak (P. A. Añibarro, *Escu-liburu* 2, 93).
- b. Neura Aitak ni bialdu nenduban legez, alan nik bere zubek bialduten zitubedaz (J. A. Moguel, *Confesioa ona*, 8).

Baina kausazko gisa ere erabil daiteke *legez* bizkaieraz. Kasu honetan, *[NOLA / ZELAN ... -eN]* ordezkoa izango litzateke *-eN LEGEZ* hau. Bi esamoldeak, hortaz, kasu honetan, baliokideak izango lirateke. Eta esan bezala, baliokidetasun hori ez da gertatzen *BEZALA*-rekin, hau ez baita kausaletan erabiltzen. Ohart gaitezen, halaber, konparaziozkoetan perpausa aditzaz hornitua nahiz aditzik gabe ager daitekeela (*EGLU* V, 363. or. eta hurr.) baina, kausaletan aditza agertzea nahitaezkoa dela. Hona hemen zenbait adibide:

- (130) a. Ez dan legez gomutetan iflor zoritxarrakaz jazo artian, indarrez eragin biar jakez onelako gauzak (J. A. Uriarte, *Diálogos vascos*, 66).
- b. Diabruba leku gustietara elduten da, ta geure aragijaren erara konbideetan gaituban legez, nunnai aurkitulen ditu ugari jarraitzailliak (J. Moguel, *Baserritear nequezaientzaco escolia*, 85).
- c. Eurak ez zaitubeen legez zeu ikusten, ez dira bildurtuten (J. Moguel, *Baserritear nequezaientzaco escolia*, 236).
- d. Oeratu zan, ta dana mankaute eguan legez, bertatik luak artu eban. (J. A. Uriarte, *Marjaren ilia*, 46).

²² Axularrek honela dakar: *Ordea nola Herkules hura, harriz, zurez edo kobrez egiña baita, edo pintura bat baizen ezpaita, geldi dago.* (Ax. 35)

- e. Kargia zan legez andijegija, egin arren alegina lepora jasoteko, ezin eban jaso (J. A. Moguel, *Confesiño ona*, 117).
- f. inoren kleituba, ondria, edo pamia galduteko, dagozan legez ainbeste arte, ta modu gaisto; noraezekua da, zortzigarren agindubak kanpo andija eukitia (Fray Bartolome, *icasiquizunac II*, 160).
- g. Eta nik irakurlientzat eztaukodan lez gauza ixillekorik, ementxe emon biar dautzubet asmo onen barri (Kirikiño, *Bigarango Abarak*, 125).

Goian eșan dugun bezala, balio kausala ez da ohikoena. Gainera, balzuelan, zalantza izan liteke kausazko ote den ala konparaziozko:

- (131) Legia gordetia dan legez gauza ona; legia gordetako gurarija bere ona da (Fray Bartolome, *icasiquizunac II*, 256).

Hilz hurrenkerari dagokionez, *-eN LEGEZ* kausazkoa perpaus nagusiaren ezkerretara kokatzen da, mintzagai modura. Baina kausazko perpausaren beraren barneko hurrenkerari dagokionez, *-eN LEGEZ* eta honekin doan adizkia perpausaren eskuin muturrean ezartzea da joera nagusia. Baina, perpausaren beste osagaien artean kokatua ere aurkitzen ahal dugu, goiko adibide zenbaitetan ikus daitekeen bezala. Hain zuzen, perpaus lokabeek izan ohi duten hurrenkera berbera izan dezakete *LEGEZ*-en bidez osatutako hauek. Azken batean, konparaziozkoetan ere gauza bera gerlatzen da: aditza azkenean ematea ez baita autore askorentzat nahitaezko legea:

- (132) a. Ur otza dan legez lapiko irakinak ganez ez egiteko erremedioa, (...) alan da aserrakuntza ta gorrotoa oztuteko ta atsemoteko bigarren erremedioa (P. A. Añibarro, *Guero Guero*, 223).
- b. Dan legez uts guzurta konfesiñoa, alde egiten ezanean borondatezko okasiño urkoa ta berez betatulsua; alan sospetxa bildurrezkoa izango da konfesiñoa, borondate bagako okasinoak izan arren, ikusten ezpada emienda ezagun bat. (P. A. Añibarro, *Lora sorta espintuala*, 30).

Bestalde, (132b)n bezala, honako hauetan ere, *LEGEZ*-dun perpausaren kausazko balioa azpimarratzeko, perpaus nagusian anafora bat (*AU GAITI*, *AGAITIK*, *ARGAITIK*) sartzen da. *NOLA*-rekin eratuetan ere maiz agertzen da, ikusi dugun bezala.

- (133) a. Arimia dan legez geure izale nausija, (...) au gaiti geure arimia, ta arimako salbazinoia amau biar dogu (Fray Bartolome, *icasiquizunac I*, 82).
- b. Atzetik daukazan legez oin bi luziago agaitik nai dabenian egiten dau salto (J. C. de la Fuente, *Durangoko plateroak*, 83).
- c. Biar-gei balzubetara, batu oi dan legez jente geijago, beste batzubetara baño, alan eurentan esan, ta egiñ oi dira zantlarkerija geijago (J. J. Moguel, *Basemitaar nequezaleentzaco escolia*, 108).

4.4.8. *ETA* enklitiko

a. *ETA* enklitiko azalpenetan

Aurreko ataletan maiz aipatu ditugu *ETA*-ren bidez gauzatzen diren azalpenezko perpausak. Gainera, maiz, *BAIT*- aurrikiaz osatzen direnen baliokidetzat eman ditugu:

(134) a. Ez barrerik egin, egia da ta (R. M. Azkue, *Bein da botiko*, 58).

b. Zaudete lasai, etorriko da-eta nire mendekuaren txanda (D. Aguirre, *Kresala*, 148).

Bi perpaus hauak oso ongi eman litezke *BAIT*-en bidez:

(134')a. Ez barrerik egin, egia baita.

b. Zaudete lasai, etorriko baita nire mendekuaren txanda.

ETA-dun perpaus hauek, hortaz, *BAIT*-dunak bezala, azalpenak emateko guztiz ballagarriak dira, baita alegiazko (ikus 4.2.2) deitu ditugun azalpenak emateko ere:

(135) Partida galdu dute, burumakur dala ez eta.

Baina *ETA* enklitikoak ez dio bidarik ematen perpausari galdegai izateko. Beti mintzagai izango da. Azalpenen azaugarri bat dugu hau.

b. ZERGATIK? galderaren erantzun gisa

Bestalde, *BAIT* eta *ETA* enklitikoak, biak, izan daitezke erabilgarri *ZERGATIK?* galderari erantzuteko, zeharkako erantzuna emateko bederen:

(136) -- Zergatik eskatu didazu apaleko libururik potoloena?

– Mahaiaren hanka bat apurtu baita / da eta.

c. BAIT-en eta ETA enklitikoaren arteko antzekotasunak eta aldeak

Bien arteko aldeaz hitz egiten hasi orduko bi esamoldeen banaketa aipatu behar da, zeren *BAIT*- ekialdeko euskalkietakoa da, batez ere, *ETA*-enklitikoak, berriz, mendebaldekoa. Gaur egun, euskara baturako ere biak dira erabilgarri.

Baina euskalki arteko banaketa honetaz gainera, *BAIT*- eta *ETA* ez dira erabat baliokide:

• *BAIT*- beti aditzari itsatsia doa, adizki jokatuari itsatsia hein zuzen. *ETA*, berriz, gehienetan hala bada ere (ikus 137), ez da hori beti horrela gertatzen. Maiz aditz laguntzailearen ondoren ez, baizik aditz nagusiaren ondoren joan ohi da. Aditza ezezka emana denean, adibidez (ikus 138b):

(137) a. Ariatzako jaiak amaitu dira-la, gaztedi guztia dau erdi tristetua (B. Enbeita, *Nere apurra*, 29).

b. Zaudete lasai, etorriko da-eta nire mendekuaren txanda (D. Aguirre, *Kresala*, 148).

(138) a. Astean-asteango diruek poztute, emen txala saldukeran edo bainio, ez eudien dirurik artean-da, an berriz aste guztietan diru-mordo barrie etorkiela sakelera-ta, ara bearrean yoteko zaletasune geiagotuez yoañ yakien (L. Akesolo, *Ipiña ta ipiñaterren barri*, 22).

b. Jaramonik eztaust egingo-la, bijotza erdibittuko yat (J. Altuna, *Ipuñak*, 32).

Bestalde, gehiagitan ez bada ere, beste osagaien bat ere izan daiteke aditzaren eta *ETA* enklitikoaren artean:

(139) Zulatu jaku txalupea-ta, laster ondatuko gara. (J. M. Echeita, *Josecho*, 87).

• **BAIT-** elementua **ZEREN**, **NOLA** eta antzeko lokailuekin batera ageri zaigu maiz. Hori pentsaezina da **ETA** enklitikoarekin:

(140) a. Etxera joan zen, zeren buruko mina baitzuen.

b. *Etxera joan zen, zeren buruko mina zuen eta.

= **BAIT-**ekin adizkian forma alokutiboak agertzeko arazoak daude, **ETA**-rekin ez bezala:

(141) a. Hirekin joango naun, {ez baitul beste zereginik / *ez baitinat beste zereginik}.

b. Hirekin joango naun, beste zereginik {ez dinat eta / #ez dut eta}.

Hala ere, mendekotasuna dela eta, gorago esan dugu arazoak daudela **BAIT-**dun azalpen-perpauari bere horretan eusteko goragoko beste perpau baten mende txertatzen dugunean. **ETA**-ren bidezko azalpenek ere debeku bera dute, ez bagara berriz ere juntadurazko egiturara itzultzen:

(142) a. *Joxepak dio [partida galduko zutela, burumakur baitatoz]²³.

b. *Joxepak dio [burumakur datoz eta partida galduko zutela].

c. Joxepak dio [burumakur datozela eta partida galduko zutela].

Itzuli hori nahi eta ez juntadura bidez eman beharra dago. Honek agerian uzten du, nolabait, **ETA**-dun perpau hauen jatorria.

d. Juntadura ala menderakuntza?

(142c)k beste zerbait ere erakusten digu. Orain arteko adibide guztietan, azalpena perpau nagusiaren ondoren eman dugu. (142c)n, berriz, ondorioa den perpausaren aurretik jarri dugu. Baina hau ez da perpau menderatueta bakarrik gertatzen, perpau askeetan ere azalpena aurretik eman daiteke:

(143) Burumakur datoz eta partida galduko zuten.

BAIT-ekin ere azalpena aurretik eman daitekeen bezalaxe (ikus 4.4.2):

(144) Burumakur baitatoz, partida galduko zuten²⁴.

Baina (143) moduko perpau lokabeak ez ai dira perpau juntatu arruntak?

ETA juntagailuzat eman genuen *EGLU IV (Juntagailuak)* liburuan. Juntagailu honek bi perpau elkartzen ditu, sintaktikoki maila berekoak. Esan behar da, halaber, emendiozko juntadura -justaposizioa bezala- lotura modu neutroa dela eta, horrenbestez, perpau juntatuak maila sintaktiko berekoak izan arren, **ETA**-ren bidez juntatutako bi perpauen artean hainbat semantika-erlazio desberdin gerta daitezkeela. Horien artean kausa/ondorio erlazioa ere bai. Erlazio hori badugu (143)an eta baita honako honetan ere:

(145) Euria egin du eta kaleak bustiak daude.

²³ Beste modu honetara analizatuta, zuzena izango litzateke, baina, jakina, beste esanahi bat izango luke:

{Joxepak dio [partida galduko zutela]}, [burumakur baitatoz]

²⁴ Hala ere, agian normalago, **kaus** honetan, honela:

Burumakur baitatoz, pentsatzekoa da partida galdu dutela.

Perpau hau bi perpau juntatuz sortu da: [euria egin du] eta [kaleak bustiak daude]. Bi perpausak maila sintaktiko berekotzat hartzen ditugu, nahiz eta euria egin izana kaleak bustiak egotearen kausa izan daitekeen.

Baina horrelakoetan, beti juntadura garbia bagenu, ez genioke kausa/ondorio erlazio hau adierazteko bide honi leku berezirik zertan egin liburuki honetan, menderakuntzari buruz ari baikara, ez juntadurari buruz. Hala ere, badira arrazoiak *ETA* elementu honi menderakuntzaren arlotik ere begiratzeko.

Har ditzagun kontuan honako hiru perpau juntatu hauek:

- (146) Etxera deitu nion eta beheko tabeman elkartzekotan geratu ginen.
- (147) Udako eguzkiak poztu egiten nau eta neguko euriak bihotza tristatzen dit.
- (148) Mutil argia da eta berehala ikasiko du.

Hiru adibide hauetan elementu bera ageri da: *ETA* juntagailua. *ETA* hori emendiozko juntagailua da. Bi perpau elkartzen ditu, maila berekoak, bata bestearen mende ez dauden perpausak.

(146)an ez da sumatzen inongo erlazio berezirik bi perpau juntatuen artean, juntadura guztietan behar den gai-kidetasunaz aparte (*deitu/elkartzeko geratu*), baina hortik aurrera bi perpausen arteko erlazioa gehitze hutsezkoa dela pentsa daiteke.

(147)an bi perpau juntatuen artean goiko gai-kidetasunaz gainera (nitaz ari da eta eguraldiak norberaren aldarlean nolako eragina izan dezakeen aipatzen da, eta abar), halako kontrakotasun bat sumatzen da bi perpau juntatuen artean. Horregatik, hemen zilegi da *ETA* juntagailu emendiozkoaren ordez *BAINA* aurkaritzako juntagailua erabilzea:

- (147') Udako eguzkiak poztu egiten nau baina neguko euriak tristatu.

(148) adibideko juntagailua, ordea, berezia dela pentsatzeko arrazoiak badira. Ezaugarri bereziak ditu, menderakuntzaren bidean aurrera egin dela pentsarazi diezaguketanak. Adibidez, (148)an, juntatutako perpausak, funtsezko esanahia aldatu gabe truka daitezke, atzekoz aurrera jarriaz eta juntagailue ere lehen perpausarekin batera atzera eramanaz:

- (148') a. Berehala ikasiko du, mutil argia da eta.
- b. ??Berehala ikasiko du eta mutil argia da.

(146) eta (147)ko esaldien jokabidea, aldiz, guztiz kontrakoa da:

- (146') a. *Beheko tabeman elkartzekotan geratu ginen, etxera deitu nion eta.
- b. Beheko tabeman elkartzekotan geratu ginen eta etxera deitu nion.

(146'b) zuzena da, baina perpausen hurrenkera aldatuz esanahia ere aldatu egiten da nolabait. Honako honetan ere antzeko zerbait gertatzen da:

- (147')a. *Neguko euriak bihotza tristatzen dit, udako eguzkiak poztu egiten nau eta.
- b. Neguko euriak bihotza tristatzen dit eta udako eguzkiak poztu egiten nau.

Zer da trukatzeko hau zilegi egiten duena batean (148'a) baina ez besteetan (146'a eta 147'a)?

Hurrenkera-aldatze hau gerta dadin badirudi baharrazkoa dela bi perpausen artean erlazio semantiko berezia izatea. (148)an, kausa/ondorio erlazioa dugu. (146) eta (147)an, berriz, erlazioa bestelakoa da eta hori da, dirudienez, jokabide desberdinaren "erruduna".

Baina kontua ez dagokio bakarrik osagai-hurrenkerari. (148) perpausaren juntagailua bere ezkerreko perpausari atxikia dago eta atxikimendu horrek perpausen hurrenkera aldatzen dugunean ere irauten du. Hortaz, atxikimendu hori fonologikoki ere gauzatzen da, *ETA* enklitiko izateraino iritsiz. (148)an juntagailua perpausaren azken elementuari atxikia ageri den bitartean, (146) eta (147)an ez da horrelakorik gertatzen. Kontua da *ETA*-ren enklitikotasuna eta bi perpausen arteko kausa(azalpen)/ondorio erlazioa elkarri eskua emanda ageri direla. Erlazio berezi hori dugunean da zilegi, hain zuzen, ordena aldaketa eta *ETA* enklitiko bihurtzea.

Esan dugu *ETA* juntagailua, berez, elementu neutroa dela eta, horrenbestez, juntagailu honen bidez juntatutako perpausen artean mota askotako erlazioak izan daitezkeela, gai bertsuaren inguruko perpausen gehitze soiletik hasi (ikus *EGLU IV*, 26) eta aurkaritzako edo kausa/ondorio gisako erlazio bateraino. (148)an kausa/ondorio erlazioa dugun bezala, (147)an aurkaritzako erlazioa ere suma daiteke. Horregatik, zilegi da *BAINA* juntagailua erabilteza kasu honetan, (147') adibideak erakusten duen bezala. Eta, hain zuzen, kasu honetan ere zilegi da juntaturako osagaien trukaketa:

(149) Neguko euriak tristatu egiten nau, udako eguzkiak poztu egiten nau baina.

Perpaus honetan bi juntagaiak trukatu ditugu eta *BAINA* elementua oraingoan ere enklitiko bihurtua dugu. Horrelakoetan, esan genezake balio kontzesiboa hartzen duela perpausak (ikus 5.3.4 atala).

Juntagailua [+azentudun] ezaugarria duen hitz librea dela esaten da. Horregatik, *ETA* benetako juntagailua denean, perpaus juntatuen artean kokatzen da eta bi eten sortzen dira, juntagailuaren ezker-eskuin. Batzuetan hain da handia eten hori, non esaldi berriari hasiera emateko ere balio duen *ETA* juntagailuak. Hori da testu idatzietan, maiz, puntuaren ondoren, perpaus berriaren hasieran, ikusten dugun *ETA*-ren kasua:

(150) Leku batzuetan Pazkoetan komulgatu ez diranai sinhalatzen die Obispo Jaunak denbora, presta ditezen ongi, eta artu dezeen Sakramentua prestera ederrarekin. Eta iruñeko Obispaduan agindua dago lenbizia: Pazkoako ama bost egunak igarotzen diranean, adiltzera eman dezeela Animen arzaia Elizan, nor diran komulgatu ez diranak, eta ezlakiela ulzi Meza, ta bezperak enzuten (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia* I, 479).

[-azentudun] diren gramatika-unitateak, ostera, ez dira libreak eta ezin dira erabili isolaturik. Hau da aurrizkien, alizizkien, klitikoaren eta horrelakoen kasua. Hauen artean koka daiteke *ETA* enklitikoak. Hau ezin da bere ezkerreko osagaitik bereizi eta ez dauka berezko azenturik. Horrela, *ETA*-k ez du ezkerrean "tarterik" uzten, baina eskuinean eten nabarmena gertatzen da.

ETA, jakina, jatorriz juntagailu aske zena aurreko perpausari hain hertsiki lotzen bazaio eta gehienetan, gainera, perpaus horren azken muturrean doan adizki jokatuari lotzen bazaio, argi dago menderakuntzatik hurbil gabillzala eta lehen juntagailu zena jadanik menderagailu bilakatu dela, edo, gutxienez,

menderagailu bilakatzeko zorian dela. Garbi dago, fonologiaren ikuspegitik, enklitiko bilakatu ahala, juntagailu soil izateari utzi diola nolabait.

Hala ere, morfema honek menderakuntza bideratzen al du, *BAIT*-ek bezala? Erdibidean dagoen elementu bat dela esango genuke, zeren *BAIT*-ek hitanoari buruz adizkiari ezartzen dion debekurik ez dugu oraingoan. Bestalde, alizki menderalzaile bihurtua balitz, horrelakoak euskaraz aditzari loturik agertu ohi dira (*BAIT*- , *-eN*, *-eLA*, *BA-* eta abar). *ETA* enklitikoaren joera ere horixe da nagusiki, baina gorago esan bezala, askatasun apur bat gelditzen zaio oraindik. (146), (147) eta (148) desberdinak dira. Perpaus horietan *ETA*-k juntatzen dituen osagaien arteko erlazioa desberdina da bakoitzean. Eta honek ondorio fonologikoak eta sintaktikoak ditu. Guri hemen dagokigunez, (148)an, kausa/ondorio erlazioa dugu eta horrek egiten du zilegi *ETA* enklitiko izatea eta, neurri batean, menderagailu izateko bidean aurkitzea.

e. *ETA* enklitikoaren bidezko azalpenaren kokagunea

ETA elementua gera daiteke juntagailuen ohiko lekuan, bi perpaus juntatuen erdian, azalpena ezker aldean gelditzen dela. Orduan, maiz, ezingo dugu errez jakin benetako juntagailuaz ari garen (etenik ez beda markatzen) ala ezkerreko osagaiari atxikirik dagoen *ETA* enklitikoaz ari garen. Zenbat eta kausa/ondorio erlazio gisa interpretatzeko aukera handiagoa izan, orduan eta handiagoa enklitikoztat hartzeko aukera ere:

- (151) a. dirua daukagu ta gaitezen ezkondu (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 29).
 b. Elkarren etsai bizi dira-ta gauz onik ez urtarak (E. Arrese, *Oterki berriak*, 16).
 c. bakea bear dogu ta etzaita etorri geiago bide onetara (J. M. Echeita, *Josecho*, 46).
 d. Arna zera-ta semien alde zuk zer egingo ez dezu? (S. Mitxelena, *Arantzazu*, 201).
 e. nere txikiya pollita da-ta ez du negarik egingo (E. Arrese, *Oterki berriak*, 30).
 f. Anaiarekin bai lagun da ta, alkar ondo eramango dute (A. Barriola, *Goi-Argi*, 44).
 g. Lurra guztiena ei-da ta, orren jabe estaduak baño beste inok ez ei-dau bear (G. Eguzkitza, *Gizarte-Auzia*, 121).

Perpaua lekuz aldatua ageri bada, orduan ergi egongo da *ETA* erabat enklitiko dela eta azalpen gisa interpretatuko dugu, *BAIT*- bezala:

- (152) a. Ez da esan bear gaitz onek piñua bereala gaitzen duanik; ez da-ta egia (I. Munita, *Gure mendi ta oianak*, 94).
 b. Baiña, Sanxo, esan zion Don Kijotek, nolaz ikusi dezakezu nondik datorren zuk diozun argi-marka ori. (...) izar bat bakarrik ez da-ta ageri ortze guzian? (P. Berrondo, *Don Kijote Manbrako*, 217).

ETA enklitikodun perpaua tartekatua ere agertuko zaigu. Hau *BAIT*-ekin ere gertatzen da:

- (153) a. Bai Jauna, aingeruai ta zeruko deunai be, geure bitartekoak dira-ta, otoitz egin bear dautsegu (*Kristineta ikasbidea Bizkaiko euskeraz*, 52).
 b. Etorri zinen haranetik estrata luze batetik: Orain zu zara itzuliko gauza guztiak utzink, lehengo estrata itzali da-ta bide-zihor horretatik (G. Aresti, *Maldan behera*, 193).

4.4.9.-eLA ETA

ETA enklitikoa daraman perpausa kausaltzat hartu dugu goian, "Kanpoko" kausaltzat. ETA enklitiko hori berori dugu -eLA ETA moldeko perpausetan ere:

- (154) a. foot-balla dela-ta txolarte laburrak bete nahi dituzte (K. Mitxelena, *Mitxelena-ren Idazlan Hautatuak*, 245).
b. eruki ori dala-ta agertu zaigu goitiko Eguzki-sorzean. (P. Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 14).

Hain zuzen, ZERGATIK galde-hitza erabili beharrea maiz erabiltzen dugun ZER DELA ETA? ere, berez, perpaus bat da. *Dela* (= *da* + *-ela*) aditza lekuko. Baina lexikalizaturik dago, iharturik. Hala ez balitz, iraganari arreferentzia egitean, adibidez, **zer zela eta* formula erabiliiko litzateke eta ez da hori gertatzen: beti '*zer dela eta*' gisa egiten da galdera hori.

Bestalde, ZERGATIK eta ZER DELA ETA, biak, baliokideak dira, funtsean, nahiz eta lehenbizikoak, agian, zerbaiten zergatiaz zuzenago galdetzen duen:

- (155) a. Askatzen ari zirala, yabeak esan zieten: Zer dala ta askatzen duzue astokoa (P. Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 375).
b. Yesusek galdegin zien: Zer dala ta ari zerate eztabaidaka (P. Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 246).

Galdera hauei, jakina denez, modu askotara erantzun dakieke. Gainera, holakoei DELA gabe erantzutea da bide zuzena, normalean:

- (156) Jaunak orren bearra badu (P. Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 374).

Edo, berdin-berdin, beste modu honetara:

- (157) Gure maisuak behar du eta.²⁵

ETA gabe ere, hortaz, oso ongi erantzun lekieke horrelako galderari:

- (158) - Zer dela eta etorri zara?
a. Aspertuta nengoen eta.
b. Aspertuta nengoen.
c. Aspertuta bainengoen.

Eta baita beste honetara ere:

- d. Aspertuta nengoelako.

Seinale bi galde-hitzak, ZERGATIK eta ZER DELA ETA, baliokideak direla.

Nolanahi ere, horrelako galdera bati, edozein motatakoa izanik ere, ezin zaio -eLA TA bidez erantzun. Esapide hau, izan ere, aitzakia edo nola halako zeharbidezko zerbait esateko erabiltzen da, ez galdera zuzen bati erantzuteko. Honako elkarrizketa honetan, adibidez, (159a) nekez izan daiteke goiko galderaren erantzuna. (159b eta c) bai:

- (159) - Zer dela eta etorri zara horren berandu?
a. - ?Giltzak ez nituela aurkitzen eta.

²⁵ Kerexetak, esaterako, honela itzultzen du: "Eta norbaitek 'zegatik egiten dozue ori?' ba dirautsue, auxe erantzun: 'Jaunak bear dau, eta bereala biurtuko dau ona'" (Mark. 11, 3).

- b. - Ez nituen giltzak aurkilzen eta.
- c. - Giltza madarikatu hauek direla eta.

Hizpide eman digun esamoldearen plegua "XX *dela eta*" izan da. Hor ageri den *dela* horretan argi dago izan aditza daukagula. Horrelakoetan XX delako hori izen sintagma bat izaten da gehienetan. Beraz, goian esan dugun bezala, badirudi "*dela eta*" esapide hori nolabait ihartuta dagoela eta horregatik direla zilegi ondoko (160) bezalakoak galderen erantzunetan. (154)ko adibideetan, esaterako, [_{is} *erruki hori*] eta [_{is} *futbola*] izen sintagmak ditugu. Honako honetan bezala:

- (160) - Zergatik haserretu dira gure auzokoak?
- Seme-alaben ikasketak direla eta haserretu dira.

Ohikoena molde hori bada ere, hots, [Izen sintagma + *dela eta*], bestelako itzulia ere badira, beste aditz batzuekin, baina hauek ezin dira izan galdera baten erantzun:

- (161) a. Diru gehiago ez zuela behar eta erretiroa eskatu zuen.
b. Juanak bere ama ikusi bear zuala eta Basaburuko bidea artu zuen (N. Etxaniz, *Lur berri bila*, 49).

Horrelako perpauselan, egiazki, zerbait ezabatua dagoela ematen du:

- (162) Diru gehiago ez zuela behar (pentsatu/esan/... zuen) eta erretiroa eskatu zuen.

Honako honetan bezalaxe:

- (163) Egia esan, galdu, an endikaldian galdu jatak, baña leku aretan nola eztegon argirik, an duro billa astia alperrik dala ta argia dagon parera etorri nok billa (J. San Martín, *Zirkadak*, 54).

Dena *dela*, perpaus hauen jatorria argi dago. Izan ere, *ETA* enklitikodun azalpenak nagusiago baten barnean txertatu nahi ditugunean, beren jatorrizko izaera berreskuratzen dute:

- (164) a. "Jaso mahaia, ordua da-ta" esan zuen.
b. "Ordua da ta, jaso mahaia" esan zuen.
> Ordua zela eta, mahaia jasolzeko esan zuen. / *Ordua da ta, mahaia jasolzeko esan zuen.

Honek erakusten diguna da perpaus hauek oraindik ere juntaduraren zantzuak gordetzen dituztela. Nolanahi ere, molde honeteko perpausak nolabait kausazkotzat interpretatzen baditugu ere, gorago aipatu ditugun -*eLAKOAN* gisakoen oso antzeko direla ematen du. Dena *dela*, *ZER DELA ETA* galdera bera eta honen gisako *XX DELA ETA* behintzat kausazkotzat hartzeko eskubide osoa dugu.

4.4.10. X DELA {BIDE/KAUSA/MEDIO...}

Taxu honetako esamoldeek ere balio kausala izan dezakete. Egiturari begiratuz gero, berriz, -*eLA* adverbio-perpausen egitura bera dutela esan behar. Hots [[*P X bide/kausa/medio da*] + -*eLA*] izango litzateke egitura hori, [*perpaua* + -*eLA*], alegia. Zernahi gisaz, egitura finkatua da: izan aditza

agertuko da beti eta debeku handiak izango ditu, gainera, aditz horrek. Esaterako, DELA esango da gehienetan, edo ZELA, baina ez LITZATEKEELA, adibidez. Formula hauek denak, nolabait, lexikalizaturik ageri dira, edo, gutxienez lexikalitze bidean: 'hori dela medio', 'hori zela bide' eta antzekoak beti modu finkatu horretan erabiliko dira, orainaldian edo iraganaldian, behar den pertsona komunztadura eginez. Adieraren aldetik, berriz, kausa balioa izan dezakete. Funtsean esaten dena honako hau da: X da zerbaiten kausa edo zerbait gertatzeko bidea. "X dela medio" diogunean, agian ez dego hain argi kausallasuna, baina besteetan bai. Ondoko perpausok hori erakusten dute. (165d)n, adibidez, "ez ... *dela kausa, baina zeren ... -eN*", kausazkoak agertu ohi diren egitura bat da:

- (165) a. Iainkoak mantentzen du mundu handi hunen izaita eta iraupena bethiko aldizkatze batetan, zeina dela bide eguna ganbialzen baita bethi gauera, udahastea edo behartzea udara, uda behar ihartzera edo larazkhenera, larazkhena negura, eta negua uda-hastera (S. Pouvreau, *Philotea*, 469).
- b. Jose Vicente de Echegaray, 1773-1855 donostiarraren izena nahasi xamar dabil egungo euskaldunon orimenean, geroago etorri diren Etxegarai argien ospea dela bide edo. (K. Mixelena, *Euskal Idazlan Hautatuak III*, 131).
- c. Nik (...) hiztegia zela bide jakin genuen Euskaltzaindia bazela (K. Mixelena, *Euskal Idazlan Hautatuak VII*, 77).
- d. zure bihotza khexatua sentitzen baduzu, ez zenbait objektu agradamentzat duzun amodioa dela kausa, baiñan zeren duzun ezizbertzeko higuinza bat presuna batentzat, (J. Haraneder, *Gudu izpirituala*, 107).
- e. Hori bera dela medio hainitz hobeki ehaiten du (J. Duvoisin, *Dialogues basques*, 57).
- f. Jaungoikoak bere asmoen betegarri alkatu nai izan zitun noski, pekatu bat zala medio gorputz-gogoetan torrez zamaturik zeuden bi izaki errukarri aiek (Y. Etxaide, *Joanak-joan*, 243).

(165c eta f)k erakusten dute aditza iraganekoa denean (zela *bide/medio*), perpaus nagusiko aditza ere iraganean doala. Baina, alderantziz, alegia, *dela medio* bezalakoak ditugunean, perpaus nagusiko aditzak askatasuna du orainaldian nahiz iraganaldian joateko:

- (166) a. Joko zaletasuna dela medio, diru guztia galdu zuen.
- b. Adoratzen zaitut Kristo, eta bediketzen zaitut, zergatik zure gurutze sandue dela medio redimiluz zifien mendue (*Cristau Doctrina (Utzama)*, 12).

Beraz, mendeko perpausa iraganean badoa, nagusiak ere hala joan behar duela dirudi. Baina, orainaldian badoa, nagusia libre da oraina nahiz iraganean agertzeko. Normalean *dela/zela* badugu ere, esapide horretako adizkiak pertsona-komunztadura errespetatu beharra dauka: subjektua plurala bada, pluralean emango da eta zein pertsona den ere kontuan hartuko du:

- (167) a. Da biotzeko damu, edo urrikimendu sobrenaturala, Jaungoiko gure Jaune ofendituez, zergatik gure bekatuek direla medio bota gatzaken infernuko penelara, apartatu zerutik, gure bekatuen itsustasunagatik (*Cristau Doctrina (Utzama)*, 41).
- b. Terreno batzuek zirala medio zuten auzi ori, (Uztapide, *Sasoia joan da gero*, 339).
- c. ikastola, alfabetatze liburu eta aldizkariak direla medio euskaraz dakitenak (K. Mixelena, *Euskal Idazlan Hautatuak VII*, 165).

- d. egun haietako jaialdiak zirela medio beste zenbait ere mintzatu ziren (K. Mixelena, *Euskal Idazlan Hautatuak IX*, 23).
- e. paga albanitza nik nolazpait ere ni naizela medio sofritu dituzuen nekeak (K. Mixelena, *Euskal Idazlan Hautatuak IX*, 98).

Nolanahi ere, iraganeko esamoldeak ez dira hain ugariak. Mixelena dugu zaletasun handiena erakusten duen autoreak.

Kausa balioa du eta perpaus egitura ere bai, baina oso egitura mugatua eta finkoa dugu *DELA* (*BIDE*, *KAUSA*, *MEDIO*) hau, postposizio moduko bat baita azken batean, izen sintagma bati itsasten zaion elementu bat. *X-ren erruz*, *X-ren bidez*, ... eta abar esaten dugun bezala, *X dela kausa/bide* esan genezake. Esanahiaren aldetik ez dabilta urrun eta sintaxi egiturari dagokionez, ere ez.

4.4.11. ZERGATIK + -eN

ZEREN-en ordeaz, herri hizkeran, ahozkoan bereziki, ata batez ere Hegoaldeko euskaldunen artean, *ZERGATIK* erabiltzen da. Hau, berez, *ZEREN* bezalaxe, galde-hiltz bat da, baina esaldien arteko lotura bideratzeko erabiltzen da, kausazko nahiz azalpen modura. Honako hauetan, adibidez, azalpena adierazteko erabilia ikusten dugu:

- (168) a. Nik detana da baztanga, eta badakit zeñek pegatu ditan.

Zeñek?

Txertuk; zergatik ardoteгийн бети nere onduan eseritzen dan. (V. Iraola, *Oroitzak*, 139).

- b. Zer arto ederrak daukazuten! Bai, jauna; igaz denbora onetan baño obeak. Igaz ere onak izango zihituzten zergatik zimauro asko botatzen diozuten. (M. Soroa, *Baratzan*, 47).

Honako hauetan, berriz, kausal betea dugula dirudi:

- (169) a. Zer da biotzeko atriziñoa?

Jaungoikoa ofendidu dabeñako damuaria pekatuen ezaintasuna gaiti, edo zergatik pekatu mortalagaz, zeruko gloria galdu, ta infernua betiko irabazten dan. (*Cristinau Doctrinea* (Busturia), 48).

- b. Artu zuan denbora ura guzia, zergatik asko praile arkitzen ziran tuit aparte eta eskuen artian lan askorekin (C. Beovide, *Asis-co Loria*, 187).

Hauak oso ongi ordeazka daitezke *-eLAKO*-ren bidez.

Honako honetan ere kausal betea dugu, galde-perpaus baten barnean bertatua, eta hemen ere, jakina *-eLAKO*-ren bidez ordeazka daiteke:

- (170) zergatik egia dan, itzegin bear diozu gurasoari modu añ itsusian? (Aguirre Astasukoa, *Eracusaldiak II*, 67).

(egia delako hitz egin behar diozu gurasoari modu hain itsusian? (ikus 58).

Kontuan izan kausazko perpausa galde-perpaus baten atal dela. Goragoko (93) *ZEREN* *-eN* / *BAIT*- taxuko perpausen baliokide da perpaus hau. *Bai*-ez erako galde-perpaus baten barruan bertaturik ikusten dugu kausazko perpausa, horrelako galderetan galdegaiak (edo galdegai ez izanda ere, nolabaiteko kontrastea edo hanpadura eman nahi zaion osagaiak) izan ohi

duen kokagune berean. Beraz, perpausaren barne-osagai dela esango dugu. Hemen zilegi dira *ZEREN ... -eN/BAIT-* nahiz *-eLAKO*, baina ez bestelako kausalak (*-eNEZ GERO, BAIT-* soila edo *ETA* enklitikoa, adibidez). Kausal beteak dira, horrenbestez.

Gaur egun normalena *ZERGATIK* soila erabilzeko joera da nagusi, lokailu soila alegia (ikus *EGLU III*, 182, or. eta hurr.). Eta, esan dezagun hau ere, ospe onegirik ez izan arren (ikus, R. M. Azkue, *Morfología*, 491) oso esapide erabilgarria gertatzen da, *ZEREN* bezalaxe, azalpenetarako. Dударik gabe, hor zehar entzun daitezkeen zenbait erdarakada gordin baino egokiagoa:

- (171) a. Urrela jauna jaiki zanian itz egitera uste nun ebria purrukatuko zala jango txaluk! gogo aundija zegoen jaun onen itza aditzeko, ta arrazoi zuten, zergatik jura da itz egitia! *TZI-RRIN*: (*Euzko elez: Ermani*, 1).
- b. Txerri-jana.- Izen onekin eman nai diot idazki oni asiera zergatik au da egun abetan gustien aotik entzuten dana. *BIAR* (*Euzko elez*, 1).

4.4.12. *ZERGATIK EZEN ... (-eN)*

ZERGATIK, EZEN lokailuaz lagundurik ere erabil daiteke. Ahozko zenbait hizkeratan aski arrunta da berau. Ahozkoan "ze(r)gatik ze" entzuten da.

Azalpenezko perpausak osatzeko balio du, ondoko adibide hauek agerian uzten duten bezala. Adibideok erakusten duten beste gauza bat da, *ZERGATIK EZEN* soilik erabil daitekeela (172a,b,c) –lokailu soil gisa, horrenbestez–, baina adizari *-eN* alizkia erantsita ere bai (172d,e):

- (172) a. onela izanik ez dau zer etsitu, eztau desespera bear, eztau zer esperanzarik galdu bear, zergatik ze eztago oraindifo orduan erremediolik kanpora. (P. A. Añibarro, *Guero Guero*, 144).
- b. Ispilluak etzion ematen aibeste satisfazio ere bere edertasunaz, baiña ematen zion beste gauza batek, au da, auzoko beste gazteen mormoretak, zergatik eze, bazeukakioten bere ikusi ezin puskabua (P. M. Uruzuno, *Ipui sorte*, 69).
- c. nik esaten dizulet; zuen etsaiak maite izan itzaltzute (...) zergatik ezen, baldin maite zaituztenak, maite badituzute, zer ordafien begira zaudete (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 382).
- d. Guk apustuba irabazita alare geunden serio, zergatik eze panparreriak iñun aztuben balio (Pello Errota, *Pello Erotak jemitako bertsoak*, 43).
- e. Argatik eze, dituen argierak ilunduko ez diraden ifoiz; Zergatik eze, aren gaba, egun bat adifia, argituko dan (M. Larramendi, *San Agustin*, 8).

ZEREN + EZEN + ... BAIT- gisako esamoldea ere agertzen zaigu, usuegi ez bada ere:

- (173) Zer ere erremedio eman baitut sabellasunarentzat, baliatuko zarete uxadarentzat, zeren ezen biak bat bezala egiten baitire (M. Dassança, *Laborerrien abisua*, 588).

4.4.13. *EZEN ... (BAIT-/-eN)*

EZEN lokailu soilaz ere balia gaitzke ezalpenezko perpaus kausalak eratzeko. Lokailu honek joko handia ematen du euskal gramatikan, zeren perpaus osagarrietan ez ezik (ikus *EGLU V*, 62-65), ondoriozkoetan (*EGLU V*, 448-456), konparaziozkoetan (*EGLU V*, 410) eta kausaletan ere erabilgarri baita. Kausal gisa, aditza biluzik eraman ohi du, alegia, ez *BAIT-* ez *-eN* markarik

gabe. Horrek esan nahi du kasu hauetan lokailu soilaren aurrean gaudela (ikus *EGLU III*, 177. or. eta hurr.) eta, horrenbestez, menderakuntzarik ez genukeela izango. Hala ere, *BAIT*-en laguntzaz ageri da zenbaitetan.

a. Lokailu soil gisa (*EZEN + Ø*):

- (174) a. Imajina ondralzean Saindua duk ondratzen. Eta laido ematean halaber desondratzen, Ezen halakoak ezlik estimatzen Prinzea (J. Etcheberrri Ziburukoa, *Manual devocionezcoa* I, 29).
- b. Nik emaiten derautzudana, enea da; eta hura edekiten derautzudanean ezlut zurerik eramaiten: ezen (...) guzia ene ganik da (S. Pouvreau, *Iesusen imitecionea*, 173).
- c. Diferentzia handia da batetik berzera, ezen lainkoaren Spiritua da egiazki gure bihotzak hunki eta iratzar ahal ditzakeena, (J. Leizarraga, *Othoriza Ecclesiasticoen forma*, 81).

EZEN-en lokailu gisako erabilera hau oso ohikoa da, batez ere gure idazle zaharren artean.

Tartekatua ere ager daiteke *EZEN*-dun perpausa:

- (175) Hala ere, azken alderat, ezen aspaldi zendua da, egin zauzkigun bisita batzu; ez baitzitu behin ere ahanzi herria eta herritarrak (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 137).

b. Mendeko perpaus gisa (*EZEN + BAIT-*):

- (176) a. Ene oldez segurik, da zaharrarena: Ezen gazteenak, erresurtsa badu, Esperientziak, korreyitzen baitu (L. Goyhetcha, *Fableac*, 99).
- b. Erran nahi du, adimendu eder baten izateko, eztiela halakorik, nola gorphulz temperatura, edo trenpu onetakoa, ezen hotza baldin garai bada, adimendua pisu, dorphe, eta gogor izanen baita (J. Etcheberrri Sarakoa, *Eskuararen hatsapenak*, 121).
- c. Eztakit non dugun adimendua, eta ez zertan pensatzen dugun: ezen (...) gure arima nahi baitugu den gaixto (P. Axular, *Guero*, 360).
- d. Bi hilabeteren buruan bazen alegiantzia Urtebian eta Harrixurian, ezen buruilaren hogoi-ta-bian Beñat eta Maite ezkondu baitziren (J. B. Etchepare, *Mendekoste gereziak*, 49).

Kasu bietan, azalpenazko perpausen aurrean gaudela esan daiteke. Gainera, adibideek erakusten duten bezala, ohiko kokalekua perpaus nagusiaren eskuin aldea du.

LABURPENA

1. Kausazko perpausen izaera

Kausazko perpaus beteak eta azalpenezkoak

Ondorio baten eta ondorio horren eragilearen arteko erlazioa kausazko perpausen bidez adierazten dugu maiz:

- (1) Neguan euria egin duelako daude hain berde larreak.
 mendeko perpaus (kausazko)a perpaus nagusia (ondorioa)

Eragile hori izan daiteke kausa fisiko bat, goiko perpausean bezala, baina, maiz bestelakoa izan ohi da delako eragilea: motiboa izan daiteke, justifikazio bat, eta abar. Izan ere, hiztunak, eragilelzat jotzen den gertaera, egoera edo dena delakoa, funtsean bi modutara aurkez dezake, ondorio jakin bat ekarri duen kausa gisa, edo baieztapen baten azalpen gisa. Azken batean, hiztunak *ondorio/eragile* erlazio horren aurrean nolako jarrera hertzen duen, halakoa izango da kausazko perpausa ere. Guk, funtsean, bi mota bereizi ditugu: *kausazko beteak eta azalpenak*:

- (2) a. Biziki poztu zen ezkontzara gonbidatu nuelako (kausa beteak).
 b. Biziki poztu zen, ezkontzara gonbidatu bainuen (azalpena).

Azalpen hutsak eta alegiazko azalpenak


Azalpenak baieztapen edo esaldi baten argigarri gisa eskaintzen ditu hiztunak. Azalpenak ere bi motatakoak izan daitezke: e) azalpen *hutsak* eta b) *alegiazko* azalpenak.

- (3) a. Berde-berde daude larreak, neguan euria egin baitu (azalpen hutsa).
 b. Ez du ondo lo egin, begizulo ikaragarriak ditu eta (alegiazko azalpena).

Zenbaitetan, kausal bete gisa eman ala azalpen gisa eman, hiztunaren esku gelditzen da hautua. Goiko adibideetan, (1)ean eta (3a)n kausa/ondorio erlazio bera dugula ematen du. Gertatzen dena da (1)ean hiztunak kausa objektibolzat ematen duena, (3a)n baieztapen baten argigarri gisa ematen duela, bere erantzukizunpean eskaintzen duen azalpen gisa. (Honek ondorioak ditu perpaus hauek beste baten mende ezarri nahi ditugunean. Zeren azalpena betiere hiztunak ematen du, eta horregatik perpaus nagusitik "kanpo" gelditzen da nolabait). Hala ere, zenbaitetan nahitatezko da kausal beteak erabiltzea eta, alderantziz, beste batzuetan azalpen gisa ematea nahitaezko suertatzen da. Honek, jakina, eragina du erabili beharreko menderagailua aukeratzeko orduan.

2. Kausa adierazteko bideak

Kausa adierazteko hainbeste modu ditugu. Maiz aldeak ikustea erraza ez bada ere, badirudi joera batzuk, eta debekuak ere bai, badirela: esamolde batzuk mota bateko perpausetan erabiliko ditugu batez ere eta beste batzuk, berriz, beste batzuetan. Honako taula honek joera nagusi horiek begien aurrean jartzea du helburu:



kausal bete gisa aurkeztua	
<p style="text-align: center;">-eLAKO</p> <p style="text-align: center;"><i>zeren bait-/zeren -en</i></p> <p style="text-align: center;">BAIT-</p>	<p style="text-align: center;">Ospitalera joan nintzen eri nintzelako.</p> <p style="text-align: center;">Gaixorik nengoe-lako ez nintzen joan.</p> <p style="text-align: center;">Eskerrak ematen dizkizut gonbidatu nauzulako.</p> <p style="text-align: center;">Atsegin dut ikusten baitzaituztel ene inguruan.</p>

azalpen gisa aurkeztua	
<p style="text-align: center;">azalpen hutsa</p> <p style="text-align: center;"><i>bait-</i></p> <p style="text-align: center;"><i>-eta</i></p> <p style="text-align: center;"><i>zeren ... (bait-/ -en)</i></p> <p style="text-align: center;"><i>-enez (gero)</i></p> <p style="text-align: center;"><i>nola ... bait-/ -en</i></p>	<p style="text-align: center;"><i>Berandu iritsi da lanera, (zeren) trafiko handia baitzen.</i></p> <p style="text-align: center;"><i>Berandu iritsi da lanera, trafiko handia zegoen eta.</i></p> <p style="text-align: center;"><i>Egon lasai, nik tagunduko dizut eta.</i></p> <p style="text-align: center;"><i>Non zabilza?, egun osoa zure bila baitaramat.</i></p> <p style="text-align: center;"><i>Trafiko handia zenez, berandu iritsi da lanera.</i></p> <p style="text-align: center;"><i>Trafiko handia denez gero, berandu iritsiko da lanera.</i></p> <p style="text-align: center;"><i>Nola trafiko handia den, berandu iritsi da lanera.</i></p>
<p style="text-align: center;">alegiazko azalpena²⁶</p> <p style="text-align: center;"><i>(zeren) bait-</i></p> <p style="text-align: center;"><i>-eta enklitiko</i></p>	<p style="text-align: center;"><i>Euria egin du, (zeren) kaleak bustiak baitaude.</i></p> <p style="text-align: center;"><i>Euria egin du, kaleak bustiak daude eta.</i></p> <p style="text-align: center;"><i>Denak lotan daude, argirik ez baita ikusten.</i></p>

²⁶ Kontrastu izan, alegiazko azalpen hauetan azalpena dedukzio baten eragile dela. Horrenbestez, errealitatean kausa dena esaldian ondorio gisa ematen dugula.

2.1. Kausal beteak: -eLAKO, ZEREN...BAIT-, ZEREN... -eN, BAIT-

Kausal beteak deitzen ditugunetan, batez ere, -eLAKO atzikiaren bidez osatuak erabiltzen ditugu. Kausal beteak perpaus nagusiko osagai dira, erdigunekoak. Horregatik.

Galdegai izan daitezke, -gehienetan izan ohi diren bezala-, eta horregatik dute duten jokabide berezia aginteraren, ezetzapenaren eta galderaren aurrean.

Perpaus barneko osagaiak direlako, beste perpaus menderatu baten atal izan daitezke.

Zenbait predikaturen osagerri gisa ere erabiltzen ditugu: *eskerrak eman, poztu, haserretu, gaizki esaka jardun...* moduko predikatuekin, hain zuzen.

Elkarrizketetan *zergatik* galderari erantzuteko erabiltzen dugun forma nagusia berau dugu, perpaus nagusia aditzera eman beharrik gabe.

Hala ere, perpausean zehar mugi daitezke: hasieran eman ditzakegu, tartekatuak ere joan daitezke eta perpaus amaieran ere ikusiko ditugu maiz.

Eta galdegai ez direnean eta galdegaigunean ez doazenean, ematen du gulxienez halako kontraste bat markatuz erabiltzen direla.

ZEREN...BAIT-, ZEREN... -eN ere baliagarri izan daitezke kausal beteak aditzera emateko. Autore zaharrek behintzat hala darabiltzate. Maiz -eLAKO-ren bidez ordezkia daitezke.

BAIT- soila ere zenbait predikaturen osagarri izan liteke, -eLAKO bezala, hain zuzen. Perpaus horien kausazkotasuna berezia da, nolana ere, baina argi dago, perpaus barneko osagai direla. Izan ere, *BAIT-*en erabilera oso zabala da.

2.2. Azalpenak emateko bideak

Esaldi batean azalpena ematen dugunean, kausa eragilearen eta ondorioaren artean etena gertalzen da: zerbait esaten du hiztunak lehenbizi, eta, ondoren, azalpena ematen du. edo alderantziz, lehenbizi *azalpena* ematen da (solaskideek nolabait ezaguna dutena eta partekatzen dutena) eta gero *ondorioa*.

Hiztunak ematen duen azalpen horrek, maiz, ez du perpaus nagusiko predikatu esplizituarekin zerikusirik, perpaus nagusi horretan implizitu dagoen predikatuarekin baizik. Hori da, adibidez, aginterazko perpaus baten ondoren azalpena ematen dugunean gertatzen dena.

Sail honetan sartu behar dira *alegiatzko azalpenak* deituko ditugunak ere. Hauek dedukzio baten azalpenak dira.

BAIT- aurritzia, *ETA* enklitikoa, *ZEREN...* (*BAIT/-eN*)

Euskaldun askoren ahotan, -eLAKO-k beste esalmoldeei alorra jan diela ematen du eta azalpen garbietan ere -eLAKO entzuten da. Baina esaten denaren arrazoi baino areago esatearen beraren edo zerbait esateko

eskaintzen dugun arrazoa denean behintzat, **-eLAKO**-k ez dirudi oso ixurazko. Are gutxiago azalpen hori hiztunak atera duen ondorio bati badagokio, hots: alegiazko azalpen deitu ditugunetan. Orduan behintzat askoz naturalago sentitzen ditugu **BAIT-** aurritziaz osatutako perpausak edo **ETA** enklitikoa dutenak edo **ZEREN ... (BAIT-)** modukoak **-eLAKO**-dunak baino:

- (4) a. Ez dago inor etxean, argirik ez {???dagoelako / baitago / dago eta}.
- b. Zer apuntu da? Lurrean kristal zaliak {???daudelako / baitaude / daude eta}.
- c. Egia da, neuk ikusi {?dudalako/baitu/dut eta}.
- d. Ezetza jaso du, zeren kopetilun {dator/baitator}.

Normalean perpaus nagusiaren eskuinean kokatzen dira, baina beste egongune balzuk ere onartzen dituzte (perpaus hasieran, tarlekatuta, ...).

-eNEZ (GERO), NOLA ... -eN/BAIT-, -eN LEGEZ:

Hauek denborazko eta modu- konparaziozko perpausekin zerikusi garbia dute eta maiz ez da argi ikusten mota bateko ala besteko diren.

Normalki perpaus nagusiaren ezker aldean kokatzen dira baina bestelako egonguneak ere onartzen dituzte.

Perpausok beti azalpenezkoak dira.

Ez dira galdegai izaten, minlagai baizik: beti informazio ezaguna biltzen dute, baina solaskideen artean erdibanatua, nolabait. Horregatik, **ZERGATIK** galderari erantzuteko ez dute balio perpaus hauek. Arrazoi horregatik, "ertzeko" kausaltzat hartuko ditugu beti:

ZERGATIK (EZEN) ... -eN.

Hauek ahozko hizkeran oso erabiliak dira.

Egongune ohikoa perpaus nagusiaren eskuinaldea dute.

Azalpenak emateko baliatzen ditugu. Hala ere, zenbait autorek kausazko beteak emateko ere erabiltzen dituzte.

Maiz **ZERGATIK** soila erabiltzen dugu, lokailu gisa, alegia:

EZEN ... (BAIT- / -eN).

Betiere azalpenak emateko baliatzen dugu.

EZEN soila lokailua da.

5. KONTZESIO PERPAUSAK

5.1. SARRERA

5.1.1. Kontzesio perpausak zer diren

Mendeko perpaus multzo zabal bat izendatzeko erabiliko dugu *kontzesio perpausak* deitura. Hala izendatuko ditugu orain arteko euskal gramatika gehienetan *perpaus kontzesibo* deituraren pean sailkatu izan direnak (zenbaitetan (*h*)*alandagutzizkoak* izena ere harlu izan dute).

Perpaus multzo zabala dela diogu; izan ere, kapitulu honetan ikusiko dugu, euskaraz egitura asko ditugu menderakuntzaren barruan kontzesio balioa adierazteko.

Kontzesio perpausen ikuspegi orokor bat emateko, ekar ditzagun hona lehenik eta behin adibide batzuk:

- (1)
- a. *Nahiz bizkarreko mina duen*, kirola egitera joan da.
 - b. *Nahiz eta gaixorik egon*, lanera joan da.
 - c. *Argentinara joan da oportelara*, *dirunik ez duen arren*.
 - d. *Txiroak izan arren*, zoriontsu bizi dira gure lagunak.
 - e. *Mila aldiz gauza bera errepikatuagatik*, berdin jarraitzen du Anek.
 - f. *Betebehar asko baditu ere*, beti aurkitzen du tarteren bat lagunentzat.
 - g. *Negu gorria izanik ere*, alkandora hutsean dabil Ifaki.
 - h. *Loteria egokituz gero ere*, ez lizateke zoriontsu izango.
 - i. *Hotz handia egiten du*, *abuztua da baina*.
 - j. *Gaztea delarik*, arazo fisiko handiak ditu.
 - k. *Nahi ez nuelarik ere*, lan horretan hasi nintzen.
 - l. *Bihotz onekoa zela ere*, haserrekorra zen gure gaztetako irakaslea.
 - m. *Zuek*, *hain azkarrek zaretela*, nire laguntza behar duzue edozertarako.
 - n. *Datorrena datorrela*, nire etxeko ateak irekiak izango ditu.
 - o. *Zemahi gerta dadin gure artean*, lagunak izaten jarraituko dugu.
 - p. *Edozein ikasketa egin dezan*, kostako zaio lana aurkitzea.
 - q. *Zein ere luze eta handi zaren*, ez nauzu kikilduko.

r Zermahi gertatzen dela, zu ez mugitu nire ondotik.

Goiko perpaus horietan letra etzanez eman ditugu mendeko perpausak, hau da, menderagailua duten aditzen inguruan osatutako perpausak; ikusten denez, era askotako menderagailuak erabil daitezke menderakuntza mota honetan: *-eN*, *-eLA*, *-eLARIK*, *BA-*, subjuntiboa, aditzaren partizipioa, eta abar.

Irakurlea ohartuko zen aditz jokatudunak eta jokatugabea dutenak eman ditugula kontzesio perpaus horien artean. Bi era horietako adizkiak erabiliz egiten dira, egin ere, kontzesio perpausak. Liburuki honetan, ordea, aditz jokatu duten mendekoak bakarrik aztertuko ditugu, eta aditz jokatugabeak hurrengo alerako utzi, nahiz azken hauetaz ere mintzatuko garen, ezinbestean, han eta hemen, kapitulu honetan zehar.

Zertan datza kontzesioa?

Kontzesioaren definizioa emateko, irizpide logiko-semantikoetan oinarritu beharrean gara. Hala egin izan da orain arteko gramatiketan, eta hala egingo dugu guk oraingo honetan ere. Behin esanahiaren arabera definitu ondoren, formaren irizpidera lerratuko gera, eta euskaraz kontzesio-balioa izan lezaketen egituren bereizketa edo azpisailekapena egingo dugu (5.2 atalean eta, batez ere, 5.3an); han esango da nola gauzatzen diren euskaraz kontzesio-erlazioak.

Perpaus hauek definitzeko, esan dezakegu bi erlazio mota daudela:

A.- Batetik, inferentzia-erlazio bat, presuposizio bat: aldez aurretik gizartean oro har edo hiztunaren mundu ikuspegian onizat emandako presuposizioa: p proposiziotik q proposizioa ondorioztatzen dugu edo ondoriozta dezakegu arruntean, eta p'-tik, berriz, q'. Konparazio baterako, norbait gaixorik dagoenean arruntean ondorioztatzen dugu ez dela lanera joango, etxean (ohean) geratuko dela atseden hartzen. Ongi dagoenean, berriz, lanera joaten dela edo joan daitekeela ondorioztatzen dugu. $P \rightarrow q$ (edo $p' \rightarrow q'$) inferentzia edo ondorioztatze-erlazio bat da hori:

B.- Bestetik, aurkaritza-erlazio bat ere bada. Oposizio edo oztopo bat adierazten du mendeko perpausak, perpaus nagusian adierazitakoari egiten zaion oztopo bat. Goian onizat eman dugun erlazioa ($p \rightarrow q$; $p' \rightarrow q'$) trukatzetik sortua da oposizio hori ($p \rightarrow q'$; $p' \rightarrow q$), ondoan azaltzen dugun gisan.

Beraz, p "sasoi betean edo ongi egotea" bada, p' "gaixorik egotea", q "lan egitea" eta q' "ohean geratzea edo atseden hartzea", gizartean onizat ematen den erlazioa honako hau litzateke kasu honetan:

p	Sasoi betean (ongi) dago	\rightarrow	q	lanera joan da.
p'	Gaixorik dago	\rightarrow	q'	ohean geratu da, atseden hartu du.

Bada, aldez aurretik ezarritako inferentzia-erlazio hori trukalzean datza kontzesioa.

p'	Gaixorik dago	\rightarrow	q	lanera joan da.
p	Sasoi betean (ongi) dago	\rightarrow	q'	ohean geratu da, atseden hartu du.

Era honetara sortzen dira kontzesio perpausak:

- (2) Gaixorik badago ere, lanera joan da ($p' \rightarrow q$).
- (3) Sasoi betean dagoen arren, ohean geratu da ($p \rightarrow q'$).

Goian esan dugu gizarlean ontzat ematen den uste bat haustea dela kontzesioa; alabaina, gizarlean ez ezik hiztunaren mundu ikuskeran ere ontzat eman daitekeen egoera edo uste bat ere hautsi daiteke kontzesioan. Adibidez, zenbait hiztuni bitxi samarra gerta badakioke ere, beste zenbaiten kasuan zentzuz bete litzateke honako perpaus hau:

- (4) *Aberatsa den arren, zoriotsu bizi da.*

Kasu honetan, perpaus hori esan duenak uste du aberatsak ez direla zoriotsu bizi, duten dirutzak arazoak besterik ez dizkiela sortzen; presuposizio hori aldatuz, kasu honetako aberatsa aberats guztien egoera orokorretik aldenitzen da, eta zoriotsu bizi dela esaten du, diru gutxiago duten balzuk bezalatsu.

Edozein kasutan ere, mendeko perpausak adierazten duen oztopoa edo aurkaritza ez da nahikoa izaten perpaus nagusian adierazten dena galarazteko: beti betetzen da perpaus nagusian esaten dena:

- (5) *Txiroa den arren, dirua ematen die eskaleei.*
(6) *Kalean uso bada ere, etxean otso da.*
(7) *Ezagutu zaitut, nahiz ez zintundan behin ere ikhusi* (F. Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 134).
(8) *Nahiz eskale arropan den, eta nahiz haren zaldia larreko hobia den bidetako baino, Jaun handi baten itxura khausitzen diot* (ibid., 142).
(9) *Zerua bera ilhun da, nahiz ez den lanhorik* (J. Etchepare, *Benbitez*, 90).

Hauetan, letra elzanean markatu dugun mendeko perpausaren esaten dena gorabehera, perpaus nagusiko aditzaren ekintza bete egiten da: oztopoko oztopo, "eskaleei dirua ematen die", "etxean otso da", "ezagutu zaitut", "Jaun handi baten itxura du" eta "zerua ilun da".

Nolanahi ere, mendeko perpausak adierazten duen aurkaritzak ez du nahitaz gogorra izan beharrik: goragoko adibidean, esate baterako:

- (2) *Gaixorik badago ere, lanera joan da*

oposizio gogor samarra dago gaixorik egotearen eta lanera joatearen artean, benetako oposizioa, esango genuke. Beste balzuetan, ordea, oposizioa ez da hain bortitza mendekoaren eta nagusiaren artean; aurkaritza-erlazioa ahulagoa da:

- (10) *Andaluzian izan naizen arren, ez zaitut bisitatu.*
(11) *Aste honetan Donostiara joan banaiz ere, ez dut Kontxako badia ikusi.*

Ez dago benetako oposiziorik Andaluzian izatearen eta laguna bisitalzearen artean, ez eta Donostiera joatearen eta Kontxako badia ez ikustearen artean ere, nahiz eta bi perpausak aurkaritza-formarekin ematea erabaki dugun. Presuposizio kontua litzateke: alde zuzenetik zerbait suposatzen dugu. Uste edo presuposizio hori kasu bakoitzeko testuinguruak ezartzen du: baliteke uste izatea Andaluzian izaten naizen bakoitzean edo gehienetan hango laguna bisitatu behar dudala, edo behin Andaluziara noala, han bizi den laguna bisitatuko dudala; era berean, Donostiara joaten naizen bakoitzean Kontxako badia ikusi behar dudala uste izan dezaket, edo Donostiara joanez gero

Kontxako badia ikusten dela. Hor oinarrituko litzateke kontzesio-balioa, presuposizio horietan, edo, hobeto esateko, kasuan kasuko presuposizio horiek haustean.

Beste batzuetan, are ahulagoak diren aurkaritza-erlazioak aurkitzen ditugu perpaus mendekoaren eta nagusiaren artean:

(12) *Atavesek partida galdu egin badu ere*, Osasunak irabazi egin du.

Ez dago inongo oposiziorik bataren eta bestearen artean; lasai asko adieraz genezake hori juntaduraren bitartez:

(13) *Atavesek partida galdu egin du, eta* Osasunak irabazi.

Menderakuntza aukeratu badugu (12. adibidea), ez da izan noski Alavesek galtzen duen bakoitzean Osasunak ere galdu egiten duela uste dugulako (hori litzateke benetako kontzesioa: $p \rightarrow q$ erlazioa $p \rightarrow q'$ bilakatzea). Hori adierazi nahi ez badugu, egokitasunaren mugan legoke adibide hori. Esan nahiko litzatekeena, ordea, badirudi honelako zerbait dela: "Alavesek galdu egin du, baina lasaiago gera daitezke futboizale euskaldunak, bietako batek behintzat (Osasunak) irabazi egin baitu". Aldaera estilistiko moduan ere uler daiteke.²⁷

Bistan da, bestalde, gauzak aurkezteko modu desberdinak erabiltzen ditugula. Batzuetan kontzesio garbia egiten dugu:

(14) *Etsairik amoratuena etortzen bazait ere*, nire ebeko atak irekiak izango ditu.

Beste batzuetan, ideia bera era zeharkakoagoan ematen dugu:

(15) *Datorrena datorrela*, nire ebeko atak irekiak izango ditu.

(16) *Nomahi etor dadin*, nire ebeko atak irekiak izango ditu.

Kasu hauetan etxeko atak edozeinentzat daudela zabalik adierazten da, baita (hemen dago kontzesio-balioa) horien artean egon daitezkeen (eta aurretik suposatzen ditugun) etsaientzat ere. Hor legoke kontzesio perpausen mota desberdinen artean aukera egiteko gakoetako bat: gauzak nola azaldu edo aurkeztu nahi ditugun.

5.1.2. Bestelako egitura batzuekiko antzekotasuna

Inplikaziozko erlazio batez gain aurkaritza-erlazio bat ere badela esan dugu mendeko kontzesio perpausetan; hala ere, menderakuntzaz gain, badira euskaraz beste egitura balzuk ere aurkaritza adierazteko; kontzesioarekin lotura estua dutenak, gainera.

Balioaren eta formaren aldetik, kontzesio perpausak bestelako mendeko perpaus batzuetatik hurbil samar daudela ere ikusiko dugu.

²⁷ Gaur egun zenbait euskaldunen ahotan dabilen forma bitxi bat aipatu nahi genuke hemen. Ohart gaitzen lehenik arrontak eta sinonimoak diren ondoko bi perpaus hauetan:

(a) *Nahiz* ondo jaurti zuen, ez zuen golik sartu.

(b) Ondo jaurti zuen, *haina* ez zuen golik sartu.

Ondoren datorriguna, ordea, bitxia da, eta ez da egokia, adibidez, a) eta b) adibideetan esaten dena adierazteko (kontzesio erlazioa trukatu egin da):

(c) Ondo jaurti zuen, *nahiz* ez zuen golik sartu.

Mendeko kontzesioaren eta bestelako egitura horien artean dagoen antzekotasuna aztertuko dugu, bada, ondorengo lerrootan. Hasteko, testua antolatzeko erabiltzen diren lokailuekiko antzekotasuna edo hurbiltasuna aipatuko dugu. Horren ondoren, aurkaritzako juntadura eta mendeko perpaus batzuk ekarriko ditugu hona (baldintzazkoak eta beste zenbait adberbio-perpaus).

5.1.2.1. Aurkaritzako lokailuak

Mendeko kontzesio perpausaren ordez, *EGLU III (Lokailuak)* liburuan (93.-133. or. eta hh.) aztertu genituen aurkaritzako lokailuak erabil daitezke (*hala ere, badarik ere, hargatik, orde...*); bi perpaus beregainen arteko oposiziozko lotura eginez, alegia. Ekar ditzagun hona (1) adibide sortako perpaus batzuk:

- (1a) *Nahiz bizkarreko mina duen*, kirola egitera joan da.
- (1c) *Argentinara joan da oporretara, dirurik ez duen arren*.
- (1f) *Betebehar asko baditu ere*, beti aurkitzen du tarteren bat lagunentzat.

Horiek aurkezteko beste modu bat honako hau litzateke:

- (1a') *Bizkarreko mina du; hala ere*, kirola egitera joan da.
- (1c') *Dirurik ez du; alabaina*, Argentinara joan da.
- (1f') *Betebehar asko ditu. Beti aurkitzen du, hargatik*, tarteren bat lagunentzat.

Erlazio baten berri emateko, egitura sintaktiko bat baino gehiago erabil daitezke arruntean. Lehenbiziko mulzoan (1a-f) menderakuntzaz baliatu gara (*NAHIZ ... -eN, -eN ARREN, BA-... ERE* menderagailuen bitartez txertatu ditugu mendeko perpausak nagusien barruan); bigarren mulzokoetan perpaus beregainak erabili ditugu, eta horiek semantikoki elkarri lotzeko, testu-mailako loturako elementuak baliatu ditugu, lokailuak (*hala ere, alabaina, hargatik*). Azken hauetan, bigarren perpausaren kokatzen da lokailua, menderakuntza (kontzesio perpausa) erabili izan bagenu perpaus nagusia litzatekeenean, alegia.

Bestalde, lokailuen eta menderagailuen bateragarritasunaren erakusgarri ditugu literatura-tradizioko perpaus hauek:

- (17) *Nahiz hertsia den*, baituke *ordean* eremu puska bat *halere* (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak errepublikan*, 45).
- (18) Geroztik jakin diat emazteki horrek, beharri baletik harturik, merezi nuen bezala, herrestan, elizako althe handienetik kanpoan ezarri ninduela eta, *nahiz* eliza ez zen oraino yondez bethea, meza ez zelakotz hasia, izan zuen *halere* yenderik aski nere sekulako ahalkarazteko (J. B. Elissamburu, *Piarrés Adame*, 24).
- (19) Emazteki horrek, *nahiz* ez zen adinaren primaderan, erran nahi da gazte-gaztea, bazuen segurki *halere* kanpoz behar den bezenbat grazia gizon bati buruaren izul-arazteko, eta aski zen aditzea yakiteko berehala barnez, bihotzez ere hoberenetarik zela (Ibid., 32).
- (20) Zure bakearen izateak edo ez izateak ez du egon behar gizonen errankizunetan; ezen *nahiz* iendeak zulaz mintzat *ditezen* ungi edo gaizki, elzara *hargatik* zarenetik berze bat (M. Chourio, *Imitacionea*, 233).
- (21) *Nahiz* gaba zen, *halarik ere* Apez Handiaren etxe hartarat bilduak ziren populuko aintzindariak (B. Joannateguy, *Sainduen Bizitza*, 28).
- (22) *Nahiz* hekien mintzaiak ez *ditezken* berdinak, *halarik ere* biak elkarren heinekoak dire, direlakotz bada Europa guziko zaharrenak (J. P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunen eguna*, 36).

Kasu hauetan mendeko kontzesio perpausak ditugu, baina, horretaz gainera, perpaus nagusian aurkaritzako lokailua agertzen zaigu; lehendabiziko baliabidea (menderakuntza) nahikoa indartsua (edo argia) iruditu ez, eta bigarrenaren (lokailuaren) bidez indartu nahi da, nonbait, bi proposizioen arteko aurkaritza-erlazioa.²⁸

Aurkaritza gailuen metatze hori nahiko arrunta dela ikusiko dugu geroago kontzesio perpausetan.

5.1.2.2. Aurkaritzako juntadura

Juntadurarekin ere badu zerikusia kontzesiozko menderakuntzak; batez ere aurkaritzakoarekin. Eman ere, berdintsu eman daiteke aurkaritza-erlazioaren berri koordinazioaren (juntaduraren) bidez ere. Ikus *EGLU IV* (183. or.):

- (23) Gaixo dagoen *aren*, kalera irten da (MENDERAKUNTZA).
- (24) Gaixo dago, *baina* kalera irten da (JUNTADURA).
- (25) *Nahiz* xentimorik ez duen, ardolarako beti izaten du zerbait (MENDERAKUNTZA).
- (26) Xentimorik ez du, *baina* ardolarako beti izaten du zerbait (JUNTADURA).

Bi egituren arteko erlazioa hain estua izaki, ez da harrizkoa aurkaritzako juntadura izatea kontzesio-egituretako baten jatorria ere (ikus *EGLU IV*, 215):

- (24) Gaixo dago, *baina* kalera irten da (JUNTADURA) →
- (24') Gaixo dago-baina, kalera irten da (MENDERAKUNTZA) →
- (24'') Kalera irten da, gaixo dago-baina (MENDERAKUNTZA).

Azken finean [A, *baina* B] egitura trukatu egin dugu, eta [B, A-*baina*] bihurtu dugu. Bi egituren arteko antzekotasun logikoaren lekuko da *baina*-ren erabilera bikoitz hori: juntagailu-erabilera eta menderagailu-erabilera.

Hona hemen, *baina* kontzesiozko menderagailu gisa darabilten autore batzuk:

- (27) Kosta yatan *baña*, azkenian oratu neubian belarrietatik txarrikume loditxuenari (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 253).
- (28) Arrapaladari emon neubian *baña*, alperrik izan zoen (Ibidem, 253).
- (29) Kosta jak *baña*, azkenean asmatu dok biziera bardinbako bat (Ibid., 52).
- (30) Ta Txinpasek abots txarra eukiko eban *baña*, biotz bat ipinten eban kantuan biotz bat (Ibid., 79).
- (31) Bai; ondo be be-dakit zoro-ergelak ifloren atsegingarri ta jolasgarri ixaten dirana, etxekuentzat ondo negargarri ixaten dira, *baña* (Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 162).
- (32) Marikontze eskallu, txaxkala, eskel, petralari la zuri, biori, arpegiko narrua kenduko deusuet nik, neure atzamarrakaz, lodia daukazue *baña* (D. Aguirre, *Kresala*, 68).
- (33) Igarri barik erne ta asi jakon maitetasun ori, *baña* mingostasuna barruan ondo ezagutu barik etxakon joango, ifioz kanpotik ezeutsan igarriko *baña* (Ibid., 75).

²⁸ Gauza hertsua gertatzen da juntagailuekin ere: hauei ere gehitu ohi zale lokailu bat (ikus *Lokailuak*) liburukian, 27. orrialdean).

Beraz, aurkaritzako juntadurarekin harreman estua duela esan dezakegu kontzesiozko menderakuntzak. Ez da, ordea, juntadura mota horrekin bakarrik gertatzen hori; neurri bikiagoan bada ere, emendiozko juntaduraz ere balia gaitzke kontzesio-erlazioa adierazteko:

- (34) Gaixo dagoen arren, kalera irten da.
- (35) Euskalduna izanagatik, beti ari da erdaraz.

- (34') Gaixo dago, eta kalera irten da.
- (35') Euskalduna da, eta beti ari da erdaraz.

Ez da dudarik (34') eta (35') adibideetan, juntadura bidez eman ditugunetan, badela kontzesio perpausetan den presuposizioa, gero hautsi egin dena. Alde horretatik kontzesio-balioa ezin uka diezaiekegu. Hala ere, ez zaigu iruditzen kontzesiozko mendekoan eta aurkaritzako juntaduran ezartzen den oposizioa bezain indartsua denik emendiozkoaren bidez egindakoa.

Bastalde, ikusi dugu aurkaritzako juntadura duela jatorri kontzesio mota batak, *baina* enklitikodunak. *Eta* juntagailuarekin ere gertatzen da horren antzeko klitizazioa eta perpaus mendeko bihurtzea, baina kasu honetan ez du kontzasio-balioa hartzen mendeko perpausak:

- (36) Gaixo dago, eta kalera irten da JUNTADURA →
- (37) Gaixo dago-eta, kalera irten da (??) MENDERAKUNTZA →
- (38) Kalera irten da, gaixo dago-eta (??) MENDERAKUNTZA.

Kasu honetan mendeko perpaus bat sortu dugu, baina, eta klitiko bihurtuz gertatzen den guztietan bezala, kausazko balioa duena. Horregatik, arraro samarrak gertatuko zaizkigu, jatorriz kontzesio- edo aurkaritza-erlazioa izanik, kausazko balioa hartzen duten (37) eta (38) adibideak; baldin eta ez badugu pentsatzen behintzat kalera botika bila irten dela (kasu horretan (36) adibidean ere ez legoke aurkaritza-erlaziorik, kausa-ondoriozkoa baizik). Argiago ikusiko dugu operazio honen desegokitasuna gorago aipatu dugun beste adibide bat berreskuratzen badugu:

- (39) Euskalduna da, eta beti ari da erdaraz JUNTADURA →
- (40) Euskalduna da-eta, beti ari da erdaraz (??) MENDERAKUNTZA →
- (41) Beti ari da erdaraz, euskalduna da-eta (??) MENDERAKUNTZA.

Juntadurako bi osagaien artean kausa-ondorio erlazioa dagoenean litzateke egokia *eta*-ren enklitizazio-operazio hori. Adibidez:

- (42) Loteria egokitu zait, eta lana uztera noa JUNTADURA →
- (43) Loteria egokitu zait-eta, lana uztera noa MENDERAKUNTZA →
- (44) Lana uztera noa, loteria egokitu zait-eta. MENDERAKUNTZA.

(43) eta (44) adibideak, *eta* enklitikodunak, kausazko perpausak dira; *baina* enklitikodunak, berriz, (27)-(33)-koak, kontzesiozkoak.

5.1.3. Kontzesio perpausetatik hurbil dauden beste egitura batzuk

5.1.3.1. Baldintza perpausak

Baldintza perpausekin ere, orain arteko gramatiketan esan izan den bezala, badute kontzesio perpausetik harremana. Baldintza perpausetik protasiari *ERE* lokailua gehitzen badiogu eta apodosiaren kontrakoa eman, kontzesio perpaus bihurtuko dugu:

- (45) Langile ona balitz, onartuko lukete lantegian (BALDINTZA).
- (45') Langile ona balitz *ere*, ez lukete onartuko lantegian (KONTZESIOA).
- (46) Gaixorik badago, ez da lantegira joango (BALDINTZA).
- (46') Gaixorik badago *ere*, lantegira joango da (KONTZESIOA).
- (47) Lana gogoz eginez gero, txaloak jasotzen ditu (BALDINTZA).
- (47') Lana gogoz eginez gero *ere*, ez du txalorik jasotzen (KONTZESIOA)

Aurretik genuen presuposizio bati (alferra balitz, ez lukete onartuko lantegian; sasoi onean badago, lantegira joango da; lana gogoz egiten badu, txaloak jasotzen ditu), horren kontrakoa edo beste muturrekoa den baldintza bat gehitzen diogu kontzesio perpausari *ERE*-ren bitartez; gehitu dugun baldintza hori gorabehera, perpaus nagusian adierazitakoa berdin-berdin beteko da:

- (48) [Alferra balitz] eta [(*balita*) langile ona balitz *ere*], ez lukete onartuko lantegian.
- (49) [Sasoi onean badago] eta [gaixorik badago *ere*], lantegira joango da.
- (50) [Lana gogoz gabe eginez gero] eta [gogoz eginez gero *ere*], ez du txalorik jasotzen.

Kontzesioa egiterakoan, lehenbiziko baldintza arruntean ez da eseten, eta gertatzen dena perpaus nagusian adierazitakoari oposizioa egiten diona da.

Hona hemen literaturako adibide batzuk:

- (51) Arratsean urrezkoak *badirudite ere*, ez naute betetzen (M. Larramendi, *San Agustin*, 3).
- (52) Juizijoko egun artian zeruan sartu ez *balira bere*, [...] Jaungoikua ameeiari ez eutsen ibixiko (Fray Bartolome, *Icasiquizunac I*, 16).
- (53) Zaldun batek ezin dezake *bere hitza atzera har*, emakume bati *badio ere eman* (J. Mirande, *Haur besoetakoa*, 33).

Aditz jokatudun baldintzazkoetan nahiz jokatugebetoetan gertatzen da hori, jokatudunetan azkoz ohikoagoa bada ere:

- (54) Asko ikasiz gero ekainean dena gaitutuko dugu (BALDINTZA).
- (55) Asko ikasiz gero *ere*, ez dugu dena gaitutuko ekainean (KONTZESIOA).

Kontzesio perpausetan nolabaiteko baldintza bat dago. Adibide hauek hartzen baldin badiugu:

- (56) *Datorrena datorrela*, nire etxeko ateak irekiak izango ditu.
- (57) *Zemahi gerta dadin gure artean*, lagunak izaten jarraituko dugu.

Horietan esan nahi dena honelako zerbait litzateke: "nire etxeko atea denentzat daude irekiak, baita etsairik sutsuena etortzen bazait ere; hari ere sartzen utziko diot", "berdin zait gure artean zer gertatzen den; gauzarik okerrera gertatzen bada, hala ere, lagunak izaten jarraituko dugu". Baldintza bat jaritzen da, baldintzazko perpausetan bezala, eta esaten dugu berdin zaigula baldintza hori, eta perpaus nagusian adierazitakoa gertatuko dela.

Azken finean, perpaus nagusian adierazten dena galarazteko gauza ez den baldintza bat da kontzesioa neurri batean; galarazte hori gertatzeko, gauzak muturreraino eramaten badira ere aztertzen ari garen perpausetan. Ondorengo perpausean.

(58) Aleri badago, itengo naiz kalera.

kalera irteteko baldintza bat jaritzen ari gara: ateri egotea. Nolabait esanda, kalera ateratzea erraztu dezakeen baldintza bat. Ondorengoan, berriz:

(59) Elurra badago ere, itengo naiz kalera.

kalera irteteko oztopo izan daitekeen baldintza bat ari gara jaritzen, beste muturreko baldintza bat. Oztopoak oztopo, hala ere, kalera aterako naiz.

Baldintzazkoen eta kontzesiozkoen arteko erlazioa hain estua izanik, ez da harriltzekoa batean eta bestean erabiltzen diren aditz motak berberak izatea:

(60) Dirua badut, kontzertura joango naiz.

(60') Dirua badut ere, ez naiz kontzertura joango.

(61) Dirua banu, kontzertura joango nintzateke.

(61') Dirua banu ere, ez nintzateke kontzertura joango.

Baldintzazkoen eta kontzesiozkoen arteko desberdintasuna (*ere*-ren erabilera eta apodosiari buelta emateaz gain) presuposizioan datza. Kontzesiozkoetan hautsi egingo den presuposizioen bat dugun bitartean, baldintzazkoetan ez dago presuposiziorik: protasien esaten dena betetzen bada, apodosikoa ere beteko da, ez dago beste ezelako usterik edo presuposiziorik horien azpian:

(60) Dirua badut, kontzertura joango naiz.

(61) Dirua banu, kontzertura joango nintzateke.

Baldintza errealak izan nahiz alegiazkoa, protasikoa betetzen bada apodosikoa ere beteko dela (edo litzatekeela) bakarrik adierazten dugu baldintzazkoekin; beste ezer ez. Kontzesiozkoetan, ordea:

(60') Dirua badut ere, ez naiz joango kontzertura.

(61') Dirua banu ere, ez nintzateke kontzertura joango.

Bestelako zerbait ere badago, nolabaiteko ustea edo presuposizioa: dirua badut edo banu, kontzertura joango naiz edo nintzateke, hurrenez hurren. Hala ere, ez da presuposizioa betetzen: usteak uste, ez naiz (edo ez nintzateke) kontzertura joango.

5.1.3.2. *Beste zenbait adberbio-perpau (-eLA(RIK), -TUTA, -TURIK...)*

Har dizlagun perpau hauek:

- (62) Mutil koskorra zelarik, asko zekien.
- (63) Ezer ere ez dakielarik, fama handia bereganatu du.
- (64) Nahi ez nuelarik, horretan sartu behar nuelako ustetan abiatu nintzen.
- (65) Gurutze horretan isilik zaudela, hitz egiten didazu.
- (66) Euskal deitura duelarik, ez gaitu gehiegi maite euskaldunok (K. Mitxelena, *Mitxelena-ren Idazlan Hautatuak*, 270).
- (67) Ta zuek, indartsuak zaretela, laguna bear dezute zugatz zirzil bat gurdira jasotzeko (D. Aguirre, *Garoa*, 32).

Batzuetan kontzesio-balioa nahiko argi ikustan da, baina ez beti; balioa argi ikusten ez den horietan, bestelako mendeko perpau batzuen balioekin nahas daitezke. Muga irristakor samarra dago hemen, denborazkoen, moduzkoen eta kontzesiozkoen artean, batez ere azken bien artean. Horregatik, askotan zerbaiten beharra sumatzen da kontzesio-balioa bermatzeko, indartzeko. Horretarako, *ere* lokailua askotan erabili izan da menderagailuari erantsirik:

- (62') Mutil koskorra zelarik *ere*, asko zekien.
- (63') Ezer ere ez dakielarik *ere*, fama handia bereganatu du.
- (64') Nahi ez nuelarik *ere*, sartu behar nuelako ustetan abiatu nintzen (K. Mitxelena, *Mitxelena-ren Idazlan Hautatuak*, 376).
- (65') O Nere Salbadorea. Ta nola Gurutze orretan ixillik zaudela *ere*, itz egiten didazun (A. Cardaberaz, *Egercicioak II*, 48).

Moduzko perpaustzat interpreta litekeenari *ere* gehilzaa da, beraz, kontzesio-balioa ziurtatzeko modu bat.

Goraxeago aipatu duguna izan liteke beste modu bat: perpau nagusian aurkaritzako lokailu bat ematea:

- (62'') Mutil koskorra zelarik, asko zekien *hargatik*.
- (63'') Ezer ere ez dakielarik, fama handia bereganatu du *halere*.

Hona hemen literaturatik bildutako lokailudun adibide batzuk:

- (68) Konzientziak minzatzen usatua *eztelarik*, ezta*ki alabaina* ixilik ere eguiten (P. Axular, *Guero*, 275).
- (69) Zeren haren odola bera orduan isurten *eztelarik*, *badarik ere* Pasionean isuri zen odolaren meritua da, penitentak konfesatokielan largoki bustitzen dituen (S. Pouvreau, *Philotea*, 72).
- (70) Ordea gaitzetik heldu den beheramendua maite *dugularik*, *guzia gatik re* hura ekharri duen gaizkia erremediatu behar dugu on eta zuzenezko diren bidez, guzien gainetik guk egin gaizkia kontuzkoa eta seinatua denean (Ibid., 218).
- (71) Halakoak behar handia dute miduku espiritual on baten eskuetan erorteko; zeren nola bihozko kharmintasun hura baitute sorkuratik, gaitz da hari *garaitzea*, eta berez bekhatu *eztelarik*, baina eskas-makhur bat xoilki *delarik*, *guziarekin ere* perilloa da, zeren, hura dela bide, iujeamendu arinak eta gaizki erranak sartzen eta nausi iarten baitire ariman barrena (Ibid., 342).

Bi baliabideak ere erabil daitezke aurkaritza markatzeko; alegia, *ERE* gehitzea eta perpaus nagusian aurkaritzako lokailua ematea:

- (72) Eta *guztiarekin ere* haur hunela delarik eta dela dakizularik ere, iharduki nahiz zabilza, desira gaixtoz bethea zaude, eztiotu etsaiari barkhatu nahi (P. Axular, *Guero*, 220).

Aurkaritzako juntagailu nagusia (*BAINA*) ere balia dezakegu horretarako:

- (73) Llainkoak athera zaitu ezdeus hartarik zure egitea gatik zaren bezalakoa, zure beharrik etzuelarik, *bainan* bere ontasun hutsaz (S. Pouvreau, *Philotea*, 32).

Edola bestelako itzuli adierazgarriren bat:

- (74) Tobias bere arrebakaz sekula ez zan ondo konpondu. *Hori*, mutil mazala ta borondate onekoa zala (E. Erkiaga, *Irbarrea gaitzen denean*, 114).

Aditz jokatugabearekin ere gauza bera gertalzen da; alegia, *ere* lokailuak lagunduta bermatzen dugula kontzesio-balioa. Adibidez:

- (75) Hainbeste jakinda, ume bat bezala portatzen da batzuetan Joxe.

- (76) Gogoko ez dudala jakinik, egun osoa igarotzen du Unai ni zirikatzen.

Goiko perpaus horiei kontzesio-balioa indartu egiten die *ere* lokailuak:

- (75') Hainbeste jakinda *ere*, ume bat bezala portatzen da batzuetan Joxe.

- (76') Gogoko ez dudala jakinik *ere*, egun osoa igarotzen du Unai ni zirikatzen.

5.2. KONTZESIO PERPAUSEN EZAUGARRI OROKORRAK

Hasieran esan dugu kontzesioa adierazteko euskarak egitura asko dituela: ia era guztietako menderagailuak erabiltzen dira kontzesio perpausetan, bestelako hainbat lokailu, postposizio eta galdetzailerekin konbinatuz.

Kontzesio perpausen kapitulu honelako hirugarren atalean aztertuko ditugu xehekiago egitura horietako bakoitzaren formazko aldaerak, erabilerak eta banaketa geografikoa: egitura bakoitzaren berezko ezaugarriak. Bigarren atal honetan egitura horien aurkezpen orokorra egingo dugu, eta kontzesio perpausak oro har dituzten ezaugarri komunak aipatuko.

5.2.1. Menderagailuak: adibideak

Kontzesio perpausetan ager daitezkeen menderagailuak, eta horiekin batera agertu ohi diren bestelako elementuak (lokailuak, postposizioak, galdetzailuak, izenordainak...) ikusiko ditugu lehenik eta behin taula batean; literatura tradizioko adibide batzuk emango ditugu ondoren egitura bakoitzaren erakusgarri. Argi utzi nahi dugu, nolana ere, taulan agertzen diren molde guztiak ez direla maiztasun berarekin erabiltzen: batzuk oso arruntak eta erabiliak dira; beste batzuk, berriz, askoz ere erabilerari murriztagokoak dira; arkaiko samarrak ere topatuko ditugu, eta baita literatura-kutsu handikoak ere. Lehendabiziko bereizkete bat egin nahian —oinarritzkoa, zalantzarik gabe—, letra lodia erabili dugu molde arruntak seinatzeko.

Horrekin batera, argi utzi nahi dugu ez dituztela maiztasun kontuek bakarrik bereizten molde hauek; erabilerari dagokionez ere, ez dira guztiak berdin

-ELA MENDERAGAILUAREKIN: NAHIZ ... -ELA:

- (81) Eta sarzen badiote (...) polbor gañean bere bonba, *nahiz dela* laur edo bost kintalekoa, polborari sua eman horduko tiratzen du (...) agitz uruti (S. Mendiburu, *Mendibururen idazlan argitaragabeak I*, 255).
- (82) *Nai-beda* anazala abrate bear diak erosi (R. M. Azkue, *Diccionario Vasco-Español-Francés*, *Nai* sarreran).

BA- MENDERAGAILUAREKIN: NAHIZ ETA ... BA-

Molde bitxi samarra da: gutxi erabilia:

- (83) Pagatu bearko didazute bai, *naiz-ta* Briareo erraldoiaren besoak baiño ugariagoak mugitzen *badituzute* ere (P. Berrondo, *Don Kijote Mentsako*, 86).
- (84) Sarritan jarri nozu saminak kendurik, zure irripamiaz biotza pozturik; *naiz-ta baldin banego* urrez gañezturik, zure babesik gabe ez daukat bizirik (B. Enbeita, *Nere apurra*, 265).
- (85) *Naiz-ta* gizon batzuek *ezpadute* ikusi, arek bezela jotzen guk ezifi ikasi (*Euskal Jokeak Bertsotan II*, 162).

B- AGINTERA-FORMEKIN: NAHIZ ... B-

Oso molde bitxia dugu hau ere. Guztiz arkaikoa.

- (86) Pesta, ala da ta, *naiz* ekar beza esanak itsustasuna: zenbat sabelkoi egoten dira noiz etor elizkizuna (Orixe, *Euskaldunak*, 414).
- (87) Jaiki zaitte edo jaiki adi; *naiz izan bedi* gaberdia, andrea, nun den aparía? (*Jan-edanaren bertsoak II*, 52).

5.2.1.2. ARREN postposiziodunak

-EN MENDERAGAILUAREKIN: -EN ARREN

- (88) Asmu hekiek guziak, ez *diren arren* bardinak, oro elkhar iduritsuak dira (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 67).
- (89) Izar *dagon arren*, ilun gorotza da (Onxe, *Olerkiak*, 530).
- (90) Gizon onen izena esan biar dautzuet, berari atsegin izango *etxakon arren*: Julian Abando (Kirikiño, *Abarrak II*, 189).

-ELARIK MENDERAGAILUAREKIN: -ELARIK ARREN

Ez da batere ohikoa: adibide gutxi dira; lapurterazko zenbait autoretan bakarrik:

- (91) Heriotzea hain segura *duzularik arren*, heriotzea hain lazgarri *delarik arren*, ez dakizu ez non, ez noiz, ez nola hilen zaren (A. Baraltziart, *Guiristinoqui bicitzeco eta hiltzeco molda*, 115).
- (92) Humiltasuna hain berthute nezesarioa *delarik arren*, hartaz estimu guti egin duzu (ibid., 218).

5.2.1.3. ERE lokailudunak

-ELA MENDERAGAILUAREKIN: -ELA ERE:

- (93) (...) ta jan-zar *dagola bere*, edateko beti gertu dabillen ezkeru, maskartu ta txaxartu da erime, Nikanor mutil gaztea (E. Erkiaga, *Bazetik bestera*, 174).
- (94) I urkamendian *agoala ere*, Jainkoari bildurrik artzen ez diok (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zar. Ber. condaira*, 461).
- (95) Biak, seglare *zirala ere*, relijiosoen bizitza egin zulenak (A. Carbabarez, *Justuen Ispilua arguia*, 5).

–ELARIK MENDERAGAILUAREKIN: –ELARIK ERE

- (96) *Diyotalarik ere* naitasun bikaña, nere amoriyuak falta du ordaña (Bilinb, *Bertsu ta lan guztiak*, 63).
- (97) Mundu huntan bizi zareño nahi *eztuzularik ere* ganbiakor izanen zare (M. Chourio, *Imitacionea*, 248).

BA– MENDERAGAILUARI LAGUNDUZ: BA–... ERE

- (98) Ahoa nekhatzen *bada-ere*, bihotza ez da nekhatuko (J. Duvoisin, *Liburu ederrea*, 102).
- (99) Bainan ona *bada-ere* nere lehia, handiagoa da oraino nere herbaltasuna (Ibid., 141).
- (100) Orain orrela *bazaude-ere* laster beste moduz ekusiko zaitue (Aguirre Asteasukoa, *Eracuseldiac III*, 512).

5.2.1.4. –GATIK postposiziodunak

–EN MENDERAGAILUAN OINARRITURIK: –ENAGATIK

Oso molde bakana kontzesioa adierazteko: ia ez dago adibiderik *OEH*-ko corpus osoan. Esan beharrik ez dago adizki jokatu-gabearekin dela kontzesioa adierazteko forma arrunta: –*TUAGATIK* ('zuk esanagatik', 'zu etorriagatik', eta abar):

- (101) Baiña har dezaket bigarren bat ere. Zeren oraiño zahar *naizenagatik*, bizi naiteke gehiago ere. Bada azken urthean, hiltzerako aitzinean, falta gabe, falta guztiak erremediatukoit (P. Axular, *Guero*, 130).

5.2.1.5. BAINA enklitikoa dutenak:

- (102) Ori bai-dakil nik nor dan, eztozu esan gura *baña* (Kirikiño, *Abarrak I*, 37).
- (103) Olango gauzarik etxakon ifioiz bere gogoratu, eskabide andiak izan zituan *baña* (D. Aguirre, *Aufhemendiko lorea*, 69).
- (104) Ezegizu ori esan, iauna, adozeifñ euskaldunen aurrean, danak dakie *baña* (Ibid., 135).
- (105) Kosta jak *baña*, azkenean asmatu dok biziera bardinbako bat (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 52).

5.2.1.6. ZERNAHI, EDOZER... izenordain zehaztugabea dutenak

–EN MENDERAGAILUAREKIN: ZERNAHI (ERE) ... –EN:

- (106) *Zernahi ere den*, egiazko misterioa euskararen iraupena da, ez jatorria, (K. Mitxelena, *Euskal Idazlen Guztiak VI*, 33).

- (107) *Zemahi izan dadin, Mediterranea deitzen duten itsasoak hotako erresumarik ez du bere uhartzean, hedoeizko erresumarik ez bertzerik* (J. Etchepare, *Beribilez*, 81).

—eLA menderagailuarekin: ZERNAHI (ERE) ... —eLA:

- (108) *Zer nahi zela, jakinen zuen nola erantzun hori gertatuko balitz!* (J. Mirande, *Haur besoetakoa*, 60).
- (109) *Umikaidu zaitetz nilaz, nomahi zarela ere* (B. Auzaga, *Obabakoak*, 330).
- (110) *Zemahi diogula, bi gauza esaten ditugu, adierazi nahi genukeen bakarraren ordezt* (K. Mixelena, *Mixelenaren idazlan Hautatuak*, 387).
- (111) *Zemahi dela basurdea zen, sanao edo heria* (Xalbador, *Ezin bertzean*, 117).

5.2.1.7. Galdetzaila dutenak: ZEIN ERE, ZENBAT ERE ...

—EN MENDERAGAILUAREKIN: ZEIN (ERE) ... —EN:

- (112) *Zein ere zeran andi la luze, ezlezu iribiko* (M. Larramendi).
- (113) *Eztezazula niholatako mandaturik enzun, zein ere aitzakiagatik nahi den, kasu hortan xoilki ezla perillik deskortez eta moldegaitz izaileaz* (S. Pouvreau, *Philotea*, 305).
- (114) *Baña zein ere andiak liraken irabazle oriek, ez lukee pits bat balioko* (S. Mendiburu, *Mendibururen idazlan argitaragabeak I*, 161).

BAIT— MENDERAGAILUAREKIN: ZEIN (ERE) ... BAIT—:

- (115) *Zenbat flako bai zare ere, zerbitzatu gogo duzun Jainkoak borthiziuko zaitu* (A. Baraciar, *Guinstinoqui bicitzeco eta hiltzeco moldea*, 174).
- (116) *Zein haundi baitire, gu iduriak dira erregeak* (Arotçarena, 190).

5.2.1.8. Banakanitza

—ELA MENDERAGAILUA: —ELA ... —ELA ...

- (117) *Txaala esalen iako edozein beikumeri, dala arra, dala emea* (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 71).
- (118) *Edozein literaturatan, idatzian dela edo ahozkoan, hala gertatzen bada ere* (J. M. Lekuona, *Ahozko euskal literatura*, 24).

IZAN DADIN A, IZAN DADIN B

- (119) *Zeren, zurea balinbada, semea izan dadin, edo izan dadin alaba, ez baitu aitaren egiterik* (J. B. Elisamburu, *Piarnes Adame*, 26).

5.2.1.9. DATORRENA DATORRELA gisakoak: Aditza_i + —eN ... Aditza_i + —eLA.

—ELA MENDERAGAILUAREKIN: —EN (...)JA + KASU MARKA ... —ELA:

- (120) *Datorrena datorrela, baietza emon biotz-eske etorrenari* (E. Erkiaga, *Arranegi*, 61).
- (121) *Ebitlen tokian ebitlela bere bizitza on da garbia erakusgarri andikoa izaten zan, baiña batez bere etxadi baruan* (D. Aguirre, *Auñemendiko lorea*, 143).
- (122) *Baiña dan legezt dala, ba-dirau bere berbeela ak ez lenengoan eban garbilasunaz ...* (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 131).

5.2.1.10. Ø: Kontzesio-gailu berezirik gabeak

–ELA MENDERAGAILUA

Adibide gutxi dira; ez da, dirudienez, kontzesioa adierazteko ohiko moldea:

- (123) Zuen sasoiari aterako nuan nik ipurditik Anbotoko arkaizta bera ere, ta zuek indartsuak zaretela, laguna bear dezute zugatz zirzil bat gurdira jasolteko (D. Aguirre, *Gara*, 32).

–ELARIK MENDERAGAILUA

Adibide gutxi dira hemen ere; hau ere ez da nahitaz kontzesioari lotutako moldea:

- (124) On da gurezat zenbait aldiz kontra erraileak dilugun eta paira delzagun, bai eta gutaz lujeamendu gaixtorik eta makurrik eman dezaten, ongi egiten *dugularik*, eta intenzione onarekin (S. Pouvreau, *Jesusen Imitacionea*, 40).
- (125) Zeren haren odola bera orduan isurien *eztelarik*, badarik ere Pasionean isuri zen odolaren meritua da, penitentak konfesatokieta largoki bustitzen diluena (S. Pouvreau, *Phitolea*, 72).

BAIT– MENDERAGAILUA:

Menderagailu hau ere, huts-hutsean, ez da batere ohikoa kontzesioa adierazteko:

- (126) Hain eri *baizen*, ez zen batere izilu (P. Lafitte, *Grammaire basque*, § 885).
- (127) Hain aspaldi eria *baizen*, halere jin hura gure ikusterat (Ibid., § 771).

–ELAKO MENDERAGAILUA

- (128) Hitz berri gehiegi *dituelako* ez diogu ukatu behar ondo merezio duen txaloe (K. Mitxelena, *Mitxelenaen Idazlan Hautatuak*, 95).

5.2.1.11. Aditz jokatugabea duten moldeak

Aditz jokatugabeekin ere osatzen dira, noski, kontzesio perpausak. Liburu honetako aztergai ez izan arren, adibide batzuk bildu ditugu hona, erakusgarri gisa. Izan ere, sailkapena nahiko desorekatua geratuko litzateke albo batera utziko bagenitu aditz jokatugabea duten moldeak (aditz jokatua dutenak bezain erabiliak leku askotan). Kontzesio mota batzuk, adibidez, ia era jokatugabean bakarrik erabiltzen dira esparru geografiko oso zabaletan.

Molde horietako batzuk aditzoinarene gainean eralzen dira (A); beste batzuk, partizipioarene gainean (B); eta aditz-izenarene gainean, beste zenbait (C). Hona hemen adibide batzuk, oin motaren arabera sailkatuak:

A. ADITZOINEAN OINARRITZEN DIRENAK: ZER + ADITZ ERROA + ERE

- (129) Gain hartan *zer gertha ere*, aifokelatan ezartzen ditut ez dakit zenbat urthe hetan egin ziren Gure Herriaren ager-aldi guziak, eta anda izarrerri buruz (J. Barbier, *Supazter chokoan*, 13).
- (130) *Zer hel ere*, hirugarren athrowa hura han du, harmairuan, xarparen sahetsean (Ibid., 40).

B. ADITZ PARTIZIPIOA (-TU) OINARRI DUTENAK:

-TU ARREN:

- (131) Miñ artu arren, eutsi dio sendo la an gelditu da (A. Barriola, *Goi-Argi*, 25).
- (132) Arrolxo ibilli zarie, baia zeuenak badaruzue, gaztiek eta senduek izan arren (Kiriñño, *Abarrek II*, 13).

NAHIZ ETA ...-TU:

- (133) Nik neure txabolatxu au izlia, *naiz-ta* etxe au zoziez eta zotzez egiña *izan*, basemittarrak bere maltzurkerija iztia baxen gaitz dozu, ene zaldun on (Olxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 114).
- (134) *Naiz-ta* sarilan arantza-miñez lurreko gauzetan *jantzi*, arrantzalean aurrean danok txapela daigun erantzi (B. Enbeita, *Nere apurra*, 150).

-TUAGATIK:

- (135) *Egiñagaitik* Mundu Guztia aratu. Au lako kezperik Baña non billatu? (F. Arrese Beitia, *Ama euskeriaren liburu kantaria*, 89).
- (136) bolara baten *emanagatik* bertako uraren pamak, ardo pixka bat biarrezko du osasun ona daukanak (Uztapide, *Sasoia joan da gero*, 56).

-TUTA ERE:

- (137) Zur egonda *ere* beti zongaitzak arzetaten gaitu (Orixe, *Mireio*, 111).
- (138) Egiñatak eginda *ere*, ezin astoa mogitu (G. Mujica, *Fernando Amezketarra*, 68).

-TURIK ERE:

- (139) Itz laburtxuak izanik *ere*, oriek jakin biar dira noiz ta nola esan (C. Beovide, *Asis-co Loria*, 166).
- (140) Ordun, naski, mutil bat gogo ba nu, beartsu izanik *ere*, maila nezake (Orixe, *Mireio*, 97).

-TUZ GERO ERE:

- (141) Ez nuke nik, ahal izanez *gero ere*, inor joatera behartuko (K. Milxelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 171).
- (142) Eta ondo asmatu *ezkero be*, uste dozu hoge euskeldunetik hemeretzi ezagutzen eztaben berba bat euskerazko berbia dala (Oskillaso, *Kurfoiak*, 118).

C. ADITZ-IZENEAN (-TZE) OINARRITUAK: -T(Z)EKOTZ ERE, -T(Z)EKOTAN ERE:

- (143) Ela (...) etzara hargatik haserretu behar; eta haserretzekoz *ere* zeure buruaren kontra haserretu behar zara, eta ez itsuaren kontra, eta ez koleran dagoenaren *ere* (P. Axular, *Guero*, 206).
- (144) Gaiñera, astekotan *ere*, ez ezkonduarekin asi, plakuak ezpaiditek sekula alarramentu onik ekartzan (Y. Etxaide, *Joanak-joan*, 125).

Goian esan bezala, *EGLU VII* liburukian³⁰ aztertuko ditugu aditz jokatu gabeari duten perpaus hauek.

5.2.2. Kontzesio perpausen funtzioa

Kontzesio perpausa ez da berez aditz nagusi baten edo predikatu baten osagarri, adjunktua baizik. Perpausaren mintzagai-egiturari dagokionez, berriz, mintzagai izan ohi da, adjuntu askorekin gertatzen den bezala: ezin da perpausako galdegai izan. Ezin da, beraz, aditzaren aurrean joan, bien artean -galdegaiaren eta aditzaren artean ohi den bezala- bat *ere* etenik egin gabe:

³⁰ Euskaltzaindia, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-VII (Mendeko perpausak-3)* (prestatzen).

(145) *Pobrea banaiz ere / erosiko dut etxe hori.*

(146) *Etxe hori erosiko dut / pobrea banaiz ere.*

Era horietara ager dakiguke, baina ez beste honetara:

(147) *Etxe hori / pobrea banaiz ere __ erosiko dut /*

Argiago ikusteko, har dezagun aditz sintetikodun adibide bat. Honako hau ezinezkoa litzateke:

(148) **Mutil hori dantzari txarra bada ere __ dabil.*

Kontzesio perpausa ezin da hor ere galdegai izan; horregatik, beste egitura bat eman beharko genuke egokia izateko (letra etzanez markatu dugun beste galdegai batekin):

(149) *Mutil hori dantzari txarra bada ere, badabil.*

(150) *Mutil hori dantzari txarra bada ere, dantzan dabil.*

BA– baiezkoa eta *dantzan* lirateke hor, hurrenez hurren, galdegaiak.

Gauza bera gertatzen da honako adibidearekin ere:

(151) *Pobrea bada ere, zoriotsu bizi da.*

(152) *Zoriotsu bizi da, pobrea bada ere.*

Bi era horietara ager dakiguke, baina ez beste honetara:

(153) **Pobrea bada ere __ bizi da zoriotsu.*

Letra etzanetan doana (kontzesio perpausa) galdegai izanik, alegia.

Kapitulu honetako lehen atalean esan dugu baldintzazko perpausak kontzesio perpaus bilaka zitezkeela. Ez, ordea, baldintzazko edozein perpaus. Goiko adibide hauetan ikusten dugu galdegai diren baldintza perpausak ezin direla kontzesio perpaus bilakatu, azken hauek ezin baitira galdegai izan. Ikus dezagun honako adibide hau:

(154) *Agindutako lana egiten baduzu gaitutako duzu ikasgaia.*

Adibide hau bi eratara uler daiteke:

- a) *Lana egiten baduzu bakarrik gaitutako duzu ikasgaia; egiten ez baduzu, ez duzu gaitutako;*

(155) *Agindutako lana egiten baduzu __ gaitutako duzu ikasgaia.*

- b) *Lana egiten baduzu, gaitutako duzu ikasgaia, baina egiten ez baduzu ere, gerta liteke gaitutzea; azterketa eginez, adibidez:*

(156) *Lana egiten baduzu / gaitutako duzu ikasgaia.*

Lehendabiziko interpretazioan, baldintzazko perpausa galdegai da, eta ez dago etenik haren eta aditzaren artean. Bigarrenean galdegaia aditzaren baiezkotasuna da, eta ez baldintza perpausa. Etena egiten da baldintza perpausaren eta aditzaren artean.

Bada, bigarren interpretazioko baldintza bakarrik bihur daiteke kontzesio perpaus, galdegaia ez dena:

(155') *Agindutako lana egiten baduzu ere ... ez duzu gaudituko ikasgaia.

(156') Agindutako lana egiten baduzu ere / ez duzu gaudituko ikasgaia.

Kontzesiozko askotan gertatzen den bezala, azken adibidean perpausoko gaudegia ezezkotasuna da, inoiz ez kontzesio perpausa.

Askotan, bere mintzagai-izaeraren adierazgarri, komak lagunduta agertuko zaigu kontzesio perpausa. Mendekoa perpaus nagusiaren aurretik doanean (perpaus nagusiaren mintzagai denean), eten bat izaten du ondoren, idatzian koma baten bidez eman ohi dena³¹ (157-159), nagusian tartekatuta doanean koma arlean agertu ohi da (160-161), eta, bukaeran badao, aurretik koma duela (162-164):

AURRETIK:

(157) [Diyotalarik ere naitasun bikafia], nere amoriyuak falta du ordaña (Bilintx, *Bertso ta lan guztiak*, 63).

(158) [Garbiki egeri den arren], hain gare tontoak non bethi huts bera egiten baitugu (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 349).

(159) [Nahiz gaba zen], halarik ere Apez Handiaren ebe hartarat bilduak ziren populuko airtzindariak (B. Joannateguy, *Sainduen Bizitza*, 28).

TARTEKATURIK:

(160) Indarrak tipitzearekin, [nahiz gogoia berdin azkar daukaten eta suhar], bazterzen zeizte auzoak, ez deiete gehiago irabazpiderik emaiten, beren azken sosfoak uste gabelarik jaten dituzte (J. Elchepare, *Buruchkak*, 105).

(161) Asmu hekiek guziak, [ez diren arren bardinak], oro elkhar iduritsuak dira (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 67).

ONDOREN:

(162) Za Orduan egiten edo esaten dituan gauzaz gero batere ez akordatzea edo oroitzea, [besteelan memoria ona duelarik ere] (J. I. Guemico, *Sayaquera*, 60).

(163) Ai nola zu hunen urrun zauden, [dakizun arren Jainkoa zeinen den gozoz bethea] (J. Duvoisin, *Liburu ederria*, 231).

(164) Ameriketarik heldu den xori ongaria oiloarena baino hainitz hazkarrago da, [nahiz bertzelaz berdinduak diren] (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 175).

5.2.3. Kontzesio perpausen kokagunea

Goian esan bezala, perpaus nagusiaren aurretik, ondoren edo hartan tartekatuta agertu ohi da kontzesio perpausa; arruntean, perpaus nagusitik, etenen bidez, ongi bereizita, batez ere mendeko perpausa laburra ez denean.

1.[Kontzesio perpausa] ...]_p

2.[... [Kontzesio perpausa]]_p

3.[... [Kontzesio perpausa] ...]_p

Mendeko perpausaren luze-laburtasunak izan lezake kokalekuarekin zerikusia; adibidez, perpaus nagusian tartekatzen dugunean, arruntean ez da oso luzea izaten perpaus nagusiaren haria etetera datorren kontzesio perpausa.

³¹ Noski, eginura konplexuago baten barruan ez litzateke gauza bera gertatuko: kontzesio perpausari dagokion perpaus "nagusia" bera menderarua balitz, ezin izango genuke koma hori jarri.

Edozein kasutan ere, perpaus nagusiaren tarteko hori ez da kontzesio perpausaren kokagune ohikoena izaten. Gainerako bi kokaguneak dira ohikoena, perpaus nagusiaren aurretik nahiz ondoren. Eta bi horien artean, baldintzazko perpausetan gertatzen denaren antzera, arruntagoa dela esan daiteke mendeko perpausa hasieran ematea (goiko 1. hurrenkera)³², bestearekin konparatuz alde nabarmenik gabe, nolana ere.

Jakina, gerta daiteke kontzesiozko egitura jakin batzuek berazko kokagunea izatea. Adibidez, perpaus nagusiaren aurretik eman ohi dira gehientsuenetan era honetakoak:

- *DATORRENA DATORRELA* gisakoak: ikus (120-122) adibide sorta.
- *ZERNAHI + -eN / -eLA*: ikus (106-107) eta (108-111) adibide sortak.
- *NOR ERE ... BAIT-* gisakoak: ikus (115-116) adibideak.

5.2.4. Kontzesio perpausen barne-hurrenkera

Kontzesio perpausetako elementuen barne-hurrenkerari dagokionez, aditza hainbat lekutan aurki daitekeela esan dezakegu. Zehaztapen batzuk egin nahi genituzke aditzaren kokalekuari buruz:

1. Euskalkien artean, oro har mendebaldekoetan indar gehiago duela ematen du aditza bukaeran emateko joerak; ekialdekoetan aditza mugikorragoa dela dirudi: atzean bezala aurrerago ere joan daiteke.
2. Ekialdean nahiz mendebaldean, aditza oso gutxitan ematen da bukaerako posizioan perpausa (mendekoa) luze samarra denean (barnean beste mendeko perpaus bat duenean –osagarri bat, bereziki–, edota osagai asko edo luzeak dituenean); kontzesio perpausa ezezkoa denean ere arrunt samarra da aditza atzean ez ematea (ezezko partikulak aditza beregana biltzen du eta)³³, aditz nagusiaren eskuinetik doanean bereziki.

Ikus ditzagun, hasteko, aditza mendeko perpausaren azken muturrean duten adibide batzuk:

- (165) [Gabak etxera baño len artu *ninduan arren*], nere barrua argitan nekarren (N. Etxaniz, *Euskal antzerkiak*, 51).
- (166) [Jokaldi batzuelan dirua aruntza ta onuntza ibilli zan *arren*], azkenerako, zaldun gazte beltzeranaren eskuelara jun zan dana (T. Agirre, *Uztaro*, 181).
- (167) Aithor dut biziki egun-argi dela oraino, [*nahiz* iguzkia bere osoan izalía *ditaken*] (J. Etchepare, *Berbilez*, 86).
- (168) Begira ea egin izan dozunez guzurraren ganeko yuramenturik; bada [guzur txikia ta txantxakzkoa *dala bere*], beli da bekatu mortala (P. A. Añibarro, *Escu-Liburua*, 2, 136).

³² Batez ere egitura konplexuetan, kontzesio perpausaren perpaus nagusia beza menderatua denean.

³³ Bereizketa bat egin nahi dugu, hala ere, egitura biren artean: bitxiagoa gertatzen da *halakoetan ezezko perpausetan -eN ARREN* menderagailua kontzesio perpausaren aurrealdera ekartzea, *NAHIZ -eN* ekartzea baino:

(a) Etxera noa [*nahiz ez den* oraindik umeak oheratzeko ordua]

(b) Etxera noa [*ez den arren* oraindik umeak oheratzeko ordua] (??)

- (169) Zure bihotz oroz nahi duzu nere salbamendua, bada nik-ere nahi dut, eta [mundo guztia *galduko badut-ere*], horrekin atara behar naiz garaitiar (J. Duvoisin, *Liburu Ederra*, 57).

Lehenago esan dugun bezala, ez da halakorik gertatzen zenbait kasu jakinetan, (iparraldean hegoaldean baino errazxeago). Horietako bat dugu kontzesio perpausaren mendeko perpaus osagarri bat bertalzen den kasua; kasu horretan ez ohi da joan bukaeran kontzesio perpausara aditza:

- (170) Ezen askolan gertatuko zaie jende prestuei arratsean ez kausitzea egun hartan bekhaluketarik egin dutela, bederen ezagutza osorekin, gainerakoan [segur *den arren* guziak ere, erdi oharkabeen bederen, asko huts egiten dugula egun oroz, jaundone Jakua apostoluak dioen bezala] (M. Duhalde, *Meditaciones*, 56).
- (171) Gauza bera galdetuko du bere izeneko seinduaren bestako, eta bere bathajoko egunekolzat, [hobe *den arren* bere bathajoko egunean kofesatzea, arima arras garbiturik, bera bathajoko promesak ereberritzeko] (Ibid., 61).
- (172) Ai nola zu hunen urrun zauden, [*dakizun arren* Jainkoa zeinen den gozoz bethea] (J. Duvoisin, *Liburu ederra*, 231).

Halaber, kontzesio perpausa beste arrazoi batzuentzat denean luzea:

- (173) Eta halarik ere han berean egotu zen, [*nahiz bazuen* egun guziz penitentzia bat hainitz pairarazten ziona: bethi eta bethi jendez inguratua izatea] (B. Joannateguy, *Sainduen Bizitza*, 86).
- (174) Eta [*nahiz* haurra *eremana zen* jadanik, harri ukhaldiaren bidea baino urrunago], Maorek elzuen konturik eman non zabilan, bainan laster egin zuen harren gana heldu arte (Ibid., 104).
- (175) Ordean gure buruezko ezfidantzia hau, [*den arren* Zeruko dohañ bat, Jainkoak bere maitteei ematen daroena, balzuetan bere inspirazione sañduez, bertze balzuetan nahi gabe dorphenez, orai tentazione hurren ezif garaituzkoez, gero kanporatzen ez diren, bertze moienez]; *halaere* nahi du, ezfidantzia hau izaleko, egin ahal gauza guziak gure partetik egin delzagun (J. Haraneder, *Gudu izpituata*, 40).

Azken adibide honetan, mendeko perpausa hain luzea izanik, perpaus osoaren haria galtzeko beldurrez-edo, kontzesio edo aurkaritza-balioa berreskuratu nahi izan du autoreak, letra etzanez markatu dugun **HALA ERE** aurkaritza lokailuaren bitartez.

Ezeko perpausetan ere, lehen esan dugun bezala, ohikoa da aditza mendeko perpausaren aurrealdean kokatzea, gehiagotan iparraldeko testuetan eta baita **NAHIZ** —*EN* menderagailuaren kasuan —*EN ARREN* menderagailuaren kasuan baino:

- (176) Hezean progotxa ahal baino denean, idorraz daite, [*nahiz ez den* orduan hain on] (J. Duvoisin, *Laborantzako liburu*, 95).
- (177) Zerua bera ilhun da, [*nahiz ez den* lanhorik] (J. Etchepare, *Berbitel*, 90).
- (178) Izurritea sartzen denean herri batean, [*ez dituen arren* hil-arazten guziak], bai-bedera beldur da bere buruarentzat (B. Larreguy, *Testament zaharr. berr. historia*, II, 239).

5.2.5. ERE lokailuaren garrantzia kontzesio perpausetan

5.2.5.1. ERE kontzesio perpausetan

Kontzesio perpaus mota gehienek ezaugarri komunetako bat da **ERE** lokailua eramatea. Kontzesiozkoen molde gehientsuenetan aurki dezakegu lokailu hori;

kontzesio-balioa adierazteko duen garrantzia erakusten du horrek; batzuetan hark ematen die kontzesio-balioa perpausei, nahitaezkoa izaten da kontzesio perpausa osatzeko (adibidez, *BA-... ERE, -TUTA ERE, -TUZ GERO ERE* egituretan). Beste batzuetan badirudi kontzesio-balioa indartzeko edo ziurtatzeko erabiltzen dela; alegia, *ERE*-rik gabe okerra izan gabe ere, kontzesio-balioa erabat bermatuko lukeen *ERE* lokailua erabiltzen da (*-eLA ERE, -eLARIK ERE*, esate baterako). Beste batzuetan, azkenik, *ERE*-ren erabilera zalantzagarrria izaten da, lokailu horren gehiegizko erabilera gertatzen da, erredundantzia (*-eN ARREN ERE*, adibidez).

Lokailu honi esker, agerian geratzen dira kontzesio perpausen bi ezaugarri:

- Emendioa
- Presuposizioa

Egoera jakin bati (dela baldintza, dela modua) beste egoera edo baldintza bat eranstean zaio *-emendioa-*, arruntean beste muturrekoa, eta erantsitako egoera hori gorabehera, aurretik suposatutako ondorioe *-presuposizioa-* ez da betetzen.

Hori guztia *ERE* lokailuaren ezaugarri batetik dator; emendio hutsa egiteko ez ezik, beste zerbaitearako ere balio du lokailu honek; emendio hori egiten dugunean enfasia edo indar berezia emateko perpausari. Beste era batera esanda, *ERE* daraman egitura batek bi esanahi izan ditzake, egoera bakoitzaren arabera interpreta daitezkeenak:

- Emendio hutsa egiten dugu.
- Interpretazio enfatikoa.

Bigarren interpretazio honetan ikusten dugu *ERE*-ren ezaugarri berezi hori; ondoren *ERE* daraman edozein sintagmak edo perpausak kontzesio-balioa izan dezake, testuinguru jakin batean. Adibidez, perpaus hau hartzen badugu:

(179) Hori Mikelek ere egin dezake.

Emendio hutsa izan daiteke (beste norbaitek bai, baina Mikelek ere bai) edo balio enfatikoa izan dezake: hain erraza izanik, adibidez, Mikelek ere, bere eskasean, egin dezakeen gauza da. Hori bezalako egitura bat genuke ondokoa:

(180) Den pertsonarik iraketsenak ere egin dezake horrelako lan ederra.

Kontzesio-balioa luke betiere lehen atalean aipatu ditugun baldintzak betetzen badira: adilzean adierazten den ekinlza gertatzeko oztopoa adierazi behar da; ezinezkoa baita honako perpaus hau:

(181) *Den pertsonarik iraketsenak ere egin dezake horrelako lan ederra.

Dakartzagun hona, bada, *ERE* lokailua izan dezaketen kontzesio-egiturak:

a) *ERE* dutenak:

<i>ba-... ere</i>	<i>nomahi ere -en</i>	<i>-tzekotan ere</i>
<i>-ela ere</i>	<i>-tuz ber ere</i>	<i>-tzekotz ere</i>
<i>-elarik ere</i>	<i>-tuta ere</i>	<i>zer gerta ere</i>
<i>nor ere bait-</i>	<i>-tunk ere</i>	

b) Erredundanteak:

- en arren ere
- tuagatik ere

5.2.5.2. ERE aurkaritzako lokailuetan

Lehenengo atalean harremanetan jarri ditugu kontzesio perpausen bidezko menderakuntza eta aurkaritzako lokailuak erabiliz egiten den lotura. Formari dagokionez ere badute antzekotasun handia bi molde horiek. Aurkaritza adierazten duten lokailuekin kontzesiozkoetan gertatzen den gauza bertsua gertatzen da; horietan ere ERE lokailua erruz erabiltzen da. Moduzko zenbait adberbiori (kontzesio perpausetan, besteak beste, moduzko *perpausak* genituen) ERE lokailua gehitzen zaie aurkaritzako lokailu bihurtzeko. Funtsean gauza bera adierazteko bi modu lirateke: menderakuntzaren kasuan perpausen bidez (jokatuak nahiz jokatugabeak), eta aurkaritzako lokailuen kasuan, askotan perpaus horiek ordezkaltzen dituzten elementu anaforikoen bidez. Guztiei (perpauzei eta anaforei) ERE erantsiz lortuko dugu balio bera, bai perpausetan, eta bai hari erreferentzia egiten dion anaforan, esaten denetik ateratzen dugun ondorioaren kontrakoa adieraziz, perpaus nagusian eta lokailu bidez lotutako perpausetatik bigarreanean, hurrenez hurren:

Diru asko irabazten du → Perpausa

[Diru asko irabazten duelarik]_p ere, ez da zoriontsua.

[Diru asko irabazita]_p ere, ez da zoriontsua.

Hala → Adberbioa (aurreko perpausari erreferentzia egiten diona).

Diru asko irabazten du. [Hala (= diru asko irabazita)]_{Adb} ere, ez da zoriontsua.

Kontzesiozko moldeetan egin dugun sailkapenaren antzekoa egin dezakegu, hortaz, lokailuen kasuan ere; elementu komuna ERE lokailua da, aztertzen ari garen balioan hain garrantzitsua dena:

a) ERE duten aurkaritza lokailuak:

<i>hala ere</i>	<i>hala eta guztiz ere</i>	<i>guztiarekin ere</i>
<i>halarik ere</i>	<i>nolanahi ere</i>	<i>badarik ere</i>
<i>halaz ere</i>	<i>edozein kasutan ere</i>	<i>horratik ere</i>
<i>halata ere</i>	<i>edonola ere</i>	

b) Erredundanteak direnak:

- dena dela ere*
- dena den ere*

Halaber, aurkaritzako lokailuen eta kontzesio perpausen arteko harreman estuaren berri ematen digute jatorriz kontzesio perpausak ziren zenbait lokailu aurkaritzakok ere: kontzesio molde batzuk lexikalizatu, eta aurkaritzako lokailu bihurtu dira; *EGLU* //n –lokailuak aztertu genituen liburukian– aztertu genituen,

besteak beste, honako hauek: *DENA DELA*, *NOLANAHI DEN*, *NOLANAHI ERE*, *EDONOLA ERE*, *EDOZEIN MODUTAN ERE*, *EDOZELAN BERE*, eta abar.

Lehenbizikoak (*DENA DELA* lokailuak) kontzesiozko molde honetan du jatorria: *DATORRENA DATORRELA* gisako egitura erlatibodunak → [Aditza_i + -eN erlatiboa + (erlatiboaren burua) + Aditza_i + -eLA].

Gainerakoek, honakoa: [Galdetzaile zehazlugabea (*EDO* + galdetzailea / galdetzailea + *NAHI*) + (*ERE*) + aditza + -eLA / -eN]; alegia, *ZERNAHI (ERE) DEN* eta *EDOZER (ERE) DEN* motakoetan.

5.2.6. Aurkaritzako lokailuak kontzesio perpausen indargarri

Kontzesiozkoen eta aurkaritzako lokailuen arteko harremana (5.1.2.1) azpiatalean aztertu dugu. Han genioen mendeko kontzesio perpausak berdin-berdin eman zitezkeela aurkaritzako juntagailuen bidez ere. Are gehiago diogu orain, kontzesiozko menderakuntza erabiltzen denean ere, aurkaritzako lokailuak erabil daitezke perpaus nagusian: balio beraren bi gauzalte, bata bestearen osagarri eta indargarri. Edozein kasutan ere, hautazkoa da biak batera erabiltzea, bietako batekin nahikoa litzateke eta:

(182) Ez dut diru askorik. *Hala ere*, Vietnamera joango naiz oporretan.

(183) *Nahiz* diru askorik ez *dudan*, Vietnamera joango naiz oporretan.

(184) *Nahiz* diru askorik ez *dudan*, *hala ere*, Vietnamera joango naiz oporretan.

(17)-(22) adibide sortan ditugu bi moldeak baliatuz osatutako adibideak. Hona hemen adibide gehiago:

(185) *Nahiz* ez *den* errex iguzkiari so egoitea, begiak itsutu gabe; *halere*, kapeluearen azpitik eta errien artean behaluz ageri zen errexki, jakinaren gainera errexkiago (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak errepublikan*, 96).

(186) Eta Pierrisek erran ziezon, Baldin guziak skandaliza *baditez-ere*, ni ez *ordea* (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, 91).

(187) Bear bafa diru zaleago, eta ondasun zaleago *izan arren*, *ala ere* Jaungoikoari, eta proximoari zor diozkan obligazio larriak osoro kunplitu nai dituanen: edo pekatu mortalzat daukan gauzarik munduko ondasunakgatik inolaere egin nai ezluenean (J. I. Guernico, *Sayaquera I*, 34).

Gauza bera aditz jokatugabeko kontzesiozkoetan:

(188) Beretako geinak baseritar alkurlariak *izan arren*, nolako bukuntasunean eta zein ederki janziak *ordea* (J. I. Iztueta, *Guipuzcoaren condaira*, 253).

Bi baliabideak (kontzesio-egitura eta lokailua) batera erabiltzea oso baliagarria izan daiteke zenbait kasu berezitan; adibidez, mendeko perpausa luze samarra izanik, perpaus nagusiaren haria berreskuratzeko (ik. 175 adibidea); edo, baita kontzesioa adierazteko erabili dugun egitura guk nahi bezain *fidagarria* edo indartsua ez den kasuetarako ere: alegia, argi uzteko hor kontzesio-balioa eman nahi izan diogula, eta ez beste bat.

5.2.7. Aditzaren elipsia

Kontzesio perpausetan ohikoa izaten da adilza ezabatzea. Eliditutako adilza berreskuratzen erraza denean gertatzen da hori: perpaus nagusiko aditz berbera delako, edo, bestela, *izan* adilza edo (testuinguruak lagunduta) hori bezain berreskuraeraza den aditzen bat.

Elisioa, batez ere, nahitaez aditza euskarriztat behar ez duen elementuren bat (*BAINA* enklitikoa, *NAHIZ* lokailua, adibidez) daramaten moldeetan gertatzen da (molde gehienetan, beraz): halakoetan, aditzaren elipsiak menderagailuarena dakar berekin, baina geratzen da artean perpausaren kontzesio-balioa bermatuko duen elementu bat, lokailua, "juntagailu-menderagailua" (*BAINA*) edo postposizioa:

- (189) Ailha zaizko haatik begiak, *nahiz* ezteki (J. Etchepare, *Berbitez*, 72).
- (190) Azkerekotz, huna erregebide-sahetsean, etxe bat dena leiho, biziki luzea, *nahiz* askitto apala (Ibid., 41).
- (191) Abiatzean, ambulanzetako karrosa dirudi gure berbilak, *nahiz* puska batez ttipiago (Ibid., 98).
- (192) *Nahiz* girixtino hiria, hiri galdu bat zen Goa (F. Laphilz, *Bi saildu hescualdunen bizia*, 200).
- (193) *Nahiz* haur hutsa, orori oharu zen (P. Lafite, *Grammaire basque*, § 747).
- (194) Gizajeak, berandutxo *baiña*, (...), leziño polit bat artu eban egun alan (F. Bilbao, *Ipuin berreka*, 190).
- (195) Ikusi diogu haatik, *nahiz* doidoi, belazko untzixka bat, uhin gaxtoetarik landa ezteki zalantzatuz han-harat zoana, urrun (J. Etchepare, *Berbitez*, 83).
- (196) *Naiz-ta* gorpulzez osasuntsu, etzan luzaro bizi izan, berrogeta bederalzi urtedun il bait-zitzaigun (Gaztelu, *Musika ixilla*, 146).

Aipatzeko modukoa iruditzen zaigu bakan samarrak direla, aditzaren elisioa duten adibideen artean, *ARREN* postposizioa dutenak.

Halakoetan, bereziki bitxiak dirudite, eta gainera ez dira adibide asko, izen sintagma mugagabez eratuek. Hona hemen batzuk:

- (197) Txiro *arren* ez jaurti seme saltzalia: arantzik ez betestu bere labakijan bai baiña sortu dabon garbaizko lorea (Lauaxeta, *Bide Berriak*, 70).
- (198) Egund gixi *arren*, nekatu naz oro (Ibid., 2).

Direnak ere, poesia lanetakoak. Jakina denez, hizkuntza bere mugetaraino (gramatikaltasunaren mugetaraino) eramán ohi dute zenbaitetan poetek; halako zerbaiten aurrean egon gaitzke hemen. Beraz, ez ditugu guk maila berean ikusten *NAHIZ* eta *BAINA* enklitikodunak eta *ARREN*-dunek aditzaren elipsiari dagokionez. Azken hau, postposizioa izanik, aditzari (eta menderagailuari) loturik joan ohi da, eta ez da hain normala aditz hori ezabatzea. Hala ere, bizkaieraz bederen, ez dira falta halako adibideak, izen sintagma mugatuz eratuek, absolutiboan, eta bereziki "ahaleginak arren" esapidea osatuz:

- (199) Neure gogoz eta al ixan ba'neu, geure-geure esakunak baño enlitzuzan nik ezarriko erderazkuen ordiakotzat; baiña neure alegiñak *arren*, batzuren batzuk baño ezin ixan dodaz imifí, ... (Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 7).

Ezezeko perpausetan, arruntagoa da, bizkaierazko erabileran, aditzaren elipsia:

- (200) Badakit nik, zu bestean **ez arren**, naiko biargifak dozuzana semeak (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 172).
- (201) Jaun orrein eskuetan dagoan Langille Batz Orokorra, izenez **ez arren**, izatez eta benetan sozialistia dala ezin ukatu (J. Eguzkitza, *Gizarte-Auzia*, 127).
- (202) Dirurik **ezaren**, jaun agertzen da arrantzalea (E. Erkiaga, *Arranegi*, 116).
- (203) Paula, Malenlxo aña **ezarren**, oso zan emakume itxurazkoa ta maitagarria (D. Aguirre, *Gara*, 171).

Halako guztietan, aipatu dugunez, badirudi *izan* (edota *egin*) aditz prototipikoa dela isiltzen dena, hots, errazen berreskura daitekeena. Gauza bera dugu (*neketan (izan) arren*) beste adibide mota bakanago honetan:

- (204) Buztin ta artzaia naiko dirala, irurak atakaz aruntz, aurea artuta jarri dituzu eskumakillak arrotuz, Oiantzarre'lik Elutseta'ra jun ez ditezen zabalduz: inhoiz igesi, neketan **arren**, ein dutela andik, oroituz (Orixe, *Euskaldunak*, 330).

Nolanahi ere, **ARREN**-en kasuan, esan beharra dago ez dela erabilera hori, ez ohikoa, ez orokorra.

5.2.8. Zein aditz motarekin egin daitezkeen kontzesio perpausak

Kontzesio perpausetan erabiltzen diren aditz motei dagokienez, honako azpisail hauek bereiziko ditugu:

5.2.8.1. Aditz jokatuak / jokatugabeak

Aditza denaz bezainbatean, hau da kontzesio perpausetan bereizketa nagusia. Aditz jokatudunak nahiz jokatugabedunak izan daitezke kontzesio perpausak; bata bezainbat erabilia bestea. Batzuetan euskalkien araberako banaketa dugula dirudi; adibidez, **ARREN** eta **NAHIZ**-en bidez osatutakoen artean, hegoaldean jokatugabeak dira nagusi (**NAHIZ ETA ... -en** oso-oso gulxi dira; aditz jokatua + **-en** + **ARREN** ere, aurrekoak baino erabilxeagoak badira ere, ez dira asko). Ekialdeko testuetan, berriz, jokatuaren nagusitasuna erabatekoa da kasu horietan behintzat.

Beste zenbait kasutan, ez dago euskalkien araberako banaketarik: bi adizkien artean bat aukeratzen da euskalki guztietan:

- Jokatugabea da erabat nagusi, adibidez, **-GATIK** postposiziodun kontzesio perpausa osatzen denean, ekialdean zein mendebaldean: (ni) izanagatik / naizenagatik.
- Oinarrian baldintza perpausak dituztenetan ere, askoz ohikoagoa da aditz jokatuduna jokatugabeduna baino: etortzen bada ere / etorritz gero ere.
- Beste egitura batzuetan aditz jokatuduna bakerrik erabiltzen da:
ZERNAHI ERE + ad. jokatua (*den, izan dadin...*).
NOR (ERE) + ad. jokatua (*den, baita*).

DATORRENA DATORRELA gisakoak.

Behin eta berriz esan dugun bezala, liburuki honetako aztergaiak aditz jokatudun perpausak dira; beraz, atal honetan guztian zehar, irakurleak era horietako perpaus kontzesiozkoen adibideak aurkituko ditu. Aditz jokatugabedun perpausen adibideak ere badira, han eta hemen, kontzesiozkoen kapitulu honetan zehar ere, nahiz eta horiek hurrengo liburukian (*EGLU VII*) aztertuko ditugun xehekiago.

5.2.8.2. Aditzaren modua: indikatiboa / subjuntiboa

Aditzaren moduari dagokionez, indikatiboko adizkiek dute erabateko nagusitasuna kontzesio perpausetan:

- (205) Egia garratz eta mergatza *dan arren*, egia beti (J. Eguzkitza, *Gizarte-Auzia*, 162).
- (206) Ezagutu zaitu, *nahiz ez zintudan* behin ere *ikhusi* (F. Laphitz, *Bi saindu hescaldunen bizia*, 134).
- (207) Bizten hasia *defarik ere*, non dugu Laramendiren izena eta omena? (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak*, 33).

Subjuntibokoak ere erabili izan dira, ordea, zenbait kasutan. Batez ere *edozein* edo *normahi* bezalako izenordain zehaztugabeak dituzten egituretan: *normahi izan dadin*, ...

–*eLA*-dun subjuntiboak ere erabili izan dira, –*eN* subjuntiboak bezain hedatuak ez diren arren.

Hona hemen subjuntibozko kontzesioaren adibide batzuk:

- (208) Ezen *nahiz dezatela* argal gorputz gizona (...) guztiarekin etzaizte gauza hauk probetxatzen (J. Etcheberri Ziburukoa, *Manual devotioenezkoa*, I, 113).
- (209) Erabaki zuan lizunkenari lekunik ez amatea, *naiz* kosta *zekiola* bere onra eta biziltza (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia III*, 332).
- (210) Txonko zaar, muturrekoz gizon bat il baitzun, aurrera da urdeari atzemanaz legun. Belarmitatik eldu, *naiz dedin* muturdun (Orixe, *Euskaldunak*, 136).
- (211) *Zernahi* izan *dadin*, Mediterraneo deitzen duten itsasoak holako erresumarik ez du bere uhartzean, hedoeizko erresumarik ez bertzeñik (J. Etchepare, *Beribitez*, 81).

5.2.8.3. Alegiazkoak

Alegiazko aditzak ere erabil daitezke kontzesio perpausetan: oinarritzat baldintzazkoak dituzten perpausetan (*egingo balu ere*) eta baita bestelako zenbaitetan ere:

- (212) Orain berriz, gure mende nazkagarriotan bat bakarrik ez dago seguru, *naiz-ta* Krelakoren antzeko bide-malaza berri batek lbi-ta gordeko *balu ere* (P. Berrondo, *Don Kijote Manbrako*, 126).
- (213) Oiei aurrez esana nien, ots, etzenukeala zerorrek erantzuterik nai izango; ez-iakinarena eginda, ordea, aleginak oro egingo zenituzkeala erantzun baiño len, *naiz-ta* norbaitek zer-edo-zer zerorri galde egin *ba'liz* ere (J. Zaltegi, *Platon'eneko atarian*, 128).
- (214) heklñ xede eta artha prinzipalak izan behar *luku arren*. Penitenziatzko Sakramenduaz, bere buruak garbitu nahi izatea, eta Komunione sailduaz, berriz ez enortzeko indarrak aintzizirik hartzea (J. Haraneder, *Gudu izpituala*, 51).

5.2.8.4. Ahalezkoak:

- (215) Eta gerta *diteken arren*, nihork bere gain egin detzan hain gauza onak, (...), eta menluraz gostu gehiagorekin egin ere detzan, bera bakharririk denean, hala ere Jainkoari loria gehiago heldu zaito gure anaiekin eta lagunekin balsan egiten ditugun ongietanik (*Jesusen Bihotza*, 393).
- (216) Aldiekin balean automaten dugu alare, artaz ezer esan ez *diteken arren* noizean, len ez baitzan, bafian kaxkarrago deritzagulako (*Orixe, Aitorkezunak*, 373).
- (217) Aurrena, orain ezkontzera dijoan Juana etorri zen etxea poztera ta Jesusa'ren bizitzak nobeta baterako naikoa gai eman *dezaken arren*, Juanaren goraberak aukeratu ditugu gure liburu au osatzeko (*N. Etxaniz, Lur berri bila*, 18).

5.2.8.5. Aginterazkoak

Oso bakanak eta zaharkituak diren arren, badira aginterazko aditza duten kontzesio perpausak ere. *NAHIZ* lokailuaren bidez eraturako kontzesiozkoak dira:

- (218) Egin zaarraren esana, *naiz urak berama* (*Refranes y Sentencias*, 465).
- (219) *Nahiz biz* hala lizela, erran duken guztia, eskribuen borratzeko nigar bai duk askia (J. Etcheberrí Ziburukoa, *Manual Devotionezcoa* 1, 56).
- (220) Ez da ez etsairik, Jarriko zatzunik inholaz aurrean Gaurko egunean; *Naiz betor* Luzifer deabrua, utzirik infemua (J. I. Arana, *S. Ignacioren biotza*, 215).
- (221) Pesta, ala da ta, *naiz ekar baza* esanak itsustasuna; zenbat sabelkoi egolen dira noiz etor elizkizuna (*Orixe, Euskaldunak*, 414).
- (222) *Nahiz* ezpegi gauaz ilhargi, ni zure begi ederrek argi (Oihenart, *Poesiak* = *Oihenarten gaztaroa neurthizetan*, 46).

5.2.9. Kontzesio-gailuen metatzea

Aldaera estilistiko gisa, kontzesio-balioa indartzeko-edo, arrunt samarra da halako perpausetan menderakuntzako gailuen metatzea, batez ere lokailuen eta menderagailuen metatzea.

Jakina, behean zerrendatuko ditugun metatzeen onargarritasun maila ez da bera: batzuk erabat onargarriak gertatzen zaizkigu (5.2.9.4 eta 5.2.9.6 azpisailtakoak), beste batzuk gutxiago (5.2.9.3 eta 5.2.9.5 azpisailtakoak); zenbait, ez genituzke gomendatu ere egingo: adibidez, 5.2.9.1 eta 5.2.9.2 azpisailtakoak.

5.2.9.1. *NAHIZ (ETA) + ARREN*

Arrunt samarra da erredundantzia mota hau; batzuetan bertsoa osatzeko beharrezkoak diren silabak eskuratzeko erabiltzen da; baina, jakina, arrazoi horrek ezin dezake edozer gauza esplikatuz: ezin daitezke erabili erabat agramatikalak diren egiturak bertsoaren neurria osatzeko arrazoia dela medio. Gainera, prosazko lanetan ere aurkitzen dugu kontzesio-marken bikoiztapen hori. Aditx jokatudunekin nahiz jokatugabeekin gertatzen da hau. Hona hemen adibide batzuk:

- (223) *Naiz* aunditu eta gaur kale-etxe bezela jarria *dagoan arren*, garai artan etxe koxkor bat zan (S. Salaverria, *Neronek tirako nizkin*, 36).
- (224) Pertsonen eta animalien bizitzarako demigorrezkoa degu ura, *naiz* eta merezi duen itzimaziorik ematen ez *diogun arren* (M. Lasarte, *Kantuaren ordainez*, 104).

- (225) Ez gera konturatzen edadez sarritan, *naiz-ta* ikusi *arren* zar auek begitan, begira nola dauden orain inbilitan, gazte ez gera izango inor bi auidan (Uztapide, *Noizbait*, 57).
- (226) Neure bizitza zelangoa dan egiten nua autortu, *naiz-ta* gizonak gura ez *arren* azeria ontzat artu: ... (B. Enbeita, *Nere apurra*, 170).
- (227) Zugatz zar bati *naiz-ta* adarrak asi *arren* igartuten, ekaitz artian ibilia da bere frutuak emoten; ... (Ibid., 236).

5.2.9.2. NAHIZ ETA + BA-... ERE:

- (228) Uzteko ta uzteko oiuka bentaria, leen ere esan ziela eroa zala; eta eroa izanik, ez zuala erantzun-bearik izango, *naiz-ta* danak iltzen *bazituan* ere (P. Berrondo, *Don Kijote Mantxako*, 46).
- (229) eta arengana urbildurik, artu zion lantza ta puska-puska egin ondorean, puska oetako batez makilka ekin zion gure don Kijoteni; eta, *naiz-ta* armaturik *bazegon* ere, laka bezelaxe irindu zuan (Ibid., 56).
- (230) Pagatu bearko didazute bai, *naiz-ta* Briareo erraldoiaren besoak baiño ugariagoak mugitzen *badituzute* ere (Ibid., 86).
- (231) Neuk abindulen dautzut etzarala beregaz ezkonduko, *naiz-ta* galerazoteko ludi guztija erre ta kiskaldu biar *ba'tiz be* (Kirikiño, *Abarrak I*, 37).

5.2.9.3. ARREN + ERE: aditz jokatugabeekin batez ere:

- (232) Eta idegi *arren be*, ez al-gara gero guztijoen artian dagon-dagon lez ixita izteko gauza ixango? (Otxolua, *Bertolda eta Bertoklin*, 48).
- (233) Eta ona emen, ene bakandera enia, zelan egiztau dauzudan argi ta garbi nik beñola esan neutsuna: danik aberats eta altsubena ixan *arren be*, ezin daikela inok esan inoren biar-ixanik eztauale inoiz ixango (Ibid., 151).
- (234) Aita neuk bere ezin Eginda sinistu, Ikusi *arren bere* Dudan naz aurkitu; Mirarien bat zala Ziertu izango. Umill umill jarririk Azartu nabxako (F. Arrese Beitia, *Amo euskeraren liburu kantaria*, 357).
- (235) Etzaitzek ezdu pozik eta gozirik geien asmetan dozun lekura, ona izan *arren bere* (P. A. Afibarro, *Escu-liburua*, 2, 63).
- (236) Gaia berez oso ona izan *arren ere*, era arunt gordin eta nabarmenean azaltzen digulako eragotzi lezaiguke (M. Abxaga, *Gazteko*, 60).

5.2.9.4. -TUAGATIK + ERE: aditz jokatugabeekin:

- (237) Eta nehork *erranagatik* ere ezetz, etzaitzula lagunduko, eztuzu sinhesten (P. Axular, *Guero*, 294).
- (238) Monicak, jatorduaz kanpora egarriak iltzen zegoela *esanagatik* ere, ura ukatzen zion (A. Cardaberaz, *Egercicioac III*, 364).

5.2.9.5. -ELARIK + ARREN:

- (239) Heriotzea hain segura *duzularik arren*, heriotzea hain lazgarri *delarik arren*, ez dakizu ez non, ez noiz, ez nola hilen zaren (A. Baratzart, *Guinstinoqui biotzeco eta hiltzeco moldeak*, 115).

5.2.9.6. Perpaus nagusian aurkaritzako lokailua: ikus (17-22) eta (185-187) adibide sortak.

5.3. KONTZESIOA ADIERAZTEN DUTEN EGITURAK

Orain arteko orrialdeetan kontzesioaren inguruko azalpen orokorrak eman ditugu: lehendabiziko kapituluan, azaldu dugu zein den kontzesio perpausetan ezartzen den erlazioa zein den azaldu dugu, zein eratako perpausekin duten harremana, eta abar. Bigarrenean, azalpen orokor batzuk eman ditugu halako perpausen egituraz, ordenaz, formaz eta funtzioaz. Hirugarren honetan, kontzesio-egitura bakoitza aztertuko dugu banan-banan, besteak beste, bakoitzaren berezko ezaugarrien berri emanez, formazko aldaerak eta distribuzio geografikoa aipatuz eta forma horiek berek izan dizaketzen bestelako balioak azalduz.

Kapitulu honen bigarren atalaren hasieran egin dugun sailkapena erabiliko dugu hemen ere: kasu bakoitzean, erabiltzen diren postposizioen, lokailuen edo izenordainen arabera egingo ditugu azpimultzoak; alegia, (5.2 atalaren) hasierako taulako ezker zutabeko kontzesio-gailuen arabera: *NAHIZ* lokailua dutenak, *ARREN* daramatenak, *-GATIK* postposiziodunak, eta abar. Horien barruan, aukera guztiak aztertuko ditugu, menderagailu bat baino gehiago erabil baitaiteke talde gehientsuenetan.

Jakina, sailkapena bestela ere egin zitekeen; adibidez, kasu bakoitzean erabiltzen den menderagailuen arabera; eta atal bakoitzaren barruan, lokailuen eta postposizioen arabera ordenatu azpiatalak. Funtsean honako arrazoiengatik ez dugu erabili sailkapen mota hori:

- Batetik, iruditzen zaigu kontzesio-balioaren ezaugarri formal nagusiak lokailu, postposizio, izenordain eta abar horiek direla, eta ez menderagailuak. Menderagailuak, perpaus mota hauetan, menderakuntza bideratzeko elementuak dira batez ere, txertakuntza ahalbidetzeko, eta ez hainbeste kontzesio-balioa emateko.

- Bestetik, menderagailuen araberrako sailkapena eginez gero, sakabanaturik geratuko lirateke nahiko antzekoak edo gertukoak diren egiturak (menderagailu desberdina eduki arren lokailu edo postposizio bera dutenak).

- Orain arteko gramatika gehientsuenetan ere hala egin izan da.

Gatozen bada, atalez atal, kontzesio-molde desberdinen berri ematera:

5.3.1. *NAHIZ* lokailuaren bidez eratutako kontzesio perpausak:

- *NAHIZ* ... -eN
- *NAHIZ*... -eLA
- *NAHIZ*... BA- (ERE)
- *NAHIZ*... B-
- *NAHI BADA* ... -eN / -eLA
- *NAHIZ ETA* ... -TU
- *NAHIZ*...-eLAV-eN, *NAHIZ*...-eLAV-eN.

NAHIZ lokailuaren honako aldaera hauek behintzat erabili izan dira literatura-tradizioan kontzesioa adierazteko: *nahiz* (aurrerantzean gainerako guztiak ordezkatzeko erabiliko duguna), *na(h)iz eta*, *na(h)iz ta*, *na(h)iz da*, *na(h)i ta eta nahi bada*.

Guztiak *nahi* izan aditzaren erabilera gramatikalizatuak; gramatikalizatuak diren bezala beste kontzesio molde batean erabiltzen diren oinarri bereko izenordain zehaztugabe batzuk: *NORNAHI*, *ZERNAHI*, eta abar (ikus 5.3.10 azpiatala). Beraz, badirudi lotura handia duela *nahi* (izan) aditzak kontzesioarekin.

Goiko aldaera horien artean, hegoaldeko euskalkietakoak dira *ETA* juntagailua dutenak, kasu honetan espletibo hutsa dena (beste lokailu eta juntagailu batzuekin ere erabiltzen da inongo ballorik ez duen *ETA* hori: *BAIZIK ETA*, *HARIK ETA*, *ZENBAT ETA*, *ZEREN ETA*, adibidez); batzuetan instrumentalaren *-Z* markarik gabe ere (*NAI TA*) erabiltzen da. *NAHI BADA*, berriz, zubererazko eta erronkierazko testuetan aurkitzen da kontzesioko lokailu lanetan, *-eN* edo *-eLA* menderagailudun aditza lagun duela, (zubereraz eta erronkieraz, hurrenez hurren).

• Mendeko perpausaren barne hurrenkerari dagokionez, **NAHIZ** lokailua mendeko kontzesio perpausaren aurreko muturrean doa ia sistematikoki euskalki guztietan; oso egitura baliagarria zaigu, beraz, hasiera-hasieratik kontzesio kutsua adierazi nahi dugun kasuetarako: adibidez, perpaus luzeetarako.

Aditza, berriz, kapitulu honen 5.2.4 atalean esan dugun bezala, hainbat lekutan joan daiteke mendeko perpausaren, perpausaren luze-laburtasunaren eta euskalkiaren arabera.

• Menderagailuak aipatu ditugunez, azter dezagun orain **NAHIZ**-en bidez eratzen den kontzesio perpaus batek zein eratako moldeak izan ditzakeen. Bat baino gehiago, esan dugunez. Ikus ditzagun eskema honetan:

<p>A) NAHIZ ETA ... ADITZ JOKATUGABEA:</p> <p>A.1.- Aditz partizipioa A.2.- Aditz erroa (oso bakana) A.3.- Aditz izena + <i>-N</i> (oso bakana).</p>
<p>B) NAHIZ ... ADITZ JOKATUA + MENDERAGAILUA:</p> <p>B.1.- <i>-eN</i> menderagailua B.2.- <i>-eLA</i> B.3.- <i>BA-</i> B.4.- <i>B-</i> (aginterazkoa).</p>
<p>C) NAHIZ ... Ø (aditzaren eta menderagailuaren elipsia).</p>

Jakina, egitura horietako batzuk beste batzuk baino askoz ere erabiliagoak dira. Inolako zalantzarik gabe, gehien erabiltzen direnak partizipiodunak (A.1 atalekoak) eta *-eN* menderagailudunak (B.1-ekoak) dire. Oso bakanak dira,

bestalde, A.2, A.3, B.3 eta B.4 ataletako egiturak; eta ez hain ugariak, B.2 eta C sailetakoak.

Hauek dira, beraz, molde erabilienak:

(240) [*Nahiz eta lagun asko izan*], ez naiz inora joango oporretan.

(241) [*Nahiz diru asko dudan*], ez naiz inora joango oporretan.

Mendebaldeko hizkeretakoa da batez ere lehenbiziko moldea (aditz jokatuduna gutxi erabiltzen da mendebaldean: Orixo, N. Elxaniz, Basarri, B. Enbeita, Aresti, Lasarte eta Uztapideren lanetan aurki daiteke, besteak beste, baina horietan ere partizipioduna da normalena); ekialdekoa, bigarrena (partizipiodun kasu bakan batzuk badiren arren Duvoisin, Elizanburu, Martin, Xalbador eta Miranderen lanetan). Liburuki honetan, azterkizun aditz jokatudun mendeko perpausak direnez, B eta C ataletako moldeen gainean jardungo dugu; A ataleko moldeak, aditz jokatugabea dutenak, hurrengo liburukian aztertuko ditugu.

B saileko aditz jokatudunetara etorriz, bada, lau motatako moldeak ditugu literatura tradizioan, goiko taulan adierazi dugun bezala; hona hemen menderagailuaren arabera sailkatuak:

NAHIZ ... -eN:

(242) Aithor dut biziki egun-argi dela oraino, [*nahiz iguzkia bere osoan izalía ditaken*] (J. Etchepare, *Beribilez*, 86).

(243) Oiso gaiztua mendi-zokoan ardura triste bizi da, [*nahiz urrunera dituen ardi ederrak ikusi*] (Xalbador, *Ezin bertzean*, 95).

NAHIZ ... -eLA:

(244) Hillak eta biziak, [*nahiz direla iustuak*], beldur dira guziak (P. Argaignarats, *Devoten Brevieria*, 12).

(245) Gutxi izana dute, batzuek damua, [*naiz egin dezatela*], nun-nai *alderoa* (Jan-Edanaren bertsoak I, 41).

NAHIZ ... BA-:

(246) [*Naiz-ta gizon batzuek ezpadute ikusi*], arek bezela jotzen guk ezin ikasi (*Euskal Jokoak Bertsotan II*, 162).

NAHIZ ... B- (aginlera):

(247) Egin zaarren esana, [*naiz urak berama*] (*Refranes y Sentencias*, 465).

Esan bezala, lauretatik lehendabizikoe da erabiliena, alde handiz gainera; iparraldean Etxeparetik eta hegoaldean *Refranes y Sentencias*-etik hasita. Bigarrena, adizki trinkoekin eta subjuntibokoekin arruntan, autore jakin batzuen lanetan aurki daiteke: Etxeberri Ziburukoa, Axular, Argaignarats, Mendiburu, Iturriaga, Agirre Asteasukoa, Arrese Beitia, Jan Edanak, Orixo... Hirugarrena, bakanegoa da oraindik: Etxeberri Sarakoa, Bilintx eta Noe. Arkaiko samarra dirudien azken egituraren adibideak ere ez dira batere ohikoak. OEHn bospasei baino ez ditugu aurkitu: Ziburuko Etxeberri, Oihenart, Iturriaga eta Orixerenak. Gaur egun, BA-dun egiturak bezala, ez da batere emankorra.

Aditzik gabeko egiturak ere badira NAHIZ-ekiko kontzesiozkoetan; C sailekoak, alegia. Izan ere, lehen esan bezala, aditzaren elipsia errunt samarra da perpaus mota hauetan:

(248) Alha zaizko haatik begiak, [*nahiz eziki Ø*] (J. Etchepare, *Beribilez*, 72).

(249) Huna erregabide-sahetsean, etxe bat dena leiho, biziki luzea, [nahiz askitto apala Ø] (Ibid., 41).

(250) [Nahiz giristifo hiria Ø], hiri galdu bat zen Goa (F. Laphitz, *Bi saildu hescualdunen bizia*, 200).

Aditza elidituta ere, kontzesio-balioa NAHIZ lokailuaren bidez dago bermatua; horregatik dirudi hain erraza aditza ezabatzeak; horregatik, eta isildutako aditz hori berreskuratzeko erraza izan daitekeelako, noski: *izan* aditza edo testuinguruagatik erraz antzeman dezakegun bestelako aditz bat delako.

Elisio honen antzekoa da perpaus juntatuetan gertatzen dena. EGLU IV liburukian aztertu genituen horiek (ikus 62.-73. or.)

• Halako kontzesio perpausetan gertatzen den beste fenomeno bat erredundantzia da: arrunt samarrak dira kontzesio-gailuen bikoiztapenak NAHIZ-dun perpausetan. Eta ez nahitaez perpausak luzeak diren kasuetan (horietan errazago uler zitekeen bikoiztapena aurreko muturreko lokailua, NAHIZ, aditzetik urrun samar gertatuko litzatekeelako):

NAHIZ... -eN ARREN:

(251) Senperen izena da eskaraz Helbarren, nahiz alderdi batek orai duen arren (J. M. Hiribarren, *Eskeldunac*, 119)

(252) Naiz aunditu eta gaur kale-ebxe bezela jarria doan arren, garai artan etxe koxkor bat zan (S. Salaverria, *Neronek tirako nizkin*, 36).

(253) Ni gogorutzen naiz sarritan gertaera batez, naiz ta aspaldiko zaarra dan arren (M. Lasarte, *Kantuaren ordainez*, 31).

Aditz jokatugabearekin ere normalak dira bikoiztapen horiek:

(254) Ez gera konturatzen edadez sarritan, naiz-ta ikusi arren zar auek begitan, begira nola dauden orain inbiritan, gazte ez gera izango iflor bi alditan (Uztapide, *Noizbait*, 57).

(255) Naiz eta erderaz sarritan itzegin arren, orrek ez du esan naiko euskera bearrezkoa ez danik noski (M. Lasarte, *Kantuaren ordainez*, 34).

NAHIZ... BA... ERE:

(256) Naiz ta gelditzen bazerate ere zillar da urrez beterik, an ez dezute iñoiz izango emengo lagun arterik (Basarri, *Kantari nator*, 137).

(257) Pagatu bearko didazute bai, naiz ta Briareo erraldoiaren besoak baiño ugariagoak mugitzen badituzute ere (P. Berrondo, *Don Kijote Mantxako*, 86).

Edozein kasutan ere, duten agerpen eta maiztasun urria dela eta, gaitzestekoak ez badira ere, ez dirudi hobestekoak eta bultzatzekoak ere direnik.

• NAHIZ lokailudun egituren erabilera distributiboa.

Gorago esan dugu -eN menderagailua dela erabiliena aditz jokatudun perpausetan. -eLA ere erabiltzen da, ordea. Gutxiago, lehen esan dugun bezala, eta aditz trinkoekin eta subjuntibokoekin batez ere (ikus OEH, XII. alea, 706. or., s.v. Nahiz).

Bada -eLA menderagailuaren beste erabilera bat (-eN-ena ere badena), orain arteko NAHIZ-dun kontzesio perpausen berdin-berdina ez dena. Kontzesio perpaus batzuetatik hurbil dagoen distribuzio-egitura duena da: adibidez, nik esaten badut berdin zaidala euria ari duen nahiz eguraldi ona den,

berdin-berdin aterako naizela kalera, ideia hau azalzeko badira bi modu behintzat:

(258) Zernahi eguraldi dela (ere), kalera aterako naiz.

(259) Nahiz dela euria, nahiz (dela) eguzkia, kalera aterako naiz.

Lehendabiziko moldea 5.3.10 azpiatalean aztertuko dugu. Bigarrenari buruz ari ginen egitura distributiboak aipatu dugunean: bai kasu batean, bai bestean, kalera aterako naiz. *EGLU III (Lokailuak)* liburukian (17.-18. orrialdeetan) aipatzen genuen banakaritza deitutako juntadura mota hori. Han esaten genuen hitz edo partikularen bat errepikatuz gauzalzen zela banakaritza, alborakuntza hutsez (juntagailurik gabe) edo juntagailu baten bidez (*ETA, EDO, NAHIZ, ZEIN*) loturik. Juntagailua bera ere izan daiteke, esan genuen bezala, errepikatzen den partikula hori (*EDO ... EDO ...; NAHIZ... NAHIZ...*).

Asko dira, beraz, euskaraz kontzesio-balioa adierazteko eskura ditugun egitura distributiboak: errepikatzen den elementuaren arabera eta erabiltzen den juntagailuaren arabera, konbinazioak kontaezinak dira ia; kasu honetan *NAHIZ*-dun perpausez ari garenez, horiek dituzten moldeak bakarrik bilduko ditugu; aditz jokatudunak, betiere. Nolanahi ere, 5.3.8 atalean aztertuko ditugu banakaritza molde guztiak, edo bederen perpaus mendeko aditz jokatuaren bidez eratutakoak. Hona hemen, bada, *NAHIZ* lokailua erabiliz sortutako egitura distributiboak:

a. *NAHIZ -eLA* A *NAHIZ -eLA* B, + Perpaus Nagusia (Perp. Nag.)

(260) Agur eta irri ona ... *naiz ipar olza dala, naiz dala* sargori (B. Gandiaga, *Elomi*, 65).

(261) *Nai* urantzetan *zuazala, nai* benetan *zuazala*, bardin bardin erreko zaituz ango subak (P. Astarloa, *Berbaldiak*, 146).

b. *NAHIZ (DELA)* A *eta* B, + Perp. Nag.

(262) Obeditua nai det nik izan, *naiz dala* orain ta gero (R. Illarramendi, *Testimonio falso*, 17).

c. *NAHIZ (DELA)* A *edo* B *-eLA*, + Perp. Nag.

(263) *Naiz dala* lenagotik elizakoak artzen dituztela, *edo* oiek ezin arturik biotz damu egizkoa egiten duela ... (*Argi Done Laburra*, 105).

d. *NAHIZ (DELA)* A (*eta*) *BERDIN (OROBAT, IGUAL)* B, + Perp. Nag.

(264) Ez nuen uste zanik olako jatuna; *naiz dala* bixiua *berdin* da atuna (Zepai, in *Uztapide, Lengo Egunak Gogoan*, 216).

e. *NAHIZ DEN* A *NAHIZ (DEN)* B, + Perp. Nag.

(265) Debotak, aithor dezagun, hilzeko bat bederak, *nahiz den* gau, *nahiz* egun, ditugula Bezperak (A. Argañarals, *Devoten Breviartoa*, 149).

f. *NAHIZ -eN* A *NAHIZ -eN* B, + Perp. Nag.

(266) *Nahiz* joan *den*, *nahiz* heldu *den* (B. Gasteluçar, *Eguia Catholicac*, 176).

g. *NAHIZ* B- *NAHIZ* B, + Perp. Nag.

(267) *Nahiz* plazara joan *bedi naiz* jua iturrira, nork ez du arreta jartzen aren ibillira? (*Bilbilx, Bertso ta lan guztiak*, 47).

• NAHIZ-EN BESTELAKO BALIOAK

Azkenik, aipatu behar dugu NAHIZ formak balio bat baino gehiago izan ditzakeela, –GATIK eta ARREN postposizioekin gertalzen denaren antzera (aurrerago aztertuko ditugu horiek); kasu bakoitzean erabiltzen dugun aditzari edo, hobeto esanda, aditzaren formari erreparatzen badiogu, konturatuko gara balio desberdin horietaz: kontzesio-balioaz eta hura ez besteez.

Kontzesioaz gain, helburua ere adieraz dezake NAHIZ-en bidez osatutako perpausak iparraldeko testuetan; baina betiere kontzesio-moldeekin konparatuz aditzean edo NAHIZ-en kokagunean aldaketaren bat egin eta gero.

Ondorengo adibide hauek, esate baterako, ez dira kontzesiozkoak:

- (268) Hetaz ere artha hartzen du. [*nahiz eta* noizpait bederen harenganat *izul ditezen*] (A. Duhalde, *Meditacioneac*, 235).
- (269) Egin ditu bere ahal guziak, [*nahiz eta* onez-onean gobernamentuko gizonekin bakean *bizi*] (J. Hiriart-Urruty, *Mintzaira. Aurpegia. Gizon*, 70).
- (270) Emazteak, [*nahizik eta gorde*], ihardesten dio: ... (J. Barbier, *Légendes*, 23).
- (271) Absalonek asko egin zuen. [*nahiz amoralu* Dabit] (B. Larreguy, *Testament çaharr. berr. historia*, I, 309).
- (272) [Heien fedeari hats berri bat *eman nahiz*], abiatu zen Frantses (Arradoy, *San Frantses Jatsukoa*, 191).

Esan bezala, ez dira kontzesiozkoak: guziak dira helburu balioa-edo dutenak (beste euskalki balzuelako *nahirik* edo *nahian*-ek dutena). Esanahiaren aldetik nabarmena da aldea. Baina formaren aldetik ba al dago alderik hauen eta kontzesio-balioa dutenen artean? Bai; batetik, iparraldean ez da oso ohikoa aditz partizipioa erabiltzea NAHIZ-dun kontzesiozkoetan; bai, ordea, helburuzkoetan (Lafittek dioen arren ez direla euskararen gramatikara oso ongi egokitzen *nahiz-eta bere aita ikusi* gisako helburuzkoak; hobeto, dio, *bere aita ikusi nahiz*). Era berean, subjuntiboko aditzak helburuzkoetan erabiltzen dira, eta ez kontzesiozkoetan (–eLA-dunak bai, baina –eN subjuntiboak ez hainbeste); azkenik, aditz partizipioaren ostean ere joan ohi da askotan NAHIZ helburuzkoa; inoiz ere ez kontzesiozkoa.

Esango genuke formari buruzko zehaztapen hauek gain desberdintasun nabarmenena honako hau dela: NAHIZ, kontzesiozko erabileran gramatikalizatuagoa dagoela helburuzko erabileran baino. Hau da, helburuzkoetan *nahi izan* aditzaren esanahia begibistakoagoa dela.

Froga sintaktiko bat ere gaineratu dezakegu kontzesio balioa eta helburu balioa duten perpausak bereizteko: ezezkoan jartzen baldin baditugu, hitz-hurrenkera desberdina dute:

KONTZESIOA → [*nahiz ez ikusi ...*]

HELBURUA → [*ez nahiz ikusi ...*]

Ondorengo adibide hauekin argiago ikusiko dugu aldea; lehenbiziko biak kontzesiozkoak dira:

- (273) Ezagutu zaitut, *nahiz ez zintudan* behin ere *ikusi* (F. Laphitz, *Bi saildu hescuakdunen bizia*, 134).
- (274) Nik hala dagokat eta *nahiz ez duen* halakorik *entzun nahi*, diot zaindu bat dela (Ibid., 116).

eta ondorengo biak, helburuzkoak:

(275) Bere laguner ez *nahiz* bizkarkin *izan*, eta galdu zuen diruaz hitz bal aipalu gabe, juan zen Ifazio Jondoni Jakiko ospitalerat (F. Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 101).

(276) Auzo-aphezak pobre haren errana ez *nahiz* *sinhetsi*, preso ezari du ni itzul artean (Ibid., 36).

Beraz, –GATIK eta ARREN-ekin gertatzen denaren antzera (ikus aurrerago 5.3.3 eta 5.3.2 azpiataletan) NAHIZ-ekin ere bi balio ditugu, aditzaren zein formarekin elkarlzen den:

NAHIZ	- KONTZESIOA:	NAHIZ... –eN / NAHIZ... –TU
	- HELBURUA:	NAHIZ... –TU / –eN subjuntiboa (Ipar.) –TU NAHIZ (Ipar.)
ARREN	- KONTZESIOA:	–TU ARREN
	- HELBURUA/KAUSA:	–TZEARREN
–GATIK	- KONTZESIOA:	–TUAGATIK
	- KAUSA/HELBURUA:	–TZEAGATIK

5.3.2. ARREN postposizioa dutenak:

- –eN ARREN.
- –eLARIK ARREN.
- –TU ARREN.

Esan dugun bezala, NAHIZ lokailua mendeko perpausaren aurreko muturrean kokatzen da; ARREN postposizioa, berriz, kontzesio perpausaren bukaeran edo tartean.

• ARREN postpositiboaren aldaerarik ez dago (zenbaitetan *h*-arekin eman izanaz gain); hala erabiltzen da euskalki guztietan. Mendeko perpaus osoari bagagozkio, ordea, molde desberdinak aurki ditzakegu atal honetan ere, aditzaren forma desberdinak ager baitaitezke:

a) ADITZ PARTIZIPIOA + ARREN.

(277) Gertatua gertatu arren, len bezin adiskide arkituko nazu (A. Barriola, *Goi-Argi*, 48).

b) ADITZ JOKATUA + –eN + ARREN.

(278) Ustez txikia zarean arren ezta zu lango aundirik (B. Enbeita, *Nere apurra*, 97).

c) ADITZ JOKATUA + –eLARIK ARREN.

(279) Humiltasuna hain bertute nezesarioa delarik arren, hartaz estimu guti egin duzu (A. Baraciarri, *Guiristinoqui bicitzeco eta hiltzeco moldea*, 218).

a) ADITZ PARTIZIPIOA + ARREN.

(280) Gertatus gertatu arren, len bezin adiskide arkituko nazu (A. Barriola, *Goi-argi*, 48).

b) ADITZ JOKATUA + –eN + ARREN.

(281) Ustez txikia zarean arren ezta zu lango aundirik (B. Enbeita, *Nere apurra*, 97).

c) ADITZ JOKATUA + –eLARIK + ARREN

(282) Humiltasuna hain bertute nezesarioa delarik arren, hartaz estimu guti egin duzu (A. Baraciarri, *Guiristinoqui bicitzeco eta hiltzeco moldea*, 218).

Jakina, hemen ere ez dira guztiak maiztasun berarekin erabiltzen. Lehendabiziko biak dira gehien erabiliak, zalantza izpirik gabe; hirugarrena, berriz, oso mugatua da (Lavieuxvilleren katiximan eta Ziburuko Etxeberri, Baralziart eta J. Etxepareren lanetan aurkitu dugu adibide batzuetan; ahoz ere Lapurdiko zenbait lekutan bakarrik erabiltzen delakoan gaude).

Aditz partizipioarekiko moldea ia hegoaldeko literaturan bakarrik erabiltzen dela esan daiteke, iparraldeko adibideak oso bakanak baitira. *-eN* menderagailudun moldea, berriz, orokorra da: iparraldean eta hegoaldean erabiltzen da. Beraz, iparraldean ia hori bakarrik, eta hegoaldean biak, partizipiodunak eta *-eN* menderagailudunak erabiltzen dira (nahiz lehendabizikoak, partizipiodunak, izan nagusi hegoaldeko erabileran).

• Goian aditzak aipatu ditugu, baina aditzik gabeko egituretan ere erabili izan da *ARREN* sarri samar; batez ere bizkaierazko erabileran. Batzuetan, esanahiz kontzesiotik urrunduz, izenei eta izenondoei atxikirik: *pozarren*, *lotsarren*, *Jainkoarren*, eta abar. Beste batzuetan, aditzaren elipsiaren ondorioz, *EZ + ARREN* egitura arrunt samarrean:

(283) Baña, zuek ez *arren*, izan eban gizajeak nok adarra jo (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 35).

(284) Edertasun eta abotsik ez *arren*, ostera, zeozer onik izan bear eban, antza (Ibid., 84).

• *ARREN* postposizioari *ERE* lokailua lotu izan zaio, indar berezia emateko-edo, zenbait kasutan; batez ere, baina, aditz jokatugabeko kontzesio perpausetan, hegoaldeko erabileran. Ez dago esan beharrik markatua dela egitura hau, ez dela arrunta:

(285) ... berak asko eta gazte frenu-gabeak izan *arren ere*, gertakizuna egiaz, inguramen guziet ondo begiratu ezker, mirari-modutzat euki leikeana (J. I. Arana, *San Ignacioren bicitza*, 34).

(286) Gaia berez oso ona izan *arren ere*, era arrunt gordin eta nabarmenean azaltzen digulako eragotzi lezaiguke (M. Añaga, *Gaztelxo*, 60).

• Azkenik, *NAHIZ*-en kasuan ikusi dugun bezala, *ARREN*-en kasuan ere bestelako balioak izan ditzake mendeko perpausak; hemen ere, aditzaren zein formarekin doan eta perpausaren barneko ordena zein den, horren araberako balioa izango du:

<i>-eN</i> <i>ARREN ETA</i>	+	<i>ARREN</i> ADITZ SUBJUNTIBOA	KONTZESIOA HELBURUA
<i>-TU</i> <i>-TZE</i>	+	<i>ARREN</i> <i>ARREN</i>	KONTZESIOA HELBURUA

Zenbait gramatikatan esaten da helburuzko perpaus batzuek (aditz subjuntiboa dutelarik) aurretik lokaitu iragarleren bat izan dezaketela; horien artean aurreko azpiatalean aipatutako *NAHIZ(IK) ETA*; eta baita *ARREN ETA* ere:

(287) *Aren eta jin dadin, ...*

Ekialdekoa da, eta batez ere literarioa dirudi erabilera horrek.

Nolanahi ere, mendeko perpausaren hasieran ez ezik (hori da, normalena) aditzaren ondoren ere joan daiteke *ARREN* helburuzkoa; ikus, bestela, honako adibidea:

(288) *Eskaldun guzia da egun gonbidatzen / Has dadin izpirituz zerbeiten moldatzen, / Yakin dezaten arren gure ondokoek / Nolako gaiak zuzten hekin arbasoek (J. M. Hiribarren, Eskaldunac, 6).*

Kasu honetan ez da adierazi nahi "nahiz jakin dezaten", baizik "jakin dezaten (amoreagatik)" edo horrelako zerbait.

Aditz jokatugabeko moldeei dagokienez, oinarritzat partizipioa hartu edo aditz-izena hartu, perpausaren balioa erabat aldatzen da (–*GATIK* postposizioarekin gauza bera gertalzen da):

KONTZESIOA: –*TU ARREN*:

(289) *Amodioa nik ere badut / neskabxa gaztiarentza, / andre bat ona ekarritzen dut ori izan arren belza (Maitin, Ahal dena, 139).*

(290) *Bein batean Alkar gaxotu zitzaion, eta abel-sendalariari deitu arren, ez zan agiri la ez zan agiri (G. Mujica, Fernando Amezketa, 76).*

HELBURUA / KAUSA: –*TZEARREN*:

(291) *Putz eitiarren pezeta bi? Ez jauna; putz eiten jakitziarren (T. Etxebarria, Lexicón de Eibar, s. v. Arren).*

(292) *Zuk irago dituzuz esturak, larritasunak eta neke gogorrak, zeure semeak aberats itxite arren (A. Iturzaola, Azokua laburrac, 109).*

Helburuzko balioa duten halako perpausak helburuzko perpausen atalean aztertuko ditugu xehekiago, liburuki honetan aditz jokatudunak eta hurrengoan aditz jokatugabea dutenak.

5.3.3. –*GATIK* postposizioa dutenak:

- –*eNAGATIK*
- –*TUAGATIK*

Asko dira –*GATIK* postposizioaren bidez eratutako kontzesio perpausak, baina betiere aditz jokatugabeak baliatuz eratutakoak. Aditz jokatuaren bidez (aditz jokatu + –*eN*) eratutako perpausen adibide bakarra aurkitu dugu *OEH*-ko corpus osoan (L. Villasantek *Sintaxis de la oración compuesta* liburuan jasotzen duen bera) eta beste bakar bat *Egungo Euskararen Bilketa-Ian Sistematikoa* corpusean (*EEBS*):

(293) *Baiña har dezaket bigarren bat ere. Zeren oraiño zahar naizenagatik, bizi naiteke gehiago ere (P. Axular, Guero, 130).*

(294) Berhain, ezain ere gizon ez *zegoenagatik*, hara joan zen (F. Krutwig, *Igibarziaren iphuinak*, 66).

Ez dugu beste adibiderik aurkitu literatura-tradizio guztian. Badira **-eNAGATIK** bukaera duten adizkiak, baina ia guztiak motibatibo marka duten perpaus erlatibo bururik gabeak. Adibidez:

(295) Zu bezela negar-antsika *daudenagatik* gure Jesus ona gurutzean il zan (T. Alzaga, *Ramuntxo*, 131).

(296) (...) eman ziezten eskerrak egin *zutenagatik* eta esan zien gero: ... (S. Mendiburu, *Mendibururen idazlan argitaragabeak I*, 213).

• Gorago esan bezala, aditz jokatugabea erabiltzea da **-GATIK**-en bidez kontzesio perpausak eratzeko modu arruntena eta gaur egun behinlatz bakarra. Baina, lehen aurreratu dugun bezala, hemen ere zentzua erabat aldatzen zaigu, aditzaren zein formari atxikitzen diogun: partizioari ala aditz-izenari.

Lehendabiziko formaren bidez kontzesio perpausak lortuko ditugu; bigarrenaren bidez, kausazkoak edo helburuzkoak. Bietan, mugatzaile eta guzti doa aditza:

-TUAGATIK	→	KONTZESIOA
(297) Behin eta berri <i>esanagatik</i> , ez didate kasurik egiten.		
-TZEAGATIK	→	KAUSA / HELBURUA
(298) Egia biribilak <i>esateagatik</i> baztertu dute.		
(299) Merkeago <i>ateratzeagatik</i> joango naiz oporretara urrian.		

Aditz jokatugabeak **EGLU VIIko** aztergaiak direnez, **-TUAGATIK** kontzesiozkoen adibide bakan batzuk bilduko ditugu hona, eta hurrengo liburukirako ulziko ditugu perpaus mota horien gaineko xahetasunak.

(300) Eta nehorik *erranagatik* ere ezetz, etzaitzula lagunduko, eztuzu sinhesten (P. Axular, *Guero*, 294).

(301) Jendea plazan *egonagatik* Prantzesari itxoginhez, artasoroan etzanda ura bapo siesta eginhez (Tximila, *Bertsokak*, II, 222).

(302) Guzurretan inok *artuagatik* eziran lolsatuten (D. Aguirre, *Kresala*, 67).

5.3.4. BAINA enklitikoa dutenak

Kontzesiozkoen kapitulu honen hasieran (5.1.2.2 azpiatalean) esan dugu menderakuntzaren bidez nahiz juntaduraren bidez, berdintsu eman zitekeela aurkaritza-erlazioaren berri. Ekar ditzagun hona hango adibide batzuk:

(23) Gaixo dagoen *arren*, kalera irten da (MENDERAKUNTZA).

(24) Gaixo dago, *baina* kalera irten da (JUNTADURA).

(25) *Nahiz* xentimorik ez duen, ardotarako beti izaten du zerbeit (MENDERAKUNTZA).

(26) Xentimorik ez du, *baina* ardotarako beti izaten du zerbeit (JUNTADURA).

Esan dugu, halaber, bi egituren arteko erlazio semantikoa hain estua izanik, ez dela harritzekoa aurkarizako juntadura izatea konzjesio-egituretako baten jatorria, orain aztergai dugun egituraren jatorria, alegia. Har dezagun goiko adibideetako bat:

(24) Gaixo dago, baina kalera irten da →

(24') Gaixo dago-baina, kalera irten da →

(24'') Kalera irten da, gaixo dago-baina.

[A, baina B] egitura trukatu egin dugu, eta [B, A-baina] bihurtu (tartean [A-baina / B] pausua egin eta gero). Gertatu dena, beraz, izan da *BAINA* juntagailua, hasiera batean aurretik etenaldia zuena, aurreko osagaiari lotu zaiola; ahoskeran (eta idazkeran) nabarmena da hori:

- Azentuari dagokionez, aurreko aditzarekin unitate prosodikoa osalzen du *BAINA*-k; ezin du *BAINA*-k azentu nagusia hartu.

- Etenaldia (idalzian komaren bidez adierazi ohi dena) gertatzen da *BAINA*-ren ondoren. Kasu batzuetan ordena aldaketa ere gertatzen da.

Enklitizazioa deituko diogu gertatu den prozesuari, *BAINA*-ren enklitizazioa.

Banaketa geografikoari dagokionez, gipuzkerazko eta bizkaierazko jardunean aurkitzen dira *BAINA* enklitikoak duten adibideak, idatzizko jardunean nahiz ahozkoan.

BAINA, *BAIÑA*, *BAÑA*, *BAIA*, *BAIE*, *BAIÑO*, *BAÑO* dira literatura tradizioan agertzen diren *BAINA* enklitikoaren aldaerak.

Enklitizazio-prozesu horren adibide batzuk ere jaso ditugu lehendabiziko azpialat hartan; ekar ditzagun hona horietako batzuk, zenbakia aidatuta:

(303) Kosta yatan *baña*, azkenian oratu neubian belarrietatik txarrikume loditxuenari (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 253).

(304) Arrapeladari emon neubian *baña*, alperrik izan zoon (Ibid., 253).

(305) Kosta jak *baiña*, azkenean asmatu dok biziera bardinbako bat (Ibid., 52).

(306) Ta Txinpasek abots txarra eukiko eban *baiña*, biotz bat ipinten eban kantuan biotz bat (Ibid., 79).

(307) Bai; ondo be ba-dakil zoro-ergelak ifloren atsegingarri ta jolasgarri ixaten dirana, ebekuenizat ondo negargarri ixaten dira, *baña* (Otuolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 162).

(308) Marikontze eskallu, txaxrala, eskel, petralari la zuri, biori, arpegiko narrua kenduko deulauei nik, neure atzamarrakaz, lodia daukazue *baña* (D. Aguirre, *Kresala*, 68).

(309) Igarri barik erne ta asi jakon maitetasun ori, *baña* mingostasuna barruan ondo ezagutu barik ebakon joango, iflok kanpotik ezeutsan igarriko *baña* (Ibid., 75).

(310) Iru langoiko dire? Ez laune, langoiko bat baxen, iru persona dire *baie* (*Textos vascos antiguos. Un catecismo del s. XVII*).

BAINA enklitikoaren kokapenari dagokionez, esan beharra dago gehienetan aditz jokatuaren ondoren, hari loturik bezala, joan ohi dela (*BAINA* enklitiko daraman perpausaren azken muturrean askotan); horregatik esan ohi da egitura hauetan juntagailua baino gehiago menderagailua dela, beste menderagailuak bezala aditzari lotzen zaiolako *BAINA* enklitiko (gauza bera

gerlatzen da *ETA* enklitikoarekin); horregatik ari gara aztertzen egitura mota hau menderakuntzaren barruan, beste kontzesio-menderagailuekin batera.

Gainerako menderagailuekin batera aztertu dugu, orobat, haiek osatzen dituzten perpausen distribuzio sintaktiko bera dutelako *BAINA* enklitikoaren bidez osatzen direnek. Berdin-berdin eman dezakegu ondorengo informazioa *BAINA* enklitikoaren bidez nahiz beste kontzesio-menderagailuren baten bidez:

- (311) Gogo handirik ez *dudan arren*, egingo dut.
- (312) *Nahiz* gogo handirik ez *dudan*, egingo dut.
- (313) Gogo handirik ez dut *baina*, egingo dut.
- (314) Eguzkia *dagoen arren*, hotz handia egiten du.
- (315) Eguzkia dago *baina*, hotz handia egiten du.

Gainerako mendeko perpausak duten mugikortasuna dute, gainera, *BAINA* enklitikoaren duten perpausak: berdin ager daitezke, adibidez, kontzesioa adierazteko, perpaus nagusiaren aurretik, ondoren nahiz haren barruan tartekatuta.

Goiko (311-313) adibideak hartzen baditugu, mendeko perpaus guztiak eraman ditzakegu perpaus nagusiaren ondorenera:

- (311') Egingo dut, gogo handirik ez *dudan arren*.
- (312') Egingo dut, *nahiz* gogo handirik ez *dudan*.
- (313') Egingo dut, gogo handirik ez dut *baina*.

Hona hemen adibide argigarri batzuk *BAINA* enklitikoaren duen perpausaren mugikortasunaren berri emateko:

a) *BAINA* enklitikoaren duen perpausa, perpaus nagusiaren aurretik:

- (316) Iretargija argi da *baña*, eguna baxen argi ez (*Obxolua, Bertolda eta Bertoldin*, 42).
- (317) Bost urte diran ez dakit *baño*, beñepein badirade lau (*Bilintx, Bertsoak ta lan guztiak*, 68).
- (318) Arrapeladari emon neubian *baña*, alpernik izan zoen (*Ibid.*, 253).
- (319) Motza ta gauzak esango ditue nigatik *baña*, ezagututen dot nik zein zer dan ta zelan dabillen (*D. Aguirre, Auñemendiko lorea*, 59).
- (320) Zer dala-ta ez dakit *baña*, bere lagunaren ardiak zenbatu bear ebazala emon eutsan Don Pedrori buruak (*F. Bilbao, Ipuin barreka*, 74).

b) *BAINA* enklitikoaren duen perpausa, perpaus nagusiaren ondoren:

- (321) Nik bi andregai izandu ditut panplonesa ta bilbaña, emandakua artu iten det eskian ez nabil *baña*. (*Txirrita, Tximilaren Bertsoak II*, 188).
- (322) Itz orreri sinetsiaz, bada, ez diot kalte geiagorik egingo; ongi aski merezia zuan *baña*. (*P. Berrondo, Don Kijote Manbrako*, 113).
- (323) Olango gauzarik ebrakon illoiz bere gogoratu, eskabide andiak izan zituan *baña* (*D. Aguirre, Auñemendiko lorea*, 69).
- (324) Ori bai-dakit nik nor dan, eztozu esan gura *baña*. (*Kirikifo, Abarak I*, 37).

c) *BAINA* enklitikoaren duen perpausa, perpaus nagusian tartekatua:

- (325) Andrea, guztiok gera emen beartsuak, txirorik ezta emen; eskalerik, zarrak gera *baina*, eztegu inoiz ezagutu (R. M. Azkue, *Ardi Galdua*, 72).
- (326) Praiskuri, kostara zan *baña*, lizaropen-izpi batek egin eutsan kili-kili kolko barruan, barre eragiñaz (F. Bilbao, *Ipuin berreka*, 222).
- (327) Emazteak osterara, diru zaletxoa zan *baña*, ezaban gura bere seme kutuna ifloren morroikintzan ikusterik: etzan orretarako azia (D. Aguirre, *Kresala*, 181).

Perpaus nagusian tartekatua agertze horrek erakusten du ez duela perpaus juntatu batek duen jokamolde sintaktikoa: *BAINA* hori perpaus juntatu batzuen artekoa balitz (juntagailu hutsa balitz), ezin izango litzateke horrela agertu; bi perpaus beregainen artean bakarrik joango litzateke:

1. [A baina B].

Kasu honetan, ordea, egitura hau dugu:

2. [B (A baina) B].

Lehendabiziko kasuan (juntaduran) A perpausa beregaina da, eta ezin izango da inoiz tartekatu juntatua daraman beste perpausean (B perpausean): perpaus juntatu batek ez du halako mugikortasunik; hala genioen *EGLU IV* liburukian, 9. orrialdean.

Bigarrenean, berriz, *BAINA* daraman mendeko perpausa litzateke A hori, mendeko perpaus adberbiale askok bezala mugikortasuna duena.

BAINA enklitikodunetan gertatzen diren ordena aldaketa horiek, gainera, ez dakarte esanahi aldaketarik, perpaus juntatueta gertatzen direnak bezalako esanahi aldaketarik (ikus *EGLU IV*, 9.-10. or.).

Bi *BAINA* horien distribuzio desberdin horiek adierazten dute aztergai dugun egitura honetakoa ez dela juntagailua.

Beraz, orain artekoa laburbiltzeko, argumentu batzuk erabili ditugu *BAINA* enklitikoaren menderagailuekin batera sailkatzeko: ikusi dugu menderagailuen distribuzio bera duela (eta ez juntagailuena); azentu nagusirik ere ez duela hartzen *BAINA* enklitikoak; eta aditzari lotzeko joera nabaria duela (definizioz, zerbait lotuta joan behar du elementu enklitiko batek; ezin da, esate baterako, perpaus hasieran joan).

Gorago esan dugu *BAINA* enklitikoaren aditz jokatuari lotzen zaiola gehienetan (horren lekuko diru azpiatal honetara bildu ditugun adibide gehienak), aditza non-nahi doala ere. Aditzari lotze hori az da, hala ere, beti gertatzen: zenbaitetan, beste osagai batzuk tartekatzen dira aditzaren eta partikulararen artean (erabilera horretan, menderagailuen jokaeratik zertxobait urruntzen da kontu honetan *BAINA* enklitikoaren haiek beti doaz aditzari lotuta).

Gutxitan gertatzen da, dena dela, *BAINA* aditzaren ondoren ez joatea (aurretik aditza ez beste osagaien bat edukitzea, alegia). Hona hemen adibide bakan horietako bat:

- (328) Artobero, *etzan* bera ari argia ta gauzak ikasten erreztasun andikoa be *baña*, jatorri onekoa ta guraso begiratuen semea zan, da bekizan Kristiñauak nai la nai ez jakin bear dituan gauza danak, zerbait goiagogaz (D. Aguirre, *Kresala*, 40).

Menderagailu bete-betea behintzat ez da, beraz; are gutxiago halako perpausetan gertatzen den beste fenomeno bati erreparatzen badiogu: adizki alokutiboak erabiltzen dira *BAINA* enklitikoa duten perpausetan; mendeko perpaus hutsetan, berriz, ez da halakorik gertatzen (ikus *EGLU IV*, 8. or.). Hona hemen adizki alokutiboa duten *BAINA* enklitikodun adibide pare bat:

(329) Asko la asko yagozak, mutil, Mezatarako beti nagü aurkilxen diranak, beste gauzatarako bizkorrak ixaten dozak *baña* (Kirikiño, *Abarrak*, I, 10).

(330) Txakur lxikirik be eneukian patrikeran, gaur be asko geiagorik etxeakoat *baña* (F. Bilbao, *Ipuin berreka*, 251).

Iritziak iritzi, indartsuagoak direlakoan gaude *BAINA* enklitikoa menderagailuekin lotzen duten argumentuak, haietatik bereizten dutenak baino. Juntagailuen distribuzioaren guztiz bestelakoa du *BAINA* enklitikoak, eta menderagailuenaren oso antzekoa du, haien ezaugarri guzti-guztiak ez dituen arren.

Menderagailuen distribuzioa du ondoko adibidean (330. adibidearen egokitze bat da), non atzizki bihurtzeko prozesu bat nabaritzen baitiogu *BAINA* enklitikoari (aditzak beregana erakarri du *BAINA* enklitikoa):

(331) Txakur lxikirik be eneukian patrikeran, gaur be etxeakoat *baña* asko geiagorik.

Atzizki bihurtzeko prozesu horrekin batera, beste erabilera batean, aipatu beharra dago *BAINA*-ren lokailu bihurtzeko prozesu bat ere, nahiz *EGLU III* liburuko gaia den lokailuena. Honako kasu honetan, adibidez, *BAINA*, ez juntagailua, ez nolabaiteko menderagailua ez dela irudiltzen zaigu, lokailua baizik:

(332) - Beraz, egin berba enetxu orrek, abo ori zabalduteko baimena neuk ematen deuat-eta.

- Ixkita eukittia gura dau amak, *baña*. (*Otxolua, Bertolda eta Bertoldin*, 131).

5.3.5. -eLA(RIK) menderagailua dutenak

- -eLA
- -eLARIK
- -eLA ERE
- -eLARIK ERE.

Ikusten denez, bi menderagailu horiek eta horietako bakoitzari *ERE* lokailua gehituz sortzen diren egiturak sartu ditugu hemen (esan beharrik ez dago kasu honetan -eLA-dun perpaus horiek inoiz ez direla osagarriak izango). Baina, berdin al da kontzesio perpausa *ERE* lokailuarekin eta hura gabe ematea? Galdera horri erantzuten ahaleginduko gara ondorengo lerrootan.

Hasteko, konturatuko zen irakurlea bigarren azpiatalaren hasierako taulan (kontzesio moldeak jasotzen diren taulan) galdera marka bat jarri diogula bai -eLA hutsari bai -eLARIK-i ere. Horrekin adierazi nahi genuen ez ditugula berdintzat jotzen horiek eta horien *ERE*-dun aldaerak.

Egia da zenbait gramatikatan menderagailu hutsezko forma horiek kontzesiozko egituren artean sailkatu izan direla; eta, ixuraz, arazorik gabe.

Lafitterenean, adibidez, hala gertalzen da *-eLARIK*-en kasuan. Adibide hauek ematen ditu:

(333) Jesus ere ez *dakielarik*, jakintsunaren fama bildu harek (P. Lafitte, *Grammaire basque*, 865§).

(334) Sei urthe *dituelarik*, zer uste duzu ongi dekiela katchima (Ibid., 762§).

Hala ere, guk ez ditugu gauzak hain argi ikusten. Gure ustez, kontzesioa adierazteko askoz ere arruntagoa da menderagailu horri *ERE* lokailua eranstea. Horrekin ez dugu esan nahi goiko bi adibide hauek kontzesio-baliorik ez dutenik; bai, ordea, ez direla zehazki kontzesioari lotutako formak. Balio dezakete, testuinguru jakin batzuetan, kontzesioa adierazteko, baina ez da hori kontzesioa adierazteko forma arrunta. Gauza bera esan dezakegu kontzesio-balioa izan dezaketen beste forma batzuei buruz, berez kontzesioari lotulako formak izan ez arren. Adibidez, honako hauek:

(335) Gaixorik dago, *eta* kalera doa.

(336) Euskalduna da, *ete* erdaraz ari da beti.

(337) Hain eri *baitzen*, ez zen balere izitu (P. Lafitte, *Grammaire basque*, 865-§).

Balioz kontzesiozkoak ez direnik ezin esan, baina formaz nekez sar dezakegu kontzesiozko egituren artean *ETA*-ren bidezko juntadura, edota *BAIT*- menderagailua erabiliz sortutako perpausa.

Era horretako egiturez 5.3.11 atalean mintzatuko gara, luze ez baldin bada ere.

-eLA eta *-eLARIK* berez kontzesiozko formen artean sartzeko zalantzak direla eta, horretarako arrazoi bat baino gehiago ditugu. Batetik, literatura-tradizioan ez dira adibide asko huts-hutsean joanik kontzesio-balioa dutenak:

(338) Ta zuek, indartsuak *zaretela*, laguna bear dezute zugatz zirzil bat gurdira jasotzeko (D. Aguirre, *Garaa*, 32).

(339) On da guretzat zenbait aldiz kontra erraileak ditugun, eta paira delzagun, bai eta gutaz iujeamendu gaixorik eta makurrik eman dezalen, ongi egiten *dugularik*, eta intenzione onarekin (S. Pouvreau, *Iesusen Imitacionea*, 40).

(340) Euskal deitura *duelarik*, ez gaitu gehiegi maite euskaldunok (K. Mitxelena, *Mitxelenenaren Idazlan Hautatuak*, 270).

Bestetik, *ERE* lokailurik gabe doazenean, menderagailu hutsa nahikoa iruditu ez eta, beste "laguniza" balzuez baliatu izan dira idazleak kontzesio-balioa ziurtatzeko. Horietako bat, perpaus nagusian letra etzanez markatu dugun aurkarilizako lokailu bat edo juntagailu bat sartzeara:

(341) Ordea gailzetik heldu den beheramendua maite *dugularik*, *guzia gatik re* hura ekharri duen gaizkia erremediatu behar dugu on eta zuzenezko diren bidez, *guzien gaintetik* guk egin gaizkia kontuzkoa eta seinalalua denean (S. Pouvreau, *Philotea*, 218).

(342) Halakoak behar handia dute miduku espiritual on baten eskuetan erorteko; zeren nola bihotzeko kharmitasun hura baitute sorkuratik, gailz da hari garaitzea, eta berez bekhatu *etzelarik*, bainan eskas-makhur bat xoilki *delarik*, *guziarekin ere* perillosa da, zeren, hura dela bide, iujeamendu arinak eta gaizki erranak sartzan eta nausi iarten baitire ariman barrera (S. Pouvreau *Philotea*, 342).

(343) Iainkoak athera zaitu ezdeus hartarik zure egitea *gatik* zaren bezalakoa, zure beharrik *etzelarik*, *bainan* bere ontasan hutsaz (Ibid., 32).

- (344) Zeren haren odola bera orduan isurten *eztelarik*, *bedarik* ere Pasionean isuri zen odolaren meritua da, penitentak konfesatokieta largoki bustitzen dituena (Ibid., 72).
- (345) Konzientziak minzaltzen usatua *eztelarik*, *eztaki atabaina* ixilik ere egoiten (P. Axular, *Guero*, 275).

Kontzesio-balioa ziurtatzeko beste modu batzuk, beste egitura batzuk ere erabili izan dituzte idazleek *-eLA* (eta *-eLARIK*) menderagailuaz gain: egitura erlatibodunak, banakaritza, izenordain zehaztugabeak edo bestelako batzuk. Ikus dizagun hurrenez hurren:

- (346) *Ebilen tokian ebilela* bere bizilza on da garbia erakusgarri andikoa izaten zan, baiña batez bere ebadi barnuan (D. Aguirre, *Aufemendiko lorea*, 143).
- (347) *Daguan lekuban, daguala* gizona, nai emakumia, aragija, ta gurari txarren gatxa beragaz darabil beti (Fray Bartolome, *Icasiquizunac II*, 284).
- (348) Bearbada ez da aentzat zureztat adia perill, edo ezagutzen ez due: eta nolana, *dijoazela*, edo ez *dijoazela* besteak, zu beartua zauda bekatuako bide, eta perill urkoelatik aldegilera (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaidiac III*, 485).
- (349) Sartuko dira torre, eta gazteluetan; igoko dira mendien gañera, ezkulatuko dira lize-zuloetan, baiña alferrik, zeren, *norana! dijoazela*, eta *non nai* ezkuta *ditezela*, abiturko dituan su erretzalle ark (Ibid., 478).
- (350) Tobias bere arrebakaz sekula ez zan ondo konpondu. *Hori*, mutil mazala ta borondate onekoa *zala* (E. Erkiaga, *Iribarrea galtzen denean*, 114).

Horiekin batera, *-eLA* / *-eLARIK* menderagailue huts-hutsean eman beharrean, erabiltzen den baliabide nagusia *ERE* lokailua eranstea da. Lehenago ere (5.2. atalean) aipatu dugu lokailu horrek kontzesioa adierazteko duen garrantzia; kontzesio molde askotan aurkitzen dugula, baita horien baliokide izan daitezkeen aurkaritzako lokailuetan ere; era berean, lokailu hori zenbait perpausi erantsiz gero, perpaus horri kontzesio-balioa ematen diogula ere esan dugu: adibidez, baldintzazko eta moduzko perpausai. Aukera guztien artean, muga-mugako kasu bat hartzen da, perpaus nagusian adierazteko "hala ere" hortik ondoriozta dezakeguna ez dela betetzen:

- (351) Alferra bada, ez dute lantegian hartuko.
- (352) Langilea bada ere, ez dute lantegian hartuko.
- (353) Zaharkitua zaudelarik, ez duzu maratokia bukatuko.
- (354) Sasoi betean zaudelarik ere, ez duzu maratokia bukatuko.

Jakina, ez dugu esaten *-eLARIK* duena *ERE*-rik gabe ere eman ezin denik, kontzesio-baliarik ez duenik; baina ziurragotzat jotzen da lokailu eta guzti ematea, bestela, hori gabe, zenbaitetan ilun geratuko litzateke eta. Adibide kopuruetara begiratzen badugu ere, konturatzen gara ugariagoak direla *ERE* lokailudunak, gabeak baino; aitortu beharra dagoen arren *-eLA ERE* eta *-eLARIK ERE* egitura duten adibideak ere ez direla oso ugariak, Adolfo Arejitak *Euskal Joskera* gramatikan aipatzen duen bezala (<<oso gixitan agertzen diran arren>>, ikus 172. orrialdea). Ekar dizlagun hona horietako batzuk:

- (355) Ua berriz, bit biotz oneko *zala ere*, asarekor zan (Orixe, *Aitorkizunak*, 228).
- (356) Begira ea egin izan dozunez guzuraren ganeko yuramenturik; bada guzur txikia ta txantxazkoa *dala bere*, beti da bekatu mortala (P. A. Añibarro, *Escu-Liburua*, 2, 136).

- (357) Gazte samar *geralarik ere*, (...) ari galzaizu (...) munduko berri ikasten (Lizardi, *Itz lauz*, 102).
- (358) *Diyotalarik ere* naitasun bikaiña, nere amonyuak falta du ordaiña (Bilintx, *Bertsoak ta lan guztiak*, 63).
- (359) Mundu huntan bizi zareño nahi *eztuzularik ere* ganbiakor izanen zare (M. Chourio, *Imitazioea*, 248).
- (360) Gainerako lagunek, bizi eta egiazko *direlarik ere*, itzaliak dirudite haren aldean (K. Mixelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 186).
- (361) ... da arako don Pablo baten gizara, zar-zarra zala bere, erririk-erri ebillen lesukristoren legea zabailzen, bere gaztetako gaiztokeri guztiak autortuaz (D. Aguirre, *Auñemendiko lorea*, 169).

Beraz, iruditzen zaigu askoz ere errazago interpretatzen dela kontzesio-balioan *ERE* lokailua ematen dugunean.

• Orduan ere, ordea, badira anbiguo edo ilun gerta daitezkeen kasuak; alegia, kontzesioaz bestelako interpretazioen bat izan dezaketenak. Beste zenbait moldetan gertalzen den bezala (*BA*... *ERE*-ren kasuan eta *-Z GERO*-ren kasuan, adibidez), ikusiko dugu *-eLA(RIK)* *ERE* duten adibideak ere ez direla nahitaez kontzesiozkoak; bestelako balioak ere izan ditzaketela forma hori duten perpaus batzuek.

Baluetan argi dago kontzesiozkoak ez direla; beste baluetan ez dago argi kontua. Kontzesiozkoa izan daiteke edo ez. Izan ere, muga irristakor samar batekin egiten dugu topo hamen, *-eLA* edo *-eLARIK* hutsa duten kasuetan bezala: denbora, modua, kontzesioa... Baluetan ez da arraza horietako zein balioren aurrean gauden jakitea. *OEH*-k ere honako hau dio *ERE* sarreraren barruan: <<Detrás de una oración condicional forma una oración concesiva. Incluimos aquí las construcciones de participio con *-(r)ik* y de *-(e)la(rik)* (con verbo conjugado), aunque en algunos casos el valor concesivo no es del todo claro.>> (*OEH*, VII, 3. or.). Adibide hauek ematen dira han:

- (362) Biak, seglare zirala ere, erlijiosoen bizitza egin zutenak (A. Cardaberaz, *Justuen Ispillu arguia*, 5).
- (363) [Pekatuak] eragozten eztiinak. artarako kargua eta obligazioa duelarik ere (J. I. Guernico, *Sayaquera*, II, 6).
- (364) Txit biotz oneko zala ere, asarrekor zan (Orixe, *Aitorkizunak*, 228).

Denborazko edo moduzko interpretazioa ere eman dakieke zenbait perpausi.

- (365) Oriek, ordea, egonik ez dute, ez baitaude, iges baitoaz. Nor doakie atzelik aragi-irritsez? Nor atzeman, bertan *daudela ere*? (Orixe, *Aitorkizunak*, 88).
- (366) Trinxera aietan ura zegoan, bañan, nai ez *genduala ere*, lo artzen genduan; lo premi andia baigenduan (S. Salaverria, *Neronek tirako nizkin*, 92).
- (367) Eta Gabirian bei-kontu *nebillela ere*, makiña bat aldiz egon nintzan negarrez gure aita eta ama gogoraluta, pentsatunk ez nituala gehiago ikusiko (Ibid., 23).
- (368) Txikiago zala ere orobat izan zituen, ta estasis oien testigua Aioa izandu zan (A. Cardaberaz, *Justuen Ispillu arguia*, 94).
- (369) Ta jan-zar *dagoia bere*, edateko beti gertu dabillen ezkerro, maskartu ta txatxartu da errime, Nikanor mutil gaztea (E. Erkiaga, *Baletik bestera*, 174).

• Distribuzio geografikoari buruz, oro har *-eLA*-duna mendebaldekoa da eta *-eLARIK*-duna ekialdekoa. Mendebaldean *-eLA* *ERE* baino gehiago erabiltzen

da aditz jokatugabekoa (~TUTA ERE). Izan daiteke interpretazioaren aldetik aipatu berri dugun desabantailagatik? Baliteke. Hala ere, gogorarazi behar dugu aditz jokatugabedunak ere ez direla erabat gardenak interpretazioaren aldetik. Hauek ere bai baitute jokatudunek duten arazo hori³⁴.

5.3.6. (BALDIN) BA... ERE, baldintzazkoetan oinarrituak

Kapitulu honen lehen atalean aipatu dugu baldintza perpausetako protasiari ERE lokailua gehituz kontzesio perpausa sor daitekeela. Arruntean, aditz jokatudun perpausetan gehiagotan, jokatugabeetan baino. Lehendabizikoa bigarrena baino normalagoa dela esango genuke:

(370) Lagunek eskatzen badidate ere, ez naiz etxetik aterako.

(371) Lagunek eskatuz gero ere, ez naiz etxetik aterako.

Aurreko atalean, -aLA / -eLARIK-dun moduzko perpausari ERE gehitzen genion bezala, kasu honetan baldintza bati atxikitzen diogu. Baldintza horretan esaten dena gorabehera, protasitik ondorioztatzen denaren kontrakoa adieraziko du perpaus nagusiak.

Nolanahi ere, bigarren atalean aipatu dugun puntu bat gogorarazi nahi genuke hemen; han esaten genuen edozein baldintza perpaus ezin zitekeela kontzesio perpaus bilakatu ere harlu ondoren. Zerikusia du horrek, noski, kontzesio perpausak galdegai izateko duten ezintasunarekin. Hala, galdegai ez diren baldintza perpausak bakarrik bilakatu ahal izango ditugu kontzesiozko: mintzagai direnak (ikus 5.2.2 azpialdean).

• Beste egitura balzuetan bezala, hauetan ere agertzen dira erredundantzia kasuak; batez ere NAHIZ ... BA... ERE dutenak dira (ikus 5.2.9 azpialdean).

• BA... ERE egituraren klixer bihurtutako erabilera bat ere badugu: aditzen arteko komunizadurarik onartzen ez duena eta ahozko hizkuntzan behintzat BA... ERE kontzesiozko arruntak ez bezala ahoskatzen dena (ikus EGLU III (Lokailuak), 76.-78. or.). Erabilera zurruna du, finkoa; beti adizki berarekin eta forma berean. Lokailua da kontzesio egitura emankor bat baino gehiago:

(372) Hori badare egin behar dugu.

(373) Egizu hori badare ([ba(d)ere]).

(374) Egizuz horiek badare.

(375) *Egizuz horrek badira ere.

• BALDIN lokailua baldintza perpausetan erabiltzen denez, era honetako kontzesio perpausetan ere erabil daiteke, jakina. Haietan bezala, hautazko elementua da, eta kokagune jakinik gabekoa (ikus BALDIN-en kokaguneaz liburu honen 1. kapituluaren baldintza perpausaz esaten dena).

Hona hemen BALDIN-en mugikortasuna erakusten duten adibide batzuk:

(376) Diosta Piemisak, Are baldin hirekin hiltzera behar badakii-ere, ez aut ukhaturen (J. Leizoraga, Testamentu Berria, 53)

³⁴ Ikus bestela OEH-n zer esaten den egitura hauei buruz (VII, 3. or.): <<En oraciones concesivas con *ere* precedido de participio con -TA (-DA) y de participio seguido de (e)ta (de). El valor concesivo de algunos ejs. puede ser dudoso.>>

(377) Bainan ez; *baldin* jaun done Inaziok erakutsi izan *badu-ere* saila, ez da gutiagi egia orhea eta orhapena, guziak aita Kardaberazi zor diotzagula (J. Duvoisin, *Liburu Ederra*, 7).

(378) Bada, ez *balin-banaki-ere* ala aphaigura, ala hanpurus naizen, ariarik aski banuke hanpurus naizela uste izateko (Ibid., 109).

Mendeko perpaus luze samarrak diren kasuetarako gerta daiteke baliagarria aurreko muturreko kokagune hori, Lafittek berak dioen moduan (ikus *Grammaire basque*, 784§). Adibidez, honako kasuan:

(379) Eta *baldin* ungiz oraino baino rigoroskiago eta gogorkiago punitu nahi bagintuk-ere; eta plaga baten lekhuari ehun rezebitzeko gintuen orduan-ere; eta are berze orduz eure Israeleko populuaren falten korrejlizean usatu ukhan duan maledikziorne guziak gure gainera eror balitez-ere, konfesatzen eta kontradikziorneki balre gabe aithortzen diagu zuzen onez eta mereziz gintukeela (J. Leizarraga, *Othoitza Ecclesiasticoen forma*, 11).

Nolanahi ere, arruntena izan ohi da *BALDIN* lokailu hori adizkitik eta *ERE* lokailutik gehiegi ez bereiztea kontzesio perpausetan.

BA... *ERE* kontzesio-egitura *ERE* lokailuak adizkiari jarraitzen dio aruntean, nahiz eta beti ez izan horrela:

(380) Ezen berak ez *badu* maite ere, ez du jasango berea zelako gizona beste batena izalea (J. Mirande, *Miranderen idazlan hautatuak*, 174).

(381) Io *badeza* dardoaz ere gorputzaren erditik (B. Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 129).

- Bestalde, aipatu nahi genuke *ERE*-rik gabeko *BA*-dun egitura batzuek ere kontzesio-balioa izan dezaketela. Lehenago aipatu dugun kontua bezala, ez da berez kontzesiozko forma, baina balzuetan, testuinguru jakin batek lagundurik, erabil daiteke kontzesioa adierazteko:

(382) Trisie bazaude, ez duzu ezagun.

(383) Joxe euskaraz ondo mintzatzen bada, bere anaia ez da batere ondo moldatzen.

Horren antzekoa litzateke gaur egun ugaltzen ari zaigun erabilera bat ere; inongo aurkarizarik izan gabe ere, kontzesiozko moldeetara jotzen da berez juntadura bidez egin zitekeen kasu balzuetan (ikus 5.1.1 atalean):

(384) Alavesek galdu egin *badu* ere, Osasunak irabazi egin du.

Baita *ERE* lokailurik gabe ere:

(385) Alavesek galdu egin *badu*, Osasunak irabazi egin du.

(386) Lehen kausazko perpausak azaldu *baditugu*, orain kontzesiozkoak aztertuko ditugu.

Aditz jokatugabeko moldeei dagokienez, *-TUZ GERO* (baldintza jokatugabea) + *ERE* egitura dugula esan behar da, gehiegitan erabiltzen ez dena. Golzon Garatek bere *Erdarakadak* liburuan dio egitura hori gramatiketatik jaso duela, ez baserrietatik:

(387) Ez nuke nik, ahal izanez *gero* ere, inor joatera behartuko (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 171).

(388) Haur da hirugarren erremedioa, emaztetarik begiratzeko, hekin ez kutsatzeko, eta kutsatuz *gero* ere, garbitzeko, gogoaren delibaramendua, borondatearen bertze aldera delibaratuki izulirik iartzea, eta egoitea (P. Axular, *Guero*, 248).

Batzuetan, gainera, denbora kutsua du kontzesiozkoa baino gehiago. Honako hauek, adibidez:

- (389) Bigarrena, sorthu zela gelditurik Andre dana Maria erdi baiño lehen, erditzean, eta *erdiz gero ere* Birjina (E. Mallerre, *Doctrina Christiana*, 14)
- (390) Mundu onetan alkar balzandurik, ta nastaurik bizi dira onak deungekaz: il *ezkero bere*, loki baten lurpetuten dituez: baña Judizioko egunean ezta alan izango; (P. A. Añibarro, *Escu-Liburua* 1, 45).

–TUZ GERO ERE egitura horren ondoan, bada beste egitura bat arruntagoa eta erabiliagoa dena: –TUTA ERE:

- (391) Eskua moztuta *ere* axeriak axeri gelditzen dira; ankaezurrak ausita *ere* otsoak beti otso (D. Aguirre, *Garoa*, 62).
- (392) Diek guziyak adituta *ere* andria etzan jaikitzen (Txirrita, *Txiritaren Bertsoak* I, 149).
- (393) Bertsolari bat ez bada haizu hoinbesteren esatera, berriz baimena lortuta *ere* ez noa kantuz hastera (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 270).

• Bukatzeko, aipatu nahi genuke BA–... ERE duten egitura batzuk ez direla, beste kasu batzuetan gertatzen den bezala, nahitaez kontzesiozkoak (orainxe bertan ikusi ditugu aditz jokatugabeko baldintzetan oinarritutako kasuak ere). Adibidez, honako hauek kontzesio-balioa baino argiagoa dute baldintzazkoa:

- (394) Etxera noa, norbait etori *bada era*.
- (395) Etxea garbi eduki behar dut, norbait *badator ere*.
- (396) Norbaitek preguntau *ezkero be* lotsagarria da zer erantzun ez jakitzia (J. San Martin, *Zirikadak*, 84).
- (397) Beha ginauden, guardak iraganen *baziren ere* (= pour le cas où le douaniers passeraiert) (P. Lafitte, *Grammaire basque*, 889§).

Azkuek halako zerbait zioen *Morfologie vasca*-ko 709 atalean: <<A veces tiene otro matiz distinto, como en *euria badagi bere* por si lloviera (Micoleta, 25-2).>> Lafitek ere halako zerbait dio bere gramatikan (ikus 889§): ez dela nahasi behar frantsesezko *si* galderazkoa eta *si* baldintzazkoa; euskaraz *supositiboa* denean egokiena <<pour le cas où>>-ren bidez itzulzea dela dio.

5.3.7. GALDETZAILEA + ERE + BAIT–/–eN: NOR ERE BAIT–/–eN, ZEIN ERE BAIT–/–eN, ...

EGLU V (Mendeko perpausak-1) liburuan aztertu genuen erlatibozko molde baten eite handia du kontzesio-egitura honek; *korrelaziozko perpaus erlatiboak* deitu genituen han (ikus 248. or.); perpaus erlatibo horietan izenordain bat izaten da, perpaus nagusiko erakusle anaforiko baten aurrekaria dena; perpaus erlatiboko aditzak, berriz, BAIT– menderagailua darama. Korrelazioa izenordainaren eta erakuslearen artean gertatzen da:

- (398) *Nor ere* bailago nitan ta ni hartan, eta *harek* ausarki ekartzten du fruitu (L. Léon, *Ebanjelio Saingua*, Jn 15, 5).

Liburu hartan bertan aipatzen da badela era horietako perpaus erlatiboen eta kontzesiozko mota baten arteko harreman handia, zenbait kasutan interpretazio bikoitza edukitzeraino. Han esaten da testuinguru egokietan kontzesio-balioa

izan dezakeela izenordainak, eta horren ondorioz kontzesio-balioa hartzen dutela perpaus horiek:

(399) Non ere gordetzen baita, ez digu handik ihes egingo.

(400) Nork ere salatuko baitu, hari ez zaio barkatua izanen.

Kasu hauetan bietan interpretazioa, erlatibozkoa ez ezik, kontzesiozkoa ere izan daiteke:

- Gordetzen den lekutik ez digu ihes egingo (ERLATIBOA).
- Salatzen duenari ez zaio barkatua izanen (ERLATIBOA).
- Edozein lekutan gordetzen dela ere, harrapatuko dugu (KONTZESIOA).
- Normahi dela ere salatzen duena, ez zaio barkatuko (KONTZESIOA).

Hala ere, arruntean kontzesio-belioa duten era honetako perpausetan ez da korrelaziorik izaten izenordainaren (galdetzailearen) eta perpaus nagusiko erakusle anaforikoaren artean, ez baita bigarren hau agertzen.

Menderagailuari dagokionez, bai *-eN* eta bai *BAIT-* izan ditzake halako kontzesio perpausetako aditzak.

Ekar ditzagun hona adibide batzuk:

A) *-eN* MENDERAGAILUDUNAK:

(401) *Zonbat ere jauna den* (pour seigneur qu'il soit) (P. Lafitte, *Grammaire basque*, 885§).

(402) *Zeñ ere zeran* andi ta luze, eztezu inbiko (M. Larramendi)

(403) Ezteazula niholatak mandaturik enzun, *zein ere* aitzakiagatik *nahi den* (S. Pouvreau, *Philotea*, 305).

(404) Baña *zein ere* andiak *liraken* irabazte oriek, ez lukoe pits bat balioko (S. Mendiburu, *Mendibururen idazlan argitaragabeak I*, 161).

(405) *Zein ere* ondasun ugariak *dituen* batek, gizonaren bizia eztago ondasun asko izatean (P. Iraizoz, *Yesukinstoren bizia*, 279).

(406) Ciceron tristea, lurreko onragatik, bere erreterika guziaz *zeñ ere zan*, ta lenago alegin guziaz prestaturik *zeñ ere zegoen*, alere [...] utsegiteko bildurrak beti (A. Cardaberaz, *Eusqueraren Berr Onac*, 59).

Kardaberazen azken adibide honetan ohart gaitezten kontzesio-balioa indartzeko aurkaritzako lokailu bat ere badugula perpaus nagusian (*halere*).

B) *BAIT-* MENDERAGAILUA DUTENAK:

(407) [Jonathas] etzitzaion batera bekaxtu Dabiti, *zenbat baitzen ere* arrotza (B. Larreguy, *Testament çaharr. berr. historia*, I, 280).

(408) *Zenbat flako bai zare ere*, zerbitzatu gogo duzun Jainkoak borthiztuko zaitu (A. Baratziart, *Guiristinoqui bicitzeo eta hiltzeo moldea*, 174).

(409) *Zein haundi baitire*, gu iduriak dira erregeak (Arotçarena, 190).

(410) *Zer izanen baita ere* ethorkizunaz, gero lainkoaren miseriordiara ihes eginen *badugu ere*, orai eskuen gainean, presentean eztagu plazerik utzi nahi, eta penarik hartu (P. Axular, *Guero*, 96).

Axularren azken adibide honetan kontzesio interpretazioa ematen lagunzen du *ZER ... BAIT*- moldearen ondoren datorren beste era bateko kontzesio perpausak, *BA*-... *ERE* motakoak.

Esan behar da perpaus mota honen beste ezaugarri bat *ERE* lokailuaren presentzia dela. Izenordainaren ondoren joan ohi da; batzuetan jarraian:

(411) Ezteazula niholatako mandaturik enzun, *zein ere* aitzakiagatik nahi den (S. Pouvreau, *Philotea*, 305).

Beste batzuetan aditzaren ondoren ere bai:

(412) Zenbat fiako bai zare ere, zerbitzatu gogo duzun Jainkoak borthiztuko zaitu (A. Baratziari, *Guiristinoqui bicitzeco eta hiltzeco moldaa*, 174).

Esan beharra dago literarioa dela batez ere egitura hau.

5.3.8. Banakaritza-egiturak

Aurreko atal batean (ikus 5.3.1) aipatu dugu badela *NAHIZ* lokailua duten kontzesio perpausen egitura distributibo bat; esan dugun bezala, kontzesioa adierazteko egituretako bat izan daiteke banakaritza ere. Dakargun hango adibide bat:

(413) *Nahiz* dela euria, *nahiz* (dela) eguzkia, kalera aterako naiz.

EGLU III (Lokailuak) liburukian (17.-18. orrialdeetan) aipatua dugu banakaritza deitutako juntadura mota hori. Han esaten da era honetara gauzatzen dela banakaritza edo distribuzioa:

- hilz edo partikularen bat errepikatuz,
- alborakuntza hutsez (juntagailurik gabe) edo juntagailuren baten bidez (*ETA*, *EDO*, *NAHIZ*, *ZEIN*, *ALA*) loturik. Juntagailua bera ere errepika daiteke (*EDO ... EDO ...*; *NAHIZ ... NAHIZ ...*).

Era askotakoak dira, beraz, euskaraz egitura distributiboak edo banakaritzaak: errepikatzen den elementuaren arabara eta erabiltzen den juntagailuaren arabara, konbinazioak kontaezinak dira.

Guk aditz jokatua dutenak bakarrik bilduko ditugu hemen. *EGLU III*n eta *EGLU IV*n aurkituko ditu interesa duenak gainerakoak; alegia, juntagaia izen sintagma, adizlaguna edo adjektiboa den kasuak.

5.3.1 atalean eman ditugu *NAHIZ* daramaten egitura distributiboak; hangoei, honako hauek gehitu behar zaizkie, menderakuntzari gagozkiolarik. Adizkiak (edo menderagailuak) errepikagai diren kasuak ditugu (alborakuntzaz nahiz juntaduraz):

- *DELA A DELA B_i* + Perpaus Nagusia:

(414) *Dela* zurekin *dela* zu gabe, ni banao.

(415) Gizon gazteak alabainan, *dela* argitzeko, *dela* bere adin ederraz gozatzeko, nahiago hiri handia (J. Etchepare, *Buruchkak*, 48).

- *IZAN DADIN A*, (juntagailua) *IZAN DADIN B_i* + Perpaus Nagusia:

(416) *zan dadin* egunez, *izan dadin* gauzez, iristen zarenean kasu egin.

(417) Zeren, zurea balinbada, semea *izan dadin*, edo *izan dadin* alaba, ez baitu aitaren egiterik (J. B. Elissamburu, *Piarres Adame*, 26).

- Subjuntiboa A, (juntagailua) subjuntiboa B, + Perp. Nag:

(418) Zurekin *eraman dezazun* ala *ebxean geldi dadin*, nik ez dut ikusiko.

Balzuetan bigarren adizkia isilduta are:

(419) Zesar-en adichkide *izan dadila ala* etsai [ø], ez diote barkatuko (P. Lafitte, *Grammaire basque*, 760§).

- DELA A, *nahiz (eta, edo)* DELA B, + Perp. Nag:

(420) *Dela* zurekin *nahiz dela* zu gabe, ni banoa.

(421) Eguraldi ona *dela* edo *txarra dela*, katera irtengo naiz.

Juntagailua ere izan daiteke errepikagai:

- EDO A –eLA, EDO B –aLA, + Perp. Nag:

(422) *Edo* hau falta *duela* edo bestea falta *duela*, beti eskean dabil.

(423) Ikasi bear dituzu, *edo* elizara *zatozela*, *edo* liburuaz edo bestez baliatzen *zerala* (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac III*, 412).

Liburuki honetan azterkizun ez diren arren, aipatu baino ez ditugu egingo aditz jokatugabea (aditzaren partizipioa) duten kasuak:

- NAHIZ A aditz partizipioa, NAHIZ B aditz partizipioa, + Perp. Nag:

(424) *Nahiz* goizean *joan nahiz* arratsaldean (joan), lanean aurkituko duzu.

(425) Ekusiko dituzu ... asko emakume ... jauntzi mola berriai jarraitzen *naiz* etxea gaizki *geratu*, *naiz* etxeko pakea *gaitu* (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac III*, 606).

- ZEIN A aditz partizipioa, ZEIN B aditz partizipioa, +Perp. Nag:

(426) *Zein* bekatu guztia *ezkutatu*, *zein* estalgamiekin *eskusatu*, oro bat da (J. A. Moguel, *Eracastac*, 112).

- Aditz partizipioa A, aditz partizipioa B, + Perp. Nag:

(427) Goizean *joan*, arratsaldean *joan*, lanean aurkituko duzu.

(428) Goiz *izan*, berandu *izan*, nik lanean jarraituko dut.

(429) Egunak *etorri*, egunak *joan*, ez da bere onera etortzen Pantxika.

(430) *Ibili* eta *ibili*, ez zuen herrink ikusten.

Bistan da horietako guztiak ez direla maila berekoak. Batzuk erabileraz oso arruntak dira; beste batzuk, berriz, kutsu literarioagoa dute. Adibidez, erabilera arruntagoak dira honako hauek:

(431) Goiz *izan*, berandu *izan*, nik lanean jarraituko dut.

(432) Eguraldi ona *dela* edo *txarra dela*, katera irtengo naiz.

beste hauek baino:

(433) *Nahiz* *dela* eguraldi ona, *nahiz* *dela* txarra, katera irtengo naiz.

(434) *Izan* *dadin* egunez, *izan* *dadin* gauez, lanean aurkituko duzu.

Banakaritza kasu guztietan balio bertsua dugu; *EGLU IV* liburukian emendiozko juntaduran (*BAI ... BAI; EZ ... EZ*) eta hautakaritzazkoan (*NAHIZ ... NAHIZ; ZEIN ... ZEIN*) bereizita ageri badira ere, guztietan "orobatasun"-ezko deitu dezakegun balioa dugu, indiferentziazkoa, alegia: berdin zaigu bata zein bestea, aditz nagusian adierazten dena gertatuko da. Balzuetan, banakaritzako bi kasuak (gogorarazi nahi dugu, bestalde, bi juntagai baino gehiago ere izan daitezkeela egitura distributiboetan) muturrekoak izaten dira (*goiz izan, berandu izan*); beste balzuetan, besterik gabe juntalzen diren bi perpaus, muturrekoak izan beharrik ez dutenak; gertukoak ere izan daitezke:

(435) Lagunekin irten dela, familiarekin joan dela, gaur ere Olatz ikusi gabe gelditu gara.

5.3.9. Perpaus erlatiboa duen kontzesio moldeak: DATORRENA DATORRELA gisakoak

"Axolagabetasuna"-edo dei genezakeen zerbait adierazten da kontzesio mota hauetan, indiferentzia: berdin zaigu zer gertalzen den; edozer gertatuta ere, den egoerarik muturrekoena edo oztopagarriena gertalzen dela ere, horretatik ondoriozta dezakegunaren kontrakoa gertatuko da perpaus nagusian. Diren posibilitate guztiak hartzen dira kontuan, berdin zaigula esateko, posibilitate horietako bat gogoan dugula (arruntean muturreko kasu bat) perpaus nagusikoa beteko dela esateko.

Honako hau da halako perpaus moten egitura osoa:

P. erlatiboa + aditza; + *-eN* + erlatiboaren burua + hondarkia + aditza; + *-eLA*

(436) Den lekuan dela, aurkituko dut (= den lekurik ezkutuenean egonda ere, aurkituko dut).

Erlatiboaren buruak ez du nahitaez agertu beharrik. Honako hauek burudunak dira:

(437) Den lekuan dela, aurkituko dut.

(438) Dabilen tokian dabilela, ez da alferrik galduko.

Hauek, berriz, ez:

(439) Dena dela, aurkituko dut.

(440) Datorrena datorrela, zuk segi zure martxan.

(441) Dakiena dakiela, ez naiz Joxeren beldur.

Egitura honetako perpaus erlatiboa nahiko murrizta izaten da arruntean. Askotan aditza bera bakarrik. Bitxiak izaten dira zenbait osagai dituzten perpausak:

(442) Gure etxera gaur goizean datorrena datorrela, ez diot atea irekiko (?).

• Egitura hauetan, bestalde, ikusi dugu bi adizki daudela: perpaus erlatibokoa eta *-eLA* menderagailua daramana; bada, bi aditz horiek berbera izan behar dute. Horregatik jarri diegu biei azpi-indize bera. Ez da egokia, beraz, ondoko perpaus hau:

(443) *Dagoena datorrela, ...

(444) *Dabilena datorrela, ...

Berbera diogunean ez gara ari aditz erro berari buruz bakarrik, baita aditzaren denbora eta aspektu berari buruz eta pertsona berari buruz ere:

(445) *Datorrena zettorrela, ...

(446) *Datorrena etortzen dela, ...

(447) *Etorriko dena datorrela, ...

(448) *Datorrena datozela, ...

Orain arte aditz sintetikodun adibideak erabili baditugu ere, esan beharra dago aditz perifrastikoekin ere egin daitezkeela kontzesio-egitura hauek. Adibidez:

(449) Eraman nazak Lea ikustera, *kostatzen dena kostatzen dela* (X. Amuriza, *Enea*, 70).

• Erabileraren poderioz, finkatutako egiturak sorzen dira askotan, batzuk erabat lexikalizatuak (adibidez, *DENA DELA* eta, guk dakigula –eN menderagailua egitura honetan erabil daitekeen kasu bakarretakoa, bestearen aldaera: *DENA DEN*):

(450) Dena dela, ...

(451) (?) Zena zela, ez genion kasurik egin.

(452) Dena den, ...

(453) *Zena zen, ...

(454) Datorrena datorrela, ...

• Bukalzeko, aipatu nahi genuke aztertzen eri garen egitura honek adizkirik gabeko beste egitura baten antza duela; orain arteko kasuetan perpausaz mintzatzen ginen (eta, horren ondorioz, aditzez), eta oraingoan izenez arituko gara, errepikatzen diren izenez. Lehen aditzekin bezala, orain izenekin ere gertatzen da hauek forma desberdinean "errepikatzea":

(455) Iritziak iritzi, ...

(456) Usteak uste, ...

(457) Esanak esan, ...

Ohargarria da, halaber, lehendabiziko zatia, bai izenekin eta bai aditzekin, mugatua izatea: *Iritziak iritzi*, *Datorrena datorrela*.

Balioz berdin samarrak direla esan daiteke; desberdintasuna, batean aditzak erabiltzen direla (perpausak), eta bestean izenak ditugula, agerian behintzat.

Honako hau litzateke esepide hauen egitura:

Izena, + mugatzailea + izena, + -_ (mugagabea)
--

Jatorri bertsua dutela dirudi:

Iritziak iritzi ← Iritziak iritzi (direla)

Bil ditzagun, bukatzeko, aipatu ditugun egitura guztiei buruzko adibide batzuk:

- (458) *Zarena zarela*, oker zaude zure ustean (Y. Etxaide, *Gorrotza lege*, 231).
- (459) *Datorrena datorrela*, baietza emon biotz-eske datorrenari? (E. Erkiaga, *Arranegi*, 61).
- (460) Euskaldun izakerearen zabaltzailea izan gura neuke *nabilen tokian nabilela* (D. Aguirre, *Aufemendiko lorea*, 129).
- (461) Baiña egozen *lekuen egozala*, ezagun izaten zan Mendiolan nagusi-erakoandrak zeintzuk ziran (ibid., 75).
- (462) *Eta, degun suertea degula*, berdin geldituko gaitun (J. M. Barandiaran, *Obras Completas II: Zareutz*, 77).
- (463) *Hil zuenak hil zuela*, zeruan bego haren arima bake sainduan (Y. Etxaide, *Gorrotza lege*, 323).
- (464) *Dana dala*, zabalkundea eginda egoan (E. Erkiaga, *Txurio txoria*, 44).
- (465) Baiña *dan legez dala*, ba-dirau bere berbeeta ak ez lenengoan eban garbitasunaz ... (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 131).
- (466) *Ebilen tokian ebilela* bere bizitza on da garbia erakusgarri andikoa izaten zan, baiña batez bere etxadi barruan (D. Aguirre, *Aufemendiko lorea*, 143).
- (467) *Deguan lekuban, daguala gizona*, nai emakumia, aragija, la gurari txarren galxa beragaz darabil beti (Fray Bartolome, *Icasiquizunac II*, 264).
- (468) *Esanak esan eta ustak uste*, guk ere gehi dezakegu (...) harako Etxepareren ezkutariak bere damalxoari aurpegira ziona: ... (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak VI*, 193).
- (469) *Iritziak iritzi*, noan orain gure artean, agertu berrian bertan, izan zuen harreraz mintatzera (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak V*, 133).

5.3.10. EDO-galdetzailea / galdetzailea-NAHI + -eLA / -eN + (ERE)

EDOZER eta ZERNAHI gisako izenordain zehaztugabeak erabiliz sortzen diren kontzesio egiturez arituko gara atal honetan. Bi eredutako izenordainak, beraz: EDO erabiliz sortuak (ekialdean, EDOZEIN izan ezik, erabiltzen ez direnak) eta NAHI-ren bidez sortuak. Edozein galdetzailerekin konbina daitezke, eta izenordain zerrenda luze samarra sortu: EDOZER, EDONOR, EDONON, ZERNAHI, NONAHI, NOIZNAHI, NOLANNAHI ...

-eN nahiz -eLA (-eLARIK ere bai) manderagailuak izan ditzake era honetako kontzesio perpausako aditzak, subjuntiboan nahiz indikatiboan.

Horretaz gain, kontzesio perpausetan nonahi agertzen den ERE lokailua era agertzen da zenbait kasutan; ez da baina nahitaezkoa era honetako perpausak osatzeko.

Aurreko azpiataleko moldeak duen balio bera du egitura honek ere, indiferentziazkoa edo axolagabetasunezkoa dei genezakeena. Berdin zaigu mendeko perpausean esaten dena: hori nolabaiteko oztopoa izan badaiteke ere

(oztopo bortilzena dugu beti gogoan), ez da nahikoa izango perpaus nagusian adierazten den ekinza ez betetzeko; perpaus nagusiko ekinza bete egingo da:

(470) Datorrena datorrela, aurre egingo diot.

(471) Normahi datorrela ere, aurre egingo diot.

Perpaus horiek biak esaten ditugunean, perpaus nagusikoa eragozteko moduko egoera bat dugu gogoan, egoera muturrekoena; adibidez, ez dugu pentsatzen gure lagun bat dela datorrena, orduan ez baikenuke arrazoirik hari aurre egiteko; hori baino gehiago, adibidez, bestelako pertsonaren bat dugu gogoan, pertsona beldurgarri bat, edo pertsona oso gaizto eta indartsu bat: hura etorrila ere, aurre egingo diot.

Edozein kasutan ere, gogoan duguna gauza bat da, eta gauzatzen dugun egitura beste bat: egitura horretan egoera guztiak hartzen ditugu aintzat, aukera guztiak. Hala ere, aukera horiek guztiak ez dira nahiko izango perpaus nagusian adierazten dena ez betetzeko.

Ekar ditzagun adibide batzuk:

A) –eLA menderagailua daramaten indikatiboazko aditzak:

(472) Urrikaldu zaitetz nitaz, *normahi zarela ere* (B. Atxaga, *Obabakoak*, 330).

(473) Zelatariak, *non-nahi dela*, ez baitira lo egoten sekula (Y. Etxaide, *Gorrotza lege*, 249).

(474) *Zer nahi zela*, jakinen zuen nola erantzun hori gertatuko balitz! (J. Miranda, *Haur besoetakoa*, 60).

(475) Izakiak dira, noski, izandunak edo izatodunak edo *nolanahi ere dela* (K. Mitxelena, *Mitxelena-ren idazlan Hautatuak*, 77)

(476) Sartuko dira torre, eta gazteluetan; igoko dira mendien gainera, ezkutatuko dira lize-zuloetan, baña alferrik, zeren, *noranai dijozela*, eta *non nai ezkuta ditezela*, atxutuko dituan su erretzaille ark (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia III*, 478).

(477) Ezin badut, badakit beintzat *nonai dirala ere*, len-geroetan ez baiña bertan dirala (Orixe, *Aitorkizunak*, 321).

(478) Zaldun ibiltari guziak, *edozer naiz edozein zirala*, ongi artzen zituata (P. Berrondo, *Don Kijote Manxako*, 50).

(479) *Edozein modutan dala*, Ironzo izengañekoak adierazten du argi ta garbi, euskeraren bere berekia dala (J. I. Izueta, *Guipuzcoaren Condaira*, 499).

B) Batzuetan –eLARIK menderagailua ere eger daiteke:

(480) Ene ori, jakintsu zoratzaille ori *edozein zeratarik ere*, nere oi-ezifiteko istoria kondairatu bearko duzun orrek, ez al zaizu aazluko, arren la arren desazut, nere Rozinante zintzoa, nere bide ta lasterketan beti-betiko laguna (P. Berrondo, *Don Kijote Manxako*, 34).

(481) Izenez "Tolosa" zala erantzun zion umildade guzian, Toladoko zapata-konponzaille baten alaba zala; eta *nun-nai zegotarik ere*, antxe serbituko zuala eta bere nagusiztat izango zuala (Ibid., 48).

C) –eN menderagailua dutenak:

(482) idokitzen deregu, elizan usatu forman, hiruretan hogeai egün penitentzia, zoin ordenatürik edo manhatürik beilükie, eta zoin ez zordün beylirate Jinkuaren justiziar, *zernahi gisaz den*: erran hoeiak balio dükie bethierekoz (A. Mercy, *Andere Dona Maria*, 8).

- (483) Zerbait ezagutuko baldin badugu, *zernahi ere den*, izatez izan behar du aurrenik eta ez da oraingoz. ... (K. Mitxelena, *Mitxelena-ren Ideziai Hautatuak*, 280).
- (484) *Zernahi ere den*, egiatzko misterioa euskararen iraupena da, ez jatorria. ... (K. Mitxelena, *Euskal Ideziai Guztiak VI*, 33).

D) Azkenik, subjuntiboko aditzak dituztenak, *-eN* nahiz *-eLA* menderagailudunak:

- (485) *Edo zoin hil dadin* (= quelle que soit la victime) (P. Lafitte, *Grammaire basque*, 748§).
- (486) *Edonun izan dadien* (= où qu'il soit) (ibid., 885§).
- (487) *Zer nahi den* gerta *dekioia*, eztezake deusek ere justua trista (P. Axular, *Guero*, 567).
- (488) Bizitzako goiberak *noranai* bultza *gaitzateia ere*, oroitzapen diek an geldituko zaizkitzu aparteko bazter sakratuan betiko tinkaturik, ametsezko lurraldea baillizan (L. Villasante, Gandiagaren *Elorri* obrako hitzaurrea, 12).
- (489) *Zernahi egin lirola* ez da fidatzeko, boza eman duienak esposain galtzeko (Bordel, *Bordel bertularia*, 136).

Forma hauetako batzuk lexikalizatu egin dira, eta aurkaritzako lokailu bihurtu; *EGLU III (Lokailuak)* liburukian jaso genituen ondorengo hauek:

- (490) Nolanahi ere, ...
- (491) Nolanahi den, ...
- (492) Zernahi gisaz, ...
- (493) Edozelan bere, ...
- (494) Edozein modutan ere, ...

Gehienetan jatorrizko egituran zuten aditzik gabe agertzen dira, nahiz batzuetan geratzen den aditza ere (*NOLANAHI DEN*):

- | | | |
|--------------------------------|---|--------------------------------|
| (495) Nolanahi ere, ... | ← | Nolanahi ere den. |
| (496) Zernahi gisaz, ... | ← | Zernahi gisaz den. |
| (497) Edozein modutan ere, ... | ← | Edozein modutan dela(rik) ere. |

Bestelako aditz forma batzuekin ere osa daitezke izenordain zehaztugabeekiko kontzesio perpausak ere: adibidez, aditz jokatugabeekin, edo beste egitura kontzesiozkoren batekin:

- (498) *Nonahi izanik ere*, atzemanen dute.
- (499) *Edozein tokitan gordetzen bada ere*, atzemanen dute.
- (500) *Zernahi izanik*, hiriño huntaz mintzatzearekin frantsesek erraiten dute beti (J. Elcheperre, *Berribilez*, 45).
- (501) Egun *zernahi erranik ere* laudatuko nauzu etzi, ez dut posiblez zureganikan eskemiorik meraxi (Maitin, *Ahal dena*, 99).

5.3.11. Kontzesioa adieraz dezaketen beste zenbait molde

Era aski desberdinetako egiturak bilduko ditugu atel honetan. Guztiak atal oso bat osetzeko adina ez diren egiturak, sistematizatu ezin direnak. Batetik,

esapide modukoak. Bestetik, kontzesio-balioa izan dezaketen egitura batzuk: ez berez kontzesioari lotuak direlako, baina bai testuinguru jakin baten laguntzarekin kontzesio-balioa izan dezaketelako. Irakurleak esango du testuinguru egoki baten laguntzarekin egitura askok eta askok izan dezaketela kontzesio-balioa, ete arrazoi izango du; hala ere, horietako batzuk besterik ez ditugu aipatuko. Zergatik batzuk eta beste batzuk ez? Bada, horietako batzuk behintzat gramatika lan garrantzitsuetan kontzesiozko egituren artean sartu izan direlako. Bada arrazoi nahikoa, hala iruditzen zaigu behintzat, haien gainean zerbait esateko.

Gatozen, bada, orain arteko azpiataletan kokapenik izan ez duten kontzesio esapide hauek aipatzera.

5.3.11.1. EZ DELAKOAN ERE

Zinmiri honekin, ez delakoan ere, bustitzen ari gara.

Egitura zurrun samarra iruditzen zaigu hau, inongo aldaketarik ez jokorik onartzen ez duena: ezin dugu ez baieztatu moldean jarri, ez eta izan aditza ez beste bat erabili; pertsona eta denbora ezaugarriek ere, adibide horretan ditugun horietan behar dute izan: ezin dugu erabili ez hirugarrenaz beste pertsonarik, ez eta indikatiboko orainaz beste aditz formarik. Kontzesioa adierazteko, beraz, ez dira egokiak honako hauek:

(502) *Badalakoan ere, denbora ez doa aurrera.

(503) *Pentsatzen ez dugulakoan ere, bustitzen ari gara.

EZ DELAKOAN ERE ("ez dalakuan bere") da, beraz, kontzesio-balioa duen egitura. Parentesi artean eman dugu egitura horren gauzatze fonetiko bat, mendebaldeko hizkeretakoa dena. Literatura idatziko adibiderik ez dugu aurkitu *OEH*-ko corpus osoan; ahozko hizkuntzan, hala ere, nahiko arrunta da:³⁵

(504) *Ez delakoan ere, denbora aurrera doa. (→ Ez dirudien arren, ...).*

(505) *Ez dalakuan be(re), hasi da eguraldia freskalzen.*

Esan beharrik ez dago kasu honetan ere, beste askotan bezala, *ERE* lokailuak betetzen duen eginkizun garrantzitsua.

5.3.11.2. BAIT-

Aurreko ataletako batean ikusi dugu *BAIT-* menderagailua erabiliz osa zitekeela kontzesio perpaus mota bat, *NOR ERE BAIT-* gisakoa. Horiek han aztertu ditugu, eta gatozen orain *BAIT-*en beste erabilera batera; beste inolako ezaugarri formalik gabeko erabilerara, hain zuzen.

Galdera bat eginez hasiko gare: kontzesiozko moldeak dira honako perpaus hauek?:

(506) Hain eri baitzen, ez zen batere izitu.

(507) Hain aspeldian eria baitzen, halere jin hura gure ikusterat.

³⁵ Aditzik ez duen arren, antzeko erabilera du ekialdeko hizkeretako forma honek ere: *Ez idurian (ere), horrek badaki nola jotzen den soinua.*

Adibide hauek Lafittek bere gramatika jasotzen ditu, esanez kontzesiozko "proposizioen" artean *BAIT*- kausatiboa ere badagoela.

Horretan izan ezik, ez dugu, ordea, inongo gramatiketan aurkitu *BAIT*-en kontzesio-erabilerririk. Villasantek, adibidez, dio balio anitzeko menderagailua dela *BAIT*-: besteak beste, kausa, erlatibo, osagarri eta modu balioa izan dezakeen menderagailua dela; kasu bakoitzean testuinguruak esaten digula zein balio duen. Erlazio atzizki soila dela dio, eta testuinguru bakoitzaren arabera hartzen duela balio bat edo beste.

Hori horrela bada, kontzesiozkoetan sartzeko arazonik ere ez genuke izango; goiko adibideen zentzua hori baita.

Hala ere, gramatika askotan jaso ez delako, literaturan ere gultan erabili izan delako, ez zaigu iruditzen beste egitura batzuen mailan dagoenik kontzesioa adierazteko gaitasunari dagokionez behintzat. Goiko adibide horietan testuinguruak laguntzen digu, baina beste askotan ez zaigu iruditzen *BAIT*-en erabilera egokia izan daitekeenik kontzesioa adierazteko. Deskodetzen zaila delako, nonbait.

Gainera, konturatzen bagara, Lafittek ematen dituen bi perpausetako batean aurkaritzako lokailua erabiltzen du (*HALERE*) perpaus nagusian; *BAIT*-menderagailua kontzesio-balioa berrazteko nahikoa ez den seinale.

Hori horrela izanik, kontzesio-balioa testuinguru egoki batean adieraz dezaketen egituren artean sailkatuko dugu, baina ez nahitaez zuzenean kontzesioari loturik dauden egituren artean. Gauza bera gertatuko da ondoren datorren *ETA* juntagailuarekin. Zentzu horretan ulertu beharko genituzke Lafitteren hitzak (<<*BAIT*- peut avoir la valeur de concession>>).

5.3.11.3. *ETA*

Har ditzagun ondorengo perpausak:

- (508) Euskalduna da, *eta* ez du ia euskaraz egiten (KONTZESIOA).
- (509) Gaixorik dago, *eta* kalera doa (KONTZESIOA).
- (510) Gaixorik zegoen, *eta* ez da kalera irten (KAUSA-ONDORIOA).
- (511) Lana bukatu du, *eta* kalera irten da (DENBORA).

Perpaus juntatuak ditugu guztiak; beraz, adibide bakoitzaren ondoren jarri ditugun kontzeptuak ez dagozkie maila sintaktikoari, mendeko perpaus motei, baizik izan dezaketen balio edo kutsu desberdinei. Ez ditugu mendeko perpaustzat jotzen, perpaus juntatutzat baizik. Egia da *ETA* juntagailuaren bidez juntatutako perpausak gehientsuenetan izan dezaketela horietako *ñabardura* bat, beti baitugu nolabaiteko erlazioa juntagaien artean: kausa-ondorioa, ordena kronologikoa, aurkaritza... Beraz, erlazio horren ondorio da horietako bakoitzean izan dezakegun balio desberdina.

Hala ere, ezin esan dezakegu mendeko perpausak direnik; beste arrazoi batzuen artean, adibidez, ez genukeelako edukiko *ETA*-dun perpaus juntaturik euskaraz.

Mendeko perpausak dira, nolana ere, kausazko perpausetan eta kontzesiozkoetan aztertu ditugun *ETA* eta *BAINA* enklitikoak dutenak:

(512) Arropa asko jantzi dut, bero dago baina.

(513) Oporrik ez dut hartuko, diru gutri dut eta.

5.3.11.4. *-eLA(RIK)*

-eLA(RIK) menderagailudun perpausak alpatu besterik ez ditugu egingo, 5.3.5 atalean aztertu baitugu auzi hau. Han esaten zen ez zela normalena halako perpausak *ERE* lokailurik gabe ematea, kontzesio-balioan bederen.

Hala ere, testuinguru egoki batean, beste egitura asko bezala, gai da perpausari kontzesio-balioa emateko.

Ondorengo arrazoiengatik ez diogu aitortu beste kontzesio egitura batzuen maila:

- Ez dira adibide asko *ERE* lokailurik gabeak.
- Lokailu hori gabe erabiltzen denean ere, autoreek beste estrategia batzuk erabili izan dituzte kontzesio-balioa bermatzeko: perpaus nagusian aurkantzako lokailu bat, eta abar. Seinale bere kabuz ez dela oso gai kontzesio-balioa ziurtatzeko.

5.3.11.5. *-eLAKO*

Hau ere ez da kontzesioari zuzenean lotutako menderagailu bat, baina balio dezake perpausari testuinguru jakin batean kontzesio kutsua emateko.

Ondorengo perpausok hartzen baditugu, adibidez:

(514) Hitz berri gehiegi *dituselako* ez diogu ukatu behar ondo merezi duen txaloa (K. Mitxelena, *Mitxelena-ren idazlan hautatuak*, 95).²⁶

(515) Aberatsa *delako* ezta geiegi pozluzten: eta pobrea *delako* ezta geiegi penaltzen (J. I. Guernico, *Sayaquera*, I, 32).

-eLAKO menderagailua duten perpausak, kausazkoak baino gehiago kontzesiozkoak dira. Badirudi perpaus nagusiko aditzak ezezko forma behar duela hau horrela izateko; baiezko forma baldin badu, kausazko balioa du. Gertikoren perpausa moldatu eta gero ikusten dugu hori horrela dela:

(516) Aberatsa *delako* pozten da: eta pobrea *delako* penaltzen da.

Mendeko perpaus hori ez diogu kontzesioaren zantzurik aurkitzen.

²⁶ Adibide hauetan, autoreek markatu ez duten arren, etenaldi bat dago: *eLAKO* menderagailuaren ostean: alegia, mintzagai moduan interpretatu behar da *eLAKO* duen mendeko perpausa, eta ez galdegai moduan.

LABURPENA

1. Sarrera

Kontzesio perpausak zer diren.

- (1) a. *Nahiz bizkarreko mina duen, kirola egitera joan da.*
- b. *Argentinara joan da oporretara, dirunk ez duen arren.*
- c. *Betebehar asko baditu ere, beti aurkitzen du larteren bat laguntzat.*
- d. (...)

Goiko kontzesio perpausak bezalako definizioa emateko, irizpide logiko-semanticotatik oinarritu gara. Bi erlazio mota daude halako perpausetan:

A.- Batetik, inferentzia-erlazio bat, presuposizio bat; aldez aurretik gizartean oro har edo hiztunaren mundu ikuspegiari onizat emandako presuposizioa; p proposiziotik q proposizioa ondorioztatzen dugu, eta p' -tik, berriz, q' .

B.- Bestetik, aurkaritza-erlazio bat ere bada. Oposizio edo oztopo bat adierazten du mendeko perpausak, perpaus nagusian adierazitakoari egiten zaion oztopo bat. Goian onizat eman dugun erlazioa ($p \rightarrow q$; $p' \rightarrow q'$) trukazetik sortua da oposizio hori ($p \rightarrow q$; $p' \rightarrow q'$).

Beraz, adibidez, p "sasoi betean edo ongi egotea" bada, p' "gaixorik egotea", q "lan egitea" eta q' "ohean geratzea edo atsedean hartzea", gizartean onizat ematen den erlazioa honako hau lizateke:

- p Sasoi betean (ongi) dago $\rightarrow q$ lanera joan da.
 p' Gaixorik dago $\rightarrow q'$ ohean geratu da, atsedean hartu du.

Aldez aurretik ezarritako inferentzia-erlazio hori trukazean datza kontzesioa:

- p' Gaixorik dago $\rightarrow q$ lanera joan da.
 p Sasoi betean (ongi) dago $\rightarrow q'$ ohean geratu da, atsedean hartu du.

Era honetara sortzen dira kontzesio perpausak:

- (2) *Gaixorik badago ere, lanera joan da ($p' \rightarrow q$).*
- (3) *Sasoi betean dagoen arren, ohean geratu da ($p \rightarrow q'$).*

Edozein kasutan ere, mendeko perpausak adierazten duen oztopoa edo aurkaritza ez da nahikoa izaten perpaus nagusian adierazten dena galarazteko: beti betetzen da perpaus nagusian adierazten dena.

Bestelako egitura batzuekiko antzekotasuna:

• *Aurkaritzako lokailuak:*

Mendeko kontzesio perpausaren ordeaz, aurkaritzako lokailuak erabil daitezke (*hala ere, badarik ere, hargatik, ordeaz, ...* lk. *EGLU III*); bi perpaus beregainen arteko oposiziozko lotura eginez, alegia:

- (4) *Nahiz bizkarreko mina duen*, kirola egitera joan da.
- (5) *Argentinara joan da oporretara, dirurik ez duen arren*.

Horiek aurkezteko beste modu bat honako hau litzateke:

- (4') *Bizkarreko mina du; hala ere*, kirola egitera joan da.
- (5') *Dirurik ez du; alabaina*, Argentinara joan da.

Bestalde, lokailuen eta menderagailuen bateragarritasunaren erakusgarri ditugu literatura-tradizioko perpaus hauek, bi eratako gailuen (menderagailuen eta lokailuen) metalzea dutenak:

- (6) *Nahiz hertsia den*, baituke *ordean* eremu puska bat *halore*.

• *Aurkaritzako juntadura:*

Juntadurarekin ere badu zerikusia kontzesiozko menderakuntzak; batez ere aurkaritzakoarekin. Eman ere, berdintsu eman daiteke kontzesiozkoetan dagoen aurkaritza-erlazioaren berri koordinazioaren bidez ere:

- (7) *Gaixo dagoen arren*, kalera irten da (MENDERAKUNTZA).
- (8) *Gaixo dago, baina kalera irten da* (JUNTADURA).

Bi egituren arteko erlazioa hain estua izanik, ez da harrizkoa aurkaritzako juntadura izatea kontzesio-egituretako baten jatorria:

- (9) *Gaixo dago, baina kalera irten da* (JUNTADURA) →
- (9') *Gaixo dago baina, kalera irten da* (MENDERAKUNTZA) →
- (9'') *Kalera irten da, gaixo dago baina* (MENDERAKUNTZA)

Azken finean [*A, baina B*] egitura trukatu egin dugu, eta [*B, A-baina*] bihurtu. Bi egituren arteko antzekotasun logikoaren lekuko da *BAINA*-ren erabilera bikoitz hori: juntagailu-erabilera eta menderagailu-erabilera.

• *Baldintza perpausak:*

Baldintza perpausekin ere, orain arteko gramatiketan esan izan den bezala, badute kontzesio perpaus harreremana. Baldintza perpausoko protasiari *ERE* lokailua gehitzen badiogu, esaterako, eta apodosiaren kontrakoa eman, kontzesio perpaus bihurtuko dugu:

- (10) *Langile ona balitz, onartuko lukete lantegian* (BALDINTZA).
- (10') *Langile ona balitz ere, ez lukete onartuko lantegian* (KONTZESIOA).
- (11) *Gaixorik badago, ez da lantegira joango* (BALDINTZA).
- (11') *Gaixorik badago ere, lantegira joango da* (KONTZESIOA).

- Beste zenbait adberbio-perpaus (-eLA(RIK), -TUTA, -TURIK...):

(12) Mutil koskorra zelarik, asko zekien.

(13) Ezer ere ez dakielarik, fama handia bereganatu du.

Balzueta kontzesio-balioa nahikoa argi ikusten da, baina ez beti; balioa argi ikusten ez den horietan, bestelako mendeko perpaus balzuen balioekin nahas daitezke. Horregatik, kontzesio-balioa bermatzeko, indartzeko, ERE lokailua askotan erabili izan da menderagailuari erantsirik:

(12') Mutil koskorra zelarik ere, asko zekien.

(13') Ezer ere ez dakielarik ere, fama handia bereganatu du.

2. Kontzesio perpausen ezaugarri orokorrak

- Kontzesio egiturak: (kapituluko 5.2 atalean eman dugun taula):

	-eN	BA-	-eLA	-eLARIK	Enkliti-zazioa	BAIT-	B-	-eLAKO
NAHIZ	nahiz -en	nahiz ba-	nahiz -ela				nahiz b-	
ARREN	-en arren			-elarik arren				
ERE		ba...er e	-ela ere	-elarik ere				
BAINA					baina			
-GATIK	-enagatik (??)							
ZERNAHI	zernahi -en		zernahi -ela					
ZEIN ERE	zein (ere) -en					zein (ere) bait-		
BANAKA- RITZA			x -ela y -ela					
ERLATI- BODUNA			datorrena datorrela					
Ø			-ela (?)	-elarik(?)		bait- (?)		-elako + ez (?)

• *Kontzesio perpausen funtzioa*: kontzesio perpausa ez da berez aditz nagusi baten edo predikatu baten osagarri, adjunktua baizik. Perpausaren mintzagai-egiturari dagokionez, berriz, mintzagai izan ohi da, adjuntu askorekin gertalzen den bezala: ezin da, hortaz, perpausoko galdegai izan.

• *Kokagunea*: kokaguneari dagokionez, perpaus nagusiaren aurretik, ondoren edo hartan tartekatuta agertu ohi da kontzesio perpausa; arruntean, perpaus nagusitik, etenen bidez, ongi bereizita, batez ere mendeko perpausa laburra ez denean.

Edozein kasutan ere, perpaus nagusiaren tarteko hori ez da kontzesio perpausaren kokagune ohikoena izaten. Gainerako bi kokaguneen artean, arruntagoa dela esan daiteke mendeko perpausa hasieran ematea.

• *Barne-hurrenkera*: kontzesio perpausen barne-hurrenkerari dagokionez, aditza hainbat lekutan aurki daitekeela esan dezakegu. Zehaztapen batzuk egin ditugu, hala ere:

- A. Euskalkien artean, oro har mendebaldekoetan indar gehiago duela ematen du aditza bukaeran emateko joerak; ekialdekoetan aditzak mugikorragoa dirudi.
- B. Ekialdean nahiz mendebaldean, aditza oso gutxitan ematen da bukaerako posizioan mendeko perpausa luze samarra denean; kontzesio perpausa ezezkoa denean ere arrunt samarra da aditza atzean ez ematea, adiz nagusiaren eskuinetik doanean bereziki.

• *ERE lokailua kontzesio perpausetan*: kontzesio perpaus mota gehienen ezaugarri komunetako bat da *ERE* lokailua eramatea. Kontzesiozkoen molde gehientsuenetan aurki dezakegu lokailu hori; kontzesio-balioa adierazteko duen garrantzia uzten du agerian horrek.

Hona hemen *ERE* lokailua izan dezaketen kontzesio-egiturak:

<i>ba... ere</i>	<i>nomahi ere -en</i>	<i>-tzekotan ere</i>
<i>-ela ere</i>	<i>-tuz gero ere</i>	<i>-tzekotz ere</i>
<i>-elarik ere</i>	<i>-tuta ere</i>	<i>zer gerta ere</i>
<i>nor ere bait-</i>	<i>-turk ere</i>	

Kontzesio perpausetan bezala, aurkaritza lokailuetan ere erruz erabiltzen da *ERE* lokailua; nolabaiteko parekatzea egin dugu, sintaktikoki egitura desberdinak izan arren, kontzesio perpaus batzuen eta aurkaritza lokailu batzuen sorreran:

KONTZESIO PERPAUSA: PERPAUS ADBERBIALA + *ERE*

Diru asko irabazten du → Perpausa:

[Diru asko irabazten du elarik]_p ere, ez da zoriontsua.

[Diru asko irabazita]_p ere, ez da zoriontsua.

AURKARITZAKO LOKAILUA: ADBERBIOA + *ERE*:

Hala → Adberbioa (aurreko perpausari erreferentzia egiten diona).

Diru asko irabazten du. [Hala (= diru asko irabazita)]_{ADP} ere, ez da zoriontsua.

• *Aurkaritzako lokailuak kontzesio perpausen indargarri*: kontzesiozko menderakuntza erabiltzen denean, aurkaritzako lokailuak erabil daitezke perpaus nagusian: balio beraren bi gauzatze dira, bata bestearen osagarri eta indargarri. Edozein kasutan ere, hautazkoa da biak batera erabiltzea, bietako batekin nahikoa litzateke eta:

- (14) Ez dut diru askorik. *Hala ere*, Vietnamera joango naiz oporretan.
- (15) *Nahiz* diru askorik ez *dudan*, Vietnamera joango naiz oporretan.
- (16) *Nahiz* diru askorik ez *dudan*, *hala ere*, Vietnamera joango naiz oporretan.

• *Aditzaren elipsia*: kontzesio perpausatan arrunta izaten da aditza ezabatzea. Eliditutako aditza berreskuratzen erraza denean gertatzen da hori: perpaus nagusiko aditz berbera delako, edo, bestela, *izan* aditza edo (testuinguruak lagunduta) hori bezain berreskuraeraza den aditzen bat:

- (17) Alha zaizko haatik begiak, *nahiz* ezteki.
 (18) (...) huna erregebide-sahetsean, etxe bat dena leiho. biziki luzea, *nahiz* askitto apala.
 (19) Gizajeak, berandutxo *baña*, (...), leziño polit bat artu eban egun atan.

• *Kontzesio-gailuen metatzea*: aldaera estilistiko gisa, kontzesio-balioa indartzeko-edo, arrunt samarra da halako perpausetan mendarakuntzako gailuen metatzea, batez ere lokailuen eta menderagailuen metatzea:

NAHIZ (ETA) + ARREN:

- (20) *Naiz* aunditu eta gaur kale-elxe bezela jarria *dagoan arren*, garai artan eixe koxkor bat zan.

NAHIZ ETA + BA-... ERE:

- (21) Uzteko ta uzteko oiuka bentaria, leen ere esan ziela eroa zala; eta eroa izanik, oz zuala erantzun-bearrik izango, *naiz-ta* danak illzen *bazituan ere*.

-eLARIK + ARRE:

- (22) Heriotzea hain segura *duzularik arren*, heriotzea hain laizgarri *dejarik arren*, ez dakizu ez non, ez noiz, ez nola hilen zaren.

3. Kontzesioa adierazten duten egiturak:

Hirugarren atalean kontzesio-egitura bakoitza aztertu dugu banan-banan, bakoitzaren berezko ezaugarrien berri emanez, formazko aldaerak eta distribuzio geografikoa aipatuz eta forma horiek berek izan ditzaketen bestelako balioak azalduz.

3.1. NAHIZ lokailuaren bidez eratutakoak

• Eskema honetan bildu ditugu *NAHIZ* lokailuaren bidez osatzen diren kontzesio perpausak:

<p>A) <i>NAHIZ ETA</i> ... ADITZ JOKATUGABEA: A.1.- Aditz partizipioa. A.2.- Aditz erroa (oso bakana). A.3.- Aditz izena + <i>-N</i> (oso bakana).</p>
<p>B) <i>NAHIZ</i> ... ADITZ JOKATUA + MENDERAGAILUA: B.1.- <i>-eN</i> menderagailua. B.2.- <i>-eLA</i> B.3.- <i>BA-</i> B.4.- <i>B-</i> (aginterazkoa).</p>
<p>C) <i>NAHIZ</i> ... \emptyset (aditzaren eta menderagailuaren elipsia)</p>

Liburu honetan B saileko aditz jokatudunak aztertu ditugu: lau motatako moldeak ditugu atal horretan (nahiz ez diren maiztasun berarekin erabiltzen); hona hemen menderagailuaren arabera sailkatuak:

3.2. NAHIZ ... -eN:

- (23) Aithor dut biziki egun-argi dela oraino, [nahiz iguzkia bere osoan itzalia ditaken].
(24) Otso gaiztua mendi-zokoan ardura triste bizi da, [nahiz urrunera dituen ardi ederrak ikusi].

3.3. NAHIZ ... -eLA:

- (25) Hillak eta biziak, [nahiz direla iustuak], beldur dire guziak.

3.4. NAHIZ ... BA-:

- (26) [Naiz-ta gizon batzuek ezpadute ikusi], arek bezela jotzen guk ezin ikasi.

3.5. NAHIZ ... B- (agintera):

- (27) Egin zaarraren esana, [naiz urak berama].

• NAHIZ lokailua duten egituren erabilera distributiboa ere aipatu dugu:

- (28) Nahiz dela euria, nahiz (dela) eguzkia, kalera aterako naiz.

3.6. ARREN postposizioa dutenak

Hona hemen ARREN postposizioa duten adizki jokatudun egiturak:

ADITZ PARTIZIPIOA + ARREN

- (29) Gertatua gertatu arren, len bezin adiskide arkituko nazu.

ADITZ JOKATUA + -eN + ARREN

- (30) Ustez bikia zarean arren ezta zu lango aundirik.

ADITZ JOKATUA + -eLARIK + ARREN

- (31) Humiltasuna hain berthute nezesarioa delarik arren, hartaz estimu guti egin duzu.

3.7. -GATIK postposizioa dutenak

• Aditz jokatugabea erabiltzea da -GATIK-en bidez kontzesio perpausak eratzeko modu arruntena eta gaur egun bakarra. Oso-oso bakanak dira aditz jokatuarekin osatuak, eta ez dira, gure ustez, hobestekoak:

- (32) Baiña har dezaket bigarren bal ere. Zeren oraiño zahar naizenagatik, bizi naiteke gehiago ere.
(33) Berhain, ezein ere gizon ez zegoenagatik, hara joan zen.

3.8. BAINA enklitikoak dutenak

Juntadura da halako kontzesio-egituren jatorria:

- (34) Gaixo dago, baina kalera irten da →

(34') Gaixo dago-baina, kalera irten da →

(34'') Kalera irten da, gaixo dago-baina.

[A, baina B] egitura trukatu egin dugu, eta [B, A-baina] bihurtu (tartean [A-baina / B] pausua egin eta gero). *BAINA* juntagailua, hasiera batean aurretik etenaldia zuena, aurreko osagaiari lotu zaio; ahoskeran (eta idazkeran ere bai) nabarmena da hori. *BAINA*ren enklitizazioa deitu diogu gertatu den prozesuari:

- Azentuari dagokionez, aurreko aditzarekin unitate prosodikoa osalzen du *BAINA*-k; ezin du *BAINA*-k azentu nagusia hartu.
- Etenaldia (idalzian komaren bidez adierazi ohi dena) gertatzen da *BAINA*-ren ondoren. Kasu batzuetan ordena aldaketa ere gertatzen da:

(35) Kosta yaten *baña*, azkenian oratu neurbian belarrietatik barrikume lodituenari.

(36) Marikonze eskallu, txalxata, eskel, petralari ta zuri, biori, arpegiko narrua kenduko deusuel nik, neure atzamarrakaz, lodia daukazue *baña*.

(37) Igarri barik erre ta asi jakon maitetasun ori, baña mingostasuna barruan ondo ezagutu barik etzakon joango, inok kanpotik ezeutsan igamiko *baña*.

Menderagailuen distribuzio bera du *BAINA* honek (eta ez juntagailuena), azentu nagusirik ere ez du hartzen, eta aditzari lotzeko joera nabaria du: horregatik aztertu dugu egitura hau menderagailuekin batera.

3.9. *-eLA(RIK) menderagailua dutenak: -eLA, -eLARIK, -eLA ERE, -eLARIK ERE*

Bi menderagailu horiek eta horietako bakoitzari *ERE* lokailua gehituz sortzen diren egiturak aztertu ditugu atal honetan:

(38) Jesus ere ez *dakiatarik*, jakintsunaren fama bildu harek.

(39) Sei urthe *dituelarik*, zer uste duzu ongi dakiela katichima.

(40) Ua berriz, txil biotz oneko *zala ere*, asarrekor zan.

(41) Begira ea egin izan dozunez guzurraren ganeko yuramenturik; bada guzur txikia ta txantxazkoa *data bere*, beti da bekatu mortala.

(42) Gazte samar *geralarik ere*, (...) ari gatzaizu (...) munduko berri ikasten.

Kontzesioa adierazteko egitura argiagotzat eta seguruagotzat jo ditugu goiko aldaeren artean *ERE* lokailua daramatenak: besteak ere izan daitezke kontzesioa adierazteko gai, baina beste balioen bat ere izan dezaketen neurrian, ez dira hain argiak.

3.10. *(BALDIN) BA-... ERE, baldintzazkoetan oinarrituak*

Baldintza perpausetako protasiari *ERE* lokailua gehituz kontzesio perpausa lor daiteke. Arrunteen, aditz jokatudun perpausetan gehiagotan jokatugabeetan baino. Lehendabizikoa bigarreña baino normalagoa dela esango genuke:

(43) Lagunek eskatzen *badidate ere*, ez naiz ebxetik aterako.

(44) Lagunek *eskatuz gero ere*, ez naiz ebxetik aterako.

• Beste egitura batzuetan bezala, hauetan ere agertzen dira erredundantzia kasuak; batez ere *NAHIZ ... BA-... ERE* dutenak dira.

• *BALDIN* lokailua ere erabil daiteke era honetako kontzesio perpausetan, jakina. Haietan bezala, hautazko elementua da, eta kokagune jakinik gabekoa:

(45) Diosta Pierrisek, Are baldin hirekin hiltzera behar badakit-ere, ez aut ukhaturen.

3.11. GALDETZAILEA + ERE + BAIT-/eN: NOR (ZER, ZEIN...) ERE BAIT-/eN

EGLU V (Mendeko perpausak-1) liburuan aztertu genituen korrelaziozko perpaus erlatiboen eite handia du kontzesio-egitura honek; perpaus erlatibo horietan izenordain bat izaten da, perpaus nagusiko erakusle anaforiko baten aurrekaria dena; perpaus erlatiboko aditzak, berriz, *BAIT-* menderagailua darama. Korrelazioa izenordainaren eta erakuslearen artean gertatzen da:

(46) Nor ere bailago nitan ta ni hartan, eta harek ausarki ekartzen du fruitu.

Halako perpaus erlatiboen eta kontzesiozko mota baten artean harreman handia dago, zenbait kasutan interpretazio bikoitza edukitzeraino: testuinguru egokietan kontzesio-balioa izan dezake izenordainak:

(47) Non ere gordetzen baita, ez digu handik ihes egingo.

Kasu honetan interpretazioa, erlatibozkoa eta kontzesiozkoa izan daiteke:

Gordetzen den lekutik ez digu ihes egingo (ERLATIBOIA).

Edozein lekutan gordetzen dela ere, harrapatuko dugu (KONTZESIOIA)

A) *-eN* menderagailudunak:

(48) Zonbat ere jauna den (pour seigneur qu'il soit).

(49) Zein ere zeran andi ta luze, eztezu iribiko.

B) *BAIT-* menderagailua dutenak:

(50) [Jonathas] etzizaion balere bekaxtu Dabiti, zonbat bailzen ere arrotza.

(51) Zonbat flako bai zare ere, zerbitzatu gogo duzun Jainkoak borhiztuko zaitu.

3.12. Banakaritza-egiturak

EGLU III (Lokailuak) liburukian aipatua dugu banakaritza deitutako juntadura mota. Han esaten da era honetara gauzatzen dela banakaritza edo distribuzioa:

- hiltz edo partikularen bat errepikatuz, eta.
- alborakuntza hutsez (juntagailunik gabe) edo juntagailuren baten bidez (*ETA, EDO, NAHIZ, ZEIN, ALA*) loturik. Juntagailua bera ere errepikatu daiteke (*EDO ... EDO ...; NAHIZ ... NAHIZ ...*).

Era askotakoak dira, beraz, euskaraz egitura distributiboak edo banakaritza-egiturak: errepikatzen den elementuaren arabera eta erabiltzen den juntagailuaren arabera, konbinazioak ia kontaezinak izan daitezke.

NAHIZ daramaten egitura distributiboei, honako hauek gehitu behar zaizkie (betiere menderakuntzari gagozkiolarik):

- **DELA A DELA B, +**

Perpaus Nagusia:

(52) *Dela zurekin dela zu gabe, ni banao.*

- **izan dadin A, (juntagailua) izan dadin B, +** Perpaus Nagusia:

(53) *Izan dadin egunez, izan dadin gauez, inisten zarenean kasu egin.*

- **Subjuntiboa A, (juntagailua) subjuntiboa B, +** Perp. Nag.:

(54) *Zurekin eraman dezazun ala etxean geldi dadin, nik ez dut ikusiko.*

- **DELA A, nahiz (eta, edo) DELA B, +** Perp. Nag.:

(55) *Dela zurekin nahiz dela zu gabe, ni banao.*

- **EDO A -eLA, EDO B -eLA, +** Perp. Nag.:

(56) *Edo hau falta duela edo bestea falta duela, beti eskean dabil.*

3.13. Perpaus erlatiboa duen kontzesio modea: **DATORRENA DATORRELA gisakoak:**

"Axolagabetasuna"-edo dei genezakeen zerbait adierazten da kontzesio mota hauetan, indiferentzia: berdin zaigu zer gertatzen den; edozer gertatuta ere, den egoerarik muturrekoena edo oztopagarriena gertatzen dela ere, horretatik ondoriozta dezakegunaren kontrakoa gertatuko da perpaus nagusian.

Honako hau da halako perpaus moten egitura osoa:

P. erlatiboa + aditza; + *eN* + erlatiboaren burua + hondarkia + aditza; + *-eLA*

(57) *Den lekuan dela, aurkituko dut (= den lekurik ezkutuenean egonda ere, aurkituko dut).*

Erlatiboaren buruak ez du nahitaz agertu beharrik. Honako hau buruduna da:

(58) *Den lekuan dela, aurkituko dut.*

Beste hau, berriz, ez:

(59) *Dakiena dakiela, ez naiz Joxeren beldur.*

Bi aditz horiek aditz bera izan behar dute. Ez da egokia, beraz, ondoko perpaus hau:

(60) *Dagoena datorrela, ...

Berbera diogunean, aditzaren denbora eta aspektu berari buruz eta pertsona berari buruz ere ari gara:

(61) *Datorrena zetorrela, ...

(62) *Datorrena etortzen dela, ...

EDO-galdetzailea / galdetzailea-NAHI + -eLA / -eN + (ERE).

EDOZER eta *ZERNAHI* gisako izenordain zehaztugabeak erabiliz sortzen diren kontzesio egiturak dira hauek. Bi eredutako izenordainak, beraz: *EDO* erabiliz sortuak eta *NAHI*-ren bidez sortuak. Edozein galdetzailerekin konbina daitezke, eta izenordain zerrenda luze samarra sortu: *EDOZER*, *EDONOR*, *EDONON*, *ZERNAHI*. *NONAHI*...

-eN nahiz -eLA (eta -eLARIK) menderagailuak izan ditzake era honetako kontzesio perpauseko aditzak, subjuntibokoa nahiz indikatibokoa.

Aurreko azpiataleko moldeak duen balio bera du egitura honek ere, indiferentziazkoa edo axolagabetasunezkoa dei genezakeena:

(63) Datorrena datorrela, aurre egingo diot.

(64) Nornahi datorrela ere, aurre egingo diot.

A) -eLA menderagailua daramaten indikatibozko aditzak:

(65) Urrikaldu zaitez nitaz, *nomahi zarela* ere.

(66) Zelatarriak. *non-nahi dela*, ez baitira lo egoten sekula.

B) Batzuetan -eLARIK menderagailua ere ager daiteke:

(67) Ene ori, jakintsu zoratzaille ori *edozein zeralarik ere*, nere oi-eziñeko istoria kondairatu bearko duzun orrek, ez al zaizu aaztuko, arren la arren desaizul, nere Rozinante zintzoa, nere bide ta lasterketan beti-betiko laguna.

C) -eN menderagailua dutenak:

(68) Zerbait ezagutuko baldin badugu, *zernahi ere den*, izatez izan behar du aurrenik eta ez da oraingoz. ...

D) Azkenik, subjuntiboko aditzak dituztenak, -eN nahiz -eLA menderagailudunak:

(69) *Edo zoin hil dadin* (= quelle que soit la victime).

Forma hauetako batzuk lexikalizatu egin dira, eta aurkaritzako lokailu bihurtu; *EGLU III (Lokailuak)* liburukian aztertu genituen ondorengo hauek: *NOLANAHI ERE*, *NOLANAHI DEN*, *ZERNAHI GISAZ*, *EDOZELAN BERE* eta *EDOZEIN MODUTAN ERE*, besteak beste.

3.14. Kontzasioa adieraz dezaketen beste zenbait molde

Era aski desberdinetako egiturak sartu ditugu atal honetan. Guztiak atal oso bat osatzeko adina ez diren egiturak, sistematizatu ezin direnak. Batetik, esapide modukoak; bestetik, kontzesio-balioa izan dezaketen egitura batzuk: ez berez kontzesioari lotuek direlako, baina bai testuinguru jakin baten laguntzarekin, kontzesio-balioa izan dezaketelako.

EZ DELAKOAN ERE:

(70) Zirimiri honekin, *ez delakoan ere*, bustitzen ari gara.

BAIT-:

(71) Hain eni *baizen*, ez zen batere izitu.

(72) Hain aspaldian eria *baizen*, halere jin hura gure ikusterat.

ETA:

- (73) Euskalduna da, eta ez du ia euskaraz egiten (KONTZESIO KUTSUA).
 (74) Gaixorik dago, eta kalera doa (KONTZESIO KUTSUA).
 (75) Gaixorik zegoen, eta ez da kalera irten (KAUSA-ONDORIO KUTSUA).

Perpaus juntatuak ditugu guztiak; beraz, adibide bakoitzaren ondoren jarri ditugun kontzeptuak ez dagozkie maila sintaktikoari, mendeko perpaus motei, baizik izan dezaketen balio edo kutsuei. Ez ditugu mendeko perpausatzat jotzen, perpaus juntatutzat baizik. Egia da *ETA* juntagailuaren bidez juntatutako perpaussek gehientsuenetan izan dezaketela nabardura jakin bat, beti baitugu nolabaiteko erlazioa juntagaien artean: kausa-ondorioa, ordena kronologikoa, aurkaritza... Beraz, erlazio horren ondorio da horietako bakoitzean izan dezakegun balioa.

—eLA(RIK)

Testuinguru egoki batean, beste egitura asko bezala, gai da perpausari kontzesio-balioa emateko.

—eLAKO + ezeztapena

Hau ere ez da kontzesioari zuzenean lotutako egitura bat, baina balio dezake perpausari testuinguru jakin batean kontzesio kutsua emateko:

- (76) Hitz berri gehiegi *dituelako* ez diogu ukatu behar ondo merezi duen txaloa (K. Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 95)

6. MODUZKO PERPAUSAK

6.1. SARRERA

Mendeko perpausen artean, perpaus nagusi batek adierazitako ekintza nola betetzen den adierazten duten perpausei *moduzko perpausak* deitu izan die gramatika tradizionalak. Hortaz, kapitulu honetan, tradizio horri jarraikiz, euskal gramatikak halako perpausak egiteko dauzkan baliabideak azaltzen saiatuko gara.

Perpau mendeko hauen bidez, hain zuzen ere, perpaus nagusi batek adierazitakoa nola burutzen den azaltzen dela esan dezakegu, eta horregatik moduzko perpausok perpaus nagusiaren benetako osagarri zirkunstantzialak direla baieztatu, hots, modua adierazten duten perpaus adberbialak. Izan ere, perpaus hauek *honela/horrela/hala* formen tokia har dezakete. Euskaraz moduzko perpausik arruntenak perpaus jokatuabeak dira:

- (1) [*Sardea sartunik*] hil zuen (P. Lafitte, *Grammaire basque*, 460).
- (2) [*Zer nahi erranke*] an ziztaion (P. Lafitte, *Grammaire basque*, 460).
- (3) [*Mundu bati oihuka ibilita*] azkenean iauntza lortu zuen ospitalean eman zuen lehen egunean.

Kapitulu honetan, baina, liburuki osoan bezala, perpaus jokatuak aztertuko ditugu bakarrik:

- (4) Emakume hark seme txikiari agirike egiten balio bezala egiten zion berba gizonari.
- (5) Zure anaia ibiltzen den eran ibiltzen zara zu ere.

Testuak aztertu ondoren, era horretan modua adierazteko, bost baliabide desberdin aurkitzen ditugu euskal gramatikan.

Lehenengo eta behin, *-eLA* eta *-eLARIK* atzizkiez hornituriko perpaus mendekoekin egiten dugu topo:

- (6) Nik uste neban bene-benetako andikiren bategaz berba egiten nebala; agaiti nenguan txapela buruti kenduta *lotsa nintzala* berba egiten (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 44).
- (7) Huna beraz non naizen ifernuan, dio *errabian dagoelarik* (M. Duhalde, *Meditacioneak*, 154).

Bigarrenez, postposiziodun izen sintagma bat (*antz, arau, era, modu, molde...*) ardatz duten perpaus erlatiboak ditugu:

- (8) *Orek merezi zuben moduan* / bukatu degu batalla (Tximita, *Tximitaren Bertsoak I*, 242).
- (9) Robespierre hil zen, *bertzeak milaka eta milaka hiltarazi zuen moldean* (M. Elissamburu, *Framazonak*, 121).

Esan behar da, halaz ere, ez dagoela beti argi perpaus hauek beste perpaus baten mendekoak izan beharrean, ardatza den izen horren mendekoak ez ote diren. Arazoa postposiziodun izen horiekin egindako azterketan datza. Postposizio batekin hornituriko izen hutsak direla baldin badiogu, hots, [modu + postposizioa], [molde + postposizioa], etab., haien ezkerrean dauden perpausak perpaus erlatibo arruntak lirateke, baina ardatz diren izen postposiziodun horiek benetako forma fosilduzat jotzen baditugu, aldiz, modua adierazten duten mendeko perpaustzat jotzea ez dirudi desegokia denik.

Hirugarrenez, ardatzik gabeko perpaus erlatiboak ditugu (EGLU V, 206-212), baina aditzondo bat daukatenak (*bezala, legez...*). Horrelako perpeusak benetako konparazio-perpausak dira (EGLU V, 355-387), berdintasuna adierazten duten konparazio-perpausak, hain zuzen ere:

- (10) *Hil zidin Jangoiko zan legez, eta gizon zan logez?* (*Viva Jesus*, 6).
- (11) *Txakurak ohi duen bezala* sartzen da beti sukaldean, korrika eta zarataka.
- (12) *Etorri naiz joan nintzan bezalaxe* (A. Apaolaza, *Patxiko Txerren*, 110).

Laugarrenez, galdetzaile batekin osaturiko perpausak aipatu behar ditugu, hots, *aditz nagusirik gabeko zehar-galdera zatizkoak* (ikus EGLU V, 117-120), gauzak zeren arabera diren edo zein modutan egin diren esaten digutenak, aipaturiko EGLU Veko orrialde horietan azaltzen den bezala, hegoaldeko hizkuntza mintzatuan sarritan 'segun' eta 'depende' bat aurrean jarrita erabilzen direnak, baina euskara zaindu eta egoki batean zehar-galderen bidez adierazten direnak:

- (13) - Lizardiren zenbait pasarte ezin daiteke uler.
- *Nola irakurtzen den.*
- (14) - Ez omen du astirik izaten lan hori egiteko.
- *Nola jaikitzen den.*
- (15) *Alde handia dago nork eta zelan egiten duen.*
- (16) *Eskabidea zelan idazten den, hortxe dago gakoa.*
- (17) *Gauzak nondik eta nolatan begiratzen zaieten, irudilzen zaizkigu andi edo txiki* (D. Aguirre, *Garoa*, 21).

Azkenez, benetako moduzkoak ez diren eta batez ere *-eNEZ* atzizkiarekin markaturik agertzen diren mendeko perpausak ere aipatu behar ditugu, perpaus nagusian adierazitakoa berretsi egiten dutenak, eta horregatik *sasimoduzko perpausak* izenarekin bataiatuko ditugunak.

6.2. –eLA ETA –eLARIK ATZIZKIEZ MARKATURIKO PERPAUSAK:

6.2.1. –eLA eta –eLARIK atzizkien erabilera

Euskal testuetan garai eta euskalki guztietan oso erabiliak izan dira –eLA/–eLARIK atzizkidun perpausak. Morfema hauek, betiere aditzari erantsita, mota askotako perpausetan ageri dira. Esaterako:

Denborazkoetan:

- (18) Sei urte nituela hasi nintzen eskolara.

Moduzkoetan:

- (19) Adurra dariola begira gelditu zen agure gaixoa.

Kausazkoetan:

- (20) Hain ona delarik, nola ez maita?

Kontzesiozkoetan:

- (21) Oraindik haurre delarik, zaharrek bezala hitz egiten du.

Sailkatzen errazak ez diren perpausak eratzen ere agertzen zaizkigu –eLA / –eLARIK morfema hauek. Esaterako, lerro batzuk gorago *kausazkotzat* jo dugun horri ezarri diogun adibidee *baldintzazkoa* ere izan daiteke:

- (22) Hain ona bada, nola ez maita?

Gaur egungo zenbait idazlek, tradizioan ongi finaturiko erabilera gain, batzuen ustez hein gomendagarriak ez diren beste molde batzuk ere agertzen dituzte, –eLARIK morfemaren kasuan batez ere:

- (23) Leihotik erori zen, *hanka hautsi zuelarik*.

6.2.2. –eLA/–eLARIK atzizkidun moduzko perpausak tradizioan

Moduzko perpausari begirada arina egin diegu sarreran eta haien behin-behineko definizioa moldatu dugu. Horren arabera, moduzko perpausak <<perpaus nagusi batek adierazitako ekintza nola betetzen den adierazten dute>>. –eLA/–eLARIK morfemadun perpaus hauetan, hala ere, ez da betetzen beti definizio horrek dioena. Arazoa ondokoa dugu, mendeko perpausak perpaus nagusiaren moduzko xehetasun edo ñabarduraren bat adieraz dezakeela, hau da, gehienetan moduzko adberbio batek perpaus bakunean duen funtzio bera bete dezakeela, baina bigarren mailako predikazio gisa, alegia, perpaus nagusiko osagai baten predikazio bezala. Hori dela eta, –eLA/–eLARIK atzizkidun perpausetan *aditzaren aspektua burutugabea da*, egoera nahiz jardura deskribatzen eta zehazten baitu. Ikus dilzagun, hortaz, Lafitte-ren gramatikatik jasotako bi adibide hauek, argigarri izan daitezkeelakoan:

- (24) *Baratzeari dabxikiola* badugu erlategi bat.

- (25) Mutiko gaixoa ikusi dut, *herrestan zabilala*.

Lehen kasuan perpaus nagusia “*badugu erlategi bat*” da; *datxikiola* “*erlategi bat*” sintagmaren egoera deskribatzera dator eta ez perpaus nagusi osoa deskribatzera. Gauza bera esan behar dugu bigarren adibideaz ere: *herrestan zabilala* “*mutiko gaixoa*” sintagmari dagokio, eta ez perpaus nagusi osoari edo haren aditzari. Ondoko adibidea ere molde honetakoa da:

(26) Andoni [*buruan txapela duela*] ikusi dut.

“*Andoniren ikustea*” nola gertatu den baino gehiago, Andoni nola zegoen esaten da –eLA–dun perpaus mendekoaren bidez. Hala ez balitz, bestelako zirkunstantzia bat adieraziko luke –eLA morfemadun perpausak, denborazkoa gehienetan:

(27) [*Aita sartzen zela*] ume guztiak isildu egiten ziren.

Perpaus hauetan ez dago inolako konparaziorik. *Bezala, legez, moduan/modura, antzean/antzera...* morfemekin eraikitzen diren moduzko perpausek, ostera, agerian nahiz ezkutuan, konparazioa dute beti; honako beste hauek ez. Ikus ditzagun testuetatik jasoteko adibideak:

(28) Jokoko omidute, edo lantu bekotrian errial bat baino geijago jokatutia, eragotzita dago Espainako legeelan aberatseentzat ta guztientzat. *Ta erriala bera eskuban dala*, ez guero pageetakuan (Fray Bartolome, *Olgueetac*, 29).

(29) Baita ze itsutasun andijan dagozan bere ainbeste gizon ta emakume mundu zabalian, *Jaungoikuari ta Jesukristo geure Jaunaren Eleisari sinistu gura ez deuteela ta bautismoko sakramentu santuba ukatuten dabeela* (Fray Bartolome, *Icasiqizunac III*, 32).

(30) *Bost gauza oneak goguan diriola* esaten da, bada, nora ezian edo ordu popuertzakuan seinari etxe bautismua emoten jakola (Fray Bartolome, *Icasiqizunac III*, 42).

(31) Daukaguzan otseinac bere, azi ditugu geure umiac bagenduz legez, *aitkar maite dogula* (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 93).

(32) Nire alabak jazten dira lau lau, astegunetan biar egitiari dagokan legez, *ta jai egunan emoten jakola bera* (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 95).

(33) Olango etxe zuloetan sartula egoten dira arrantzaleak nekaldi gogor asko igarota gero, *ukalondoak zamau bageko mai koipetsuaren gafean dituela* (D. Aguirre, *Kresala*, 19).

(34) *Aoan pipa motsa ebala ta hamabost egunean kendu bageko okotz-bizarretatik bera adurra eriola* egoan aguratxo batek (...) (D. Aguirre, *Kresala*, 21).

(35) Geiago ezer esan barik jarraitu eban Josepak bere bidetan, *da mutiak, papertxo bere atzamar lodietan ebala, ta bere barruko poza ezin gorderik* (D. Aguirre, *Kresala*, 41).

(36) Agerlu yakon bein ate-onduan eskeko bat, (...) *buruko txapela be koipez beterik, erdi-erdian leio biribil bat ebala, bertatik ule pilla bat agin jakola* (Kirikiño, *Abarrak*, 20).

(37) Ugazaba galduta dabillan txakurra lez naiagok, *nora jo eztakidate* (Kirikiño, *Abarrak*, 20).

(38) Bai, zereko kukua!... Gizon itzel bat, *eskuan aizto (kutxillo) luze zorrotz ikaragarri bat ebala* (Kirikiño, *Abarrak*, 52).

(39) Igo fuan aritz baten gainera eta ikusi nittuan bi basurde *nere aldera etozela* (G. Anduaga, *Aitonaren uzta*, 93).

- (40) *Bekarrik ezin eraman nezaken gurutze bat soñean nuela atara ninduten Jerusalemik eta jaiki-erori ta erdi arrastan nembileta eraman ninduten Kalbarioko mendira* (S. Mendiburu, *Mendibururen idazlan argitaragabeak I*, 151).
- (41) *Maiz meza entzun dut deboziona gabe gogoa berzetan nuela, horra huna begiak nerabilizala eta solasen nengoela* (J. Etxeberri Ziburukoa, *Eliçara erabiltzeo liburua*, 146).
- (42) *Huna beraz non naizen ifernuan, dio errabian dagoelarik* (M. Duhalde, *Meditacioneac*, 154).
- (43) *Zeren lainkoaren esenzia bakhoitz batelan konsideralu behar baititugu, Aita, lehen hatsea eta gauza guzrien lehen khausu bezala; gero Semea, zein baita haren saplenzia eternala; eta Spiritu saindua, zein baita haren berthutea eta puisanza, hura baitan behi dagoelarik kreaturea guzietara hedatzen dela* (J. Leizarraga, *Othoitzu Ecclesiasticoen forma*, 33).
- (44) *Nola nihor jar ditoken egiazki pobre, egiazki aberats dagoelarik* (S. Pouvreau, *Philotea*, 268).
- (45) *Bada hi egon adi ikhasi dituan eta eman izan zaizkian gauzetan, dakialarik norenganik ikhasi ukhan dituan* (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, 377).
- (46) *Xoriek ez dagite hazirik, uztairik. Eta badute zer jan, auher daudelarik; Lilielan ez dago josten dakienik. Nor da liliak bezain aphaindua denik (Oxobi, Oxobi-ren lan orhoitzari zorbait, 70).*
- (47) *Nahi diat bada gizonek othoitz dagiten lekhu orotan askuak xahurik altxatzen dituztelarik hira eta kuesthone gaberik* (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, 369).

Perpau nagusiko osagai baten deskripzioa egiten dela esan dugu –eLA/–eLARIK atzizkidun mendeko perpausen bidez. Osagai haren egoera nahiz jarduera adierazten dela. Perpau nagusiko aditza orduan perpau mendekoan modua onar lezakeen edozein izan liteke. Goiko adibideetan, egon aditza maiz agertzen zaigu:

- (48) *Baita ze itsutasun andijan dagozan bere (...), Jaungoikuari ta Jesukristo geure Jaunaren Eleisiri sinislu gura ez deuseela ta bautismoko sakramentu santuba ukaluten dabeela* (Fray Bartolome, *Icaiquizunac III*, 32).
- (49) (...) *agaiti nenguan txapela buruti kenduta lotsa nintzala berba egiten* (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 44).
- (50) (...) *egoten dira arrantzaleak (...), ukalondoak zama bageko mai koipetsuaren gañean dituela* (D. Aguirre, *Kresala*, 19).
- (51) *Aoan pipa molsa ebala ta okotz-bizarretatik bera adurra eriola egoan aguralxo batek (...)* (D. Aguirre, *Kresala*, 21).
- (52) *Ugazaba galduta dabillan txakurra lez naiagok, nora jo eztakidala* (Kirikiño, *Abarrek*, 20).
- (53) *Bada hi egon adi ikhasi dituan eta eman izan zaizkian gauzetan, dakialarik norenganik ikhasi ukhan dituan* (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, 377).

Modua adierazten duten –eLA/–eLARIK atzizkiak aditz trinkoekin nahiz laguntzaileekin joan daitezke; dena dela, aditz trinkoak maiztasun handikoak dira, aditzaren aspektua bukatu gabea izaten baita atzizki horiek agertzen diren perpauetan, eta aditz trinkoen erabilera berezkoa da halakoetan:

Aditz trinkoen gainean:

- (54) *Ta erriata bera eskuban dala* (Fray Bartolome, *Ogüetac*, 29).
- (55) *Lotsa nintzala berba egiten* (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 44).

- (56) *Alkar maite dogula* (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 95).
- (57) *Mai koipetsuaren gañean dituela* (D. Aguirre, *Kresala*, 19).
- (58) *Aoen pipa motsa ebala ta (...) adurra eriola* (D. Aguirre, *Kresala*, 21).
- (59) *Papertxoa bere atzamar lodietan ebala* (D. Aguirre, *Kresala*, 41).
- (60) *Erdi-erdian leio biribil bat ebala* (Kinkiño, *Abarrak*, 20).
- (61) *Nora jo eztekidala* (Kinkiño, *Abarrak*, 20).
- (62) *Nere aldera etozela* (G. Anduaga, *Aitonaren uzta*, 93).
- (63) *Gurutze bat soñean nuela* (S. Mendiburu, *Mendibururen idazlan argitaragabeak I*, 151).
- (64) *Jaiki-erori ta erdi arrastan nenbifela* (S. Mendiburu, *Mendibururen idazlan argitaragabeak I*, 151).
- (65) *Gogoa berzetan nuela, horra huna begiak nerabilizala eta solasen nengoala* (J. Elcheberri Ziburukoa, *Eliçara erabilitecoo liburua*, 146).
- (66) *Hura baithan bethi dagoelarik* (J. Leizarraga, *Othoitza Ecclesiasticoen forma*, 33).
- (67) *Nola nihor jar ditekén egiazki pobre, egiazki aberats dagoelarik* (S. Pouvreau, *Philotea*, 268).
- (68) *Dakialarik norenganik ikhasi ukhan dituan* (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, 377).
- (69) *Jaungoikuari ta Jasukristo geure Jaunaren Eleisari sinistu gura ez deutseela* (Fray Bartolome, *Icasiquizunac III*, 32).
- (70) *Bertatik ule piflo bat agiri jakola* (Kinkiño, *Abarrak*, 20).

Aditz laguntzailearen gainean:

- (71) *ta bautismoko sakramentu santuba ukatuten dabesela* (Fray Bartolome, *Icasiquizunac III*, 32).
- (72) *Ta jai egunari emoten jakola beria* (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 95).
- (73) *Kroatara guzietara hedatzen dela* (J. Leizarraga, *Othoitza Ecclesiasticoen forma*, 33).
- (74) *Eskuak xahurik aitzatzen dituztelarik* (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, 369).

Aipatu ditugun testuetan ikus daitekeen bezala, ez da beti erraz izaten moduzko perpausak diren ala ez segurtatzea. Mota askotako perpausak izan arren, forma bera edo oso antzekoa dutenez gero, semantikak erabaki behar izaten du zein zein multzotakoa den. Izan ere, perpausok egoera edo jarduera bat adierazten dute eta testuinguruak zerbait gehitzen die. Esaterako, eipetu dugun hirugarren adibidea (fray Bartolomerena) gaztelaniara gerundioz itzulitzen den horietakoa dugu:

- (75) *Bost gauza oneek goguen diriala* esaten da, bada, nora ezian edo ordu popuertzakuan..., (Fray Bartolome, *Icasiquizunac III*, 42).

baina esangurari dagokionez, denborazkoa ere izan daiteke... Beste adibideetariko batek, S. Pouvreau-renak (66), baldintzazkoa dirudi eta honele har genezake:

- (76) *nola nihor jar ditekén egiazki pobre, egiazki aberats badago* (S. Pouvreau, *Philotea*, 268).

Kausazkoen artean sartu dugun eta Lafittek halakolat dakarren:

- (77) *Hain ona delarik, nola ez maila?*

Baldintza batez ere adieraz genezake ederto asko:

- (78) *Hain ona bada, nola ez maite?*

edo

- (79) *hain ona izanik, nola ez maite?*

Azkenez, azken aurreko adibidea kontzesio perpaustzat ere jo genezake:

- (80) *Xoriek ez dagite hazirik, uztairik. Eta badute zer jan, auher daudelarik (Oxobi, Oxobi-ren lan orhoitgari zorbait, 70).*

6.2.3. –eLA/–eLARIK atzizkidun perpausen kokapena

Perpaus nagusiaren eskuinaldean agertzen dira gehienetan, haren osagaietako baten moduzko zertzeladaren bat gehituz; dena dela, osagarri zirkunstantzial baten funtzioa betetzen duenez gero, osagarri horiek duten kokapen bera izaten du. Jakina, beste edozein osagai bezala, perpaus nagusiaren galdegai gisa agertzen denean, haren aditzaren ezker aldean joango da.

Goiko adibideetatik, ezker aldean doana ondorengo hau dugu:

- (81) *Bakarrik ezin eraman nezaken gurutze bat sofean nuela / atera ninduten Jerusalemik eta jaiki-erori ta erdi arrastan nenbillela / eraman ninduten Kalbarioko mendira (S. Mendiburu, Mendibururen idazlan argitaragabeak I, 151).*

Eskuinaldean agertzea da ohikoena. Galdegai izan gabe ezker aldean agertzen direnean, ostera, moduzkoak barik, denborazkoak, kausazkoak edo beste izan ohi dira maiz.

Moduzko perpausa ezezkoa denean eta aditz nagusiaren galdegai gisa erabiltzen bada, perpaus osagarrietan ez bezala, ezezko morfema eta aditz laguntzailea ez dira ohienez aurraritzen:

- (82) *Ezer ulertzen ez duela dago.*
 (83) *Esan didate ez duela ezer ulertzen.*

6.2.4. –eLA eta –eLARIK morfemen balioak eta trukagarritasuna

Gramatikari gehienek ustez, bi morfema hauek balio badiintzuz erabiltzen dira, bata nahiz bestea gehiago edo gutxiago erabiltzea, gehienbat, euskalkien tradizioari egotzita. Hortaz, –eLA moduzko eta denborazko perpausetan erabiltzen dela diote. Horri –JK atzizkia erantsiz gero (izenetan bezala: *itsurik, bizirik, zutunik, isilik...*), –eLARIK sortzen dugula, gutxi gorabehera, esangura berekoa. Dena dela, batzuek bien arteko diferentzia azpimarratzen saiatzen dira, –eLA, gehienetan, aditz trinkoekin erabiltzen dela esanez eta –eLARIK, ostera, trinko eta laguntzaileekin. Ikus ditzagun, bada, adibide batzuk:

–eLA morfemadunak:

- (84) *San Agustinek emoten dau errozoia, diffoala, zergaitik bakarrik maitetasunak alkartu eta batuten gaituzan, geure azkena dan Jaungoikoagaz (A. Iturzaeta, Azalduera laburrac, 199).*

- (85) Bafia San Juan Krisostomok emolen dau beste errazoi bat, nik darraiodan gaiari, puntuari obeto dagokiona, *diñoala*: egia da elzala orduan lur-parabisu atan egitekorik, ez bear egiteko premiñarik (P. A. Añibarro, *Guero Guero*, 12).
- (86) Alan adierazoten dau San Juan Ebanjelistak, *diñoala*... (P. A. Añibarro, *Guero Guero*, 131).
- (87) Bere umiak, bere ondasunak, bere kleituba, bere osasuna, ta eukan guztia galduta, karkaba baten eguan Job, *gorputz usteletsi teila zati bategaz arrak kenduten zitubala, ta emaztia berari burletan eguala* (Fray Bartolome, *Icasiquizunac III*, 266).
- (88) Eta andik lasterrera agertu ziran mutiko biak, *samatik lotuta asto bana ekarrela, bakoitzak* (E. Erkiaga, *Arranegi*, 55).
- (89) Kale bitarte batetik Fraixko agertu zan *galtzarpiari periodikua ekarrela* (J. San Martin, *Zirikadak*, 22).

—eLARIK morfemadunak:

- (90) Horra bi bihotz bateratuak, sakramendua lotgarri, Jainkoaren ta gizonen bixtan, bizi gutikotz elgarri; *beren urratsak dituztelarik xuxen-bidean ezarri, giristinoki hezi ditugun ait'amen kontsolagarri* (Xalbador, *Odalareri mintzoa*, 289).
- (91) Iruten ari nuzu, khilua gerrian, *ardura dudalarik nigarra begian* (J. P. J. Sallaberry, *Chants populaires du Pays Basque*, 124).
- (92) (...) ikusten da argi eta garbi Gipuzkoako mugapearen geiena; Nafarroako mendi ta Erriak; Arabako, eta Bizkaiko toki asko; bai ta zenbat eta nolako ontziak Donostiako kaian arkitzen diran ere, *zortzi legua bide dagoelarik batetik bestera* (J. I. Iztueta, *Gipuzcoaren condaira*, 37).
- (93) Gu gerok ere engaitatuak bizi gera, *eta ori gerok dakigularik, eta eztakianarena egiten dugularik*: orra gure patua (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 143).
- (94) *Badelarik bertze janhari asko, bat ez da laborearen orde jar daitekeenik* (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 129).
- (95) *Erran horietan badelarik zerbait egiarik, erraileak bizkitartean enganiotan dira* (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 176).

Ez da erraz bien arteko bereizketarik egiten, moduzko perpausari dagokienez behintzat. Garai eta euskalki guztietan ageri dira —eLA atzizkidun perpausak, eta tradizioan denborazko eta moduzko balioaz erabili izan dira gehienbat. Euskalkien arabera, —eLARIK gehiago edo gutxiago agertzen da. Bizkaierazko testu zaharretan, adibidez, nekez aurkituko dugu halakorik. Esaterako, Frai Bartolomeren adibidean, laugarrenean, —eLA atzizkiaren orde —eLARIK atzizkia jarriko bagenu, seguru asko ez genuke esango perpaus ez-gramatikala denik, baina ozta-ozta irudika dezakegu frai Bartolome horrela idazten, eta perpaus bortxatuaren antz handia izango luke. Bizkaierazko testuetan oraintsu sartu da —eLARIK hau; aurkitu ditugunik zaharrenak J. Aituna, Otxolua, Erkiaga, Mikel Zarate eta Felix Bilbaoren adibide bakan batzuk dira, gehienak denbora adierazten dutenak. Gipuzkerazko testuetan ugariago dira: Iztueta, Gerriko, Lardizabal, Urruzuno, Orixe eta Labaien testuetan aurkitu ditugu zenbait adibide. Ekialdeko testuetan maiztasun handia du, baina moduzko perpaus garbietan baino areago bestelakoetan: denborazkoetan, kontzesiozkoetan, kausazkoetan... Aipatu ditugun adibideen arteko asko, bestalde, *diñoala* sintagma dutenak dira (latinezko *dicens* orainaldiko partizipioaren balioidea):

- (96) Alan adierazoten dau San Juan Ebanjelistak, *diñoala*:(...), (P. A. Añibarro, *Guero Guero*, 131).

Har dezagun beste adibide hau:

- (97) Kale bitarte batetik Fraixko agertu zan *galtzarpiari periodikua ekarrela* (J. San Martin, *Zirikadak*, 22).

Perpaus honek modua adierazten du argi eta garbi, Fraixkoren egoera edo jarduera deskribatzen baitu. Baina “*ekarrela*” barik “*ekarrelarik*” jarriko bagenu, perpausa gramatikalki egokia izan arren, bizkaieradun hiztunek bekokia zimurtuko lukete, haien tradizioko euskararen forma hori ez delako ohikoa. Beraz, esan daiteke *-eLA* eta *-eLARIK* trukagarriak direla, euskalkien usadio eta barne-koherentzia kontuan hartuta ozlopoak sortu arren:

- (98) Gu gerok ere engairatuak bizi gera, *eta ori gerok dakigularik, eta eztakianarena egiten dugularik*: orra gure patua (L. Villasante, *Kristau fedearren sustraiak*, 143).

Azken adibideko *-eLARIK* horiek ederto asko ordezka daitezke *-eLA* soilarekin, biak ere modua adierazten baitute. Baina ondokoak hartzen baditugu, *-eLA* ez dutela onartzen ohartuko gara. Bi hauek kontzesiozko perpausak dira, ez moduzkoak:

- (99) *Badelarik bertze janhari asko, bat ez da laborearen orde jar daitekeenik* (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 129).

- (100) *Erran horietan badelarik zerbait egirik, erraileak bizkitartean enganiotan dira* (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 176).

Ondoriorik ateratzen ahal baliz beraz, hauxe esanen genuke: *-eLA/-eLARIK* morfemak balio berdintsuko perpausak eratzen agertzen direla eta euskalkien barneko koherentzia eta usadioek ezartzen dutela diferentzia bakarrik. Hala ere, *-eLA* tradizioan nahiko ondo finkaturik dauden perpaus motetan agertu ohi dela; *-eLARIK*, berriz, beste mota askotara ere zabaldu izan dela, eta horregatik, perpaus mota batzuetako *-eLARIK* formak ezin ditugula *-eLA* soilarekin trukatu.

6.3. ARDATZ GISA IZENA HARTZEN DUTEN PERPAUS ERLATIBOAK

6.3.1. Azalpena

Lehenago esan dugun bezala, perpaus moduzkoak osatzeko baliabide nagusietako bat, moduari erreferentzia egiten dion izen bat ardatz duten perpaus erlatiboak erabilitea da. Izen horietan ohikoenak ‘antz’, ‘arau’, ‘era’, ‘gisa’ ‘modu’, eta ‘molde’ dira. Kasu horietan ardatza den izena deklinabide marka batekin agertzen da beti. Gehienetan adlatiboan, baina ez adlatiboan bakarrik, inesiboa ere oso arrunta baita. ‘Arau’ eta ‘gisa’ izenak dira inongo deklinabide marka gabarik ager daitezkeen bakarrak, ondoko adibideotan ikusiko dugun bezala.

Edozelan ere, moduzko perpausak egiteko molde hau ez da izenok duten beste erabilera arruntarekin nahasi behar, izen horiek genitibo-markaren bidez perpaus erlatibo batekin lotzen direnean duten erabilerekin, alegia:

- (101) a. Erabaki dugunaren *arabera* egin du Peruk bere proiektua [erabilera amunta].

- b. Erabaki dugun *arabera* egin behar dugu [moduzkoa].

Eskema batekin horrela deskriba dezakegu bata eta bestearen arteko diferentzia formalari:

- [[[perpaus erlatiboa] Ø-aren] arabera].
[[perpaus erlatiboa] arabera].

Lehenengoan, perpaus erlatibo arrunt bat dugu: egitura aldetik, eskuineko aldean izen bat hartzen du (kasu honetan, Ø), eta osatutako izen sintagma osoa, kasu honetan, genitiboan dago. Hala sortzen den izenlaguna 'arabera' ardatzari lotzen zaio.

Bigarren kasua desberdina da: hor ere perpaus erlatiboa dago, zuzenean lotzen dena 'arabera' ardatzarekin. Bigarren kasuko perpaus hauetan badira, hala ere, bi motako perpausak. Batzuetan, ardalza ('arabera') izena izan daiteke, dagokion kasuan emana ('arau' → 'arabera'; 'modu' → 'moduan', eta abar. Beste batzuetan, ordea, ez da izena, baizik adizlaguna ('bezala'). Sail honetakoa da 'legez' ere: nahiz bistakoa den izen batean oinarritzen dela ('lege') ezin ditugu 'legez' ardatzarekin gainerako izenekin sortzen ditugun perpaus erlatibo arruntak sortu (*esan duzunaren legez*; *esan duzunaren modura*; **esan duzunaren legez*). Horregatik sartzen ditugu 'legez' eta 'bezala' sail berean, aditzondoetan, perpaus hauei dagokienez.

Aipaturiko adibideok, horrexegatik, honetara parafraza genitzake, non lehenbizikoak izena hartzen duen ardatz gisa, eta bigarrenak, berriz, aditzondoa:

(102) a. Hartu dugun erabakiaren arabera egin du Peruk bere proiektua.

b. Erabaki dugun bezala egin behar dugu.

Hemen, oraingoz, lehenbiziko multzokoez arduratuko gara: ardatz gisa izena hartzen duten multzokoez. Liburuetan, tankera honetako perpaus asko aurkitzen ahal dira. Ondoko adibideetan lehenengo biak perpaus erlatibo arruntak dira (moduzkoen artean sartzan ez ditugunak), eta ondoko biak moduzkoak (kasu honetan, izena hartzen dutenak ardatz gisa):

(103) *Aurretik etorri zirenen modura* heldu ziren langile berriak ere, izerditan eta nekaturik.

(104) *Gaur erabaki dugunaren moldera*, bihar ezinezkoa izanen da ezer egitea.

(105) *Aurreko astean etorri ziren moduan* etorri ziren oraingoa: izerditan eta nekaturik [moduzkoa].

(106) *Gaur erabaki dugun moldera*, bihar ere erabaki dezakegu [moduzkoa].

6.3.2. Adibideak

6.3.2.1. Antz: antzera:

(107) Lagundu zion mutilari etxeraino *aspaldian ikusi gabeko nagusiari zakur leialak egin oi dioten antzera* (D. Aguirre, *Garoa*, 113).

(108) Geok euskerā t'oitura zarrak uxatzen ai gera, *txori lapurrak uxa ohi diran antzera* (Jautarkol, *Biozkadak*, 17).

(109) Eta eskua iragan zion laztanduz biloetan, *aita besoetakoak berari egin ohi zion antzera* (J. Mirande, *Haur besoetakoak*, 44).

6.3.2.2. Arau: *arau, arabera, araberan*:

- (110) Halatan hor-izan den oro, behin hor-date berriro, *lehen zen arau* (J. Mirande, *Orhoituz*, 62).
- (111) Hainitz gauzaren gainean jujamendu emaiten duzu *munduko afekzioeak gogora ekartzen derautzun arauera* (S. Pouvreau, *Iesusen Imitacionea*, 147).
- (112) *dan-dana erromantzeak abesten duan araberan* (P. Berrondo, *Don Kijote Mantxako*, 60).

6.3.2.3. Era: *eran, erara*:

- (113) Jauna ezin nire buruan sartu dira Akto fedekoak *Elizan esaten diran eran* (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia II*, 13).
- (114) Ta egizu *Jangoiko berak nai duan eran* (S. Mendiburu, *Mendibururen idazlan argitaragabeak I*, 105).
- (115) Bai esan eutsan onek, emongo deusudaz zuzen-bide egiazkoak, ta eskribidu egizuz paper baten *nik esaten deusudazan erera* (P. A. Añibarro, *Lora sorta espirituala*, 28).
- (116) Batu gaizan, ba, guraso danok/euzkotar onak bagara/gure sendijak ikasi daian/*geuk gura dogun erera* (K. Erbeita, *Bertsokak*, 43).
- (117) Iruñeko kutsua itsatsi bazilzaion ere, ez zuen eke-aidamenekoa galdu, ezta hurrik aman ere, *beste herritar batek egin zuen erara* (K. Miñelena, *Euskal Idazlan Guztiak II*, 114).

6.3.2.4. Gisa: *gisan, gisara*:

- (118) *Bere gisa kantatzen irakatsi zion.*
- (119) Zuk nahi izatea ez da asko, denbora izatea ez dako egiazki konbertiltzeko; oraino Jainkoak bere dohainez argitu eta borthiztu behar zaitu, *Zeruko on dan gisa* behatuen ezagutzeko, eta higuinatzeko (A. Baraciar, *Guinstitutoqui bicitzeco eta hiltceco moldeak*, 177).
- (120) Baiña mundua, *berak nei duan gisa dabil, eta ez nik edo zuk nai genuen bezala* (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 179).
- (121) Edo lagunekin daudenek egin dezaketa debozione hau, ..., barrenez eta bihotzez, *nehor ohartzen ezten gisan* (M. Duhalde, *Meditacioneak*, 55).
- (122) Pilatok esan zien, baldin gaitzgillea dela badakizute, artu eta zuek zeok juzgatu ezazute, *zeron legeak dion gisan* (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 450).
- (123) Antiguara igoniko gizadiak menditik bera jatsi ziranerako, baietozen txalopak, parra parra, *patxada onean, ekailzik eztagon egunetan etorten diran gisara* (D. Aguirre, *Kresala*, 88).

6.3.2.5. Modu: *moduan, modura*:

- (124) Putzuak nai du izala ur usteltzea nai ez bada: eta botatzen bazaio ikatz edo iduria garbitzen da *ura edan ditekuan moduan* (A. Iturriaga, *Diálogos*, 31).
- (125) Neure bizi guztia daukat nik gogoan ta neurritu bear dot *dakidan moduan* (E. Azcue, *Parnasorako bidea*, 339).
- (126) Geuk egin bilhar ditugu geure legeak, *gura dogun modura* (D. Aguirre, *Garaa*, 354).

- (127) Ta ni, non sartu nintzan ez nekiela, aurrera atera nintzan, *nire bizi guztian ibilli naizen modura* (A. Anabitarte, *Poli*, 64).

6.3.2.6. Molde: *moldean, moldera*:

- (128) Eta gero zuentzat batek erran beza arratseko othoiltz hau, *goizekoaz erran den moldean* (E. Materre, *Doctrina Christiana*, 342).
- (129) Eta hori nahi duen aidi guzian, eta nahi duen bezañi denbora luzean, bai eta oraiño on iruditzen zaion xedeagatik, *eta plazer duen moldean* (J. Haraneder, *Gudu izpirituala*, 92).
- (130) Bada hanbat falta da fedeak ungi egitelek holzen edo harzaratzen gaituen, non gure obra on guziak hark egiten baititu gutan, *fruituak arboretik heldu diraden moldera* (J. Leizarraga, *Othoitzia Ecclesiasticoen forma*, 104).

Gorago esan dugun bezala, orain aipatzen ari garen perpausok adjunktuko edo osagarri zirkunstantzialaren funtzioa betetzen dute, kokapenaren ikuspegitik euskal gramatikan bezala, hala munduko gramatika gehienetan, kokapenaskatasun handia duten osagaiak, hain zuzen ere. Baina aipaturiko adibideetan ikus daitekeen moduan, eta testuak oro har aztertuta, mendeko perpaus hauek gehienetan perpaus nagusiaren eskuinean agertzen dira, horretarako inongo beharkizun gramatikalik egon ez arren.

6.4. ARDATZ GISA ADITZONDOA HARTZEN DUTEN PERPAUS ERLATIBOAK

6.4.1. *Azalpena*

Sarreran esan dugun bezala, izen ardatzik gabeko perpaus erlatiboak ere erabil daitezke moduzko perpausak osatzeko. Eraikidura hauek aditzondo batekin hornituta agertzen dira, non aditzondo horiek 'bezala' eta 'legez' eta anlzeokoak baitira, eta haien ezkerrean agertzen den perpaus erlatiboa huts-hutsik agertzen den, hau da, ardatzik eta determinatzailerik gabe. Azken batean, halakoetan konparazio bat egiten ari gara, modua konparatzen ari gara, aipaturiko aditzondo biak erabilia berdintasuna adierazteko, eta "ez bezala" erabilia, ostera, desberdintasuna adierazteko:

6.4.2. *Bezala*:

- (131) Ixildu zen eta aren aurpegi naasian gogoela goxo bat agertu zen, *goizeko euntan joretxoak ur arte tartetik ageti diren bezala* (Orixe, *Mireio*, 47).
- (132) Bainen heien egitate gaxtoak arranguratu gabe jasan ziluzten, *arima borthitzer dohakoten bezala* (F. Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 166).
- (133) Hemen naiz ene Jainkoarekin, *parabisuen izanen naizen bezala* (J. P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren aguna*, 179).
- (134) Eta ulzi zuten bizi zadiela *berari zohakon bezala* (B. Joannategui, *Sainduen Bizitza*, 71).
- (135) Jose zarraren ezurrak etzizaiozkan Moisesi aztu, *eriotzako orduan agindu zuen bezala* (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 73).

6.4.3. Legez:

- (136) Urrea geitulen danean gelu ohi da gizonen arrokeria, itxasoa gora datorrenean
ibaiko ura geituten dan legez (D. Aguirre, *Kresala*, 156).
- (137) Maite zaitut, Jauna, gauza guztien ganean; ta gura zindukedaz amatu, zeuen
Amak, Angeru ta Zerutar guztiak maite zaituen legez (P. A. Añibarro, *Escu-liburu*,
234).
- (138) Ez neutseen jaramon andirik egin berba onezi, *ekandu dongetan sarturik*
dagozanak geienak oi daben legez (J. A. Uriarte, *Manjaren illa*, 79).
- (139) Gero, darue eguna barriketa alper, pasio luze, joko, ta gura dabeen guztian, ta
denpora iragoteko, *eurak esan daruen legez* (J. A. Moguel, *Confesio ona*, 285).
- (140) Areetati balzuk San Migel Aingeruba aurrerengo zala, obeidu eulseen
Jaungoikuari, *errazioa zan legez* (Fray Bartolome, *Icasiquizunac I*, 12).

6.5. GALDETZAILE BATEKIN HORNITURIKO MENDEKO PERPAUSAK

Moduzko perpausak sortzeko, azkenez, galdetzaile batekin osatzen diren mendeko perpausak aipatu behar ditugu, aditzean, horrexegatik, —eN atzizkia eskatzen dutenak. Era honetako perpausak oso arruntak dira hizkuntza mintzatuan, baina literaturan askozaz zailagoak dira aurkitzen:

- (141) *Eta eguna luzeago edo laburrago, nola dan, iru ordutara alda litekeela* [erlojuja]
(I. Munita, *Gure mendi ta oianak*, 115).
- (142) *Prezioak nola doazen, asko edo gutxi erosiko dugu.*
- (143) *Ebean geratuko naiz edo kalera aterako, eguzkiak zelan berotzen duen.*
- (144) *Nondik zoazen zu, kontrako bidetik joanen naiz ni.*
- (145) *Peruk zer nahi duen, Jonek beti eginen dio itsu-aurreko*⁴⁷.

Perpaus hauekin lotura zuzena duten eta *BAIT*- aurrizkiarekin markatzen diren konparazio-perpausak ere aipatu behar dira, eta orobat 'nola/zelan' galdetzailearekin batera 'en' atzizkiarekin markatzen direnak, formalki oso antzekoak baitira (ikus *EGLU V*, 421-438):

- (146) *Bere kontra ukhan zuen, nola merezi baitzuen* (L. Goyhetché, *Fableac*, 15).
- (147) *Baldin egin balitz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita latinez, frantsesez edo bertze erdaraz* (P. Axular, *Guero*, 10).
- (148) *Atara bear da odola galx askolan, baiña, nire ustez, ez einbestetan zelan ataraten dan* (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 21).

6.6. SASIMODUZKOAK

Euskal gramatikan, beste hainbat gramatketan bezala, formez moduzkoak ematen duten mendeko perpausak aurkitzen ditugu, baina edukiaren ikuspegitik perpaus negusiaren gauzatzeko moldearekin zerikusi gutxi dutenak. Izan ere,

⁴⁷ Hemen esatera farnatu bi horiek aipa genitzake:

eguzkia nora, zapiak hara
nora halze, hara aise

jokarugabeak izanik, berez hemen aztertzeako ez direnak, baina oinarrian egitura bera dutenak.

perpau hauen bidez, perpau nagusian adierazitakoa berresten dugu, halako moduan non esan baitaiteke perpau nagusiaren ordezeko bat dela, halako 'perpauorde' bat, harengandik (euskara idatzian koma batez) banaturik eta galdegai gisa inola ere ager ezin daitekeena. Holako *sasimoduzko* hauen eredurik arruntena –*eNEZ* atzizkiarekin hornituriko perpauak dira, gehienetan 'esan' aditzarekin osatuak, baina ez 'esan' aditzarekin bakarrik:

- (149) Konturik asko badauka neskatx orrek berekin ere, *lñaxiori esan diotenez* (V. Mocoora, *Damuba garaiz*, 24).
- (150) *Gure aiskidiak iñuenez*, lermometro bat euzkitan ipiñi baliz, 46-47 maila erakutsi izango ei-ebazan, gitxienez (Kirikiño, *Bigarrenko abarrak*, 103).
- (151) Apain zazue Jaunaren bidea, *Isaia Profetak esan zuenez* (P. Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 51).
- (152) Dudank gabe, eta au bera gertatzen da eguzkiarekin *diotenez* (A. Ilurriaga, *Diálogos*, 51).
- (153) Orduan izan oi da bekatu beniala, *gizon jakintsu askok, edo geienak erakusten diguenez* (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia II*, 209).
- (154) Euriaren zantzua omen-dakar egazti oiulari onen kantua, *agureak diotenez* (T. Agirre, *Uztaro*, 108).

Baina atzizki horren jabe ez diren *sasimoduzkoak* ere aurkitzen ditugu:

- (155) Hark ohaide bat zeukan ezinbestez, emakume lizuna eta atsegalea zelakotz, *arestian ondorekatu dugun arauera* (J. Mirande, *Idazlan hautatuak*, 178).
- (156) Alabantza, esate balerako, alaba antza da *bistan dagoen arabera* (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 62).
- (157) Au da alzenean jaiera bat ondasun andiak berekin dakartziana orain *ekusiko dugun bezala* (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia III*, 329).
- (158) Halakoak ei dira ingelesak, *topikoak dioenez*

LABURPENA

1. Zer diren moduzko perpausak

Mendeko perpausen artean, perpaus nagusi batek adierazitako ekintza nola burutzen den adierazten duten perpausari *moduzko perpausak* deritze gramatika tradizionalak. Beraz, moduzko perpausak perpaus nagusiaren benetako osagarri zirkunstantzialak direla baieztatu genezake, alegia, modua adierazten duten perpaus adberbialak. Euskaraz moduzko perpausik arruntenak perpaus jokatuak dira, baina kapitulu honetan, liburu osoan bezala, perpaus jokatuak aztertzen dira bakarrik:

- (1) Emakume hark seme txikiari agiriak egiten balio bezala egiten zion berba gizonari.
- (2) Zure anaia ibiltzen den eran ibiltzen zara zu ere.

Testuak aztertu ondoren, euskal gramatikaren modua era horretan adierazteko, bost baliabide desberdin aurkitzen ditugu:

• *-eLA* eta *-eLARIK* atzizkiez hornituriko mendeko perpausak:

- (3) Nik uste neban bene-benetako andikiren bategaz berba egiten nebala; agaili nenguan txapela buruti kenduta *lotsa nintzala* berba egiten (J.A. Moguel, *Peru Abarca*, 44).
- (4) Huna beraz non naizen ifernuan, dio *errabian degoelarik* (M. Duhalde *Meditazioneak*, 154).

• Ardatz gisa izen bat hartzen duten perpaus erlatiboak. Izen horietan ohikoenak *antz*, *arau*, *era*, *modu*, *molde*... dira. Kasu horietan ardatza den izena postposizio batekin agertzen da beti:

- (5) Robespierre hil zen, bertzeak milaka eta milaka hilarazi zuen moldean (M. Elissamburu, *Framazonak*, 121).

• Ardatz gisa izenik ez duten perpaus erlatiboak, baina aditzondo bat daukatenak (*bezala*, *legez*,...). Perpaus hauek berdintasuna adierazten duten benetako konparazio-perpausak dira:

- (6) Txakurak ohi duen bezala sartzen da beti sukalketan, korrika eta zarataka.
- (7) Etorri naiz joan nintzan bezalaxe (A. Apaolaza, *Patxiko Txerran*, 110).

• Galdetzaile batekin osaturiko perpausak, gauzak zeren arabera diren edo zein modutan egin diren esaten digutenak:

- (8) Lizardiren zenbait pasarte ezin daiteke uler.

Nola irakurtzen den.

- (9) Gauzei nondik eta nolatan begiratzen zaien, inuditzen zaizkigu handi edo txiki.

• Benetako moduzkoak ez diren eta batez ere *-eNEZ* atzizkiarekin markaturik agertzen diren mendeko perpausak, perpaus nagusian adierazitakoa berretsi egiten dutenak.

2. *-eLA* eta *-eLARIK* atzizkiez markaturiko perpausak

• Euskal testuetan garai eta euskalki guztietan oso erabiliak izan dira. Morfema hauek, betiere adilzari erantsita, mota askotako perpausetan ageri dira. Esaterako, *denborazkoetan* ("sei urte *nituela* hasi nintzen eskolara"); *moduzkoetan* ("adurra *deriola* begira gelditu zen agure gaixoa"); *kausazkoetan* ("hain ona *delarik*, nola ez maita?"); *kontzesiozkoetan* ("oraindik haurra *delarik*, zaharrek bezala hitz egiten du"). Saikalzen errazak ez diren perpausak eratzten ere agertzen zaizkigu. Oraingo zenbait idazlek, tradizioz ez izateaz gain, balzuen ustez, hain gomendagarriak ez diren beste batzuk ere agertzen dituzte, *-eLARIK* morfemaren kasuan batez ere ("leihotik erori zen, hanka hautsi zuelarik").

• *-eLA/-eLARIK* atzizkidun moduzko perpausak tradizioan

Moduzko perpausak "perpaus nagusi batek edierazitako ekintza nola betelzen den adierazten dute". *-eLA/-eLARIK* morfemadun perpaus hauetan, hala ere, ez da betelzen beti definizio horrek dioena. Arazoa ondokoa dugu, mendeko perpausak perpaus nagusiaren moduzko xehetasun edo ñabarduraren bat adieraz dezakeela, hau da, gehienetan moduzko adberbio batek perpaus bakunean duen funtzio bera bete dezakeela, baina bigarren mailako predikazio gisa, alegia, perpaus nagusiko osagai baten predikazio bezala. Perpaus hauetan aditzaren *aspektua burutugabea* da, egoera nahiz jarduera deskribatzen eta zehazten baitute:

(10) *Baratzeari dabikiola* badugu erategi bat.

(11) Mutiko gaixoa ikusi dut, *herrestan zabilala*.

(12) Andoni [*buruen txapela duela*] ikusi dut.

Andoniren ikustea nola gertatu den baino gehiago, Andoni nola zegoen esaten da. *-eLA*-dun perpaus mendekoaren bidez. Hala ez baliiz, bestelako zirkunstantzia bat adieraziko luke *-eLA* morfemadun perpausak, denborazkoa gehienetan:

(13) [*Aita sartzen zela*] ume guztiak isildu egiten ziren.

Perpaus hauetan ez dago inolako konparaziorik. *Bezala, legez, moduan/modura, antzean/antzer...* morfemekin eraikitzen diren moduzko perpausak, ostera, agerian nahiz ezkutuan, konparazioa dute beti.

Perpaus nagusiko osagai baten deskripzioa egiten dela esan dugu *-eLA/-eLARIK* atzizkidun mendeko perpausen bidez. Osagai haren egoera nahiz jarduera adierazten dela.

Modua adierazten duten *-eLA/-eLARIK* atzizkiak aditz trinkoekin nahiz laguntzaileekin joan daitezke; dena dela, aditz trinkoak maiztasun handikoak dira, aditzaren aspektua bukatugabea izaten baita etzizki horiek agertzen diren perpausetan, eta aditz trinkoen erabilere berezkoa da halakoetan.

Testuetan ikus daitekeen bezala, ez da beti erraz izaten moduzko perpausak diren ala ez segurtatzea. Mota askotako perpausak izan arren, forma bera edo oso antzekoa dutenez gero, semantikak erabaki behar izaten du zein zein mulzotakoa den.

• **-eLA/-eLARIK atzizkidun perpausen kokapena**

Perpaus nagusiaren eskuinaldean agertzen dira gehienetan, haren osagaietako baten moduzko zertzeladaren bat adierazten; dena dela, osagarri zirkunstantzial baten funtzioa betetzen duenez gero, osagarri horiek duten kokapen bera izaten du. Jakina, beste edozein osagai bezala, perpaus nagusiaren galdegai gisa agertzen denean, haren aditzaren ezker aldean joango da.

Eskuinaldean agertzea da ohikoena. Galdegai izan gabe ezker aldean agertzen direnean, moduzkoak barik, denborazkoak, kausazkoak edo beste izan ohi dira maiz.

Moduzko perpausa ezezkoa denean eta aditz nagusiaren galdegai gisa erabiltzen bada, perpaus osagarrietan ez bezala, ezezko morfema eta aditz laguntzailea ez dira ohienez aurreratzten:

(14) Ezer ulertzen ez *duela* dago (moduzko perpausa).

(15) Ez *duela* ezer ulertzen esan didate (perpaus osagarria).

• **-eLA eta -eLARIK morfemak balio berekoak eta trukagarriak al dira?**

Gramatikari gehienek ustez, bi morfema horiek balio berdintsuak erabiltzen dira, bata nahiz bestea gehiago edo gutxiago erabiltzea, gehienbat, euskalkien tradizioari egotzita. Dena dela, batzuek bien arteko diferentzia azpimarratzen saiatzen dira, -eLA, gehienetan, aditz trinkoekin erabiltzen dela esanez eta -eLARIK, ostera, trinko eta laguntzaileekin.

Ez da erraz bien arteko bereizketarik egiten, moduzko perpausari dagokienez behintzat:

(16) Alan adierazoten dau San Juan Ebanjelista, *diñoala*: (...). (P. A. Afibarro, *Gueroco Guero*, 131).

Testuak aztertu ondoren, ondorioz atera ahal bada, hauxe esanen genuke: -eLA/-eLARIK morfemak balio berdintsuko perpausak eratzen agertzen direla eta euskalkien barneko koherentzia eta usadioek ezartzen dutela diferentzia. Hala ere, -eLA tradizioan nahiko ondo finkaturik dauden perpaus motetan agertu ohi dela; -eLARIK, berriz, beste mota askotara ere zabaldu izan dela, eta horregatik, perpaus mota batzuetako -eLARIK formak ezin ditugula -eLA soilarekin trukatu.

3. Ardatz gisa izen bat hartzen duten perpaus erlatiboak

Perpaus moduzkoak osatzeko baliabide nagusietariko bat, ardatz gisa izen bat duten perpaus erlatiboak erabiltzea da; modua adierazten duten izenetako bat. Izan horietan ohikoena 'antz', 'arau', 'era', 'gisa', 'modu', eta 'molde' dira. Kasu horietan ardatza den izena postposizio batekin agertzen da beti. Gehienetan adlatiboan, baina ez adlatiboan bakarrik, inesiboa ere oso arrunta

baita. 'Arau' eta 'gisa' izenak dira inongo postposizioirik gabe ager daitezkeen bakarrak. Edozelan ere, moduzko perpausak egiteko molde hau ez da perpaus erlatibo arruntekin nahasi behar, kokapen-izen horiek genitibo-markaren bidez perpaus erlatibo batekin lotzen direnean:

- (17) Erabaki dugun *arabera* egin behar dugu [moduzkoa].
- (18) Erabaki dugunaren *arabera* egin du Peruk bere proiektua [erlatibo arrunta].

Anlz: antzera:

- (19) Lagundu zion mutillari ~~etxeraino~~ aspaldian ikusi gabeko nagusiari zakur leialak egin oi dioten antzera (D. Aguirre, *Geroa*, 113).
- (20) Eta eskua iragan zion laztanduz biloetan, *aifa besoetakoak berari egin ohi zion antzera* (J. Mirande, *Haur besoetakoak*, 44).

Arau: erau, arabera, araberan:

- (21) Halatan hor-izan den oro, behin hor-date berriro, *lehen zen arau* (J. Mirande, *Othoitz*, 62).
- (22) *dan-dana arromantzeak abesten duan araberan* (P. Berrondo, *Don Kijote Mantxako*, 60).

Era: eran, erara:

- (23) Ta egizu *Jangoiko berak nai duan eran* (S. Mendiburu, *Mendibururen idazlan argitaragabeak I*, 105).
- (24) Bai esan eutsan onek, emongo deutsudaz zuzen-bide egiazkoak, la eskribidu egizuz paper baten *nik esaten deutsudazan erara* (P. A. Añibarro, *Lora sorta espirituala*, 28).

Gisa: gisa, gisan, gisara:

- (25) *Bere gisa kantatzen irakatsi zion*.
- (26) Antiguara igoniko gizadiak menditik bera jatsi ziranerako, baietozen txalopak, parra parra, paxkada onean, *ekaitzik eztagon egunetan etorten diran gisara* (D. Aguirre, *Kresala*, 88).

Modu: moduan, modura:

- (27) Geuk egin bihar dilugu geure legeak, *gura dogun modura* (D. Aguirre, *Geroa*, 354).
- (28) Ta ni, non sartu nintzan ez nekiela, aurrera atera nintzan, *nire bizi guztian ibilli naizen modura* (A. Anabitarte, *Poli*, 64).

Molde: moldean, moldera:

- (29) *Eta gero zuentzat batek erran beza arratseko othoitz hau, goizekoaz erran den moldean* (E. Materre, *Doctrina Christiana*, 342).
- (30) Bada hanbat falta da fedeak ungi egitetik holzen edo harzaratzen gaituen, non gure obra on guziak hark egiten baititu gulan, *fruituak arboretik heldu diraden moldera* (J. Leizarraga, *Othoizta Ecclesiasticoen forma*, 104).

4. Ardatz gisa izena ez duten perpaus erlatiboak

Eraiketa hauek aditzondo batekin hornituta agertzen dira, non aditzondo horiek 'bezala' eta 'legez' eta anlzeakoak baitira, eta beraien ezkerrean agertzen den perpaus erlatiboa huts-hutsik agertzen den. Azken batean, halakoetan konparazio bat egiten ari gara, modua konparatzen ari gara, aipaturiko

aditzondo biak erabilia berdintasuna adierazteko, eta "ez bezala" erabilia, ostera, desberdintasuna adierazteko:

bezala:

- (31) Ixildu zen eta aren aurpegi naasian gogoeta goxo bat agertu zen, *goizeko euritan loretxoak ur erre tartetik ageri diran bezala* (Orixe, *Mireio*, 47).
- (32) Hemen naiz ene Jainkoarekin, *parabisuen izanen naizen bezala* (J. P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 179).

legez:

- (33) Urrea geitulen danean geitu ohi da gizonen arrokeria, *itxasoa gora datorrenean ibaiko ura geituten dan legez* (D. Aguirre, *Kresala*, 156).
- (34) Areetati batzuk San Migel Aingeruba aurrerengo zala, *obeidu eutseen Jaungoikuari, errazoa zan legez* (Fray Bartolome, *Icasiquizunac I*, 12).

5. *Galdetzaille batekin hornituriko mendeko perpausak*

Galdetzaille batekin osalzen diren mendeko perpausak, aditzean *-eN* atzikia eskatzen dutenak. Era honetako perpausak oso arruntak dira hizkuntza mintzatuan, literaturan, aldiz, askozaz zailagoak dira aurkitzen:

- (35) *Prezioak nola doazen, asko edo gutxi erosiko dugu.*
- (36) *Peruk zer nahi duan, Jonek beti eginen dio itsu-aurreko.*

Perpaus hauekin lotura zuzena duten eta *BAIT-* aurrizkiarekin markatzen diren konparazio perpausak:

- (37) Bere kontra ukhan zuen, *nola merezi bailzuen* (L. Goyhetché, *Fableac*, 15).
- (38) Baldin egin balitz euskaraz hanbat liburu, *nola egin baita latinez, frantsesez edo bertze erdaraz* (P. Axular, *Guero*, 10).

6. *Sasimoduzkoak*

Euskal gramatikan, beste hainbat gramatikatan bezala, formaz moduzkoak ematen duten mendeko perpausak aurkitzen ditugu, baina edukiaren ikuspegitik perpaus negusiaren gauzatzeko molde eta modurekin zerikusi gutxi dutenak. Perpaus hauen bidez, perpaus negusian adierazitakoa berresten dugu, helako moduan non esan baitaiteke perpaus nagusiaren ordezkoko bat dela. *Sasimoduzko* hauen eredurik arruntena *-eNEZ* atzizkiarekin hornituriko perpausak dira, gehienetan 'esan' aditzerekin osatuak:

- (39) Konturik asko badauka neskatz orrek berekiñ ere, *lñaxiori esan diotenez* (V. Mocoioa, *Demuba garaiz*, 24).
- (40) Dudarik gabe, eta au bera gertatzen da eguzkiarekin *diotenez* (A. Iturriaga, *Diálogos vascos*, 51).

BIBLIOGRAFIA

Zenbait literatura lanen izenburuen luzetasuna dela eta, adibideen erreferentziak era laburtuan eman ditugu gramatika honetan; luzeago eta astunago egingo litzaioke irakurleari gure lana, adibide bakoitzean izenburua bere osotasunean eman izan bagenu. Horrenbestez, bi eratara dakarkigu hona bibliografia: lehenbiziko partean (A atalean) gramatika honetan aipaturiko lanen izenburu osoak eta argitaratze datuak aurkezten dira; B atalean, berriz, liburu horien berorien izenburu laburtuak (ez guztienak, hala ere), gure gramatikan, adibide bakoitzaren erreferentzia ematerakoan, erabili ditugun bezala.

A.- BIBLIOGRAFIA

A.1.-Literatura lanak:

- Adéma, G., "Zalduby", <<Oeuvres de Chanoine Adéma>>, in *RIEV*, 1908.
- Agirre, J. M., "Lizardi", *Itz lauz*, Donostia, 1934.
- Agirre, T., *Uztaro*, Bilbo, 1937 (2. arg. Bilbo, 1950).
- Aguirre Asteasukoa, J. B., *Eracusaldia I, II, III*, Tolosa, 1850 (faksimila: Donostia, 1978).
- Aguirre, D., *Auñemendiko lorea*, Bilbo, 1898.
- _____, *Garoa*, Durango, 1912.
- _____, *Kresala*, Durango, 1906.
- Aire, F., "Xalbador", *Ezin bertzean*, Tolosa, 1969.
- _____, *Odolaren mintzoa*, Zarautz, 1976.
- Akesolo, L., *Ipiña ta ipiñatarren barri*, Bilbo, 1958.
- Alcáin, J. J., "Udarregi", *Udarregi bertsolaria*, Tolosa, 1966.
- Alphonsa Rodriguez Jesusen Compagnhaco Aitaren Guiristinho perfeccioniaren praticaren pparte bat Heuzcarala itçulia, Heuzcara becic eztakitenen daco*, Aviñon, 1782.
- Altuna, J., *Ipuñak*, Bilbo, 1957.
- Aizaga, T., *Bumuntziya*, Donostia, 1931 (2. arg. Tolosa, 1963).
- _____, *Ramuntxo*, Donostia, 1961.
- Aizola, N., *Atalak*, Zarautz, 1967.
- Amuriza, X., *Emea*, Donostia, 1994.
- Anabitarte, A., *Aprika-ko basamortuan*, Zarautz, 1961.

- _____. *Poli. Mutil umezurtz baten ibillaldiak*, Zarautz, 1958.
- Andredena Mariaren ilhabetea, Baiona, 1838.
- Anduaga, G., *Aitonaren uzta. Gezaltzako aitonaren kontakizun eta bertsoekin Aita Luis Villasantek osaturiko bilduma*, Zarautz, 1961.
- Añibarro, P. A., *Escu-liburua I, II*, Tolosa, 1802 (faksimila: Donostia, 1978).
- _____. *Gueroco Guero*, RIEV, 1923, 1925.
- _____. *Lora sorta espirituala, ta propositu santuac vicitza berri bat eguiteco*, Tolosa, 1803.
- _____. *Misionari Eskalduna*, argitaragabea, L. Villasantek aipatua in *Sintaxis de la oración compuesta*, 138; J. Duvoisin, *Dialogues basques*, 45.
- Apaolaza, A., *Patxiko Txerren*, Zarautz, 1962, J. San Martinen ed. (1. arg. Bergara, 1890).
- Arambillaga, *Jesu Christoren imitacionea d'Arambillaga Apheçac escaraz emana*, Baiona, 1684.
- Arana, J. I., *San Ignacio Loyolacoaren bicitza laburtua euscaraz eta gastelaniaz*, Bilbo, 1872.
- Arbelbide, J. P., *Erisionea*, Lille, 1890 (faksimila: Iruñea, 2004).
- _____. *Igandea edo Jaunaren eguna*, Lille, 1895.
- Aresti, G., *Ipuinak*, Donostia, 1979.
- _____. *Maldan behera*, **Euskera**, Bilbo, 1960, 189-234.
- Argaignarats, P., *Devoten Breviarioa*, Baiona, 1665 (faksimila: Donostia, 1978).
- Argi Done Laburra*, Donostia, 1923.
- Arotçarena, A.
- Arradoy. Ikus Narbaitz, P.
- Arratibel, J., *Kontu zaharrak*, Donostia, 1997.
- Arrese Beitia, F., *Ama euskeriaren liburu kantaria*, Bilbo, 1900.
- Arrese, E., *Olerki berrizte*, Zarautz, 1952.
- Arrue, G., *Mayetceco ill, edo Birgina chit santari consagratutaco Mayetceco illa*, Tolosa, 1888.
- _____. *Santa Govevaren vicitza antziñaco denboretaco condairen ederrenetaco bat*, Tolosa, 1968.
- Arrue, J., *Arantzazu. Aitona baten berso berriak*, 1924.
- Astarloa, P., *Urteco Domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac II*, Bilbo, 1818.
- Astolasterrak, P. Urkizuren ed., Donostia, 1984.
- Abxaga, B., *Obabakoak*, Donostia, 1988.
- Alxaga, M., *Gaztetxo. Bizitzako udaberrian*, Donostia, 1963.
- Axular, P., *Guero*, Bordele, 1643.
- Azcue, E. M., *Parnasorako bidea*, Bilbo, 1896 (faksimila: Donostia, 1979).

- Azkue, J. M., *Asis'tar Prantzisko Donearen bizitza*, 1925.
- Azkue, R. M., *Ardi Galdua*, Bilbo, 1968.
- _____, *Batxi Guzur*, Donostia, 1986, I. Pagolaren ed. (1. arg. Bilbo, 1897).
- _____, *Bein da betiko*, Bilbo, 1893, I. Pagolaren ed. (Donostia, 1986).
- _____, *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Bilbo, 1905-1906.
- _____, *Euskalerriaren Yakintza I, II, III, IV*, Madril, 1945.
- Barandiaran, J. M., *Euskalerriko Leen-Gizona*, Donostia, 1934.
- _____, *Obras completas II. Zarautz*, Bilbo, 1973.
- Baratziart, A., *Guinistinoqui bicitzece eta hiltzece moldea*, Baiona, 1784.
- Barbier, J., *Légendes du Pays Basque*, Paris, 1931 (faksimila: Donostia, 1983).
- _____, *Supazter chokoan*, Baiona, 1924.
- Barriola, A., *Goi-Arri*, Donostia, 1935.
- Basarri, *Ikus Eizmendi*, I.
- Basterrechea, J. de, "Oskillaso", *Kurtoiak. Kaletarren haur-zeroa*, Zarautz, 1962.
- Belapeyre, A., *Catechima laburra eta Jesus Christ goure Ginco Jaunaren eçagutcia, salvatu içateco*, Pau, 1696.
- Beovide, C., *Asis-co Loria*, Tolosa, 1966, L. Villasanteren ed. (1. ed. Tolosa, 1885).
- Berrondo, P., *Don Kijote Mantxako*, Zarautz, 1977.
- Bilbao, F., *Ipuin bareka*, Bilbo, 1959.
- Bilintx, *Ikus Bizcarrondo*, I.
- Bizcarrondo, I., "Bilintx", *Bertso te lan guztiak*, Tolosa, 1962, A. Zavalaren ed.
- Bordel, *Ikus Echamendi*, J.
- Bustintza, E., "Kirikiño", *Abarrak*, Abando, 1918
- _____, *Bigarango Abarek*, Zornotza, 1930.
- Cardaberaz, A., *Aita S. Ignacio Loyolacearen agercioak*, Iruñea, 1760 eta 1761.
- _____, *Eusqueraren Bem Onac*, Iruñea, 1761.
- _____, *Justuen Ispillu arguia*, Iruñea, 1764.
- Casenave, J., *Santa Grazi*, Pastoral, Donostia, 1976.
- Catechima [...] Charles Auguste Le Quien de Laneufville, Aquiceco Jaun Apezpicu oosqui illustre eta Ohoregariaren manuz araimprimatia*, Akize, c. 1780.
- Cerquand, J. F., *Ipar Euskal Herriko Legendea eta Ipuinak I*, A. Aranaren ed., Donostia, 1985.
- Chourio, M. de, *Jesu-Christoren Imitacionea*, Bordele, 1720.

- Cristau Doctriñe Aite Gaspar Astetec erdaraz escriptus eta Ulzamaco Apezac Balle ontan yarduquizen den usquerara biurtue*, Iruñea, 1906.
- Cristinau Doctrinea bere explicacino laburragaz Busturico Vicariaco Abade jaunaren encarguz*, Bilbo, 1849.
- Dassança, M., *Laborarien abisua*, 1692.
- Davant, J. L., *Iparraren bila*, Donostia, 1986.
- Dechepare, B., *Linguae Vasconum Primitiae*, Bilbo, 1980, P. Altunaren ed. (1. arg. Bordele, 1545).
- Diharce, J. M., "Iratzeder", *Biziaren olerkia*, Bilbo, 1983.
- Duhalde, M., *Meditacioneac gei premietsuenen gainean*, Baiona, 1809 (faksimila: Donostia, 1978).
- Duvoisin, J., *Bible Saindua*, Londres, 1859-1865.
- _____, *Dialogues basques*, Londres, 1857.
- _____, *Laborantzako liburua edo bi aita semeen solasak laborantzaren gainean*, Baiona, 1858 (faksimila: Donostia, 1978).
- _____, *Liburu Ederra aita Cardaberaz Jesuistak egina, Lapurdico escarara itzulia*, Baiona, 1856 (faksimila: Donostia, 1978).
- Echagaray, J. V., *Festara*, Tolosa, 1964, A. Zavalaren ed.
- Echamendi, J., "Bordel", *Bordel bertsulana*, Tolosa, 1965, J. M. Satrustegiren ed.
- Echeita, J. M., *Josecho*, Durango, 1909.
- Eguzkitza, J., *Gizarte-Auzia. Ugazaba ta langille arteko gora-berak*, Zornotza, 1935.
- Eizmendi, I., "Basarri", *Kantari nator*, Zarautz, 1960.
- Elicegui, P., "Pello Errota", *Pello Errotak jaritako bertsoak*, Tolosa, 1963.
- Elissaide, J., "Zerbitzari", *Azkaine gure sorteria*, Donostia, 1985, P. Xarritonen ed.
- _____, *Ichtorio Saindua. Testament Zaharra. Jesu-Christo. Eliza*, Lille, 1943.
- Elissamburu, J. B., *Piarras Adame*, Baiona, 1946 (1. arg. Paue, 1888).
- Elissamburu, M., *Framazonak (bigarren edizioea) eta Frantziako hirur Errepublikan ichtorioa laburki*, Baiona, 1890.
- Elizen arteko biblia*, Elizen arteko Biblia Elkartearen itzulpena, Donostia, 1994.
- Enbeita, B., *Nere apurra*, Tolosa, 1974.
- Enbeita, K., *Gure urretxindorra. Enbeita'tar Kepa'ren bertso lanak osonik. Aita Onaindia'k: bilduma eta itzaurrea*, Buenos Aires, 1971.
- Erkiaga, E., *Arranegi*, Zarautz, 1958.
- _____, *Batetik bestera*, Zarautz, 1962.
- _____, *Imibarraa galtzen denean*, Bilbo, 1987.
- _____, *Txurio txoria*, Bilbo, 1986.

- Escueldun cocinera ceinarekin nomahic cocina ona errechki eguin baitaçaake, Baiona, 1864.
- Etchahun. *Ikus Topet*, P.
- Etcheberri Sarakoa, J., *Eskuaren hatsapenak*, in *Obras vascongadas del doctor laboriano Joannes d'Etcheberri, con una introducción y notas por Julio Urquijo*, Paris, 1907.
- _____, *Gomendiozko gutuna*
- Etcheberri Ziburukoa, J., *Eliçara erabiltceco liburua*, Bordele, 1636. 2. ed.: Bordele, 1665.
- _____, *Manual devotioñezcoa*, Bordele, 1627 (faksimila, Donostia, 1978). 2. ed.: Bordele, 1665.
- _____, *Noelac eta berce canta espiritual berriac*, Donostia, 1970. L. Akesoloren ed. (1. arg. 1630).
- Etchepare, J. B., *Mendekoste gereziak eta beste*, Baiona, 1963 (baita: Donostia, 1991).
- Etchepare, J., *Beribilez*, Baiona, 1931.
- _____, *Buruchkak*, Lekome-Aldude, 1910.
- Etxaide, Y., *Gorrotoa lege*, Zarautz, 1964.
- _____, *Joanak-joan. Piarres Topet Etxahun Barkoxtar koblarian buruz egin eleberria*, Zarautz, 1955.
- Etxaniz, N., *Euskal antzerkiak. Kontu-kontari*, Zarautz, 1958.
- _____, *Lur berri bila*, Donostia, 1967.
- Etxebarria, T., *Ibiltarixanak*, Zarautz, 1967.
- _____, *Lexicón del euskera dialectal de Eibar (Euskera, 1965-66)*.
- Euskal Jokoak Bertsotan I eta II*, Tolosa, 1984, A. Zavalaren ed.
- Fray Bartolome de Santa Teresa, *Euskal-Errijetaco Oigueeta ta Dantzeen neumizco-gatz-ozpinduba*, Iruñea, 1816 (faksimila: Donostia, 1978).
- _____, *Icasiquizunac*, Iruñea, 1819.
- Fuente, J. C. de la, *Durangoako plateroak*, Durango, 1984, A. M. Aldekoa-Otaloraren ed.
- Gandiaga, B., *Elormi*, Oñati, 1962.
- Garro, B., "Obolua", *Bertoldaren maltzurkeri zurak eta Bertoldin'en txaldankeri barregamjak*, Bilbo, 1932.
- Gasteluçar, B., *Egia Catholicec*, Bilbo, 1983, L. Akesoloren ed. (1. arg. Paue, 1686).
- Gaztelu. *Ikus Goikoetxea, J. A.*
- Goikoetxea, J. A., "Gaztelu", *Musika ixilla*, Donostia, 1983.
- Gofiñ, F., *Ama Birgiñaren Agertziak eta gañerako Lurdeş-ko gertaera gogoangamijac*, Tolosa, 1962, A. Zavalaren ed. (1. arg. Durango, 1908).

- Goyhetché, L., *Fableac edo aleguiac Lafontainenetaric berechiz hartuac*, Baiona, 1852 (faksimila: Donostia, 1978).
- Guerrico, J. I., *Cristau doctriña guztiaren explicacioaren sayaquera*, Tolosa, 1858.
- Haramburu, J. de, *Devocino escuarra, miraila eta oracinoteguiá*, Bordele, 1635.
- Haraneder, J., *Gudu izpirituála*, Toulouse, 1750.
- _____, *Iesu Christo gure iaunaran Testament berria*, Baiona, 1855.
- Hiriart-Urruty, J., *Mintzaira. Aurpegia*. Gizon, Donostia, 1971, P. Lafitteren ed.
- _____, *Zezenak Errepublikan*, Donostia, 1972.
- Hiribarren, J. M., *Escaraz eguia*, Baiona, 1858.
- _____, *Eskaldunac. Iberia, Cantabria, Eskal-Herriac, Eskal-Herri bakhotcha eta han darraiconá*, Baiona, 1853 (faksimila: Donostia, 1979).
- Ibiñagabeitia, A., *Bergiliren idazlanak osorik: Unai-Kantak eta Alor-Kantak*, Bilbo, 1966.
- Illarramendi, R., *Artzai Pillipe*, Donostia, 1918.
- _____, *Testimonio falsoa. Jostirudi negargarí eta pozgarria. Egintza bat eta iru kuadroetan moldatua*, Donostia, 1918.
- Inchauspe, E., *Dialogues basques*, L. L. Bonaparteren ed., Londres, 1857.
- Inza, D., *Kristau ikasbidearen azalpena*, Iruñea, 1924.
- Iraizoz, P., *Yesukristo gure Yaunaren bizia lau Ebangelioatatik itzez-itz atera ta*, Iruñea, 1934.
- Iraola, V., *Oroitzak ta beste ipui asko*, Tolosa, 1962.
- Iratzeder, *Ikus* Diharce, J. M.
- Irazusta, J. A., *Bizia garratza da*, Buenos Aires, 1950.
- Irigaray, J. A., *Gauerdiko ele galduak*, Donostia, 1986.
- Irigaray, P. F., *XX-garren mendeko Nafarroako Euskal idazlariak*, Iruñea, 1958.
- Iturriaga, A., *Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa*, Donostia, 1842 (faksimila: Donostia, 1978).
- _____, *Fábulas y otras composiciones en verso vascongado*, Donostia, 1842.
- Iturzaeta, A., *Aita Gaspar Astete-eren icasbide cristinaucorraran azalduera laburrac*, Durango, 1899.
- Izeta, M., *Dirua galgari*, Donostia, 1962.
- Iztueta, J. I., *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia*, Donostia, 1847.
- Jan-Edanaren bertsoak*, (I), Tolosa, 1982. (II) Tolosa, 1985.
- Jauffret, F. A., *Catichima edo fedea laburzki François-Antoine Jauffret Baionaco Jaun Aphezpiguac publicatua*, Baiona, 1902.
- Jauregi, L. "Jautarkol", *Biozkadak*, Iruñea, 1929 (faksimila: Donostia, 1975).

- Jauretche, A., *Meditazioneac urtheco ebangelicoen gainean, egun guzietaco, eta Jesu-Cristo gure Jaunaren, Birjina sainduaren eta Sainduen bestetaco*, Baiona, 1840.
- Jautarkol. *Ikus* Jauregi, L.
- Jesusen Bihotz Sakratuaren alderako deboçioaren Exerçiçio izpiritualac, arrimatuac Bayonaco dioçesan altchatua den Konfardioaren usaiako*, Baiona, 1831.
- Joannateguy, B., *Sainduen Bizitcea. Lehen zatia*, Baiona, 1890.
- Kerexeta, J., *Biblia*.
- Kirikiño. *Ikus* Bustintza, E.
- Kristiñau-Ikasbidea. Gotzai jaunaren ardurapean, Jaungoiko-jakituriaren Irakasle-Batzordeak atondu dau. Bizkaiko euskerez. Iru mallatan, Zornotza*, 1921.
- Krutwig, F., *Igibarziaren iphuinak*, Donostia, 1981.
- La fragérie de Charlemagne, B. Oyharçabalan transkripzioa eta itzulpena*, ASJU, 1988 hh.
- Labayen, A., *Elizanburu. Bere bizitza ta lanak*, Donostia, 1978.
- _____, *Euskal eguna*, Tolosa, 1931.
- Lafitte, P., *Murtuts eta bertze... Artho churizetaco zonbait ichtorio çahar*, Baiona, 1945.
- Lakarra, J. A. et alii, *Euskal Baladak*, Donostia, 1983.
- Laphitz, F., *Bi saindu hescualdunen bizia. San Inazio Loiolaçoarena eta San Franzizco Zaviereçoarena*, Baiona, 1867 (faksimila: Donostia, 1987).
- Lardizabal, F. I., *Testamentu Zameco eta Berrico condaira*, Tolosa, 1855.
- Larramendi, M., *El imposible vencido. Arte de la Lengua Bascongada*, Salamanca, 1729 (faksimila: Donostia, 1979).
- _____, *Panegirico del gran doctor de la Iglesia S. Agustin*, Azpeitia, 1885.
- Larreguy, B., *Testament çahermeço eta berrico historia*, Baiona, 1775 (I), 1777 (II) (faksimila: Donostia, 1978).
- Larzabal, P., *Iru ziren*, in *Piarnes Larzabalen idazlanak III*, Donostia-Baiona, 1992, P. Xarrittonen ed.
- Lasarte, M., *Kantuaren ordaiñez*, Donostia, 1997.
- Lauaxeta. *Ikus* Urquiaga, E.
- Leiçarraga, J., Erreginari egin karta.
- _____, *Jesu Christ gure launaren Testamentu Berna*, La Rochelle, 1571 (faksimila: Donostia, 1979).
- _____, *Othoitza Ecclesiasticoen forma*.

- Lekuona, J. M., *Ahozko euskal literatura*, Donostia, 1982.
- Léon, L., *Jesukristo gure Jaunaren Ebanjelio Saindua*, Uztartitze, 1946.
- Lizardi. *Ikus* Agirre, J. M.
- Lizarraga, J., <<Programa de vida cristiana en una aldea de la zona de Pamplona en el s. XVIII>>, in *FLV* 1975, 96-127, J. Apecechearen ed.
- _____, *Ongui iltzen laguntzeco itzgiaic*, Bilbo, 1984, F. Ondarraren ed. (1807).
- Lujambio, J. M., "Txirrita", *Txirritaren Bertsoak I, II, III*, Tolosa, 1971, 1971, 1976.
- Maister, M., *Jesu-Kristen imitacionia. Çuberouaco uscarala, herri beraurtaco apeç bateç [...] utçulia*, Paue, 1757.
- Materre, E., *Doctrina Christiana*, Bordele, 1617.
- Martin. *Ikus* Treku, M.
- Mendiburu, S., *Mendibururen idazlan argitaragabeak*, Bilbo, 1982, P. Altunaren ed.
- Mercy, A., *Andere Dona Maria, Scapulariocoouaren confrariaco, bulla, decreta, statuac eta maniac edo chediac*, Paue, 1780.
- Mihura, A., *Andredena Mariaren Imitacionea Jesus Christoren Imitacionearen gainean moldatua*, Baiona, 1778.
- Mirande, J., *Haur besoetakoa. Ipuin berri bat*, Donostia, 1970. G. Arestiren ed.
- _____, *Miranderen idazlan hautatuak*, Bilbo, 1976.
- _____, *Orhoituz*, A. Eguzkitzaren ed., Donostia, 1976.
- Mixelena, K., *Euskal Idazlan Guztiak I-IX*, Donostia, 1988.
- _____, *Mixelenaren idazlan Hautatuak*, Bilbo, 1972. P. Altunaren ed.
- Mixelena, S., *Arantzazu. Euskal sinismeneran poema*, Oñati, 1949.
- Mocoroa, V., *Damuba garaiz, edo Bertuterio gabeco aberastasuna inoiz ez da eguizco zoriontasuna*, Tolosa, 1897.
- Moguel, J. A., *Confesio ona*, Gasteiz, 1803.
- _____, *Confesio ta Comunioco sacramentuen gainean eracasteac*, Iruñea, 1800.
- _____, *El doctor Peru Abarca*, Durango, 1881.
- Moguel, J. J., *Baserritaar nequezaleentzaco escolia edo icasbidiac, guraso justu, ta jaquitun familia ondo azi ebeneen exemplu ta eracutsijetan*, Bilbo, 1816.
- Moguel, V., *Ipui onac*, Donostia, 1804.
- Monho, S., *Poèmes basques*, Baiona, 1972.
- Moulier, J., "Oxobi", *Oxobi-ren lan orhoitgari zonbait*, Baiona, 1966.
- Mujica, G., *Pernando Ameketarra. Bere ateraldi ta gertaerak*, Donostia, 1925.

- Munita, I., *Gure mendi ta oianak. Zuaizti berriak antolatatu, ta lengoak zaintzeko zuzenbide batzuek*, Tolosa, 1952.
- Narbaiz, P., "Arradoy", *San Frantses Jatsukoa*, Donostia, 1966.
- Ochoa de Arin, J., *Doctrina Christianaran explicacioa Villa Franca Guipuzcoaco onetan euscaraz itzeguitendan moduan*, Donostia, 1713.
- Oihenart, A., <<Oihenarten gaztaroa neurthitzetan>>, in *Les Proverbes basques*, Paris, 1657 (ASJU, 1955).
- _____, *Les Proverbes basques, recueillis par le S. D'Oihenart, plus les poésies basques du même auteur*, Paris, 1657.
- Olabide, R., *Itun zar eta berria*, Bilbo, 1958.
- Olaizola, M., "Uztapide", *Lengo egunak gogoan*, (I), Tolosa, 1975 (2. ed.), (II) Tolosa, 1974.
- _____, "Uztapide", *Noizbait*, Tolosa, 1964.
- _____, "Uztapide", *Sasoia joan da gero*, Tolosa, 1976.
- Onaindia, S., *Gure bertsolariak*, Bilbo, 1964.
- Ondarra, F., <<Juan Martin de Ibero (1729-1783): Izuko parrokuaren testuak. (I)>>, ASJU XXX-2, Donostia, 1996.
- Orixe. *Ikus Ormaechea, N.*
- Ormaechea, N., "Orixe", *Agustin Gurenaren aitorkizunak*, Zarautz, 1956.
- _____, *Euskaldunak*, Zarautz, 1950.
- _____, *Mireio*, Bilbo, 1930.
- _____, *Orixeraren "Euskaldunak" eta Olerki guztiak*, Donostia, 1972.
- _____, *Quito-n arrebarekin*, Donostia, 1987, I. Seguroaren ed.
- _____, *Santa Cruz apaiza*, Donostia, 1929.
- _____, *Tormes-ko itsu-mutilla*, Bilbo, 1929.
- Oskillaso. *Ikus Basterrechea, J. de*
- Obkolua. *Ikus Garro, B.*
- Oxobi. *Ikus Moulier, J.*
- Pello Errota. *Ikus Elicegui, P.*
- Petriarena, J. F., "Xenpelar", *Xenpelar bertsolaria*, Tolosa, 1969.
- Pouvreau, S., *Iesusen Imitacionea*, Donostia, 1979.
- _____, *Petites oeuvres basques*, Chalon-sur-Saône, 1892 (faksimila: Donostia, 1978).
- _____, *San Frances de Sales Genevaco ipizpicuaren Philotea*, Paris, 1664.
- Refranes y Sentencias comunes en Bascuence, declarados en Romance (1596)*, J. de Urkixoren ed., RIEV, 1911-1933.
- Salaverria, S., *Neronek tirako nizkin*, Tolosa, 1964.

- Sallaberry, J. P. I., *Chants populaires du Pays Basque. Paroles et musique originales recueillies et publiées avec traduction française*, Baiona, 1870 (faksimila, Donostia, 1979).
- San Martin, J., *Zinkadak. Ipuin barregamidun liburua*, Zarautz, 1960.
- Satrustegi, J. M., *Euskal Testu Zaharrak (I)*, Iruñea, 1987.
- Soroa, M., <<Baratzan>>, in *EE*, 1886 (Tolosa, 1962, A. Zavalaren ed.).
- Tartas, J., *Arima penitentaren occupatione devotaq*, Orthez, 1672.
- _____, *Onsa hilceca bidia*, Paris, 1911, M. J. B. Darricarrereren ed. Bilbo, 1987, P. Altunaren ed. (1. arg., Orthez, 1666).
- Textos vascos antiguos. Un catecismo del s. XVII.*
- Topet, P., "Etchahun", *Bertsoak*, in J. Haritschelhar, <<L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchaun>>, *Euskera*, 1969-70.
- Treku, M., "Mattin", *Ahal dena*, Tolosa, 1971.
- Txirrita. *Ikus* Lujambio, J. M.
- Ubillos, J. A., *Cristau doctriñ berri-ecarlea*, Tolosa, 1785 (faksimila: Donostia, 1978).
- Udarregi. *Ikus* Alcaín, J. J.
- Uriarte, J. A., *Dialogues basques (versión vizcaína)*, Londres, 1857, Bonaparte printzearen ed.
- _____, *Marjaren illa edo Maijatzeco illa*, Bilbo, 1850.
- Urquiaga, E., "Lauaxeta", *Bide Barridak*, Bilbo, 1931.
- Urruzuno, P. M., *Ipui sorta*
- Uztapide. *Ikus* Olaizola, M.
- Villasante, L., *Kristau fedearen sustraiak. I. Jainkoa*, Oñati, 1962.
- Viva Jesus*
- Xalbador. *Ikus*, Aire, F.
- Xarlemaña. *Ikus* *La tragédie de Charlemagne*
- Xenpelar. *Ikus*, Petriarena, J. F.
- Zabala, A. M., *Gabon gau bat eta beste ipui asko*, Tolosa, 1962.
- Zaitegi, J., *Platon'eneko atarian*, Donostia, 1961.
- Zalduby. *Ikus* Ádema, G.
- Zerbitzari. *Ikus* Elissalde, J.
- Zubikarai, A., *Itxasterrak*, Gernika, 1985.

A.2.- Aldizkariak, gramatikak, hiztegiak...:

ASJU = *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, Donostia.

Euskadi Irratia, Donostia.

Euzko elez

Herria

Agirre, J. M., *Euskal gramatika deskriptiboa*, Bilbo, 1991.

Alarcos Llorach, E., *Gramática de la Lengua Española*, Real Academia Española, Madrid, 1999.

Altube, S., *Enderismos*, Bermeo, 2. arg., 1975.

Altuna, P., <<Perpauk adbersatiboak>>, in P. Salaburu (ed.) *Euskal morfosintaxia eta fonologia: eztabaida gaiak*, EHU, 1987.

Arejita, A., *Euskal Joskera*, Labayru ikastegia, Bilbo, 1985.

Azkue, R. M., *Morfología vasca (gramática básica dialectal del euskera) I-III*, Bilbo, 1923-25.

Bosque, I., Demonte, V. (zuzendariak), *Gramática Descriptiva de la Lengua Española (GDLE)*, Real Academia Española, Madrid, 1999.

Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa (EEBS)

Euskaltzaindia, Orotaniko Euskal Hiztegia (OEH), 1987.

_____, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak (EGLU) I, II, III, IV eta V*, 1984, 1987, 1990, 1994 eta 1999.

_____, *Orotaniko Euskal Hiztegia: testu corpusa*.

Euskaltzaindiaren Arauak, Bilbo, 1994tik aurrera.

Fernández Lagunilla, M., <<Las construcciones de gerundio>>, in I. Bosque & V. Demonte, *Gramática Descriptiva de la Lengua Española*, Espasa, Madrid, 1999.

Flamenco, L., <<Las construcciones concesivas y adversativas>>, in I. Bosque & V. Demonte, *Gramática Descriptiva de la Lengua Española*, Espasa, Madrid, 1999.

Galán, C., <<La subordinación causal y final>>, in I. Bosque & V. Demonte, *Gramática Descriptiva de la Lengua Española*, Espasa, Madrid, 1999.

Garate, G., *Erdarakadak. Euskaraz ongi mintzatzeko hiztegia. Zazpi probintzietako adibideak*, Bilbo, 1988.

García Fernández L., <<Los complementos adverbiales temporales. La subordinación temporal>>, in I. Bosque & V. Demonte, *Gramática Descriptiva de la Lengua Española*, Espasa, Madrid, 1999.

Garzia, J., *Joskera lantegi*, Gasteiz, 1997.

Goenaga, P., *Gramatika Bideetan*, Donostia, 1980.

Lafitte, P., *Grammaire basque: navarro-labourdin littéraire*, Donostia, 1979.

Moliner, M^a, *Diccionario de uso del español*, Gredos, Madril, 1992.

Ortiz de Urbina, J., <<Ezezko perpausetako fokoak (galdegaiak eta ukagaiak)>>, in *Gramatika Gaiak*, Iker 14, Euskaltzaindia, Bilbo, 2003, 343-356.

Oyharçabal, B., *Etude descriptive de constructions complexes en basque: propositions relatives, temporelles, conditionnelles et concessives*, Doktore tesi argitaragabea, CNRS, Paris, 1987.

Real Academia de la Lengua Española, *Esbozo de una nueva gramática de la lengua española*, Madrid, 1982.

Rijk, R. P. G. de, <<Focus and Quasifocus in Basque Negative Statements>>, in *De Lingua Vasconum: Selected Writings*, UPV-EHU, Bilbo, 1998, 421-433.

Villasante, L., *La oración causal en vasco*, Edit. Franciscana Aranzazu, Oñati, 1986.

_____, *Sintaxis de la oración compuesta*, Oñati, 1979 (2. arg.).

B.- BIBLIOGRAFIA ERA LABURTUAN

B.1.- Literatura lanak:

Agirre, T., *Uztaro*

Agirre Asteasukoa, *Eracusaldia I, II, III*

Aguirre, D., *Auñemendiko lorea*

_____, *Garoa*

_____, *Kresaia*

Akesolo, L., *Ipiña ta ipiñatarren barri*

Akizeko katixima

Alphonsa Rodríguez

Altuna, J., *Ipiñak*

Alzaga, T., *Bumuntziya*

_____, *Ramuntxo*

Alzola, N., *Atalak*

Amuriza, X., *Emea*

Anabitarte, A., *Aprika-ko basamortuan*

_____, *Poli*

Andredena Mariaren ilhabetea

Anduaga, G., *Aitonaren uzta*

- Añibarro, P. A., *Escu-liburua (1 eta 2)*
 _____, *Gueroa Guero*
 _____, *Lora sorta espirituala*
 _____, *Misionari Euskalduna*
- Apaolaza, A., *Patxiko Txerren*
- Arambillaga, *Jesu Christoren imitacionea*
- Arana, J. I., *San Ignacioren bicitza*
- Arbelbide, J. P., *Erlisionea*
 _____, *Igandea edo Jaunaren eguna*
- Aresti, G., *Ipuinak*
 _____, *Maldan beheara*
- Argaignarats, P., *Devoten Breviariora*
Argi Done Laburra
- Arotçarena
- Arradoy, *San Frantses Jatsukoa*
- Arratibel, J., *Kontu zaharrak*
- Arrese Beitia, F., *Ama euskeriaren liburu kantaria*
- Arrese, E., *Olerki berizte*
- Arrue, G., *Mayetceco illa*
 _____, *Santa Genoveva*
- Arrue, J., *Arantzazu. Aitona baten berso berriak*
- Astarloa, P., *Berbaldiak*
- Astolasterrak
- Atxaga, B., *Obabakoak*
- Atxaga, M., *Gaztebo*
- Axular, P., *Guero*
- Azkue, E. M., *Pamasoreko bidea*
- Azkue, J. M., *Asis'tarr Prantzisko Donearen bizitza*
- Azkue, R. M., *Ardi Galdua*
 _____, *Batxi Guzur*
 _____, *Bein da betiko*
 _____, *Diccionario Vasco-Español-Francés*
 _____, *Euskalerraren Yakintza I, II, III, IV*
- Barandiaran, J. M., *Euskalemiko Leen-Gizona*
 _____, *Obras completas II: Zarautz*
- Baratciart, A., *Guinistinoqui bicitzeo eta hiltceco moldea*

- Barbier, J., *Légendes*
_____, *Supazter chokoan*
- Barriola, A., *Goi-Argi*
- Basarri, *Kantari nator*
- Belapeyre, A., *Catechima laburra*
- Beovide, C., *Asis-co Loria*
- Berrondo, P., *Don Kijote Mantxako*
- Bilbao, F., *Ipuin barreka*
- Bilintx, *Bertso ta lan guztiak*
- Bordel, *Bordel bertsularia*
- Cardaberaz, A., *Egercicioac*
_____, *Eusqueraren Berni Onac*
_____, *Justuen Ispillu arguia*
- Casenave, J., *Senta Grazi*
- Cerquand, J. F., *Iparaldeko Legendak*
- Chourio, M. de, *Imitacionea*
Cristau Doctríne (Uitzarna)
Cristinau Doctrínea (Busturia)
- Dassança, M., *Laborarien abisua*
- Davant, J. L., *Ipararen bila*
- Dechepare, B., *Linguae Vasconum Primitiae*
- Duhalde, M., *Meditacioneac*
- Duvoisin, J., *Bible Seindue*
_____, *Dialogues basques*
_____, *Laborantzako liburua*
_____, *Liburu Edera*
- Echagaray, J. V., *Festara*
- Echeita, J. M., *Josecho*
- Eguzkilza, J., *Gizarte-Auzia*
- Elissamburu, J. B., *Piarres Adame*
- Elissamburu, M., *Framazonak*
Elizen arteko Biblia
- Enbeita, B., *Nere apurra*
- Enbeita, K., *Bertsoak*

- Erkiaga, E., *Arranegi*
_____, *Batetik bestera*
_____, *Iribarrea galtzen denean*
_____, *Txurio txonia*
- Escualdun *cocinera*
- Etchahun, *Bertsoak*
- Etcheberri, J. (Sarakoa), *Eskuararen hatsapenak*
_____, *Gomendiozko gutuna*
- Etcheberri, J. (Ziburukoa), *Eliqara erabiltzeaco liburua*
_____, *Manual devotioenezcoa*
_____, *Noelac*
- Etchepare, J. B., *Mendekoste gereziak*
- Etchepare, J., *Benbilez*
_____, *Buruchkak*
- Elxaide, Y., *Gorotoa lege*
_____, *Joanak-joan*
- Elxaniz, N., *Euskal antzerkiak*
_____, *Lur berri bila*
- Etxebarria, T., *Ibiltarixanak*
_____, *Lexicón de Eibar*
- Euskal Jokoak Bertsotan I, II*
- Fray Bartolome, *Icasiquizunac*
_____, *Olquaetac*
- Fuente, J. C. de la, *Durangoko plateroak*
- Gandiaga, B., *Elorri*
- Gasteluçar, B., *Eguia Catholicac*
- Gaztelu, *Musika ixilla*
- Gofiñ, F., *Lurdes-ko gertaerak*
- Goyhetché, L., *Fableac*
- Guerrico, J. I., *Sayaquera*
- Haramburu, J. de, *Devocino escuarra*
- Haraneder, J., *Gudu izpirituala*
_____, *Testament berria*
- Hiriart-Urruty, J., *Mintzaira. Aurpegia. Gizon*
_____, J., *Zezenak Errepublikan*

- Hiribarren, J. M., *Escaraz eguia*
_____, *Eskaldunac*
- Ibifragabeitia, A., *Bergiliren Idazlanak osorik*
- Illarramendi, R., *Artzai Pillipe*
_____, *Testimonio falsoa*
- Inchauspe, E., *Dialogues basques*
- Inza, D., *Kristau ikasbidearen azalpena*
- Iraizoz, P., *Yesukristoren bizia*
- Iraola, V., *Oroitzak*
- Iratzeder, *Bizieren olerkia*
- Irazusta, J. A., *Bizia garratza da*
- Irigaray, J. A., *Gauerdiko ele galduak*
- Irigaray, P. F., *Nafarroako Euskal idazleriek*
- Iturriaga, A., *Diálogos*
_____, *Fábulas*
- Iturzaeta, A., *Azalduera laburrac*
- Izeta, M., *Dirua galgari*
- Iztueta, J. I., *Guipuzcoaren condaira*
Jan-Edanaren bertsoak
- Jauffret, F. A., *Catichima*
- Jaureche, A., *Meditazionaec*
- Jautarkol, *Biozkadak*
Jesusen Bihotza
- Joannateguy, B., *Sainduen Bizitcea*
- Kerexeta, J., *Biblia*
- Kirikiño, *Abarrak*
_____, *Bigarrango Abarrak*
- Kristiñau ikasbidea Bizkaiko euskeraz*
- Krutwig, F., *Igibarziaren iphuinak*
- Labayen, A., *Elizanburu*
_____, *Euskal eguna*
- Lafitte, P., *Murtuts eta bertze*
- Lakarra, J. A. et alii, *Euskal Baladak*
- Laphitz, F., *Bi saindu hescualdunen bizia*
- Lardizabal, F. I., *Testamantu Zarr. Berr. condaira*

- Larramendi, M., *Arte*
 _____, *San Agustín*
- Larreguy, B., *Testament çaharr. berr. historia*
- Larzabal, P., *Iru ziren*
- Lasarte, M., *Kantuaren ordaiñez*
- Lauaxeta, *Bide Barrijak*
- Leizarraga, J., *Erreginari egin karta*
 _____, *Othoitzza Ecclesiasticoen forma*
 _____, *Testamentu berria*
- Lekuona, J. M., *Ahozko euskal literatura*
- Léon, L., *Ebanjelio Saindua*
- Lizardi, *Itz lauz*
- Lizarraga, J., *Itzgaia*
 _____, *Programa de vida cristiana*
- Maister, M., *Jesu-Kristen imitacionia*
- Materre, E., *Doctrina Christiana*
- Mattin, *Ahal dena*
- Mendiburu, S., *Mendibururen idazlan argitaragabeak*
- Mercy, A., *Andere Dona Maria*
- Mihura, A., *Andredena Mariaren imitacionea*
- Mirande, J., *Haur besoetakoa*
 _____, *Miranderen idazlan hautatuak*
 _____, *Orhoituz*
- Mitxelena, K., *Euskal Idazlan Guztiak I-IX*
 _____, *Mitxelenaeren Idazlan Hautatuak*
- Mitxelena, S., *Arantzazu*
- Mocoroa, V., *Damube garaiz*
- Moguel, J. A., *Confesiño ona*
 _____, *Eracasteac*
 _____, *Peru Abarca*
- Moguel, J. J., *Basemitaar nequezaleentzaco escolia*
- Moguel, V., *Ipui onac*
- Monho, S., *Poèmes basques*
- Mujica, G., *Pemando Amazketarra*
- Munita, I., *Gure mendi ta oianak*
- Ochoa de Arin, J., *Doctrina Christianaren explicacioa*

- Oihenart, A., *Les Proverbes Basques*
_____, *Poesiak = Oihenarten gaztaroa neurthizetan*
- Olabide, R., *Itur zar eta berria*
- Onaindia, S., *Gure bertsolariak*
- Ondarra, F., *Izuko parrokuaren testuak*
- Orixe, *Aitorkizunak*
_____, *Euskaldunak*
_____, *Mireio*
_____, *Olerkiak*
_____, *Quito-n arrebarekin*
_____, *Santa Cruz apaiza*
_____, *Tornes-ko itsu-mutilla*
- Oskillaso, *Kurtoiak*
- Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*
- Oxobi, *Oxobi-ren lan orhoitgarri zombait*
- Pello Errota, *Pello Errotak jarritako bertsoak*
- Pouvreau, S., *Iesusen Imitacionea*
_____, *Petites oeuvres basques*
_____, *Philotea*
- Refranes y Sentencias*
- Salaverria, S., *Neronek tirako nizkin*
- Sallaberry, J. P. J., *Chants populaires du Pays Basque*
- San Martín, J., *Zinkadak*
- Satrustegi, J. M., *Euskal Testu Zaharrak*
- Soroa, M., *Baratzan*
- Tartas, J., *Occupatione devotaq*
_____, *Onsa hilceco bidia*
- Textos Vascos Antiguos. Un catecismo del s. XVII*
- Txirrita, *Txirritaren Bertsoak I, II, III*
- Ubillos, J. A., *Cristau doctriñ berri-ecartea*
- Udarregi, *Udarregi bertsolaria*
- Uriarte, J. A., *Diálogos vascos*
_____, *Marjaren illa*
- Urruzuno, *Ipui sorte*

Uztapide, *Lengo egunak gogoan*

_____, *Noizbait*

_____, *Sasoia joan da gero*

Villasante, L., *Kristau fedearen sustraiak*

Viva Jesus

Xalbador, *Ezin bertzean*

_____, *Odolaren mintzoa*

Xartemaña

Xenpelar, *Xenpelar bertsolaria*

Zabala, A. M., *Gabon gau bat*

Zaitegi, J., *Platon'eneko atarian*

Zalduby, *Obrak*

Zerbitzari, *Azkaine*

_____, *Ichtorio Saindua*

Zubikarai, A., *Ixastarrak*

B.2.- Aldizkariak, gramatikak, hiztegiak...:

ASJU

Euzko Elez

Euskadi Irratia

Herria

Agirre, J. M., *Euskal gramatika deskriptiboa*.

Alarcos, E., *Gramática de la lengua española*

Altube, S., *Erdenismos*

Altuna, P. <<Perpaus adbersatiboak>>

Arauak

Arejita, A., *Euskal Joskera*

Azkue, R. M^o, *Morfología vasca*

Bosque, I. & Demonte, V., *Gramática descriptiva de la lengua española (GDLE)*

EEBS

Euskaltzaindia, Orotaniko Euskal Hiztegia (OEH)

_____, *Orotaniko Euskal Hiztegia: testu corpusa*

_____, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I, II, III, IV eta V (EGLU)*

- Fernández, M., <<Las construcciones de gerundio>>
- Flamenco, L., <<Las construcciones concesivas y adversativas>>
- Galán, C., <<La subordinación causal y final>>
- Garate, G., *Erdarakadak*.
- García, L., <<Los complementos adverbiales temporales. La subordinación temporal>>
- Garzia, J., *Joskera Lantegi*.
- Goenaga, P., *Gramatika Bideetan*.
- Lefitte, P., *Grammaire Basque*.
- Moliner, M., *Diccionario de uso del español*.
- Ortiz de Urbina, J., <<Ezezko perpausetako fokoak (galdegaiak eta ukagaiak)>>
- Oyharçabal, B., *Etude descriptive de constructions complexes en basque: propositions relatives, temporelles, conditionnelles et concessives*.
- Real Academia de la Lengua Española, *Esbozo de una nueva gramática de la lengua española*.
- Rijk, R. P. G., <<Focus and Quasifocus in Basque Negative Statements>>
- Villasante, L., *La oración causal en vasco*.
- _____, *Sintaxis de la oración compuesta*.

GAI AURKIBIDEA

- (BALDIN) BA... ERE, 261
 aditz motak kontzesio perpausetan, 240-242
 aditz nagusiaren osagarria, 137
 aditz partizipioa banakaritza-egituretan, 266
 aditzaren elipsia kontzesio perpausetan, 239-240
 aditzaren elipsia NAHIZ-ekiko kontzesiozkoetan, 247
 adizki alokullboak BAINA enklitikoaren duten kontzesio perpausetan, 257
 adizki trinkoak eta amoreagatik partikula, 153
 AHAL eta KE morfemak, biak batera, 48
 AHAL morfema, 48
 aldi desberdintasuna, 98-102
 ___ aurrekotatasuna, 99-101
 ___ ondokotasuna, 101-102
 aldiberekoen errepikatua, 88-90, 92
 ___ -eN BAKOITZEAN, -eN GUZTJETAN, -eN ALDIKAL, 89-90
 ___ -eNETAN plurala, 89
 ___ 'Zenbat aldiz -eN ... hainbat aldiz', 90
 aldiberekoen esatua, 90-98, 102
 ___ -eN BER, 97-98
 ___ -eN BEZAIN LASTER / SARRI / AGUDO / FITE..., 95-97
 ___ -eN ORDUKO, 94-95
 ___ -eNAZ BATERA, 98
 ___ -eNEKO, 91-94
 aldiberekoen orokorra
 ___ -eLA eta -eLARIK, 82-85
 ___ -eNEAN, 77-82
 ___ NOIZ ETA ... BAIT-/eN korrelaziozko perpausak, 85-88
 aldiberekoen esatua, 71, 77-98, 104
 ___ adierazpen orokorrak, 77-98
 alegialdiko baldintza perpausak *Sin.*
 ___ baldintza perpaus irrealak, 33
 alegiazko azalpena, 163, 172, 183
 AMOREAGATIK, 152
 antz
 ___ antzera, 296
 apodisia *Sin.* ondore perpausa, 11
 arau
 ___ arau, arabera, araberan, 297
 ARREN + ERE, 243
 ARREN helburu balioa duena, 252
 ARREN postposizioa duten kontzesio perpausak, 250-252
 aurkaritza, 116
 aurkaritzako lokailuak kontzesio perpausetan, 219, 238, 244
 aurrekotasuna, 71, 99
 ___ -eN AURREAN, -eN AITZINEAN, 100-101
 ___ -eN BAINO LEHEN, 99-100
 azalpena, 82, 84, 164, 167
 azalpenezko kausala, 161
 azentua BAINA enklitikoaren duten kontzesio perpausetan, 254
 BA-, 11, 12, 14, 21-22, 24, 33, 40, 47, 61, 63
 BA-... ERE, 228
 BA- baliozkoa eta adizkera alokutiboa, 22
 BA- baldintzazkoa eta adizkera neutroa, 22
 BA- menderagailua eta -KE morfema, 40
 BA-perpausa, baina, bezain eta bezala konparagailuen osagarri, 13
 BA-perpaus osagarriak, 12-13
 BA-aurritzia eta BA- baliozkoa, 22
 bai-ez erako galde-perpausa, 207
 baitizan esapidea, 13
 baituen esapidea, 13
 BAINA, 202
 BAINA aurkaritzako juntagailua, 202
 BAINA enklitikoaren, 228, 253
 BAINA kontzesio menderagailua, 220
 BAIT-, 72, 86, 164, 167, 168, 180-183, 185, 195, 203
 BAIT- eta ZEREN, NOLA, 200
 BAIT- kausazkoa, 180-185
 ___ galde-erantzunetan, 184-185
 ___ kausa azalpenazkoa, 181
 ___ kokagunea, 182-183
 ___ perpaus menderatuak, 180-181
 ___ perpaus nagusiaren ondoren, 182
 BAIT- kontzesio balioa duena, 226, 272
 BAIT- perpausak, 81
 BAIT-ekin markaturiko konparazio perpausak, 299
 bal(d)inetan, 22
 BALDIN baldintzazko lokailua, 11
 BALDIN kontzesio perpausetan, 262
 BALDIN lokailu indargarria, 22-23
 ___ kokalekua, 22-23
 baldin-eta, 22
 baldinetaria(k), 22
 baldinetarian, 22
 baldintza, 81, 82, 84

- ___ baldintza bereziak, salbuespena adierazten dutenak, 16
- ___ baldintza eta denborazko aldibereketasuna, 16-17
- ___ baldintza eta denborazko perpausak edo juntagailuaz juntatunak, 17
- ___ baldintza eta kausa, 15-16
 - ___ kausa askikoa, 15
 - ___ kausa ezinbestekoa, 15
- ___ baldintza itxurako perpausak, 145
- ___ baldintza kontrafaktualak, 18
- ___ baldintza perpaus erreala, 50-62
 - ___ ahalezko adizkerakoak (etor badaiteketa/baziteketeen, ekar badezake/bazezakeen), 59-60
 - ___ iraganaldikoak, aspektu burutugabeak (ibiltzen bazen, ekartzen bazuen), 56-57
 - ___ iraganaldikoak, aspektu burutukoak (ibili bazen, ekari bazuen), 52-54
 - ___ iraganaldikoak, iraganaldiko adizkera trinkoa dutenak ((baldin) bazetorren, baldin bazekarren), 58-59
 - ___ NON (ETA) EZ ... -en perpausak, 61-62
 - ___ orainaldikoak, aspektu burutugabeak (ibiltzen bada, ekartzen bada), 54-56
 - ___ orainaldikoak, aspektu burutukoak (ekari bada, ibili bada), 51-52
 - ___ orainaldikoak, orainaldiko adizkera trinkoa dutenak ((baldin) badakar, (baldin) badakar), 57-58
 - ___ orainaldikoak, aspektu markarik gabekoak (etor bada, ekar badezat), 60
 - ___ orainaldikoak, BER enklitikoa dutenak, 60-61
 - ___ saikapena, 50
- ___ baldintza perpaus irrealak, 33-50
 - ___ [+burutua] ez direnak, 30
 - ___ [+burutua], 30
 - ___ aspektu burutua aditz laguntzailearen partizipio burutuak indartua (etorri izan banintz, ekari izan banu), 35-36
 - ___ aspektu burutua dutenak (etorri balitz, ekari balu), 33-38
 - ___ aspektu burutua duten iraganaldiko kontrafaktualak (jaio ez baginen), 38
 - ___ aspektu burutua ez dutenak, 38-50
 - ___ aspektu oposizioak, 29
 - ___ saikapena, 30
- ___ baldintza perpaus irrealak, aspektua burutua dutenak, 33-38
 - ___ ahalezko adizkera iraganaldian ondore perpausan (etorri balitz, ikus zezaketen), 36
 - ___ aspektu burutua aditz laguntzailearen partizipio burutuak indartua (etorri izan banintz, ekari izan banu), 35-36
 - ___ aspektu burutuko iraganaldiko kontrafaktualak (jaio ez baginen), 38
 - ___ baldintza eta ondore perpausen arteko aspektu edota tempus komunztadura, 38-37
 - ___ -KE modu morfema iraganaldian (etorri(ko) zatekeen, ikusi(ko) zukeen), 34-35
- ___ baldintza perpaus irrealak, aspektua burutua ez dutenak, 38-50
 - ___ alegialdiko adizkera trinkoa (balego, baleki), 39-41
 - ___ alegialdiko ahalezko adizkera (ikus balezake, ikus ahal baleza), 47-48
 - ___ aspektu markarik gabeko adizkera (etor baladi, ikus baleza), 45-47
 - ___ [+burutua] aspektua ez duten alegialdiko adizkerak (etorriko/etortzen balit, ekarriko/ekartzen banu), 41-45
 - ___ aspektu markarik gabeko adizkera (etor baladi, ikus baleza), 45-47
- ___ baldintza perpaus. ez galdera perpaus, 24
- ___ baldintza perpausa Sin. protasia, 11
- ___ baldintza perpausa eta bakarrik, 16
- ___ baldintza perpausak, 11-69
 - ___ aditz nagusiaren tokia ezezko perpausetan, 27
 - ___ adizkera alokutiboak, 21
 - ___ alegialdikoak (irrealak), 28
 - ___ aspektu burutugabeak, 33
 - ___ aspektu burutuko adizkerak, 33
 - ___ aspektu buruturik gabekoak (adizkera trinkoa), 33
 - ___ aspektu buruturik gabeko adizkerak, 33
 - ___ aspektu gerokoak, 33
 - ___ aspektu markarik gabekoak, 33
 - ___ bameko osagaien ordena libre, 26
 - ___ ez-alegialdikoak (errealak), 28
 - ___ ez-kontrafaktualak, 56
 - ___ faktualitate, 28
 - ___ hipotesi kontrafaktualak edo gertagailzak, 30
 - ___ konparazio hitzen osagarri, 13
 - ___ saikapen nagusia, 26
 - ___ saikapena erabilerean arabera, 67
 - ___ saikapena, aldiaren eta aspektuaren arabera, 69
 - ___ tempus komunztadura, 31
 - ___ tempus oposizioa (orainaldia vs iraganaldia), 31
 - ___ tempusa, 31
- ___ baldintza perpausak zer diren, 15-21
- ___ baldintza eta denborazko aldibereketasuna, 16-17
- ___ baldintza eta hipotesia, 17-18
- ___ baldintza eta kausa, 15-16

- ___ solas jokoak eta inferentzia bidezko erabilerak, 18-21
- baldintza perpausak, alegialdia ez dakartenak *Sin.* baldintza perpaus errealak, 50
- baldintza perpausak, denak ez *BA*-perpaus, 14
- baldintza perpausen ezterketa, 32-62
- baldintza perpausen ingurukoak, 21-27
- ___ *BA*- aurizki menderatzailea, 21-22
- ___ *BALDIN* lokailu indargarria, 22-23
- ___ bameko osagai ordena, 28-27
- ___ nolakotasuna, 23-24
- ___ perpaus mintzagai gisa, 24-25
- baldintza perpausen sailkapen nagusia, 27-32
- ___ baldintza irrealak eta baldintza errealak, 27-28
- ___ aspektu oposizioak baldintza irrealetan, 29-30
- ___ alegialdiko komuntzadura, 30-32
- baldintza, askikoa eta ezinbestekoa aldi berean, 16
- baldintza, *BA*- aurizkink gabe, 14
- baldintza, *kausa* modal gisa, 15
- baldintzadun perpausa *Sin.* baldintza perpausa + (baldintzapeko) ondore perpausa, 11
- baldintzadun perpausak
- ___ mendeko perpaus, 25-26
- ___ sailkapena erabileren arabera, 67
- baldintzapeko ondore perpausa *Sin.* ondore perpausa, 11
- baldintzaren nozioa
- ___ aldibereketasuna, 15
- ___ hipotesia, 15
- ___ *kausa* edo *kausa-ondorio* erlazioa, 15
- balin*, 22, 23
- banakaritza-egiturak, 265-267
- BA*-perpaus adjuntuak, balio semantiko berezia dutenak, 13-14
- BA*-perpaus osagariak, 12
- BA*-perpausak, 12, 13, 14, 19, 22
- BA*-perpausak, baldintza perpaus ez direnak, 12
- BA*-perpausak, *bezala* eta *BAIT*-, 13
- bardin, 22
- barin, 22
- berriazko ondorioa, 139
- BERAZ*, 169
- berehala, 91
- BEZALA*, 197
- bigarren mailako osagarria, 137
- borondatea, 138, 139, 142, 156
- borondatezko eragilea, 138
- dagoeneko, 93
- DATORRENA DATORRELA* gisako kontzesio perpausak, 267-269
- DATORRENA DATORRELA* gisakoak, 229
- DELA*, 207
- DELA* ... *DELA*, 266
- DELA* (*BIDE*, *KAUSA*, *MEDIO*), 207
- DELAKO*, 171
- DELAKOAN*, 171
- DENA DELA* lokailua eta *DATORRENA DATORRELA* gisako kontzesio perpausak, 268
- denboraren erreferentzia esaldi nagusian duten perpausak
- ___ *NOIZ ETA (ERE) / NOIZ ERE* ... *BAIT*-, 120-122
- denborazko perpausak, 71-135
- ___ aldi desberdintasuna, 98-102
- ___ aldibereketasuna, 77-98
- ___ bameko ordena, 75-76
- ___ denboraren erreferentzia esaldi nagusian dutenak, 120-122
- ___ funtzioa, 71-72
- ___ pertakariak kronologian kokatzen dituztenak, 122-126
- ___ iraupena, 102-120
- ___ menderatzaileak, 72-75
- ___ sailkapena, 76
- DUELA*, 76, 124
- DUELA / ORAIN DELA*, 124
- EDOZER* + *-ELA / -EN (ERE)*, 269
- E/NO*, 114
- ELA*, 76, 77, 216, 257, 289, 293, 294
- ELA* ... *-ELA*, 229
- ELA / -ELARIK*, 72
- ELA ERE*, 227, 257
- ELA ETA*, 204-205
- ELA* eta *-ELARIK*
- ___ denborazkoetan, 289
- ___ gomendagarriak ez diren moldeak, 289
- ___ *kausazkoetan*, 289
- ___ *kontzesiozkoetan*, 289
- ___ *moduzkoetan*, 289-295
- ___ *perpausak tradizioan*, 289
- ELA* eta *-ELARIK* atzizkien erabilerak, 289
- ELA* eta *-ELARIK* morfemen balioak eta *trukagarritasuna*, 293-295
- ELA* eta *-ELARIK* perpausen kokapena
- ___ *perpaus nagusiaren eskuinaldean (gehienetan)*, 293
- ___ *perpaus nagusiaren galdegai (aditzaren ezker aldean)*, 293
- ELA* kontzesio balioa duena, 230, 274
- ELA(RIK)* menderagailua duten kontzesio perpausak, 274
- ELA(RIK)*-en balio aniztasuna, 259
- ELA/-ELARIK*, 291
- ELAKO*, 164-170, 172-178, 180-181, 186-187, 207
- ELAKO* + *ezeztapena* kontzesio balioa duena, 230

- eLAKO + ezeztapena kontzesio balioan, 274
- eLAKO eta -eLAKOAN, 171
- eLAKO USTEAN, 171
- eLAKO(T)Z, 170-180
- ___ beti galdegai?, 171-180
- ___ -eLAKO + ezeztapena, perpaus kontzesioa, 180
- eLAKO(Z), 184
- eLAKOAN, 205
- eLARIK, 76-77, 257, 289, 291, 293, 295
- eLARIK + ARREN, 243
- eLARIK ARREN, 227, 250
- eLARIK ERE, 228, 257
- eLARIK kontzesio balioa duena, 230, 257
- eLARIK kontzesio balioan, 274
- eN, 72, 86, 185, 194, 208
- eN AITZINEAN, 76, 99, 101
- eN ALDIKAL, 76, 88-90
- eN ALDIRO, 90
- eN ARREN, 227, 250
- eN ARTE, 73, 76, 109-111, 118, 120
- eN ARTE GUZTIAN, 117
- eN ARTEAN, 74, 76, 117, 119
- eN ARTEINO, 110-111
- eN ARTEKO, 76, 118
- eN ARTERAINO, 110-111
- eN ARTERAINOKOAN, 111
- eN ARTIO (ARTEO), 110
- eN AURREAN, 76, 100
- eN AURREAN / AURRETIK, 99
- eN BAINO LEHEN, 73, 75, 76, 99
- eN BAINO LEHEN(AGO), 99, 101
- eN BAINO LEHENAGO, 100
- eN BAKOITZEAN, 74-77, 80, 84, 88, 89
- eN BER, 73, 76, 91, 97
- eN BEZAIN AGUDO, 95, 97
- eN BEZAIN FITE, 95, 97
- eN BEZAIN LASTER, 73, 75, 76, 91, 95, 97, 101
- eN BEZAIN SARRI, 95, 97
- eN BITARTEAN, 73, 74, 76, 79-80, 112, 114, 116, 118, 119
- eN BITARTEO (BITARTIO), 116
- eN BIZKITARTEAN, 116
- eN EZKERO, 189
- eN GUZTIETAN, 75-76, 88-89
- eN LEGEZ, 197-198
- eN ONDOAN, 76, 101
- eN ONDOREN / ONDOREAN, 102
- eN ORDUKO, 73, 74, 76, 77, 91, 94, 101
- eN OSTEAN, 76, 102
- eNAGATIK, 228, 252
- eNAZ BATERA, 76, 91, 98
- eNAZ GERO, 107
- eNAZ GEROZ, 73, 107
- eNAZ GEROZTIK, 107, 190
- eNEAN, 73, 74, 76-80, 89, 104, 110, 116
- eNEKO, 73, 76, 91, 93-94, 101
- eNEKO(T)XE, 93
- eNEKOTZ(AT), 93
- eNERAKO, 93
- eNETAN, 76, 88
- eNETAN plurala, 89
- eNETIK, 73, 76, 103-105, 125
- eNETIK x-garren egunerako, 125
- eNETIK ... arte, 125
- eNETIK ... hona, 125
- eNETIK aurrera, 125
- eNETIK laster / sarri, 125
- eNETIK x egunen buruan, 125
- eNETIK x-garren egunean, 125
- eNEZ, 192-194
- eNEZ GERO, 76, 103, 106-107, 109, 167, 188-189, 191-193
- eNEZ GERO / -eNAZ GERO(Z), 189
- eNEZ GERO(ZTIK), 189-192
- ___ -eNEZ GERO perpausaren ezaugarri sintaktiko-semanticak, 191-192
- ___ -eNEZ GEROZTIK, 190-191
- ___ kausazko ala denborazko?, 190
- ___ partizipioa + -eZ GERO(Z)TIK, 191
- eNEZ GEROZ, 107
- eNEZ GEROZTIK, 107, 191
- eNIK, 103
- eNIK... -rA, 76
- eNO, 76, 112, 114, 119
- era
- ...eran, erara, 297
- eragilea, 139
- eragilearen borondatea, 139
- erakusleak eta -eLAKO, 176
- ERE lokailua aurkarilizako lokailuetan, 237-238
- ERE lokailua kontzesio perpauselan, 235-237
- erreferentzia, 147-148
- ETA, 198-200, 203
- ETA enklitikoa, 164, 192, 198-203
- ___ azalpenetan, 198-199
- ___ BAIT-en eta ETA enklitikoaren arteko antzekotasunak eta aldeak, 199-200
- ___ junladura ala menderakuntza?, 200-203
- ___ kokagunea, 203
- ___ ZERGATIK? galderaren erantzun gisa, 199
- ETA espletiboa kontzesio perpauselan, 245
- ETA juntagailu emendiozkoa, 201
- ETA kontzesio balioan, 273
- EZ ... BAIKIK ..., 186
- EZ DELAKOAN ERE kontzesio esapidea, 272
- EZEN, 208-209
- EZEN ... (BAIT- / -eN), 208-209
- EZEN + BAIT-, 209
- EZEN + Ø, 209
- EZEN NON EZ -eN, 62
- GALDETZAILEA + ERE + BAIT-, 263
- GATIK kausa-helburuzkoa, 253

- GATIK postposizioa duten konzesio perpausak, 252-253
- gertakariak kronologian kokalzen dituzten denborazko perpausak, 122-128
 - ___ DUELA / ORAIN DELA + [zenbatzailea - denbora izena], 123-124
 - ___ -eNETIK + [zenbatzailea - denbora izena] POSTPOSIZIOA, 125-128
- gisa
 - ___ gisan, gisara, 297
- halatan, 196
- hanpadura, 176
- hargatik, 176
- hank eta, 110, 117
- helburuzko perpaus jokatuak, 148-154
 - ___ AMOREAGATIK, 152-154
 - ___ -eN GATIK, 152
 - ___ -eN subjuntiboaren marka, 149-150
 - ___ -eNTZAT, 150-151
 - ___ NAHIZ eta ARREN, 151
- helburuzko perpaus jokatuak eta jokatugabeak, 146-154
 - ___ jokatuak, 148-154
 - ___ jokatuak eta jokatugabeak, 146-148
- helburuzko perpausak, 137-158
 - ___ bereizgarriak (ondorioa eta asmoa), 137-141
 - ___ ezaugarri semantikoak, 156
 - ___ jokatuak eta jokatugabeak, 146-148
 - ___ nabardurak, 141-146
 - ___ tokia, 144-146
- helburuzko perpausak eta subjuntiboa, 148-149
- helburuzko perpausen bereizgarriak
 - ___ helburuzkoak eta ondoriozkoak, 139-140
 - ___ helburuzkoak, kausalak eta ondoriozkoak, 140-141
 - ___ kausalak eta helburuzkoak, 138
- helburuzko perpausen nabardurak, 141-146
 - ___ erabilgarritasuna adierazten duten perpausak, 142-143
 - ___ helburua eta konparazio morfema batzuk, 144
 - ___ helburua ondorio gisa hartua, 143
 - ___ helburua, borondatearen aurkakoa, 143-144
 - ___ helburua, segida kronologiko hutsa, 143
 - ___ helburuzko eta baldintzezko perpausak, 144-146
 - ___ inpersonalak, 142
 - ___ subjektu bizigabea duten perpausak, 141-142
- hobe izan predikatua, 12
- honengatik, 176
- HORI DELA ETA, 169
- HORREGATIK, 169
- inferentzia bidezko erabilerak, 18
- inferentzia-erazioa kontzesio perpausetan, 216
- inplikazioa, 81, 88, 145
- iraupena, 71, 102-120
 - ___ azken muga adierazten dutenak, ezezka emanak, 118-120
 - ___ iraupenaren aurreko muga, 103-109
 - ___ iraupenaren azken muga, 109-112
 - ___ iraupenaren tarte osoa, 112-118
- iraupenaren aurreko muga
 - ___ -eNETIK, 104-106
 - ___ -eNEZ GERO, 106-109
 - ___ -eNIK ...-rA, 109
- iraupenaren azken muga, 109-112
 - ___ -eN ARTE, 109-112
- iraupenaren tarte osoa, 112-118
 - ___ -eN ARTEAN, 117
 - ___ -eN ARTEKO, 118
 - ___ -eN BITARTEAN, 114-116
 - ___ -eNO, 112-114
- IZAN DADIN ... IZAN DADIN, 265
- IZAN DADIN A, IZAN DADIN B, 229
- kausa, 81, 159, 163
- kausa betea, 165
- kausa eta *kausa-ondorio* erazioa, 15
- kausa fisikoa, 163
- kausal betea, 161, 163
- kausa-ondorio erazioa, 140, 155, 165
- kausa-ondorioa, 161
- kausa-ondoriozko erazioa, 140, 155, 165
- kausazko perpaus beteak eta azalpenezkoak, 161-165
 - ___ azalpena, 162-165
 - ___ kausa (arrazola, motiboa), 161-162
- kausazko perpausa, galdegaigunean, 172
- kausazko perpausak, 159-214
 - ___ azalpenezkoak, 161
 - ___ bamekoak, 167
 - ___ beteak eta azalpenezkoak, 161-165
 - ___ goranzko intonazioa, 166
 - ___ izaera, 159-161
 - ___ kanpokoak, 167
 - ___ kausal beteak, 161
 - ___ osatzeko moduak, 170-214
 - ___ sintaxi izaera, 165-170
- kausazko perpausak osatzeko moduak, 170-214
 - ___ BAIT-, 180-185
 - ___ -eLA ETA, 204-205
 - ___ -eLAKO((T)Z), 170-180
 - ___ -eN LEGEZ, 197-198
 - ___ -eNEZ, 192-194
 - ___ -eNEZ GERO(ZTIK), 189-192
 - ___ ETA enklitikoak, 198-203
 - ___ EZEN ... (BAIT- / -eN), 208-209
 - ___ NOLA / ZELAN ... (-eN / BAIT-), 194-197
 - ___ X DELA {BIDE/KAUSA/MEDIO...}, 205-207

___ ZEREN (ETA) ... (BAIT- / -EN), 185-189
 ___ ZERGATIK + -EN, 207-208
 ___ ZERGATIK EZEN ... (-EN), 208
 kausazko perpausen izaera
 ___ kausa, 159
 ___ kausa-ondorio jokoa, 159
 ___ ondorioa, 159
 ___ -T(Z)EAGATIK, kausala edo helburuzkoa, 160
 ___ -T(Z)EARREN kausala, 160
 kausazko perpausen sintaxi izaera, 165-170
 ___ "kanpoko" eta "barneko" perpaus kausalak, 167-169
 ___ galde-hitzak eta lokailuak, 169-170
 ___ mintzagai-/galdegaitasuna, 166-167
 ___ perpaus jokatuak eta jokatulgabeak, 165-166
 -KE atzikia, 36, 40, 42, 44
 konparazioak eta helburuzko perpausak, 143
 kontzesio perpaus aditz jokatulgabeak, 230
 kontzesio perpausak, 215-285
 ___ bestelako egitura batzuekiko antzekotasuna, 218-221
 ___ barne-hurrenkerak, 234-235
 ___ egiturak, 244-274
 ___ ezaugarri orokorrak, 225-244
 ___ kokagunea, 242
 ___ taula, 226
 ___ zer diren, 223-226
 kontzesio perpausak eta baldintza perpausak, 222-223
 kontzesio perpausak eta zenbait adberbio-perpaus, 224-225
 kontzesio perpausen ezaugarri orokorrak
 ___ aditz mola, 240-242
 ___ aditzaren elipsia, 239-240
 ___ barne-hurrenkerak, 234-235
 ___ ERE lokailua, 235-238
 ___ funtzioa, 231-233
 ___ kontzesio-gailuen metatzea, 242-244
 ___ menderagailuak, 225-231
 kontzesio perpausen kokagunea, 233-234
 kontzesio perpausen menderagailuak
 ___ aditz jokatulgabea duten moldeak, 230-231
 ___ ARREN postposiziodunak, 227
 ___ BAINA enklitikoak dutenak, 228
 ___ banakaritza, 229
 ___ datorrena datorrela gisakoak, 229
 ___ ERE lokailudunak, 228
 ___ -GATIK postposiziodunak, 228
 ___ kontzesio-gailu berezirik gabek, 230
 ___ NAHIZ (ETA) lokailua dutenak, 226-227
 ___ ZEIN ERE, ZENBAT ERE..., 229
 ___ ZERNAHI, EDOZER... izenordain zehatzgabea dutenak, 228-229
 kontzesioa adierazten duten egiturak, 244-274

___ (BALDIN) BA... ERE, baldintzazkoetan oinarrituak, 261-263
 ___ ARREN postposizioa dutenak, 250-252
 ___ BAINA enklitikoak dutenak, 253-257
 ___ banakaritza-egiturak, 265-267
 ___ beste molde batzuk, 271-274
 ___ DATORRENA DATORRELA gisakoak, 267-269
 ___ EDOZER + -eLA / -eN (ERE), 269-271
 ___ -eLA(RIK) menderagailua dutenak, 257-261
 ___ -GATIK postposizioa dutenak, 252-253
 ___ NAHIZ, 244
 ___ ZERNAHI + -eLA / -eN (ERE), 269-271
 ___ galdetzaila + ERE + BAIT-, 263-265
 kontzesio-gailuen metatzea NAHIZ-ekiko perpausetan, 247
 korrelaziozko perpaus erlatiboak eta kontzesio perpausak, 264
 LEGEZ, 197
 LEGEZ = NOLA / ZELAN ... -eN, 197
 modu
 ___ moduan, modura, 297
 modua, 82, 84
 moduzko perpausak, 287-305
 ___ aditz laguntzailearen gainean eginak, 292
 ___ aditz trinkoen gainean eginak, 291
 ___ ardatz gisa aditzondoa hartzen duten perpaus erlatiboak, 298-299
 ___ ardatz gisa izena hartzen duten perpaus erlatiboak, 295-298
 ___ arruntenak, jokatulgabeak, 287
 ___ egon, 281
 ___ -eLA eta -eLARIK atzizkidun perpausen kokapena, 293
 ___ ezaugarri orokorrak, 287-288
 ___ galdetzaille batekin hornitukoak, 299
 ___ honela, horrela, hala, 287
 ___ sasimoduzkoak, 299-300
 moduzko perpausak eta konparazioa, 299
 moduzko perpausak, ardatz gisa aditzondoa hartzen duten perpaus erlatiboak, 298-299
 ___ azalpena, 298
 ___ bezala, 298
 ___ lege, 299
 moduzko perpausak, ardatz gisa izena hartzen duten perpaus erlatiboak, 295-298
 ___ adibideak, 296-298
 ___ azalpena, 295-296
 ___ kokapen askatasun handia, 298
 ___ perpaus nagusiaren eskuinaldean (gehienetan), 298
 moduzko perpausen ezaugarri orokorrak
 ___ antz, arau, era, modu, molde, 297
 ___ ardatzik gabeko perpaus erlatiboak (bezala, lege...). 288
 ___ -eLA eta -eLARIK, 287

___galdezaile batekin osaturiko perpasak, 299
 ___sasimoduzko perpasak, 299-300
 molde
 ___moldean, moldera, 298
NAHI BADA ... -eN / -eLA, 244
nahi izan desiramenduzko predikatua, 12
nahiago izan desiramenduzko predikatua, 12
NAHIZ (ETA) + ARREN, 242
NAHIZ ... B-, 227, 244
NAHIZ ... BA- (ERE), 244
NAHIZ ... -eLA, 227, 244
NAHIZ ... -eLA / -eN, **NAHIZ** ... -eLA / -eN, 244
NAHIZ ... -eN, 226, 244
NAHIZ banakaria, 247
NAHIZ ETA ... BA, 227
NAHIZ ETA ... -TU, 244
NAHIZ ETA + BA... ERE, 243
NAHIZ helburu balioa duena, 248
NAHIZ lokailuaren bidez eratutako kontzesio perpasak, 244
NOIZ ERE, 86, 121
NOIZ ETA, 72, 77, 121
NOIZ ETA ... BAIT-, 76
NOIZ ETA ... BAIT / -eN, 85
noiz eta ... orduan, 121
NOIZ ETA ERE, 86, 121
NOLA, 194, 196, 200
NOLA ... {BAIT- / -eN}, 187
NOLA ... {-eN / BAIT-}, 169, 194
NOLA ... -eN, 193
NOLA ... HALATAN, 195
NOLA + BAIT- / -eN, 188
NOLA/ZELAN ... {-eN / BAIT-}, 194-197
 ___**NOLA**-dun perpausen hitz hurrenkera, 196-197
NOLA-dun perpausa, 196
NOLATAN, 169, 194
NON (ETA) EZ ... -eN perpasak, 21
 ondokotasuna, 71, 78, 101
 ___ -eN ONDOAN, 101
 ___ -eN OSTEAN, 101
 ondore perpasak, 15
 ondoren, 78
 ondorioa, 137, 143, 145, 156, 159, 161
ORAIN DELA, 76, 124
orduan anaforkoa, 87
osagari zuzena, 137
 predikatuen izaerak, 78
 presuposizioa kontzesio perpausetan, 216
 sasigaldegia, 174

subjektu agentea, 142
 subjektu egilea, 140
 subjuntibo indartua, 151
 subjuntibo zentzua, 153
 subjuntiboa, 151, 152
 subjuntiboa + -ENTZAT, 151
 -TU ARREN, 250
 -TUAGATIK, 252
 -TUAGATIK + ERE, aditz jokatugabeekin, 243
 -TUTA ERE, 263
 -TUZ GERO ERE, 263
 -TZAT kasu destinatiboa, 150
 X DELA {BIDE/KAUSA/MEDIO...}, 205-207
 xedea, 137, 155
 xedezko perpasak, 143
 zehar-galderak BA-perpausen bidez, 12
ZEIN (ERE) ... BAIT, 229
ZEIN (ERE) ... -eN, 229
ZEIN-erlatiboa, 85
ZELA, 206
ZELAN, 195, 197
ZENBAT aldiz -eN ... HAINBAT aldiz, 76, 90
ZER BA(DA), 169
ZER DELA ETA, 169, 204
ZER DELA ETA?, 204
ZEREN, 200, 208
ZEREN (ETA), 185
ZEREN (ETA) ... {BAIT- / -eN}, 185
ZEREN ... {BAIT- / -eN}, 186
ZEREN ... {BAIT- / -eN} perpaus nagusiaren ezker aldean, 187-189
ZEREN ... {BAIT- / -eN}, kausal beteetan eta azalpenetan, 186-187
ZEREN ... {-eN / BAIT-}, 186-187
ZEREN ... -eN, 186-187
ZEREN ... -eN / BAIT-, 207
ZEREN + EZEN + ... BAIT-, 209
ZEREN -eN, 186
ZEREN -eN / BAIT-, 208
ZEREN EZEN, 185
ZERENDAKO, 169
ZERGATIK + -eN, 207-208
ZERGATIK EZEN ... {-eN}, 208
ZERGATIK, 148, 172, 186, 192, 199, 204
ZERNAHI (ERE) ... -eLA, 229
ZERNAHI (ERE) ... -eN, 228
ZERNAHI + -eLA / -eN (ERE), 269
ZERTA(RA)KO, 146
ZERTAKO, 146, 169
ZERTARA, 146

"Gramatikak" bilduman argitaratutako zerrenda

1. *Euskal Gramatika:
Lehen Urratsak - I (1985)*
2. *Euskal Gramatika:
Lehen Urratsak - I (Eraskina) (1987)*
3. *Euskal Gramatika:
Lehen Urratsak - II (1987)*
4. *Euskal Gramatika:
Lehen Urratsak - I-II (Gai aurkibidea)
(1988)*
5. *Euskal Gramatika:
Lehen Urratsak - I
(eranskina eta gai aurkibidea
bilduz) (1991)*
6. *Euskal Gramatika:
Lehen Urratsak - III (Lokailuak) (1990)*
7. *Euskal Gramatika Laburra:
Perpauk Bakuna (1993)*
8. *Euskal Gramatika:
Lehen Urratsak - IV
(Juntagailuak) (1994)*
9. *Euskal Gramatika:
Lehen Urratsak - V
(Mendeko perpauk - 1) (1999)*
10. *Euskal Gramatika:
Lehen Urratsak - VI
(Mendeko perpauk - 2) (2005)*
11. *Euskal Gramatika:
Lehen Urratsak - VII
(Mendeko perpauk - 3) (prestatzen)*



EUSKALTZAINDIA

